Jakintza-arloa: Kirola

Mendi zeharkaldi, aerobic eta futbolaren etnomotrizitateak

Egilea: **ASIER OIARBIDE GOIKOETXEA**

Urtea: 2010

Zuzendaria: JOSEBA ETXEBESTE OTEGI

Unibertsitatea: UPV/EHU

ISBN: 978-84-8438-497-7

Hitzaurrea

2010eko martxoaren 22an defendatu zen tesi hau sei urteren buruan egindako ikerlana da. Hasiera 2004an izan zuen Ikasketa Aurreratuen Ziurtagiria lortzeko egindako lanarekin. Sei urte beraz; urte asko eta gutxi aukeratu nuen gaia lantzeko. Baina jadanik ikerketa munduan jarduten duen edonork dakien bezala, afektibotasunak eragin handia du ikerlanaren aukeraketa eta bilakaeran; horrela ez balitz, nola jasan bide horretan gertatzen diren buruhauste, krisialdi eta nekeak?

Mendi jarduerak betidanik gustukoak izan ditut eta beraietan partekatu izan ditudan sentimenduak bereziak irudi zaizkit. Hezkuntza Fisikoan lizentziatura lorturik eta kirol praktika bakoitzak egitura propio bat zuela jakiteak, nire buruan hipotesi bat sortzera eraman ninduen: zer ote dute mendi ibilaldiek partaideen artean lotura afektibo indartsuak sortzeko? Bertan sortzen ziren harremanak bereziak zirelakoan nengoen eta kirol praktika desberdinetan sortzen ziren erlazioak beraien egiturekin zerikusia zutelakoan.

Ikertzen hasteko arra buruan neukala iritsi nintzen Kirola eta Hezkuntza Fisikoa Doktorego programako bigarren urtera eta ikasketa Aurreratuen Ziurtagiria lortzeko nahiak mendi zeharkaldiei buruz ikerketa bat egitera bultzatu ninduen. Gauzak horrela 2004an ekin nion mendi zeharkaldia ikertzeari eta Ikasketa Aurreratuen Ziurtagiria izan zen ikerketa munduan murgiltzeko abiapuntua.

Mendi zeharkaldiak ikertzeko metodorik egokiena behaketa parte-hartzailea jo genuen. Behaketa parte-hartzaileak behatzen diren pertsonekin egon eta ingurura egokitzea eskatzen du gertaerak behatu eta oharrak bilduz; azkenik datu horiek interpretatuz memoria bat egiteko. Horrela egin nuen etorkizunerako ildoa bideratuz.

Mendi zeharkaldi batean gertatzen zena ikerturik egitura guztiz desberdina zuten beste bi praktika motorretan berdina egitea erabaki nuen ea egitura desberdina izanik eredu sozial desberdinak bultzatzen ote zituzten ikertzeko. Aukeratu nituen praktikak futbola eta aerobica izan ziren. Edonor ohartu daitekeen bezala hiru praktikak ez dute zerikusik ez maila instituzionalean ez egituran eta ezta ere parte hartzaileen ezaugarrietan. Hori egiten zitzaidan erakargarri. Baina horrek esfortzu handia eskatzen zidan hasieran aukeratutako metodoa jarraituz bietan behaketa parte-hartzaile bidez praktikan gertatzen zena behatu beharra bait neukan.

Aurrera jo eta inoiz aerobic egin gabe aerobiceko hiru taldeetan sartu nintzen azkenean astean zazpi saio egitera iritsiz. Niretzako mundu berri baten erakuts leihoa izan zen. Ondoren futbola etorri zen eta ildoari jarraiki futbol talde baten prestatzaile fisiko laguntzaile rola hartu nuen bertan gertatzen zena behatzeko.

Behin behaketak amaituta bakoitzean egindako memoriak bateratzea eta datuen interpretazioa etorri zen: kirolari izatetik eskribau izatera. Lan neketsua eta pazientziaz betea baina emaitza gozokoa, tesiaren amaiera ekarri bait zuen.

Prozesu guzti horrek sei urte iraun ditu eta ohartu naiz aldatu naizela. Tesi lanak, hezurren muinetaraino sartu eta eragina izan du niregan; hala bedi; nik uste bait dut gizartea hobeto ulertzeko lagungarri suertatu zaidala eman dudan eraldaketa hori. Nagusiki kirol praktika desberdinek pertsonen eraikuntza sozialean duten eragina ulertzeko.

Nire nahi xumea irakurlea hiru kirol mikrosozietatetan barneratzea da; bakoitzean sortzen diren elkarrekintzak ohartarazi gabe aztertzea. Kirol praktikek eta soin hezkuntzak gizarte eraikuntzan duten eraginari buruz hausnarketa egitea. Horrela bada bejondeiola!

Asier Oiarbide
2013

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIEN FAKULTATEA
GORPUTZ ETA KIROL HEZKUNTZAKO SAILA

MENDI ZEHARKALDI, AEROBIC ETA FUTBOLAREN ETNOMOTRIZITATEAK

DOKTOREGO TESIA

ASIER OIARBIDE GOIKOETXEA

Vitoria-Gasteiz, 2009

Eskerronak

Nire eskerrik beroenak,

Joseba Etxebeste nire zuzendariari, nigan konfidantza izateagatik. Ikerketa bidea erakutsiz, eman dizkidan gomendio, laguntza eta adiskidetasunagatik. Nolakoa naizenaren ezagutza berari zor diot.

Javi Ruiz de Arkaute eta Raul Martinez de Santos irakasle kideei nireganako ardura laguntza bihurtzeagatik.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateari, Gorputz eta Kirol Hezkuntzako Sailari eta EHUko Ekintza Motorraren Behaketako laborategiari, lan hau egiten lagundu eta erraztu didatelako.

Mendiko zeharkaldietan nire kide izan diren guztiei, bereziki Triki, Agus eta Joseri, une ahaztezinak partekatzeaz gain lan hau amaitzeko adiskidetasuna indar bilakatu delako.

Mikel Urdangarini, Estadio Fundazioan eginiko aerobiceko saioen behaketa posible egiteagatik.

Aerobiceko kide guztiei eta, bereziki, Esti eta Oihanari, nire lotsa, beldur eta kezka guztiek gainditzen laguntzeagatik.

Ordizia Kirol Elkarteko futbol sailari eta 2006-2007 denboraldian Gipuzkoako Gorengo Mailako txapelketa jokatu zuen futbol taldeko partaide ziren guztiei, eskuzabalik onartzeaz gain lan hau egiteko emandako erraztasunengatik.

Esti, Amaia eta Clarari, eskainitako berotasunez nire garraztasun, kezka eta tristurak lausotzeagatik.

Arkaitz Arruabarrenari, egindako zuzenketa eta emandako gomendioengatik.

Patxi Zabaletari lan hau txukuntzen erakutsi eta laguntzeagatik.

Nire familia guztiari eta, bereziki nire gurasoei, nire bidea errespetatu eta egiten lagundu didatelako. Beraiek gabe hau ezinezkoa izango zen.

Hemen agertzen ez diren guztiei, baina batean eta bestean lagundu didatenei.

Aurkibidea

Hitzaurrea **17**
1. kapitulua Marko teorikoa **23**
1.1 Etnomotrizitatea: ikuspuntu berria ekintza motorren etnografian 23
1.2 Etnomotrizitatearen eta kirol soziologiaren elementuak 32
1.3 Jarduera motorren modelizazioa eta giza testuingurua 37
1.3.1 Unibertsalen erabileraren bilakaera 39
1.3.2 Jarduera motorren korpusak 41
1.3.3 Barne logika eta testuingurunearen arteko lotura 42
2. kapitulua Metodologia **45**
2.1 Ikerketaren helburuak eta justifikazioa 45
2.2 Ikerketaren metodologia eta deontologia 47
2.2.1 Korpusaren aukeraketa 47
2.2.2 Informazioaren bilketa eta tratamendua 49
2.3 Landa lanak eta mendi zeharkaldi, aerobic eta futbolaren monografiak 54
2.3.1 Mendi zeharkaldiaren etnomotrizitatearen garapena 58
2.3.2 Gimnasia-aerobicaren etnomotrizitatearen garapena 63
2.3.3 Futbolaren etnomotrizitatearen garapena 67
3. kapitulua Euskal Autonomi Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko testuinguru politiko ekonomiko geografikoa **73**
3.1 Ezaugarri politiko administratiboak 73
3.1.1 Euskal Autonomi Erkidegoko eta Nafarroako kirol eskumenak 74
3.2 Biztanleria eta kokapen geografikoa 75
3.2.1 Euskal Autonomi Erkidegoa 75
3.2.2 Nafarroako Foru Erkidegoa 75
3.3 Ekonomiaren oinarrizko zifrak 76
3.3.1 Euskal Autonomi Erkidegoa 76
3.3.2 Nafarroako Foru Erkidegoa 77
4. kapitulua Euskal gizartean kirol testuingurua **79**
4.1 Gizartean kirol praktikek duten presentzia 81
4.1.1 Gizartean kirol jarduerak egiten dituztela esaten dutenak 81
4.1.2 Kirol praktika federatuen lizentzia kopurua 83
4.2 Kirol praktika desberdinetan parte-hartzea 85
4.2.1 Parte-hartzaileen adierazpenen arabera 85
4.2.2 Federazio lizentziak kirol jardueretan 87
4.2.3 Kirol praktiken eremu praktikoa 89
4.2.4 Sexu generoa eta kirol praktiketan partehartzea 90
4.3 Kirol elkarteen presentzia 94
4.3.1 Kirol praktikak egiten diren guneak 95
5. kapitulua Kirol praktiken kokapen historiko soziala **97**
5.1 Mendizaletasuna 99

5.2 Futbola ... 103
5.3 Aerobica ... 107
6. kapitulua Mendizaleen istorioak ... 111
Aurkezpenak. Iruña - Banyuls, autobusez ... 111
Haizea. Banyuls - Font Tanyarede ... 113
Zibilizazio inguruan. Font Tanyarede - Les Illes ... 116
Perretxikoak. Les Illes - Arles sur Tech ... 118
Pirinioak. Arles sur Tech - Cortalets ... 121
Canigou. Cortalets - Mariailles ... 123
Lainoa. Mariailles - Vallter2000 ... 126
Agurra. Vallter2000 - Iruña, autobusez ... 130
7. kapitulua Mendi zeharkaldiaren azterketa ... 131
7.1 Mendi zeharkaldiko espazioaren zentzua ... 131
7.1.1 Ezaugarri geografikoak ... 132
7.1.2 Ezaugarri topografikoak ... 133
7.1.3 Mendizalea ingurunean ... 135
7.1.4 Zeharkaldiko azpi esparruak ... 140
7.1.5 Eguraldiaren eragina mendi zeharkaldietako ingurunean ... 143
7.2 Zeharkaldiko denbora eta bere erabilpena ... 146
7.2.1 Zeharkaldiak eta urtaroa ... 146
7.2.2 Zeharkaldiaren hasiera, amaiera eta iraupena ... 147
7.2.3 Mendizalea eta denbora ... 148
7.2.4 Eguraldiaren eragina denboran ... 155
7.3 Zeharkaldiko partehartzaileen arteko harremanak ... 158
7.3.1 Partehartzaileen rolak ... 158
7.3.2 Ibiltarien arteko komunikazio motorra ... 167
7.3.3 Kanpadenda taldeak ... 169
7.3.4 Zeharkaldiko hizkuntza eta elkarrizketak ... 170
7.3.5 Eguraldia eta bere eragina harremanetan ... 173
7.4 Mendi zeharkaldian materiala eta objetuak ... 175
7.4.1 Antolatzaileen baldintzak eta gomendioak ... 175
7.4.2 Zeharkaldiko materiala ... 175
7.5 Mendi zeharkaldiaren sintesia ... 178
8. kapitulua Emakume artean koreografiak dantzatzen ... 183
Hitzaurrea ... 183
Lehen eguna ... 186
Irakasle dantzaria ... 189
Ordizia, hiru saio gehiago ... 190
Irakasle profesionala ... 191
Aurreratzen ... 192
Ariznabarra, hirugarren taldea; zazpi saio astean ... 192
Jardunarekin disfrutatzen ... 193
Barreak eta elkarrizketak ... 194

Multzoan dantzatzen....195
Norberak bere tokia....196
Musikaren bolumena....197
Saioaren azken zatia....197
Aerobicaren gogortasuna eta esfortzua....198
Irakaslearen desesperazioa....199
Dibertigarria eta motibagarria....199
Parte-hartzaile asko espazio gutxiago....200
Isiltasuna....200
Stepa partekatzen....201
Aerobiceko lehiaketa: aerobiton....202
Irakasle berria....203
Denboraldiaren amaiera....204
Ikaslea izatetik irakasle izatera....204
9. kapitulua Aerobicaren azterketa....207
9.1 Sarrera....207
9.2 Aerobicaren espazioaren azterketa....208
9.2.1 Aretoen ezaugarriak....208
9.2.2 Aerobic guneak eta kiroldegien kokapena....211
9.2.3 Kiroldegien instalakuntzak....213
9.2.4 Atseden hartzeko lekuak....215
9.2.5 Aerobic aretoetan egiten diren beste jarduerak....215
9.2.6 Dantza pausoak....217
9.2.7 Partehartzaileen kokapena....219
9.2.8 Aretoaren izaera espaziala....222
9.3 Aerobiceko denbora....223
9.3.1 Aerobic denboraldia....223
9.3.2 Saioen maiztasuna eta egunak....224
9.3.3 Aerobic saioen ordutegiak....225
9.3.4 Irakasleen aerobic egutegi eta ordutegia....229
9.3.5 Aerobiceko saioaren iraupena....230
9.3.6 Denboraldiko ordu kopurua....230
9.3.7 Musikaren denbora....231
9.3.8 Dantza pausoen denbora....232
9.3.9 Musikaren abiadura....233
9.3.10 Aerobic saioetan puntuazio eta irabazle eza....234
9.3.11 Hasiera eta amaiera....235
9.3.12 Saioaren atalen iraupena....236
9.3.13 Aerobicaren denbora zentzuaren ezaugarri nagusiak....236
9.4 Aerobiceko harremanak....238
9.4.1 Aerobiceko parte-hartzaileen ezaugarriak....238
9.4.2 Rolak....243
9.4.3 Komunikazio motorra....245

9.4.4 Komunikazio motorra eta plano aldaketa 248
9.4.5 Bakarkako elkarrekintza eremua..... 249
9.4.6 Parte-hartzaile kopurua eta dantza pausoen tamaina 252
9.4.7 Aerobic jardulea eta esfortzua 252
9.4.8 Partaideen arteko errespetua 253
9.4.9 Irakasle aldaketa 254
9.4.10 Dantza pausoen didaktika..... 254
9.4.11 Saioaren atalak..... 257
9.4.12 Aerobic inskripzioa eta ordainketa 258
9.4.13 Autoritatea 259
9.4.14 Hitzezko komunikazioa 260
9.4.15 Seme alabak saioetan 262
9.4.16 Harremanen zentzua 263
9.5 Aerobicean ematen den objektuekiko erlazioa 264
9.5.1 Musika irakurgailua..... 264
9.5.2 Ispilua 265
9.5.3 “Step” 266
9.5.4 Burdinak 267
9.5.5 Koltxoi edo alfonbrak 268
9.5.6 Arropak..... 268
9.5.7 Edaria 269
9.5.8 Ordularia..... 269
9.5.9 Termometroa 270
9.5.10 Horma-barrak 270
9.5.11 Armairuak 270
9.5.12 Segurtasunezko kamerak 270
9.5.13 Aerobiceko objektuak, ezaugarriak eta partehartzaileekiko erlazioa..... 271
9.6 Aerobica laburbilduz 272
10. kapitulua Futbola: lagun talde bat beste baten aurka 277
Aurkezpena 277
Astearteko entrenamendua 278
Liderraren bisita 283
Beteranoa 294
Asteazkeneko entrenamendua..... 295
Ardura eta konpromisoa 298
Kanpokoak 300
Dirua eta betebeharra 304
Angelen haserrea..... 305
Denboraldi luzea 309
Angelen azken partida eta gonbitea 310
Denboraldia amaitu da 313
11. kapitulua Futbolaren azterketa..... 315

11.1 Sarrera 315
11.2 Txapelketa: Gipuzkoako Gorengo Mailakoa.....317
11.2.1 Txapelketako eremu geografiko eta demografikoa 317
11.2.2 Txapelketako egutegia 321
11.2.3 Gipuzkoako Gorengo Maila eta ezaugarriak.....322
11.2.4 Txapelketako sailkapena.....323
11.2.5 Txapelketako azken sailkapenak ematen dituen eskubide eta betebeharrak 326
11.2.6 Txapelketako ekipamendua 327
11.3 Futboleko espazioaren azterketa 329
11.3.1 Txapelketako partidetako espazioak 329
11.3.2 Entrenamenduetako espazio motak 355
11.3.3 Partidetako espazioa eta entrenamenduetako espazioa 359
11.4 Futboleko denbora.....362
11.4.1 Partiden egunak.....362
11.4.2 Entrenamenduen egunak 363
11.4.3 Partiden ordutegia.....363
11.4.4 Entrenamenduen ordutegia.....366
11.4.5 Partiden iraupena.....367
11.4.6 Entrenamenduen iraupena.....369
11.4.7 Denboraldiko ordu kopurua 371
11.4.8 Puntuazio sistema.....374
11.4.9 Partiden egutegia.....378
11.4.10 Entrenamenduen egutegia 379
11.4.11 Futboleko denbora: memoria eta irabazledun partidak aste bukaeratan, memoria eta irabazlerik gabeko entrenamenduak astegunetan.....380
11.5 Jokalarien arteko harremanak.....382
11.5.1 Futbolean aritzeko lizentziak 382
11.5.2 Futbol lizentzien eskubide eta betebeharrak 383
11.5.3 Taldea eta jokalariak 386
11.5.4 Jokalari kopurua.....387
11.5.5 Txapelketako partidetan futbolaria zelaian 390
11.5.6 Rolak.....392
11.5.7 Rolen arteko erlazioak 410
11.5.8 Joko arau hausteen ondoriozko zigorrak.....416
11.5.9 Praktikako gertakizunen idatzia.....417
11.5.10 Komunikazio motorra 419
11.5.11 Markako elkarrekintza 422
11.5.12 Kargako distantzia eta lesioak.....426
11.5.13 Talde identitatea 427
11.5.14 Partidetan eta entrenamenduetan erabiltzen den hizkuntza 428

11.5.15 Futboleko harremanak: talde duelua partidetan, egitura anitzetako jarduerak entrenamenduetan 429
11.6 Futboleko objektuak 431
11.6.1 Baloia 431
11.6.2 Ekipamendua 434
11.6.3 Objektuekiko harremana futbolean: baloi eta ekipamendu arautuak partidetan eta arautu gabeak prestatze saioetan 441
11.7 Futbola laburtuz 443
12. kapitulua Mendi zeharkaldia, aerobica, futbola eta euskal gizartea 449
12.1 Askotatik bakarrera: hiru kirol praktika gizarte batean 449
12.1.1 Gaur egungo aisi eremua: mundua jolastoki 451
12.1.2 Opor eta lan garaiak: praktika fisikoak egiteko une aproposak 455
12.1.3 Jarduleen arteko harremanak: gu besteen aurka eta gu elkarrekin 457
12.1.4 Gizarte kontsumista: objektuz beteriko jarduerak 459
12.1.5 Orokortasunean bereizten diren ildoak 461
12.1.6 Esanahi anitz dituen kirol fenomenoa 465
12.2 Kiroletik kirolarira: sistematik aktorera 468
12.2.1 Kirolari rol soziala 469
12.2.2 Errendimenduko kirolariaren eta aisialdiko kirolariaren rola 470
12.2.3 Futbolariaren, aerobic jardulearen eta mendizalearen rola 472
Bibliografia 475

Irudien aurkibidea

Irudia 1: Pierre Parlebasen egoera motorren sailkapena S_3 batez irudikatua. 35
Irudia 2: kirolaren praktika portzentaia espainiar estatuko Erkidegoetan 81
Irudia 3: Espainiar estatuko erkidegoetan BPG, erosteko ahalmenean Europar Batasuneko batez bestea 82
Irudia 4: espainiar estatuko Erkidego bakoitzeko biztanleriaren araberako federatu lizentzien portzentaia 84
Irudia 5: kirol praktika praktikatuenak espainiar estatuan 85
Irudia 6: EAEn kirol jarduera praktikatuenak 86
Irudia 7: espainiako estatuan kirol jarduera bakoitzak dituen federatu lizentzien portzentaia 87
Irudia 8: EAEn kirol praktika modalitate bakoitzaren federatu lizentzia portzentaia 88
Irudia 9: Nafarroan, kirol praktika modalitate bakoitzaren federatu lizentzia portzentaia...89
Irudia 10: kirol praktiken praktika eremua.....90
Irudia 11: gehien praktikatzen diren kirol praktikak sexu generoaren arabera 91
Irudia 12: praktika eremua eta sexu generoaren araberako hautaketa.....92
Irudia 13: kirol elkarte batetako kide diren herritarren portzentaia 94
Irudia 14: kirol pratikak egiten diren guneak EAEn.....95
Irudia 15: Mariallestik Vallterera sapalda zabaletan barrena 127
Irudia 16: zeharkaldiko perfila 134
Irudia 17: Canigouko eskuak erabili beharreko pasabidea 139
Irudia 18: lo guneak eta perfila.....141
Irudia 19: geldialdien guneak 155
Irudia 20: mendizale taldea komunikazio motorraren bidez lotuta 168
Irudia 21: antolatzaileek emandako zeharkaldiko mapa 176
Irudia 22: Majoriko Aretoa 208
Irudia 23: Estadio eta Ariznabarra kiroldegien kokapena Gasteizen.....212
Irudia 24: Ordiziako kiroldegiaren kokapena 213
Irudia 25: “V” dantza pausoa ezker aldera egina 219
Irudia 26: partehartzaileek aretoan hartzen duten kokapena.....222
Irudia 27: irakasle eta ikasleen arteko komunikazio motorra 246
Irudia 28: ikasleen artean ematen den komunikazio motorra 247
Irudia 29: egitura desberdinetan komunikazio motorra.....249
Irudia 30: Majoriko musika irakurgailua.....265
Irudia 31: Anaitasunaren aurka Txerloian.....311
Irudia 32: atearen azpi eremua 332
Irudia 33: zelaiko marrak eta izenak.....337
Irudia 34: zelaiaren neurriak.....337
Irudia 35: banderatxoa 338
Irudia 36: zelaietako aldagelak eta kokapena 353

Irudia 37: Gipuzkoa eta Gorengo Mailako taldeen herriak 319
Irudia 38: aldaketa baten bidez Ordiziako ordezko bat zelaiara 396
Irudia 39: jokalariak “rondo” bat jokatzen 407

Taulen aurkibidea

Taula 1: ezaugarri topografikoak....133
Taula 2: zeharkaldiko ibilbideak, luzerak eta ehunekoak....136
Taula 3: ibilbideko lo guneak....140
Taula 4: jaikitzeko, irteerako eta amaierako ordutegia....149
Taula 5: Anaitasunak kalkulatutako oinezko orduak....151
Taula 6: zeharkaldiko oinezko orduak eta abiadura....151
Taula 7: geldialdi kopurua eta iraupena (bazkaria barne)....154
Taula 8: rol profesionalen ezaugarriak....160
Taula 9: bezero mendizaleen ezaugarriak....164
Taula 10: aretoen ezaugarriak....211
Taula 11: lurralde eremuaren ezaugarriak....212
Taula 12: kiroldegien instalakuntzak....214
Taula 13: aerobic egiten den areto berean egiten diren praktika fisikoak....216
Taula 14: oinarrizko dantza pausoak....218
Taula 15: aerobic taldearen kokapen irizpideak....220
Taula 16: jardule ikasle bakoitzaren kokapen irizpideak....221
Taula 17: aerobic egutegia, maiztasuna eta egunak....224
Taula 18: aerobic saioen maiztasuna, egunak eta ordutegiak....227
Taula 19: aerobic eskaintzaren ordutegi, egun eta maiztasunaren ezaugarriak....228
Taula 20: aerobic taldeen egunak eta ordutegiak....228
Taula 21: Ariznabarra eta Estadioko begiralearen asteko ordutegia....229
Taula 22: begiraleen saio kopurua eta egunak....230
Taula 23: saioaren iraupen ofiziala eta praktikoa....230
Taula 24: denboraldiko ordu kopurua....231
Taula 25: aerobiceko musikaren denbora....232
Taula 26: taldeak eta musikaren denbora....232
Taula 27: dantza pausoak eta bakoitzaren soinu edo "beats" kopurua....233
Taula 28: irakasle-begiraleen ezaugarriak....241
Taula 29: aerobic taldeen ezaugarriak....242
Taula 30: aerobic rolak eta beraien eskubide eta betebeharrak....245
Taula 31: aerobicean komunikazio motorra....248
Taula 32: bakarkako elkarrekintza eremua....250
Taula 33: partehartzaileen araberako bakarkako elkarrekintza eremua....251
Taula 34: dantza pauso eta koreografiaren didaktika....256
Taula 35: aerobic partehartzaileen diru ordainketa....259
Taula 36: aerobiceko arropa eta ezaugarriak....269
Taula 37: 2006-2007 denboraldiko Gorengo Mailako Txapelketaren egutegia....321
Taula 38: Gorengo Mailako txapelketa sistemaren ezaugarriak....322

Taula 39: sailkapen mota eta osatzeko modua 323
Taula 40: azken sailkapenean berdinketa hausteko irizpideak 324
Taula 41: 2006-2007 denboraldiko Gorengo Mailako azken sailkapena 325
Taula 42: azpi eremuak eta tamaina 334
Taula 43: jokoa etenik gorde beharreko eremuak 341
Taula 44: baloia jokoan dagoenean mugatuta dauden espazioak 343
Taula 45: Gorengo Mailako taldeak eta zelaien izena eta zoru mota 345
Taula 46: zelaien izaera 346
Taula 47: futbol joko zelaiek bete behar dituzten baldintzak 347
Taula 48: Gorengo Mailako zelaien neurri handienak txikienak eta Ordiziakoarenak 347
Taula 49: 2006-2007 denboraldiko Gipuzkoako Gorengo Mailako zelaien tamaina 348
Taula 50: Gorengo Mailako zelaien ezaugarriak 349
Taula 51: Gorengo Mailako azpi eremuen eta zalaien azaleraren arteko erlazioa 350
Taula 52: zelai inguruko eremuak eta ezaugarriak 353
Taula 53: txapelketako herri kopurua eta biztanleak 320
Taula 54: txapelketan parte hartzen duten taldeen herrietako biztanleak 320
Taula 55: entrenamendu guneak eta ezaugarriak 359
Taula 56: partida egunak bigarren itzulian 362
Taula 57: partidak jokatzeko GFFak zehaztutako ordutegi ofiziala 364
Taula 58: behatutako partiden ordutegia, gunea eta eguna 365
Taula 59: entrenamendu egunak eta ordutegia 367
Taula 60: partidek dituzten iraupen eta denbora gehitzeak 368
Taula 61: entrenamenduko espazio mota, jarduerak eta iraupena 370
Taula 62: kanpora egiten diren desplazamenduak eta iraupena 372
Taula 63: partidetan emandako denbora 373
Taula 64: entrenamenduko ordu kopurua 373
Taula 65: denboraldiko ordu, entrenamendu eta partida kopurua 374
Taula 66: Ordiziak jokatu dituen partiden ezaugarriak 375
Taula 67: Ordiziak txapelketan ateratako emaitzak 376
Taula 68: Ordiziak jokatu dituen partiden emaitzak 377
Taula 69: partiden egutegia 379
Taula 70: entrenamenduen denboraldia 380
Taula 71: futbol lizentzien jabeek dituzten eskubide eta betebeharrak 385
Taula 72: afizionatu mailako taldearen osaketa 386
Taula 73: entrenamenduetako taldea 387
Taula 74: partidetako jokalari kopurua 388
Taula 75: entrenamenduak eta jokalari kopurua 389
Taula 76: Gorengo Mailako zelaiak eta bakarkako elkarrekintza eremua 391
Taula 77: partidetako rolak eta beraien eskubide eta betebeharrak 403
Taula 78: entrenamenduetako rolak eta beraien eskubide eta betebeharrak 409

Taula 79: akta; gertakizunen idatzia.....418
Taula 80: Gorengo Mailako taldeen markako elkarrekintzak (golak) 423
Taula 81: puntuen eta markako elkarrekintzen araberako sailkapenak 424
Taula 82: baloiaren ezaugarriak eta erabilpena partidetan.....432
Taula 83: baloiaren ezaugarriak eta erabilpena entrenamenduetan.....433

Hitzaurrea

Orrialde hauek kirol praktiketatik abiatuz gizartea aztertu asmoz eginiko zeharkaldiaren urratsak dira; etnomotrizitatean errotutako ibilbide luzea. Bost urtetan buruturiko bide hori hiru kirol etapez osatua dago eta bakoitza ikerlari batek eginikoa da: ibilbidea Pirinioetako bidezidor, tontor eta sapaldetan barrena hasten da, ikerlari hasiberriaren kezka eta arazoekin. Ondoren kiroldegietako aretoetako musikaren danbatekoak dira hezten ari den zientzialariaren gune eta azkenik, futbol zelaiak dira aurrez jasotako ezagutza eta esperientzia duen ikerlariaren kokaleku.

Mendi zeharkaldia, aerobica eta futbola gure gizartean praktikatzen diren hiru kirol praktika direnez, abegi duten kulturaren ezaugarriak arakatzea da gure nahia. Praktiketatik abiatuz eraiki kultural hori aztertuz gizartea hobeto ulertzeko saiakera bat da ikerketa hau.

Pierre Parlebasek ireki zuen ikuspuntu berri horretatik kirol praktikak aztertzean hezkuntzan, aisian eta errendimenduan egiten diren praktika ludikoei buruzko jakintza areagotzeko asmoa du lan honek. Bide berri honen oinarria kirol

praktikek dituzten araudi eta testuinguru sozialaren azterketa da; gizarte edo kulturak kirol praktikekin duten erlazioari etnomotrizitatea deituz. Ikerlan hau jakintza arlo horretan kokatzen da.

Ikerlana hamabi kapituluz osatutako bost ataletan banatzen da. Lehenengo atalean ikerketa kokatzen den marko teorikoa, metodologia eta testuinguru soziala azaltzen dira. Bigarrenean, mendi zeharkaldiaren etnomotrizitatea; hirugarrenean aerobicaren etnomotrizitatea; laugarrenean futbolarena eta bosgarren eta azkenekoan hiru etnomotrizitateen azterketa konparatu bat euskal gizartean.

Lehenengo atala bost kapitulutan banatzen da. Lehenengo bietan ikerketaren marko teorikoa eta metodologia aipatzen dira. Etnomotrizitatearen arloan aurrez egin diren lanen azalpena, ikuspuntu berritzaile horrek beharrezko dituen elementuen aipamenarekin lagundurik doa. Metodoaren barrenean, erabili den behaketa partehartzailearekin batera praktiketarako egokitzapena azaltzen da.

Hirugarren eta laugarren kapituluetan bi arlotan banaturik ikerketa kokatzen den testuinguru soziala aztertzen da: batetik testuinguru ekonomiko-politikoa eta bestetik kirol testuingurua. Horietako bakoitzean euskal gizarteak dituen ezaugarriak aipatzen dira.

Bosgarren kapituluan mendi zeharkaldien, aerobicaren eta futbolaren historia soziala deskribatzen da. Praktika horietako bakoitzak sortu zirenetik gaur arte izan duen bilakaera soziala.

Bigarren atala, mendi zeharkaldiaren etnomotrizitateari buruzkoa da. Azterketa, bi kapitulutako, seigarrena eta zazpigarrena, bi zatitan banatuta dago: batetik praktikan gertaturikoaren kontakizuna eta bestetik analisia. Kontakizunean, parte hartzaileen bizipenak kontatzen dira irakurlea testuinguru horretara barneratzeko asmoz. Analisian berriz, mendi zeharkaldiaren azterketa sakona egiten da zeharkaldiak dituen espazio, denbora, harreman eta objektuen zentzuak analizatuz eta bakoitzaren ezaugarriak azaleratuz.

Aerobicari eta futbolari dagozkien hirugarren eta laugarren atala mendi zeharkaldien egitura berdinean azaltzen dira, bakoitza bina kapitulutan banatuz: kontakizunean eta analisian eta azken hau espazioa, denbora, harremanak eta objektuak kontutan hartuaz garatuz. Aerobicaren kasuan zortzigarren eta

bederatzigarren kapituluak dira eta futbolaren kasuan hamargarren eta hamaikagarrenak.

Azken atala kapitulu batek osatzen du, hamabigarrenak, eta aurrez aztertu diren hiru etnomotrizitateen bateratze bat egiten da, praktiken azterketaren ondoren azaleratu diren ezaugarriak eta euskal gizartean bultzatzen dituzten eraiki kulturalak komentatzen direlarik. Ikerlana, erabili diren erreferentzia bibliografikoak aipatuz amaitzen da.

I. ATALA: MARKO TEORIKOA, METODOLOGIA ETA EUSKAL GIZARTEAREN ETA KIROL PRAKTIKEN TESTUINGURU SOZIALA

1. kapitulua **Marko teorikoa**

1.1 Etnomotrizitatea: ikuspuntu berria ekintza motorren etnografian

Marcel Mauss izan zen jarduera motorrei buruzko ikerketan lehen urratsa eman zuena. Frantziar antropologiaren aitzindari izan zenak, 1934eko maiatzaren 17an Société de Psychologien egin zuen hitzaldian, “gorputz teknika” terminoa honela definitu zuen: “pertsonek gizartez gizarte beraien gorputza erabiltzeko dituzten modu tradizionalak” (Mauss eta Lévi-Strauss, 1991, 336). Gorputz teknikak aldatu egiten dira kultura batetik bestera. Garai batean norberaren etxean emaginak lagundurik jaiotzen ginen eta gaur egun berriz monitore eta konputagailuak erabiltzen dituzten ospitaleetan; erditze haiek ez dute gaur egungo erditze higienistekin zerikusirik. Oinez ibiltzea eta korrika egitea ere, nahiz eta sarritan “naturaltzat” jo, kulturak zuzentzen ditu. Japonian Meiji aroan, oinez ibiltzeko eta desplazatzeko moduak aldatu egin zituzten. Japonia mendebaldera irekitzean ibiltzeko modua ere mendebalde-tu egin zen. Masahiro Inagaki

irakasleak gai horri buruz hitz egitean zera dio: ""namba"[1] izeneko modutik "kontrako bira"[2] izenekora aldatu zen, azken hau eskoletan irakatsiz. Aldaketa horrekin tradizioan oinarritutako ibiltzeko modua alde batera uzten da eta guztiz berria den europar estiloko ibiltzeko modua onartzen da -frantziar ejertzitoak desfilatzeko duen modua-" (Inagaki, 2007). Mendebaldeko eran oinez ibiltzea modernitatearen zeinu bihurtzen da Japonian. Maussek gorputz teknikak adin sozialen arabera sailkatzen ditu haurtzaroari, nerabezaroari eta heldutasunari teknika batzuk egokituz; eta ez du inolako desberdintasunik egiten egunerokoak edo lan egoerakoak eta joko-jolas edo aisiarenak diren tekniken artean. Guretzako bere lanean aurkitzen den atalik interesgarriena "mugimendu eta jardueren teknikak" bezala adierazitakoa da: martxa, karrera, dantza, jauzia, gora egite eta jaitsierari dagokiona. Teknika horietan egunerokoak eta "gimnastikoak" diren adibideak nahasten ditu. Oinarria finkatu da, zientzia problematika berri bat plazaratu da. Jarduera motorrak fenomeno kulturalak dira, mugitzen ikasi egiten da.

Maussek gorputz teknikak eta teknika instrumentalak aurrez aurre ezartzen ditu "teknika instrumentalak baino lehen gorputz tekniken multzoa" (Mauss eta Lévi-Strauss, 1991, 342) dagoela adieraziz. Warnierren (1999) ustez baieztapen hori nahiko bitxia da. Gorputz tekniketako objektuen gabeziak eta teknika instrumentalen izaera materialak zera adieraziko liguke: hegatsekin urpekaritza egitea, tortoloxen jokoan aritzea edo futbolean jokatzea gorputz teknikak izan beharrean teknika instrumentalak izango liratekeela; praktika horietan objektuak erabiltzen baitira. Maussek bidea irekitzen badu ere ezin gara bere irizpideetan gelditu.

Johan Huizingak 1938an "Hommo ludens" izeneko lanean, ekintza ludikoak kultura sortzaileak direla defendatzen du. "Joko-jolasa[3] kultura baino zaharragoa da (…) giza kulturak ez du oinarrizko ezaugarri bakar batez ere aberastu joko-

[1] Japoniako oinezko pauso tradizionala. Grabitate zentroa beherantz kokatuz aurrerantz bultzatutako hanken gainean pisua ezarriz ibiltzean datza. Besoak gorputzari zurrun erantsirik eta mugitu gabe izaten dira eta gorputz enborra mugitu gabe mantentzen da.

[2] Alderantzizko besoak eta hankak aldi berean mugituz oinez ibiltzea. Oinez ibiltzeko modu hau modernitate aroa ailegatzean Europatik Japoniara iritsi zen.

[3] Gaztelaniaz "juego" zentzu orokorrean euskaraz joko-jolas edo jolasa da; zitak itzultzerakoan "juego" joko-jolas gisara itzuliko da. Irizpide hau jarraituko da hemendik aurrera. Gehiago jakiteko Etxebeste 2001.

jolasaren zentzu orokorra" (Huizinga, 1972, 11). Autore honentzako joko-jolasa kulturen garapenaren oinarria da. Era berean joko-jolasak argitasuna, asmakizuna eta aurkariei aurre egiteko leialtasuna erakusten ditu eta modu horretan herri zibilizatzaile ezin hobea da. Joko-jolasa, ordena, berdintasuna eta aurrerabidea da. Huizingak deitoratu egiten du gaur egungo kirolak sakratutasuna galdu izana.

> "Kirolak bere tokia kulturaren garapenetik kanpo hartzen du, hori ez dagokiolarik. Antzinako kulturetan lehiaketak festa sakratuen osagai ziren. Kirol modernoan kulturarekiko erlazio hori desagertu egin da. Kirolak ez du sakratu izaerarik eta egitura sozialarekin ere ez du loturarik (…) Kirola, zentzu sozial aberats bat baino sen agonalen adierazpen bat da". (Huizinga, 1972, 233)

Holandar autore klasiko horren irakurketak ez du jarduera ludiko-motorren azterketa bultzatzen; eta gainera, kirol joko-jolasei buruzko ikerketa bat burutzeko ez digu oinarrizko kontzepturik ematen.

> "Joko-jolasa bere itxura formalean ekintza askea da "berez" egindakoa eta eguneroko bizitzatik kanpo balego bezala sentitutakoa; baina hala eta guztiz, jokalaria osotasunean bereganatu dezakeena, bertan inongo interes materialik eta probetxurik lortu gabe, denbora eta espazio zehatz batetan eginez, araudiak agindutako ordenu batean burutuz eta misterioz inguratzera bultzatzen duten edo ohiko mundutik berezitzeko mozorrotzen diren asoziazioen iturri izanik". (Huizinga, 1972, 26).

Definizio horrek eta literatura, poesia, ikerketa eta gizakien jarduera kultural guztiak joko-jolas direla onartzeak, kontzeptuak mugatzeko eta fenomeno ludikoen elementuak erabilgarri egiteko gaitasun eza erakusten du. Joko-jolasa kulturaren mailan jartzean, bere erabilgarritasuna mugatu egiten da: joko-jolasa kultura bada eta kultura joko-jolasa, joko-jolasa ez da ezer, dena baita.

Esparru kontzeptual honetan giza zientzien eta kirol joko-jolasen arteko erlazioa ahul mantendu da. Horren eraginez antropologo, soziologo eta historiagileek arlo horretan ikertzeari uko egin eta beraientzako duinagoak izan diren gaietan ikertzen jardun dute. Baina ilunpe intelektual horretan argi printzak balira bezala ikertzaile berri bat agertzen zaigu: Roger Caillois. Bere lan nagusia 1958an argitaraturiko "Le jeux et les hommes" izenekoa izan zen. Joko-jolasen funtzio ideia alde batera utziz, praktika ludikoen sailkapen bat egiten saiatzen da. Horretarako bere ustez praktiketan nagusi diren ezaugarriak ateratzen ditu: "agon",

lehiaketa; “alea”, zoria; “ilinx”, bertigoa; eta “mimicry”, simulazioa. Meritu pertsonal hutsa agon delakoa izango da. Alea, destinoak definituko du; jokalaria halabeharraren menpe egongo da eta ez du bere ezaugarri edo talenturik tartean jarriko, benturak erabakiko du; modu honetan lanaren balorea, trebetasuna eta kalifikazioa ukatuz. Mimicry beste baten ordez pasatzearen plazera da, mozorroa eta engainua. Ilinx bertigoaren bilaketa da, desoreka, norbera menperatuz lortzen den estasia (Caillois, 1958, 25). Joko-jolasen lau ezaugarri horiek bi antolamendu erpinen arabera ezartzen dira, jarduera ludikoen jarraitasun bat bezala, ordenaren maila txikiena den “paida”tik hasi eta garapen gehieneko “ludus” arte. Cailloisen arabera atletismoko probak agon izango dira, loteria alea, antzezlan eta inauteriak mimicry eta surf edo parapentea ilinx. Era berean kategoria bakoitza bere erakundetze mailaren arabera ordenatzen da; alea adibidez, haurren txanpon jokotik estatuak antolatzen dituen loteria jokoetaraino.

Cailloisen joko-jolas sailkapenak duen arazo nagusia lau kategoria horien esklusibotasun eza da. Adibidez, 1 formula txapelketako lasterketetan agon eta ilinx batera azaldu daitezke. Antzekoa gertatzen da zinemagintzan ematen diren “Oscar” sarietan, mimicry agonekin batera azalduz. Eta futbol partida batetan alean barrenean egongo litzatekeen txanpon baten jaurtiketak, agonen azken destinoa zehaztu dezake. Baina antropologo frantziarraren berrikuntzarik nagusiena ez da bere joko-jolasen sailkapena, interesgarria izanda ere egiturari dagozkion arazo batzuk baitauzka; baizik eta joko-jolasetatik abiatuz soziologia eraikitze saiakera. Joko-jolasen sailkatze kategoria horiek konbinatzean ondorioztatzen du simulazioa eta bertigoa gizarte primitiboetan direla nagusi “anabasadun gizarteak” deitzen dielarik. “Aldiz gizarte ordenatuak, bulego, lasterketa, kode eta baremoekin (…) agon eta alea izango dituzte bereak; batetik meritua eta jaiotza agertzen dira lehen elementu bezala eta bestetik joko-jolas sozialaren osagarriak, sozietate hauek “kontabilitateko gizarteak” deituz” (Caillois, 1958, 96). Cailloisen meritua ukaezina da nahiz eta lortutako emaitzak zalantzagarriak izan.

Joko-jolas eta kultura lotzeko saiakeran ez da hain ezaguna Chicagoko eskolako William Foote Whyte ospetsua. “Street Corner Society” izeneko bere lanean Estatu Batuetako ekialdeko kostako italiar-amerikanoen auzo baten

dinamika soziala ikertzen du. Ikerketa horretan “bowling” jokoaren garrantzia azpimarratzen du. “1937-38 urteetan lortutako emaitzak korrelazio estua agertzen dute bowlingean lortutako emaitza eta taldeko banakoen posizioen artean. Bowlinga taldeak egiten duen praktika nagusiena izanik, banakoari prestigioa mantendu, areagotu edo galtzeko aukera ematen dio” (Whyte, 1993, 63). Bere lana irakurtzean bistakoa egiten da idazten duenari buruzko detaile eta egiazkotasunaz arduratuta dagoen autore bat dela; baina hala bada ere, bowling jokoaren azalpena mugatzen du, orrialdeen oinean letra txikiz arauen eta boloen kokapenaren deskribapen xume bat eginez.

Jarduera ludikoen soziologia-antropologia ideia eten egiten da nahiz eta autore garrantzitsu batzuk beraien monografietan aztertu. Antropologia arloan Clifford Geertz nabarmentzen da Baliri buruzko etnologia lanean oilar borrokak eta beraietan parte hartzen dutenek egiten dituzten apustuak aztertuz. Borroka horietan “deep play” deritzon ezkutuko ordena bat jarraituz, aitaren aldeko klan familiarrak aurrez aurre aritzen dira (Geertz, 1992). Soziologia arloan Norbert Elias azpimarratu behar da, kirolean ematen den bortizkeria indarrean dauden ohituren isla bezala aztertuz eta “zibilizazio prozesu” deitzen dion printzipioetan oinarrituz (Elias eta Dunning, 1992). Autore horren bidez kirol soziologiari unibertsitateko atea irekitzen zaio eta goi mailako ikasketak kirol fenomenoaren azterketan murgiltzen dira. Gaur egun, soziologia, antropologia eta historiaren ikuspuntuetatik garaturiko kirol soziologia, kirol antropologia eta kirol historiaren arrakasta bistakoa da. Baina, badirudi jarduera ludikoen soziologia, antropologia eta historia egiteko lehen ideia hura ahaztu egin dela.

Jarduera ludikoen soziologia egoera horretan dagoela Pierre Parlebasek proiektu bat egiteari ekiten dio. Aitzindari izan zen Maussen tradizioari jarraituz, eta lanak dituen zailtasunetaz jakitun, arretaz murgiltzen da. Gorputz teknikak, teknika piktorikoak bezalaxe, berezko logika baten oinarrituz ordenatzen dira. Hizkuntzaren gramatika xake jokoaren arauekin alderatzen duen Saussuren (1983) linguistika ideian oinarrituz, Parlebasek komunikazio motorra deituriko linguistika motor bat eraikitzen du. Jokalariaren ekintzari esanahia emateko garaian joko-jolasaren arauak aztertzea beharrezkotzat jotzen du. Kirol joko-jolasetan matematika printzipioak erabiliz azterketa modeloak arakatzen ditu,

beraiei unibertsalak deituz. Unibertsalen ezaugarriek kirol joko-jolas desberdinen eremuak bereizteko aukera ematen dute; eta kultura jakin batek sortuak direnez bertako ezaugarriak ere izango dituzte. Ekintza motorra edo praxiologia motorraren zientziak beste zientziekin duen harremanei buruz Parlebasek zera dio:

> "Kirol joko-jolasaren berezitasuna ekintza motorrean datza. Ekintza motorra datu konplexu eta desberdinen iturri da: datu biologikoak, psikologikoak, sozialak… eta era berean praxikoak. Guzti horren aurrean, jadanik eraikita dagoen jakintza arlo bati dagokion ikuspuntua hartzeko tentazioa agertzen da: joko-jolasen teoria, biomekanika, neurofisiologia, psikologia… modu honetan arlo horretako tresna eta emaitzak gure eskuetan izanez. Baina hori egingo bagenuke, jadanik ez ginateke kirol joko-jolasa aztertzen arituko, baizik eta praktika ludikoetan azaltzen diren giza portaeraren alderdi sakon eta sektorial batzuk." (Parlebas, 2001, 458).

Etnomotrizitatea, "kulturarekin duten erlazioa eta garatu diren ingurune soziala kontutan hartuz praktika motorren eremu eta natura" (Parlebas, 2001, 227) bezala definitzen du Parlebasek eta lengoaia motor eta ingurune sozialaren arteko lotura deskribatzen du. Etnomotrizitatea egoki ulertzeko, interesgarria gertatzen da ikerlari japoniar batzuen aurrean Etxebestek Parlebasi (Taketani, 2007) eginiko elkarrizketaren zatitxo hau:

> **"Joseba Etxebeste:** 1986an "Eléments du sociologie du sport" argitaratu zen eta hiru urte beranduago espainolera itzuli zen. Zure lanean kirolari aplikaturiko soziologia aurkitu nahi duenak: kirol desberdinetako partehartzaile kopuruak ehunekotan, federatuen kopuruak, datu ekonomikoak… guztiz lekuz kanpo egongo da liburu hori irakurtzean. Zuk beste aipamen batzuk egiten dituzu: joko-jolasen teoria, kirol joko-jolasen sailkapena eta definizioak, hitzarmen soziala, barne logika, kirol joko-jolasen espazioa, komunikazio sarea eta beraien ezaugarri matematikoak… Asmoa kirol joko-jolasetatik abiatuz soziologia egitea da. Zertan datza proposamen hau?
>
> **Pierre Parlebas:** Asmo handiko proiektua da baina ideia ez da berria. Roger Cailloisek bazuen joko-jolasetatik abiatuz soziologia bat eraikitzeko nahia. Badakigu kirol joko-jolasen ezagupen sakonak sortu eta magalean hartu dituen gizarteari buruzko informazio baliagarriak ematen dizkigula: joko-jolas espazioari buruzko antolaketa, denboraren neurria, gorputz bortizkeriaren kontrola, rol motorren egitura edo kirol joko-jolasen erritualak. Elementu guzti horiek bere baitan ezaugarri sozialak dituzte.

> Marcel Maussek jada bere garaian azpimarratu zuen gorputz tekniken izaera soziala; eta joko-jolasaren unibertsoan, teknika hauek joko-jolas arauez baldintzatuak daude. Beraz, joko-jolasen arauak unibertso sozial partikularren sortzaileak dira: futbola eta sumoa ez dira berdinak edo harrapaketa jolasa eta "bilboqueta" ere ez, baina guztiak kultur ekoizpenak dira. Egoera honetan interesgarria dirudi kirol joko-jolasek adierazi diezaguketen egietan sakontzea.
>
> Kirolarekin adibidez gizarteak egin du bere aukera. Instituzioek guztien artetik kirol joko-jolasen azpimultzo jakin bat goratu dute, kirolak deiturikoa, maila ofizial bat emanez eta antolakuntza, ekonomia eta material arloetan erraztasuna egokituz. Kirol federazio eta batzorde olinpikoen garapenak, munduko txapelketen ugaritzeak, kirol selekzioen erakuntzak… joko-jolas hauek instituzio eta politikara lotu dituzte.
>
> Baina guzti horrek gutxi dirudi kirolarentzat. Kirol korrontearen aldekoek, kirolaren antolakuntza eta gizarte indarrari, beste kirol joko-jolasen gainetik dagoen heziketa eta etika nagusitasunaren esker ona ere erantsi nahi diote. Joko-jolas tradizionalak kalitate baxuagokoak direla nahi izatea eta beraien presentzia bakarrik kirolak prestatzeko justifikatzen dela adieraztea, ilusio bat besterik ez da, beldurrik gabe aurka egin behar den faltsukeri bat. Arauetan, hau da barne logikan, ez dago ezer atletismoa ezkutaketa baino nagusiagoa egiten duenik ez heziketan ezta moralean ere".

Aipatzen ari garen arlo honetan eta argitaratu diren Parlebasen lanen artean kirol dueluen azterketa, Olinpiar kirolen analisia eta XVII. mendeko haur joko-jolasen eta kultura ludikoaren azterketa azpimarratzekoak dira. Kirol dueluen azterketan banako eta taldeen arteko dueluak analizatzen dira, espazioak dituen ezaugarriak gorputz bortizkeriarekin sistema sozial gisa erlazionatuz (Parlebas, 2003, 145-178). Olinpiar kirolen analisian, kirolak arlo motorretan S_3 simplex batean ordenaturik aztertzen dira eta federazioei ematen zaien dirulaguntza eta federatu kopuruarekin erlazionatzen dira. Modu horretan agerian gelditzen dira praktika fisikoen modelo sozial pribilegiatuenak zeintzuk diren (Parlebas, 2001, 67-72). Historiaren arloan eginiko XVII. mendeko haur joko-jolasen eta kultura ludikoaren azterketan Stellaren grabatuak analizatzen dira beraietan irudikatzen diren joko-jolasen barne logika aztertuz (Parlebas, 1998, 321-354)

Parlebasen ikerketak ez dira umezurtz gelditzen eta berak ireki zuen bideari jarraituz ikertzaile berriak abiatzen dira. Eta zentzu horretan Parlebasek berak ere Lleidako Unibertsitateko Honoris Causa izendatzeko saioan, saria jakintza partekatu bezala onartzen du, ildo bera jarraitzen dutenekin konpartituz:

> "Egia esan, egiten zaidan sari hau ez dago bakarrik niretzako zuzendua; nire ustetan ikertzaile ugari atxikitzen diren ideia korronte bat ere aintzat hartzen du. Zuen erabakiak ez ditu bakarrik autore isolatu baten merituak goraipatzen, baizik eta baita ere joko-jolas arloan, kirolean eta hezkuntza fisikoan ideia berritzaileak bultzatzen saiatu diren hezitzaileak". (Lagardera eta Lavega, 2004, 20)

Parlebasen ondorengoen artetik Bertrand During da aipatzekoa; Parisko INSEP [4] ean Parlebasen kidea eta berarekin batera Sorbonako LEMTAS [5] laborategiko zuzendaria. Gaur egun laborategi horrek GEPECS[6] IV. ardatza izena hartzen du eta Duringek bakarrik zuzentzen du. Duringek, joko-jolasek, ariketek eta kirolek heziketa korronteetan izan duten sentsibilitate sozialaren garapen historikoa aztertzen du. Joko-jolasak Erdi Aroko bortizkeria eta ugaritasunarekin lotzen ditu, ariketak gimnasien arrazionaltasunarekin eta kirolak gaur egungo modernitate eta globaltasunarekin (During, 1990). Bestalde, hezkuntza fisikoaren filosofia eta epistemologiari buruzko lan batetan Duringek Frantziako heziketa fisikoko programak Parlebasek eginiko Joko Olinpikoetako analisiaren emaitzekin alderatzen ditu, bien arteko korrelazio handi bat erakutsiz: Frantziako heziketa fisikoak Joko Olinpikoen modeloa erreproduzitzen du (During, 1992). Frantziako laborategian formatutako ikertzaileen artean aipatzekoa da kirol arriskuen ezaugarri soziologikoei buruz Luc Collardek eginiko ikerketa (Collard, 1998). Lan horren bidez jarduera fisikoen soziologia bat egiteko garaian barne logikaren beste elementu bat gehitu zuelarik.

Parlebasen jarraitzaileen artean etnomotrizitatearen azterketa oso oparoa izan da. Mohamed Ould Saleck izan zen ikerketa ildo hau hasi zuena kolonialismo aurreko mendebaldeko Afrikako kirol joko-jolasei buruzko lan bat eginez (Saleck, 1994). Bere lanean Senegal, Mauritania, Nigeria, Burkina Faso, Boli Kostako eta Maliko kultura ludikoa jasotzen du. Horretarako idatzita dauden dokumentuak biltzen ditu eta Maliko heziketako ikuskatzailea denez, herrialde horretako lurralde

---

[4] INSEP: Institut National du Sport et de l'Education Phisique.

[5] LEMTAS: Laboratoire d'Enseignement et Méthodes des Techniques des Activités Sportives.

[6] GEPECS: Groupe d'Etudes pour une Europe de la Culture et de la Solidarité - Université Paris Descartes - Sciences Humaines et Sociales Sorbonne. 2002an, 70. hamarkadan Raymon Boudon eta geroago Pierre Parlebasen bultzadarekin sortutako LEMTAS izeneko metodo soziologiko eta analisi tekniken ikasketa laborategia eta Jean Claude Lambertik sortutako Europar kulturaren ikasketarako laborategiak (GEPEC) bat egiten dute GEPECS izeneko erakundea sortuz. IV. ardatza "Gorputzaren teknika eta helburuak: joko-jolasak, kirola eta osasuna Europan" deiturikoa da eta Bertrand Duringek da arduradun.

zuzendarien laguntzarekin joko-jolasei buruzko inkesta bat egiten du. Bere etnografia lana aipagarria da Bambara, Senoufo, Songhay, Dogon, Tuareg, Maure eta Peul etnietako joko-jolasak bildumatuz. Afrikan bertan eta etnomotrizitate arloan Ould Salecken ikerketaz gain apalagoak diren lan batzuk ere egin dira: Kabyl etniari buruzkoa (Dodoo, 2006) eta Tuareg etniari dagokiona (Mellal-Bounaas, 2007).

Espainian egin diren ikerketen artean Pere Lavegaren lana da azpimarratzekoa. Lleidako Praxiologia motorraren laborategiko zuzendariak Pla d'Urgellgo bolo jokoaren kiroltze prozesua aztertzen du (Lavega, 1997). Galdeketen bidez antzinako sei boloko jokoaren erabilpena eta ohiturak berreskuratzen ditu, jokoaren arkeologia bat eginez. Eta ondoren behaketa partehartzaile baten bidez kirol bilakatutako Kataluniako bolo jokoaren arau eta ohiturekin alderatzen du. Lanaren interes metodologikoa jokoen arkeologia gaur egungo partehartzaileen bizipenari buruzko etnografiarekin konbinatzean datza; eta era berean, "testuko" eta "testuinguruko" elementuak elkartzen dituen sistema grafiko baten aurkezpenean. Espainian jarraituz, berriagoak dira Castrok (2001) Pina jokoaren bidez Kanariar Irletako etnomotrizitatea aztertzen duen lana eta Coelhok (2004) Saint Cugaten kokaturiko goi errendimenduko gizonezkoen kirol gimnasiako zentro bateko harremanen dinamika aztertzen duen ikerlana.

LEMTAS laborategiko kide eta UPV-EHUko Ekintza Motorren Behaketa Laborategiko zuzendarikide den Joseba Etxebestek, euskal haurren sozializazio prozesua kirol joko-jolas tradizionalen soziologia batetik abiatuz aztertzen du (Etxebeste, 2001). Euskal kirol joko-jolasen bilduma korpusa egiteko J.M. Barandiaranek sorturiko Etniker Euskal Herria etnografia ikertaldeak eginiko landa lan batean oinarritzen da: "Juegos Infantiles en Vasconia" izena duen atlas etnografikoaren bigarren liburukian. Etniker ikertaldeak lurraldetan banaturik dauden 79 monografia egiten ditu: 21 Araban, 19 Bizkaian, 10 Gipuzkoan, 19 Nafarroan eta 10 Ipar Euskal Herrian. Herri desberdinetako 857 informatzaile sakontasunez elkarrizketatzen dira. Datu guzti horiei inkesta burutu zen aurretiazko (1989) monografiak gehitzen zaizkie. Etxebestek 861 haur kirol joko-jolas identifikatzen ditu eta aurreko mendeko 30. hamarkadako haur mundua bi informatzaileen oroimena astinduz irudikatzen du. Bere helburua jokalarien

bizipenak eta subjektibotasuna jasotzea da. Bizipen ludikoa eta testuinguru soziala banaturik dauden bi fenomeno bezala aurkezten dituzten bere aurreko autoreekin alderatuz, Etxebestek bat egiten ditu euskal kulturaren ezkutuko aspektuak eta joko-jolasaren zentzu sakonaren arteko erlazioa aztertuz. Modu horretan joko-jolas mikrosozietatearen barne logika analizatuz "joko" eta "jolas" euskal kontzeptu ludikoak definitzen ditu, etxeari lotutako portaera kulturalaren eredu bezala aurkeztuz.

Berriki UPV-EHUko Ekintza Motorren Behaketa Laborategiko kide den Urdangarinek (2009) Estatu Batuetako (AEB) euskal-amerikanoen dantza eta joko-jolasen etnomotrizitatea aztertzen duen doktorego tesia defendatu du. Lan horren ondorio nagusiena zera da: estatubatuarren praktika motorrak, bizigune diren kultura anitzeko eremuaz jasotzen duten eragina: euskal dantzak praktikatzea Estatu Batuetako hiritarren ezaugarri bat da.

1.2 Etnomotrizitatearen eta kirol soziologiaren elementuak

Parlebasen ikuspuntua duen kirol soziologia bat, jarduera motorretik abiatzen da, egoera motorren barne logikaren osagai bereizgarri diren elementuen analisitik. Barne logika zera da: "egoera motor baten ezaugarri adierazleen sistema eta hori abian jartzean dagozkion akzio motorraren ondorioak" (Parlebas, 2001, 302). Etnomotrizitatearen azterlana, kirol joko-jolasaren arauek eraikitako errealitatearen analisiarekin hasten da. Hori egin ondoren, joko-jolasak praktikatzen diren testuingurura uztartzea da nahia.

Egoera motorren azterketan gerturatze sistemiko bat erabiltzean, jokalariaren komunikazio motorra ardatz nagusi bihurtzen da. Sistema bat osagai diren elementu eta beraien artean ematen diren erlazioen multzoak osatzen dute, osagai horiek eta balizko erlazioak zehaztea beharrezko gertatzen delarik. "Guk proposatzen dugun sailkapenaren egite printzipioa egoera motor oro, subjektu jardulea, ingurune fisikoa eta aldizkako beste partehartzaileak elkarrekintza osoko sistematzat hartzean datza." (Parlebas, 2001, 58). Elementuak definitu ondoren erlazioak zehaztea geratzen zaigu. Parlebasentzako "egoera guztietan aurkitzen den kakoa ziurgabetasun zentzua da: modu honetan informazioaren dimentsioak lehen mailako garrantzia hartzen du." (Parlebas, 2001, 58).

Jardulearentzako ziurgabetasun zentzu hori bikoitza izan daiteke: batetik ingurune fisikoak sortzen dion ziurgabetasuna eta bestetik besteen ekintzetatik eratorria. Bi ziurgabetasun mota hauek natura desberdinekoak dira: ingurunearen ziurgabetasuna “informazio probabilitate” motakoa den bitartean, beste jarduleek eragindakoa jokalarien arteko funtsezko elkarrekintza motorrean oinarritzen da. Izaera semiotikoa, gure arloan semiomotorra, duen azken komunikazio horretan “elkarrekintza ematen da eginkizun motor bat betetzean banako baten portaera motorrak beste jardule bat edo batzuen portaeran modu behagarri batean eragiten duenean” (Parlebas, 2001, 269). Eta elkarrekintza hori funtsezkoa izango da “modu osagarri batean aintzakotzat hartzen den eginkizun motorraren betetze instrumentalean parte hartzen duenean eta joko-jolasaren arauak esplizituki aurreikusitako parte hartzaileek egiten dutenean.” (Parlebas, 2001, 272).

Elkarrekintza hori bi modutakoa izan daiteke: kide edo arerio bezala. Kidearen presentziarekin ekintzaren ziurgabetasuna gutxitzean eginkizuna errazten da, adibidez Urdangarinek (2009) aztertutako euskal-amerikanoen dantza folklorikoetan bezala. Eta arerio gisara, kontrakomunikazioaren bidez arituz eta beste parte hartzaileei ahalik eta zalantza gehien sortuaz, Parlebasek aurkezturiko banakako dueluetan bezala (Parlebas, 2003, 145-178). Izan ere komunikazio mota hori metakomunikazio bat da, komunikazioari buruzko komunikazioa. Arerioari sinetsi arazi nahi diogu modu batean aritu behar garela baina benetan kontrakoa nahi dugu: harrapaketa jolasean harrapatzailearengatik ihesi nahi duen jolaskide batek eskuinerantz korrika egin behar duela erakutsiko du, gero erritmo aldaketa batez ezkerretik ihes egiteko. Hiru aldagai horiek, ingurunearen ziurgabetasunak, eta komunikazio eta kontrakomunikazio motorrak (jokalariei buruzko ziurgabetasuna) irizpide horietan oinarritzen den egoera motorren sailkapena eraikitzen uzten digute. Nahikoa dugu egoera bakoitzean irizpide horietako bakoitzaren presentzia edo gabezia aztertzea. Era horretan zortzi egoera motor definitzen dira:

1- Ø ziurgabetasunik gabeko egoera motorrak. Ez dago ingurune fisikoari eta jokalariei dagozkien ziurgabetasunik. Jokalaria ingurune egonkor batean bakarrik aritzen da, etengabeko mugimendu estereotipatuak errepikatuz. Kirol gimnasia modalitateak: eraztunak, zorua, jauzia… eta

beste hainbat jarduera, multzo honetan daude; baita haurren joko diren yo-yo edo zibaren aldaera batzuk ere.

2- Z klasekoak. Ingurune aldakorrari dagokion ziurgabetasuna aurkitzen da bakarrik. Kometa hegan darabilen gaztea, haizeari bizkarra emanez jartzen da eta informazio hori deskodifikatzen saiatzen da kometarekin figurak egiteko. Berdin egiten du olatuak hartzen dabilen surflariak.

3- K klasekoak. Kidetasuna bakarrik agertzen da. Soka-saltoan soka ematen diharduten neskatxak ahalik eta egokien ematen dute soka jauzi egiten dutenak ezustekorik ez izateko; berdin egiten dute ballet konpainia batetako dantzariek.

4- KZ klasekoak. Ziurgabetasuna sortzen duen ingurune aldakor batean kideak bakarrik jarduten dira. Egur ohol eta errodamendu batzuekin egindako goitibehera batean aldapa piko eta bihurria jaisten dutenak klase honetan sartzen dira. Jokalari guztiak bat izango balira bezala dihardute ingurunearen aldakortasunei aurre egiteko.

5- A klasekoak. Arerioa agertzen da bakarrik. Ingurune egonkor batean jokalariak aurrez aurre aritzen dira. Ringean elkar joka diharduten boxeolariak aurrez aurre aritzen dira, arerioari aurpegira eskuin kako bat egiteko kinada egin eta gero ezkerrarekin urdail ingurua kolpatzeko.

6- AZ klasekoak. Jokalariak aurrez aurre dihardute ziurgabetasuna sortzen duen ingurune aldakor batean. Ezkutaketa jolasaren zenbait aldaera klase honetakoak dira. Banakako belauntzietan egiten diren triangelu olinpikoetako lehiaketak ere bai.

7- KA klasekoak. Ziurgabetasunik gabeko ingurune batean kideez osatutako taldeak bata bestearen aurka aritzen dira. Honetan sartzen dira talde kirolak deiturikoak: saskibaloia, futbola, eskubaloia, errugbia… Talde duelu horietan talde bat beste baten aurka etengabe aritzen da. “Txorromorroka” izeneko haur jolasa ere egitura ludiko honetakoa da.

8- KAZ klasekoak. Klase hau osatzen duten elementu guztietan ziurgabetasuna agertzen da. “Volvo Ocean Race” bezalako belauntzien arteko lasterketak mota honetako adibideak dira. “Lapurrak eta mikeleteak” izeneko haur jolasa ere bai. Jokalariak taldeka antolatzen dira elkarlanean eginkizuna erraztu eta beste talde batzuei aurre egiteko, baina ingurune fisikoari dagokion informazioaren deskodifikazioa alde batera utzi gabe; adibidez olatuak eta haizea belauntzi lasterketetan edo ezkutaleku eta zuloak lapurrak eta mikeleteetan.

Egoera motorren sailkapen hau hexaedro forma hartzen duen simplex S_3 batez aurkezten du Parlebasek. Modu horretan kirol soziologiaren azterketa kuboaren erpin, ertz eta aurpegien datuen analisiarekin errazten da.



Irudia 1: Pierre Parlebasen egoera motorren sailkapena S_3 batez irudikatua.

Hexaedroaren erpin bakoitzean K-Z-A elementuen konbinaketaz, ekintza domeinu bat kokatzen da. (Z: espazioaren ziurgabetasuna; K: kideen presentzia; A: Arerioen presentzia.)

Biologoek izaki bizidunen sailkapen filogenetikoak erreinu, dibisio, klase, ordena, familia, genero eta espezie moduan antolatzen dituzten bezala, praxeologoak informazioan oinarritutako sailkapena erabiltzen dute: barne logikaren ezaugarriak irizpide direlarik. Barne logika horretan aipatzekoak dira

“unibertsal” deiturikoak: “kirol joko-jolas ororen funtzionamenduaren oinarrizko egiturak aurkezten dituzten modelo operatiboak” (Parlebas, 2001, 463). Parlebas Booleren algebran oinarritzen da jokalariak beraien artean mantentzen dituzten erlazio eta joko-jolasen puntuazio sistemari buruzko modelo operatiboak egiteko. Horien artean aipatzekoa da komunikazio motore sarea: “erpinak jokalariak irudikatuz eta arkuek arauek baimendutako komunikazio eta kontrakomunikazio harremanak sinbolizatuz” kirol joko-jolas baten grafoa (Parlebas, 2001, 463). Komunikazio motore sareak ezkutuan dagoen eredu soziala agerian uzten du; eredu matematiko bat aurkeztuz. Rol soziomotorren aldaketa sarea ere aipagarria da: “erpinak rol soziomotorrak irudikatzen dituzten eta arkuak rol batetik bestera pasatzeko arauek baimendutako aukerak sinbolizatzen dituen grafoa” (Parlebas, 2001, 378). Grafo horrek kirol joko-jolasean zehar jokalariek onartzen dituzten eskubide eta betebeharren azterketa ahalbideratzen du. Unibertsalen “hipotesia kirol joko-jolas guztiak ekintza eta elkarrekintza sisteman inskribatua dagoen barne logika batez aurre orientatuak daudela da. Sistema hauek egiaztatu daitezkeen arloetan oinarrituko lirateke, hala nola joko-jolasen arauetan eta praktikan burututako portaera motorretan” (Parlebas, 2001, 465). Kirol soziologiaren lehen argitalpenak “ekintza motorraren zientzia” bezala definitutako Praxiologia Motorrak ikerkuntzan duen berezitasuna erakustean oinarritzen dira (Parlebas, 2001, 354).

Bestalde, joko-jolas motorraren esanahi kulturalaren ezagutzarako, barne logika kokatzen den testuinguru sozialaren azterketa beharrezkoa da.

> “Ez dago dudarik kirol joko-jolas baten egiturazko eskaerek aurrez argi orientatutako akzio eta elkarrekintza kategoriak beharrezkoak dituztela … [baina] pertsona edo talde sozial bakoitzak, dituzten asmo eta motibazioen arabera praktikak modu partikularrean interpretatu ditzakete. Beste modu batean esanda praktika motor baten barne logika kanpotik berriz interpretatu daiteke, esanahi sinboliko berri eta ez ohikoak emango dizkion “kanpo” logika batez.” (Parlebas, 2001, 307).

Joko-jolasen arauak testuinguru kultural zehatz baten barne daude eta beraietaz egiten dugun irudikapen soziala testuinguruak mugatzen du. Soccer edo futbol europarra nagusiki gizonezkoen praktika da Europan, aldiz Ameriketako Estatu Batuetan, parte hartzaileen gehiengoa emakumezkoa da. Erdi Aroan

aurrez aurreko borroka errege eta nobleek praktikatzen zuten, eta gaur egun kirol herrikoi bilakatu da; egungo agintarientzat diplomatikoagoa gertatzen da elurretan maldan bera eskiekin irristatzea boxeo arte noblean aurpegiak ubeltzea baino. Kulturak joko-jolas bakoitza gizarteko gune batetan kokatzen du bakoitzari balore sozial bat, irudikapen sozial bat, emanez. Modu honetan, Joko Olinpikoei buruz eginiko ikerketan Parlebasek S_3 sinplexean kirol soziologiaren elementu "klasiko" batzuk sartzen ditu, hala nola, federatu edo dirulaguntza kopuruak. Hori eginez erakusten du erpinetan banatutako kirol jardueren logika bat datorrela parte hartzaileen eta estatuen kirol politikarekin: kirol olinpikoen aukeraketa, hautaketa sozial bat da, beste hainbat aukeren artean ematen dena.

1.3 Jarduera motorren modelizazioa eta giza testuingurua

Lehenago aipatu den moduan, kirol soziologia jarduera motorren barne logikaren azterketatik abiatzen da, nagusiki unibertsalen analisitik. Parlebasen ustez "zorroztasun zientifikoak landa gertakizunen eta eraikuntza teorikoen artean ibiltzera bultzatzen gaitu" (Parlebas, 2001, 465). Premisa horretatik abiatuz beharrezkoa egiten da barne logikaren azterketarako irizpide metodologiko batzuk kontutan hartzea:

> "Unibertsalen modelizazioa bat batekoa izatetik urruti dago, behaketa eta analisia behar baitu; sarritan, berezitzat jotzen diren materialen tratamendu leun eta konplexua beharrezkoa du. Arauen preskripzio eta joko-jolas zelaian behatutako jokabideen arteko oszilazio kritikoa egin behar da. Adibidez, marro-marroka jokoko azpirol soziomotoreen sarea erakusteko, behaketa lan luzea, ondoz ondoko tanteoa, konparaketa eta erabaki metodologikoak hartzea beharrezkoa da. Azken unean, elkarrekintza ludomotor sistemaren arrazoia emango duen egitura matematikoa, espezialitate praxikoari lotutako aukera metodologikoen menpe dago" (Parlebas, 2001, 472).

Prozesuak hiru giltzarri ditu: kirol joko-jolasaren behaketa, behatutakoaren analisia eta unibertsal ludomotorren berreraikuntza. Hiruren ezaugarria zera da: beraien arteko oszilazio kritikoan dinamikotasuna. "Behaketa eta analisiaren ondoren, jarraitzen dugun prozedurak kirol joko-jolasaren unibertsalen berreraikuntza du urrats, hau da, azpian dauden eta funtzionamendu ludomotorra azaltzen duten ereduena" (Parlebas, 2001, 465). Joan etorri metodologiko horretan dabilen ikertzailea kirol joko-jolasa aurretik ezagutzearen menpe dago;

eta era berean joko-jolas arauei buruzko ulermen eta ekintza motorrei buruzko jakintza praktikoaren baldintzapean. Arauetan eta jokatzen den testuinguruan erabat ezezaguna zaion Muff jokoa aztertzean, Etxebestek (2009, 49-53), behatzen denari buruzko berreraikuntza eta aurrez ikertzaileak ezagutzen dituen joko-jolasen artean aritzeko gomendatzen du. Lehenengo, arauak berreraiki joan etorria eginez eta ondoren, barne logikaren eredutzean aurreratu. Berreraikuntza hau sinpleagoa gertatzen da kirol ezagunenetan eta konplexuagoa ikertzailearentzako arrotzak diren kulturetako praktika motorretan edo joko-jolasen arkeologian. Bizipen praktiko eta hausnarketa intelektualaren arteko kulunkatze bat ematen da; eta horrek, ikertzaileak jokalarien azalean jartzera bultzatzen ditu, analizatu beharreko joko-jolas motorrak praktikatuz bizitzera. Baldintza horiekin ohikoa izango da ikerketa hauetara gehien hurbiltzen direnak gorputz hezkuntzako profesionalak izatea.

Unibertsalen eredutzea egin eta gero modelo horiek populazio zehatzetara egokitu daitezke.

> “Joan etorri horren bidez, egin eta berriz egokitu diren ereduek aplikazio bat izango dute, beraien baliagarritasuna domeinuko datuetatik abiatuz egiaztatu daitekeelarik. Zentzu horretan, beraien ekarpena eskertzeko modukoa da; adibidez ondorioztatu ahal izango da landa lanean egindako behaketak bat etortzen diren elkarrekintza motorren matrizean komunikazio eta kontrakomunikazio motorren sarearekin” (Parlebas, 2001, 340).

Prozedura metodologiko hori linguistikan gramatika eta hizketaren azterketetan erabiltzen denaren antzekoa da: komunikazio linguistikoaren eta analisi zientifikoaren arteko joan etorriari esker, arau gramatikalak berreraiki daitezke; modu horretan talde edo egoera sozial desberdinek egiten duten hizkuntzaren erabileraren ulermena areagotuz. Roman Jacobson linguista handiak, hizketan aritzeko arazoak dituzten pertsonei buruz hitz egitean zera dio: “metafora eta metonimia deritzogun bi figura polar horien artean, aukeraketa gaitasuna gutxitua duten afasikoek, metonimia gehiago erabiltzen dute” (Jacobson, 1953, 56). Metafora eta metonimia zuzentzen dituzten arauen zehaztapenak, afasikoek bezalako populazio zehatzetan desberdintasunak behatzeko aukera ematen du.

1.3.1 Unibertsalen erabileraren bilakaera

Parlebasek ohartarazten gaitu unibertsalen erabilera esklusiboak ekarri dezaken arazoetaz.

> "Jakina denez, egoera motorren eredutzea ez da metodo mirakulutsua, irtenbide zaileko arazo epistemologikoak ere sortzen ditu; adibidez, behatu den errealitatearen urritze eta pobretzea, hasierako ikuspuntua orientabide markatuegi baten bidez hartzea, eremu batetik besterako transferentzia okerra, kontzeptuen analisiari dagozkion arazoak… Hala eta guztiz zainketa lana eta adi egotea edozein ikerlanen irizpidea da, kritika epistemologiak beti lagundu behar baitio analisi eta interpretazio esfortzuari" (Parlebas, 2001, 340).

Arretaz ibiltzeko dei hori etnomotrizitatea aztertu den estrategia metodologikoen ispilu da. Ikertzaile guztiak (Castro, 2001 ; Coelho, 2004 ; Collard, 1998 ; Dodoo, 2006 ; During, 1990 ; Etxebeste, 2001 ; Lavega, 1997 ; Mellal-Bounaas, 2007 ; Parlebas, 2003 ; Saleck, 1994 ; Urdangarin, 2009) ados daude aztertu dituzten jarduera motorren korpusari sinplex S_3 deituriko ziurgabetasun iturrietan oinarritutako sailkapena aplikatzean: ingurune fisikoari edo sozialari dagokion ziurgabetasunaren presentzia edo gabezia. Erabaki horrek jarduera motorrak posible diren aukera desberdinen artean kokatzen ditu eta banaketa sinple batez dagokion kulturako barne logikaren perfil ludiko motorra ezagutzen uzten du. Prozedura eraginkorra eta erraza da, aditua den batentzako bereizgarri diren ezaugarriak lortzea nahiko sinplea baita.

Oinarri horretatik aurrera aukerak zabaldu egiten dira. Parlebasek (2003, 145-178) bere talde dueluen lanean, guardiako distantzia, kargako distantzia eta banakako elkarrekintza eremua erabiltzen ditu aldagai bezala. Aukeratutako jarduera motorren korpusean dagoen homogeneotasunak, espazio-erlazioari dagozkien aldagaietan arreta jartzera derrigortzen du. Analisi elementuak askoz ugariagoak dira XVII. mendeko haur joko-jolas eta kultura ludikoari buruzko lanean (Parlebas, 1998, 321-354). Kasu horretan Parlebasek unibertsalen aldagaiak antolatzen diren erregistro fitxa bat eta Stellaren grabatuko kanpo logika sozialaren elementuak erabiltzen ditu.

Analisi fitxa hori geroago Ould Saleckek erabiltzen du (Saleck, 1994). Bere ikuspuntua argi utziz, doktorego tesia hiru bloke handitan banatzen du. Lehenengo

blokean elkarrekintza motore sareak aztertzen ditu: komunikazio motore eta markako elkarrekintza sareak; gero aktorea sisteman kokaturiko azterketa; eta ondoren joko-jolasak beraien testuinguruan analizatzen ditu, kanpo logika soziala deiturikoan. Aktorea sisteman deituriko azpi atalaren aldagaiak analisian sartzeko erabakiak, jokalarien erabaki estrategikoetan arreta jartzea dakar eta kulturalki esanguratsuak izan arren oso zailak gertatzen dira burutzen diren testuinguruarekin erlazionatzeko. Ould Saleckek meritu handia du Afrika mendebaldeko kirol joko-jolasen bilduma egitean eta beraien etnomotrizitatea erakustean. Baina etnomotrizitate hori etnia desberdinen testuinguruarekin erlazionatzerakoan, azalpen orokor kultural batetara mugatzen da: joko-jolasen kanpo eta barne logika banatuak azaltzen baititu bien arteko loturarik agertu gabe.

Aktorea sisteman oinarri hartuz etnomotrizitatea lantzen duten autore gehiago ere badaude. Julen Castellanok, UPV-EHUko Ekintza Motorraren Behaketa Laborategiko zuzendarikideak, mundialetan ospatzen den futbolaren bilakaerari buruzko ikerketa bat egiten du (Castellano, Perea, eta Hernandez, 2008). Horretarako Frantzia 1998, Japonia eta Korea 2002 eta Alemania 2006ko Mundialetan eta Portugal 2004ko Eurokopan, jokalariek hartzen dituzten erabaki estrategikoak behatzen ditu eta zera ondorioztatzen du: azken urteetan herrialdeko selekzioen artean ospatu diren txapelketetan futbola ez dela aldatu.

Etxebeste Euskal Herriko haur joko-jolasen bere lanean Parlebasek eta Ould Saleckek gero erabili zuten analisi fitxatik abiatzen da. Hala ere aldaketa sakon batzuk egiten dizkio unibertsal ludomotorretatik abiatu beharrean barne logika aztertzen duelarik. Azken kontzeptu hori zabalagoa izatean, posible egiten zaio joko-jolas tradizionalak xehetasunez aztertzea. Era berean, aktore eta sistemari lotutako analisia ekiditen du (azpirol, gestema eta praxema sarea), lanak izan dezakeen zailtasuna aintzakotzat hartuz. Bere metodologia Parlebasen rol soziomotorren deskribapenetik abiatzen da, hau da jokalariek beste jokalariekiko, denborarekiko, espazioarekiko eta objektuekiko duten erlazioa irudikatuz; eta zentzu horiek monografiako analisiaren gidoi bihurtzen ditu. Aztertzen diren elementu guztiak eredu bihurtzeko aukera izan edo ez, espazio, denbora, harreman sozial eta objektuen arabera ordenatzen dira eta kanpo logika ere modelo bera jarraituz aztertzen da. Hori egitean posible da jarduera motorren

arauen ezaugarriak jatorriko testuingurura lotzea. Modu horretan, “etxea eta basoa” bereiztuz, ingurune fisikoaren ziurgabetasuna esanahiez betetzen da; harreman sozial ludikoek banakotasunaren aurrean “etxe-komunitateak” duen garrantzia erakusten dute eta “joko-jolas” portaera ludikoen ereduak “kanpokoak” eta “etxekoak” bezala adierazten diren portaera sozial eredu gisa islatzen dira. Prozedura horrek Parlebasen tradizio zientifiko zorrotza eta gizarte-eragileen azterketa soziologikoa lotzeko aukera ematen du. Harrezkero eredu hori Frantziako eta Espainiako laborategietan zabaltzen ari da eta horren adibide dira Daddoren (2006) eta Urdangarinen (2009) lanak.

1.3.2 Jarduera motorren korpusak

Kirol joko-jolasen soziologia, jarduera motorretatik abiatzen da: praktika fisiko zehatz batzuen analisitik eta Maussek esan bezala gorputz tekniken azterketatik. Abiapuntua hori bada ere etnomotrizitateko ikerketetan joera desberdinak ageri dira: batzuk lehen fase batean praktika motorren korpusa aurkitu nahi dute eta beste batzuk ezaguna eta katalogatua den korpus batetan oinarritzen dira. Lehen multzo horretan sartzen direnen artean Ould Salecken ikerketa dago, Maliko joko-jolas tradizionalak biltzeko inkesta bat eginez (Saleck, 1994). Lavegak ere elkarrizketa bidez berreraikitzen du Pla d’Urgellgo antzinako bolo jokoa (Lavega, 1997); eta Urdangarinek (2009) euskal-amerikanoei buruzko landa lanean, NABOko jaialdietan egiten diren jarduera guztien errolda bat burutzen du.

Beste autore batzuk ordea ikerketa egiten hasterako ezaguna den korpus batetik abiatzen dira. Parlebas adibidez Stellaren grabatuan agertzen diren irudi eta bertsoetatik abiatzen da XVII. mendeko haur joko-jolasen azterketa egiteko (Parlebas, 1998). Korpusari buruzko informazio bilaketa sinplea egiten zaio nahiz eta ezagutze lan zorrotza egitera behartu. Etxebeste, euskaldunen sozializazioa aztertzeko ETNIKERek aurrez eginiko lanetik abiatzen da (Etxebeste, 2001). Gogoratu behar dugu ETNIKER taldeak “Vasconiako” haur joko-jolasen bilduma bat egiten duela. Etxebestek lan itzela hartzen du joko-jolasen identifikazio deskribapen eta azterketa egiten (861 kirol joko-jolas) baino gutxi joko-jolasen bilduma egiten.

Beste batzutan ikerleak berak erabakitzen ditu aztertu nahi dituen jarduera motorrak. Parlebasek Joko Olinpikoei buruzko lana egiteko, lehiaketa programan dauden kirol jokoak analizatzen ditu: jarduera kopuru mugatu eta zehatz bat (Parlebas, 2001, 67-72). Castellanok antzekoa egiten du futbol jokalarien erabaki estrategikoetan ematen diren aldaketak hainbat txapelketetan behatzean; kasu honetan joko bakar bat aztertuz (Castellano, 2009). Ikusten denez, praxeologoak sakondu nahi duten objektuan oinarrituz, jarduera motor kopuru mugatu bat dute aztergai, nahiz eta kopuru hori aldakorra izan edo aurrez ez ezagutu. Laburbilduz, esan dezakegu kirol joko-jolasak gizartearen ezaugarri kulturalak dituztela eta zentzu honetan zaila dela lagin estatistikoaren arazoa azaleratzea: eraiki kulturalak bildumatzen baitira eta ez banakoen ikuspuntua.

1.3.3 Barne logika eta testuingurunearen arteko lotura

Jarduera motorren soziologiak dituen berezitasun eta espezifikotasunak, praxiologia motorrak dituen teknika, tresna eta kontzeptuak erabiltzera behartzen gaitu. Elementu horiek kontutan izan beharrekoak dira nahiz eta jakin praxiologia motorra giza zientzia bat dela eta ondorioz jakintza arlo zabalago baten metodo eta ikuspuntuak onartzen dituela. Metodo klasikoenak aipatzearren, behaketa, elkarrizketa, galdetegia eta edukien analisia erabili daitezke informazioa lortzeko; eta bistakoa denez, ildo honetako ikerketak alderdi kuantitatibo edo kualitatiboetan kokatu daitezke. Informazioa jasotzea baino azterketa objektuaren berezitasuna da koska.

Duringek (1992) Frantziako gorputz hezkuntzaren azterketan informazioa idatzi ofizialetako edukien analisiaren bidez lortzen du. Parlebasek (1998) Stellaren grabatuekin eta Etxebestek (2001) “Juegos infantiles en Vasconia” liburuarekin ere edukien analisia egiten dute. Lavegak (1997) elkarrizketak erabiltzen ditu eta Castellano (2009) eta Urdangarinek (2009) kategoria eta parte hartzaileen behaketa. Aldiz Vargasek (2003) inkestak erabiltzen ditu Bartzelonan eta Parisen snow, tenis eta aerobic egiten duten jarduleen motibazioak aztertzeko.

Praxiologiako lanetan ohitura handiagoa izan da zenbakiak, estatistikak edo banaketak erabiltzeko, antropologiatik gertuago gelditzen diren ikerketa

narratiboak baino. Hala eta guztiz, horrek ez du galarazi, aurrez aipatu ditugun autore garrantzitsuek jarduera motorrak bizipen ikuspuntu batetik ikertzea. Metodologiak nahasteko jarreran, ukaezina da Frantziako giza zientzien tradizioak duen eragina: antropologia eta soziologiaren arteko muga nahasia bultzatuz.

Jarduera motorren soziologiaren lehen ardura giza talde baten joko-jolas edo kirolen barne logikaren analisia da. Ondoren, talde horren praktika ohiturak eta erabilerak aztertuz. Bi urrats horien uztartzeari barne eta kanpo logika arteko lotura deitzen zaio, arau ludikoek eraikitako azpigizarte eta abegi diren sozietateko arau eta ohituren arteko erlazioa.

Lotura harreman horien barne, pentsamendu politikoa, ahaidetasuna edo klaseen arteko borroka egon daitezke. Hori, ikertzailea kokatzen den esparru teorikoaren menpe egongo da. Giza zientzien arteko harremanetan ematen den aukera aniztasun horrek ez du galarazi arlo honetako ikerketak ikuspuntu bera partekatzen duten korronte soziologikoekin lotzea. Horren erakusle Norbert Elias da, soziologiaren objektua horrela adieraziz: “elkarrekintza sareak, elkarmenpekotasunak, konfigurazioak, elkarmenpeko gizakiak formatzen dituzten prozesuak” (Elias, 1999, 121). Ez al dira kirol joko-jolasak gizakien elkarmenpekotasun sozialaren erakusle ezin hobeak?

Jarduera motorren soziologiako ikerketetan erabiltzen den beste autore garrantzitsu bat Erving Goffman da. Berak erabiltzen dituen kontzeptuak: egoera, elkarrekintza, rola, azpirola eta aktore soziala (Goffman, 1987); erraz erlazionatzen dira egoera motor, elkarrekintza motor, rol soziomotor, azpirol soziomotor eta aktore soziomotorrekin.

Barne logika eta unibertsalak osatzen dituzten elementuak espazio, denbora, harreman eta objektuen arabera bateratzeak, kirol joko-jolasaren ezaugarrietatik arlo sozialerako jauzia erraztu eta aberastu egiten du. Izan ere parametro horietako bakoitza aski ezagunak diren autoreen aztergai izan da. Hallek (Hall, 1973) espazio kulturalaren zientzia, proxemia aztertzen duenean, jarduera motorrei buruzko informazio analisiaren ezaugarriak urbanismo, espazioaren banaketa edo eraikuntzaren berezitasunekin lotuta daudela ulertzen laguntzen du. Mircea Eliadek (2000), Dorothy Leek (1950) edo Norbert Eliasek

(1996) erabiltzen dituzten denbora lineal eta ziklikoaren zentzuak joko-jolas motorren amaiera kontzeptuen orokortasunak dira. Era berean jokalarien arteko harremanak Pierre Bourdieuk (2000) “Dominación Masculinan” garatzen duen generoaren balore sozialarekin lotu daitezke. Eta kirol objektuen kultura materiala, kontsumo ekoizpen eta kultura materialaren azterketaren barrenean kokatzen da (Warnier, 1999). Aipatu ditugun lotura horiek jarduera motorren soziologia eta banako edo komunitateen soziologiaren ezinbesteko kolaborazioaren bilgune dira.

> “Giza zientziak kirolarekiko mutu egon baziren ere, hogeita hamar urte geroago jarrera aldatuz, gorputzetik eta kiroletik datozen galderetara ireki dira. Esan dezakegu gaur egun egiaztatzen den irakinaldiak CNRS [7] bezalako ikerketa erakunde handiak ukitzen dituela. Eta diziplina guztiak dantza horretan sartzen dira: zientzia biologikoak noski, baina baita ere, historia, ekonomia eta zuzenbidea, eta gainera psikologia, geografia eta demografia besteak beste” (Parlebas, 2002).

Arlo zientifiko desberdinen menperatze koordinatua eskatzen duen ikerketa lurralde berri eta aberatsa zabaltzen da ikertzailea gainditu beharreko beste zailtasun baten aurrean aurkitzen delarik.

[7] CNRS: Centre National de la Recherche Scientifique

2. kapitulua **Metodologia**

2.1 Ikerketaren helburuak eta justifikazioa

Kirol joko-jolasak ekintza motorren ikuspuntutik aztertzean Parlebasek zera dio:

> “lehen unean helburua izan zitekeen kirol joko-jolas desberdinen barne logika azaleratzea eta espazioaren erabilerari, besteekiko elkarrekintza moduari, komunikazio formei, partiden ikuskizunari eta sortzen diren jokabide motor guztiei buruzko esanahi guztiak jasotzea. Analisi horrek ez du behar adinako garrantzia izango beharrezko egiten den konparaziozko ikuspuntu batetaz lagundurik ez badoa; azken hori beraienak egiten dituzten giza taldeei lotutako kirol joko-jolasen ezaugarri etnomotrizek emango dutelarik” (Parlebas, 2001, 458).

Ikerketaren helburu nagusia baieztapen horretatik abiatzen da eta modu honetan adierazi genezake:

> Hiru kirol praktiken barne logika azaleratu eta espazioaren erabilerari, partehartzaile arteko elkarrekintzari, denboraren zentzuari eta objektuen erabilpenari dagozkien esanahiak, praktikatzen dituzten giza taldeei lotuz aztertu.

Kirol joko-jolasen kopurua mugatzeagatik korpusa hiru kirol praktikek osatzea erabaki dugu. Kopuru hori bi praktika aurrez aurre jartzean sortzen den bipolaritate dualista ekiditeko minimoa da. Erabaki horrek lanaren aukerak areagotzen ditu, bai barne logika eta baita ere praktikatzen dituzten giza taldeak aztertzeko garaian. Hiru hanka dituen aulkiaren irudia da; hankak neurri desberdinetakoak izan arren, aulkia beti egonkor mantentzen da hiru erpineko plano batean. Dena dela, hautaketa hori ikuspuntu honetako tradizioan ere oinarritzen da (Vargas, 2003) eta ikerketaren lan bolumena mugatzeko nahiarekin egina dago. Bestalde Etxebestek (2001) proposatu bezala, barne logika espazioa, harremanak, denbora eta objektuak kontutan hartuz aztertu da; eta esklusiboki ez bada ere, unibertsalen azterketa ere egin da.

Azterketa egiteko egoera motor hauek aukeratu dira: mendi zeharkaldia, aerobica eta futbola. Eta helburu nagusia azpi helburu hauetan zatikatzen da:

1. Mendi zeharkaldiaren barne logika azaleratu eta espazioaren erabilerari, partehartzaile arteko elkarrekintzari, denboraren zentzuari eta objektuen erabilpenari dagozkien esanahiak, praktikatzen dituzten giza taldeei lotuz aztertu.
2. Aerobicaren barne logika azaleratu eta espazioaren erabilerari, partehartzaile arteko elkarrekintzari, denboraren zentzuari eta objektuen erabilpenari dagozkien esanahiak, praktikatzen dituzten giza taldeei lotuz aztertu.
3. Futbolaren barne logika azaleratu eta espazioaren erabilerari, partehartzaile arteko elkarrekintzari, denboraren zentzuari eta objektuen erabilpenari dagozkien esanahiak, praktikatzen dituzten giza taldeei lotuz aztertu.

Korpus baten eraikuntzak samurtu egiten du aztertzen diren etnomotrizitateen alderatze analisia. Praktika bakoitzaren barne logika eta kanpo logikari dagozkion ezaugarriak erakutsi eta gero, gure asmoa beraien arteko konparaketa bat egitea da. Bigarren mailako helburu hori modu honetan idatzi dezakegu:

Mendi zeharkaldiak, futbolak eta aerobicak dituzten elementu etnomotor komunak azaleratu, bai barne logika eta baita ere kanpo logikari dagokienean, kirol praktiketan jokoan jartzen diren sozializazio eta identitate mekanismoak miatu asmoz.

Maila horretan gure nahia xumea da. Sozializazio eta subjektuaren identitate eraikuntzaren konplexutasunaz jakitun gara, baina era berean uste dugu etnomotrizitatearen azterketak, hau da jarduera fisikoen soziologia batek, eztabaidagarria den gai honi zerbait eman lekiokeela.

2.2 Ikerketaren metodologia eta deontologia

Etnomotrizitatearen azterketari dagokion ikerketa hau jarduera motorretatik abiatzen da, gizarteko kideek ematen dioten zentzuaz jabetzeko. Problematika berri batek ikertze objektuaren beharretan oinarritutako metodologia klasikoen egokitze bat behar du. Gainditu beharreko lehen arazoa aztertzen diren jarduera motorren korpusarena da. Nola hautatu ditugu mendi zeharkaldia, aerobica eta futbola?

2.2.1 Korpusaren aukeraketa

Mendi zeharkaldiak, aerobicak eta futbolak osatzen duten korpusaren aukeraketa, triangeluko erpinen orekaren aurretiazko irudian oinarritzen da: azterketa lana hasi aurretik egoera motorrek beraien artean desberdintasunak ageri dituzte, erpinak aldendu egiten dira; baina era berean, ertzak erpinak lotzen dituzte beti plano bat sortuz. Horren ondorioz egoera motorrek azaltzen dituzten antzekotasunek, ikerketa aurrera eraman ahal izateko, korpusa onargarria egiten dute. Honako hauek dira korpusaren hautaketa argudioak:

- Hiru praktika fisikoek joko, jolas eta jolas-joko (Etxebeste, 2001) eredu ludiko tradizionalak irudikatzen dituzte, modu horretan beraien arteko desberdintasunak eta bildumaren egokitasuna erakutsiz. Azterketa aurrez eginiko analisietan, futbola jokoaren barrenean kokatzen da, mendi zeharkaldia jolasean eta aerobica jolas-jokoan.

- Gorputz hezkuntzako metodoen ikuspuntutik aukeratutako egoera motorrak metodo desberdinen erakusle dira: aerobica ariketa, futbola erakundetutako jokoa eta mendi zeharkaldia jarduera “askea”. Banaketa hori interesgarria suertatzen da, beraien arteko desberdintasunak gorputz hezkuntzako korronte pedagogikoen oinarri izan baitira: gimnasia edo eraikitako metodoa, kirol heziketa eta pedagogia aktiboa (Parlebas, 2001, 175).
- Aipatu ditugun jarduera motorren praktika fisikoak Euskal Autonomi Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Espainian bost praktikatuenen artean aurkitzen dira parte hartzaile kopuruari dagokionez; eta atxikita dauden kirol federazioak federatu gehien dituzten bosten artean daude (EUSTAT; García, 2006 ; Nafarroako Foru Erkidegoa). Gure ikerketa erkidego horietan burutzen da.
- Egoera motor hauetan ematen diren joera sozialek, aurretiaz futbola gizonezkoen praktika dela erakusten dute, aerobica emakumezkoena eta mendi zeharkaldiak gizon eta emakumezkoena, modu honetan genero aukera guztiak bilduz.
- Aukeratutako praktikak aurretiazko antolaketa maila bat dute “entrenatzaile” figura definituz eta kirolariari praktikara kuota bat ordainduz edo federatu lizentzia bat onartuz sartzen utziz.
- Ikertzailea praktikara modu errazean eta ondorio larririk gabe sartu eta atera daiteke. Futbolak, mendi zeharkaldiak eta aerobicak duten onarpen mailak, herritarren sarbidea errazten du, eragozpen ekonomiko eta sozialen efektua mugatuz.

Korpusa zehazteko garaian beste zailtasun bat ere agertzen zaigu. Arazoa zera da: ea mendi zeharkaldia, aerobica eta futbola hiru praktika motor desberdin edo praktika motorren hiru multzo diren. Atletismoko lasterketetan 100 eta 200 metro lauak bi proba desberdin baldin badira, eragozpenik ez dugu topatzen galdera hauek egiteko: malda gogorrak dituen mendiko etapa bat eta lautada batetan ibiltzea “kirol” berdinak al dira? Bi koreografia desberdin bi aerobic

diferente al dira? Futbola aztertzean, entrenamenduetan egiten diren praktikak baztertu egin behar al dira?

Erantzuna ez da erraza. Kirol praktiken irudikapen sozialek erabakitzera bultzatzen gaituzte, batzuetan baiezkoa eta besteetan ezezkoa emanez eta beti ere desberdintze irizpideetan pentsatu gabe. Auzi hori barne logikaren azterketak argitu beharko luke, baina horretarako kirol fenomenoaren errealitate soziala behatzea beharrezkoa da.

2.2.2 Informazioaren bilketa eta tratamendua

Euskal Herriko mendi zeharkaldi, aerobic eta futbolaren etnomotrizitatea egiteko atal hauei buruzko informazioa lortzea beharrezkoa egiten da:

- Mendi zeharkaldi, aerobic eta futbol terminoen azpian dauden praktika motorrak zeintzuk diren ezagutu.
- Mendi zeharkaldi, aerobic eta futbol terminoen azpian dauden praktika motorrak zein barne logika duten ezagutu.
- Euskal gizartean mendi zeharkaldi, aerobic eta futbol terminoen azpian dauden praktika motorretan banakoen bizipenak nolakoak diren ezagutu.

Hori guztia aldi berean lortzeko hoberen egokitzen den ikerketa metodologia behaketa partehartzailea da. Gainera, metodo horrek guztia koherentziaz eta logikaz egituratzen uzten du. AEBko euskal amerikanoen komunitatean egindako ikerketan Urdangarinek (2009) metodologia honen egokitzea erakusten du. Metodologia horren erabilpenak AEBetako mendebaldeko klub eta jaialdietan zein praktika motor egiten diren ezagutzen uzten dio eta aldi berean, praktika horiek dituzten barne logikaren ezaugarriak eta euskaldun jatorriko estatubatuarraren esperientzia emozionala biltzen ditu.

Azpimarratu behar da hiru praktika motorren azterketa egiteko nahiak, hiru aldiz landa lanean murgiltzera derrigortzen gaituela, hau da, landa lan bat mendi zeharkaldian, beste bat aerobicean eta azkenekoa futbolean. Lanak autonomoak diren arren arlo asko partekatzen dituzte. Azalpena errazteko aurrena kirol eremu

bakoitzari dagokion metodologia etnografikoaren aplikazioaren printzipio orokorrak aurkeztuko ditugu, ondoren kasu bakoitzaren xehetasunak adierazteko.

Behaketa partehartzaile batean oinarritutako ikerketa bat idazteak, gai etiko-metodologikoak topatzea dakar eta ahal den neurrian behintzat, kontu horiek gainditu edo argitu egin behar dira. Arazoa bi ikuspuntu desberdinetatik plantea daiteke.

Batetik, monografiaren irakurleak berau egin den egoeren berri duen argitu behar da. Malinowskiren hitzetan “edozein azterketak ahal duen guztia egingo du esperimentua edo behaketak egin diren egoera guztien partaide irakurlea izan dadin” (Malinowski, 1986, 55). Ardura hori ikerketa eremu guztietara zabaltzen da, elkarrekin bizi eta oharrak idaztetik, datuen analisi eta narrazio etnografikoaren idatziraino. Kontuz ibiltze hori ez da bakarrik metodo zorroztasunagatik, baita ere eta modu garrantzitsuan arazo etikoengatik, monografiaren sinesgarritasuna, lanaren egiazkotasuna eta ikertzailearen zintzotasuna jokoan baitaude.

Baina ikerketak izan behar duen egiazkotasun, sinesgarritasun eta zintzotasun hori ezin daiteke behatutako subjektuei traizio eginez burutu. Arazo deontologiko konplexu horrek behatzaileari ikerketa kontrolari dagozkion prozedura metodologiko batzuk abian jartzea eskatzen dio.

Interesgarria da etnografia batetan giltzarri diren hiru erabaki aipatzea:

1. Parte hartze mailaren zehaztapena

> “Etnografiaren abiapuntu printzipioa zera da: jendeak egiten eta esaten duena “kontzienteki” edo “inkontzienteki” egoera sozialak moldatuta dagoela. Etnografoa oso sentikorra da ingurunera sartzeko moduan eta kontu handiz ezartzen du informazioaren bilketa erraztuko dion funtzioa. Izan ere, etnografoak onartzen duen parte hartze eta konpromiso mailak beregan jendeak duen kontzeptuarengan eragingo du; eta arretaz jarraitzen ditu aztertu behar duen komunitate edo taldearen barnean bere sarrera ofizialak sortutako erreakzioak.” (Martinez, 2006, 195-197).

Aztertu behar duen giza elkartean parte hartzeko garaian, egiten diren praktika motorrei eta barne logikari dagokion informazioaren lorpenak, hainbat aukera ematen dizkio ikertzaileari. Errealitate ludikoa ezagutzeko ez baita beharrezkoa giza taldearekin inplikazio edo elkarrekintza handia. Hala eta guztiz, Malinowskiren hasierako lanetatik ikusi daiteke aisia erabili izan dela taldearen

konfiantza irabazteko estrategia positibo bezala. “Euren konpainiaz joko eta jolasetan parte hartuz gozatzea lortu nuelako, hasi ginen elkarren hurbil sentitzen, gertutasun hau, ezinbesteko baldintza izanez landa lana aurrera eramateko ahaleginean” (Malinowski, 1986, 26). Zentzu horretan aktoreek kirol praktika horretan dituzten bizipenetan sakontzearren, ikertzaileak taldearekin konpromiso handi bat hartzea hautatu da. Beharbada gure kasuan kirol praktiketan intentsitatez parte hartzea erosoa da, aldiz harreman pertsonalak bazterrean uztea zaila, azken honek kontutan hartu beharreko arazo deontologikoak baitauzka.

Konpromiso maila horrek sarrera neurtua egitea eta sarbide ofizial bat izatea eskatzen du. Kirol praktikak eskaintzen dituzten erakundeek -klubak, federazioak, gimnasioak- herritarrentzako sarbide estandarizatuak dituzte. Talde batean arazorik gabe sartu edo atera egiteko nahikoa da kirol eskaintzan izena eman edo uztea.

Aurretiazko beste gai estrategiko bat zera da: kirol praktika aurrera eramaten duen begirale, gida edo entrenatzailearengana hurbildu eta konfiantza irabaztea. Profesional horrek proposatutako eginkizun motorrei ematen dien esanahia ezagutzea egiten zaigu interesgarria. Gu Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatua izateak erraztu egiten du iritzi teknikoen trukaketa hori.

Reno-Nevadako institutu bateko futbol amerikanoko talde batean partaide izateko asmoez Etxebestek (2004) hausnarketa sakona egiten du eta zailtasun batzuk gainditu ondoren entrenatzaile laguntzaile posizioa lortzen du. Postu hori entrenatzaileen taldean bigarren maila batean gelditzen den arren, behaketan oso eroso sentitzen da eta bertan egotea ahalbideratzen dio. Ikerketa aurrera eramateko antzeko posizio batetara hurbiltzea da gure intentzioa.

> “Ostiko jotzaileen entrenatzaile izatea niretzako posizio pribilegiatua zen. Entrenatzaileen bileretara joan ahal nezakeen, jokalariekin aldageletara sartu, partidetan zelaiaren alboan kokatu, “special team” delakoen jokaldietan parte hartu, taldearekin bidaiatu eta unibertsitateko irakasle bisitari bezala nekez lortu ahal nezaken prestigio sozialaren jabe nintzen. Estatu Batuetan mundu guztiak daki futbol entrenatzaile bat zer den eta jendea “coach” deituz zuzentzen zaie, “mister”

> terminoaren errespetu maila berekoa eta pribilegiatu gutxiren esku dagoena, modu horretan talde barruan ia mugarik gabeko boterea emanez" (Etxebeste, 2004, 294).

Ikuspuntu etiko batetik, zera planteatu behar dugu: ea ikertzailearen egoera berean praktika fisikoan izena ematen duten parte-hartzaileek, bere intentzioak ezagutu behar dituzten edo ez. Hammersley eta Atkinsonek ezbai horren arazoari "engainatu edo ez engainatu" deitzen diote: "batzuetan ziurtasunez aurreikusi daiteke atezainek zelaiko sarrera blokeatuko dutela ikertzailearen lana oztopatuz" (Hammersley eta Atkinson, 1994, 83). Gure kasuan, kirol praktikarako sarrera modu ordenatu, xume eta publikoan egitean eta bertan gertatzen dena intimitate minimo batekoa izatean, ez dugu beharrezkotzat jo gure intentzioen berri parte hartzaile guztiei adieraztea. Hala eta guztiz begirale, gida eta entrenatzaileak jakinaren gainean jarri genituen, gerturatze eta konfiantza lortzeko estrategia egokia izan zitekeela pentsatuz.

2. Informazio bilketa

> "Etnografoak informazioa lortzeko oinarrizko teknika bezala landa lanean hartutako oharrak erabiltzen ditu, praktika egiten duen bitartean hartuak edo amaitu ondoren, beti ere etikoki eta logikoki posible den bezain pronto. Hala ere teknika ugari erabiltzen ditu landa laneko oharrak osatu eta berresteko" (Martinez, 2006, 196).

Landa laneko koadernoa izango da informazio bilketarako tresna nagusia. Berau, proposatzen diren praktika motorren xehetasunezko deskribapen batera orientatua dago, eta egiten diren egoera, parte hartzaileen portaera eta kirol praktikaren ingurunean ematen diren elkarrizketetara bideratua.

Informazio bilketa mendizaletasunari, aerobicari eta futbolari buruzko eskuliburuekin osatzen da. Arreta, kirol erakundeek garatzen dituzten araudietan ezartzen da, nagusiki kirol lehiaketei eta jarduerak aurrera eramatearen arduradun diren erakundeei dagozkienetan. Informazio teknikoa lortu asmoz praktika zuzentzen duten gida, begirale edo entrenatzaileekin elkarrizketa informalak egiten dira.

Behaketarako gida, barne logikatik abiatuz egiten da hau da, praktikan "zer", "nola", "non", "norekin", "zerekin" eta "noiz" egiten den kontutan hartuta (Etxebeste, 2008). Atal horiei "zer esaten duten" gehitzen zaio, parte hartzaileek eginkizun

motorrari ematen dioten esanahia ezagutzeko informazio garrantzitsua delakoan. Eskema hori ohiko etnografian erabiltzen denaren antzekoa da baina gai honetara egokitua dago (Martinez, 2006, 91-93).

3. Objektibotasun maila

"Ikerketa etnografikoak "objektibitate" maila handia lortzen du. Hori bere ikuspuntu fenomenologikoarengatik da, aztertzen dituen laginen selekzio arduratsuagatik, subjektuekin lortzen duen enpatiagatik, fidagarritasun maila onagatik eta baliotasun bikainagatik. Sakontasunez aztertzen den subjektuen lagina kontu handiz hautatzen da". (Martinez, 2006, 197).

Kasu honetan, "lagina", aukeratutako korpusari eta parte hartzen duten subjektuei dagokie. Lehenengoari buruz "korpusaren aukeraketa" atalean hitz egin dugu, beraz parte hartzen duten subjektuen hautaketaz jardungo dugu. Parte hartzaileen hautaketa egiteko ez dira kontutan hartzen beraien ezaugarriak eta begirale edo entrenatzaileak izan dezakeen ospea. Hautaketa praktika eskaintzen duen herriko kirol erakundeak duen garrantziaren araberakoa izan da. Klubek, gimnasioek eta orokorrean kirol erakundeek historia bat, dimentsio sozial bat izan behar dute herriko kirol merkatuko ordezkari eta era berean lanaren garapenerako interesgarri izan daitezen.

Lau izan ziren aukeratutako kirol erakundeak:

- Sociedad Cultural Deportivo Recreativa (SCDR) Anaitasuna. Iruñakoa. 1946an sortua, berrogeita hamar urte baino gehiago ditu eta orain hogeita batetik Kantauri eta Mediterraneo itsasoen arteko Pirinioetako mendi zeharkaldia antolatzen du. Klub hau mendi irteeren eta euskal elkarte tradizioaren ordezkari bezala aukeratzen da.
- Estadio Fundazioa S.C. Gasteizkoa. Caja Vital Kutxaren gizarte ekintza da jabea eta berrogeita hamar urte baino gehiago daramate izaera erdi publikoa duten kirol praktikak eskaintzen. Aerobica 1996-97 denboralditik aurrera eskaintzen ari dira. Aerobiceko behaketak egiteko aukeratzen da.
- Ordiziako Kiroldegiko kudeaketako erakunde autonomoa. Ordiziako (Gipuzkoa) udalarenak diren instalazioen kudeaketa osoaz arduratzen

den elkarte erdi-publikoa. Aerobicaren saioak behatzeko aukeratzen da.

- Ordizia Kirol Elkartea. 1941ean sortutako klub pribatua. Sortu zenetik Gipuzkoako Federazioak antolatzen dituen lehiaketetan parte hartzen du. Futbol taldearen behaketa egiteko aukeratzen da

Horrela jardutean behatu behar den praktika motorrak Euskal Herriko erakunde sarean adierazgarritasuna duela ziurtatzen da; erakundea da egiteko modu baten ordezkaritza duena: udal erakundeak, kirol anitz eskaintzen dituzten klubak, fundazioa erdi-publikoak eta kirol modalitate bakarreko klubak. Era berean, gizartean ongi errotutako kirol adierazpenetan oinarrituz hautatzeak moda iragankorren kirol fenomeno marjinalak baztertzen uzten du. Prozedura honek subjektuen ezaugarriak giza egite modu baten ordezkariak izatea ere ziurtatzen du. Kirol praktikak zuzentzen dituzten irakasleak beraien lana ondo ezagutzen dute eta erakundeekin lotura erdi-profesional bat agertzen dute. Ordezkari diren erakundeen arloan, baieztatutako kirol jardule taldeak hautatzen dira, egonkor mantentzen diren kirolari taldeak, ahalik eta kirol maila handiena dutenak. Kirol errendimendu handiena bilatu nahi horrek bat egiten du beste ikerketa batzuetako dinamikekin; adibidez nazio eta nazioarte mailako txapelketetan jokalarien pentsamendu estrategikoa aztertzen dutenekin. Hala ere, ez dira goi errendimenduko taldeak aukeratzen, lan honen jomuga “ohiko” herritarrek egiten duten praktika fisikoa baita eta ez kirol elite batek egiten duena.

2.3 Landa lanak eta mendi zeharkaldi, aerobic eta futbolaren monografiak

Malinowskiren garaietatik, behaketa partehartzaileari lotutako teknika eta ikerketa aldiak antzera mantendu dira. Prozesu hori lau goiburutan zehazten da: “behatzen diren pertsonen artean egon eta inguru horretara egokitu, gertakizunen garapen arrunta behatu, gertaera horiek oharrak hartuz jaso eta behatutakoa interpretatu memoria bat eginez.” (Peretz, 2004, 14).

Behatutako pertsonen artean egon, ingurunera egokitu eta gertakizunen oharrak jaso atalak jadanik aipatu ditugunez eta kirol praktika bakoitzean jarraitu dugun ikerketaren garapena azaldu baino lehen, memoria etnografikoa idazteko era azalduko dugu.

Geertzek “zer ikasten dugu printzipio horiei buruz [oilarren borrokari buruzkoak], kultura testu multzo bat bezala aztertuz?” (Geertz, 1994, 368) galdetzean, etnografia idatzizko dokumentu batean islatzen dela gogora arazten digu, hau da, behatutako errealitate konplexua hitz, esaldi, paragrafo eta kapituluetan idatziz.

Etnografiako idatzia, estetika hutsa baino deskribapenak irakurlearengan izango duen eraginaz arduratzea da. Irakurlea jakintza arlo bereko ikertzaile aditua izan daiteke, baina baita ere arlo horri buruz gutxi ulertzen duen behatutako subjektua. Norentzako idazten da? Nola jakin dezakegu idatzitakoak natiboen errealitatea islatzen duela beraiek ulertzeko moduan ez badugu idazten? Nola erakutsiko diegu adituei errealitatea zientzialariaren ikuspuntutik aurkeztuz, ikerlana natiboen pentsamenduaren egituratze bat dela? Idazkera, etnografiaren kakoetako bat da eta ikerketaren arrakasta idatziaren menpe dago. Guk Henry James (1843-1916) idazle eta literatura kritiko estatubatuarraren gomendioak jarraituko ditugu. Jamesek gastronomia eta idazkera konparatzean zera dio: “sukaldeaz asko arduratzea da errezeta bakarra” (Wood, 2008, 9). Goazen ba idazteko moduaz arduratzea.

Bolo jokoari buruzko bere etnografian Lavegak (1997), estrategia klasiko bat erabiltzen du idatzia gaika antolatuz. Bere narrazioa kirol jokoaren testu eta testuinguruaren arabera antolatzen du eta atal bakoitza behaketen deskribapen motz batzuekin eta gaiarekin erlazionatutako galdeketa-elkarrizketa zatiekin osatzen du. Etxebeste (2001) Etnikerrek idatzitako euskal haurren joko-jolasen landa lanetik abiatzen da. Bilduma horretan joko-jolasez gain testuinguru sozialaren ezaugarri batzuk ere agertzen dira. Eskuetan hori izanik, Lavegak bezala, gaika antolatutako monografia bat egiten du. Etxebestek Lavegaren aldean, elkarrizketak testua hornitzeko erabiltzen ditu bakarrik. Bere lanaren kapitulu guztiak joko-jolas batzuei buruzko bizipen elkarrizketa batzuekin hasten dira, kirol praktika horietan jarduleen esperientziaren testuingurua irudikatuz. Elkarrizketa horietan bizipen eta emozioak deskribatzen ditu nahiz eta gero datu horiek ez erabili idatziaren diskurtsoan. Antolamendu horrekin eta metodoaren ikuspuntutik “narrazioa eta analisia banatzen ditu” (Hammersley eta Atkinson, 1994, 241).

Banaketa hori areagotu egiten du Urdangarinek (2009) Nevadako euskal diasporari buruzko ikerketa lana bi bloke handitan zatituz: batetik bizipenaren kontakizuna, “bailando jauzi bajo barras y estrellas” izenekoa; eta bestetik, joko-jolasen eta dantzen analisi etnomotorra, “la socialización de los jóvenes vascos en Estados Unidos” deritzona. Lehenengoan singularreko lehen pertsona erabiliz euskal amerikanoen artean bere esperientzia kontatzen du; eta bigarrengoan barne eta kanpo logika uztartuz kirol joko horiek aztertzen ditu.

“Idatzi antolamendu hori interesgarria gertatzen da gauza batzuetan. Ikerleak talde sozialari buruzko deskribapen eroso eta samurra egin dezake eta gainera oso erabilgarria. Irakurleak aztertzen den kulturari buruz eta egilearen “iritziei” buruzko informazio ugari jaso dezake. Kontatzeko modu hori ez dago informazio askorekin lagundu beharrik eta aldi berean arazorik ez du ematen azterketarekin. Irakurlea, aztertzen den kulturarekin ohitua dagoenean, egilea aske da gai eta arazoen eztabaidarako eta gainera eztabaida hori datuekin hornitu beharrik izan gabe” (Hammersley eta Atkinson, 1994, 241).

Etnografiaren kontakizuna eta analisia banatze estrategiak etnomotrizitatean egokitze ona izan du, gure lanean ere irizpide bera jarraituko dugularik. Etnomotrizitate bakoitza -mendi zeharkaldia, aerobica eta futbola- bi zatitan banatzen da. Lehenengoan kirol praktikako emozio esperientzien berri ematen duen dokumentu bat aurkituko du irakurleak; eta bigarrengoan, bertatik lortutako barne eta kanpo logikaren analisia.

Estrategia hau hartzeak dakartzan arazoetaz jakitun gara. Nahiz eta kirolariaren esperientzien kontakizuna zoragarria, liluragarria edo xarmangarria dirudi dezakeen arren, idatzia ez da inozoa, sinplea edo aurre-analitikoa. Testua orientatua dago; gero azterketan agertzen diren gaiak kirolarien izerdi eta gozatuen kontakizunean daude. Egiazkoa eta ugaria den informazio horren azpian egilea kontziente da analisiaren sostengua non ezkutatzen den.

Kontakizuna eta analisiaren banaketa literatura errekurtso bat da, baina oinarrizko ezaugarri teorikoak ere baditu. Kirolariek beraien artean eta ingurunearekin mantentzen duten erlazioa komunikazio motorra dela onartzen badugu, kontakizunaren eta analisiaren banaketa, hizkuntza eta hizkera

desberdintzean oinarritzen da. Ferdinand de Saussureren hitzetan “hitza hizkuntzatik banatuz, aldi berean zera banatzen da: 1.- soziala dena banakoa denetaz; 2.- funtsezkoa dena osagarri edo funtsezkoa ez denetaz” (Saussure, 1983, 30). Testu idatziaren banaketak inplizituki sistema sozial eta aktoreak osatzen duten dualismoa irudikatzen du; barne logika eta jokalariaren erabakien artekoa.

Gertakizunen kontakizunari buruz aipatzekoa da literatura kritiko den James Woodek bere estilo liburuari hasiera nola ematen dion: “Fikzioaren etxeak leiho asko ditu baina bi edo hiru ate bakarrik. Istorio bat lehen edo hirugarren pertsonan kontatu daiteke” (Wood, 2008, 17). Lehen pertsonan edo hirugarren pertsonan idatziaz irakurleak efektu desberdinak jasango ditu. “Hedatua dagoen ideia da kontraste bat dagoela kontakizun fidagarriaren (hirugarren pertsonan kontalari orojakilea) eta fidagarria ez den kontatzailearen artean (kontalaria lehen pertsonan, fidagarria ez dena eta bere buruaz gutxi dakiena, irakurlea azkenean jakitera iritsiko dena baino gutxiago)” (Wood, 2008, 17). Azalekoa dirudien arren, literatura etnografikoa sakontasun handiko eztabaida horren barne dago. Lehen pertsonan idaztea ikertzailearen elkarrekintza onartzea da eta antropologia deskribapena baldintzatuko du. Hirugarren pertsonan idazteak aldiz, behatutakotik urruntze bat eskatzen du, irakurlea objektibotasun pertzepzio batean murgilduz, baina ikerketak urrunagoko errealitate bat irudikatuz. Guk lehen pertsona erabiliko dugu kirol praktiken kontakizunetan.

Antzekoa pasatzen da aditzaren denbora erabilpenarekin. Bi denbora izan dira erabilienak: orainaldi historikoa eta iragana. Orainaldi historikoan, garai batean pasatutakoa hemen eta orain bizi duela hautematen du irakurleak. Esperientzia “errealagoa” da nahiz eta kontakizunaren denbora “faltsuagoa” izan. Iraganaren erabilpenak aldiz gertakizunekin bat datorren denbora deskribapen bat ziurtatzen du, baina irakurlea deskribatutakotik afektiboki urrundu egiten da. Guk nagusiki orainaldi historikoa erabiliko dugu irakurlearen lotura emozionala errazten duelako.

Kontakizunaren argumentua gertakizunen kronologia errespetatuz modu errealista batean garatzen da. Testuan errepikapenak ekiditeko, saio edo egun

“mota” deiturikoak erabiliko dira. Kontakizunean agertzen diren pertsonaien ezaugarriak modu arinean deskribatzen dira, gehienbat praktika irakasleen bereizgarriak azalduz.

Txanponaren beste aldea analisi zientifikoaren diskurtsoa da. Testua zientzia akademiak eskatzen dituen betekizun literarioak errespetatuz egiten da. Aurrez azaldu dugunez, analisi hau lau parametrotan egituratzen da: espazioarekiko, besteekiko, denborarekiko eta objektuekiko erlazioetan, guztiak barne eta kanpo logikari dagokionean analizatuz. Deskribapena sisteman oinarritzen da kirol arauen errealitate eta eragile sozialetan, hau da Raymond Boudonek sistema funtzional deiturikoetan (Boudon, 1979, 85-116). Jarraian etnomotrizite bakoitzari buruzko ezaugarriak aipatuko ditugu.

2.3.1 Mendi zeharkaldiaren etnomotrizitatearen garapena

Street Corner Societyko eranskin metodologiko ezagunean (A gehigarria), Williams Foote Whytek ikerketa prozesuaren deskribapen bat egiteko beharra azpimarratzen du, eta azalpen horrek ikertzailearen biografiaren deskribapena izan behar duela ere adieraziz. “Ikerketa aurrera eraman den moduaren benetako azalpenak, ikertzailearen bizitzari buruzko informe pertsonala beharrezkoa du. Ikertzaileak komunitatean egin duen bizitza pertsonalari buruzko informeak lagundu dezake datuen analisiaren prozesua azaltzen”. (Whyte, 1993, 311-312).

Nire bizitza Lazkaon (Gipuzkoa) hasten da. Landa ingurunea bizigune duen langile familia batetako semea naiz, zehatzago esanez hiru seme-alabetan gazteena. Gurasoek gazteak zirela bizi izan zituzten miseriak, seme alabek unibertsitate ikasketak burutzeko bultzada izan ziren; formazio egoki bat, hobekuntza ekonomiko eta soziala izan zitekeen, ikasketak burutzeko arrazoi ezin hobea. Nire anaia eta arrebaren bidea klasikoa izan zen: batxilergoa amaitu eta jarraian maisu-maistra eta mediku ikasketak burutu zituzten. Nik hartu nuen bidea ordea bihurriagoa izan zen. Institutu garaia gainditu ondoren ingeniaritza ikasketak egiten hasi nintzen, baina algebra, kalkulua eta marrazketa teknikoarekin aspertu eta nahigabetu egin nintzen: hura ez zen nirea. Ikasketak utzi eta lan mundura jauzi egin nuen, hainbat lanbide desberdinetan arituz. Bat aipatzearren Aralarko

mendikatean langile talde baten sukaldaritza eta intendentzia arduradun bezala aritutakoa adieraziko nuke. Aste guztia mendian igarotzea erakargarria eta hausnarketarako ezin hobea gertatzen zen. Han piztu zen berriro ere nire har intelektuala. Lagun min baten bidez SHEE-IVEF ezagutu nuen, gaur egun Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea dena eta arduraz eta umiltasunez ikasten hasi nintzen. Nire imajinazioan praktika eta hausnarketarekin lotzen nuen lizentziatura eta ezin dut ukatu akzioa izan nuela, baina hausnarketa teorikoa, gorputz hezkuntzan sumatzen nituen arazoetatik urruti zegoela iruditu zitzaidan. Erasmus programa probestuz Norvegiara joan nintzen, beste lurralde batzuetan egiten zena behatzeko aukera ezin hobea. Atzerrira joateak nire formazio gabeziak alferkeriagatik edo fakultateko ikasketa antolakuntzagatik ziren jakiteko balio zezakeen. Norvegiako negu ilun, isil, hotz eta luzeak kezka hori argitu zidan. Gasteizko arazoa, Notoddenen ere bazegoen. Nire ikuspuntutik, formazio gabezia ez zen nagikeriarengatik edo irakasleengatik, baizik eta momentuan jakin ez nezakeen beste zerbaitengatik. Norvegian, hausnarketa sakonez gain, praktika motor ugari egin nituen bertako mendi basatietako lautada izoztuak eski zeharkaldi paregabeen gune izan zirelarik; eta jadanik eskaladan, mendi bizikletan eta mendiko eskian nuen esperientzia areagotuz.

2002an lizentziatura lortu nuen baina buruan nituen galderei erantzunik eman gabe jarraitzen nuen. Egia esan, nire bizitzako bidegurutze batean nengoen eta ez neukan argi zein bide hartu. Ikaskide batek animaturik “Jarduera Fisikoa eta Kirola” doktorego programan izena eman nuen. Doktorego programan ere lizentziaturako eduki eredu berdinarekin jarraitu nuen: denetik zertxobait. Baina lizentziaturan ez bezala nire kabuz posizio zientifiko bat hartu beharra neukan, nik neronek erabaki behar nuen jarraitu beharreko ikerketa ildo teorikoa. Erabakia berez etorri zen. Etxebestek euskal haurren sozializazio eta joko-jolas tradizionalei buruzko lana aurkeztu zidanean, buruko laino guztia altxa eta indarra ematen zidan argitasuna sentitu nuen. Joko-jolasei buruz berak egin zuena ikusirik eta gaur egungo Euskal Herria oinarri hartuz, ikerketa berregiteko aukera kontutan hartu nuen. Baina nire motxila txikiegia zen bidaia luze horretarako. Azkenik Ikasketa Aurreratuen Ziurtagiria (IAZ) lortzeko mendi zeharkaldiari buruzko etnomotrizitatea egitea erabaki genuen. Lan horrek nire zaletasun pertsonalak eta

garapen intelektuala lotzen zituen; eta gainera, etorkizunean beste gai batzuei heltzeko eskuak aske uzten zizkidan. Eta garrantzitsuena zera zen: nire interes partikularrak IAZko ikerketa lan horrekin bat etortzen zirela, objektua, metodo eta ikerketa etorkizuna baitzuen. Modu horretan hasi ginen mendi zeharkaldiari buruzko etnomotrizitatea egiten.

SCDR Anaitasunarekin lehen harremanak telefonoz eta e-posta bidez egin genituen. Beraiek antolatzen zuten Pirinioetako zeharkaldian ikerketa burutzeko baimena eskatzea zen gure asmoa. Baina saiakera deontologiko horrek ez zuen emaitzarik izan, ez baikenuen inolako erantzunik jaso. Azkenean praktikara sartzeko ohiko sarbidea erabili genuen: izena eman eta ordaindu. Taldearen egitura afektibo-sozial anitzak , beraien artean ia denak ezezagunak, lagundu egin zuen nire sarrera: taldeko beste bat nintzen.

Zeharkaldiko giden formazio teknikoa handia zen. Biak Himalaia mendikateko tontorrik handienetan ibiliak ziren eta bietako bat gainera nire ikasketa berak egindakoa. Gidek, intendentziako beste bi lagunekin batera, taldetxo bat osatzen zuten, beste guztietatik gauza batzuetarako banatzen zen taldetxoa. Bigarren egunerako giden taldetxoak bazekien nire asmoen berri eta zeharkaldiko eztabaida teknikoetan nik ere parte hartzen nuen. Beraientzako mendizale eta giden arteko nire posizioa interesgarria zen, modu horretan jakin baitzezaketen taldearen poztasun edo atsekabetze maila.

Mendi zeharkaldian oso eroso sentitu nintzen. Fisikoki eta teknikoki ongi prestatua egonik, ibilbidean aurrera eta atzera ibiltzen nintzen kideak harrituta utziz. Zuk ez dakizu mendian ibiltzen? Edo zergatik ez zara bidetik joaten? bezalako galderak izaten ziren portaera horren isla. Galdera horiek mendian ibiltzearen ezkutuko araua agerian uzten zuten: mendi zeharkaldiaren ohiturak eta egiteko erak.

Oharrak eguna amaitzean jasotzen nituen. Gertakizun garrantzitsuenak idatzi eta egunean egindako ibilbidea mentalki berregiten nuen. Mendian ibiltzen ohitua dagoen batentzako hori ez da zaila egiten. Izan ere, mendian aurkitzen diren zeinuak hartzea garrantzitsua izaten da, galtzea gertatu ezkero zeinu horiek orientabide izango baitira.

Zeharkaldia amaitzean taldea bat eginda zegoen; denok ezagutzen ginen, lotura afektibo estua zegoen. Kideen arteko harremanak jarraitu egin zuen eta hurrengo urteetan beste bi zeharkaldi ere partekatu genituen. Zeharkaldi horietako behaketek lehen zeharkaldian ateratako ondorioak egiaztatzeko balio izan zuten. Garai horretan kide guztiek zuten gure ikerketaren berri.

Monografia kontakizun etnografikoarekin hasten da. Zailtasunik handienak testua orientatzeko garaian sortzen zaizkit. Kontziente naiz kontakizunaren ondoren datuen analisia egin behar dela baina biak lotzeko arazoak ditut. Lana, aktorearen bizipen eta sistema sozialaren analisiaren arteko joan etorri bat eginez idazten da. Bi dokumentuak egin eta berregin, saretu eta konpondu egiten dira dokumentuaren bi aldeak argi gelditu arte. Sentsazioa arraroa da: zein erraza den horrelako testu bat irakurtzea baino zein zaila egitea.

Atzera begiratuz kontakizun etnografikoa irakurtzen dudanean, zapore gazi gozoarekin geratzen nahiz: gaur egun beste modu batean idatziko nuke. Garai hartan nire esperientzia urriak eta idatzi “objektiboaren” mamuak, kontakizuna hirugarren pertsonan idaztera eraman ninduten. Irakurleak ez nau aurkituko Pirineotako malda eta sakanetan barrena. Hala eta guztiz kontakizuna horrela uztea erabaki dugu ikerketa garapenaren seinale gisara.

- Behatutakoa irakurle egiten da: mendizalearen begiradaren baliotasuna

> “Ikerketa batek baliotasun handia dauka errealitate bat behatu neurtu edo hautematean errealitate hori eta ez beste gauza bat behatu, neurtu eta hautematen denean. Egite horrek osatzen du barneko baliotasuna. Beste baliotasun irizpide bat ere badago eta azterketa bateko egoerak antzeko beste talde batzuetan zenbateraino aplikagarriak diren jakitean datza. Etnografoek, beraien azterketek baliotasun maila altua dutela adieraziz egiten duten baieztapena, informazioa biltzeko moduagatik eta erabiltzen dituzten analisi tekniketatik eratorria dago” (Martinez, 2006, 200).

Barneko baliotasuna ebaluatzeko, deskribatu duguna zeharkaldi hartan izan genituen kideen oroimenarekin alderatzea beharrezkoa egiten zaigu. Horretarako, zeharkaldi hartako kideei kontakizun etnografikoa eman genien lasai irakurri ondoren hiru galderei erantzun ziezaieten. Lehen galdera kontakizunaren egiazkotasunari buruzkoa da eta beste biak ikerketaren alde etikoa dute oinarri.

Kontakizuna euskaraz izatea mendizaleen artean testua banatzeko oztopo izan zen. Hemen azaltzen ditugu “Aitorren” erantzunak:

> **GALDERA 1.- Zure iritzian kontatutakoa egiazkoa edo zinezkoa al da? Kontakizunean errealitatea den moduan islatzen dela uste al duzu?**
>
> Aitor: “Bai. Bertan ahaztuta nauken hainbat pasartek berreraman naue zeharkaldixa barriro be eittera. Atsegingarria izan jat berriz be honeik gogoratzie.”

Gure subjektuak egiaztatzen du dokumentuan idatzitakoaren egiazkotasuna, datuak fidagarriak direla ziurtatzen dugularik. Kanpoko baliotasuna lanaren helburua eta azterketaren eraikuntzari lotua dago. Lanaren helburua kirol joko-jolasen barne logikaren eta sistemaren gizarte-eragileetan oinarritzen denez, eta arlo horiek bizipen eta teoria mailan etengabeko joan etorri batean egiaztatzean, antzeko eredu sozialen irudi ere izan daitezke.

Partehartzaileei zeharkaldiko maila etikoari buruz ere galdetu zaie, ikertzailearengan zuten konfiantza traizionatua sentitu duten edo talde barruan geratu beharreko gertakizunak kontatzen ziren galdetuz.

> **GALDERA 2.- Zure ustetan kontakizun horretan norbaiten intimitatea mindu edo iraintzen al da? Nire lanak zuek emandako konfiantza traizionatu al du? Testua publiko egiteko arazorik topatzen al duzu?**
>
> Aitor: “Ezagutu gaittuzun moduen, badakitzu zein jende irekia izan ginen bertan parte hartu genuenok; ez dot uste inor iraindurik sentittuko danik, are gutxiago emandako konfidantzarengan salduta. Argitara egin behar bada be, istorioa izan zan moduen kontau dozu. Ni, neure partetik ondo deritzot aste horretako gora-beherak idatziak izatea. AURRERA!”

Argi dago ikertzaileak guztien begien aurrean gertatu zirenak kontatzen dituela eta inolaz ere ez salbuespenezkoak. Jarduleek ez dute konfiantzarik galdu.

Azken galderan anonimotasuna gordetzeko izenak aldatu behar diren galdetzen zaie. Testua izenak aldatuta eman zitzaien; IAZan erabili zen eta orduan egoki iruditu zitzaigun benetako izenak ez plazaratzea.

> **GALDERA 3.- Kontakizunean pertsonei abizenik ez diegu idatzi, argitaratzeko izena aldatzea komenigarria izango dela uste al duzu?**
>
> Aitor: “Kostatu jaten zein zan zein asmatzie. Goixan esan dotzuten moduen, ez dot uste inor minduta sentittuko danik bere izena ipinita be. Zeharkaldi zati hori ein

> gauenontzat errexaua izango jakun norberan izena irakurtzie, bakotxa bere lekuan kokatzeko; baina era berean izen aldatziak badu bere intriga puntue. Katxi; badakit nundik datorkixon eta Aitor?...
>
> Amaitzeko esan besterik ez, istorio honetan hamabost partehartzaile izan ginela eta hamalau izen besterik ez ditudala aurkitu. Hamabostgarren pertsona honi neuk jarriko dotzet izena; "ARGI". Argik, zer ikusi haundixa euki zauen astebeteko zeharkaldi honetan, batez be bere jatortasun eta jakituriagatik."

Izenak publikatzeari buruz ez du aipamenik egiten, baina bere kasuan izenak aldatzea oztopo bat gehiago izan zen testuaren egiazkotasuna neurtzeko garaian. Irakurlea ohartzen da ikertzailea taldeko kide bat gehiago izanik, testuan ez dela agertzen. Komentario guztiek mendi zeharkaldian bizitako enpatia azpimarratzen dute.

2.3.2 Gimnasia-aerobicaren etnomotrizitatearen garapena

Ikasketa Aurreratuen Ziurtagiria eskuetan genuela tesia izango zenari itxura eman genion: euskal gizartean kokatutako azterketa etnografiko konparatzaile bat izango zen. 2005eko otsailean Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatean kontratatu ninduten: dekanotzako kudeaketa lana hartzen zuten irakasleen ordezkoa izango nintzen. Sailak egindako lanak eta zorteak nire aldera egin zuten, egun batetik bestera Ekintza Motorren Behaketa Laborategiko zuzendariekin irakaskuntza partekatzen bainuen. Egoera ezin hobea zen hori, nire lana eta ikerketa ildo teorikoa bide beretik baitzihoazen.

Jadanik banekien etnografia batek adore txakal aldia eragiten duela, egin berria nuen mendi zeharkaldiaren monografiak hori gogorazten zidan. Etxebestek testu bat irakurri eta "ondo bai, baina…" esaten zuenean, berriro idatzi beharra zegoenaren seinalea zen; ongi ez zegoenaren aurrean irmotasun erakuslea. Kritika haiek eskertzekoak ziren baina hala eta guztiz hasiberriaren bihotza berdin kilikaberatzen zen.

Lehen etnografia mendi zeharkaldia izan bazen, bigarrena aerobica izatea erabaki genuen: guretzako, aukeratutako praktika motorretan arrotzena. Ezaguna eta guztiz menperatzen nuen praktika batetik ezezaguna nuen praktika motor batera pasatzen nintzen. Eta hori ez zen guztia; aerobica emakumezkoen ohiko

praktika bat zenez generoari dagokion estereotipo sozialei ere aurre egin behar nien. Emakumezkoen azaletik praktika fisikoaren erronkari aurre egiteak kemenaren ahultze bat bultzatu zezakeela sumatzen nuen, baina guretzako une egokia zen desafioari aurre egiteko, ongi nengoela uste baikenuen. Erronka hasteko, jarduera fisiko eta kirolean aditua izanagatik dantzetan ez jakin bat nintzela onartu behar nuen; eta gainera, kirolari eta gizonezko bezala emakumezkoak trebeagoak zirela onetsi. Umiltasun jokabide hori, emakumezko kideekiko jarrera onarekin eta taldearekiko konpromisoarekin konbinatu beharko zen. “Mari” beldurgarriari begietara begiratuz ihesi gabe mantentzeko garaia zen.

Argi dago zama kultural eta afektibo horrek nire sarrera baldintzatu egiten zuela. Nire beldurrez gain emakumezkoen taldean onartua izan behar nintzen. Kirol erakundea eta begiralea ziren praktikarako sarbideaz arduratzen zirenak. Erakundearen izen emateko araudian ez zen arazorik azaltzen eta begiralea berriz nireganatu beharra neukan. Adostu genuen bezala begiraleari nire ikerketa intentzioen berri eman nion eta gogo onez onartu ninduen. Gainera Estadio Fundazioko begiralea lanbide berekoa zen, gure arteko ulermenean lagungarri izanez.

Baina, etxe bateko atea irekitzen dizutenean ez du esan nahi bazkaltzera gonbidatuko zaituztenik. Egoera ez zen erraza; nola irabazi jardule emakumezko guztien konfiantza gizonezko bakarra izanik? Adituaren edo emakumezkoaren itxura egitea ez zen egokiena, kontrakoa bainintzen; baina gutxienez nire eskuetan zegoena egin nezakeen: garbi eta txukun joan eta arropa egoki bat jantzi. Dantzarako nuen gabezia ez zen genetikoa, baizik eta nire formazioan zegoen hutsunearen isla. Unibertsitateko ikasketetan kirol duelu egoera desberdinetan arerioari aurre egiten ikasi nuen, baina musikaren erritmora dantza pausoak egiten ez ordea. Une horretatik aurrera kontziente izan nintzen emakumezkoen praktika motor baten barne logika ikertzea, emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasunean aurrerapen bat zela; eta aldi berean emakumezkoek kirolean dituzten berezitasunen balorapen bat. Taldeko kideak irabazteko lehen laguntza begiraleak eta nire lankideek eman zidaten. Lehen urratsa aerobiceko oinarrizko dantza pauso batzuk ikastea izan zelarik.

Hasieran, besteen aurrean inbisiblea izaten saiatzen nintzen zuhurtzia fisikoari espazioan hartzen nuen kokapena gehituz. Aretoaren atzealdean kokaturik eta ardi beltza nintzela jakitun, konfiantza hartu arte ikasi eta hobetu beste biderik ez nuen. “Ezgai onargarri” bat bezala arituz aste gutxitan gaitasuna eta taldean konfiantza hartzen joan nintzen. Aste gutxik ez du esan nahi saio gutxi: aerobic taldeetako emakumezkoek astean bi saio egiten bazituzten, nik zazpi saio egiten nituen; eta horri nire kontura egindako lana gehitu behar zitzaion. Aerobiceko gaitasun saio bat zuzentzea zen gure helburua. Prozesuak aerobiceko mundu profesionalean aritzeko gerturatu behar ninduen.

Oharrak saioen amaieran idazten nituen baina koreografiak gorputzean neuzkan: nire memoria motorrean grabatuak zeuden. “V”, “viña”, “mambo”… edozein pauso deskribatu nezaken ikasitakoa nik bakarrik errepikatuz. Eta poliki-poliki landa laneko egunerokoa aerobiceko dantzan baino praktikako ingurune eta egoeratan gehiago zentratzen joan zen. Parte-hartzaileen jarrerak eta elkarrizketak aerobicaren kode kulturala erakusten zuten: aerobicaren egite eta ohiturena. Nire gizon presentziak etengabe urratzen zituelarik.

Etnografiako kontakizuneko idatziaren abiapuntua ni izan behar nintzen, nire esperientzia: aerobiceko areto batean gizonezko baten presentziak guztiengan eragiten duen talkaren kontakizuna. Nire emozioek emakumezkoen ikuspuntuaren zabaltzaileak izateko balio beharko zuten baina ezin zitekeen nik neuri buruz egindako bat kontakizun bihurtu. Kontakizunaren eta analisiaren joan etorriak lagundu egin zuen guztia zegokion atalekin lotzen. Eta halaber, idatzian begiraleetan, jartzen da arretarik handiena. Taldearen dinamikan parte hartze txikia dago eta modu horretan ezaugarri partikularrak saihestu egiten dira. Salbuespenen bat medio, deskribapenak kirolari taldearenak dira; begirale baten aginduetara aerobic egiten duen talde batenak.

Aipatzekoa da Ordiziako talde batean ere aritu ginela aerobica egiten eta behatzen, modu horretan egindako behaketen kanpo egiaztatzea egiten zelarik.

- Behatutakoa irakurle egiten da: aerobic begiralearen begiradaren baliotasuna

Barneko baliotasuna ebaluatzeko beharrezkoa dugu deskribatu duguna aerobiceko saio haietan dantza pausoak eta koreografiak partekatu genituen kideen oroimenarekin alderatzea. Horretarako, begiraleari kontakizun etnografikoa eman genion lasai irakurri eta ondoren hiru galderei erantzun ziezaien. Lehen galdera kontakizunaren egiazkotasunari buruzkoa da eta beste biak ikerketaren alde etikoa dute oinarri. Hemen azaltzen ditugu "Estiren" erantzunak:

> **GALDERA 1.- Zure iritzian kontatutakoa egiazkoa edo zinezkoa al da? Kontakizunean errealitatea den moduan islatzen al dela uste al duzu?**
>
> Esti: "Bai. Nire iritziz ondo islatzen duzu aerobiceko saio batetan gertatzen dena, eta aerobicean inoiz aritu ez eta bere lehenengo saioetara doan ikasle baten ikuspuntua ere asko gustatu zait. Interesgarria."

Baieztatu egiten da kontakizun etnografikoak parte hartzaileen esperientzia deskribatzen duela. Aipatzekoa da irakurleak nire hasiberriaren esperientziari ematen dion garrantzia. Erantzunak praktika fisikoan ikertzailearen gaitasuna baieztatuz jarraitzen du. Horrela dio:

> "Era berean, zeinek esango luke lehenengo egunean zu dantzan ikusi eta gero ikasturte amaieran hain ondo moldatuko zinatekeenik? Argi erakutsi zenuen gogoekin dena lortzen dela. Ederto lortu ere!"

Gaitasun motorra barne logikaren analisirako lagungarri da eta aerobiceko kideekin erlazio egoki bat lortzeko ere oso baliagarria. Behatutako begiralearen erantzunak berak zuzendu zituen taldeen desberdintasunak analizatuz jarraitzen du.

> "Kontakizunari dagokionez, nire ustetan idatzitako dena ongi azaldu duzu. Aipamen txiki bat: kontakizuneko esaldi batean badiozu Estadioko taldean denak arrotzak diruditela. Egia da ni klaseak ematen aritu nintzen denboran leku batetik bestera taldeak oso desberdinak zirela. Ez dakit zergatik, baina herrietako taldeak askoz gertuagokoak ziren eta Gasteizen bertan leku batetik bestera ere alde ederra zegoen! Eta talderik serioena (nolabait adieraztearren) Estadioko taldea zen. Ariznabarrako taldea berriz oso gertukoa zen. Pentsa, nire ikasle batzuk alabatxoa banintzan zaintzen ninduten! Egia esan oso gustura aritu nintzen talde guztiekin, bakoitzetik zerbait ikasten duzu eta."

Begiraleari maila etikoari buruz ere galdetu zaio. Berak ikertzailearengan zuen konfiantza traizionatua sentitu duen edo talde barruan geratu beharreko gertakizunak kontatzen ziren galdetzen zaio.

> **GALDERA 2.- Zure ustetan kontakizun horretan norbaiten intimitatea mindu edo iraintzen al da? Nire lanak zuek emandako konfiantza traizionatu al du? Testua publiko egiteko arazorik topatzen al duzu?**
>
> Esti: “Nire ustez ez da inoren intimitatea mintzen eta ez du inolaz ere nire konfiantza traizionatzen. Testua publiko egiteko arrazoirik ere ez dut ikusten.”

Azken galdera anonimotasuna mantentzeko izenen aldaketari buruzkoa da. Eman zen testuan abizenak ez dira azaltzen izenak bakarrik agertuz. Arazo horri buruz kontsulta egiten zaio.

> **GALDERA 3.- Kontakizunean pertsonei abizenik ez diegu idatzi, argitaratzeko izena aldatzea komenigarria izango dela uste al duzu?**
>
> Esti: “Ez.”

Nahiz eta erantzuna ezezkoa izan, badaezpada, egiazko izenak fikziozko batzuez aldatzen dira.

2.3.3 Futbolaren etnomotrizitatearen garapena

Lanaren zatiak eta atalak egiten nituen heinean uste nuen nire errekurtso eta gaitasunak garatzen joango zirela, modu horretan hasierako kezkak gaindituz eta ikertzaile bezala sendotuz. Baina ohiko eta natural egiten den ibilbidearen aldean, urtetik urtera ziurgabetasuna handitu egiten zitzaidan. Mendi zeharkaldietako esperientziak aerobicerako ez zidan gehiegi lagundu, hizkuntza motor bat ikasteak beste bat ikasten lagunduko ez balu bezala. Zer gertatu zitekeen futbolean? Afektiboki eta intelektualki sufritzen jarraitu behar al nuen?

Hautatutako praktikak egoera desberdinetan jarri behar nindutela argi neukan. Egoera horiek komunikazio testuinguru eta barne logika desberdinak izan zitezkeen. Eta horri aurre egiteko metodologi irizpide orokorrak nituen. Metodologia berdina eta barneratzen nioan ofizioa egoera berrietara egokitzen ziren, baina exijentzia handia zuten jarraibideak ziren. Talde berri batean sartu

behar nintzen, aurrekoetan mantendu nuen parte hartze berdina izan: sartu, aurkeztu, elkarrekintzan aritu, desberdinen laguna egin eta era berean beraien azalean jarri, beraien begiekin begiratu, nire sentimenduak besteen emozioen oihartzunerako erabili, azken finean, beraietako bat izan.

Baina egonezina ez zen horretara mugatzen, aurrez erabilitako estrategiak oro har ez zitzaizkidan baliagarriak egiten. Adibide inozo batekin erraz irudikatzen da aipamen hori: mendi zeharkaldiak iraun zuen bitartean ez nuen bizarrik moztu; aldiz aerobicean egunero mozten nuen; zenbat aldiz eta noiz moztu behar nuen bizarra futbolean? Beste hainbat gauzekin gertatzen zen bezala unean uneko erabakiak hartu behar ziren. Eta gero berriz idatziarekin borroka egitera bueltatu; kontakizun eta analisiaren arteko joan etorrian aritu. Garai haietan nire lankideei inbidia hartzen hasi nintzen. Laktato mailak neurtzea, gogo-aldarteari buruzko galdeketak egitea edo *curling* partida batetan granitozko bolak izotzetan egindako distantziak neurtzea niri ere erakargarri suertatzen zitzaizkidan. Baina zertarako kexatu gorputz hezkuntzan XIX. mendetik aurrera izan diren objektu eta metodologia anitzez. Azken finean konforme nengoen murgilduta nintzen etnomotrizitateari buruzko azterketarekin.

2006ko irailean Ordizia Kirol Elkartera barneratzeko lehen kontaktuak egiten ditugu. Futbolean esperientzia sendoa nuen. Gaztea nintzenean federazioak antolatutako txapelketetan jokatuta nengoen eta era berean lizentziaturan futbolari lotutako ikasgai guztiak egin nituen. Eta hori gutxi balitz une hartan fakultatean “Futbolaren funtsak” ikasgaiaren arduraduna nintzen. Futbolean nuen maila ona zen baina ez Ordizian aritzeko modukoa, modu horretan aukera hori baztertzea erabaki genuen. Gainera jokalari izatea ez zen egokia gertatuko bost hilabeteko txapelketa itzuli bat behatzeko. Taldera barneratzeko garaian egoera deseroso batean kokatuko ninduen: nik ezin nuen eta ezta nahi ere denboraldi erdiko fitxaketa izan. Ikuspuntu etiko batetik aztertuz ez zen egokia eta gainera kapitain eta entrenatzailearen aginduetara egotera derrigortzen ninduen. Hausnartu ondoren eta aurreko etnografietan bezala entrenatzaile eta jokalarien arteko zubi lanean aritzea egokiagoa zela erabaki genuen. Taldera sarbiderik errazena prestatzaile fisikoa izatea zen, entrenatzaile ez nintzen arituko baina entrenatzaileak nahi zuenerako prest egongo nintzen. Entrenatzailearekin egin

genuen elkarrizketan bera gure intentzioez kontent azaldu zen; soldatarik gabeko prestatzaile fisiko profesional bat edozein taldek esku zabalik hartuko lukeen langilea da. Gure ikerketa asmoa ezin hobea iruditu zitzaion: arduradunaren konfiantza irabazten hasita ginen.

Prestatzaile gisa nire lana beroketa eta prestatze fisikora mugatzen zen, nagusiki astelehen eta asteazkenetan. Ostiraletako entrenamendua partida aurrekoa izatean entrenatzailearen ardurapen egoten zen. Entrenamendu ugaritan beste jokalari bat banintzan bezala egiten nuen prestatze saioa. Jokalarien maila berean jartzean beraien konfiantza irabazten joan nintzen eta min hartzei, ariketei, teknikari, taktikari eta hamaikakoei buruz jarduten genuen. Beraiekin batera zelaian egiten nuen lana ostiraletan amaitzen zen eta partidetan beste gertaera batzuetan jartzen nuen arreta: bidaia, aldagela, aulkiak, partida eta ospakizunak. Une horietan beste taldeetan pasatzen zena behatzen saiatzen nintzen; ea egiten zituzten erritualak eta prozedurak gure taldean egiten ziren berdinak ote ziren egiaztatuz. Behatu nituen taldeetan ez nuen desberdintasun esanguratsurik aurkitu. Denboraldia amaitzean taldea desegin eta hurrengo denboraldirako berregituratzen hasi zen. Jarraitzeko gonbidapena egin bazidaten ere baztertu egin nuen, baina oraindik ere harremanetan jarraitzen dut.

Etnografiaren eraikuntza beste bien aldean desberdina izan zen. Futbolak interes handiarekin aztertu eta analizatu behar den joko araudi zehatza du. Eta gainera txapelketaren araudia dago; besteak beste ligako partidak igoerak eta jaitsierak arautzen dituena. Bestalde, nire rola ez zen izan arrotzarena, hasiberriarena edo ezgaiarena. Zentzu batean futbola ezaguna nuen. Lehen idatzi saiakerak gabezia batzuen erakusle ziren. Oraindik lanbidea ongi ikasi gabe neukan eta ni neu arrotz baten, antropologo baten begietatik ikustearen zailtasuna bistakoa zen. Poliki-poliki dokumentua itxura hartzen joan zen, protagonistetatik abiatuz futboleko errealitatea berreraikitzen.

- Behatutakoa irakurle egiten da: futbol jokalariaren begiradaren baliotasuna

Barneko baliotasuna ebaluatzeko beharrezkoa dugu deskribatu duguna entrenamendu eta futbol partidak partekatu genituen jokalarien oroimenarekin

alderatzea. Horretarako, jokalari bati kontakizun etnografikoa eman genion lasai irakurri eta ondoren hiru galderei erantzun ziezaien. Lehen galdera kontakizunaren egiazkotasunari buruzkoa da eta beste biak ikerketaren alde etikoa dute oinarri. Gure nahia entrenatzaileak irakurtzea bazen ere elebakarra izatean ezinezkoa gertatu zitzaigun. Hemen ditugu Anderren erantzunak:

> **GALDERA 1.- Zure iritzian kontatutakoa egiazkoa edo zinezkoa al da? Kontakizunean errealitatea den moduan islatzen al dela uste al duzu?**
>
> Ander: "Irakurri berri dudan kontakizuna egiazkoa da, urte guztian zehar bizitakoaren islada dela iruditzen zait. Bakoitzak era diferentera ikusi ohi ditugu gauzak baina gertatutakoak dira dudarik gabe."

Kontakizun etnografikoak parte hartzen duten subjektuen esperientzia deskribatzen duela egiaztatzen da. Era berean egoera berdinean bizipen desberdinak izaten direnaren erakusle da, baina beti ere erakutsitakoa gertaturikoa dela adieraziz.

Era berean jokalariari maila etikoari buruz galdetu zaio. Ea berak ikertzailearengan zuen konfiantza traizionatua sentitu duen edo talde barruan geratu beharreko gertakizunak kontatzen ziren.

> **GALDERA 2.- Zure ustetan kontakizun horretan norbaiten intimitatea mindu edo iraintzen al da? Nire lanak zuek emandako konfiantza traizionatu al du? Testua publiko egiteko arazorik topatzen al duzu?**
>
> Ander: "Ez dut uste inor mintzeko arrazoirik dagoenik, zentzu pixka bat izanez gero bakoitza segituan konturatzen baita beroaldian egin edo esandakoak askotan behar ez bezala egiten ditugula. Testua erabat irakurgarria dela iruditzen zait eta berrikuntza bat izango litzateke futbol talde bati buruzko horrelako kontakizun bat gordeta geratzea."

Deskribatzen diren emozioek, bistan uzten dituzte testuinguru publiko jakin batzuen barne, bere onetik ateratako subjektu batzuen jokabideak. Guzti honek lanaren hedatzearen aurrean adi egotera behartzen gaitu.

Azken galdera izenei buruzkoa da: ea benetakoak edo fikziozkoak jarri beharko liratekeen. Eman zitzaion testuan izenordeak bakarrik agertzen dira. Horrela utzi behar diren edo ez galdetzen da.

GALDERA 3.- Kontakizunean pertsonei abizenik ez diegu idatzi, argitaratzeko izena aldatzea komenigarria izango dela uste al duzu?

Ander: “Izenak idaztea formalagoa izango litzateke beti ere moteak ondoan jarriz, errealitatean hauek erabiltzen direlako.”

Gure ustetan egoki izango litzateke jokalarien izenordeak fikziozko izenen bidez aldatzea. Lana argitaratzeko intentzioa balego eta parte hartzaileen identifikatzea ekidin asmoz, klubaren eta herriaren izenak aldatzearen aukera aztertu egin beharko litzateke.

3. kapitulua **Euskal Autonomi Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko testuinguru politiko ekonomiko geografikoa**

3.1 Ezaugarri politiko administratiboak

Euskal Autonomi Erkidegoa (EAE) eta Nafarroako Foru Erkidegoa Espainiako estatuan aurkitzen diren autonomiadun erkidegoak dira eta estatuarekiko lege organiko banatan garatzen diren harreman eta autonomia berezia mantentzen dute.

1979ko abenduaren 19an sinatzen eta onartzen da EAEko lege organikoa. Lege horren lehen artikuluan dio Euskal Herria, bere naziotasunaren adierazgarri, eta bere burujabetasunera iristeko, espainiar estatu barruan Komunitate Autonomo gisa eratzen dela. Beronen izena Euskadi zein Euskal Herria izango dela; eta Konstituzio eta Estatutu honetan adierazten direnak izango dituela oinarrizko instituzio-arautzat. Estatutu hori Gernikako Estatutua deitzen da eta EAEak eta Espainiako estatuaren arteko administrazio politikoa arautzen du.

Nafarroako Foru Erkidegoa ere autonomia erregimen berezi batez administratzen da abuztuaren 10eko 13/1982ko Nafarroako Foru Erregimenaren Hobetze eta Berrintegratzeari buruzko lege organikoaren bidez. Bere lehenengo artikuluan adierazten da Nafarroak Foru Erkidego bat osatzen duela, erregimen, erakunde eta instituzio propioak dituena, zatiezina, Espainiako nazioan barneratua eta bere herri guztien solidarioa.

Bi erkidegoek dituzten estatus politiko horien ondorioz gizartearen kudeaketa eta administrazioko arlo desberdinetan eskumenak dituzte. Eskumenak dituzten esparruak anitzak badira ere, guk kirol jarduerenak azalduko ditugu.

3.1.1 Euskal Autonomi Erkidegoko eta Nafarroako kirol eskumenak

Bi erkidegoek kirolaren jardueren arloan dituzten eskumenak ere Espainiarekiko mantentzen duten erlazio horren sorrerako lege organikoetan agertzen dira. Gernikako estatutuko I. goiburuak Euskal Herriari dagozkion eskumenak zehazten ditu eta 10. artikuluan Euskal Herriko Erkidego Autonomoak konpetentzia esklusiboa duen gaiei buruzko atalean 36. puntuan “Turismo eta kirola. Aisia eta atsedena” adierazten da ("Euskal Herriko Estatutua,"). Kirolean beraz EAEk eskumen osoak ditu.

Bestalde Nafarroako Foru Erkidegoko lege organikoak bere 44. artikuluan Nafarroak eskumen osoak dituen gaiak aipatzen ditu eta horien artean “kirolaren sustapena eta aisiaren erabilera egokia” deritzon 14. puntua aurkitzen dugu (Nafarroako Foru Erkidegoa) .

EAEn “kirola” hitza agertzen bada ere Nafarroan kirolaren sustapena adierazten da. Bi termino edo esaldiak desberdinak diren arren bi erkidegoek kirolaren kudeaketari buruzko eskumenak dituzte.

3.2 Biztanleria eta kokapen geografikoa

3.2.1 Euskal Autonomi Erkidegoa

EAE iberiar penintsularen iparraldean dago, Bizkaiko itsasoak bustitzen duela. Kantabria, Gaztela eta Leon, Errioxa, Nafarroako Foru Erkidegoa, eta Frantzia ditu mugakide. 7.089 km^2-ko eremua du eta 2008 urteko urtarrilaren 1ean 2.157.112 biztanle (Instituto Nacional de Estadística). 302 biztanle km^2-ko dentsitatea du, Espainiak (79 biztanle km^2-ko) baino handiagoa.

EAEko kostak 252 km. ditu mutur batetik bestera eta ibaiek 700 km. egiten dituzte beren ibileran. Lau mendi tontor 1.500 m.tik gora daude eta sei 1.400dik gora. Garbi dago, beraz, oso orografia menditsua dela, nahiz eta erliebe handirik gabeko eremu zabalak ere badiren, hala nola Arabako Lautada eta Arabako Errioxa (EUSTAT).

EAE hiru lurralde historikotan banatua dago, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia; eta Arabako Vitoria-Gasteiz da administrazio hiriburua. Hiri horretan kokaturik daude Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren egoitzak. Bilbo da, ostera, hiriburu judiziala, han baitago Euskal Herriko Auzitegi Nagusia.

3.2.2 Nafarroako Foru Erkidegoa

Nafarroako Foru Erkidegoa Espainiako iparraldean dago, Pirinioen mendebaldean, eta mendilerro horretan 163 kilometroko muga du Frantziarekin. Erkidego hauez inguraturik dago: ekialdean Aragoi -Huesca eta Zaragoza-, hegoaldean Aragoi eta Errioxa, eta ipar-mendebaldean Euskal Autonomia Erkidegoa -Araba eta Gipuzkoa-. Komunitateak 10.421 km^2 dauzka luze-zabal, eta 2008ko urtarrilaren 1ean 620.337 biztanle (Instituto Nacional de Estadística), dentsitatea 55 biztanle km^2koa izanez, Espainiakoa baino txikiagoa.

Nafarroan askotarikoak dira ingurune geomorfologikoak eta bioklimatikoak eta antzera gertatzen da bertako biztanleen artean ere. Horregatik, hain zuzen, iparraldetik hegoalderantz hiru eskualde bereizi izan dira aspalditik: Mendialdea, Erdialdea eta Erribera. Mendialdean, Nafarroako alde hezea, Pirinioetako ibarrak eta Pirinioen aurreko arroak ditugu; erdialdean Lizarra aldea eta Nafarroako eki-

erdialdea eta hegoaldean, Ebroren inguruetan, Lizarra aldeko erribera eta Tutera aldekoa.

Udalerriak azterturik, nafarren (%42,30a) hogei mila biztanletik gorako udalerrietan bizi da, Iruñean, Tuteran eta Barañainen alegia; bestalde, 2.000 eta 20.000 bitarteko udalerriek biztanleen (%39,20a) biltzen dute eta gainontzeko (%18,50a) 2.000tik beherako udalerrietan bizi da (Nafarroako Foru Erkidegoa).

3.3 Ekonomiaren oinarrizko zifrak

3.3.1 Euskal Autonomi Erkidegoa

EAEren Barne Produktu Gordina (BPG), guztira, 61.764 milioi eurokoa izan zen 2006an, era honetara banatuz sektoreei dagokienez: nekazaritza eta arrantza (%1a), industria (%29,30a), eraikuntza (%8,90a) eta zerbitzuak (%60,80a). Lurralde historikoei dagokienez, berriz, BPGaren banaketa honako hau da: (%16,90a) Arabarako, (%50,80a) Bizkairako eta (%32,30a) Gipuzkoarako.

Ikerketa eta Garapena enpresa eta unibertsitate jardueraren alderdi garrantzitsua dugu. BPGaren (%1,47a) hartzen du, Espainiako estatuko batezbestekoa baino gehiago (%1,20a). 2008ko biztanleko BPG, eros ahalmenaren parekotasunean, Europar Batasuneko batezbestekoaren (%130,80a) da Frantziakoa (%111,90a), Italiakoa (%104,80a), Alemaniakoa (%115,20a) eta Espainiakoa (%103a) baino altuagoa.

Hamasei urtetik gorako biztanleria aktiboa, 2007. urtean, 997.400 pertsonakoa zen (%54,60a) eta langabeak 32.500 ziren (%3,30a). Okupatuen artetik, (%64,60ak) zerbitzuen sektorean lan egiten dute, (%25,40ak) industrian; (%8,60ak), eraikuntzan eta (%1,20ak), lehen sektorean.

Aipatzekoa da EAEk, Nafarroako Foru Erkidegoak bezala, zerga sistema berezia duela. Zergak biltzeko sistema autonomoa du; eta horrek, finantzen arloan, gure inguruneko Europako lurretan parekorik ez duen autonomia maila ematen dio.

3.3.2 Nafarroako Foru Erkidegoa

Azken berrogeita hamar urteetan gizartea eta ekonomia ikaragarri aldatu dira Nafarroan. Industriaren hazkuntza hirurogeiko hamarkadan hasi zen, hein batean Foru Administrazioak 1964az geroztik abiarazi zuen Industri Sustapenerako programari esker. Ordura arte, ekonomiaren oinarria nekazaritza zen, eta biztanleri aktiboaren erdiak sektore horretan jarduten zuen. Harrezkero, ordea, ekonomia orekatu eta zabaldu zen, lurralde modernoetan ohi zen bezala. Aurrekoaren erakusgarri, Nafarroako 2007ko Balio Erantsi Gordinean (BEG), industriaren portzentaia (%28,50ekoa) da, Espainiakoa baina handiagoa (%18a).

Nafarroako Foru Komunitateko BPGren tasa -biztanle bakoitzeko neurturik eta erosteko ahalmen mailak konparaturik- Europar Batasuneko batezbestekoaren (%129,20a) da, Espainiakoa baino 26 puntu handiagoa (%103a).

2007ko laugarren hiruhilekoan, Nafarroan, 303.500 biztanle aktibo zeuden; hau da, 16 urtetik gorako biztanle guztien (%60,31a). Foru Erkidego osoko biztanleen (%4,27a) zeuden langabezian; Espainian, berriz, (%7,57a). Okupatuen artetik (%58,60a) zerbitzuetan, (%23,90a) industrian, (%13,80) eraikuntzan eta (%3,70a) lehen sektorean.

Espainiako estatu osoak duen biztanleria kontutan hartuta EAEk biztanleria horren (%4,60a) (2.157.112) ditu eta Nafarroak (%1,34a) (620.377) (Instituto Nacional de Estadística). Bi erkidegoak batu ezkero Espainiako estatuaren biztanleetatik %6,01 bertako herritarra da.

Euskal gizartea osatzen duten bi erkidego hauen ezaugarri demografiko ekonomiko eta administratiboak begi bistan uzten dute gure herrialdeak duen garapen maila estatu Espainiar eta Europako beste herrialde aurreratuen parekoa dela, herrialde modernoenetan gertatzen den bezala industria eta zerbitzu sektoreak direlarik ekonomiaren motorra.

4. kapitulua **Euskal gizartean kirol testuingurua**

Herrialde aurreratu eta garatuek duten beste ezaugarri bat kirola da. Euskal gizartea herrialde modernoa izanik, kirolaren garapena ere ekonomiaren parekoa izan da. Kirolak euskal gizartean duen errotzea aztertzeko bi informazio iturri nagusi erabiliko ditugu: batetik, kirol partehartzeari buruz eginiko galdeketak eta bestetik, kirol federazioetako datu ofizialak.

Kirol jarduerari buruz galdeketa bidez eginiko azterlanak gaur egun ezagunak eta oso herrikoiak dira, administrazio gehienek erabiltzen dituzten tresnak izanik kirol errealitatea ezagutzeko. Galdeketak duten arazorik larriena zera da: ez dute zuzenean, partehartzearen, azturen edo gustuen errealitatea aztertzen, baizik eta herritarrek horiei buruz diotena. Azken finean, nik “esaten dudanaren” eta “egiten dudanaren” arteko diferentzia ilunpean geratzen da galdeketetan.

Bestalde, galdeketa batean zaila egiten da definitzea aldez aurretik kirol gertaera. Jarduera fisiko arrunta, oinez ibiltzea, beharbada lanera bidean edo paseoan, herritar batzuk kirol jarduera bezala hartuko dute eta beste batzuk ez. Gure ama egunero ordu bete oinez ibiltzen bada ere berak dio ez duela kirolik

egiten. Kirol jardueren arteko bereizketa zaila egiten da, eta erantzuleak zailtasunak ditu berak egiten duen kirol jarduera zedarritzen.

Horren ondorioz, ikerketa edo azterketa desberdinen konparaketa zaila egiten da. Batean agertzen diren kirol jarduerak bestean beste modu batean agertzen dira. Kirol jarduerak definitzeko ditugun irizpide desberdinek, kirol arloan egiten diren galdeketak partikularrak bihurtzen ditu. Izan ere kirol jarduera desberdinak ere, batera aurkeztu daitezke: kirol jarduera berdinak al dira ba mendi bizikleta, ziklismoa, bizikleta eta bizikleta estatikoa?

Baina aitzakia guztien gainetik, galdeketak, kirol jardueren errealitateari buruzko ikuspegi orokor bat ematen digute. Gainbegiratu zabal bat emateko eta kirol jardueren ildoa antzemateko, inkestak, tresna onargarriak dira eta euskal gizarteak kirol jardueren atalean dituen ezaugarriak ezagutzeko baliagarriak.

Galdeketen emaitzak aztertzeko Centro de Investigaciones Sociológicas (CIS) delakoaren enkarguz García Ferrandok eginiko “Espainiarren kirol azturen inkesta 2005” erabili dugu. Autorea ezaguna eta errekonozitua da ildo horretan egiten dituen azterketengandik. Galdeketa horretako emaitzen osagarri gisa, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 2008an eginiko “Kirol Ohiturei buruzko Inkesta EAEn” erabiliko dugu. Azken hau berriagoa da eta euskal gizarteko eremu administratibo batera mugatzen da. Baina era berean, erakunde publikoek enkargatu eta egiten dituzten galdeketa guztien moduan, emaitzak, inkesta agintzen duen administrazioaren iritziak bermatzeko joera izan dezakete.

Bigarren iturri informatiboa kirol federakuntzetako lizentzia kopuruak dira. Datu horiek fidagarriak izan arren puztuta egoteko joera izan dezaketela ezin ahaztuko dugu. Federazioak, administrazio publikoetatik finantziatuak dira eta jaso dezaketen dirutza lizentzia kopuruaren araberakoa izaten da. Kirol federazioetako datuak “Instituto Nacional de Estadística” (INE) delakotik atera ditugu, beraz estatu espainiarrean ofizialki aintzat hartuta dauden emaitzak dira.

4.1 Gizartean kirol praktikek duten presentzia

Kirol praktikak euskal gizartean zenbatek egiten dituzten aztertuko dugu, horretarako Espainiako estatuko beste erkidego batzuekin batera jarriz eta ekonomikoaren garapen mailarekin parekatuz.

4.1.1 Gizartean kirol jarduerak egiten dituztela esaten dutenak

Espainiako erkidegoak kontutan hartuta, kirol praktika handiena duten erkidegoak Nafarroa (%45), Madril (%43), Katalunia (%43), Errioxa (%40) eta Euskadi (%39) dira. Espainia guztiko erkidegoen kirol praktika batezbestekoa (%37koa) da. Euskal gizartea ordezkatzen duten bi erkidegoetan Espainiako batezbestekoa baino handiago da kirol praktika. (García, 2006, 62).



Irudia 2: kirolaren praktika portzentaia espainiar estatuko Erkidegoetan

Espainiako Erkidego guztiak kontuan hartuta nafarrak dira kirol praktikak egiten dituztenen portzentaia handiena dutenak, biztanleen ia erdiak kirol jardueraren bat egiten dutelarik. Estatu mailako sailkapen horretan Euskadi bostgarren tokian agertzen zaigu, bost biztanleetatik bik egiten dituztelarik kirol jarduerak. Bi erkidegoen batezbesteko bat eginez hirugarren tokian egongo lirateke, Madril eta Kataluniako erkidegoen atzetik.

Emaitza hauek, erkidego bakoitzeko biztanleko barne produktuarekin parekatzean -BPG erosteko ahalmenean Europar Batasuneko batezbestea- ohartu gaitezke parekotasun handia dutela (Instituto Nacional de Estadística). Barne produktu handiena duten erkidegoak dira kirol praktika handiena ematen den lurraldeak. BPG handiena Madrilek du (%133,90arekin), hurrena Euskadi da (%130,80arekin), gero Nafarroa (%129,20arekin), Katalunia (%122,10arekin), Balearrak (%113,70arekin) eta Errioxa (%110arekin) izanik (Eurostat).



Irudia 3: Espainiar estatuko erkidegoetan BPG, erosteko ahalmenean Europar Batasuneko batez bestea

Barne produktu gordina herri baten makromagnitude ekonomikorik garrantzitsuena bada ekonomia baten ekoizpen-gaitasuna neurtzeko eta herri horren garapen eta aurrerapen maila behatzeko, kirol jarduerekiko agertzen duen parekotasunak erakusten digu, kirol jarduera praktika maila, herri eta gizarte baten garapen eta aurrerapen maila neurtzeko aldagai egokia dela.

Kirol jardueren praktikari buruzko datu horiek 2005ekoak dira eta Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion berriago batzuk ere baditugu. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak 2008an egin duen inkestan, herritarrei azken hilabetean kirol aktibitaterik egin duten galdetzen zaie eta kasu honetan kirol jarduerak praktikatzen dutenen portzentaia (%54ra) igotzen da (Deloitte SL). Irakurketa xume batean hamabost puntu igo dela kirol praktika behatu badaiteke ere, kontuan izan behar da emaitza horien bi iturriak desberdinak direla.

Dena dela, Euskadin eta Nafarroan kirol jardueren praktikak duen emaitzak Espainiako lehen postuetan jartzen ditu, ekonomia edo barne produktu gordinarekin gertatzen den bezala kirol jardueretan ere estatuko garatuenetakoak izanez. Euskal gizartean kirol praktikak barneratua dagoen oinarri sendo batean eusten dira; sozialki betetzen duten eremua zabala izanik eta zentzu horretan gizartea aztertzeko erakusleiho aparta bihurtuz.

4.1.2 Kirol praktika federatuen lizentzia kopurua

Kirol federazioetan izena emandako kirolariek lizentzia bat lortzen dute eta ordainetan besteak beste, federakuntza horiek antolatu eta babesten dituzten lehiaketetan parte hartu dezakete. Federatutako kirol jardueren presentzia behatzeko Espainiako estatuko erkidego bakoitzeko biztanleen araberako lizentzia portzentaia azalduko dugu. Biztanleko lizentzia gehien duen erkidegoa Errioxa da biztanleen (%10,12a) federakuntzako lizentziaren jabe izanez. Ondoren Kantabria dator (%10,04arekin), gero Aragoi (%10arekin), Euskadi eta Nafarroa (%9,07arekin), eta Katalunia (%7,63arekin). INEko datuetan oinarrituz ateratako datuak (Instituto Nacional de Estadística).



Irudia 4: espainiar estatuko Erkidego bakoitzeko biztanleriaren araberako federatu lizentzien portzentaia

Lizentzia portzentaia handiena duten erkidegoen artean bost lehenengoen artean, Errioxa, Euskadi, Nafarroa eta Katalunia aurkitzen ditugu. Barne Produktu Gordinarekin (BPG) gertatzen den bezala hiru erkidego horien lizentzia portzentaia Espainiako handienetakoa da. Beste modu batetara adieraziz, erkidego horietan eta euskal gizartean bereziki kirol jarduera federatua BPGarekin bat dator eta Espainiar estatuko altuenetakoa da.

Kirol praktikak beste aldagai batzuekin gertatzen den bezala, gizartearen garapena eta aurrerapena behatzeko aldagai egokia dela ikusi dugu. Aldagaia ekonomikoak eta kirol praktika bat etortzeak, kirol jarduerak gizarteak aztertzeko fenomeno kultura ezin hobeak bihurtzen ditu.

4.2 Kirol praktika desberdinetan parte-hartzea

Kirol praktika bakoitzaren partehartzea, gizartearen ezaugarrien erakusle izaten da. Kirol praktika edo kirol aisian erabiltzen diren modalitateak euskal gizartearen ezaugarri esanguratsuak dira, beraien berezitasunak gizartearenak direlako. Aktibitate bakoitzak duen presentzia hiru ataletan banatuko dugu: batetik, partehartzaileek diotenaren arabera; bestetik modalitate bakoitzak duen federatu lizentziak kontutan izanik; eta azkenik, sexu generoaren arabera kirol praktika bakoitzean ematen den parte-hartzean oinarrituz.

4.2.1 Parte-hartzaileen adierazpenen arabera

Espainiako estatuko datuak kontuan hartzen baditugu, kirol jarduera praktikatuena igeriketa da, (%33) jardulek egiten dutelarik; eta jarraian futbola dator, (%31,7arekin); hirugarren praktikatuena mantentze gimnasia da, (%20,20) dituelarik; ondoren txirrindularitza (%19,10arekin), mendizaletasuna (%11,90arekin), aerobica eta dantza (%11,70arekin) eta korrika egin (%11,10arekin). Sailkapen hori egitean baztertu egin ditugu (%10) baino partehartze txikiagoa duten kirol jarduerak. Aipatzeko da ere portzentaia horiek erantzun anitzetan oinarritzen direla. (García, 2006, 79).



Irudia 5: kirol praktika praktikatuenak espainiar estatuan

Kirol praktikek duten partehartzean, hiru multzo beha ditzakegu; (%30) baino gehiago dituzten futbola eta igeriketa; (%15) baino partehartzaile gehiago dituzten mantentze gimnasia eta txirrindularitza; eta (%10) baino gehiago dituzten mendizaletasuna, aerobic eta dantzak, eta korrika. Beste kirol praktikak hauen azpitik geratzen dira, jarduleen artean duten protagonismoa eta ondorioz gizartean dutena urriagoa izanez.

Espainiako estatuan kirol jardueren partaidetza aztertu ondoren, EAEan dutena ezagutzera emango dugu. EAEan (%19ak) esaten du aerobic, gimnasia, fitness edo yoga egiten duela. Bigarren ibiltzea aurkitzen da, (%15arekin), hirugarrena futbola, (%11rekin), eta ondoren igeriketa, (%10arekin), korrika, (%7arekin), mendia eta eskalada, (%6arekin), eta bizikleta, (%6arekin). Sailkapen honetan ere baztertu egin dira (%6) baino partehartze txikiagoa dutenak, eta emaitzak erantzun bakarrean oinarrituak daude (Deloitte SL).



Irudia 6: EAEn kirol jarduera praktikatuenak

Emaitza hauetan ere hiru multzo agerian geratzen zaizkigu. Aerobic, gimnasia, fitness eta yoga egiten dutenekin batera ibiltzea, biek (%15a) baino partehartzaile gehiago dituztelarik. Bigarren multzoan, futbola eta igeriketa (%10a) baino gehiagorekin, eta (%6a) baino gehiagorekin korrika, mendia eta eskalada, eta bizikleta. Euskadin kirol praktikak egiten dituztenetatik, (%74ak) horiek praktikatzen ditu.

Espainian eta EAEn kirol jarduera praktikatuenak ia berdinak dira. Aldaketa bakarra EAEn ibiltzearekin dator. Espainia mailan eginiko azterketan kirol praktika bezala sartu gabe dagoenez, ez da agertzen. Aipatu ditugun kirol praktikak gizartean barneratze handiena dutenak dira, sozietatearen sorkuntza esanguratsuak.

4.2.2 Federazio lizentziak kirol jardueretan

Kirol praktika bakoitzaren partaidetza, beste alor batean, federazioetan dauden lizentzia kopuruak ematen digu. Kirol praktikak gizartean duten presentzia aztertzerakoan egin dugun bezala, lizentziek eremu horretako jarduleen gustuak erakutsiko dizkigute, eta aztura horiek sozietatearenak izaten dira.

Espainiako estatua eremutzat hartuta, 2007an lizentzia gehien duena futbola da federatu txartel guztien (%22,12a) duelarik. Bigarren tokian ehiza aurkitzen da, (%12,65arekin); gero saskibaloia (%10,36arekin) eta ondoren golfa (%9,50arekin), mendia eta eskalada (%3,29arekin), tenisa (%3,24arekin) eta judo (%3,23arekin). Sailkapen honetan ehun mila lizentzia baino gehiago dituzten kirol praktikak izan dira kontuan (Instituto Nacional de Estadística).



Irudia 7: espainiako estatuan kirol jarduera bakoitzak dituen federatu lizentzien portzentaia

EAEan lizentzia gehien duen kirola, Espainian gertatzen den bezala, futbola da, lizentzien (%16,80a) berak izanik; bigarren saskibaloia (%14,73a); hirugarren mendia eta eskalada (%14,54a); eta ondoren eskubaloia (%6,83a), ehiza (%3,25a), judoa (%2,36a), boloak (%2,22a) eta neguko kirolak (%2,08a) (Instituto Nacional de Estadística).



Irudia 8: EAEn kirol praktika modalitate bakoitzaren federatu lizentzia portzentaia

Nafarroan ere futbola eta saskibaloia dira lehen postuetan ageri direnak (%23,83) eta (%8,65). Ondoren judoa (%6,91), ehiza (%6,77), golfa (%6,45), pilota (%5,13), eskubaloia (%5,01), eta mendia eta eskalada (%4,62) (Instituto Nacional de Estadística)



Irudia 9: Nafarroan, kirol praktika modalitate bakoitzaren federatu lizentzia portzentaia

Kirol jardueretako federakuntza lizentzietan argi geratzen da futbola federakuntza eremuan egiten dela. Irakurketa eta azterketa egoki bat egiteko, bestalde, beharrezkoa da aipatzea ehiza praktikatzeko lizentzia izatea legez derrigortua dagoela, zentzu horretan esan daiteke jarduera horrek dituen partehartzaile guztiak sartzen direla bertan.

4.2.3 Kirol praktiken eremu praktikoa

Kirol praktikak bi eremu praktiko nagusitan banatzen ditugu: lehiketa eremuan eta esparru horretatik kanpo. Txapelketa eta lehia nagusiki federazioen babesean eta antolakuntzan egiten bada ere partehartzaileek diotena biltzen saiatu gara. Estatu espainiarrean kirol praktiken partehartzaileetatik (%26a) dira lehiaketa eremu batean aritzen direnak. Lehiatzeaz arduratu gabe kirol praktikak egiten dituztenak berriz, (%70a) dira. (García, 2006, 69).



Irudia 10: kirol praktiken praktika eremua

Espainian jarduleen hirutatik bat lehiaketa eremu batean aritzen da. Esparru hori kirol federakuntzek antolatu eta egituratzen dute. Baina praktika eremu hauek kirol jardueretan ematen den partaidetzarekin batera aztertzean, ikusi dezakegu federazioko lizentzia dutenak Espainian kirol praktikak egiten dituztela esaten dutenen (%19,47a) direla eta datu hori ez dator bat lehiaketa eremuan aritzen diren (%26arekin). Lehenengo zenbakia federazioetan aurkitzen diren lizentzia kopurua (3.325.984) eta Espainian ematen den kirol partehartzearekin aterata dago (%37a; 17.078.394 biztanle). Bigarrenaren iturria jarduleen erantzunak dira. Federazioek antolatzen dituzten txapelketa eremutik kanpo lehiaketarik badago ere, diferentziak agerian uzten du kirol praktiken azterketa, bere egitura eta testuingurua kontuan hartuta egin behar dela.

4.2.4 Sexu generoa eta kirol praktiketan partehartzea

Kirol praktiketan ematen den partehartze orokorra aztertu ondoren, emakumezkoek eta gizonezkoek kirol praktikak burutzeko egiten duten hautaketa ikusiko dugu. Emakumezko eta gizonezkoen gustuak eta joerak, kirol jarduera bakoitzari genero abizena jartzeko aukera ematen digu. EAEn emakumezkoen

artean gehien egiten den kirol jarduera gimnasia, aerobica, yoga eta fitness da, (%33ak) egiten dutelarik; ondoren ibiltzea emakumezkoen (%17ak) eginez eta hirugarren igeriketa (%13ak) eta ondoren korrika (%6ak), mendia eta eskalada (%4ak), bizikleta (%4ak), saskibaloia (%4ak), dantza edo ballet (%4ak) eta futbola (%3ak). Gizonezkoetan praktikatuena futbola da (%16ak) egiten duelarik; bigarrena, ibiltzea (%13ak) eta hirugarrena gimnasia, aerobic, fitness eta yoga (%9ak) eginez. Ondoren datoz, korrika (%8ak), mendia eta eskalada (%8ak), bizikleta (%7ak), igeriketa (%7ak), euskal pilota (%6ak), saskibaloia (%3ak) eta arte martzialak (%3ak). Sailkapen hauetan (%3) baino partehartze handiago duten kirol jarduerak hartu ditugu (Deloitte SL).



Irudia 11: gehien praktikatzen diren kirol praktikak sexu generoaren arabera

Adierazgarria da futbola gizonezkoen artean jardule gehien biltzen dituen kirol praktika den bitartean, emakumezkoetan bederatzigarren praktikatuena izatea. Bestalde gimnasia, aerobic, fitness eta yogaren nagusitasuna emakumezkoetan nabarmena da, hurrengo kirol praktikak baino ia jardule kopuru bikoitza izanik. Hala eta guztiz, adierazi behar da bertan kirol praktika bat baino

gehiago biltzen direla printzipioz nahiko desberdinak, hala nola yoga bezalako ekialde urruneko kirol praktika eta mendebaldetik gureganatutako aerobica.

Kirol praktika hauetan bi sexu generoen azturak islatzen dira; genero bakoitzak “bere” dituen jarduerak, futbola eta aerobica, eta partekatuagoa diren beste batzuek azalduz. Irakurketa soil bat eginez adierazi daiteke euskal gizarteko familia batean gizonezkoak futbolean jokatzen duela, emakumezkoa aerobicean aritzen dela eta biak batera umearekin adibidez mendira joaten direla.

Emakumezkoek eta gizonezkoek egiten duten kirol praktiken hautaketa desberdina izanik, genero bakoitza aritzen den eremu praktikoak, kirol praktika bakoitzaren izaera zehazteko balio digu. Kirol praktiketan parte hartzen duten gizonezkoen (%20a) da lehiaketa batean parte hartzen duena eta emakumezkoen (%5a) txapelketa alorrean dabilena. (García, 2006, 70).



Irudia 12: praktika eremua eta sexu generoaren araberako hautaketa

Lehiaketa eremua gizonezkoen eremua da; txapelketetan gizonezkoen presentzia emakumezkoena baina lau aldiz handiagoa da. Ezaugarri hori egiten duten hautaketarekin gurutzatzean, esan dezakegu gizonezkoak futbolean lehiaketa eremu batean aritzen direla. Emakumezkoek berriz, aerobicean

lehiaketa eremutik kanpo dantzatzen dute; eta biak batera adibidez, mendian dabiltza lehiaketa eremutik kanpo, baina jarduerak dituen arrisku ezaugarriengatik kide batzuek lizentzia izanik.

4.3 Kirol elkarteen presentzia

Kirol praktiken testuinguruak lizentzia eta federazioez gain kirol elkarteak dituzte beste adierazpen bat. Kirol elkarteak gizartean duten errotzea, sozietatea arakatzeko balio digu, kirol praktiken erakundetzearen erakusleiho baitira, beste esparru batzuetan ematen denaren pareko.

EAEan kirol elkarte bateko kide diren biztanleen portzentaia (%30,2koa) da. Nafarroako Foru Erkidegoan kopurua handitu egiten da (%42ra) iritsi arte. Kirol elkarteen errotzea handiago gertatzen da berriz Nafarroan, bost herritarretatik bi asoziazio horietako kide izanez. Kirol elkarteen barnean sartzen dira klubak, gimnasio eta baliokideak, udal elkarteak eta elkarte pribatuak. Bi erkidegoek Espainiako estatua (%26,10a) baino portzentaia handiagoa azaltzen dute elkarte eta biztanleen arteko erlazio horretan. (García, 2006, 113).



Irudia 13: kirol elkarte batetako kide diren herritarren portzentaia

Euskal gizartean beraz, gutxienez hiru herritarretatik bat, kirol elkarte batetako kide da. Elkarte gisa sailkatutako figura instituzionalek, gizartean duten protagonismoa bizitza sozialean duten eraginaren adierazgarri gertatzen da. Kirol jarduerak gizartean duten presentzia kirol elkarteekin berresten da.

4.3.1 Kirol praktikak egiten diren guneak

Kirol jarduerekin eta erakundetzearekin lotuta agertzen dira jarduleek beraien praktikak egiten dituzten guneak. Izan ere instalakuntza aunitz aurkitzen ditugu eta izaera desberdinetakoak. EAEan kirol jarduerak egiten dituztenetatik (%24ak) sarrera mugatua duten instalazio publikoetan egiten ditu, (%21ak) klub edo erakunde bateko instalazio pribatuetan, (%12ak) sarrera libreko instalazio publikoetan, (%5ak) ikastetxe bateko instalazioetan, (%36ak) haize zabalean eta (%3ak) etxean (Deloitte SL).



Irudia 14: kirol pratikak egiten diren guneak EAEn

Beraz, kirola egiteko erakunde desberdinen instalazioak erabiltzen dituztenak (%65a) dira, beste (%35ak) haize zabalean edo etxean eginez. Hau da, Euskal Autonomi Elkarteko hiru jarduleetatik bik erakunde batetako instalakuntzak erabiltzen ditu kirol praktikak egiteko. Kirol praktiken partehartzean behatu duguna bat etortzen da emaitza horrekin, izan ere EAEn praktikatuenak diren gimnasia, aerobic, fitness eta yoga batetik, eta hirugarren praktikatuena den futbolak, erakunde batzuen instalazioetan egiten dira, eta bigarren praktikatuena bezala agertzen den ibiltzeak, haize zabala du bere gune nagusi.

5. kapitulua **Kirol praktiken kokapen historiko soziala**

Kirol praktikak gizartean sortu eta ematen direnez, gizarte praktikak dira eta sozietate bakoitzak izan duen garapen eta bilakaeraren historia egiten den bezala, ekonomia eta politika arloetan adibidez, kirol praktikek ere historia sozial bat dute bere gain, bakoitzak izan duen iraganak eta garapenak agerian uzten digutena, izan ere “gorputz teknika bakoitzak bere forma du eta gizarte bakoitzak bere azturak dauzka” (Mauss eta Lévi-Strauss, 1991, 338).

Kirol praktiken abizen sozialak eraikin kulturalak bihurtzen ditu, eta partehartzaileek dituzten aukeren artean egiten duten hautaketa ezagutzeko, azturak nola sortzen diren jakitea beharrezkoa egiten zaigu, kirol jardueren eremu handian, “esparru bakoitzak eskaintzen dituen estilo posibleen artean bat edo beste egiteko azturen antolaketa” (Bourdieu, 1988, 206). Modu horretan, kirol praktika bakoitza partehartzaileek dituzten aukeren arteko hautaketa bat izaten da, eta “bere ezaugarri batzuk historiaren ondorio izaten dira, osatzen duen sisteman esanahi sozial bat jasoz” (Bourdieu, 1988, 206). Esanahi hori kirol jardueretan baino kirol praktiketan aurkitzen da, Duringek adierazten duen bezala egoera

motorrak historikoki eta sozialki eraikitako praktika sozial zehatzen bidez eraikitako egoera sozialak izanez (During, 1990, 35).

Mendizaletasuna, aerobica eta futbola ere gizarteak eraikiak dira eta historia bat dute, gizarte nortasun bat, esanahi soziala emango dien historia bat. Kirol praktika bakoitzak duen iraganak eta izan duen garapenak euskal gizartean jasotzen duten esanahia soziala ezagutzera eramango gaitu; praktikak, pertsonalitate soziala baitute, partehartzaileek egindako hautaketak, gizarteak garatutako praktiketan oinarrituz. Zentzu horretan, kirol praktika bakoitzean gertaturiko bilakaera zehatza azaltzea baino, historian zehar izan duten garapenean, gizartearen ulermena arakatu nahi dugu.

5.1 Mendizaletasuna

Kirol jarduera bezala ezagutzen dugun mendizaletasun kulturalaren hasierak Horace Benedict de Saussure, Genevako zientifikoa hartzen du aipu. Roussearen oinarriak jarraituz, bere ideologia natura eta kulturaren garapen orekatsuan datza. Berak 1760an, Chamonix bisitatu zuenean, txundituta geratu zen Mont Blanc ikusi zuenean eta sari bat ezarri zuen bertara lehen igotzen zen mendizalearentzat. Hori ez zen 25 urte pasa arte gertatu. 1786an Michel Paccard eta Jacques Balmat Mont Blanceko tontorrera igo ziren eta hasiera eman zioten mendiak konkistatu eta abentura bilatzearen bideari.

Sorrera honetan bi korrontek egiten dute bat. Batetik Rousseren filosofiak, gizakia naturaz ona da delakoak (Rousseau eta Armiño, 2005, 68) eta geroz eta gune naturalagoan egon aukera gehiago ditu hala izateko (pentsatzeko era horretan oinarriturik, natura basatian bizi diren gizakiak hobeagoak dira). Eta bestetik arrazionaltasun zientifikoa, “behaketan eta esperientzian oinarrituz ikertzaileei beraien teoriak landan bertan konprobatzea eskatzen diena” (Ayerbe, 1985, 152). Azken honi hasierako garai haietan alpinismo zientifikoa deitzen zitzaion. Izan ere tontorretara igotzeak ikerkuntza arrazoi bat zuen oinarrian. Zentzu horrekin oposizioan 1860tik aurrera sortzen da mendizaletasunaren joko nozioa; “igoera bat joko partida bat da, zailtasunagatik galdu edo irabazi daitekeena eta plazer fisiko eta intelektualaren sortzailea” (Belden, 1994, 26). Une horretan alpinismo klasikoaren oinarriak ezartzen dira.

XIX. mendearen bigarren zatian elkarte alpinoak sortzen dira eta bazkideak bereganatzen hasten dira. Elkarte horien hasieratik bi lelo dira antolakuntzaren ezaugarriak: batetik emakumeen presentzia desinteresatua eta bestetik natura babesteko sentimendua (Lejeune, 1988, 232).

1850. urtetik aurrera herrialde desberdineko mendizaleek Europar Alpeetako mendi garaienak igo zituzten, aisian eta kirolean oinarritutako mendizaletasunaren garapena bultzatu eta indartuz. Alpeetako mendi garaienak igo eta paraje desberdinak ezagutu ondoren mendizaletasunak begiak munduan zeharreko beste mendikate batzuetan jarri zituen: Hego Ameriketako Andeak,

Kaukasoko mendiak, Ipar Ameriketako Mendi Harritsuak, Afrikako mendiak eta azkenik lurreko mendikate altuenetako tontorrak, Himalayako mendiak izan dira kirol jarduera honen gune.

Euskal Herrian mendizaletasunaren lehen arrastoak 1870. urtean agertzen dira “Bilboko hogei bat lagun elkartu eta txangoak egiten hasten direnean” (Ayerbe, 1985, 17). Txango hauetan tontor esanguratsuenetara igotzeaz gain, artea edo ohiturak miresten zituzten. Talde horren ekintzek ez zuen jarraipenik izan eta ezta ere elkarte sorkuntzarik ekarri urte batzuk pasatu arte.

Hori XX. mende hasieran gertatzen da, 1914an Ganekogorta gainean eta bere aita Antxon Bandres da. Berak mendi tontor batzuk egitearen lehiaketa proposatzen die bere kide batzuei. Ideia horrek izugarrizko arrakasta izaten du. Hasiera batean C.D. Bilbaoren ardurapean egoten bada ere, geroago euskal lurralde guztira zabaltzen da, 1917an Donostiako Fortuna taldeak ere antolatuz. Mendi tontorren lehiketak izan duen arrakasta ikusita, Bandresek euskal mendi taldeei deialdia luzatzen die guztia egituratuko duen elkarte bat sortzeko.

Horrela 1924ean Elgetan sortzen da “Federación Vasco Navarra de Alpinismo” (FVNM). Federazio horretan dauden herritarrak, ideia eta filosofia desberdinetakoak dira; “mugimendu sozial eta izpiritual” bat da (Iturriza, 1996, 14). 1926an federakuntzaren barrenean 69 talde daude eta 2.935 herritar dira lizentziaren jabeak (Iturriza, 1996, 19). Urte horretan bertan argitaratzen da Pyrenaica aldizkaria. 1930ean federakuntzaren izena aldatzen da Nafarroa izenetik kendu eta soilik “Federación Vasca de Alpinismo” utziz (Ayerbe, 1985, 157).

Mendizaletasuna ulertzeko moduak ugariak dira. Pertsona bakoitzak bere kontzeptua du eta batzuk tontorra igotzea izaten dute helburu, beste batzuk zeharkaldi bat ematea. “Gorbeiara loreak biltzen igotzen den mendizalea Anbotoko tontorra zapaltzea helburu duen adinako mendizalea da, edo Urbia edo Aralarko zelaietan dabilen adinakoa” (Ayerbe, 1985, 24), guztiak dira mendizale.

Gerra Zibilaren ondoren berriro mendizaletasuna berpizten hasten da, baina frankismoaren eraginak agerian geratzen dira, Federación Vasca de Alpinismo itxiz. Urte horietan sortzen da “Federación Española de Montañismo”

(FEM). Garai hartan esan bezala frankismoaren eragina handia da, eta besteak beste “alpinismo” hitzaren ordez “montañismo” azaltzen da; RAEk (Real Academia de la Lengua Española) hala ezarri zuelako hiztegi ofizialetan. Era berean mendizaleen terminoetan, “compañeros” orain “camarada” da. (Iturriza, 1996, 22).

Beste arloetan bezala garai horietan mendiaren inguruko jarduerak estatuko botere zentralak kontrolatzen dituen arren, 1955 aldera FEM delakoa deszentralizatzen hasten da, mendi talde berriak sortuz, hasieran beste kirol talde batzuen atal bezala. 1959an mendiari buruz atzerriko alpinista batek egiten duen lehen konferentzia antolatzen da Donostian, eta izandako arrakastaren ondoren irekitako bideari jarraituz, hurrengo urteetan mendizale ospetsuak beraien hitzaldiak eskaintzen dituzte.

1965ean, Elias Ruiz de Alegriak Patagoniara hiru hilabeteko espedizio bat egitea proposatzen du, baina bere atsekaberako ezin du aurrera eraman diru arazoengatik. Hala eta guztiz, mendi berriak ezagutu eta konkistatzeko arra martxan jartzen da eta hurrengo urtean ideia gauzatzeko antolakuntza abian jartzen da, eta 1967an Andeetara lehen euskal espedizioa egiten da. Garai hartako egoera politikoaren isla, etxera itzultzean parte hartu duten mendizaleak eta antolatu duen FVNM polemika handi batean murgiltzen dira espedizioan ustez erabili den ikurrina dela eta.

Bide beretik 1974an, lurreko tontorrik altuenera lehen euskal saiakera egiten da. Tontorrera ez dira igotzen baina hurrengorako bidea irekita geratzen da, eta horrela 1980an Everesteko gailurra zapaltzen da. Etxera bueltatzen direnean “Garaikoetxea lehendakaria, Bilboko alkatea, Aldun nagusiak, kontseilariak eta politikoak egiten diete harrera” (Iturriza, 2004, 262). Lorpen hori euskal nazioaren arrakasta bezala bizitzen da eta “espedizio nazionalen garaia gainditu eta askatasunari bidea irekitzen zaio. Berriro mendizaletasun klasikoaren balentria bultzatu zuen indibidualtasunari aukera ematen zaio” (Ayerbe, 1985, 161).

Gaur egun mendizaletasunak jarduera aunitz hartzen ditu bere gain: mendi tontorrak igotzea, zeharkaldiak, paretak eskalatzea… Sorreran ireki zen bideari jarraitzen dio pertsona bakoitzak kontzeptu berari buruz iritzi desberdinak izanez. Mende bat geroago mendizaletasunak indarrean jarraitzen du, herritarrek mendian

egiten dituzten jardueren bilgune. Lurreko mendi tontor garaienak igotzea eta zeharkaldi bat egitea desberdinak badira ere, biek biltzen dute abentura kutsu eta oinarria. Abenturarekin lotuta daude “ekintza askatasuna eta berritasuna, gaur egungo mendizaletasunaren ezinbesteko osagaiak” (Martínez de Pisón eta Álvaro, 2002, 358).

Mendizale asko beraien gurasoekin mendi ibilaldiak eginez hasi dira; mendiak familia guztia onartzen du, eta ez bakarrik etxeko mendietan: Josu Bereziartua mendizale azpeitiarra bere emazte Amaia Aranzabal eta seme alabekin izana da Nepalgo mendietan barrena, familia guztiak zeharkaldi horretaz gozatuz (Blasco). Mendizaletasunak adinduak, gazteak eta emakumezko eta gizonezkoak, denak nahasian onesten ditu.

Mendizaletasunaren izaera ezaugarri horiek gure herri inguruetako mendietan ematen diren bezala, lurreko mendi altu eta basatienetan murgiltzean berdin diraute. Alberto Iñurrategik edo Juanito Oiartzabalek lurreko hamalau zortzimilakoak igo dituzten bezala, Edurne Pasabani bi urrats besterik ez zaizkio falta, eta bere lagun diren gizonezkoekin antolatzen ditu espedizioak. Mendian ibili, eskalatu, igo eta jaitsi, elkarrekin egiten dute.

Euskal mendizale ospetsu horiek naturarako edo mendirako materialak eta objektuak egiten dituzten enpresen publizitate irudiak bihurtu dira. Edurne Pasabanek, mendiko bastoiak gomendatzen ditu, eta Alberto Iñurrategik mendiko arropak. Material eta objektu horiek merkatu ekonomikoaren diru burrunban ezarririk daude, mundu osoan barreiaturik dagoen negozioan.

Mendizaletasuna, naturaren ideia egokitzen den bi poloen artean mugitzen da: konkista eta abentura. Konkistako ideia zapaldu gabeko lur eta tontorren ezagutza du abiapuntu eta bestetik kirol alpinismoa; beste modu batean esanda “teknologiaren bidez natura menperatzea eta naturarekiko fusio eta identifikazioa” (Belden, 1994, 49).

5.2 Futbola

Nahiz eta futbol jokoak Erdi Aroa baino lehenagotik herri eta hirietan jokatzen ziren, XIX. mendean gertatzen diren gizarte aldaketen ondorioz gaur egun ezagutzen dugun futbola sortzen da. Bi aldaketa nagusi aipatzen dira abiapuntutzat. Batetik industrializazio eta urbanizazioarekin, futbol forma tradizional horietara jokatzeko langile klaseek duten espazioa eta denbora mugatu egiten da; eta bestetik bortizkeriaren kudeaketa, banakoan edo taldean egotetik, estatu edo instituzioen esku egotera pasatzen da.

Garai horietan futbola Winchester, Charterhouse edo Eton bezalako eskolen artean praktikatzen den jokoa da. Baina eskola bakoitzak bere arauak zituen, batzuk eskuekin baloia eramaten utziz. Era horretan ikasleak eskolatik unibertsitatera igarotzen zirenean zailtasunak zituzten futbolean jokatzen jarraitzeko. Hori dela eta joko arauen adostea egiten duten lehenak 1848an Cambridgeko Unibertsitateko ikasleak dira, eskola desberdinetan erabiltzen diren joko arauak batuz. Geroago unibertsitatean graduatutako ikasleek klubak sortzen dituzte futbolean jokatzeko. Honela, arauen batze eta adoste horrek garatzen jarraitzen du, London inguruko beste zenbait klub batuz; eta 1870ean orduko futbol elkarteak baloia eskuekin ukitzea atezainentzat bakarrik mugatzen du, gaur egun arte mantendu den araua bere horretan finkatuz; une horretan jatorri berdina duten rugbya eta futbola banatu egiten dira.

Arau batze horiek hasiera batean ez ziren Britainia Handi guztian onartu eta eskola batzuk beraien arauekin jokatzen jarraitu zuten, baino berandu baino lehenago, geroz eta klub gehiago batzen dira eratu berria den futbol elkartera, hedatze prozesu horretan beste herrialde eta lurralde batzuetara zabalduz.

Garapen horrek mundu mailan jarraitu zuen, etenik gabe amateurtasunetik profesionaltasunera pasatuz eta geroz eta hierarkizatutako elkarte gehiago osatuz: lurralde mailakoak, estatuen araberakoak, nazioarteko elkarteak… Gaur egun futbol partidak zelaian baina haratago aurka egiten duten taldeen jatorrizko herrialde, hiri edo herrietan ere bizi egiten dira. Herrialdeen artean irabazitako

munduko txapelketak kontatzen dira eta hiriek elkarrekin lehiatzen dute beraien taldea sailkapenaren gorenean egon dadin.

Espainian XIX. mende amaieran hasten da futbolaren historia. 1894ean Bilbon jokatzen da ziurtasunez ezagutzen den Euskal Herriko lehen futbol partida. Partida horretako jokalariak itsasontzi ingeles batetako tripulazioa eta Bilboko lagun talde bat izan ziren. Garai hartako kronikak hala diote: “atzo goizeko hamarretan egiaztatu zen espainiarren eta ingelesen arteko foot-ball partida. Lehenak partida irabaztea lortu zuten bost puntuz, nahiz eta beste batzuk sei esan. Bost edo sei berdin da baina ematen du azkenean bost izan zirela”. (Martínez, 2003, 8). Estatuko futbolaren garapen hau hiru hiriburuetan hasten da nagusiki: Bilbo, Bartzelona eta Madril. Bilbon, Ingalaterran ikasitako goi mailako gizarteko ikasleak dira futbolean hasten direnak. Horietako zazpi ikasleek 1898an sortzen dute Bilbao Fotball Club. Hiru urte geroago Athletic sortuko da: “kirol atletikoak bultzatzeko eta bereziki football bezala ezagutzen dena, Athletic izeneko elkarte bat sortzen da”. (Martínez, 2003, 9).

Futbolak bere garapena jarraitzen du, eta Bizkaian Athletic sortzen den bezala, Gipuzkoan San Sebastian sortzen da. Espainiako talde desberdinen artean partidak ohikoak dira eta txapelketak indarra hartzen du 1905ean Espainiako lehen kopa ospatzen denean, bertan Real Madrilek Athletici irabazten diolarik.

1926an profesionaltasuna legala egiten da Espainian; futbol taldeetako jokalariak futboleko diru saritik bizitzeko aukera dute. Espainiako lehen liga 1928an jokatzen da. Lehenengo mailan hamar taldek parte hartzen dute eta bigarren maila bi multzotan banatzen da. Lehen mailan jokatzen dutenak talde hauek dira: Arenas de Guecho, Athletic de Bilbao, Athletic de Madrid, Barcelona, Real Madrid, Real Sociedad, Real Union de Irún, Español de Barcelona eta Racing de Santander. Lehen liga hori Barcelonak irabazten du; euskal taldeak berriz, Athletic hirugarren, Real Sociedad laugarren eta Real Union de Irún bederatzigarren geratzen dira.

1936 eta 1939 bitartean futbol txapelketak geratu egiten dira, baina futbol partidak jarraitzen dute eta bitarte horretan ospea lortzen duen taldea “Euzkadiko”

selekzioa da. 1937ko udaberrian sortu zen eta Europan eta Amerikan jokatu zituen partidetan txundituta utzi zituen guztiak. Talde horrek jokatutako partidetatik bat bakarra galdu zuen, Txekiar selekzioaren aurka Pragan. Urte haietan hala eta guztiz, futbol taldeak miseria asko pasatu zituzten, Real Sociedad taldea ia desagertzear egon zelarik.

Gerra Zibilaren ondoren frankismoa etortzen da, eta futbolak izugarrizko arrakasta lortzen du. Era berean futbolak militarizazio bat jasaten du eta gerran irabazle ateratzen den bandoaren lagunek errekonozimendu bat jasotzen dute. Taldeek ere ildo bera jarraitzen dute eta adibidez, Osasuna 1936ko ligan, gerra aurretik egin zen azkenekoan, bigarren mailara jaitsi bazen ere, Nafarroak irabazleen alde egin zuenagatik sari gisa, gerra ondorengo lehen liga aurreneko mailan jokatzeko aukera izaten du. Futboleko agintariak ere militarrak dira, Troncoso teniente koronela izanez Espainiako futbol federakundeko presidentea, eta Moscardo generala Espainiako kirol kontseilu nazionaleko presidentea. Troncoso teniente koronelak argi uzten du nola ulertzen den kirola: “beharrezkoa izango da etorkizunean guztiak ideia berri batera ohitzea: kirola ez da dibertimendu alai bat, baizik eta osagarria eta ezinbestekoa dena aberriak bere gizonak hobetu eta depuratzeko, beharrezkoa den une guztietan gai izan daitezen” (Fernández, 1990, 65). Frankismo garaia eta futbolaren arteko erlazioan, “futbola herria despolitizatuta mantentzeko” bide da (Shaw, 1987, 96).

Frankismoa amaitu eta demokrazia heldu, futbolak bere garapenean jarraitzen du. Euskal futbolak azken hamarkadetan bizi izan dituen unerik gozoenak laurogeigarren hamarkadaren hasieran ematen dira, Errealak eta Athleticek Espainiako lau liga eskuratzen dituztenean. Euskal Herrian futbola kirol jarduera herrikoiena bihurtzen da: herri, hiri eta eskola guztietan jokatzen da; maila eta kategoria ugari sortzen dira eta autonomiadun lurralde federakuntzak dira horien kudeatzaile, beraiei dagokien eremuan lehiaketak antolatuz. Edozein erretratu urbanistikoetan, futbol zelaia, herrietako eta hirietako auzoen fisionomiaren osagaia izango da.

Emakumezkoen partehartzea futbolean gizonezkoena baina apalagoa izan da. Beraien arteko lehen partida 1895ean jokatzen da eta Lehen Mundu Gerran

emakumezkoak bete-betean sartzen dira futbolean, gizonezkoak gerrako frentean egotean lantegietako esku lana bihurtzen direlako eta horietako askok beraien emakumezkoen futbol taldea dutelako. Garapen horretan 1920an nazioarteko lehen partida jokatzen da, Ingalaterrako eta Frantziako bi talderen artean “Parisko Pershing zelaira hamabi mila ikusle hurbilduz” (Wahl, 1997, 47). Baina urte bete beranduago 1921ean orduko “Football Association” delakoak ez du onartzen emakumezkoen futbola eta horren ondorioz gainbehera etortzen da.

Berpizkundea 1969an gertatzen da “Football Association”ek bere barnean emakumeen elkartea sortzen duenean, 44 talde egiten direlarik elkarte horretako kide. Ordutik aurrera emakumezkoen futbola herrialde aunitzetara zabaltzen da. 1972an nazioarteko emakumezkoen selekzio arteko lehen partida jokatzen da, gizonezkoek jokatu zuten lehen partida baina ehun urte geroago.

Nazioarte mailan gertatzen den bezala emakumezko futbolaren abiapuntua euskal gizartean 1970ean gertatzen da Bizkaian, espainiar estatu mailako lehen txapelketa 1982-83an ospatuz. Gaur egun, emakumezkoen Espainiako maila gorenean, “Superligan”, lau euskal talde aurkitzen ditugu: Athletic, Erreala, Lagunak eta Eibar.

Futbolaren zabalkundearen erakusle dira datu hauek: 2006an munduan zehar 265 milioi futbol jokalari daude, horietatik 62 milioi Europan; eta lurralde eta herrialde guztietan aurkitzen den futbol elkarteen kopurua 301.000koa da. Fédération Internationale de Football Associationaren (FIFA) arabera hamar futbol jokalaritatik bederatzi dira gizonezkoak eta bakarra da emakumezkoa (FIFA).

5.3 Aerobica

Aerobicaren jatorria 1968an jarri dezakegu Kenneth Cooper doktoreak lan kardiobaskularra gorputzarentzako zein egokia zen “Aerobics” (Cooper, 1968) izeneko liburu baten bidez zabaldu zuenean. Aerobicaren lehen praktikak arlo militarrean eman ziren Kenneth Cooper Estatu Batuetako aireko armadan medikua baitzen. Berak hegazkin gidarien egoera fisikoa hobetu nahi zuen arteriosklerosi eta bihotzekoak ekidin asmoz. Cooperrek edozein motatako jarduera aerobicoak gomendatzen zituen: korrika egin, igerian egin, bizikletan ibili…

Geroago Cooperrek “Aerobics for women” argitaratu zuen, emakumezkoentzako bideratutako liburua; bertan itxura fisiko ona mantentzeko eta ongi sentitzeko printzipioak adierazten zituen. Laster sortu zen aerobic dantza, Jackie Sorensen deituriko dantzari ohi batek bultzatua. Berak Cooperren printzipio fisiologikoak jarraituz, koreografia batzuk sortu zituen jarduera fisiko hori erakargarria eta motibagarria gerta zedin. Printzipio horiei jarraituz emakumeak ziren praktika egiten zutenen gehiengoa, itxura eta ongi sentitzeko nahia koreografiak dantzatuz lortzeko aukera beraiena izanez.

Abantaila horiek izan ziren Jane Fonda aktoresa aerobicera bultzatu zutena. Herritarrengan zuen bere eragina probestuz bera izan zen jarduera horren hedapenaren ikurra, aerobicari buruzko liburuak eta bideo bidezko klaseak Estatu Batuetako etxe guztietara iritsiz. Berak idatzi zuen “Work out” liburua, 19 hizkuntzatara eta 22 lurraldetara banatu zen eta Estatu Batuetatik kanpoko herritarrentzako gida aitzindaria izan zen. Bere iritzian aerobica “gorputza moldeatzeko eta pisua galtzeko ariketa ezin hobea zen” (Arribas, Cano, eta Garcia, 2002, 11). Goiburu hori bat zetorren K. Cooperrek emakumeentzako zabaldu zuen itxura eta ongi sentitzearekin. Hala eta guztiz, aerobicaren benetako arrakasta 90. hamarkadan etorri zen, metodologia erakargarriagoarekin batera aldaera desberdinak sortuz: step-aerobic, slide-aerobic, aero-aerobic… Gaur egun lurralde eta herrialde askotako jarduleek egiten dute aerobica izan ere “edozein adinetan egin daiteke eta ez da beharrezkoa dantza edo kirol formaziorik izatea” (Meyer-

Andersen eta Rosenbaum, 1987, 11.). Gimnasio eta kiroldegietako eskaintzan, aerobica ohiko protagonista bihurtu da.

Estatu espainiarrean aerobicaren ezagutza bultzatu zuenetariko bat Eva Nasarre izan zen,. XX. mendeko 80. hamarkadan Espainiako telebistan aerobiceko saio bat egiten hasiz. Begirale bezala saioa zuzenduz, ikusleak beraien etxeetan koreografia dantzatzera bultzatu nahi zituen. Programaren izena “Puesta a punto” (RTVE) zen, eta 1983-1986 bitartean arrakasta itzela lortu zuen. Berak ikusle eta irakurleei bidaltzen zien mezua zera zen: “kirola taldean egiteaz gain poliki-poliki egoera fisiko onean” jartzea da (Nasarre, Pérez Bravo, eta Pérez Caballero, 1984, 8).

Programa horrek euskal gizartean ere izan zituen jarraitzaile ugari, XX. mendeko azken hamarkadan aerobica bete-betean gureganatuz eta kiroldegi guztietara hedatuz; aerobica “praktikatzen dutenen gozamena da, musikaren erritmoan murgilduz pauso desberdinak eginez” (Charola, 1996, 16). Aerobicak gure artean hogei urte daramatza eta bitarte horretan gure kiroldegi eta gimnasiotako protagonistetako bat bihurtu da. Herrietako kiroldegi eta klub pribatuak, guztiak eskaintzen dute aerobica, gure artean berria izan arren nagusiki emakumeen artean errotuta dagoen kirol praktika.

Aerobicaren hedakuntzarako erabili diren baliabideen artean aipatzekoa da, telebista programek, bideoek eta liburuek izan duten presentzia, kirol jardueraren onurak etengabe goraipatuz; marketing horretan, osasuna eta estetika izanik produktuak eta emakumeak bezero nagusiak. Kirol jardueraren paraleloan moda eta negozioa sortu dira: musika, arropak, eskuliburuak edo saioetan erabiltzeko materiala moda jakin batzuen irizpideetan errotuak egonik.

II. ATALA: MENDI ZEHARKALDIAREN ETNOMOTRIZITATEA

6. kapitulua **Mendizaleen istorioak**

Aurkezpenak. Iruña - Banyuls, autobusez

Iruñan Anaitasuna elkartearen aurrealdean da irteera puntua. San Ferminak dira eta goizeko 9:00etan da ordua. Poliki-poliki, hitz ordura izena emandakoak iristen joan dira: guztira zortzi lagun. Antolakuntzako bi kide ere bertan daude: bi emakume; bata beltzarana eta gaztea, eta bestea ilehoria, helduagoa. Horietako batek zerrenda bat atera eta bertan agertzen diren izenak guztiek entzuteko moduan adierazi ditu. Bi lagun falta dira, baino hauek Banyulsen bertan agertuko omen dira. Denen artean isiltasuna da nagusi; elkartutakoen artean ez da elkarrizketarik; batera etorri diren bi emakume isilean hitz egiten ari dira. Orain urte batzuetako zeharkaldi batetan ezagututako bi lagun ere badira. Dena prest egon denean autobusera sartu eta Banyuls aldera abiatu dira. Antolakuntzako bi emakumeak, Naroa eta Begoña, autobusaren atzetik abiatu dira, zeharkaldian behar izango diren material eta azpiegitura Land Rover batean hartuta.

Bidaia luzea izan da. Jendeak ez du asko hitz egin elkarrekin. Oraindik ia denak ezezagunak dira eta nabari da. Bazkaltzeko egin den geldialdian kezkak

eta galderak izan dira nagusi eta elkarren artean komentarioak egiten aritu dira ea gogorra izango ote den, ea aurrez beste etaparen batean parte hartu duten...

Arratsaldeko 17:30etan iritsi dira Banyuls-ko camping-era. Bertan zeharkaldian izango diren bi gidak, Maria eta Silvia, zain daude eta beraiekin batera Silviaren koinatua den Jordi, aurreneko etapan laguntzaile arituko dena. Ainhoa eta Joseba ere bertan daude Banyuls-era zuzenean etorri diren beste bi mendizaleak. Kanpadendak muntatzeko beharrezkoak diren objektu eta materialekin Land Roverra iritsi gabe dagoenez, mendizaleak, motxilak campingean utzi eta herrira joan dira buelta bat ematera. Campingetik herrira kilometro bat inguru dago eta bidean guztiak hitz egiten joan dira: bakoitzaren kezkak, aurkezpenak... Herrian, taberna batean zerbait hartu eta berriro camping aldera. Land Rovera iritsita dagoenez denen artean kanpadendak jarri dituzte: guztira lau. Ondoren, kanpadenda banaketa egin da, bakoitza nahi duenean sartuz eta guztiak hiru kanpadendatan banatuz; beste kanpadenda antolakuntzako lau lagunentzako gorde da, sukaldean ibiliko diren bi lagunentzako eta mendian ibiliko diren beste birentzako. Antolakuntza lanetaz arduratzen diren lau pertsona horiek emakumeak dira. Banaketa horretan hiru emakumeak batera sartu dira, kanpadenda osatzeko, beraiekin gizonezko bat jarri delarik; beste bi kanpadendatan hiruna gizonezko jarri dira. Ondoren, sukaldean egongo diren Naroa eta Begoñak afaria prestatu dute giden laguntzarekin: entsalada eta urdaiazpikoa arrautza gogorrak eta tomatearekin. Afaltzerakoan hasi dira lehen adar jotzeak: Bilbo dela eta ez dela, nafarrak eta gipuzkoarrak...

Afaldu ondoren bilera bat egin da gidekin. Bertan asteko plana nolakoa izango den azaldu da: lo egiteko tokiak, egun bakoitzean ibili beharreko orduak, zailtasunak, erritmoa, eraman beharreko arropa... Mendizale bakoitzari mapa bat eman diete, eta bertan etapa bakoitzaren bukaera eta perfila agertzen da. Ondoren izan diren galdera eta kezkak eguneroko dinamikari buruzkoak izan dira: motxilan zer eramatea komeni den, ura topatuko ote duten... Bilera hori bukatzeko bakoitzak bere burua aurkeztu du baita gidak ere: Maria Donostiarra da eta berrogei eta hamar urte inguru ditu eta Silvia Bartzelonakoa da baina Blanesen bizi da eta hogei eta hamaika urte ditu.

Bilera bukatu ondoren biharko gosaltzeko ordua, 7:15, eta irteerako ordua, 8:00, ezarri dira eta 23:00 inguruan guztiak kanpadenda barnera lo egiteko asmoz sartu dira.

Haizea. Banyuls - Font Tanyarede

7:15etan guztiak jaiki eta gosaltzera: esnea, infusioak, zerealak, gailetak, ogia, mermelada... Bakoitzak nahi izan duena gosaldu du; ezin esan daiteke luxua ez denik gosaltzeko hainbeste aukera izatea. Gidak eta mendizale partehartzaileak eguraldiari usaina eta aztarrenak hartu nahian ibili dira, baino zuhaitzak astintzen dituen haize zakarrak eta zerua estaltzen duten laino altuek ez dituzte larritu.

Gosaldu ondoren, lau laguneko taldetxoak egin eta bakoitzari poltsa bat eman diete; bertan eguneko bazkaria dago: mendizale bakoitzarentzako fruta bat, txorizoa, gazta, txokolatea eta fruitu lehorrak. Aurten hasi dira lehen aldiz horrela egiten. Orain arte, bezperan sukalde inguruan janari kanpadendatxo bat jartzen zuten eta bertan bakoitzak egunean behar izango zuen janaria erosteko aukera zuen.

Gero egunerako beharrezkoak diren gauzak norberaren motxila txikian sartu, eta behar ez direnak beste poltsa eta motxiletan utzi dira, sukaldekoak Land Roverrean lo gunera eraman ditzaten; horien artean: zakuak, aldatzeko arropak... Irteerako ordua baino lehen prestatu direnak, kanpadendak kentzen laguntzen aritu dira, nahiz eta lan boluntarioa izan. Horrela 8:00etan campingetik irten eta zeharkaldiari hasiera eman zaio.

Hasieran herritik gora ateratzen den bidezidor bat hartu da. Gida bat aurrean doa, erritmoa jartzen eta bestea atzean taldea lotuz. Ez dira elkarrizketa asko entzun, bidezidorrean bata bestearen atzetik doaz eta honek ez du laguntzen. Aitor, Arrasatekoa, harrituta dago daramaten erritmoarekin: oso geldi berarentzako. Bi aste jarraian zeharkaldian ibili behar den Eduardok ere berdina komentatu du. Haizea ere bere presentziarekin, bera ere kontutan hartzeko adierazi nahian dabilela esan daiteke, indarrean baitabil eta mendizaleek oinezkoan sortzen duten beroa desagertzen baitu. Mendizale taldeak laster batean hartu du altuera eta goietatik Banyuls herria eta itsasoa oso dotore ikusten dira.

Maria, gidetako bat, oso ezaguna da Euskal Herriko mendi giroan, mendiko eskia egiten duelako. Berak dio azarotik ekainaren bukaera arte, aste bukaera guztietan egiten duela mendiko eskia. Ez da gaztea, berrogei eta hamar urte pasatuak izango ditu, baina bere sasoia eta itxura oso ona da, nabari da beti zerbait egiten dabilela; etapa hau bukatu ondoren Argentinara doa eskiekin mendi desberdinak igotzera eta lurralde desberdinetako mendikateetan ibilia da: Kaukaso, Himalaia, Andeak, Alpeak...

Ordu eta erdi ibili ondoren eta bidegurutze batera iristean geldialdi bat egin da. Gidak esan dute hogei minutu inguru geldituko direla eta nahi duenak zerbait jateko. Partehartzaileek zerbait jateko probestu dute une hori. Geldialdi honetan gidak alde batera jarri dira eta ibiltariak beste alde batean. Atseden denbora pasa ondoren berriro abiatu dira Salifort izeneko mendi gainera. Orain aldapa handitu egin da eta denak bidezidorrean banaka jarrita doaz bata bestearen atzetik. Aldatz handian eta bidezidorrean, mendizaleak isilik doaz. Denak batera taldea apurtu gabe dabil ibilian eta gora doazen heinean haizea gero eta indartsuagoa da. Elkarrizketa batzuk ere entzuten dira jarraian doazen kideen artean baino horiek bi lagun baino gehiagokoak ez dira izaten, bideak nekez uzten baitu partehartzaile askoren arteko hizketaldiak egiten.

Salifort-eko gainera heltzean hamar minutu inguruko geldialdi bat egin da. Joseba eta Aitorrek argazkiak ateratzeko probestu dute. Josebak argazki makina ona ekarri du; reflex kamera bat objektibo onarekin. Gaina utzi eta bazkalduko duten gunera jaitsi dira; mendi tontorren arteko zimurdurak estaltzen dituen pago baso bat da eta haizearengatik goiko sapaldak baino babestuagoa dago. Iturri bat izateak ere lagundu egin du bertara desbideratzeko erabakian. Lau laguneko talde bakoitzak goizean sukaldariei hartutako jan poltsa banatu du. Kide batek ardo botila bat ere ekarri du motxilan. Sukaldekoak edariak saltzen dituzte: ardoa, garagardoa, freskagarriak... Eta Katxik ardo botila bat erosi du goizean motxilan garraiatu eta orain kideekin partekatuz edaten ari da. Hasiera batean jan talde bat aldenduago jarri da baino bazkaltzen amaitzean denak elkarrekin bilduta egon dira, baita gidak ere. Momentu horietan txisteak kontatzen egon dira eta adar jotze bat baino gehiago ere egon da.

Ordu eta erdi inguruko atsedena hartu ondoren, berriro abiatu da taldea. Bideak belardi zabal batzuetatik aldapa gora egiten du. Partehartzaileak azalera handia hartuz zabalean doaz oinez eta bi, hiru edo lauko taldeak osatuz elkarren artean hizketan. Haizea indartsua da eta ez dago berorik. Beste tontor batera iristean geldialdi bat egin da. Jendea taldetxoetan hitz egiten ari da, baita gidak ere. Gailurretik bistak ezin hobeak dira, itsasoa ederki ikusten da eta baita muga politiko administratiboak banatzen dituen Katalunia eta Frantzia. Eguzkia dago baina haize hotza, inguru hauetan Tramuntana deiturikoa.

Gune horretatik aurrera gainez gain doa taldea. Belardi zabalak eta pagadiak tartekatzen dira. Taldekideak hitz egiten eta zabalera handia hartuz doaz. Ibilian ibiliz, arratsaldeko 17:30etan iritsi dira lo egin behar duten tokira, Font Tanyarade izeneko parajera. 1.100 metro inguruko altueran dagoen atseden gune bat da eta iturri bat ere badago bertan. Mendizale taldea iritsi denerako, sukaldean dabiltzan bi antolatzaileek lau kanpadendak jarriak dituzte. Partehartzaileak asko poztu dira iristean; gehienek freskagarriren bat hartu dute eta eguneko jan poltsan soberan gelditu zaizkien jan hondarrekin meriendatxo bat egin dute. Hotza hezurretara sartzen sentitu dutenean arropak aldatu eta ongi jantzi dira; euritakoak, forruak, lumazko berokiak… uztaila izan arren mendian dena egin zaie beharrezkoa.

Afaria 19:30etan izan da: pasta entsalada, oilaskoa patatekin saltsan eta jogurt bat. Ondoren, kafea, kola-kao edo infusioren bat hartzeko aukera ere badago. Gustura afaldu dute guztiek. Atseden lekuan zeuden hiru mahaietatik bitan banatu dira ibiltariak eta hirugarrengoan gidak eta sukaldariak kokatu dira. Kafea hartzeko garaian partehartzaile guztiak estu-estu egin eta elkarrekin eseri dira. Laster hasi dira gidak hurrengo eguneko plangintza kontatzen. Bilera hauetan zenbat orduko martxa duten eta zer arropa eta zein tokitatik pasa behar diren kontatzen dute. Norbaitek kezkaren bat izan ezkero une hori izaten da galdetzeko garaia. Eguneko balorazio moduko bat ere egiten da, ibiltariei zer moduz dauden eta egunekoa zer iruditu zaien galdetuz.

Bilera hori amaitu ondoren laster sartu da jendea kanpadendetara, kanpoan egoteko hotz baitago. Norbera dagokion kanpadendan sartu da; ez dago

aldaketarik. Algara batzuen ondoren haizeak zuhaitzen adarrak mugitzean sortzen duen doinu erakargarria entzunez loak hartu ditu mendigoizaleak.

Zibilizazio inguruan. Font Tanyarede - Les Illes

Gaur ere 7:15etan jaiki dira. Ondoren denak gosaltzera eta eguneko ibilaldirako beharrezko izango duten motxila prestatzera. Hori egin eta denbora soberan izan dutenek kanpadendak desmuntatzen lagundu diete antolakuntzakoei. Gaur goizeko elkarrizketa gaia haizea izan da, gauean oso indartsu ibili da eta bat baino gehiago lo egin ezinik ere egon da, haren indarraren beldurrez.

8:00etan atera dira guztiak. Hasieran Neulos tontorra igo behar da; bertan dago baina hogei minutu inguru behar dira bertako malda gogorra gainditzeko. Ibiltariak isilik doaz gorantz eta konturatzerako tontorrean daude. Gainean irrati, telebista, edo telefono uhinak errepikatzen dituen antena bat dago, oso zatarra. Inguru guztia elektrifikatua dagoen alanbrez inguratuta dago. Tontorrean argazki pare bat atera eta beherantz abiatu dira, haizeak ez baitu uzten gailurrean denbora luzez egoten. Beherantz taldea zabaldu egin da eta elkarren artean hitz egiten joan dira. Zerua oskarbi agertu arren haizeak deserosoa egiten du ibilia.

Basoan zehar jaitsi ondoren laster asfaltozko errepide batera iritsi dira eta baserri baten ondoan geldialdi bat egin dute zerbait jateko. Momentu horretan Jordi, Silviaren koinatua, guztietaz agurtu eta joan egin da. Ondoren, aurrera ekin dio taldeak. Aurretik Silvia doa. Silvia hogei eta hamaika urte dituen gida kataluniarra da; Bartzelonan jaio arren Blanesen bizi da gaur egun. Esperientziadun mendizalea, dagoeneko zortzi mila metro dituzten hiru mendi tontorretan egona da. Aurtengo maiatzean Everesteko gailurra zapaldu du. INEFC (Instituto Nacional d'Educació Física de Catalunya) ikasketak eginak dauzka eta ahal duenean irakasle moduan lan egiten du, lanbide hori gida edo entrenatzaile lanekin osatuz. Berak mendia bere buruaren mugak ezagutzeko modu bat bezala ikusten du: "una forma de crecimiento personal". Silviak dio, espedizioetara, berarekin joan diren pertsonengatik joan dela, bera mendizale ezezagunekin inoiz ez dela joango; taldeak duela garrantzia eta ez gailurrak. Gailurra egiten bada hobeto, baina berak nahiago duela talde giro ona.

Asfaltozko errepidean, taldea asko luzatu da eta ibiltariak elkarren artean hitz egiten joan dira Le Pertusera iritsi arte. Mugan dagoen herri bat da hau eta trafiko handia dabil. Herriko parke batera sartu dira eta gidak ordu eta erdi utzi dute atsedena hartzeko, bazkaltzeko... Taldeka jarrita bazkaldu dute; ondoren bi taldeetako kideak zerbait hartzera joan dira taberna batera; hirugarren taldekoak berriz bazkaldu aurretik joan dira zerbait hartzera eta orain bazkaltzen gelditu dira. Adar jotzeak eta txantxak geroz eta handiagoak dira.

14:15etan berriro bildu eta martxan jarri dira. Eguzkiak gogor jotzen du; goi aldean zegoen haizeak eguzkiari utzi dio protagonismoa. Herritik atera eta lurrezko pista bat jarraituz doaz. Taldearen formazioa berdina da: aurrean gida bat eta atzean beste bat. Ibiltari guztiak, bat izan ezik, galtza motzetan doaz, Guadalajarako mendizalea doa praka luzeekin. Bere lagun baten bidez apuntatu da zeharkaldi honetara, lagun horrek esan omen zion giro ona egoten zela eta merezi zuela; probatu eta dastatu nahian aurten bi etapa egingo ditu.

Lurrezko pistan ibilian doazela une batzutan jendea kantatzen ere ari da. Batzutan basoan zehar laburbideak ere hartu dituzte. Baso hori, mediterraneo aldeko baso bat da; hirurehun metroko altueran arteak eta artelatzak ageri dira. Ibiltarien artean adar jotze ugari entzuten da eta arratsaldean egindako geldialdian denak batera korru bat eginez jarri dira; baita gidak ere.

Lurrezko pista hori utzi eta asfaltozko errepide batera pasa dira. Bigarren mailako errepide bat da eta ez dabil trafikorik. Momentu batean bi gidak aurreratu egin dira eta atzean ibiltarien artean bromatxo bat gastatzeko intentzioa piztu da: ibiltari bat ezkutatu eta gero gidei esan norbait falta dela. Azkenean ez dute gauzatu ideia hau, baino horren kontura barre batzuk egin dituzte.

17:30ak aldera iritsi dira Les Illesera. Ordurako kanpadendak muntatuak dituzte sukaldekoek. Dena belardi batean dago. Aldamenean errekatxo bat pasatzen da eta tabernatxo bat ere badago. Gizonezkoak joan dira lehenengo errekara bainutxo bat hartzera. Denak larru gorritan jarrita ahal izan duten hobekien bainatu eta garbitu dira. Ez dago igeri egiteko toki handirik eta ura hotza dago, oso hotza. Gizonezkoak ateratzen joan diren heinean hurbildu dira emakumezkoak.

Ondoren, denak kanpadenden inguruan bildu dira eta zerbait edanez eta janez hitz egiten daude. Eduardok, Guadalajarakoak, kanuto bat ere egin du eta berak, Arantxak eta Patxik erre dute. Arantxa Bilbokoa da, Santutxukoa. Berrogei eta hamar urte inguru ditu eta haur hezkuntzako irakaslea da. Bere lagun Begoñarekin etorri da zeharkaldi honetara; bera ere Bilbokoa eta haur hezkuntzako irakaslea. Patxi, Iruñakoa da eta funtzionarioa da Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Berak behin baino gehiagotan errepikatu du zeharkaldi honetara pixka bat garbitzera etorri dela baino horrela ezinezkoa dela: ardoa edaten, erretzen... Pasa den urrian bere neska lagunarekin moztu omen zuen eta badirudi nahiko gaizki pasa zuela eta esaten du sekta batean sartu edo zeharkaldi honetara etorri, dudan egon zela. Ez du mendi esperientziarik eta nola ibiliko ote den kezkak azaltzen ditu.

Denbora pasean afaltzeko ordua etorri da: entsalada, dilistak txorizo eta txerri saiheskiarekin, eta natilla. Gaur belarretan eserita afalduko da, bakoitzaren isolatzailearen gainean. Nahiko barre egin du jendeak, afaldu bitartean. Katxi eta Javier txisteak kontatzen aritu dira, algara artean denak ezin janean egonez. Nahiz eta janaria banatzeko taldekideak elkarren alboan jarri, denak borobil bat osatu dute. Korru horretatik kanpo gelditu dira gidak eta sukaldekoak. Afaldu ondoren etorri da eguneko bilera. Gidak biharko ibilaldia komentatu dute. Biharkoa eta etzikoa izango omen dira gogorrenak eta luzeenak. Era berean bihar aldaketa bat egingo da: Silvia sukaldean gelldituko da eta Naroa goitik joango da gida moduan. Batzuek galdetu dute aldapa asko igo beharrean izango diren eta ia oso gogorra gertatuko ote zaien. Iluntzearekin batera hasi da jendea mugitzen. Bakoitza bere platera garbitzera eta biharko trasteak prestatzera. Poliki-poliki jendea kanpadendatan sartu da. Aitorrek kanpoan lo egingo omen du, zaku ona daukalako eta atzo beroa pasatu zuelako. Gidak eta sukaldari batek ere kanpoan lo egiten dute; beraien zakuak lumazkoak dira eta nahiago dute kanpoan lo egin. Sukaldari eta giden kanpadendan Begoñak bakarrik lo egingo du.

Perretxikoak. Les Illes - Arles sur Tech

Gaur jaikitzeko ordua aldatu egin dute, gaurko ibilaldia luzeagoa delako, 6:15etan denak gora. Maria eta Naroak, “estas son las mañanitas...”, abestuz

esnatu dute jendea. Gosaldu, bakoitza mugitzen den erritmoan egiten da. Jendea ez da elkartzen gosaltzeko. Gero ibilaldirako behar diren gauzak prestatu eta 7:00etarako denak irteteko prest daude. Gaur ere sukaldekoei kanpadendak eta sukaldea kentzen lagundu diete. Eguneko lehen eguzki izpiekin denak martxan dira. Hasieran bidezidor batean aldapa gogor bat igo behar da; haritz, gaztaina, elorri eta pagoz beteriko basoak gaueko ihintza gordetzen dute eta beroa uxatuz ibilia errazten dute. Taldekideak isilik doaz; goizeko lehen ordua eta aldapan gora; jendeak ez du hitz egiten. Egiten diren hizketaldi laburrak txantxak izaten dituzte oinarri.

Bidezidorra utzi eta lurrezko pista batean jarraitu dute, gorantz. Orain taldea multzotxoetan zatitzen da: binaka, hirunaka... Taldetxo bakoitzak bere elkarrizketa eramaten du. Eguraldia ona eta freskoa da, ibiltzeko oso ona. Naroa doa aurretik eta Maria atzetik. Berriro basora eta bidezidorrera sartu dira. Paraje ederrak norberak bere ametsak egitera eta hausnartzera laguntzen du. Aldapa gutxitzen denean mendizaleak hitz jarioan hasten dira. Laster iritsi dira Santuario de las Salinas izeneko baselizara. Ermita bat izateaz gain, ostatu eta aterpetxe bat ere badaude. Hemen egin da lehen geldialditxoa. Batzuk tabernara sartu dira zerbait hartzera eta beste batzuk kanpoan egon dira: eguzki babeserako krema ematen, hitz egiten, iturrian kantinplorak betetzen... Geldialdiak hogei minutu inguru iraun du eta berriro abiatu dira, lurrezko pista batetik barrena. Pauso gutxi batzuk egitea nahikoa izan dute harkaitz batean kokatuta dagoen ama birjina bat topatzeko. Mikelek bere esplikazioa bota du: zenbatgarren mendekoa ote den, zergatik ote dagoen... Mikel Atarrabiakoa da eta lanbidez erlijio irakaslea. Taldean bakartienetakoa da, bere kasa gustura moldatzen dena eta nesken kanpadendan lo egiten du. Ardorik eta freskagarririk ez du hartzen eta egurrezko makila batekin ibiltzen da. Berak mendian pasatzen omen du hobekien: lasaitasuna, bakea, natura...

Ama birjina dagoen puntu horretan bi gidak mapa kontsultatu ondoren, basora sartu dira berriro. Basoan zehar doazela Aitorrek bidezidorraren aldamenean perretxiko bat topatu du, aurrerago gibelurdin bat, harago onddo bat... Azkenean poltsa bat atera eta bidezidorraren aldamenetik joan da perretxiko bila. Besteak ere lagundu diote, gehienbat Ainhoa eta Mariak. Taldeko martxa pixka

bat gelditu egin da eta aurrekoetatik atzekoetara distantzia handitu egin da. Basoaren izena Markesaren basoa da eta oso polita da. Jendea perretxikoengatik txisteak egiten ari da: onak ote dira, “estos giputxis robasetas”... Markesaren basoa bukatzean poltsa bete perretxiko bildu dituzte: gibelurdin eta onddoak. Gehienak Aitorrek bildu ditu baino besteak ere izan dute parte hartzea.

Hizkuntzari dagokionez, gehien erabiltzen dena gaztelera da eta gero euskara. Begoña, Ainhoa, Mikel, Aitor, eta Arantxa dira euskaraz dakitenak, Patxi ikasten ari da eta batzutan beraien artean euskaraz aritzen dira, baina beraiek esaten duten bezala errespetuagatik gehienetan gazteleraz. Maria eta Naroak ere badakite euskaraz eta batzuetan euskaraz dakitenekin aritzen dira jardunean. Silviak katalana daki, baino inork ez du katalanez hitz egiten.

Bazkaltzera Montalba d’Ameliera iritsi dira; hau, lau etxe dituen herri edo auzo txiki bat da. Gaztainondo handi bat dago herriaren alboan eta bertan gelditu dira bazkaltzen. Denak batera jarri dira baino beti ere jan poltsako kideak elkarrekin. Atseden honetan, Naroak eta Mariak, zeharkaldia egiten ari den beste talde batekin kontaktatu dute: BBKkoak dira eta aurkako norabidean ari dira zeharkaldia egiten.

Ordu eta erdi ondoren berriro abiatu dira; sigi-saga doan bidezidor baten barrena doa ibilbidea, gaztainondo bikainez beteriko basoa. Denak ilaran jarrita, bakoitzak bere aurrekoarekin edo atzekoarekin hitz egiten du. Momentu batean eta azken aldapa gogorra hasi baino lehen errekatxo bat pasatzean geldialdi bat egitea erabaki dute. Katxi berehala sartu da larru gorritan uretara eta handik pixka batera denbora bat pentsatzen egon ondoren, Naroa ere bai. Besteak hankak busti dituzte. Aldatz gogorretan, taldea elkartu egiten da, gidak markatzen duten erritmoa lasaia da eta ondorioz kideen arteko distantziak txikiak dira. Katxik eta Aitorrek altuera markatzen duten ordulariak dituzte eta noizean behin besteei adierazten diete gune bakoitzaren altuera, ibilia animatzeko eta lagundu nahian. Gain bat harrapatu dutenean geldialdi bat egitea erabaki dute gidak. Ibiltariak, zerbait edan eta jaten duten bitartean Mariak, gelditzen denari buruz informazioa eman du: dena jaitsiera izango da herri batetara iritsi arte eta bertan camping batera sartuko dira. Erabakita dago gaur afaltzeko perretxiko tortilla jango dutela

eta Mariak ez die abisatu sukaldekoei arrautzak erosteko, beraz, herritik pasatzean arrautzak erosiko dituztela esan du.

Jaitsiera luzea izan da eta beroak bere urratua eman die ibiltariei, eguzkiak gogor jo baitu. Herrira heltzean arrautza batzuk erosi eta campingera iritsi dira. Lehen gauza, sukaldekoei kasu egitea izan da eta perretxikoak erakustea. Gero jendea dutxara abiatu da. Dutxatu, arropa garbitu, bizarra moztu... Horrelako toki batetara heltzean mendizaleak bestela nekez egin ditzaketen gauzak egiteko aprobetxatzen dute.

Iluntzearekin batera heldu da afaltzeko ordua: perretxiko tortilla, entsalada, espagetiak haragiarekin eta melokotoi bat. Jendeak asko disfrutatu du jaten eta nahiko adar jotze izan dira perretxikoen kontura: ia onak ote diren, “gaur gauean botaka egiten badugu...” Ardoa ere aurreko egunetan baino botila bat gehiago edan da. Nahiko barre egin ondoren, afaria amaitzean datorren eguneko ibilbidea azaltzeko bilera egin dute. Biharkoa ere gogorra izango omen da, ordu kopuruari dagokionez gaurkoaren berdina, baino dena gorantz, bi mila metro inguruan dagoen Cortaletseko aterpetxera iritsi arte. Begoñak, bere kezka azaldu du, aldapa oso gogorrak izango diren galdetuz; bestalde, bihar Silvia ibiliko da gida moduan eta Naroa sukaldera itzuliko da. Goizeko 6:00tan jarri dute jaikitzeko ordua eta nahiko berandu denez, denak lotara joan dira. Aitorrek, gaur ere kanpoan lo egingo du.

Pirinioak. Arles sur Tech - Cortalets

Goizeko 6:00etan jaiki dira guztiak. Gaur ere Maria eta Naroak abesti bat kantatu dute jendea esnatzeko. Betiko martxan bakoitzak bere erritmora gosaldu du. Goiz giro bikaina dago eta laster prestatu da jendea abiatzeko. Camping-etik atera eta berehala sartu dira artelatz baso bateko bidezidor batean. Ohikoa bihurtu denez, goizean goiz eta aldapa gora, jendeak ez du asko hitz egiten. Harrigarria da artelatzak nola gelditzen diren azala kentzen dietenean: biluzik eta ahulak ematen dute. Ondoren bidezidorra utzi eta lurrezko pista batetara sartu dira; orain bai, mendizaleak hitz egiteko prest daude. Aurretik, Silvia doa; honek behin eta berriz errepikatzen du bere muga bilatu nahiak bultzatzen duela mendi garaietara joatea. Behin, glaziar batetako zartatu batean erori zen eta denbora asko egon

omen zen bertan; izotz errekaren erraietan, hilotzaren ezaugarri diren hotz eta ilunabarra geroz eta gertuago sentituz. Negar egin omen zuen bere azken uneak zirela ustez. Zorionez bere kideek bertatik atera zuten.

Berriro bidezidor batera sartzean errekatxo bat topatu dute eta bertan gelditu dira geldialditxo bat egiten. Gehienak frutaren bat jan dute; kantinplorak ere bete dira eta hamabost minutu geroago berriro martxan jarri dira. Mariak komentatu du, berari lagunak hil zaizkiola mendian eta bera ere hiru alditan elur jauzi batek harrapatu duela. Horrelako zerbait gertatzean, frustrazio pentsamenduak izan omen zituen, baino gero berriro mendira itzuli omen da eta zer hobeagoa egin gainera. Berak esaten du: “azkenean bueltatu behar duzu, mamuei aurre egin behar zaie!”

Laster gogortu zaie malda eta ibiltariak izerditan hasi dira; lehenengo aldiz taldeko kide bat, Begoña, atzera geratu da. Silvia, ibiltariak sufritzen ari direla ikusirik, gelditu egin da denak elkartu arte. Inor ez da kexatu, zerbait jan eta zerbait edan eta aurrera. Begoña aurrera pasatu da Silviaren albora eta berriro martxan jarraitu dute.

Lepo batera iristean garai batean meategiak izandako ingurunea ikusi dute. Katxik gogorarazi du orain arteko altuerarik handienean daudela. Aurrera jarraitu dute, malda handirik ez duen bidezidor batean, pinu eta izeien artetik.

Bazkaria deituriko otordua berandutu egin da gaur; batetik ibilbidea luzea delako eta bestetik toki egokirik ez delako aurkitu. Bazkaltzera gelditzerako 14:15ak baziren ibiltariei goiza luze eginez. Denbora gutxi gelditu dira bazkaltzen, berrogei eta bost minutu. Arantxa, berarentzako euskaldunak dugun arazoetako bat azaltzen joan da: ez ditugula sentimenduak errez adierazten eta hau adierazkorragoa dela gizonengan emakumeengan baino.

Orain doazen ibilbideak Pirinio itxura handiagoa du: malda latzak, amildegiak, errekatxo asko, izeiak... Beste lepo batetara iristean berriro gelditu dira zerbait jan eta edateko. Azken partea gelditzen da; motza baino gogorra. Aldatz gogor bat hasi denean berriro Begoña atzeratu egin da eta berarekin Maria gelditu da. Begoñak, sufritu egiten du bera ezinean doanean eta kideak beraren aurretik ikustean. Aurrera jarraitu eta zelaigune batera iristean denak elkartu dira

berriro. Gutxi gelditzen da aterpetxeraino eta gelditzen dena nahiko laua da. Azken partean Katxi, Joseba eta beste batzuei ardo elaborazioaren prozesua nolakoa den azaltzen aritu da. Katxi Eslava-koa da, nafarra, baino berak esaten du maño sentitzen dela. Bere herriko ardo upategian lana egiten du eta txiste kontalari porrokatua da.

Azkenean eta 18:30ak aldera, Cortalets ingurura iritsi dira. Kanpadendak inguruko zelai batean muntatuak daude; han daude Naroa eta Begoña afaria prestatzen. Kanpadendak irekita daude aireztatzeko eta barruan eta inguruan berealdiko euli eta eltxo pila dabil. Bidean, Aitorrek, gaur ere perretxiko batzuk bildu ditu eta hauek sukaldarientzako izango direla erabaki da. Aitorrek berak prestatu dizkie. Ibiltari gehienak, garbitu, aldatu eta afaria hasi bitartean aterpetxera joan dira zerbait hartzera. Etapa bakoitza amaitu ondoren, zerbait hartzea ohikoa eta “beharrezkoa” bihurtu da. Gehienek garagardo edo freskagarriren bat edaten dute.

19:30ak aldera hasi da afaria: entsalada eta indaba zuriak odolki eta txorizoarekin. Aitorrek ez ditu indabak jan, berarentzako astunegiak zeudelako. Denak, borobil bat osatuz jarri dira eta gidak eta sukaldekoak gelditu dira aldenduta. Momentu batean, hauei ere gonbitea egin zaie, beraien albora etortzeko, adar jotze baten bidez. Azkenean afaldu ondoren etorri dira biharko plana kontatzera. Bihar egun lasaia izango da eta tartean Canigou, Kataluniarrentzat ospetsua den mendia igoko da. Gaurkoan baino ordu kopuru gutxiago izango dira oinez. Afaldu ondoren, poliki-poliki, gehienak aterpetxera gerturatu dira zerbait hartzera. Azkenean aterpetxea itxi egin behar dutela eta 22:30etan guztiak kanpadendarako bidea hartu dute. Javier eta Patxirentzako eta Ainhoa eta Begoñarentzako, gaur elkarrekin lo egingo baitute Begoña bakarrik ez gelditzearren, kanpadendetan sorpresa dago: euli eta eltxo pila bat. Javier, laster hasi da plastiko batekin denak uxatu nahian, eta baita lortu ere; hamar minututan euli guztiak atera ditu. Loa lasaiago eta sakonago egiteko balioko die.

Canigou. Cortalets - Mariailles

7:15etan izan da jaikitzeko ordua; gaur ibilaldia motza denez eta nahiko denbora dagoenez, beranduago jaikitzearekin nahikoa da. Mariak eta Naroak,

ohitura denez, iratzargailu funtzioa abestuz bete dute. Ondoren beti bezala gosaria etorri da; bakoitza bere erritmoan. Mendizaleek gaua nahiko hotza izan dela diote eta Katxik ere, inoiz hotzik pasatzen ez duenak, gaur gauean hotz pixka bat pasa duela dio. Eguraldia bikaina da eta gosaldu ondoren denak trasteak prestatu eta abiatzeko moduan jarri dira.

8:00etan atera dira Canigouko tontor aldera. Gaua pasa den tokitik gailurra ikusten da eta Mariak esan du, bi ordu barru bertan egongo direla. Taldearen formazioa betikoa da: Maria aurretik eta Silvia atzetik eta tartean beste guztiak. Taldeko kideek ez dute gune edo posizio bat ibiltzeko garaian. Adibidez Patxi ez doa beti bigarren edo hirugarren; posizio hauek aldakorrak dira.

Laster harrapatu da Canigoutik jaisten den gandorra; gune horretan mendiaren bi aldeak ikusten dira; denak oso eroso doaz eta tontorra geroz eta gertuago dago. Momentu batean Aitorrek urrutian sarrio batzuk ere ikusi ditu eta besteak ere ikusi nahian ibili dira.

Aparteko nobedaderik gabe 10:00ak inguruan Canigouko tontorrera iritsi dira. Beraien arteko besarkadak, irrintziak, argazkiak... Argazki pila bat atera ondoren, emakumezkoak beraien artean eta gizonezkoak denak batera, zerbait jaten eta edaten hasi dira. Katxik, ardo botila ere ireki du. Tontorrean jende asko dago eta izkina guztiak beteak daude. Ikuspegia oso ona da eta bertatik itsasoa ikusten da eta zeharkaldia amaitu behar den gunea ere bai.

Berrogei eta bost minutu inguru tontorrean egon ondoren jaitsierarako prestatu da jendea. Mariak eta Silviak esan dute, hasieran jaitsiera oso pikoa dela eta harriak elkarri botatzeko arriskua dagoenez, arriskuari beldurra dionak esateko eta aurre aldean jartzeko. Begoñak esan du berak errespetua diola eta Mariak Katxiren atzean jartzeko esan dio. Maria bera abiatu da aurretik eta beste guztiak atzetik. Tximinia zabal bat da, eta eskailerak balira bezala harritzar handiak sailkatzen dira. Geldi jaitsi dira eta jendearengan kontzentrazio eta arreta handiagoa antzematen da. Denak ongi jaitsi dira, baita Begoña ere, nahiz eta hasieran konfidantza gehiegirik ez erakutsi. Tximinia arriskutsu hau jaistean eztabaida: gizonezkoak ez dutela inoiz esaten beldurra dutenik, baino batzutan

kaka eginda egoten direla. Gizonezkoak hau onartu dute eta guztiak mendian beldurra pasa duteneko pasarteak kontatzen aritu dira.

Bidezidor batean zelaigune handi batera heltzean elur zulo bat agertu da eta Katxi bertara jaitsi eta besteei elurra bota nahian ibili da. Saiatu da besteei elur pilotez jotzen, baina ozta-ozta pare batek sentitu dute elurraren hotzikara. Horren kontura algara batzuk egin eta beherantz jarraitu dute, orain belardi zabal eta gozo batetik. Borda baten ondora iristean, gelditzea erabaki dute. Mariak eta Silviak esan dute bertan bazkalduko dutela eta ez dagoela presarik, eta irteera ordurik ez dute jarri. Taldekide guztiak jan poltsa taldeetan jarri dira. Batean Aitor, Patxi eta Javier; bestean Katxi, Eduardo eta Joseba; bi talde hauek elkarrekin; hurrengoan Begoña, Arantxa, Ainhoa eta Mikel; eta azkenekoan bi gidak: Silvia eta Maria.

Zerbait jan ondoren gehienak belarretan etzan dira; beste batzuk taldetxoa osatuz hizketan. Eguraldia ona bazen ere, pixkanaka geroz eta laino beltz gehiago agertzen ari dira eta guztiek antzeman dute trumoia eta euria ate joka dabiltzala. Tanta batzuk erortzen hasi direnean, gidak mugitzeko keinua egin dute eta beherantz abiatu dira. Denek euritakoak eta pontxoak atera dituzte motxilatik eta euri tanta artean bidea jarraitu dute.

Euriaren ondorioz sortzen den umel usainean, putzuetan plisti-plasta ibiliz, mendizale taldeak, airetik behatuta euritara atera den bare handi baten antza hartuko luke. Ez dago elkarrizketarik, euri-jasa areagotu egin da eta bakoitza bere euritako edo pontxoarekin ongi babesturik doa.

Konturatzerako iritsi dira Mariailles ingurura. Gandorraren alde batean aterpetxe itxia dago eta bestean, berrehun metro ingurura, aterpetxe irekia. Denak aterpetxe irekian jarriko dira. Eraikinak goiko partean lo egiteko egurrezko ohol batzuk ditu eta beheko partean, mahai handi bat, sua egiteko ekonomika eta su baxu bat. Aldamenean beste konpartimentu txiki bat du, ohatze zabal batekin eta su baxu batekin. Talde guztia lehenengo konpartimentuan sartuko da eta gidak eta sukaldekoak aldamenekoan. Gaur ez dituzte kanpadendak muntatu, ez dago beharrik. Sukaldea mahaiaren alboan jarri da eta ibiltariak motxilak utzi eta garbitzera joan dira; batzuk inguruan pasatzen den ubide batetara eta beste batzuek aterpetxe itxira, dutxa hartzera.

Afaltzen hasteko goiz da, 16:30ak, eta bakoitza bere kasa dabil. Batzuk, Katxi eta Aitorrek, meriendatzako zerbait ere atera dute. Gidak eta sukaldekoak afaria prestatzen hasi dira. Gaur denak mahai batean afalduko dute eta nahiko kandelarik ez dagoenez Aitorrek aterpetxean hiru kandela erosi ditu. Afaria prestatu dutenean denak mahaian eseri dira, kandelak piztu eta afaltzeko giro xarmangarria egokitu da. Menua: entsalada, dilistak arkumearekin eta postrea txokolatezko kopa. Ardoa ere ohi baino gehiago edan da eta biharko bi botila besterik ez dira gelditzen. Afarian, Naroak esan du azken gauean, bihar, afari berezia egiten dela eta partehartzaileek edariak erosteko aukera dutela beraiei enkargatu ezkero. Denen artean eztabaidatu eta adostu ondoren patxaran botila bat, ginebra beste bat eta garagardo eta ardoa enkargatu dituzte.

Afal ondoren gidak azaldu dute biharko eguna nolakoa den. Oso gogorra ez baino luzea dela. Bidean, eguraldi eta ordutegiaren arabera nahi duenak Costabona mendia igotzeko aukera ere izango omen du. Bihar azkeneko eguna da eta Vallter 2000-ra helduko dira. Bileraren ondoren batzuk aterpetxera joan dira, beste batzuk eguzkiaren azken izpiak behatzera eta gutxi batzuk aterpetxe inguruan gelditu dira. Euria ekarri duten trumoi eta lainoak pasa ondoren eguraldia aldatu egin da eta orain haizetsua eta garbia dago.

22:30ak aldera ibiltariak lo asmoan aterpetxearen goiko solairura igo dira. Gaur denek elkarrekin lo egingo dute. Aitorrek kanpoan lo egingo du; daukan zakuarekin nahiago omen du kanpoan lo egitea. Naroak ere kanpoan lo egingo du.

Bihar egingo dute zeharkaldi honetako azken etapa. Mendizaleak gustura ikusten dira eta Vallterera heltzeko gogoa duenik ez da entzuten. Ibiltarien artean eguraldia lagun izan dutela eta suertea izan dutela komentatzen da eta horrekin lotuta zeharkaldiko dinamika guztian inor ez dela atzeratuta ibili, inork ez duela lesiorik izan, inork ez duela minik hartu...

Lainoa. Mariailles - Vallter2000

Gaur jaikitzeko ordua 6:15etan izan da 7:00etan ateratzeko asmoz. Mariak eta Naroak ez dute abestu. Gainera denak batera egotean, bi edo hiru esnatzea nahikoa izan da guztiak esnatzeko. Gosaria betiko erritmoan joan da. Nahiz eta

mahaia egon, bakoitzak nahi izan duenean gosaldu du. Eguraldia ona da eta hain goiz izateko bero dago.

7:10ak izan dira ateratzerako. Hasieran lurrezko pista baten barrena; aldapa oso leuna da eta taldea luzatuta eta taldetxoetan doa. Berehala sartu dira belar artean sigi-saga igotzen den bidezidor batetan. Malda gogortu egin da eta Begoña lehen sufrimenduak jasaten ari da. Silviak esan du goiko lepora iristean atseden bat hartuko dutela, eta nahiz eta jendea atzean gelditu jarraitu egingo dutela leporaino.

Lepora heltzean atseden bat hartu dute. Ibiltariak edan eta lasaitu direnean, berriro aurrera. Atseden horretan azaldu dute arratsaldeko ibilbidea nondik nora doan, bertatik bistak onak baitira. Aurrera jarraitu dute, orain pinu artean doan bidezidor batetik eta konturatzerako, sapalda moduan dauden belardi batzuetara atera dira. Atzera begiratu ezkero Canigou ikusten da eta aurrera begiratuz gero arratsaldean jarraitu beharreko bidea. Eguraldia bikaina da eta belardi zabal horiek oso politak dira. Taldekideak azalera handian zabaldurik doaz oinez, hizketan; elkarrizketaren batetan taldekide guztiak ere parte hartu dute.

Irudia 15: Mariallestik Vallterera sapalda zabaletan barrena
Egilea: José Vallejo

Gainez gain jarraitu dute bidean, lepo batetan geldialdi bat egin arte. Une hauek jendeak atseden pixka bat hartzeko eta zerbait jan eta edateko egiten dira. Denboraz ez dira luzeak izaten hamar minutu ingurukoak, eta beti lepo edo errekatxoetan edo eguraldi ona badago, tontorretan.

Eguraldiak okertzeko joera hartu du eta dagoeneko ikusten da eguerditik aurrera euria, tximistak, trumoiak eta lainoa izateko arriskua. Aterpetxe ireki bat atzean utzi ondoren, pare parean Costabona mendia agertzen da. Lainoak tontorra orraztu nahian dabiltza joan etorrian.

Errekatxo batetara heltzean bazkaltzea erabaki dute. Aurrez, Silviak galdetu du ia nork igo nahi duen Costabonara; Aitorrek, Katxik eta Ainhoak igotzeko asmoa azaldu dute. Beraien plana azkar bazkaltzea da eta jarraian gorantz ateratzea. Beste taldekideak bazkari denbora luzatuko dute eta gero Mariak gidatuko ditu. Hamabost minututan gazta eta txokolate pixka bat jan eta berehala atera dira gorantz. Tontorrak lainoz osatutako txapela jantzita dauka eta guztiek komentatu dute goitik ez dela ezertxo ere ikusiko. Orain Silviak pauso azkarra darama, eta atzetik Aitor, Katxi eta Ainhoa ilaran. Aldapa latzean sartu direnean, Katxik asko bizkortu du bere pausoa eta aurreratu egin da, harrokeriazko txisteak botaz; azkar doaz. Laster harrapatu dute tontorra; lehenengo Katxik eta gero besteak. Aitor eta Katxik oihu handi bat bota dute tontorretik eta gero etorri dira ohikoak diren argazkiak. Katxik esan du tontorretara heltzean beti gustatzen zaiola oihu bat botatzea. Lainoa dago eta ez da ezertxo ere ikusten. Bost minutu egon eta beherantz abiatu dira. Silviak, tontorrean badaezpada, iparorratza eta maparekin posizioak finkatu ditu. Biak eskuan daramatza. Berehala maldarik gogorrenak jaitsi eta Roc Colom aldera abiatu dira. Laino artean, erreferentziarik ez dute eta beste taldekideak dagoeneko joanak dira.

Roc Coloma heltzean geldialditxo bat egin dute, trago bat hartu eta iparorratza eta mapa finkatzeko; lainoa itxi-itxi dago eta bost metro baino haratago ez da ezertxo ere ikusten. Momentu batean bidezidor bat bilatu nahian ere ibili dira, baino aurkitu gabe ere norabide onean aurrera jarraitu dute. Denbora pixka batera, bidezidor bat topatu dute eta Silviak esan du hori dela egokia. Bidezidor horretan ibiliz laster iritsi dira Vallter gainera. Azkeneko jaitsiera besterik ez da gelditzen eta

zerbait jateko geldialdi bat egin dute. Sarrio bat ere agertu da inguruan ongietorria eman nahi balu bezala.

Hogei minututan Vallterera iritsi dira. Euri tanta batzuk ere hasi dira. Kanpadendak dauden tokira iritsi eta besarkadak, muxuak eta poza; denak gustura daude bukatu dutelako. Kanpadendak jartzen amaitu dutenean bertan dagoen tabernara joan dira zerbait hartzera eta Frantziako Toura ikustera. Mariak, tabernakoei galdetu die ea dutxatzeko aukerarik dagoen eta tabernakoak baietz esan dute, hiru euroren truke dutxatu daitezkeela.

Sukaldekoak eta gidak afaria prestatzen ari dira. Beraiekin batera Silviaren lagun diren bikote bat dago; bazekiten bertara iristekoak zirela eta bisita egitea erabaki dute. Gaur afari berezia izango da: entsalada eta paella handi bat, eta postrean Katalunian tipikoak diren bizkotxo batzuk. Afaldu, taberna parean dagoen estalpe batean egingo dute. Estalpe horretan, neguan, eski pistako sarrerak saltzen dira eta orain itxita dago.

19:00ak aldera hasi dira afaltzen. Giroa bikaina da eta denen komentarioa da astea oso ongi atera dela: eguraldia bikaina, talde giroa ezin hobea, gidak eta sukaldekoak langile eta jatorrak... Gidak eta sukaldekoak aipatu dute oso talde ona eta giro oso berezia izan dela. Denak kontentu eta pozik. Postrean, Naroak esan du etapa guztietan motxila txiki bat zozketatzen dutela eta partehartzaile bakoitzari paper bana banatu die; batean motxila dago eta besteetan egin beharreko erakusgarri bat. Motxila, Javierri tokatu zaio eta besteak guztien aurrean zerbait egin behar izan dute: txiste bat kontatu, abestu, dantza egin... Postrearen ondoren, patxarana eta ginebra ere atera dituzte. Jendea edanean dago algaraka, irrika eta etorkizuneko planak egiten. Hau bukatzen dela eta beste nonbait aste bukaera bat pasa beharko dela... Ordu txikietan, nekatuta eta edariaren zama gainean dutela kanpadendetara bildu dira lo egitera.

Bihar goizeko 9:00etan, autobusa etorriko da bigarren astea egingo dutenekin. Talde honetatik Eduardo bakarrik gelditukо da bigarren astean.

Agurra. Vallter2000 - Iruña, autobusez

7:15 inguruan bakoitza bere erritmora jaiki da. Ondoren agurrak; bereziki, gida eta sukaldekoekin. Silvia, Naroa eta Begoña agurtu dituzte; hauek aste bete gehiago jarraitu behar dute eta. Maria aldiz, Donostiara bueltatzen da, datorren asteazkenean Argentinara baitoa mendiko eskia egitera. Ohiko argazkiak atera eta joateko prestatu dira.

9:30etan atera da autobusa. Jendea berehala, atsedena hartzeko asmoz jarri da: bakoitzak bi aulki erabiliz eta etzanda. Denak saiatu dira lo pixka bat egiten. 14:00ak aldera bazkaltzera gelditu dira. Autobusean, Javierrek denen helbideak hartu ditu harremanetan egon daitezen. 17:00ak aldera Iruñara iritsi dira. Autobusen geltokian, Ainhoa, Begoña, Arantxa, Joseba eta Maria jaitsi dira. Betiko agurrak eta aurrera. Azkenean, Anaitasunaren lokalaren aurrean Katxi, Aitor, Javier, Patxi, eta Mikel jaitsi dira. Agurtu eta bakoitza bere bizitzara. Hor bukatu da aste beteko Pirinioetako zeharkaldia.

7. kapitulua Mendi zeharkaldiaren azterketa

7.1 Mendi zeharkaldiko espazioaren zentzua

Edozein jarduera ingurune berezi batean egiten da. Jarduera fisiko bakoitzak “berea” duen inguru bat du praktika aurrera eramateko. Ingurune desberdinak aurkitu ditzakegu; adibidez pilotan jokatzeko frontoia beharko da, arraunean egiteko itsasoa, futbolean egiteko futbol zelaia, piraguan ibiltzeko itsasoa edo erreka... Horrela amaitu gabeko zerrenda bat egingo genuke. Inguruneak praktika horren ezaugarri batzuk izango ditu eta araudiak zehaztuak egongo dira. Guk garrantzitsua jotzen dugu ingurune hori aztertzea, baliagarri izango zaizkigun hainbat ezaugarri aterako baitira azalera.

Mendi zeharkaldietan ingurumena da zalantza sortzen diguna eta ibiltzean deskodifikatu behar duguna. Ingurumen fisiko hori deskodifikatzeko garaian egokitzapen prozesu bat ematen da. Ingurumena ziurra denean, lehenengo egunean egokitu egin beharko gara baino gero prozesu egokitzaileak indarra galtzen du. Mendian informazioa jaso behar dugu ingurumenetik eta gero partehartzaileak jokabide motor egokiena aukeratu beharko du.

Mendi zeharkaldi bat mendian egiten da eta bertan egiten diren zeharkaldietan hainbat ingurune desberdinetatik pasa daiteke: bidezidorra, pista, malda latza, tontorra… Guztiek ingurunea osatzen dute eta bakoitzak bere ezaugarria ematen dio ibilaldiari. Ezaugarri horien ezagutza beharrezkoa izaten da, ingurunea baita naturako jardueratan deskodifikatu behar duguna.

Zeharkaldia bidetik eta bidez kanpo izan daiteke. Bide markatuak ere ageri dira mendikateetan: GR eta PR. GR (grand randonne) eta PR (petit randonne) bezala ageri dira, eta GR-ak marra zuri gorriz eta PR-ak marra zuri horiz markatuak daude. Pirinioetan bi GR agertzen zaizkigu mendikate guztia zeharkatzen: GR10 (iparraldeko isurialdetik) eta GR11 (hegoaldeko isurialdetik). GR eta PR hauek, markatuta daudenez abantailotxo bat ematen dute bide egokia aukeratzerako garaian. Honez gain, bide ugari aurkitzen dira mendietan; hala nola, baso egurra ateratzeko eginiko pistetatik ganaduak bere ibilian egiten dituzten bidezidorretaraino. Biderik gabeko mendiak ere aurkitu daitezke. Hauek orokorrean belardi zabalez osaturikoak izaten dira. Behin altuera batetik (2.000-2.500 metro) gora harritzar handiz edo harri txikiz osaturiko inguruak aurkitzen dira. Hau dena ongi irakurtzea eta deskodifikatzea ezinbestekoa du mendizaleak. Mendizaleak aztertu eta ulertu egin beharko du jasotzen duen informazio guztia.

7.1.1 Ezaugarri geografikoak

Gure kasuan zeharkaldi hau Pirinioetan egin zen. Pirinioak Kantauri eta Mediterraneo itsaso artean dagoen mendikateari deitzen zaio. Gutxi gora-behera 800 kilometro luze izango ditu eta bertan 3.000 metrotik gora diren mendi tontor ugari daude. Administratibo eta politikoki Espainia eta Frantzia banatzen dituzte eta herrialde bat ere badago mendikatearen erdialdean, Andorra, honek ere Espainia eta Frantziarekin muga eginez. Irteera politikoki frantsesa, baino kulturalki Katalunia iparraldea den Banyulsetik izan zen eta helmuga Katalunia hegoaldeko eski estazio batetan: Vallter2000.

7.1.2 Ezaugarri topografikoak

Ibilbide guztiek beren ezaugarriak dituzte: kilometro kopurua, desnibela, etapak, tontorrak, ezaugarri horien arabera ondorio desberdinak aterako dira. Mendiko jardueretan orokorrean zailtasun kontzeptua asko erabiltzen da. Pertsona desberdinak zailtasun desberdina topatuko dute eta nahasi daitekeen terminoa da. Partehartzaile batentzako aldapa piko bat igotzea zaila izango da, eta beste batentzako aldiz ez.

Anaitasunak aurrez publizitate gisa bidaltzen duen triptikoan zailtasunei buruz hau agertzen da: “Zailtasun teknikorik gabeko ibilbideari, erraza deitzen diogu. Hala ere desnibel handiko igoera eta jaitsierak egin beharko dira”. Eta horrekin lotuta: “fisikoki ongi prestaturik egotea komeni da, zeharkaldia oso gogorra baita.” ("Sociedad Cultural Deportivo Recreativa Anaitasuna,").

Anaitasunak ez du zehazten zeintzuk diren “zailtasun teknikoak”. Guk terminoaren barnean eskalada pasabideak (eskuak erabili beharreko pasabideak) sartu ditugu. Bestalde zeharkaldiko luzera (kilometroak) eta desnibela (igo eta jaitsitako metroak), izan ditugu kontutan gogortasuna aipatzen duenean.

Taula 1: ezaugarri topografikoak

Eguna	Etapa	Luzera (km)	Igotzeko desnibela (metroak)	Jaitsierako desnibela (metroak)	Desnibel portzentaia (Irteeratik helmugara)
1	Banyuls - Font Tanyarede	18	1.200	100	%6,60
2	Font Tanyarede - Les Illes	22	500	1.100	%-2,70
3	Les Illes - Arles sur Tech	22	900	1.100	%-0,90
4	Arles sur Tech - Cortalets	21	1.700	-	%8,09
5	Cortalets – Mariailles	10	700	1.000	%-3
6	Mariailles - Vallter2000	23	800	500	%1,30
	Guztira	**116**	**5.800**	**3.800**	**%1,72**
	Eguneko batez bestekoa	19	967	633	

Zeharkaldi osoa kontutan hartzen badugu 0 metrotik 2.000 metrora pasa ziren. Beraz ibilaldia guztia era orokor batean gorantz egin zuten. Metro gehien igo zituzten etapa laugarrena izan zen, 1.700 metro. Zeharkaldiko egun guztiak kontuan hartuta batezbeste egunero 966 metro igo zituzten eta 633 metro jaitsi. Metro gutxien igo zituzten eguna bigarrena izan zen, 500 metro igo zituztelarik.

Egunero etaparen hasiera gorantz aldapa igoz eman zitzaion: "...7:00etarako denak irteteko prest daude... Denak martxan dira. Hasieran bidezidor batetan aldapa gogor bat igotzen hasi dira" (Kontakizuna 119. or.). Era berean egun batetan ezik, Cortaletskoan, eguneko helmugara iristeko azken partea beherantz izan zen.

Eginiko kilometro kopuruari begiratzen badiogu, guztira 116 kilometro egin zituzten, 6 egunetan banatuta. Eguneko batezbestekoa 19 kilometrokoa izan zen. Kilometro gehien egin zituzten eguna, seigarrena izan zen, azkenekoa: 23 kilometro. Gutxien egin zituzten eguna bosgarrena, 10 kilometro egin zituztelarik. Hau da besteetatik bereizten den eguna. Sei egunetatik lautan 20 kilometro baino gehiago egin zituzten.



Irudia 16: zeharkaldiko perfila

Zeharkaldi honetan pasa zituzten tontorrak hauek izan ziren: Salifort, 4 Termes, Neulos, Canigou, Costabona eta Roc Colom. Igo zen punturik altuena Canigouko tontorra izan zen 2.700 metrorekin. Ondoren Roc Colom 2.500 metro

eta Costabona 2.400 metro. Costabona izan zen bidetik desbideratuz igo zen tontor bakarra eta hau hiru partehartzaile eta gida batek igo zuten. Beste partehartzaile guztiak bidea jarraitu zuten.

7.1.3 Mendizalea ingurunean

Jarduera fisikoetan partehartzaileak harremanetan jartzen dira praktikako ingurunearekin edo espazioarekin. Ingurune hori nolakoa den halakoa izango da partehartzailearen erantzuna. Ingurune batzuk beti berdinak izaten dira, adibidez saskibaloiko pista bat. Honek beti neurri berdinak ditu eta zorua markatzen duten marrak beti toki berean egoten dira; saskia ere beti tamaina berekoa da eta distantzia berdinera daude biak. Praktikako ingurunea edo espazioa beti berdina duten praktika fisiko asko daude, adibidez: igerilekuan burutzen den igeriketa, eskubaloia, kirol-gimnasia... Beste batzuk praktikako ingurunea beti aldatzen dute, hauek naturan egiten dira, adibidez belauntzien estropadak, mendi bizikleta, ezkutaketa... Kasu hauetan ingurunera egokitu egin behar da, “irakurri” egin behar da; aldiz espazioa beti berdina denean “irakurketa” hau minimoa izaten da.

Mendi zeharkaldiak naturako jarduera bat izanik, praktikako ingurunearen eragina partehartzailearengan handia izaten da. Mendia ingurune aldakorra da eta aldaketa horien arabera egokitu beharko da mendizalea. Ibiltariak inguru horri nola egiten dion aurre eta zer eragin duen aztertuko dugu atal honetan.

Zeharkaldi batean hainbat bide eta txokoetatik ibiltzen da. Oinezko bide eta zoruak guztiz desberdinak aurkitu ditzakegu. Guk mota hauek bereiztu ditugu: bidezidorra, pista, errepidea, belardiak eta eskuak erabili beharreko edo eskaladako pasabideak. Harluxet euskal hiztegi entziklopedikoak ("Harluxet Entziklopedia,"), bidezidorra “mendi edo landetako bide meharra, oinezko edo abereentzakoa” bezala definitzen du. “Mendian sarritan zuhaitz enborren garraiorako, bertatik ibilgailuak ibili ahal izateko eginiko bide zabal eta zoladurarik gabea” pista izango litzateke eta “bide zabala, automobilak eta bestelako ibilgailuak bertatik ibil daitezen prestatua” errepidea. Belardia berriz, “belarra hazten den landa”.

Taula 2: zeharkaldiko ibilbideak, luzerak eta ehunekoak

Eguna	Etapa	Luzera (km)	Bidezidorra		Belardia		Pista edo errepidea	
			km	%	km	%	km	%
1	Banyuls - Font Tanyarede	**18**	9	50,00	8	44,40	1	5,50
2	Font Tanyarede - Les Illes	**22**	5	22,70	-	-	17	77,20
3	Les Illes - Arles sur Tech	**22**	17	77,20	-	-	5	22,70
4	Arles sur Tech - Cortalets	**21**	21	100,00	-	-	-	-
5	Cortalets - Mariailles	**10**	10	100,00	-	-	-	-
6	Mariailles - Vallter2000	**23**	11	47,80	10	43,40	2	8,70
	Ibilbide bakoitza guztira	**116**	**73**	**62,90**	**18**	**15,50**	**25**	**21,50**

Zeharkaldiko (%62,90a) bidezidorretatik egin zen; (%15,50) belardietatik eta (%21,5a) pista edo errepideetatik. Laugarren eta bosgarren etapetan (%100a) bidezidorretan egin zen. Pista eta errepidetan gehien ibili ziren eguna bigarrena izan zen, (%77,2a), 17 kilometro. Belardietan gehien ibili ziren eguna azkenekoa 10 kilometro, baina etapa bakoitzean eginiko kilometro guztiak kontutan hartuz proportzionalki, Banyuls eta Font Tanyarede bitarteko, lehenengo etapa, izan zen belazeetan barrena gehiena ibili ziren eguna (%44,4).

Ezagutu ditugu zeharkaldiko ibilbide desberdinak izan zuten protagonismoa; orain ibilbide bakoitza aztertuko dugu eta zer joera izan zuen taldeak.

Bidezidorra estua izaten da; zabalera aldatu daiteke baino ohikoa izaten da metro bat baino gutxiagokoa izatea. Bidezidor hauek batzutan ganaduak eginak izaten dira eta besteetan gizakiak bere joan etorrian. Batzuetan lurra egongo da zoruan, besteetan harri kaxkarrak... Estua izateak ibiltariak bata bestearen atzetik joatea bultzatzen du eta taldea gehiago luzatzen da (lehenengotik azkenekora distantzia gehiago). Lehenengoak ezik besteek aurrekoaren bizkarra ikusten dute parez pare; ondorioz beherantz begira joatera bultzatzen du ez baitago aurre ikusterik bidezidorrean zer topatuko den: harria, putzua, jauzia...

Bidezidorra beherantz oso pikoa denean edo gorantz oso aldapatsua, kontzentrazio hau areagotu egiten da. Beherantz oso pikoa denean ibiltarien arteko tartea handiagotu egiten da; pausoa moztu (distantzia txikiagoa batetik bestera) egiten da. Gorantz oso pikoa denean, alderantziz, ibiltarien arteko distantziak txikitu egiten dira.

Gu aztertzen ari garen zeharkaldian ere aipatu dugun hau antzeman zen; gorakako oinezko abiadura txikiagoa izan zen beherakakoa baino. Goraka abiadura gutxitu egiten da eta partehartzaileen arteko distantzia txikiagoa izateko joera dago; aldiz beherantz abiadura handiagoa eramaten da eta partehartzaileen arteko distantzia handiagotzeko joera egoten da, abiadura handiagoak tarte gehiago eskatzen baitu jokabide motor egokia egiteko.

Zeharkaldi honetan bidezidorrean ibili zirenean azaldu dugun berdina pasa zen. Gertakizun hau da horren lekuko: “orain aldapa handitu egin da eta denak bidezidorrean banaka jarrita doaz bata bestearen atzetik” (Kontakizuna 114. or.).

Pista edo errepideak zabalera desberdinetakoak izan daitezke; baina gutxien duenak hiru metroko zabalera duela esan dezakegu. Pista denean, zorua lurrezkoa, “eskoria” edo “todounoa” izaten da eta zoru honen egoeraren arabera ibilgailuentzako egokia edo traketsa izaten da. Batzutan zulo handiak izaten dituzte euriaren ondorioz sortuak. Asfaltozko errepidea denean ibilgailuentzako guztiz egokia da.

Pistak eta errepideak esfortzu egokitzaile txikia eskatzen dute. Ez dago etengabe zorura begira joan beharrik harriak edo koskak ekiditeko. Beraien zabalera kontutan izanda, ibiltariak elkarren parean joateko aukera dute pistaren zabalera guztia probestuz. Ibiltari taldetxo batetik bestera distantziak aldatu daitezke baina pistak “utzi” egiten du ibiltariak bata bestearen alboan joaten. Pista edo errepidea dagoenean, igoerako edo jaitsierako malda ez da izaten oso gogorra, pista eraikitzeko daukan zailtasunagatik.

Zeharkaldi honetan ere pista edo errepidea izan denean taldea zabaldu eta luzatu egin da pista edo errepide horren zabalera probestuz. Hau horren erakusle: “hasieran lurrezko pista bat izan da; aldapa oso leuna da eta taldea luzatuta doa” (Kontakizuna 127. or.).

Bidezidor eta pista edo errepide arteko desberdintasun hori Euskal Herriko esaera zahar batek modu ironiko batetan azaltzen du: “ezkondu bitartean bidezidorrean ere elkarren parean, ezkondu ezkero bidean ere banaka” (Egutegia, 2004ko irailaren 22).

Belardi zabalek ere “utzi” egiten dute ibiltarien taldeak nahi duten adinako zabalera hartzen. Ibiltariek bata bestearen alboan joateko joera dute taldetxo desberdinetan. Taldetxo batetik bestearekiko distantzia, handia edo txikia izan daiteke. Belardietan, egokitzapen beharra pista edo errepideetan baino handiagoa da, ez dagoelako biderik eta orientazioz norabide bat jarraitu behar delako; baina bidezidorretan baino txikiagoa edo handiagoa (eguraldiaren arabera; lainoarekin hagitz konplexua).

Zeharkaldian, bidezidorrik gabeko belardi zabaletatik pasa zirenean taldeak zabal zabalean joateko joera izan zuen. Partehartzaileek, beraiek nahi adinako zabalera hartu zuten: “berehala atera dira sapalda moduan dauden belardi batzuetara. Atzera begiratu ezkero Canigou ikusten da eta aurrera begiratu ezkero arratsaldean jarraitu beharreko bidea. Eguraldia bikaina da eta gain hauek ere oso politak dira. Taldea orain zabal zabalik doa...” (Kontakizuna 127. or.)

Beste ibilbide bat badago aurreko hiru atal hauetan sartzen ez dena: eskuak erabili beharreko pasabideak. Horietan oinak gain, eskuak erabili behar dira ez erortzeko. Prozesu egokitzaileari arriskua gehitzen zaio. Zenbait tokitan erori ezkero bizitza galtzeko arriskua egon daiteke. Nahiz eta praktika mendi zeharkaldi bat izan eskalada pasabideak dira. Zati oso aldapatsuak, gorantz edo beherantz izaten dira eta kontzentrazio handia eskatzen dute. Ibiltariak banan bana pasatu behar dira, nagusiki harri eta harkaitzezkoak izaten direlarik. Pausoa luzea edo motza izan daiteke eta eskuak erabili daitezke laguntzeko eta bultzatzeko.



Irudia 17: Canigouko eskuak erabili beharreko pasabidea
Egilea: Jon Albeniz

Zeharkaldian eskuak erabili beharreko pasabide bakarra Canigouko "tximinia" izan zen; "tximinia", gandorrera edo tontorrera eramaten duen bide estu eta oso pikoari deitzen diogu. Gehienetan harkaitz artean aurkitzen den eten gunea izaten da. Canigouko tximinia hau tontorretik jaistean pasa zuten, eta eskailera antzeko harkaitz batzuk ditu. Ez da oso luzea eta jaisten hamar minutu inguru behar izan ziren. Bertan aurrez aipaturikoa garbi azaltzen zaigu: "tximinia zabal bat da eta eskailerak bezala ditu. Geldi jaitsi dira eta jendearengan kontzentrazio eta arreta handiagoa antzematen da" (Kontakizuna 124. or.).

Lur zoruei dagokienez lurra, harria, harkaitza, belarra eta asfaltoa izan zituzten. Elurra ere egun batetan "ikutu" zuten, baino ezin daiteke esan elurretan ibili zirenik, gehienez ere bi pauso jarraian eman baitzituzten elurretan: "bidezidor batean zelaigune handi batetara heltzean, elur zulo bat agertu da eta bertara jaitsi da "Katxi" eta besteei elurra bota nahian ibili da" (Kontakizuna 125. or.).

7.1.4 Zeharkaldiko azpi esparruak

Jarduera egiten den eremua kontuan hartzen badugu, jarduera guztiek dituzte azpi esparruak; horrela futbola, futbol zelaian egiten da, baina futbol zelaiak baditu azpi esparruak: area txikia, handia, korner jaurtiketa egiteko eremua... Mendi zeharkaldiek ere badituzte azpi esparruak eta horiek aztertuko ditugu.

I. Irteera, helmuga eta luzapenak: lo guneak

Zeharkaldietan, egun batetik besterako ibilian lo egin daitezkeen guneak izaera desberdinetakoak dira: kanpadenda, herriko eliz ataria, ostatua, “vivac” eran (zakuarekin bakarrik), aterpetxea (gordea edo irekia). Komeni izaten da lo egiteko tokiak estalpe bat eta ura izatea. Estalpeak edozein eguraldi aldaketaren aurrean babestu egiten du eta ura edateko beharrezkoa egiten zaigu.

Taula 3: ibilbideko lo guneak

Lo guneak	Non	Nola
Banyuls	Herrian	Kanpadendan kanpin gordean
Font Tanyarede	Mendian	Kanpadendan
Les Illes	Herrian	Kanpadendan
Arles sur Tech	Herrian	Kanpadendan kanpin gordean
Cortalets	Mendian	Kanpadendan
Mariailles	Mendian	Aterpetxean
Vallter2000	Mendian	Kanpadendan

Zazpi gauetatik bitan zaindutako kanpinetan lo egin zen. Batean aterpetxe irekian (guardarik gabekoa; lo egiteko tokia eta mahai bat): “Konturatzerako iritsi dira Mariailles ingurura. (…) Aterpetxe itxia dago eta 200 metro ingurura aterpetxe irekia. Denak aterpetxe irekian jarriko dira; honek goiko partean lo egiteko

egurrezko ohol batzuk jarrita ditu eta beheko partean mahai handi bat eta sua egiteko ekonomika eta su baxu bat” (Kontakizuna 125. or.). Beste lautan mendiko zelaietan kanpadenda muntatuta lo egin zuten. Lo egiteko puntu guztiek ibilgailua heldu daitekeen pista edo bideren bat izan zuten; lo egiteko afaltzeko eta gosaltzeko materiala autoan eramaten baitzuten. Horrek lo egiteko puntua baldintzatzen zuen. Beraz egun bakoitzean non lo egin erabakitzerakoan, autoa heltzea kontuan izan beharreko baldintza zen. Lo egiteko tokiak Anaitasunak aurrez erabakita zeuzkan eta gero bete egin ziren.

Lo egin zen toki guztietan kanpadendak muntatzeko zelaitxo bat zegoen (lau kanpadenda sartzeko modukoa); “17:30ak aldera iritsi dira Les Illes era... Dena belardi batean dago. Aldamenean errekatxo bat pasatzen da eta tabernatxo bat ere badago” (Kontakizuna 117. or.). Lo egin zuten guneetan ura hartzeko aukera gertu zegoen.



Irudia 18: lo guneak eta perfila

II. Geldi guneak

Zeharkaldi honetan oinezko ibilian gelditzearen arrazoiak desberdinak izan ziren: bazkaltzeko, atseden hartzeko, zerbait jateko eta edateko. Etapa batean guneak bultzatu zuen taldea gelditzera: “momentu batean eta azken aldapa gogorra hasi baino lehen errekatxo bat pasatzean geldialdi bat egitea erabaki dute” (Kontakizuna 120. or.).

Bazkaltzeko egin ziren geldi guneetan, seietatik hirutan iturria izan zuten. Beste bietan iturririk ez, baina mendiko errekatxoetatik ura hartzeko aukera zegoen; eta azkenik Cortalets helmuga izan zen egunean bazkaltzeko gelditu zen guneak ez zeukan urik inguruan. Bazkaltzeko guneetan ura egotea garrantzitsua bihurtzen da: “errekatxulo batetara heltzean bazkaltzea erabaki dute” (Kontakizuna 128. or.).

Beste geldi gune guztiak ez zuten bateratu daitekeen ezaugarririk izan; batzuk gorantz eta besteak beherantz zihoazela, ermita batetan, bidegurutze batean, lepoetan. Hona hemen adibide bat: “laster iritsi dira Santuario de las Salinas izeneko baselizara. Hau ermita bat da eta bertan ostatu eta aterpetxe bat daude” (Kontakizuna 119. or.). Adieraztekoa da ere, ibilbidean zehar pasatu zituzten tontor guztietan geldialdi bat egin zutela.

III. Tontorrak

Mendi zeharkaldiak, aurrez aipatu bezala, edozein bide eta eremutatik egin daitezke eta ondorioz bakoitzaren esku dago tontorrak egitea edo tontorrik zapaldu gabe zeharkaldia egitea. Ibilaldi baten helburua izan daiteke inguruko tontor guztiak lotuz puntu batetik bestera joatea baina toki berdinean hasiera eta helmuga duen beste zeharkaldi bat ere tontorretatik pasa gabe egin daiteke. Guzti honen arabera aldatu egiten dira: nekea, arriskua, ordutegia…

Tontor bat igotzeak aldapa eta desnibel handiagoa egitea suposatzen du. Era berean, hainbat tontor egiteko pasabide arriskutsuak igaro behar dira; aurrez aipatutako eskuak erabili beharreko pasabideak. Tontorra igotzeko denbora hartu behar da: pausoa txikitu egiten da aldaparen ondorioz eta beste zati batzuekin konparatuz zati berdina egiteko denbora gehiago behar da.

Zeharkaldi honetan igo ziren tontorrak guztira bost izan ziren. Horiek ibilbidean aurrera jarraitzeko, igo beharrean zeuden eta partehartzaile guztiak igo zituzten. Denen igoera bidezidorrean edo belarretan egin zen; jaitsiera ere bai Canigoukoa ezik; hemen aurrez aipatu bezala “tximinia” bat aurkitzen da: “Tximinia zabal bat da eta eskailerak bezala ditu” (Kontakizuna 124. or.).

Horiez gain tontor bat hautazkoa izan zen: Costabona. Bertara igotzeko bidetik desbideratu behar zen eta nahi izan zutenak bakarrik igo ziren (hiru

partehartzaile eta gida bat). Aipatu behar da eguraldia ez zela oso egokia momentu horretan: “tontorra lainoek estaltzen dute eta denen komentarioa izan da goitik ez dela ezertxo ere ikusi behar” (Kontakizuna 128. or.). Bidetik desbideratuz 300 metro inguru igo behar ziren. Igoera guztian zorua belarrezkoa zen, noiz behinka harkaitz batzuk tartekatzen zirelarik.

7.1.5 Eguraldiaren eragina mendi zeharkaldietako ingurunean

Zeharkaldiak aztertzeko garaian, eguraldia kontutan hartzea beharrezkoa da. Eguraldiak naturan egiten diren jarduera guztien gain du eragina eta jakinik gu aztertzen ari garena mendian egiten dela, are eta garrantzia handiagoa hartzen du.

Espazio ezegonkor guztietan bezala, mendi zeharkaldietan eguraldia kontuan izan behar da. Eguraldia ez da jarduera gunea, praktikako eremua mendia da; baina espazio horretan eragiten duen aldagaia da. Eguraldia eguzkitsua, euritsua, beroa edo hotza izan mendi ibilbide batean eragina du. Horrela eguraldi lainotsu eta euritsu batek ingurumenean ditugun hainbat zeinuren estaltzea dakar eta horren ondorioz, prozesu egokitzailea zailagoa gertatzen da. Honen arabera ibilaldia moztu edo laburtu egiten da, ibilia azkartu egiten da, buelta hartzen da...

Eguraldia euritsua bihurtzen bada zorua busti egiten da. Bustitzean dena irristakorragoa gertatzen da. Harri leunak “txirrista” bihurtzen dira. Belarra eta hostoak ere busti egiten dira eta hauek harrien gainean ere egon daitezke, irristatzeko arriskua gehituz. Zoruan putzuak ere egiten dira eta behin eta berriz zapaldu ezkero, oinak guztiz busti daitezke. Ondorioz ingurune guztia irristakorragoa bihurtzen da. Pista, errepide eta bidezidorretan ez da arrazoia izango bertan behera ibilaldia uzteko baina eskuak erabili beharreko pasabideetan eta amiltzeko aukera dagoen belardietan buelta hartzeko aldagaia izan daiteke.

Eguraldia lainotsua denean berriz erreferentzia guztiak galtzen dira. Ikuspegia murriztu egiten da eta; aldapa gora, behera ala zelaian ari gareneko sentsazioa galdu egiten da. Ondorio nagusia galtzeko arriskua da. Arrisku handiena bidezidorrik gabeko belardietan izaten da. Lainoak berarekin batera

elurra lagun baldin badu, arrisku hau asko handiagotzen da, lurzoruko seinaleak elurrak tapatu egiten baititu.

Haizea indartsu dabilenean ingurunean ez du eragin handiegirik izaten, zuhaitzen bat bota edo elur uholde handi bat eragin badezake ere (neguan). Haizeak berarekin lainoen ugaritzea eta ondorioz azpi-laino itxia, euria... ekarri dezake.

Aztertutako zeharkaldian, partehartzaileen iritziz, zorte handia izan zen eguraldiarekin. Eguraldi ona eta bero zakarrik gabekoa egin zuen. Bi egunetan euria egin zuen, baino gutxi, eta euritakoak busti besterik ez zituzten egin. Gainera ibilbidea bustitzearen ondorioz ez zen erorketarik izan.

Lehenengo egunean eta bigarrengo goizean haize indartsua izan zuten, “tramuntana” deitzen diotena: “gaina utzi eta bazkaltzeko tokira jaitsi dira; hau pagadi bat da, eta haizearengatik babestuagoa dago” (Kontakizuna 114. or.).

Lainoa ere izan zuten azken egunean Vallter2000ra heldu baino lehen. Laino itxi-itxia, bost metrora ezertxo ere ikusten ez zen horietakoa. Ez zen inor galdu: “laino artean erreferentziarik ez dute eta beste taldekideak dagoeneko joanak dira. Roc Coloma heldu dira eta geldialditxo bat egin dute trago bat hartu eta iparorratza eta mapa finkatzeko, lainoa itxi-itxi dago eta bost metrotik aurrera ez da ezertxo ere ikusten” (Kontakizuna 128. or.).

Mendi ibilaldietan topatu ditzakegun egoerak oso desberdinak dira: eguzkia, euria, lainoa... Egoera horietako bakoitzean eta une zehatz bakoitzean jokabide motor bat aukeratzen dugu. Gauean ez da mendi ibilaldirik egiten; ez da ohikoa behintzat. Ibilaldi bat egiten bada, beste helburu bat izaten du: izarrak behatu, ilargiaz gozatu... Iluntasunak ingurumenarekiko zalantza handitzen du.

Mendi zeharkaldi bat naturan egiten den jarduera bat da eta partehartzaileak “irakurri” egin behar du natura. Mendian oinez ez dago elkarrekintzarik bidezidorrarekin edo harkaitzekin; informazioa aztertu eta deskodifikatu ondoren jokabide motor bihurtu behar da.

Mendian oinez goazela etengabe zeinu arrastoak jasotzen goaz; zeinu arrasto horiek jaso eta berehala jokabide motor bat aukeratzen dugu. Horrela bat

batean ur putzu bat topatzen badugu saiatuko gara pausua ahalik eta gehien luzatzen putzu hori ekidin ahal izateko. Era berean momentu batean lainoa sartzen bada saiatuko gara erreferentzia bat bilatzen ez galtzeko; edo mapa eta ipar orratza erabili beharko ditugu bide egokian jarraitzeko.

7.2 Zeharkaldiko denbora eta bere erabilpena

Praktika fisiko guztiak espazio batean egiten diren bezala, denbora ezaugarriak ere izaten dituzte. Batzuetan denbora araututa egongo da: ibilaldi neurtu bat (Aralarko hamalau orduak); besteetan, denbora bera izango da amaiera markatzen duena, adibidez futbol partida bat: laurogei eta hamar minutu; eta beste batzuetan puntuak izango dira praktikari amaiera emango diotenak, adibidez tenis partida bat: bi edo hiru set irabaztean, edo eskupilotan hogei eta bi tantotara heltzean. Ikusi dezagun mendi zeharkaldiek zein nolako denboraren nozioa duten.

7.2.1 Zeharkaldiak eta urtaroa

Zeharkaldiak urteko edozein sasoietan egin daitezke. Horrela neguan elurra eta izotza baldin badago ingurunera egokitzea zailagoa gertatzen da; era berean, neguan argi orduak gutxiago dira. Ez dira berdinak udako edo neguko zaparradak. Batean busti egingo gara eta bestean busti eta hoztu. Mendikate altuetan neguan elurra egoten da eta honek oinezko zeharkaldia guztiz aldatzen du.

Denborari dagokionez, espazio berdina gurutzatzen neguan denbora gehiago beharko da uda garaian baino. Udazkenean ere argi orduak gutxiago izaten dira eta mendikate batzutan ia elurra topatu daiteke. Udaberrian oraindik mendikate altuetan elurra egoten da. Beraz urte sasoiaren arabera oinezko ibilaldiak guztiz aldatzen dira, praktika egiten den ingurumena aldatzen delako.

Oinezko ibilaldiak udan egitea izango da ohikoena. Anaitasunak 2004ean hamazazpigarren urtea zuen eta beti uztailean eta abuztuan antolatu izan du eta BBKk antolatzen duen zeharkaldia ere uztailean eta abuztuan zehar izan ohi da. Arrazoiak hainbat izan badaitezke ere bi beste guztien gainetik azaltzen zaizkigu: batetik herritarrek sasoi horretan izaten dituzten oporrak eta bestetik udak eguraldi aldetik eskaini dezakeen ziurtasuna.

Anaitasunak antolatutako zeharkaldi honetan Pirinioak zeharkatzen dira, eta bertan 3.000 metrotik gorako tontor ugari daude. Gure kasuan ibilaldia uztailean burutu zen eta egun batean bide aldamenean topatu zuten elurra ibiltariak; beraz pentsatzekoa da ingurune berdina nola egongo den negu gordinean.

Kontuan izatekoa da uda garaian jendeak oporrak izatea ohikoa dela. Anaitasunak zeharkaldian partehartzaileak izan nahi baditu jendearen opor garaian egitea komeni zaio. Zeharkaldi honetan partehartzaile guztiak, bat ezik, opor aldian zeuden eta bakar hori aurre-jubilatua zegoen.

7.2.2 Zeharkaldiaren hasiera, amaiera eta iraupena

Landa lana egin dugun talde honetan, mendi zeharkaldia Iruñako mendi talde batek, Anaitasuna Mendi Taldeak, antolatzen du eta bertako arduradunek erabakitzen dute noiz hasi eta noiz amaitu. Zati bakoitza zazpi egunekoa izaten da, sei egun oinez, beraien artean atseden egun bat dagoelarik. Atseden egun horretan egiten da talde aldaketa, eta hurrengo astean jarraitu behar duenak, atseden eguna dauka, ez baita egun horretan abiatzen. Kontutan izan behar da Anaitasunak berak jartzen duen arauaren arabera, ez dagoela aste bat baino gutxiago eta hiru aste baino gehiago egiterik.

Pirinioetako zeharkaldiko lehen zatia uztailaren 11tik 18ra izan zen; “Iruñan Anaitasuna elkartearen aurrekaldean da irteera puntua. San Ferminak dira eta goizeko 9:00etan da ordua” (Kontakizuna 111. or.). Lehenengo eta azkeneko eguna autobus bidai egunak izan ziren eta bigarren astean, bigarren zatia, ibiltari batek eta bi gidak jarraitu zuten modu horretan beraiek atseden egun bat izanez. Beste egun guztiak oinezko egunak izan ziren. Pirinioetako zeharkaldi osoa abuztuaren 28an bukatu zen, zazpi asteren ondoren.

Iraupenari buruz jendeak izan zituen sentsazioak aipatzeko modukoak dira. Batetik guztiek esaten zuten zeharkaldia berehala pasatu zela; baina bestetik esaten zuten zeharkaldian aste bete baino gehiago pasa zutenaren sentsazioa zutela. Honen zergatia partehartzaileek denborarekin izan zuten harremanean aurkitzen dugu.

Mendi zeharkaldia eguna joan eta eguna etorri “continium” bat da. Mendi zeharkaldietan nor den irabazlea jakiteko ez dago araurik. Ez dago denbora mugarik, ezta punturik ere. Ez dago irabazlerik. Adibide hau dugu horren lekuko: “kanpadendak dauden tokira iritsi eta besarkadak, muxuak, eta poza; denak gustora daude amaitu dutelako” (Kontakizuna 129. or.).

Partehartzaileak ez dute amaieran bakarrik disfrutatzen, momentuak disfrutatzen dituzte. Denbora ez da lineala, ez dago kausa-efekturik, korapiloa ez doa intentsitatez igotzen amaieran askatzeko. Mendi zeharkaldietan denborak ez du amaierarik, ez du neurririk; denbora ziklikoa da. Bukaera, jardueratik kanpo agertzen den aldagairen batek eragiten du: nekeak, eguraldiak...

Denbora ziklikoak egoera, unea, bizitza, ospatzea dakar. Zeharkaldia ez dute egin helmuga batetara heltzeko eta azkenean plazerra lortzeko, baizik eta egunean egunekoa eta egunero disfrutatzeko. Ez da denbora kontatzen, eguneroko denboraren nozioa galdu egiten da. Egunerokoan aste bukaera noiz helduko egoten gara; astean zehar lana egiten da gero aste bukaera disfrutatzeko. Zeharkaldian aldi oro disfrutatzen dute, ez amaieran bakarrik.

Egunerokoan gizartean denerako datak eta egutegiak jartzen ditugu; lan arloa kausa-efektudun mundua da eta herritar gehienok horretan murgilduta bizi gara; mendi zeharkaldietan partehartzaileen sentsazioak aztertzean ikusten dugu denborarekin beste harreman bat dutela, egoera, bizitza ospatzen dela.

7.2.3 Mendizalea eta denbora

Zeharkaldiko partehartzaileak egunero denborarekin izan zuten harremana azalduko dugu hemen. Mendizaleak ibili ziren dinamikan, denboraren erabilpen eta kudeaketa bat egon zen.

I. Etapa bakoitzaren dinamika eta kudeaketa

Egunean, gutxi gora-beherako ordutegia finkatu ondoren, eguneko irteera ordua finkatu egin behar da. Zeharkaldia hasi baino lehenago finkatu daiteke eguneroko irteera ordua, baina aldatzeko aukerarekin. Aurrez planifikatzeak ez du esanahi gero beteko denik. Zeharkaldi guztiak goizean hasten dira. Goizean hasteko arrazoiak asko dira: eguzkiak indar gutxiago, freskoago, trumoi arrisku txikiagoa, haize leunagoa, eguna luzeagoa, ilundu arte denbora gehiago... Amaitzeko ordua zabalagoa izaten da: batzutan eguerdian bukatzen da eta beste batzutan iluntzearekin batera.

Anaitasunak osatutako taldeko zeharkaldian egunean eguneko ordutegia gidek finkatzen zuten. Oinezko orduak kalkulatzen zituzten eta arratsaldeko 5:00tak edo 6:00etan heltzeko noiz atera behar zen kalkulatu. Beraz eguneroko irteera ordua zehazten zen arratsaldean atseden lekuan egon nahi zen orduarekin. Hau da, goizeko ordua arratsaldeko orduaren menpe zegoen. Arratsaldeko iriste ordu hau, nahiz eta finkatu, ez zen beti betetzen eta gutxi gora beherakoa izaten zen.

Taula 4: jaikitzeko, irteerako eta amaierako ordutegia

Eguna	Etapa	Jaikitzeko ordua	Irteerako ordua	Amaierako ordua
1	Banyuls - Font Tanyarede	7:15	8:00	17:30
2	Font Tanyarede - Les Illes	7:15	8:00	17:30
3	Les Illes - Arles sur Tech8	6:15	7:00	19:00
4	Arles sur Tech - Cortalets	6:15	7:00	18:00
5	Cortalets - Mariailles	7:15	8:00	16:00
6	Mariailles - Vallter2000	6:15	7:10	16:10

Goizeko irteera ordua hiru egunetan 7:00etan izan zen, nahiz eta batean hamar minutu beranduago irten; beste egunetan 8:00etan izan zen irteera ordua. Goizeko irteera ordua finkatu ondoren, horren arabera, jaikitzeko ordua finkatzen zen. Hori irteerako ordua baino 45 minutu lehenago jartzen zen. 45 minutu horietan irteteko prestatuta egon behar ziren denak. Ordutegi hau lehenengo egunean planteatu zen. Guztiei galdetu zitzaien ea nahikoa zen irteera baino 45 minutu lehenago esnatzea. Guztiek ados gelditu ziren eta onartua izan zen. Gidak esan zuten beraiek arduratuko zirela parte-hartzaileak esnatzeaz. Goizero behatzen zuten ia jendea esnatuta zegoen eta iratzargailu gisara ere ibili ziren: “Bi gidak, Maria eta Naroak, “estas son las mañanitas”... abestuz esnatu dute jendea” (Kontakizuna 118. or.).

Helmugara iristeko orduak desberdinagoak izan ziren 16:00ak eta 19:00ak bitartean. Beraz, nahiz eta giden iriste ordu kalkuluak 17:00etatik 18:00tara izan hiru egunetan ez zen bete.

Amaierako aurre ordutegia bete ez zen egunak aztertzen baditugu, ohartuko gara nola euria egin zuen bi egunetan helmuga 16:00 eta 16:10etan izan zela hurrenez hurren; eta bestean bidean zerbait topatu zutela: “basoan zehar doazela Aitorrek bidezidor aldamenean perretxiko bat topatu du, aurrerago beste bat, beste bat... Azkenean poltsa atera eta bidezidorraren aldamenetik joan da perretxiko bila... Taldeko martxa pixka bat gelditu egin da eta aurrekoetatik atzekoetara distantzia handitu egin da” (Kontakizuna 119. or.).

Bestalde irteerako ordutegiei begiratuta ikusten da egunero 7:00etatik 8:00etara bitartean irten zirela; eta jaiki, aurrez aipatu bezala 45 minutu lehenago. Aipatzekoa da ordutegiak elkarrizketetan duen eragina. Goizeko lehen orduan, ibiltariak oraindik hitz egiteko gogo gutxirekin joaten ziren. Testigantza hau dugu horren adierazle: “goizeko lehen ordua da eta aldapa gora; jendeak ez du hitzegiten” (Kontakizuna 119. or.).

II. Zeharkaldiko eguneroko oinezko denbora

Mendi zeharkaldia sasi-joko bat da, ez dago araurik; ohitura bihurtu diren jokabideak daude. Denbora edo amaiera iluntzeak edo nekeak markatzen du. Mendi zeharkaldietan ez dago amaiera zehazten duen araurik. Egun bakoitza noiz hasi eta noiz amaitu talde bakoitzak zehazten du. Hauek aldagai askoren menpe daude: oinez zenbat ordu, arriskuzko pasabideak, eskuak erabiltzea beharrezkoa denean, nekea, aldapa asko, eguraldia, euria hasi eta gelditu, azpiegitura egokia, hotela, aterpetxea, kanpadenda...; ura dagoen tokia... Zeharkaldiari amaiera taldearen artean hartutako adostasun batek ematen dio.

Egun bakoitzean egin behar diren oinezko orduak ere ez ditu arautegi batek zehazten. Anaitasunak, behin zeharkaldian apuntatu ondoren, banatzen zuen triptiko txiki batean egun bakoitzeko irteera eta helmuga puntua eta bakoitzari zegokion oinezko orduak azaltzen ziren. Guzti hau laguntzeko zela eta aldatu zitekeela azpimarratzen zuten.

Taula 5: Anaitasunak kalkulatutako oinezko orduak

Eguna	Etapa	Oinezko orduak
1	Banyuls - Font Tanyarede	7:00
2	Font Tanyarede - Les Illes	6:00
3	Les Illes - Arles sur Tech	7:30
4	Arles sur Tech - Cortalets	8:00
5	Cortalets - Mariailles	5:30
6	Mariailles - Vallter2000	7:00
	Guztira	**41:00**
	Batezbeste	**6:50**

Iturria: ("Sociedad Cultural Deportivo Recreativa Anaitasuna,")

Zeharkaldian egin ziren oinezko orduak aztertuko ditugu orain. Atseden eguna berriz, aste batetik beste astera bitartean kokatzen da eta bakarrik bi aste egin behar zituztenak probestu zuten.

Taula 6: zeharkaldiko oinezko orduak eta abiadura

Eguna	Etapa	Oinez ibili den denbora, geldialdiak barne	Oinez ibili den denbora, geldialdiak kenduta.	Atsedenak, geldialdiak	Abiadura (km/orduko)
1	Banyuls - Font Tanyarede	9:20	7:05	2:15	2,48
2	Font Tanyarede - Les Illes	9:30	7:20	2:10	3
3	Les Illes - Arles sur Tech	12:00	9:05	2:55	2,42
4	Arles sur Tech - Cortalets	11:00	9:30	1:30	2,04
5	Cortalets - Mariailles	8:00	5:45	2:15	1,73
6	Mariailles - Vallter2000	9:00	8:00	1:00	2,87
	Guztira	**59:00**	**46:55**	**12:05**	
	Eguneko batezbestekoa	**9:50**	**7:50**	**2:00**	**2,43**

Denbora guztia kontutan izanda, 59:00 ordu ibili ziren mendian geldialdiak barne. Geldialdiak kenduta 46:55 ordu. Geldialdietan guztira 12:05 ordu eman zituzten.

Anaitasunak banatutako triptikoarekin konparatzen badugu, guztira 7:00 ordu gehiago atera ziren zeharkaldian. Anaitasunak 41:00 ordu aurreikusten zituen eta ia 47:00 izan ziren gero.

Geldialdiak kontuan izan gabe batezbeste egunero oinez ibili zen denbora 7:50 ordu izan zen. Hau Anaitasunak aurreikusten zuenarekin konparatzean badugu ikusten dugu, aurre ikusita baino ordu bete gehiago egin zela egunero zeharkaldian.

Oinez denbora gehien pasa zen eguna geldialdiak kontutan izan gabe laugarrena izan zen, 9:30 ordu. Oinez denbora gutxien ibili ziren eguna bosgarrena izan zen, 5:45 ordu. Aurreikusitakoekin konparatuz gehieneko egunean 1:30 ordu gehiago ibili ziren eta gutxienekoan 15 minutu gehiago.

Geldialdiak kontutan izanik eguneko batezbestekoa, 9:50 ordu izan zen. Denbora gehien pasa zuten eguna hirugarrena, 12:00 ordu. Denbora gutxien ibili ziren eguna bosgarrena, 8:00 ordu.

Ikusten dugunez oinez gehien ibili ziren egunak ez dira berdinak geldialdiak kontutan hartuta. Hirugarren eta laugarren egunak azaltzen zaizkigu denbora gehien ibili zirenekoak, baina laugarrengoan geldialdietan denbora gutxiago eman zuten.

Egunero geldialdietan batezbeste pasatutako denbora 2:00 ordu izan ziren. Geldialdietan gehien pasatu zuten eguna hirugarrena izan zen 2:55 ordu. Eta geldialdietan denbora gutxien pasa zuten eguna berriz seigarrena ordu bete emanez. Geldialdien denbora aztertzean hau garbiago ikusiko da.

Zeharkaldi osoko batezbesteko abiadura geldialdiak kontutan izan gabe 2,43 kilometro orduko izan zen. Azkarren ibili ziren eguna bigarrena izan zen 3km/h abiadurarekin. Geldien ibili ziren eguna berriz laugarrena izan zen 1,73km/h eginez.

Etapa bakoitzaren luzera, kilometroak, eta pasatutako denbora, geldialdiak kenduta, gurutzatzen baditugu ikusten dugu etaparik luzeena ez zela izan denbora gehien pasa zutena. Denbora gehien laugarren etapan pasatu zuten eta honek etaparik luzeenak baino bi kilometro gutxiago zeuzkan eta zeharkaldiko batezbestekoa aztertuta ikusten dugu bi kilometro hauek ia ordu bete direla. Laugarren etapa horrek igoerako desnibel handiena zeukan 1.700 metro. Hau izan daiteke arrazoi bat. Bestea egun horretako ibilbidea %100ean bidezidorrean izan zela.

Abiadurarik handiena atera zuten egunak, 3km/h eta 2,8km/h; ibilbidean bidezidor portzentaia txikiena: %22,7 eta %47,8 izan zutenak izan ziren. Hain zuzen bigarrena eta seigarrena, eta bigarrenak igotzeko desnibelik txikiena zeukan: 500 metro. Beste aldera joanez, abiadura motelenekoak ibilbide guztia %100 bidezidorretan egin zituztenak, laugarrena eta bosgarrena.

III. Eguneroko geldialdiak

Egunean zehar ibiliz gain egiten diren beste ekintzen -bazkaldu, gosaldu, afaldu eta geldialdiak- ordutegiak aurrez aipatutako orduen arabera mugitzen dira. Hasteko eta amaitzeko denbora bat dagoen bezala, geldialdiak egiteko ere denbora bat dago. Jateko, edateko edo atsedena hartzeko gelditu egiten da. Atseden denbora hauek ez daude aurrez jarriak; eguraldi, jendearen nekeak, goseak eta abarrek baldintzatzen dituzte.

Guretzako geldialdi bat zer den zehaztuko dugu: menditik oinez joanik momenturen batetan gelditzea eta gutxienez bost minutu bertan egotea. Taldea doanean gutxienez denak bost minutu egon beharko dira. Gelditzeko arrazoia jatea, edatea edo atseden hartzea izan behar du. Zenbat geldialdi egin eta zenbatekoak, partehartzaileek erabakitzen dute. Kontutan izan behar da, zeharkaldi hauetan, bere iraupenagatik jatea eta edatea beharrezkoak bihurtzen direla.

Anaitasunak antolatutako zeharkaldi honetan, geldialdien kudeaketa, taldeko bi gidek egiten zuten. Beraiek eguneroko dinamika aztertuz esaten zuten non gelditu eta zenbat denbora egon geldirik. Pasarte hau dugu horren adibide: “Silvia (gida), ikusirik jendea pixka bat sufritzen ari dela, gelditu egin da denak

elkartu arte. Inor ez da kexatu, zerbait jan, edan eta aurrera". (Kontakizuna 122. or.).

Taula 7: geldialdi kopurua eta iraupena (bazkaria barne)

Eguna	Etapa	Kopurua (bazkaria barne)	Iraupena (bazkaria barne)
1	Banyuls - Font Tanyarede	4	135 minutu
2	Font Tanyarede - Les Illes	4	130 minutu
3	Les Illes - Arles sur Tech	5	175 minutu
4	Arles sur Tech - Cortalets	5	90 minutu
5	Cortalets - Mariailles	2	135 minutu
6	Mariailles - Vallter2000	5	60 minutu
	Guztira	**25**	**725 minutu**
	Batezbestekoa	**4**	**121 minutu**

Zeharkaldiko geldialdiak aztertuta, ikusi dezakegu guztira sei egunetan, 25 geldialdi egin zirela, ondorioz eguneko batezbestekoa 4 geldialdikoa da. Geldialdi gehien hiru, lau eta seigarren egunean izan ziren 5 geldialdirekin eta gutxien egin ziren eguna bosgarrena, bi geldialdiekin.

Datu hauek espazioarekin gurutzatzen baditugu ikusiko dugu nola geldialdi gehieneko hirugarren, laugarren eta seigarren eguna -bost geldialdi-, zeharkaldiko hiru luzeenetakoak izan zirela -23, 22 eta 21 km-. Bestalde geldialdi gutxien egin ziren eguna, bosgarrena -bi geldialdi- eta zeharkaldiko motzena gertatu zen, 10 km.

Geldialdietan emandako denbora aztertzen badugu, eguneko batezbestekoa 2 ordu direla ohartzen gara. Denbora gehien, hirugarrengoan pasatu zuten, 2:55 ordu. Gutxien pasatu zuten eguna azkenekoa izan zen, ordu bete.

Azken datu hauek esanguratsuak dira. Geldialdietan denbora gehien pasa zuten egunean erreka batetan bainatzeko aukera izan zuten: "momentu batean

eta azken aldapa gogorra hasi baino lehen, errekatxo bat pasatzean geldialdi bat egitea erabaki dute” (Kontakizuna 120. or.).



Irudia 19: geldialdien guneak

Geldialdien iraupena desberdina izan zen, adibidez, bazkaltzeko edo tontor batera iristean. Geldialdi luzeenak bazkaltzeko egin ziren eta hauek 30 minututik, ordu bat eta 30 minutu artean mugitu ziren. Beste geldialdietan, luzeena, Canigouko tontorrean egin zen, 45 minutu inguru. Gainontzekoak bidean zehar eginikoak izan ziren, bost minututik 20 minutu ingurura artekoak. Horietan zerbait jan, fruta, gaileta,… edan, eta berriro abiatu ziren.

Jendeak atseden hartzeko ere egin zuen geldialdiren bat, gehienbat malda gogorren bat igo ondoren. ”Orain gogortu egin da aldapa eta Begoñak lehen sufrimenduak jasaten ari da. Silviak esan du goiko lepora iristean atseden bat hartuko dutela eta nahiz eta jendea atzean gelditu, esan du jarraitu egingo dutela leporaino. Lepora heltzean atseden bat hartu dute” (Kontakizuna 127. or.).

7.2.4 Eguraldiaren eragina denboran

Aurrez aipatu bezala eguraldiak edozein ekintzen gain du eragina eta denboran duena ez da salbuespena. Naturan egiten diren jardueretan eta gure kasuan, mendi zeharkaldian, esanguratsua den aldagaia bihurtzen da.

Eguraldiak mendi zeharkaldi bat bertan bera gelditzea eragin dezake. Amaiera eta eguneko ordutegiak bere arabera egiten dira. Uda garaian bero handia egiten baldin badu, eguerdiko orduak ekidin nahi izaten dira eta goizekoak probestu. Bero handi horrek berarekin batera trumoia badakar eta euria hasi, eragina izango du geldialdietan eta amaierako ordutegian.

Anaitasunaren mendi zeharkaldia udan egin zen eta beraz eguraldia aurreikusten zen nahiko egonkorra izango zela. Ondorioz eta ohikoa denez: elurrik ez, euri gutxiago, eguzki ordu gehiago, tenperatura altuagoak...

Euria egiten baldin badu ohikoa izaten da toki batean, estalpea baldin badauka, bertan babesean egotea: borda bat, harkaitz handi bat... Edo beste aukera izan daiteke atsedenik hartu gabe eta gelditu gabe ahalik eta azkarren amaierara iristea.

Lainoak kontrako bi efektu ditu. Batetik bidean denbora gehiago pasatzea, zailagoa egiten delako bide egokia topatzea, eta bestetik berarekin tenperatura jaistea eta hotza dakartza, eta ondorioz dena arinago egitea eta ibilbidea azkarrago burutzea.

Haizeak indar handia duenean, oso deserosoa gertatzen da eta dena arinago egiteko joera izaten da, ez baitu uzten atseden erosorik hartzen. Gainera, sarritan haizea hotza izaten da eta honek ere laguntzen du burutu beharrekoak azkar egiten.

Zeharkaldi honetan haizea indartsu ibili zen egunetan, ezin dezakegu esan ordutegia aldatu zuenik, ez baitaukagu hori esateko datu esanguratsurik. Geldialdiren baten gain izan zuen eragina: “tontorrera iritsi eta han argazki pare bat atera eta beherantz abiatu dira, haizeak ez baitu uzten tontorrean denbora luzez egoten” (Kontakizuna 116. or.).

Zeharkaldian zehar euria bi egunetan egin zuen: bosgarren eta seigarren egunetan. Esanguratsua da bi egun hauetan aurrez pentsatu izan zen baino lehenago amaitzea. Seigarren egunekoa ia amaitzear zeudela izan zen baina bosgarrengokoa bazkaltzeko egin zuten geldialdian izan zen:

> “Mariak eta Silviak (gidek) esan dute bertan bazkalduko dutela eta ez dagoela presarik, irteera ordurik ez dute jarri... Eguraldia ona bazen ere pixkanaka geroz eta laino gehiago ikusten dira eta jendeak antzeman dio trumoia eta euria etortzeko arriskua dagoela. Tanta batzuk erortzen hasi direnean, gidek ere mugitzeko keinua egin dute eta esan dute beherantz abiatuko direla” (Kontakizuna 125. or.).

Lainoa azken egunean izan zuten. Egun honetan ere lehenago amaitu zuten. Hemen aurrez aztertutako bi efektuak antzeman ziren: hotzaren eta inguruneak eragindako ziurgabetasunaren ondorioz geldialdietan denbora gutxiago eta, era berean, bide egokitik joateko noizean behin gelditu beharra: “Silviak tontorrean badaezpada iparorratza eta maparekin posizioak finkatu ditu. Biak eskuan daramatza... Momentu batean bidezidor bat bilatu nahian ere ibili dira, baina aurkitu gabe norabide onean jarraitu dute” (Kontakizuna 128. or.).

7.3 Zeharkaldiko partehartzaileen arteko harremanak

Jarduera fiskoetan partehartzaileen artean erlazio mota desberdinak ematen dira. Kooperazioan edo oposizioan, biak batera edo harreman motorrik gabe aritu daitezke. Bestalde, partehartzaile bakoitzak jarduera horretan jokatzen duen rola ere garrantzitsua izango da, jardulearen eskubide eta betebeharrak zedarrituko baititu.

Zeharkaldian partehartzaile bakoitzak rol bat hartzen du; eta beraz partehartzaile guztien papera zein izan zen ezagutzea beharrezkoa jotzen dugu praktikan gertaturikoa egoki aztertzeko. Jardule bakoitzak betetzen duen rola azalduko dugu berari dagozkion eskubide eta betebeharrak arakatuz eta agerian utziz erlazioa horretako egitura.

Behin jarduera fisiko horretan zein nolako harreman motak dauden ikusita, erlazio horien testuingurua ezagutzea ere aberasgarria gertatuko zaigu, mendi ibilaldiaren esanahia bien arteko uztarketan topatuko baitugu.

7.3.1 Partehartzaileen rolak

Zeharkaldi honetan bi rol nagusi bereiztu ziren: rol profesionalak eta bezero ibiltariak.

I. Rol profesionalak

Anaitasunak antolatutako zeharkaldi bat zenez, beraiek jarri zituzten parte hartzeko baldintzak eta parte hartze horrek zein eskubide ematen zituen. Eskubide horien artean gida zerbitzua zegoen. Anaitasunak jarri zituen zeharkaldirako gidak. Publizitate bezala erabiltzen duen triptikoan gidei buruz agertzen den esaldi bakarrean honako hau dio: “esperientziadun mendi-gidarien zerbitzua” ("Sociedad Cultural Deportivo Recreativa Anaitasuna,")

Zeharkaldian gida bezala lau pertsona egon ziren. Giden barnean bi azpi rol antzeman ziren. Batetik, “goitik” zihoazenak, gidak; bi pertsona, ibiltariekin gidaritza lana eginez; eta bestetik, “behetik” zihoazenak, sukaldariak; bi pertsona, etapa autoz egiten zutenak eta modu horretan azpiegitura guztia eramaten zutenak. Gidak, euren artean ezagutzen ziren eta zeharkaldi hau antolatzeko

bileraren bat edo beste eginda zeuden. Beraiek lana egitera etorri ziren eta lan horren trukean dirua jasotzen zuten. Lau gidetatik hiruk bi zati, bi aste egin behar zituzten eta besteak zati bat. Bi zati baino gehiago egiteari buruz hau zioten: “azkenean nekatu egiten zara”. Aipatzeko da gida batek esaten zuena bere lankideei buruz hitz egitean: “garai batetik oraina asko aldatu da, ni ia zaharrena naiz eta gazteak ez ditut ezagutzen”.

a. Giden ezaugarriak

Maria, donostiarra. 51 urte. Lehen Hezkuntzako irakaslea da, baina bere benetako zaletasuna mendia da eta horren barne, mendiko eskia. Bera, azaroan hasten da mendietan eskiatzen eta ekainean bukatzen du. Behin baino gehiagotan uda garaian Hego Ameriketara joan da mendiko eskia egitera. Munduko mendikate desberdinetan egona da: Alpeak, Kaukaso, Andeak, Himalaia, Mendi Harritsuak... Aste bat bakarrik egin behar zuen.

Silvia, 31 urte ditu eta Bartzelonan jaio eta Blanesen bizi da. Hezkuntza Fisikoan eta Kirolean lizentziatua da eta irakasle moduan ibiltzen da ahal duenean. Kataluniako Mendi Federazioko mendiko eskiko taldea prestatzen ere lana egiten du, eta lurreko mendi tontorrik garaienetan izana da, Himalaian zortzimilako hiru gailur eginak baititu. Azkenekoa, Everest pasa den udaberrian. Bi aste egin behar zituen.

b. Sukaldarien ezaugarriak

Naroa, Hernanikoa, 34 urte. Bere nahia, gida bezala etortzea zen baino sukalderako jenderik ez zegoenez, onartu egin zuen sukaldari eta azpiegitura jartzaile bezala aritzea. Zeharkaldiko egun batean gida bezala aritu zen. Hau ere, Mendikate basatienetan ibilia da, Pamirren esate baterako.

Begoña, Uztarrozkoa, 29 urte. Gazteena. Sukaldari bezala etorri zen eta bi aste egin behar zituen.

Taula 8: rol profesionalen ezaugarriak

Gidak	Adina: urteak	Generoa: Emakumezkoa: E Gizonezkoa: G	Jatorria: Hiria: H Herria: h	Lanbidea: 1., 2. edo 3. sektorea
Maria	51	E	H	3
Silvia	31	E	h	3
Naroa	34	E	h	3
Begoña	29	E	H	3
Batezbestekoa	**36,25**	**%100 E**	**%50H eta %50h**	**%100 3. sektorea**

Gida guztiak emakumezkoak ziren. Adinez, batek ezik, 29 urte, denak 30 urte paseak zituzten eta batezbestekoa 36 urtekoa zen. Beraien bizilekuari dagokionez, bi herrietan bizi ziren eta beste biak hirietan. Bestalde lanbideei begiratzen badiogu ikusten dugu laurak hirugarren sektorean lana egiten zutela.

c. Giden eskubide eta betebeharrak

Gidak irteera puntutik helmugara mendian ibiltariekin batera ibiltzen ziren. Aurretik zihoan gidak erritmoa markatu eta bide egokia jarraitu behar zuen, Kezkaren bat azaltzen bazitzaion atzeko gidari kontsultatzen zion. Ingurune desberdinetara eta taldera egokitu behar zuen erritmoa.

Atzeko gidak taldeko azkenekoarekin edo bere atzetik joan behar zen. Taldeko azkenekoa ez zuen “galdu” behar. Atzean arazoren bat agertzen bazen, aurrekoari komunikatu behar zion erabaki egokia hartzeko.

Eguneroko ordutegia eta beharrak planifikatzen zituzten eta mendizaleei gomendioak eman eraman beharreko arropei buruz, zailtasunei buruz... “Laster etorri dira gidak ere hurrengo eguneko egitaraua azaltzera. Bilera hauetan zenbat orduko martxa duten eta zer arropa eta zein tokitatik pasa behar diren kontatzen diete” (Kontakizuna 115. or.).

Egunaren helmuga zen gunera heldutakoan sukaldariei laguntzen zieten. Azken finean giden zeregina taldea zaintzea da: “Mariak eta Silviak esan dute hasieran jaitsiera pikoa dela eta harriak elkarri botatzeko arriskua dagoela. Era

berean beldurra duenak esateko eta aurrealdean jartzeko... Maria bera abiatu da aurretik eta beste guztiak poliki-poliki atzetik" (Kontakizuna 124. or.).

Ibiltzeko erritmoa ere beraien esku zegoen, eta geldialdien kudeaketa ere bai, noiz gelditu eta zenbat denbora egon: "Aitor,..., harrituta dago daramaten erritmoarekin: oso geldi beretzako. Eduardok ere berdina komentatu du" (Kontakizuna 113. or.).

Ustekaberen bat sortu ezkero harremanetan jartzen ziren "behetik" zihoazen sukaldariekin, walkie-talkien bidez. Taldearen formazioan ere beraien posizioa esanguratsua gertatzen zen: bat aurretik eta lehen posizioetan eta bestea atzetik. Taldea Costabona igotzeko zatitu zenean gidak ere banatu egin ziren. Egun batean eta taldea asfaltozko errepidean zihoala biak taldeari aurre hartuta ibili ziren.

Informazioa kudeatzeko eskubidea ere bazuten: zenbat denbora falta zen, zein gogortasunekoa... beraiek zekiten bakarrik; eta beraiek nahi zutena esaten zuten. Ibiltariei buruz eta orokorrean taldeari buruzko iritziak ere beraiek komentatzeko aukera zuten. Otorduak ibiltarietatik aldenduta egiteko aukera zuten: "denak borobil bat osatuz gelditu dira eta gidak eta sukaldekoak gelditu dira aldenduta" (Kontakizuna 123. or.). Zeharkaldia aldatzeko eskubidea ere bazuten. Motzagoa egin edo beste ibilbide batetik pasa beraien esku zegoen.

Gidak mendiarekin zuten erlazioa ere aipatzeko modukoa da. Silvia mendizale ospetsua da Katalunian. Berak hiru zortzimilako igo ditu, horien artean Everest. Berak dio bere mugen bila joaten dela mendira. Mendia "una forma de crecimiento personal" (Kontakizuna 116. or.) bezala ikusten du. Bere burua ezagutu. Berak dioenez garrantzizkoena, mendira norekin joaten den da. Hori da lehen baldintza beretzako. Mendia baino garrantzia handiagoa ematen dio esperientzia hori bere gustukoekin bizitzeari. Silviak dio edozeinekin ez doala Everestera. Momentu kritikoak ere pasa ditu mendian. Horrela udaberri honetan hiru korear hiltzen ikusi zituen Everesteko hegoaldeko lepoan. Berak ez omen du inpotentzia handiagorik inoiz pasa; besteak hiltzen eta berak ezin ezertxo ere egin. Beste behin glaziar batetako zulo batetara erori zen eta uste omen zuen bertan hilko zela; azkenean atera egin zuten.

Maria ere, munduko mendikate altuenetan ibilita dago. Zortzimilakoetara ere joan izan da baina mendiko jardueren artean bere zaletasunik handiena, mendiko eskia da. Berak esaten du azaroan hasten dela mendian eskiatzen eta ekainaren amaierara arte aritzen dela. Uda garaian ere eskiak hartu eta Hego Ameriketara behin baino gehiagotan joan da mendiko eskia egitera, kontuan izanda han negua dela. Egin duen zerbait aipatzearren, Alpeak eskiekin zeharkatu zituela hiru hilabetetan esan daiteke. Berak 51 urte ditu eta bizitza osoa darama modu horretan. Bera irakaslea da, eta galdetzen zaionean horrelako gauzak nola egin ditzaken lanean arituta, soldatarik gabeko baimenak eskatzen dituela eta nahiz eta aurpegi ona ez jarri, ematen dizkiotela esaten du. Hiru alditan elur jauzi batek harrapatu du eta zorionez beti ongi atera da. Mendian lagunak ere hil zaizkio eta momentu txarrak pasatzen direla dio, baina azkenik zera dio "azkenean bueltatu behar zara mamuei aurre egin behar zaie". (Kontakizuna 122. or.).

d. Sukaldarien eskubide eta betebeharrak

Biak "behetik" joaten ziren Land Roverean, lo egiteko toki batetik bestera. Otordu guztiak prestatu, kanpadendak muntatu, kendu eta ibiltariek egunean zehar behar ez zuten ekipaia eramateaz arduratzen ziren. Egunero behar zen janaria ere beraiek erosten zuten. Ibiltariren batek zerbait falta bazuen beraiek arduratzen ziren erosteaz. Lo egiteko tokira iritsitakoan kanpadendak muntatu eta afaria prestatzen zuten. Hauen zeregina taldeari azpiegitura ematea zen. Gidekin batera jendea esnatzeko ardura zuten.

Etapa batetan hauetako batek rola aldatu zuen goitik zihoan gida batekin; hura sukaldari izatera pasatu zen eta sukaldaria gida izatera: "era berean bihar aldaketa bat egingo dute: Silvia sukaldean geldituko da eta Naroa goitik joango da gida moduan" (Kontakizuna 118. or.). Bietako batentzako zeharkaldian parte hartzen zuen lehen urtea zen.

Otorduak beste gidekin batera bezero ibiltarietaz aparte egiten zituzten; Denbora soberan izan zutenean siestaren bat ere egin zuten eta eguzkia hartzen ere egon ziren egun batean lan guztia amaituta zutela.

II. Bezero ibiltariak

Hamar pertsona ziren. Mendi zeharkaldian eskubide eta betebehar berdinak zituzten ibiltariak rol honetan aztertu ditugu.

a. Bezero mendizaleen ezaugarriak

Mikel, Atarrabiakoa. Erlijio irakaslea eta historian lizentziatua. Bere kasa gehien ibili zena. Emakumeekin batera egin zuen lo kanpadendan. Egurrezko makila bat eraman zuen bide guztian. 34 urte ditu eta gurasoekin bizi da. Etapa pare batetan ez zuen ongi pasa alergia eta izterrak egosiak izateagatik. Orain bi urte beste etapa batean etorri zen.

Javier, Iruñakoa. Banesto banketxean lana egindakoa eta 52 urterekin aurre-jubilatua. Orain urte bete, jubilatu ondoren historian lizentziatu zen. Zeharkaldi hau baino lehenago Santiago bidea egin zuen udaberrian. Iaz zeharkaldiko beste etapa batetan ere parte hartu zuen. Txiste kontalari bikaina. Bere emazteak kontatzen omen dizkio. Ezkondua eta hiru seme alaba ditu, bat beste aita batena.

Patxi, Iruñakoa. Honek ere 34 urte ditu eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan lana egiten du. Pasa den udazkenean andregaiarekin moztu zuen eta berak esaten zuenez sekta batean sartu edo zeharkaldira etorri dudan egon zen. Euskara ikasten aritua da eta berriro ekiteko indarrak behar ditu. Historia ikasten ere ari da. Batzuk bidaian zehar Jesukristo deitu zioten, ile eta bizar luzeagatik.

“Katxi”, Eslavakoa (Nafarroa) 44 urte. Herriko ardo upategian lana egiten du. Mendizale amorratua da; berak zioenez aste bukaera gehienetan joaten da mendira. Txiste kontalari bikaina. Hitz egiteko eran grazia bikaina duena.

Arantxa, Bilbokoa. 49 urte ditu eta Haur Hezkuntzako irakaslea da Bilboko Santutxun. Bere lankide den Begoñarekin etorri zen zeharkaldi honetara. Bizitzako filosofiaz eta gizakion arazoetaz hitz egitea asko gustatzen zaio. Taldean ibilian zihoazenean ez zitzaion gustatzen atzean joatea.

Ainhoa, Bilbokoa. 42 urte ditu eta BBKn lana egiten du eta nahiz eta BBKk ere Pirinioetako zeharkaldia antolatu, “gehiegizkoa” iruditzen zitzaion beraiekin joatea. Ez ustean pasatzen zen horietakoa. Irribarre bikaina du. Mendian asko

ibiltzen dena; baita mendiko eskia egiten ere. Orain 11 urte zeharkaldiko etapa batean parte hartu zuen.

Begoña, Bilbokoa. 47 urte eta Arantxaren lankidea. Bilboko Deustun bizi da. Zeharkaldia hasi aurretik kezka gehien azaleratzen zituena: erritmoa eta gogortasunari buruz...

Aitor, Arrasatekoa. 40 urte. Arrasateko udaletxean lana egiten du galdaragile bezala. Espeleologia gustatzen zaio eta kobazulo eta leize askotan ibilia. Erretzailea; egunean zigarro pakete bat.

Eduardo, Guadalajarakoa. 40 urte. Bere lagun batek esan omen zion giro ona egoten zela eta bera ere animatu egin zen. Valentzian lana egiten du funtzionario bezala ogasunean. Bi aste jarraian egin behar zituen. “Kosto” pusketa bat ekarri zuen eta Arantxa eta Patxirekin batera erretzen zuen.

Joseba, Iruñakoa. 42 urte. Donostiarra da baina Iruñan bizi da. Arkitektoa da. Zeharkaldi hau hasi aurretik belauntzi batean ibili zen aste bete nabigatzen. Aisialdiko itsasontziko patroi titulua dauka.

Taula 9: bezero mendizaleen ezaugarriak

Ibiltariak	Adina: urteak	Generoa: Emakumezkoa: E Gizonezkoa: G	Jatorria: Hiria: H Herria: h	Lanbidea: 1., 2. edo 3. sektorea
Mikel	34	G	h	3
Javier	52	G	H	3
Patxi	34	G	H	3
“Katxi”	44	G	h	1
Arantxa	49	E	H	3
Ainhoa	42	E	H	3
Begoña	47	E	H	3
Aitor	40	G	h	3
Eduardo	40	G	H	3
Joseba	42	G	H	3
Batezbestekoa	**42,4**	**%70 G eta %30 E**	**%70 H eta %30 h**	**%90 3. sektorean eta %10 1. sektorean**

Mendizaleen adina begiratuz ikusten dugu 34tik 52 urte bitartekoak zirela. Bi ziren 34 urtekoak eta beste guztiak 40tik gorakoak. Bizilekuei dagokionez, zazpi hirietan bizi ziren eta beste hirurak herrietan.

Ibiltarien artean hiru ziren emakumezkoak eta zazpi gizonezkoak. Beraz %70 gizonezkoak eta %30 emakumezkoak. Hiru emakumezkoak Bilbokoak ziren.

Ikasketak ere nahiko adierazkorrak dira, hamar ibiltarietatik zortzik unibertsitate mailako ikasketak baitzituzten. Lan egoera aztertuz, bat aurre jubilatuta zegoen; besteak lanean ari ziren. Guztiak hirugarren sektorean, lana egiten zuten, batek ezik. Bat hau lehen sektorean aritzen zen.

Partehartzaile guztietatik, aurrez ezagunak eta lagun bezala joandakoak, bi izan ziren. Biak Bilbokoak. Aurreko urteko zeharkaldian ezagutu zirenak ere joan ziren, baina zeharkaldi honetara etortzeko harremanik izan ez zutenak; hau da, kasualitatez tokatu ziren elkarrekin. Laburtuz, bi lagun batera etorri ziren eta beste hiru ezagutzen ziren baino ez zuten urte guztian zehar elkarren berririk izan. Lehenengo egunean Iruñan autobusaren zain zeudela garbi ikusi zen denak ezezagunak zirela bi lagun ezik, “batera etorri diren bi emakume isilean hitz egiten ari dira” (Kontakizuna 111. or.). Bi lagunak hizketan egon ziren elkarrekin eta beste guztiak bakarrik.

b. Bezero mendizaleen eskubide eta betebeharrak

Anaitasunak publizitate egiteko triptikoan baldintza hauek jartzen ditu ibiltari bezala parte hartzeko ("Sociedad Cultural Deportivo Recreativa Anaitasuna,"):

- Sasoi onean egotea ezinbestekoa da. Zeharkaldian zehar desnibel handiak baitira.
- Partehartzaile bakoitzaren ekipaiak, gehienez 12 kilo izango ditu. Koordinatzaileak kontrolatuko du irteteko unean.
- 16 urtetik gorakoa izatea.
- Partaide bakoitzak, gutxienez zati baterako eta gehienez hiru zatitarako, eman beharko du izena.
- Datu guztiak bidaltzen ez badira, izen ematea ez da gauzatuko.
- Derrigorrezkoa da etapa bakoitzaren amaieran banatzen den inkesta betetzea, instituzioei aurkeztu behar zaie eta.
- Izen ematearen diru kopurua kontu korronte hauetan sartu behar da...

Ibiltariak oinez ibili behar ziren. Gidak jarritako martxa erritmoa jarraitzeko gai izan behar ziren. Azkarrago ere ezin ziren ibili. Ibilbidetik ere ezin ziren

aldendu; gidak erabakitzen zutena errespetatu beharrean zeuden. Ezarritako ordutegia -jaikitzeko ordua, geldialdien iraupena...- bete behar zuten. Bazkaria lau lagunentzako janari poltsatan banatzen zen eta beraien betebeharra zen lau lagunen artean banatzea. Oro har, Anaitasunak banatzen zuen triptikoan azaltzen zen bezala: “zeharkaldian izena eman eta partehartzeak, aipatu baldintzak eta antolakuntzak hartutako erabakien onarpena dakar” ("Sociedad Cultural Deportivo Recreativa Anaitasuna,").

Anaitasunak prezioaren barnean ibiltariei ematen zien eskubideak eta publizitatean agertzen zirenak hauek ziren ("Sociedad Cultural Deportivo Recreativa Anaitasuna,"):

- Zeharkaldia hasi eta amaitzen den gunetik Anaitasuna elkartera joan-etorria autobusez, eskaintzen diren ordutegiaren arabera.
- Eguneko otordu nagusiak: gosaria bazkaria eta afaria.
- Esperientziadun mendi gidarien zerbitzua. Antolaketa lanetan ari direnak telekomunikabide zerbitzua izango dute.
- Lur orotako ibilgailu zerbitzua antolaketako jendea eta materiala garraiatzeko.
- Botika-kutxa zerbitzua.
- Dokumentazio kartografiakoa ibilaldientzat.
- 6 lagunentzako sabai bikoitza eta zorua duen kanpadenda. (berez lau lagun sartuko dira).

Bestalde nahi zuten kanpadendatan lo egin zezaketen; kanpadendatik kanpo lo egiteko aukera eta eskubidea zuten. Bestalde gidei beraien kezkak galdetzeko: “Begoñak bere kezka azaldu du, ia aldapa oso gogorrak izango diren galdetuz” (Kontakizuna 121. or.). Proposamenak egiteko ere bai: “erabakita dago gaur afaltzeko perretxiko tortilla jango dutela eta Mariak ez die abisatu sukaldariei arrautzak erosteko, beraz herritik pasatzean arrautzak erosiko dituztela esan du” (Kontakizuna 121. or.).

Kanpadenda jarri eta kentzeko ardura gidek eduki zuten, baina egunero, goizetan, lagundu zitzaien kentzen. Hau lan boluntarioa izan zen eta beti ere gidek lehen egunean zehaztu zuten bezala, denbora baldin bazegoen. “Gaur ere sukaldekoei kanpadendak eta sukaldea kentzen lagundu diete” (Kontakizuna 119. or.). Muntatu, beti, behetik ibili ziren bi sukaldariak egin zituzten.

7.3.2 Ibiltarien arteko komunikazio motorra

Mendi zeharkaldia bakardadean egin daitekeen jarduera bat da; ez dago partehartzaile gehiagoren beharrik. Bakoitzaren menpe dago bakardadean edo taldean egin. Taldean egiten denean partehartzaile batek egiten duenak beste partehartzaile batek egiten duenarengan eragina du. Mendian inguruneak duen zalantza gainditzeko, taldekideak beraien artean kooperatu egiten dute. Kooperazio hori komunikazio motorraren bidez agertzen da. Partehartzaileak beraien artean elkarrekintzan ibiltzen dira ingurunean aurkitzen diren zeinuak deskodifikatzeko. P. Parlebasek (Parlebas, 2001, 81) zera dio: “komunikazio motorra, oinarrian, ez dela informazio transmisio bat, baizik eta elkarrekintza bat, informazioaren jabe den elkar banakoen arteko ekoizpen motorra”.

Zeharkaldian partehartzaile bakoitzaren portaera motorra ez da ulergarria taldetik kanpo. Taldeak erraztu egiten du deskodifikazioa eta segurtasuna ematen du. Deskodifikazio hau geroz eta zailagoa gertatzen den heinean komunikazio motorra areagotu egiten da.

Hau zeharkaldiko zenbait puntutan argi ikusten da; aurretik zihoan gidak, talde guztiarentzako egokia zen erritmoa jartzen zuen. Gida ez zen ibiltzen bere erritmora baizik eta taldeko erritmora eta bere jokabide motorra taldeari lotuta zegoen: “Silvia, ikusirik jendea pixka bat sufritzen ari dela, gelditu egin da denak elkartu arte” (Kontakizuna 122. or.). Ibiltariak ere erritmo berberean ibiltzen ziren: inor ez zen hasi erritmo handiagoan ibiltzen taldetik ihesi nahian. Bestalde atzetik ibiltzen zen gidak atzekoei laguntzea zuen helburu. Bat atzera gelditu ezkero gidaren erritmoa atzean gelditzen zen horretara egokitzen zen: “aldapa gogor bat hasi denean, berriro Begoña atzeratu egin da eta berarekin Maria gelditu da” (Kontakizuna 122. or.). Ibilbideko zatirik arriskutsuenean ere garbi gelditzen da, kooperazioa dagoela komunikazio motorraren bitartez: “...Hasieran jaitsiera pikoa dela eta harriak elkarri botatzeko arriskua dagoela... Maria bera abiatu da aurretik eta beste guztiak poliki-poliki atzetik” (Kontakizuna 124. or.).

Zeharkaldiko ibilbide guztian gidak taldea lotu zuten: “gida bat aurrean doa erritmoa jartzen eta beste bat atzean taldea lotuz” (Kontakizuna 113. or.). “Soka” bat eramango balute bezala ibili ziren. Ez dago sokarik, baina sokaren funtzioa

kasu honetan ikusmenak betetzen du. Ikusmena da taldeari segurtasuna ematen diona. Ikusmenak egiten du partehartzaileen arteko lotura lana. Taldean goazela aurrekoa ez badugu ikusten, zalantza handiagotzen da, zeinuen irakurketa bakoitzak kudeatu beharko du; ez dugu inor ikusten aurrean, ez dakigu aurrekoak non jarri duen oina, irristatu den, bide egokia zein den... Errepide edo pista batean aurrekoa urrutiago joateak ez du deskodetzea gehiegi zailduko. Aldiz, partehartzaile bat "tximinia" bat pasatzera badoa eta aurrekoak nola pasatu duen ez badu ikusi, zailagoa egiten zaio pasabide hori, berak bakarrik erabaki beharko duelako jasotzen duen informazioa nola erabili eta informazio hori berarena bakarrik izaten delako. Oin bat non jarri, eskuak non kokatu... Guztia bere gain izaten du.

Irudia 20: mendizale taldea komunikazio motorraren bidez lotuta
Egilea: José Vallejo

Ingurunearen deskodetzea geroz eta zailagoa den heinean partehartzaileen arteko distantziak txikiagoak izan ziren. Taldeak sokaren printzipioa bete zuen eta ibilbidea zailagoa gertatzen zenean "soka" motzagoan lotzen zen. Arriskua txikiagoa den heinean distantzia handitu egiten da eta "soka" luzatu. E. T. Hall (Hall, 1973, 189) distantzia sozialei buruz mintzatzen denean esaten du "arrisku baten aurrean kontrol handiago bat behar denean distantzia soziala txikitu egiten

da”. Adibide bezala hiri batetako kale bat pasatzera doan ume askoko familia bat jartzen du; umeak eskutik helduta joaten dira. Hiriko plazan edo autorik gabeko gunetan umeak ez dira eskutik helduak egoten, ikusmenaren bidez “lotuko” dira.

Beraz, zeharkaldietan kooperazioa beharrezkoa da arrakasta izateko eta hau oinarrizko eta zuzena den elkarrekintza motoreak ematen du; honek ez du hitzezko komunikazioaren beharrik; distantziaren bidez erregulatzen da eta honen muga ikusmenak jartzen du.

7.3.3 Kanpadenda taldeak

Kanpadenda bakoitza lau lagunentzako izan zen, nahiz eta batzuk, gidek eta ibiltari batek, kanpoan lo egin. Parte-hartzaileen ustez lau lagunentzako kanpadendak ziren eta ez sei lagunentzako triptikoak zioen bezala.

Aztertzen ari garen zeharkaldi honetan egunero, egun batean ezik, kanpadendatan lo egin zuten. Lehenengo eguneko arratsaldean oraindik ere oinezko zeharkaldia hasi gabe zegoenean banatu ziren: “... Kanpadendak jarri dituzte: guztira lau. Ondoren kanpadenda banaketa egin da, bakoitza nahi duenean sartuz eta guztiak hiru kanpadendatan banatuz; beste kanpadenda antolakuntzako lau lagunentzako gorde da” (Kontakizuna 112. or.).

Gidak esan zuten bakoitzak nahi zuen kanpadendan sartzeko. Hiru emakumezkoak batean sartu ziren eta beraiekin batera gizonezko bat jarri zen. Beste bi kanpadendatan gizonezkoak banatu ziren: “banaketa horretan hiru emakumeak batera sartu dira, beraiekin gizonezko bat jarri delarik; beste bi kanpadendatan hiruna gizonezko jarri dira” (Kontakizuna 112. or.). Banaketa hau zeharkaldi osoan mantendu zen eta garrantzia izan zuen eguneko jan poltsak ere talde hauen arabera banatu baitziren. Gida denak kanpadenda batean sartu ziren.

Egunero bazkaltzeko lau laguneko talde bakoitzari janari poltsa bat banatu zitzaien. Poltsa hauek kanpadendetan eginiko talde berdinetan banatu ziren. Gero talde bakoitza arduratu zen hori eramaten, eta pisua banatuz hori partitzen, batzutan erraza izanik: lau pieza fruta; eta besteetan zaila: gazta pusketa bat. Bazkari hauek informalak izan ziren; hau da mendian zehar toki desberdinetan egin ziren eta beti janari poltsa taldeak batera jarri ziren. Esan daiteke janari

poltsak eragina izan zutela gero bazkaltzeko garaian jendea nola jarri erabakitzeko garaian. Taldeak ez ziren nahastu janaria jateko: “lau laguneko talde bakoitzak goizean sukaldariei hartutako jan poltsa banatu du” (Kontakizuna 114. or.).

Bazkaltzean, inoiz ez zen jarri taldea borobilean denak batera; beti denak nahiko elkartuta baino janari taldeka banatuta. Bi gidak ere beraien janari poltsa eramaten zuten eta beti elkarrekin jartzen ziren.

Beste otorduak, gosaria eta afaria, desberdinak izan ziren. Gosaria bakoitzak bere erritmora egiten zuen. Batek beharbada jaiki eta berehala, eta beste batek handik 10 minutura. Afaria berriz denak batera egiten zuten: beti borobilean edo mahai berdinean jarri ziren guztiak, lehenengo gauean ezik; hemen mahai finkoak zeuden elkarrengandik aldenduta. Gidak aldiz afari guztietan aparte jartzen ziren azken bi gauetan ezik: “gaur denak mahai batean afalduko dute...” (Kontakizuna 126. or.). Eta “perretxikoen” gauean izan ezik. Lau egunetan lurrean afaldu eta gosaldu zen, bestalde hiru egunetan mahaiak eta bankuak edo aulkiak izan zituzten. Lurrean afaltzen zenean, batzuk beraien isolaatzaileak ateratzen zituzten gainean esertzeko.

Oinezko ibilian ez zen pertsonen azpimultzorik nabarmendu. Oinez ez ziren janari poltsa taldeak nabarmentzen: “taldeko kideek ez dute gune edo posizio bat ibiltzeko garaian. Adibidez Patxi ez doa beti bigarren edo hirugarren; posizio hauek aldakorrak dira” (Kontakizuna 124. or.). Ibiltariren bat egon zen atzean joatea ez zitzaiola gustatzen adierazi zuena eta besteren bat bere atzean jendea zain izatea ez zuela gustuko esan zuena. Gidek ziotenez, azkenekoaren erritmoa eramaten saiatzen ziren beti, eta taldea bilduta izaten.

7.3.4 Zeharkaldiko hizkuntza eta elkarrizketak

Zeharkaldiko partehartzaileen artean erabili zituzten hizkuntza eta elkarrizketen ezaugarriak aipatuko ditugu.

I. Zeharkaldiko hizkuntzak

Anaitasunak publizitate egiteko ateratzen duen triptikoan hizkuntzari buruz ez du ezertxo ere adierazten. Triptikoa euskaraz eta gazteleraz ateratzen da. Bi hizkuntza hauek Euskal Autonomi Erkidego eta Nafarroako Foru Erkidegoan hitz egiten dira. Behin onartua izan eta gero, zein ekipaia eraman gomendatuz bidaltzen duten eskutitzean, gaztelera azaltzen da bakarrik. Zeharkaldia amaitu ondoren pasatzen duten inkestan berriz ere euskara eta gaztelera azaltzen dira.

Zeharkaldian erabili ziren hizkuntzak gaztelera, euskara eta katalana izan ziren. Euskara bost ibiltari eta bi gidek zekiten. Euskara zekitenek beraien artean, eta beste inor elkarrizketan ez bazen, euskara erabiltzen zuten hitz egiteko. Tartean euskara ez zekien norbait sartu ezkero, berehala aldatzen zuten gaztelerara: "... Ikasten ari da eta batzutan beraien artean euskaraz aritzen dira, baina errespetuagatik gehienetan gazteleraz" (Kontakizuna 120. or.). Katalana, gida batek eta egun batez lagundu zuen bere familiako batek hitz egin zuten. Partehartzaile guztiak elkarrizketan egoten zirenean, adibidez hurrengo eguneko plana komentatzen, gaztelera erabiltzen zuten.

II. Partehartzaileen arteko elkarrizketak

Mendizaleek mantendutako elkarrizketak desberdinak izan ziren gertatu ziren ingurunearen arabera. Espazioak partehartzaileen hizketaldietan izandako eragina aipatuko dugu.

Bidezidorra izan zenean ibiltariak gutxiago hitz egin zuten; bidezidorretan taldeko ibiltari guztiak ilaran ibili baitziren, gehienez ere aurrekoarekin edo atzekoarekin hizketan aritzen ziren. Bakoitza bere "munduan" gehiago joaten zen eta elkarrizketak mugatuak izaten ziren, bi edo hiru pertsonen artean: "bidezidor baten barrena doa ibilbidea, gaztainondo bikainez beteriko basoa. Denak ilaran jarrita, bakoitzak bere aurrekoarekin edo atzekoarekin hitz egiten du" (Kontakizuna 120. or.).

Pista edo errepidean ibiltzean mendizale taldea bi edo hiru taldetxoetan banatuta joaten zen. Taldetxo bakoitzak elkarrizketa bat izaten zuen edo talde guztia elkarrizketa bera eramanez joaten zen: "lurrezko pistan doazela, momentu batzutan jendea kantatzen ere joan da" (Kontakizuna 117. or.).

Taldea belardi zabaletatik pasatzen zenean, taldea zabal-zabal eginda joaten zen eta denak elkarrizketa berbera eraman zuten edo bi edo hirutan banatuta, eta bidezidorretan baino elkarrizketa gehiago entzuten ziren. Horrela azaltzen da hemen: “Gune Horretatik aurrera taldea gainez gain joan da. Belardi zabalak eta pagadiak tartekatzen dira. Taldekideak hitz egiten eta zabalera handia hartuz doaz” (Kontakizuna 115. or.), eta: “taldea berehala atera da sapalda moduan dauden belardi batzuetara... Taldea orain zabal zabalik doa eta jendea hizketan; elkarrizketaren batean ere taldekide guztiak parte hartu dute” (Kontakizuna 127. or.).

Eskuak erabili beharreko pasabidea igaro zutenean, Canigouko “tximinia”, mendizaleek ez zuten asko hitz egin. Hitz egin zenean elkarren artean gomendioak edo laguntza emateko izan zen. Tximinia pasa ondoren atera zen elkarrizketa era esanguratsua izan zen: “tximinia arriskutsu hau jaistean eztabaida: gizonezkoak ez dutela inoiz esaten beldurra dutenik, baino batzutan “kaka” eginda egoten direla” (Kontakizuna 124. or.).

Elkarrizketetan aipatzekoa da egon ziren adar jotzeak eta txantxak. Adibidez partehartzaile batek goizean esandakoa*:* ”parece que va hacer calor, las lagartijas ya se están dando la crema”, hau emakumeak eguzkitarako krema ematen ari zirenean esan zuen. Egunero partehartzaileak txisteak kontatzen zituzten; gidekin ere egon zen txantxa bat baino gehiago: “momentu batean bi gidak aurreratu egin dira eta atzean ibiltarien artean bromatxo bat gastatzeko intentzioa piztu da: norbait ezkutatu eta gero gidei esan norbait falta dela. Azkenean ez dute gauzatu ideia hau, baino horren kontura farre batzuk bota dituzte” (Kontakizuna 117. or.). Gidek beraiek ere txisteak kontatzen zituzten baina ibiltariei ez zieten adarrik jotzen, ezta txantxarik egin ere. “Hizkuntza eraginkor informala edo eszenaz kanpokoa eta beste hizkuntza eraginkor bat, aktuazio batetarako ematen dena” (Goffman, 1987, 63) agerian geratu zen, zeharkaldian azkenerako denak hizkuntza informala egiten baitzuten. Lehenengo egunetik azkeneko egunera hizkuntzaren bilakaera formaltasunetik informaltasunera izan zen.

Aipatzekoa da bi ibiltarik Costabonako tontorrera heltzean bota zuten oihua: “Aitor eta “Katxi”k oihu handi bat bota dute tontorretik eta gero etorri dira ohikoak diren argazkiak. “Katxi”k esan du tontorrera heltzean beti gustatzen zaiola oihu bat botatzea” (Kontakizuna 128. or.).

7.3.5 Eguraldia eta bere eragina harremanetan

Denboran eta espazioan eguraldiak duen eragina aztertu ondoren orain taldeko harremanetan eguraldiak duen eragina aztertuko dugu. Berdina ote da eguzki epeletan edo euri eta hotzarekin ibiltzea?

Euriak busti egiten du. Bustitzeak berarekin batera hoztea ekartzen du. Ondorioz giharrak ere gogortu egiten dira eta hitz egitea ere nekezagoa egiten da. Euri hori trumoi eta tximistekin batera bada mendizaleek isiltzeko, elkartzeko eta beraien artean distantzia txikiagoa izateko joera daukate, beldurra edo errespetuaren ondorioz.

Euria egin zuenean elkarrizketak mugatu egin ziren, adibidez Mariaillesera era heldu baino lehen. Euritan partehartzaileak gutxiago hitz egin zuten; hau honen adierazle: “Bidezidor batetan altuera galtzen doaz. Ez dago elkarrizketarik, euri jasa areagotu egin da…” (Kontakizuna 125. or.).

Haizeak, indartsua denean bi efektu nagusi ditu: batetik hitz egiteko nekea eta bestetik entzuteko zailtasuna. Bi efektu horien ondorioz hitz egitea zailagoa da eta harremanak nekezagoak egiten dira.

Haizearekin antzeko zerbait pasatu zen. Haize gogorraren ondorioz partehartzaileak gutxiago hitz egin zuten: “gora doazen heinean haizea geroz eta indartsuagoa da. Elkarrizketa batzuk ere entzuten dira jarraian doazen kideen artean. Bi lagun baino gehiagoko elkarrizketarik ez da entzuten” (Kontakizuna 114. or.).

Lainoak ere bi modutara eragiten du. Batetik, lainoak espazioarekin lotutako zalantza handiagoa sortzen du eta ziurgabetasun horrek jendea isiltzera bultzatzen du. Bestetik, zalantza hori izateak jendeak beraien artean hitz egitea

eta komunikatzea ekartzen du bide egokia bilatzeko edo hartu beharreko norabidea eztabaidatzeko.

Lainoa azken egunean izan zuten eta beraien arteko kooperazioa garbi azaldu zen bide egokia bilatzeko garaian: “momentu batean bidezidor bat bilatu nahian ere ibili dira...” (Kontakizuna 128. or.). Hau aipagarria egiten da, “zailtasun” batek taldea kooperatzera bultzatzen du.

7.4 Mendi zeharkaldian materiala eta objetuak

Mendi zeharkaldian erabili den materiala izango dugu aztergai. Erabili ziren objektuak eta praktikari ematen dioten zentzua arakatzea izango da gure asmoa atal honetan. Horretarako zeharkaldia antolatzen zuen elkarteak materialari buruz ematen zituen gomendioak eta gero ibilaldian izan zuten presentzia azalduko dugu.

7.4.1 Antolatzaileen baldintzak eta gomendioak

Zeharkaldia antolatzen duen Anaitasuna elkarteak eraman beharreko materialari buruz baldintza eta gomendio batzuk egiten ditu. Parte-hartzaileak baldintzak bete egin beharko ditu eta gomendioak kontutan izango ditu.

Zeharkaldiari buruzko publizitatea egiteko banatutako triptikoan materialari buruzko aipamena hau da: “partehartzaile bakoitzaren ekipaiak, gehienez 12 kg. izango ditu” ("Sociedad Cultural Deportivo Recreativa Anaitasuna,"). Behin onartua izan zarenean, baieztapenarekin batera informazio orri bat bidaltzen dute eta bertan beharrezkoa eta nahikoa den materialaren zerrenda bat bidaltzen dute.

7.4.2 Zeharkaldiko materiala

Zeharkaldiko antolakuntzak eta gidak ematen zuten material bakarra ibilaldiko mapa bat zen. Eta bertan egun bakoitzeko perfila, altuera eta kilometroak agertzen ziren. Hori gidek ibilaldiko lehenengo egunean banatu zuten eta partehartzaileak orientatzeko balio izan zuen.



Irudia 21: antolatzaileek emandako zeharkaldiko mapa

Aipatu behar da zeharkaldi honetan antolatzaileek ibilgailu bat jartzen zutela partehartzaileek egunean zehar erabili behar ez zuten materiala garraiatzeko. Mendizaleek egunean zehar tamaina txikiko, 30 litro inguruko, motxila batekin nahikoa zuten.

Parte-hartzaile guztiek trekking moduko botak erabili zituzten. Zati txiki batetan asfaltozko errepidea zela eta kirol oinetakoak ere erabili zituzten. Motxila bat ere denek eramaten zuten eta bertan egunerako behar zituzten gauzak sartzen zituzten: kantinplora, janaria, txapela, bisera, buffa, eguzkitako betaurrekoak, eguzkitarako krema, euritakoa, eta txaketa polar bat. Bastoi teleskopikoak batek ezik guztiek eraman zituzten nahiz eta beti ez erabili. Bastoia eraman ez zuen mendizaleak egurrezko makila bat eraman zuen.

Honez gain, mendizale bakoitzak beste objektu batzuk ere erabili zituen eta material hori autoan garraiatu zuten “behetik” ibili ziren bi sukaldariek: “gero

egunerako beharrezkoak diren gauzak motxilan sartu eta behar ez direnak beste poltsa eta motxiletan utzi dituzte sukaldekoak Land Roverean eraman ditzaten" (Kontakizuna 113. or.). Material honen barne sartzen ziren: lo zakua, isolatzailea, aldatzeko arropa, bakoitzaren platera, edalontzi eta mahai-tresnak, xaboia, hortzetako eskuila eta pasta...

Eguneroko janaria eta edaria ere motxilan eramaten zituzten. Egun batzutan aurrez jakiten zen ura non izango zen baino beste batzuetan ez. Ondorioz, kantinplora goizean guztiz betetzen zen ura berriz topatu arte nahikoa izateko.

Beste objektu batzuk mendizale bakoitzaren arabera erabili ziren. Bakoitzak erabakitzen zuen zeharkaldira eraman eta erabili edo ez. Horietakoak ditugu argazki kamerak, hiru ibiltarik eraman zituztelarik. Altuera markatzen zuten ordulari bereziak bi ibiltarik eta gida batek erabili zituzten: "... altuera markatzen duten ordulariak dituzte eta noizean behin besteei adierazten diete gune bakoitzaren altuera ibilia animatzeko eta lagundu nahian" (Kontakizuna 120. or.). Funtzio askoko labanak ere mendizale batzuk eraman zituzten. Eta adierazi ditugunez gain ibiltari bakoitzaren objektu pertsonalak zeuden: tabakoa, papera, koadernoa eta boligrafoa...

Aipatu behar da, partehartzaile batek egunero ardo botila bat eramaten zuela motxilan, gero bazkari garaian edateko: "... Ardo botila erosi du goizean eta orain bazkaltzean edaten ari da" (Kontakizuna 114. or.). Ardoa lehenengo egunean bi edo hiruk edaten zuten baino azken egunerako ardo botilak esku batetik bestera ibiltzen ziren, guztiek edaten baitzuten, baita gida batek ere. Ibilaldiko lehenengo egunean partehartzaile batek ordaindu bazuen ere, amaieran zeharkaldi osoan edandako ardo botila guztiak denen artean ordaindu ziren.

Laburbilduz, esan genezake materiala hiru mailatan sailkatu dezakegula: egunekoa, gauekoa eta apartekoak. Egunekoan egunean zehar behar zituzten objektuak sartzen dira. Gauekoan, behin helmugara iristean behar izaten zen materiala. Apartekotan berriz, zeharkaldian ezinbestekoak ez zirenak baina partehartzaileak eraman zituztenak.

7.5 Mendi zeharkaldiaren sintesia

Pirinioetako zeharkaldi honetan behatu dugunez mendiak, natura bere birjintasun osoan aurkitzen den eremuak dira. Ama lurrak egindako eskultura horiek, burdin imanak izango balira bezala, mendizaleak erakartzen dituzte bertan jasango dituzten bizipen eta sentsazioen bila. Egoera horietan, mendizaleak, ahal duen informazio gehiena bildu beharko du ingurunetik. Oinez doan bitartean, bidean eta bere ibilian eragina izan dezaketen aldagaien informazioa jasotzen saiatuko da. Ingurunea ez da mendizalearekin elkarrekintzan arituko, ez du intentziorik informazioa ezkutatu edo erakusteko, alde edo kontra egiteko, zeinuak, bertan aurkitzen dira, distira, hezetasun edo begirada xume batekin beha daitezkeen modura. Mendizaleak informazio hori jaso eta interpretatu egin beharko du ondoren jokabide egokiena egiteko. Naturatik jasotzen duen informazioa geroz eta handiagoa den heinean, igo egingo dira ibilbidea arrakastaz burutzeko aukerak. Mendian ibiltzen ikastea zeinu horien irakurketan datza, guztiz kontrola ezina den jarduera batean etengabe erabakiak hartzen ikasiz.

Mendizalearentzako ez dago lepo edo tontor batetik behatu daiteken paisaia baino koadro hobeagorik, goietatik zerumugaz gozatzea da mendian dabilenak jasotzen duen saria. Ikuskizuna egunsenti edo iluntze paregabea ere izan daiteke eta mendizaleari gogora arazten dio mendikate eta lautadak osatzen duten erraldoien munduan, bere txikitasuna. Baino batzutan, gozamena ustekabean etortzen da sarrio talde bat harkaitz artean grabitateari desafioka saltoka ikustean. Une horretan taldea gelditu egingo da partaide guztiak bilduz eta momentu hori guztien artean partekatuz.

Pasarte horiek adierazten dute mendizaleak denborarekin daukan erlazioa. Ibiltariak bizi duen denboraren ardatza sailkapen edo txapelketa ezak jiratzen du. Mendi zeharkaldian ez dago ez ranking eta ez irabazlerik, emaitzen memoriarik ere ez da gordetzen. Zeharkaldiaren amaieran ez dira sariak eta zigorrak banatzen eta partaide guztiek erakusten dute aldibereko zorion eta atsekabea zeharkaldia bukatu delako. Une horietan, mendizaleek, beraien bizi egoera goratu eta berpizten duten momentuak gogoratzen dituzte. Ibiltariak denbora zikliko

batean murgilduta dabiltza. Zeharkaldia ez da egiten zerbait lortzeko, baizik eta guk bizitzeko.

Ibiltariak oinez doazen bitartean, funtsezkoa den komunikazio motor bat mantentzen dute. Zuzenekoa den elkarrekintza hori gabe taldea sakabanatu eta hautsi egingo da eta zeharkaldia porrotera bideratuko da. Partaideen arteko komunikazio motor hau kooperaziozkoa da eta ikusmenaren bidez egituratzen da. Partaideak soka batez lotuta joango balira bezala ibiltzen dira eta soka horren osagaia ikusmena da. Ikusmenezko korda hausten bada, kooperazioa eten egingo da porrotaren arriskua handituz. Kooperazioa mantentzeko beharrezkoa izango da oinezko lagunak ikustea.

Oinez ibiltzeko ezinbestekoa dugun materialik egon ez arren, oinetakoek edo berokiek ibilia erraztu eta babestu egiten dute. Mendiko botak dira mendizale bat identifikatzen duten objektuak eta okerdura eta istripuetatik babestuko gaituzte. Botekin batera motxilak zeharkaldietako sinbolo bihurtu dira eta mendizaleek erabiltzen dituzten gainerako materiala garraiatzeko erabiltzen dira, besteak beste: euritakoa, betaurrekoak, kantinplora, berokia…. Material guzti hauen ondorioz zeharkaldia seguruagoa eta erosoagoa izango da. Bestalde, ukaezina da mendi zeharkaldietako materialak teknologia berriekin duen lotura. Petrolioa fintzean lortzen diren ehunez eginiko arropatatik hasi eta ordulari edo kamera digitaletaraino, garapen teknologikoaren adibideak erruz aurkitzen ditugu.

Mendi zeharkaldia beraz abenturaren irudi bihurtzen da. Natura basati batean pertsona ezezagunak talde bihurtzen dituen praktika. Eguneroko lanaren linealtasuna alde batean utziz, oporrak probestuz eta norberaren aukera eskumenean oinarrituz ongizatea beste partaideekin partekatuz mendizaleek bizi duten abentura.

III. ATALA: AEROBICAREN ETNOMOTRIZITATEA

8. kapitulua **Emakume artean koreografiak dantzatzen**

Hitzaurrea

Dantzak ez dira izan niretzat jarduerarik gustukoenak. Txiki-txikitatik baztertu egin ditut eta heltzen joan naizen heinean geroz eta arrotzagoak egin zaizkit. Hala eta guztiz, ezin ukatu dantzak probatu ez ditudanik: sarritan koadrilakoak herri batetako festatara joan eta tabernatik tabernarako ibilbidean atseden bat hartu eta enparantzara joaten ginen bertan egiten ziren erromeri edo berbenetan dantzatzera. Goizeko ordu txikietan bakoitzak ahal genuena egiten genuen arin-arin edo baltse haietan. Erritmoa jarraitu gabe pausoak alderantziz burutuz edo neska ederren baten oinetan estropuz eginez ibiltzen ginen, lotsa alde batera utzita.

Urteak betetzen joan nintzen heinean, parrandak eta herriko jaiak protagonismoa galtzen joan ziren eta hauekin batera dantzak ere bai. Egiten nituen irtenaldiek lagunarteko afarian zuten muga eta dantzekin nuen harreman urria ezerezean geratu zen. Baino hara non, uste ez nuelarik, dantza bizitzen eta sentitzen hasi nintzen. Ezagupenaren irrikak bultzaturik, doktorego tesiaren

oinarrietako bat musika erritmoari lotutako praktika bati buruz egitea erabaki nuen. Eta behin erabakia hartuta aukeraketa lana geratzen zen. Zein praktika egingo dut? Euskal dantzak? Aretoko dantzak?... Hautaketan buru-hauste bat baino gehiago izan banituen ere, azken urteotan Mendebaldean arrakasta itzela izan duen dantza jarduera bat aukeratu genuen: aerobica; urte gutxitan ezezaguna izatetik kiroldegi guztien eskaintzaren parte izatera pasa den koreografia dantzatua.

Aerobicak duen ezaugarri nagusiena zera da: musikaren erritmora egin behar direla koreografiaren pausoak. Ikasle nintzenean probatzea ere tokatu zitzaidan eta esperientzi hartaz ez nuen oroitzapen oso atsegina: musikaren erritmoa ez eramateaz gain, pauso guztiak alderantziz egiten nituen eta ez nintzen gai izan koreografia jarraitzeko: “Axiertxo, hori duk koordinazioa hori” eta antzekoak entzun nituen. Hausnarketa horiek hasiberriek izaten duten urduritasuna eta kezka sorrarazten zizkidaten eta ondorioz behaketa partehartzailea hasteko eguna atzeratzera.

Alferkeria handi batek harrapatzen ninduen. Nagitasuna ez zen oinarritzen ikerketa egiteko nahian; baizik eta dantzak orokorrean, eta aerobicak konkretuan, sortzen zizkidan buruhauste, egonezin, kezka eta lotsan. Bai, lotsa, bai. Jakinik ikerketa behaketa partehartzailearen bidez aurrera eramatea erabaki genuela, zeinek du gogoa aerobiceko talde batetara ridikulua egitera joateko? Ardura hauek areagotu egiten ziren gure uste eta inguruko lagunen kontuen arabera: aerobica praktikatzen zuten gehienak emakumeak zirela uste izatean.

Arazoez gain, behaketa partehartzaileak abantaila handiak ditu ni bezalako ikertzaile batentzako: partehartzaileekin harreman zuzena, ikertzen dena norberak sentitzea, hotza, beroa, sufrimendua, gozamena, laguntza, maitasuna, gorrotoa… Praktikaren barnera sartzean jarduera beste edozein parte-hartzailek bezala sentitzen da, ikuspuntu berri bat emanez.

Horrela aurkitzen nintzen 2005eko neguan. Norbaiten bultzada behar genuen eta hau gure ikerketaren zuzendariarengandik etorri zen. “Axier, Estadion aerobiceko talde bat baino gehiago omen daude eta ordutegi desberdinetan praktika egiteko aukera omen dago. Nik uste dut talde batean sartzeko aukera

izango duzula, baino kontsulta ezazu Estadioko web orrialdean”. Hau aerobicean murgiltzeko bulkada izan zen eta berak esan zidan bezala web orrialdea kontsultatu nuen.

Eskaintzen ziren jarduera desberdin pilak harritu ninduen. Dantzen alorrean sartu genitzakeenen artean hauek aurkitu genituen: aerobic, bailes de salon, capoeira, hip hop, tango argentino eta rock’n roll. Guk geureari eutsi eta aerobicean jarri genituen begiak eta burua. Aerobiceko lau talde zeuden, denak ordutegi desberdinetan. Goizeko talde bat begiz jo genuen; 9:30etan zen eta asteko bi egunetan: astearte eta ostegunetan.

Taldea hautatuta zegoen, praktikatzen hastea falta zen. Estadion geneukan lagun baten bidez, talde horretan izena eman genuen. Ez zegoen leku arazorik eta nire sarrera erosoagoa gertatzeko irakasleari nire berri eman zioten. Zezen plazaren erdian, ezkutalekutik zezena atera zain nengoen, ezin nuen ihes egin; mamuei aurre egin behar nien.

Aukeratutako eguna, otsailaren 15a, asteartea zen. Bezperan, hurrengo egunerako arropak prestatzean, hasi ziren lehenengo kezkak: zein galtza eramango ditut? Txandala? Errealeko txandala, besterik ez daukagu; galtza motzak? Zein kamiseta? Kros lasterketetan irabazitako kamiseta? Jertseren bat beharko al dut? Nola onartuko naute? Nolakoa ote da taldea? Gizonezkorik ba ote dago? Ikertzera noala azaldu behar al diet? Galdera guzti hauek ez ziren izan jarduera fisikoen munduan hasi berria nintzelako, nik banekien txandala eta kamiseta batekin nahikoa nuela. Kezka hauek pertsonen arteko topaketan eta eguneroko bizitzan norberak egiten duen aurkezpenean oinarritzen ziren: nire aurpegirik onena eman, beraietako bat bezala onartu nazaten.

Naiz eta azaleko kezkak diruditen, egunero darabilzkigun ardura eta arazoak dira. Azken finean, aerobic taldea sozietate osoaren isla den elkarte txiki bat besterik ez da eta ni bertako partaide bat izateko sozializazio prozesu bat jasatera nioan. Euskal atsotitz pare batek dioten bezala: “ezina ekinez egina” edo eta “saiatzen denak iristen du”. Bizkarrean aurre iritzien motxila hartuta eta burua mamuez beteta, aerobicaren abenturan murgiltzera nindoan.

“Lado, manbo para atras, adelante, caja izquierda, ir para atras, ir para la derecha, giro con femorales, viña, viña, viña, viña, viña”. Zortzi aldiz! Beste bi aldiz! Bat gehiago! Azkenekoa!

Lehen eguna

Estadio Fundazioa, Gasteizen dagoen kirol zentro pribaturik ospetsuenetakoa da; Vital Kutxa da jabea. Mendizorrotzako inguruko beste instalazioekin batera, kirola eta jarduera fisikoak egiteko azalera handiko eremu bat osatzen dute. Instalakuntzen sarreran, Estadio izena azaltzen den arku baten azpian, banan-banan sartzeko makinatxo batzuk aurkitzen dira. Makinatxo hauetan, txartel bat sartu behar da, aurrera pasatzeko. Sarrera honetan kristal handi baten atzean, atezainaren bulegoa aurkitzen da,. Atezainak kezka guztiak uxatzen ditu: “Los vestuarios, al fondo a la derecha”.

Aurrerantz abiatuta taberna eta jatetxeak osatzen duten eraikinera bideratzen diren eskailera batzuk topatzen dira. Eskuinetara kanpoko igerilekua ageri da. Jatetxearen albotik pasa ondoren beste eskailera batzuk daude eta parean aldageletarako sarrera. Eraikinaren barrenean pasillo batetan edarien makina bat dago eta honen amaieran bi ate: ezkerretara emakumeen aldagela eta eskuinetara gizonezkoena.

Gizonezkoen aldagelan hiru ilara eserleku aurkitzen dira arropak zintzilikatzeko kako eta guzti. Horrez gain arropa giltzapean uzteko takilak, komunak eta dutxak daude. Aldagela honetan jende mota desberdina aurkitzen da: batzuk gazteak, besteak adinduak. Norbait ba ote doa aerobiceko saiora? Belarria bideratuz eta entzumena zorroztuz, elkarrizketa desberdinak entzuten dira baina aerobicari buruz, ezertxo ere ez. “¿Vas a ir hoy al Arena? Si ganan hoy...” Bi adindu, jubilatuak dirudite, saskibaloiko partidari buruz ari dira hitz egiten. Horiek ziur ez doazela aerobiceko saiora.

Aldageletako barneko ate bat gurutzatzean korridore luze bat aurkitzen da. Emakumeen aldagelak ere pasillo horretara du irteera, bide hau jarduera desberdinak egitera doazen edo egin dituzten gizon emakumeak partekatzen dutelarik. Bertan ez dago seinalerik areto banaketari buruz: zer, non eskaintzen den. “Hola, buenos días, ¿Ya sabes donde se suelen dar las clases de aerobic?

Creo que arriba; las clases de aerobic arriba". Emakume honek ere ez du aerobic egiten, bestela jakin behar zuen non eskaintzen ziren saioak!

Pasillo honen amaieran eskailera batzuk igo eta leiho txiki bat duen ate bat gurutzatu eta gero, areto handi bat aurkitzen da. Sala honek jarduera desberdinak egiteko balio du: bizikleta estatikoa, paraleloak, soinketa… Hau gurutzatu eta beste ate batetatik barrena pasatuta hirugarren korridore bat dago. Bertan ezkerretara egitean egurrezko eskailera piko batzuk aurkitzen dira eta hauen amaieran ate bat leihatila txiki batekin. "Guztiak aurpegi arraroarekin begiratzen didatela iruditzen zait, instalazioen areto labirintoaren barnean galduta, bati eta besteari aerobiceko aretoa non dagoen galdezka, badut gogoa iristeko".

¡Dum, dum, dum, dum, dum, dum, dum, dum, dum…!

Ez dago dudarik hau da nirea. Gelaz kanpo entzuten den zarata salatari ona da: areto honetan aerobic egiten ari dira. Oin puntetan jarri eta burua lotsati ateak duen leihatilara hurbilduz, segundo pare batetan areto guztian gertatzen dena bildu eta: "ostras! Martxan daude, eta denak emakumeak dirudite".

"Bat, bi eta hiru, aurrera!" Atearen eskulekua bultzatu eta barruan egonik sala guztiaren ezaugarriak behatu daitezke. Sartu eta ezkerretara, paretaren laurden bat hartuz ispilu bat dago eta hormaren gainontzeko osagaiak leihoak dira. Aurrez-aurreko pareta berriz ez da adreiluzkoa, plastiko erako materialezkoa baizik. Eskuineko horma beheran gelditzen den areto handia ikusi daitekeen leihoz betea dago. Eta azkenik, atearen jarraipena den pareta guztia, ispiluz estalia ageri da. Armairu bat ere badu, eta honen ateak ispiluaz forratuak daude. Gelaren tamaina 80-90 m^2, zorua egurrezkoa, tarima modukoa, delarik. "Denak begira, non jarriko naiz? Irakaslea agurtu beharko dut!"

Bertan hamahiru lagun dabiltza dantzan, ispiluarekiko aurrez aurre, denak emakumeak, eta adinez helduak. Gazteena Esti izeneko irakaslea da eta etengabe aginduak ematen ari da jardule guztiek esanak zintzo betetzen dituztelarik. Ilaratan jarrita denak irakasleari begira egiten dute dantza, eta noizean behin buelta eman eta atzera begira ere dantzatzen dute. "Inork ikusiko ez banindu bezala atzeko izkina batetara noa, ez dut inor oztopatu nahi". Musika ez da eteten, nahiz eta Esti koreografia nolakoa den azaltzeko batzutan gelditu.

Musika irakurgailua ispilua osatzen duen armairu barruan dago eta ozenago entzuteko bafleak daude. “Denbora askoan horrela jarraitu ezkero belarriko mina egingo zait!” Armairu horretan beste zenbait material ere badago: indarra lantzeko gomak, burdinak… Ispiluaren albo batetan koltxoneta eta isolatzaileak aurkitzen dira eta hauen ondoan stepak. Ispiluaren gainean eta paretan zintzilikatuta erloju analogiko handi bat beha daiteke.

Koreografia guztia behin eta berriz errepikatu dute, azken aldera errepikapen batetik bestera etenik gabe. “Hau duk miseria hau, nik zeukaat harria! Ez nauk enteratzen! dena alderantziz egiten diat! lotsatuta nagok! dena utzi edo jarraitu? Ez zekiat aerobica ongi ikasiko diaten”. Koreografia amaitzean, Estik luzaketa batzuk egiteko agindu du. Luzaketa horiek egitearen gidaritza ere irakasleak eramaten du. Ariketa horiek egiteko, leihoetako gortinak ere jaitsi ditu, gela ilunantz geratuz. “¡Muy bien!, Todas lo habeís hecho muy bien, perdón, todos!” Luzaketak bukatu eta agurtu ondoren, aldagelara bidean jarri dira. Emakume batzuk ordea, zuzenean instalakuntzetatik kanporako bidea hartu dute.

Estadioko tabernan, Esti eta beste lau emakume elkartu dira; kafeak eta zukuak izan dira kontsumitu diren edariak. Hasieran, Estirekin kexati azaldu dira. Saio gogorrak jartzen dituela eta gero gihar minez egoten direla bi edo hiru egunetan adierazi diote. Adierazpen horiek ez dira oso gogor esandakoak izan, baizik eta irribarrez adierazitakoak.

- “Benetan esaten dizut, ez dakidala ikastea lortuko dudan.
- Lasai, ikusiko duzu nola baietz.
- Dena alderantziz egiten dut eta ez nahiz gai pauso bat bera ere ongi egiteko.
- Ez etsi! Ostegunean nahi baduzu ordu laurden lehenago etorri eta oinarrizko pauso batzuk erakutsiko dizkizut.”

“Como estabaís hablando en vasco”. Guztiak gazteleraz hitz egiten dute, eta kontu kontari ari direla hiru lagun zigarroak erretzen aritu dira. Esti irakasleak ere erre du, baino berak bildu duen tabakoarekin egindakoa. Tabernan ordu erdi inguru egon ondoren, bakoitzak bere bidea hartu du. “¡Adiós, hasta el jueves!” Emakume bakoitza bere aldetik joan da eta Esti Aquagym-eko eskola prestatzen gelditu da. Praktika hori ere Estadion bertan ematen du.

Irakasle dantzaria

Gaur hamar lagun elkartu dira eta saioa burutzeko bakoitzak step bat hartu du. Stepa plastikozko materialez eginiko koska errektangeluar bat da. Saioaren hasieran koreografia txiki bat egin dute beroketa gisa eta honen ondoren, luzaketa gutxi batzuk. Gero etorri da koreografia nagusia. “¡Que calor!” Horixe esan dute partehartzaile batek baino gehiagok. Estik, ikasle baten laguntzarekin, kanpora ematen duten leiho pare bat ireki ditu. Koreografia behin eta berriz errepikatu ondoren, jendeak izerditan eta arnasestuka bukatu du. “¡Pufff!” Neke hasperenak aurpegien ximurretan eta zainetan irudikatzen dira. Saioaren azken zatian luzaketak egin dituzte eta “¡muy bien!” esanez eta txaloak joz amaitu du Estik gaurkoa.

Estik aurpegian pare bat “piercing” ageri ditu, egokiago esanda bat bakarra sudurrean; bestea, mingainean baitu. Ilea lepo barreneraino heltzen zaio eta batzutan motots txiki bat erabiltzen du lepoz behera gelditzen zaion ile hori bilduz. Saioetara beti bere motxila txikiarekin agertzen da, jertse edo berokiren bat jantzita. Horiek kendu ondoren, kamiseta batekin eta txandal moduko praka batzuekin hasten da beroketa agintzen. Beroketa bukatzean, kamiseta kendu eta toparekin gelditzen da eta honela egiten du koreografia nagusia. Luzaketetan berriro kamiseta janzten du. Batzutan, bero handia dagoenean, prakak belaunera arte tolestuta aritzen da. Galtzerdi motz batzuen gainetik kirol zapatila batzuk erabiltzen ditu.

Jatorriz Eskoriatzakoa da eta aerobiceko irakasle bezala jarduten du eta horrela jarraitzeko asmoa du bere formazio akademikoarekin zerikusia duen lanen bat topatu arte. Ikasketak irakasle eskolan egin zituen eta hezkuntzan lan egitea da bere asmoa. Beste hainbatek bezala, maistra titulua izan arren, lehen hezkuntzako irakasle bezala oraindik lanik ez du topatu. Bitartean, aerobiceko begirale bezala dihardu.

Estik badauka zerbait berezia: ikasleak oso erraz ikasten dizkiote koreografiak. Dantza pausoak lotu egiten ditu, ez du batuketa bat egiten. “Batzuk robotak bagina bezala eta hau… honek pinpilinpauxa zirudik”. Bere bizitasuna, dantza pausoak egiteko garaian eta hauek jendeari hitzez adieraztean kutsakorra

da. Dantzari handi bat da eta honez gain jendeari bere jakintzak eta asmoak transmititzen dakiena: animuak emanez, behin eta berriz lagunduz… Gaztetan euskal dantzak praktikatzen omen zituen eta musika ere barne barnetik bizi izan omen du beti, piano ikasketak UBI amaitu arte eginez. Bere esanetan, astea oso nekatuta amaitzen omen du, aerobiceko eskolak hiru toki desberdinetan ematen baititu: Estadion, Ariznabarran eta Dulantzin. Astean zehar hamasei saio zuzenduz.

"Horrela ez zegok zereginik. Ez nauk enteratzen. Artalde bateko ardi galdua bezala sentitzen nauk. Jauzi handiago bat egiten ez badiat, akabo! Beste talde bat? Talde berria: lotsa, irakasle berria, azalpenak, ordutegi berria, nagikeria, beste saio bat, nekea… puff".

Ordizia, hiru saio gehiago

Astelehen arratsaldea, Ordiziako kiroldegia. Ataria kotxez beteta dago. Ate nagusitik sartu eta korridorearen eskuinetara kirol anitzetako pista eta harmailak aurkitzen dira. Pasillo horren amaieran taberna eta ezkerretara trantsituko beste eremu bat gurutzatu ondoren, harrerako bulegoa. Hemendik hiru eskailera multzo jaitsi, pasillo luze bat gurutzatu, beste eskailera maila luze bat jaitsi eta eskuinetara, squasheko pisten jarraian, ate bat leihatila txiki batekin; atez bestalde aerobiceko aretoa. Gela honek eraikinaren egitura osatzen duten lau zutabe ditu. Atearen jarraipeneko paretan ispilua dago, ezkerretako horman ariketa gimnastikoak egiteko erabiltzen diren egurrezko barra fixoz osatutako altzariak daude eta eskuinetakoan, saioetan erabiltzen diren objektuak: stepak, isolatzaileak, pilotak… Areto sarreratik aurrez-aurre dagoen paretan, beste gela batetarako sarbidea den ate bat aurkitzen da. Horma horretan, gortinekin estaliak dauden bi leiho ere badaude. Zorua material sintetikozkoa da eta zutabeak, partehartzaileak babestu nahian, moketa antzeko ehun batekin estaliak ageri dira.

Gela barruan lau emakume daude dantza egiten hasi gabe, dirudienez irakaslearen zain. "Pensaba que eras el nuevo profesor". Laster etorri da Oihana izena duen irakaslea. Agurtu ondoren, ispiluaren aurrez-aurre jarriz, koreografia desberdinak azaltzen aritu da. Aurrena berotzeko dantza pauso batzuk, ondoren luzaketa gutxi batzuk, gero koreografia nagusia eta azkenik luzaketak. Oihanak

behin eta berriz errepikatzen ditu dantza pausoak. Sarritan gelditzen da musikaren erritmoa jarraitu gabe koreografiako pausoak geldi eta lasai azaltzen. Bere ikasle diren emakumeek, nahiko lan badute pausoak ongi egiten eta ongi irteten ez zaienean hasperen egiten dute. “Nik hauek baino hobeto egiten diat, ez zegok gaizki! ¿Es la primera vez que haces aeróbic?” Koreografia hogei eta hamabi taupadako bloke batez osatu dute. Oihanak, taupada eta koreografien ezaugarriak eta antolamendua azaldu du. Taupadak, musikak dituen perkusio kolpeak dira. Soinu hauek abiadura desberdinean izan daitezke. “Bloke” batek hogei eta hamabi taupada ditu eta koreografia batetan bat edo bi “bloke” sartzea izango da ohikoena; zortzi taupadak “frase” bat osatzen dute eta lau “frasek” “bloke” bat.

Irakasle profesionala

Oihanak hogei eta bederatzi urte ditu eta Urretxukoa da. Aspaldidanik aerobiceko irakasle da eta honez gain gimnasioetako beste hainbat jardueren begirale ere izan da: spinning, mantentze soinketa, body combat… Bere ikasketak ez dira arlo honetakoak, marketing-ean goi mailako modulu bat egina baitauka, baina ez du gustuko horretan lan egitea. Oihanaren asmoa, berak kudeatutako gimnasio edo kiroldegi bat izatea da. Jadanik Bizkaiko eta Gipuzkoako gimnasio askotan egin du lan.

Bizkarraren zati handi bat estaltzen dion Ile beltz luzea du eta bildu egiten du aerobiceko saioetan. Ikasleak, berak agindutako koreografia egitea lortzen ez dutenean, desesperatu egiten da: “¡Elena, que la “viña” es hacía la derecha!” Musika askotan gelditzen du dantza pausoak ongi azaltzeko. Pazientzia eta ilusioa handia jartzen du bere saioetan eta parte-hartzaileekin harreman ona agertzen du, batzutan gai pertsonalei buruz hitz eginez.

Aerobic egiteko arropa klase desberdinak erabiltzen ditu: galtza elastikoak, bermudak, galtza luzeak, top-ak, tiradun kamisetak… Eta gimnasioetako jarduera fisikoen azken joeretaz jabetuta dago: bere lanbidearen profesional izaeran sinisten du. Aerobiceko saioak emateaz gain, lan orduak osatzeko, kiroldegiko harrera gunean aritzen da.

Aurreratzen

Estadion aerobiceko saioak aurrera jarraitzen dute. Parte-hartzaileen kopurua egun batetik bestera aldatu egiten da, ez da finko mantentzen. Azken saiora hamar lagun elkartu dira, irakaslea barne. Egin duen elurteak jendearen asistentzian eragina izan duelakoan dago Esti.

Koreografiak iraun duen bitartean jendeak ez du hitz egin. Batzutan norbaitek zerbait esaten dio irakasleari: “¿Cómo se hace ese paso?” edo “¡Hazlo más despacio!” eta horrelakoak. Estik aintzat hartzen ditu kexa hauek eta berriro azaltzen hasten da koreografia. Gaur animali baten izena hartzen duen jauzi bat ere sartu du koreografian: “gacela” edo oreinarena. “¡Muy bien eh! ¡Me tenías que haber visto a mi el segundo día!” Esti, taldera hitzez zuzentzen denean, pluraleko bigarren pertsonan zuzendu beharrean, egoki legokeena, singularreko bigarren pertsonan zuzentzen da: “¡Venga cuatro veces, solo tú, yo no!” Gazteleraz mintzatzen da eta saioaren dinamika aginte tonua erabiliz zuzentzen du.

“Animu! Beste esfortzu txiki bat eta egina zegok!”

Ariznabarra, hirugarren taldea; zazpi saio astean

Ariznabarrako kiroldegia izen bereko auzoan kokatua dago. Sarrera nagusiaren alboan bizikletak uzteko burdin batzuk daude eta instalakuntzara sartu bezain laster harrera gunea aurkitzen da. Gune honetatik eskuinetara eta beherantz eskailera maila batzuk jaitsi ezkero, aldagelak eta dutxak aurkitzen dira. Beheko solairu honetatik kirol anitzetako pistara eta gimnasia egiteko pista handi batetara sarbidea dago. Kirol anitzetako pistaren aldamenean rokodromo handi bat aurkitzen da.

Aerobica egiten den aretoa sarrera nagusiko solairuan kokatuta dago, harrera gunetik ezkerretara. Gela horretako atea kristalezkoa da. Salaren erdian kiroldegiaren egituraren parte diren bi zutabe aurkitzen dira, partehartzaileek hartu ditzaketen kolpeak babestu asmoz koltxonetaz estaliak. Zorua egurrezkoa da, tarima modukoa. Gela honek sarrerako atearen jarraipena den paretan du ispilua. Beste bi hormetan, egurrezko barra fixoak daude eta laugarrengoan objektu

desberdinak: isolatzaileak, burdinak… Hauen alboan eta armairu baten sartuta, musika irakurgailua dago.

Kiroldegi honetan ere, Estadion bezala, Estik ematen ditu aerobiceko saioak. Guztira hamalau lagun elkartu dira eta batzuk harritu egin dira: “Si tenemos un chico hoy”. Dantza pausoak burutzeko jardule bakoitzak izan duen tokia Estadioko gelakoa baino txikiagoa izan da, areto hau txikiagoa baita. Saioaren egitura ohikoa izan da: beroketa burutzeko dantza pauso batzuk, gero luzaketak eta ondoren koreografia nagusia behin eta berriz errepikatu. Steparekin aritu arren, musika Estadion baino abiadura azkarragoan eta bolumen altuagoan jarri du Estik. Burutu den koreografiaren ezaugarri nagusiak jira-birak izan dira. Behin eta berriz steparen alde batetik bestera pasatzen ibili dira jiraka. Azkenik, luzaketa nagusiak eta indar ariketa batzuk burutu ondoren, Estik txalo batzuk jo eta bukatutzat eman du saioa. Parte-hartzaileak datorren asteazkenera arte agurtu dira eta batzuk aldageletara zuzendu diren bitartean, beste batzuk kanporantz abiatu dira.

“Jadanik gozatzen hasita nagok!”

Jardunarekin disfrutatzen

Estik, koreografia beti modu berean azaltzen du: aurrena berak egiten du lasai lasai, musikaren erritmoa jarraitu gabe. Gero berriro errepikatzen du, oraingo honetan musikaren taupadekin batera. Eta azkenik, partehartzaile guztiek egiten dute. Koreografiaren zatiak behin eta berriz errepikatzen dira, gehiengoari ongi atera arte. Atal hauek “frasez” “frasekoak” izaten dira: zortzi taupadako dantza pausoak ikasi ondoren hurrengo zortzi pausoak azaltzen dira, hogei eta hamabiko “bloke” bat menperatu arte. Hori ikastean hogei eta hamabiko beste “bloke” bat erakusten du. Guztia azalduta dagoenean, koreografia osatzen duten bi “blokeak” behin eta berriz errepikatzen dira: “Chasse, caja, V, lado, viña izquierda mambo, tocar viña derecha mambo, tocar izquierda derecha, patada, un dos izquierda derecha, rodilla, viña izquierda mambo, izquierda lado, derecha lado, giro y vuelta”. Lehenengo, koreografia errepikapenak banaka egiten dira: behin egin eta atseden txiki bat hartu, baino azkenerako errepikapenak lotu egiten dira, bat amaitzearekin batera, gelditu gabe, beste batekin jarraituz.

Gaur nahiz eta errepikapen asko egin partehartzaile batek baino gehiagok, koreografia burutzeko arazoak izan dituzte, baina musikak eta Estik aurrera jarraitu dute. Batzuk gustura daude: “¡Lo has hecho muy bien!... Bueno, por lo menos he empezado a disfrutar”. Beste batzuk aldiz Estiri esan diote atzealdera joateko, ez baitzituzten ongi ikusten honek egiten zituen pausoak. Irakasleak proposamena aintzat hartuz atzera joan eta bertan egin du koreografia guztia, atzekoak ikusi eta ikasi zezaten. Estiren atzean aurreneko lerroan dagoenak dantza pausoak parez pare ikusten dituen bitartean, atzealdeko lerroetan daudenek ez dituzte pauso horiek ongi ikusten, eta beraien aurrean kokatuta dauden kideen pausoak behatu behar izaten dituzte dantza pausoak egiteko.

Barreak eta elkarrizketak

Ordiziako taldea oso txikia da, lau edo bost elkartzen dira beti. Adinez emakume helduak dira: berrogei eta hamar urte ingurukoak. Umore onez eta alaitasunez egiten dituzte saioak eta edozer gauzagatik barre egiten dute: gaizki egindako koreografia zatiren batengatik, erritmoa jarraitzeko kapaz ez direnean, euren bizitzako pasarte bat kontatzean… Elena izena duen emakume baten barrea oso kutsakorra da, berak irri egin ezkero guztiak algaraka hasten dira. Horrela gertatu da gaur Ordizian. Une batetan, koreografia gaizki egin dutela eta, irribarretik barrera pasa dira eta azkenik algaran bukatu dute, baita Oihanak ere. Saioan zehar gai desberdinei buruzko elkarrizketak izaten dira eta gaurko batetan hizketa gaia denek gustuko duten elikagaia izan da: txokolatea. Emakumeetako batek bere alabaren pasarte bat ere kontatu du: “Eso me comentó mi hija. El otro día hizo chocolate y me dijo: joe mama, qué malo me ha salido. Menuda juventud estamos formando”. Beraientzako txokolaterik onena dena goraipatuz amaitu da elkarrizketa: “El mejor es Pedro Mayo”.

Estadioan aerobic egiten duten taldeko partaide batzuk saioa bukatu ondoren tabernan biltzen dira, zerbait hartuz hitz egiten. Gaurkoan bost lagun elkartu dira, Esti irakaslea ere horien artean izanik. Edariak kafe eta zukuen artean banatu dira: kafeak, ebakiak eta laranjazko zukua edo ura. Gaurko gai nagusia umeak izan dira. Elkartutako bostetatik Esti da seme alabarik ez duen bakarra. Tabernetan haurrekin joaten direnean izaten dituzten arazoak kontatzen aritu dira.

Dirudienez, taberna batzuetan, umeekin joan ezkero, arau batzuk bete behar omen dira: tabernariek umeak eserita egon daitezela eskatzen omen diete. Hau egiten ez bada, aldarte ona aldatzen omen zaie edaritegiko nagusiei eta hurrengo batetarako kontutan izaten omen dute. Baina hau ez da bakarrik ostalariekin gertatzen, inguruan egoten diren bezeroak tabernariak baino gaiztoagoak jartzen omen dira.

Seme-alabekin lotutako beste gai nagusiak oporrak izan ditu ardatz. Bakazioetara nora joateko asmoa duten komentatzen aritu dira eta beraien haurren jai egunak noiz izango diren adierazi dute. Poz ederra hartu du emakumeetako batek, semeak oporrak hamar egunekoak eta ez hamabostekoak dituela jakitean. Umeak eskolatik jai dutenean beraien eguneroko dinamika aldatu egiten da; aerobiceko saiok baleude etortzeko aukerarik ez lukete izango. Seme-alabei buruzko elkarrizketa hauek bukatu eta agurtzean agerian geratu da norberaren posizioa: “¡Adíos madres!¡Adíos hijo!”

Multzoan dantzatzen

Gaurko berritasuna dantza pausoak egiteko partehartzaileek hartu duten espazio egitura aldaketa izan da. Koreografia ikasi ondoren, behin eta berriz errepikatu dutenean, Estik agindu du ispiluari begira jarri beharrean atzera begira jartzeko. Koreografia berdina da baino planoz aldatzean partehartzaile batzuk nahastu egin dira. Ondoren beste ariketa bat etorri da: denak borobilean jarri eta elkarri begira koreografia egitea. Hori aurrekoa baino zailagoa gertatu da, bakoitzak ongi jakin behar baititu, egin beharreko pausoak. Esti ez da erreferentzia eta bera, honen jakitun, koreografia egin duen bitartean pausoak altuan kantatzen aritu da. Koreografiako pauso batetara heltzean, partehartzaile bakoitza bere ezkerretara dagoen kidearen lekura pasa behar izan da. Dinamika honetan dauden kide bezainbat errepikapen egin ezkero, borobilari edo korruari buelta osoa ematen zaio. Egitura espazial honetan koreografia egitea batzuei zaila gertatu zaie eta, borobiletik atzeratuz, egin gabe gelditu dira. Bira osoa egitean partaide bakoitza bere hasierako tokira itzultzean, Estik denei oso ongi egin dutela esan eta dantza saioa amaitutzat eman du. Denak buruan zuten pentsamendua emakume batek adierazi du: “¡Hoy ha sido de mucha dificultad eh!”

Dantza pausoak burutzeko egitura espaziala steparekin ere aldatu daiteke eta hori da Ariznabarran gaur egin dutena. Dantza pausoen koreografia guztia egin ondoren eta parte-hartzaileek hau ikasi dutenean, ispilura begira dantza egin beharrean atzeko hormari begira egin dute. Gero denak borobilean jarri dira norberak bere stepa aurrean duela, eta dantza pauso batetik aurrera ezkerretara zegoen kidearen stepera pasatu dira. Eta horrela, parte-hartzaile bakoitzak buelta guztia eman eta berriro bere stepera bueltatu den arte. Hasieran jendeari nahiko zaila gertatu zaio, baino errepikapen batzuen ondoren koreografia atera egin da. Amaieran partaideen komentario eta irribarreak, ongi pasa dutenaren isla izan dira: “Ha estado bien., ¡Nos ha salido!”

Ordizian ere egiten dituzte multzoan dantzatzeko saiakerak eta gaurko saioaren hasieran Oihanak dantza borobilean amaituko dutela adierazi die ikasle jardule guztiei. Bi emakumek beren kezka azaldu dute eta galdezka ibili dira ea hori zer den. Irakasleak azalpena bukatu duenean egitura espaziala aldatu eta borobilean jarri dira koreografia berdina egiteko asmoz. Ez du arrakasta handirik izan, emakume guztiak atzera bota baitira ez zitzaiela ateratzen esanez. Horietako batek, kide batek ongi egiten duela ikusirik, bere susmoak plazaratu ditu: “Yo creo que Asier ensaya en casa”. Nahiz eta irakaslea behin baino gehiagotan saiatu guztia ongi azaltzen, beste guztiei ez zaie atera. Oihana desesperaziotik amorru haserrera pasa da eta denbora gutxi gelditzen zenez, luzaketarik egin gabe amaitu du saioa.

“Azken bi aste hauetan eman diaten jauzia handia izan duk, geroz eta gusturago ibiltzen nauk saioetan!”

Norberak bere tokia

Ordizian parte-hartzaile bakoitzak aerobiceko aretoan bere tokia dauka, inork ezertxo ere esan gabe bakoitza bere lekuan jartzen da gelan banatuta. Printzipioz, norberak nahi duen gunean jarri daiteke, baino gelan sartu orduko bakoitza bere ohiko tokira joaten da nahiz eta kidea jartzen den lekua libre egon. Oihana dantza pausoak azaltzen hasi denean aurreneko ilaran partaide batentzako lekua zegoen, baina bertan jartzen dena etorriko delakoan inor ez da

jarri bertan. Susmo hori Oihanak egiaztatu du bertan jartzen den emakumea aldagelan ikusi duela esanez: “Espera, que he visto a Rosa en los vestuarios”.

Ariznabarran eta Estadioan ere berdina pasatzen da, baino parte-hartzaile gehiago izatean espazio tarteak lehenago betetzen dira. Modu horretan, berandu etortzen denak bere betiko tokian jartzerik ez du izango. Saioa hasi baino lehenago parte-hartzaile guztiak aretoan baldin badaude bakoitza bere betiko gunean jarriko da, norberaren ohiko jardute lekua errespetatuz. Ariznabarran, gaur ere, aurreneko ilaran betiko bost emakumeak zeuden.

Musikaren bolumena

Musikaren bolumena asko igo du Estik gaurko saioan. Aerobic egiten aritu diren emakumeak gustura sentitu dira, nahiz eta ozentasuna belarriko mina egiteko modukoa izan. Gelaren aldamenean beste areto bat dago eta bertan yoga egiten dute. Dirudienez, beraiek ere musika entzuten omen dute eta arduraduna Estirengana etorri da musika baxuago jartzeko erregutzera. Musika bolumen txikiagoan jartzean, alderantziz gertatu da: “¡Sube un poco el volumen!” Aerobic jarduleak kexatu eta ez dira gustura gelditu. Estiri behin baino gehiagotan eskatu diote musika ozenago jartzeko, baina honek erantzun die ez dagoela bere eskuetan eta beraien eskakizuna idatzi baten bidez kirol Fundazioko bulegoan adierazteko. Hau dela eta Estadioko zuzendaritzarentzako proposamen orri bat idatzi dute. Idatzi hori musikaren bolumenarekin lotuta dago: altuago jartzeko aukera utzi diezaietela. Gehienen ustez, musika zenbat eta ozenago jarri, orduan eta hobeto egiten omen dira dantza pausoak.

Saioaren azken zatia

Koreografia behin eta berriz errepikatu ondoren, Estik gortinak jaitsi eta musika lasaiagoa jarri du. Aldi berean, luzaketa batzuk egin aurretik gihar indartze ariketa batzuk egingo dituztela aipatu du. Aurrena abdominal batzuk: koltxoi txikien gainean ahoz gora etzanda jarri dira, belaunak flexionaturik dituztelarik eta eskuak lepoaren atzean. Beraien enborra belaunetarantz igotzen saiatu dira. Irakaslea, hamarretik hasi eta zeroan bukatuz kontatzen joan da: hamar, bederatzi,

zortzi, zazpi… Partaideen kexak areagotzen joan dira azken errepikapenetan: “¡Yo no puedo más!”

Abdominal hauek hiru txandatan egin ondoren, bizkarraldeko gihardurarekin hasi dira: ahuspez etzanda koltxoi gainean eta lepo atzean eskuak elkartuta dituztela, oinak lurretik altxatu gabe enborra gorantz igotzen saiatu dira.

Azkenik, besoetako gihardura indartzeko ariketa bat agindu du Estik. Ahuspez jarrita, eskuak eta oin puntak euskarri bezala izanik, besoak tolestuz eta luzatuz gorputza lurrera hurbiltzen saiatu behar dira, beti ere lurrean etzan gabe. Ariketa honetan ere errepikapen gutxi batzuekin emakume batzuk kexatzen hasi dira eta batzuen ezintasuna agerian gelditu da. Baina zailtasun hori izanik aipatzekoa da beraien disziplina: egin nahia, kosta hala kosta. Emakume batek galdetu du ea ariketa honek zer lantzeko balio dezaken: “¿Esto subirá o fijará los pechos no?”

“Esaten dizut, azkenean lanpostua kendu behar dizudala eta honetarako udan aerobiceko begirale titulua aterako dut!”

Aerobicaren gogortasuna eta esfortzua

Dantza pausoekin bi “blokeko” koreografia osatu da gaur: “Voy de lado, giro, voy de lado, viña derecha, mambo izquierda, atras, mambo derecha, viña izquierda, V, giro, chasse, chasse, caja izquierda, vuelta izquierda con apoyo, vuelta derecha con apoyo, punta derecha, punta izquierda, giro, lunch, lunch, V, patada, mambo derecha, atras, patada, mambo izquierda, giro…” Guztia ikasi ondoren errepikapen ugari egin dira. Esti, behin eta berriz aritu da errepikapenak agintzen eta honen eraginez partehartzaile gehienak aurpegitik izerdi tantak dariela bukatu dute. Azkeneko errepikapenetan, arnas-estuka ere aritu dira. Gela barruan dagoen tenperaturak zerikusia izan dezake. Ispiluaren alboan kokatuta dagoen termometroan emakume batek 22º zentigraduko tenperatura behatu du.

Amaitzean, guztien artean egin dituzten begiradak “nahikoa da!” esanahia dutela edozeinek interpretatuko luke. Lehenengo ilaran jartzen den emakume batek gizonezko bakarra izerditan blai bustita ikustean eta egindako esfortzua

goraipatu nahian, honako hau esan dio: “¡Eres valiente, eh! ¿Creías que era tan duro?”

Irakaslearen desesperazioa

Ordizian gaur arazoak izan dituzte koreografia egoki egiteko. Oihana behin eta berriz errepikapenak egiten aritu da: “frase“ bat erakutsi eta errepikatu, beste bat azaldu eta egin… Baina hala eta guztiz, bost emakumeetatik lauek arazoak izan dituzte koreografia osoa ongi egiteko. Oihana desesperatu egin da eta bere aurpegia, jasan duen frustrazioaren salatari bihurtu da. Pazientzia handiarekin behin eta berriz dena azaltzen aritu ondoren, emakumeei lasai egoteko esan die. Lehenengo, geldi egonik berak egiten duena behatzeko eta gero, berarekin batera erritmo lasaian egiteko, baina… Emakume batek esan du beraiek ez daudela urduri: “Si no venimos aquí para ponernos nerviosas”. Aerobiceko saiora ez direla etortzen urduri jartzera, bakar-bakarrik koreografia ongi egiteko dituztela arazoak.

Saioa bukatu denean Oihanak atsekabetuta jarraitzen zuen, “¿Tu crees que es posible?” bezalako komentarioak eginez. Berak dio emakume horiekin sei hilabetetik gora daramatzala eta ez duela lortzen beraien maila igotzea. Irakasle batentzako hau baino gauza okerragorik ez omen dago.

Dibertigarria eta motibagarria

Estirekin gaurko berritasuna zera izan da: une batetan norberaren stepean jiratu eta atzekoaren stepean egin behar ziren pauso batzuk. Hori ongi atera den heinean, koreografia beste modu batetan egin dute: bikote bakoitzak step bat partekatuz eta bien artean hiru step erabiliz.

Estiren ustez horrelako ariketak: stepa partekatu, borobilean dantzatu… jendearen maila hobetzeko balio dute batetik, eta bestetik aldatzeko, beti berdina ez gertatzeko. “Es algo nuevo, y por eso es divertido. Se hace muy poco.”

“Orain uste diat, taldeko beste bat izango baninduan bezala begiratzen zidatekela; taldean sartuta nagokela iruditzen zaidak eta beraientzako nire presentzia ez dukela arraroa!”

Parte-hartzaile asko espazio gutxiago

Ariznabarrako aretoa nahiko txikia gertatzen da parte-hartzaile kopurua handia denean. Gaurkoan hamazortzi izan dira eta koreografia egiteko toki gutxiago izateak dauzkan ondorioak agerian geratu dira. Atzeko ilaratan jarri diren parte-hartzaileek ezin izan dute dantza pausoen lotura ongi jarraitu. Estik egin duena ikusteko arazo handiak izan dituzte. Batetik, beraien aurrean hiru lerro jardule egon direlako eta bestetik erdian gelditzen diren bi zutabeengatik. Beraien kideei begira egin behar izan dituzte dantza pausoak eta kideek gaizki egiten badituzte, ezinezkoa da norberak ongi egitea.

Bestalde, partehartzaile kopuruaren eraginez, bakoitzari dantzatzeko eremu txiki bat egokitu zaio eta honen ondorioz tupust egite batzuk ere egon dira. Emakume bati ez zaio hau oso atsegina iruditu eta bere egonezina adierazi du: “¡Vete más allá, que me vas a comer!” Elkar jotze hauek ez dira izan mina hartzeko modukoak, baina mugatu egin dituzte bakoitzaren pausoak eta koreografia etenik gabe jarraitzea.

Parte-hartzaile batek komentatu du berak nahiago duela dantza pausoak distantzia eta espazio txikian egitea: modu horretan koreografia jarraitzeko arazo gutxiago omen ditu. Batzutan, gelan nahiko toki dagoenean, Estik berak esaten du espazioan zehar distantzia handiagoetan egiteko dantza pausoak.

Isiltasuna

Estadion guztira bederatzi lagun elkartu dira. Denak aretoan sartuta, isiltasuna nagusitzen da. Ez dago elkarrizketarik, ezta algararik ere, denak mutu. Esti musika prestatzen eta bere gauzak tokian kokatzen dabilen bitartean txintik esan gabe, denak saioa hasteko prest.

Musika martxan jarri da eta honekin batera Esti aginduak ematen hasi da. Irakaslearen ahotsa entzuten da bakarrik. Guztiak lehen bezala jarraitzen dute: isilik. Beroketa amaitu eta hiru luzaketa agindu ditu begiraleak eta partehartzaile guztiak berarekin batera egin dituzte. Ez dago barrerik, ez dago hitzik, Estiren ahotsa entzuten da bakarrik.

Koreografia egitean ere berdin jarraitu dute: musika eta Estiren aginduak entzuten dira bakarrik. Errepikapenen artean atseden txiki bat ere hartu dute eta parte-hartzaile batzuk ura edatera atera dira pasillora: Beste batzuk beraien botiletatik edan dute. Jardule batek kideak animatu nahian egoeraren deskribapena egin du: “¡Parece que estamos en misa!” Estik, txaloak joz bukatu du saioa. Barre batzuk antzematen dira eta hitz egiten hasi dira! Biko edo hiruko taldeetan jendea hizketan dago! Batzutan, Estadioko talde honetan, denak ezezagunak eta arrotzak direla dirudi.

Stepa partekatzen

Bost lagun elkartu dira gaur Ariznabarran. Aste Santuko oporren bezpera da eta nabarmentzen da. Emakume batek bere alaba ekarri du saiora: zazpi edo zortzi urteko neskato bat. Haurra oporretan dago eta amak bakarrik etxean utzi ezin zezakeenez aerobiceko saiora ekarri du. Saio guztian zehar guztiei begira egon da, geldirik, izkina batean eserita eta begiak zabal-zabalik zituela.

Parte-hartzaile kopurua txikia denez, bakoitzak nahi duen tokian jartzeko aukera izan du eta aerobic egiteko norberak izan duen eremua ohikoa baino handiagoa izan da. Betiko progresioa jarraitu dute: aurrena ispiluari begira, gero atzeko paretari begira eta azkenik, bikoteka jarrita, stepa partekatuz aritu dira. Azken ariketa honetan ongien egiten dutenak batera jartzeko ahalegina egin dute, baina Estik bati agindu dio: “¡Tú en este!”. Eta koreografia hobekien menperatzen duten bi kideak okerren menperatzen dutenekin jarri ditu.

Stepa partekatuz, errepikapen batzuk egin ondoren, ongi egiten ez zutenak nahiago izan dute bakarrik egitea, bikoteka egitea baino. Gaizki egin ezkero, kideari oztopo egiteko aukera dago eta arrisku hori hartu baino, nahiago izan dute beraien stepean egin.

Saioa amaitzeko guztia beste sei aldiz errepikatu dute. Orduan parte-hartzaile bat ispiluari begira egotetik atzeko hormara begira egotera pasa da errepikapen kateatze batetan. Esti bera ere harritu egin da eta hitz gozoak eskaini dizkio: “¡Joe! ¡Artista, eh!”

Dantza pausoak azaltzeko Estadio eta Ariznabarrako irakaslea den Estik erabiltzen duen didaktika hau da: lehenengo “frase” bateko dantza pausoak erakusten ditu eta honen errepikapen batzuk egin ondoren, zati horretako birak sartzen ditu. Horrela “blokea” erakusten du; azkena erakutsi duen zatiarekin batera aurreko zati guztiak errepikatuz koreografia guztia osatu arte. Gutxi-gora behera, ordu erdi bat behar izaten du koreografia guztia azaltzen. Dena bukatzean, behin eta berriz errepikapenak egiten dira. Parte-hartzaileak errepikapenen bidez barneratzen dute koreografia. Aurrenekoan ez da aterako, bigarrenean ere ez, hirugarrenean zati batzuk aterako dira eta hamargarrengoan edo hamabosgarrengoan koreografia guztia aterako da.

Koreografia guztia ikasi ondorengo errepikapenak izaten dira protagonista. Adibidez, zortzi errepikapen jarraian, gelditu gabe: “¡Seis veces! ¡Dos más! ¡Una más! ¡La última! ¡Con está acabamos!” Gainera, batzutan musikaren abiadura handitu eta bolumena igotzen du. Modu honetan parte-hartzaileak musikaren perkusio taupadak garbiago entzuten dituzte eta honek erraztu egiten du koreografia ongi egitea.

Ordiziako Oihanaren erakusteko modua ere antzekoa da, baina dantza osoaren errepikapen gutxiago agintzen ditu eta gehiagotan gelditzen du musika. Horrela dantza pausoak musikarik gabe azaltzen dituelarik. Azalpen horietan denbora asko joaten zaio eta ondorioz koreografia osoa errepikatzeko denbora gutxi izaten du. Dantza osoaren lau edo bost errepikapen egin ondoren luzaketen unea iristen da.

Irakasle bakoitzak bere formazioan eta esperientzian eraikitako erakusteko modua du. Eta honez gain taldearen ezaugarriak kontutan izateak eragina du.

“Berak esan zidak, oso ongi nagokela, klaseak ematen hasteko; oinarrizko pauso bakoitzak ditizken taupadak kontatzea falta zaidakeela bakarrik.”

Aerobiceko lehiaketa: aerobiton

Donostiako Benta Berri kiroldegian 250 lagun baino gehiago elkartu dira aerobiceko lehiaketan. Kirol anitzetako pistaren erdian eta albo batean eskenatokia ageri da eta harmailetan jendea ikuskizuna ikusten. Dantzan ari diren

partehartzaile guztiak dortsalarekin daude eta ia denak emakumeak dira. Bakarrik hamar edo hamabost gizonezko egongo dira. Parte-hartzeko sei euro ordaindu behar dira eta harmailetan ikusle bezala egon ahal izateko hiru euro.

Eskenatokiaren gainean irakasle edo begiraleak txandatzen dira. Bakoitza, berrogei minutu arituko da eta, denbora horretan, bi “bloke” dituen koreografia bat aurkeztu beharko du. Bata bestearen atzetik zazpi irakasle igo dira eskenatokira, beraien koreografiak parte-hartzaileei erakustera eta, harrigarria badirudi ere, guztiak gizonezkoak izan dira. Eskenatokian irakasle bezala denak gizonezkoak eta dantzan denak emakumeak. Emakumeak gehiengoak dira proba honetan eta, aerobic taldeetan ez bezala eskenatokiko protagonismoa gizonezkoek dute. Irakasleek jendeari begira dantzatzen dute eta ez bizkarra emanez. Hemen ez dago ispilurik. Horrengatik, batzutan, partehartzaileei lagungarriagoa egiteko, koreografia alderantziz egin beharrean daude: pausoak ezkerretara baldin badira, beraiek eskuinera, edo alderantziz. Irakasle bakoitzak mikrofono txiki bat erabiltzen du, egiten dituen pausoak deskribatuz parte-hartzaileei adierazteko.

Dantzan dabiltzan lehiakideek beraien artean ez dute espazio asko eta egiten dituzten dantza pausoak neurtuak izan behar dira, aldamenekoari oztoporik ez eragiteko. Emakume gehienak galtza elastikoak eta tiradun kamisetak daramatzate; toparekin ere asko ikusten dira. Musika altu dago, kiroldegiaren kanpotik ere entzuten da.

Eskenatokitik eskuinetara dagoen mahai handi batean garaileentzako garaikurrak daude. Pistaren beste albo batean berriz masajeak emateko bost mahai. Aerobiton honetan irabazleak nortzuk diren jakiteko aldagai desberdinen arabera puntuak banatzan dira: koreografia egiteko txukuntasuna, dantza ikasteko erraztasuna eta partehartzaileek duten maila fisikoa. Txapelketa erakusketa honek hiru ordu iraun ditu, arratsaldeko bostetatik iluntzeko zortzietara.

Irakasle berria

Ariznabarrako aretora aerobic taldekoak sartu direnean ezusteko bat izan dute: Estiren ordez beste irakasle bat dago: “¡Qué sorpresa! ¿No viene Esti?” Eta erantzuna: “Tiene un examen y he venido de su parte”. Irakasle hau ere emakume bat da. Begirale berri honekin, hasieran kostatu egin da dantza pausoak egoki

ikastea. Beste modu batera erakusten ditu pausoak eta parte-hartzaileek hau sumatzen eta jasaten dute. Hasierako arazoak gainditu eta saioaren amaierarako guztiek nahiko ongi dantzatu dute.

Denboraldiaren amaiera

Estadioan eta Ariznabarran datorren astean amaitzen dira aerobiceko saioak. Ekainean gaude eta uda sasoiarekin batera aerobiceko denboraldia bukatzera doa. Konkretuki, ekainaren 22an izango da Ariznabarrako azken saioa. Bertako parte-hartzaile guztiak, azken saio hori amaitu ondoren, taberna batetan zitatu dira agurtzeko.

Ordizian uztailera arte luzatzen da aerobic denboraldia. Uztailaren erdi aldera, herriko jaiekin batera amaitzen dira saioak. Hala eta guztiz, ekainaren 24tik aurrera, saio batzuk elkartu egiten dituzte asistentzia baxatu eta saioetara jardule gutxiago joaten delako.

“Aste honetako interesgarriena zera izan duk: irakasle bezala saio bat emateko konpromisoa hartu diatela”.

Ikaslea izatetik irakasle izatera

Aerobiceko irakasleak parte-hartzaile guztiak atzean izaten ditu. Guztien aurrean jartzen da koreografia bat erakusteko asmoarekin. Egoera hau ezagutuko du gaur orain arte ikasle bezala ibili den partehartzaile batek. Oihana bera ere ikasle bezala kokatu da, beste ikasleen artean. Irakaslea urduri dago, kezkati, berak prestatu duena aurrera egoki aterako ote duen pentsatzen.

Beroketarekin hasi da eta lehen buruhausteak sortu zaizkio. Nahiz eta musikaren taupadak eta dantza pausoak geroz eta hobeto lotu, noizean behin arazotxoren bat izan du. Hasiera hau errazteko Oihana bere aldamenean jarri da musikaren erritmoa markatuz eta era honetara dena ongi atera zaio.

Beroketa nola edo hala egin ondoren koreografia nagusira pasa da: “Caja beste aldera, cha cha, cha cha, chasse, chasse, patada, twist, rodilla beste aldera, manbo izquierda adelante, manbo izquierda atras, chasse, un dos”. Hori beroketa baino hobeto egin du, baino koreografia erakusteko eman behar diren urratsak

handiegiak egin ditu eta ikasleak galduta ibili dira. Oihana, batzutan arazoak dituela ikusirik, laguntzen aritu zaio.

Saioa ez da izan Oihanak emango lukeenaren berdina, baino irakasle bezala estreinatu da, berak proposatutako koreografia eginez. Kideek zoriondu eta konplizitate irribarrea eskaini diote eta Oihanak zoriondu egin du: “¡Tranquilo! ¡Que lo has hecho muy bien!”.

Irakasle bezala aritzeak beste ikuspuntu bat bizitzera eraman du eta atera duen ondorio nagusia zera izan da: irakasle bezala jardun arte ez dela bat konturatzen izango dituen arazoetaz. Irakasle bezala aritzean, saioak prestatzera behartua dago eta hau da ikastera bultzatzen duen akuiluetako bat.

Ez nian uste aerobica horrelakoa zuenik. Emakume huen praktika ikastea izugarrizkoa izan duk!

9. kapitulua **Aerobicaren azterketa**

9.1 Sarrera

Aerobica Euskal Herriko kiroldegi eta areto askotan egiten den jarduera izanik, gure azterketa aniztasun horren isla izan dadin, hiru guneetan eginikoa aztertu dugu. Ordiziako eta Gasteizko bi kiroldegitan praktikatzen direnak arakatu ditugu. Hiru tokietan aritzen diren taldeak ere desberdinak dira, saio kopurua eta ordutegiak bezalaxe. Saio horien ezaugarrietako bat idatzizko araudi baten gabezia da. Ezaugarri guzti hauek hedaturiko praktikaren ereduak dira eta esanahi soziala aztertzerako garaian esanguratsuak bihurtzen dira. Horretarako beharrezkoa izango dugu praktikaren ezaugarri guztiak sakontasunez aztertzea, burutzen den espazioarekin hasi, eta denboraren zentzua eta kideen arteko harremanak aztertuz, erabiltzen diren objektuekin bukatzeko.

9.2 Aerobicaren espazioaren azterketa

Aerobic saioak egiten diren espazioa eta honek dituen ezaugarriak beharrezkoak eta esanguratsuak egingo zaizkigu praktikaren esanahia edo zentzua ateratzekoa garaian. Aretoen ezaugarriak, eskaintzaren guneak, edo kiroldegien ezaugarriak aztertuko ditugu atal honetan, aerobicak duen espazioaren zentzua agerian utziz.

9.2.1 Aretoen ezaugarriak

Aerobica praktikatzeko aretoek izan behar duten ezaugarriei buruzko arautegirik ez dago. Tamaina, zorua edo barnean nolakoak izan behar diren ez digu arautegiak adierazten. Ohiturek eta beharrek egin dute aerobiceko aretoek ezaugarri berezi batzuk izatea.

Irudia 22: Majoriko Aretoa
Egilea: Asier Oiarbide

I. Estaliak eta itxiak

Gure behaketan topatu ditugun aretoak estaliak eta itxiak dira. Areto horiek kiroldegien barnean aurkitzen dira, ez dira areto bakarreko eraikinak. Talde bat

Estadio Fundazioko areto batean aritzen da; beste bat Ariznabarra kiroldegiko areto batean eta hirugarrena Ordiziako herri kiroldegiko gela batetan. Hiru gela horiek duten ezaugarri nagusia kanpoaldearekiko isolamendua da. Aretoak sabaia eta paretak dituzte eta bertara sartzeko ate bat gurutzatzea beharrezkoa egiten da. Hiru guneetan ezaugarri bereko aretoetan praktikatzen da aerobica.

II. Tamaina

Gela edo aretoen tamaina zehazten duen arautegirik ere ez dago. Areto bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Behaketa burutu dugun hiru aretoak neurri desberdinetakoak dira: Ariznabarrakoak 140 m^2 ditu; Majorikoak 150 m^2 eta Estadiokoak 130 m^2. Beraz hiruretan handiena Majoriko gimnasioa da eta txikiena Estadioko Salva gela. Formari dagokionez lauki edo errektangeluar itxura hartzen dute, zabalera eta luzeraren arteko diferentzia txikia izanik.

III. Zorua

Zoruari dagokionez Estadio eta Ariznabarrako gelak tarima moduko egurra dute eta Ordiziakoak material sintetikoa. Adierazgarria da areto bakar batek ere ez duela harrizko edo zementuzko zorurik. Ezaugarri horien zergatian bi arrazoi topa ditzakegu. Batetik, egurrezko edo material sintetikozko zoruak harrizkoak baino bigunagoak izaten dira eta aerobicean jauzi eta pauso asko egiten direnez jardulearen giltzadura eta giharretarako erosoagoak dira eskaintzen duten indargetzeagatik. Bestetik egurra edo material sintetikoa harria eta zementua baino material “beroagoak” gertatzen dira. Egurra gainera material bizitzat jotzen da eta goxotasun afektiboarekin lotzen da.

IV. Leihoak eta argitasuna

Areto batek, Estadiokoak, kanpoaldearekin komunikatzen diren leihoak dauzka. Beste biak ez dute kanpora ematen duten leihorik, sartu irtenerako ateak bakarrik. Leihoak izatean, Salva aretoan partaideek hala eskatuta ireki egiten dituzte barneko tenperatura jaitsi asmoz. Leihoen beste abantaila bat argitasuna da. Horrela, Estadioko aretoa argitasun handikoa da, ez dago argiak piztu beharrik aerobica egiteko. Batzutan gainera, saioaren azken zatian egiten diren luzaketetan, argitasun hau mugatu nahian, leihoak dituzten gortinak jaisten dira. Ariznabarra eta Majoriko aretoetan aurkitzen diren leihoak beste gela batetara edo

pasillora komunikatzen dute. Horren ondorioz, bi gela hauetan beharrezkoa egiten da saioa burutzeko argiak piztea. Hiru aretoetan aurkitzen diren argiak fluoreszente motakoak dira. Argi hauek begiarentzako oharkabeki pasatzen diren maiztasun handiko izpiak jaurtitzen dituzte. Areto bakoitzean horrelako hamar edo hamabi bonbilla daude.

V. Zutabeak

Estadioko Salva aretoak beste bietatik bereizten duen ezaugarri bat du: zutaberik eza. Majori eta Ariznabarrakoak, gelaren erdian eraikin nagusiko habeak dituzte. Majoriko aretoak lau ditu eta hormigoizko zilindrikoak dira; Ariznabarrakoak bi ditu eta hauek burdinazkoak dira. Zutabe hauek betetzen duten tokia gelaren metro karratuei kendu beharko litzaioke, aerobic egiteko erabilgarria den azalera zehatz-mehatz jakiteko.

Zutabe bakoitzaren zirkulu osoan metro bat kentzen badugu gela bakoitzaren tamaina berraztertzen dugu eta modu honetara Majoriko gelak 137 m^2 erabilgarri izango lituzke eta Ariznabarrakoak 133 m^2. Estadioko Salva aretoak zutaberik ez duenez, ez dago horien araberako espazio erabilgarriaren berraztertzerik egin beharrik.

Aerobiceko koreografia egiteko orduan bi motatako eragozpena sortu dezakete zutabe hauek. Batetik espazioa mugatu, dantza pausoak txikiagoak egitera behartuz eta begiralea edo kideak ikustea oztopatuz. Bestetik jarduleak habea kolpatu eta min hartu. Zutabe hauek jo ezkero sortu daitezkeen zauriak ekiditeko zorutik hasi eta metro eta erdi altueraraino goma bigunez eta moketa bidez estaliak daude.

VI. Koloreak

Hiru aretoek sabaia zuri kolorez margotua dute. Zuritasun honek, leihorik ez dagoen aretoetan, lagundu egiten du gela argitzen. Sabaian kokatuta dauden argiak ere kolore zuriko izpiak jaurtitzen dituzte. Geletako zorua berriz, Ariznabarrakoak eta Estadiokoak egurrezkoa izatean marroia dute eta Majorikoa berde argia da. Paretak era desberdinean agertzen zaizkigu hiru aretoetan. Salva aretoan lau paretetatik bi leihoak betetzen dituzte: batzuk kanpoaldearekin komunikatuz eta beste batzuk barneko beste gela batekin. Hirugarren pareta gorri

kolorekoak diren panel mugikorrak osatzen dute eta laugarrena armairu batek eta ispiluak betetzen du. Majorin hiru pareta zorutik ia bi metrotaraino kortxoz estaliak daude eta handik gora zuriz pintatuak. Laugarrena bi metro inguruaraino ispiluak betetzen du eta altuera horretatik gora zuriz margotua dago. Ariznabarran ispilua aurkitzen den paretaz gain beste guztiak zuriz pintatuak daude. Hiru salak kontutan hartzen baditugu kolore zuria da nagusi nahiz eta puntualki zorua eta paretaren bat beste kolore batekoa izan.

Taula 10: aretoen ezaugarriak

	Estadio Salva aretoa	**Ariznabarra gimnasioa**	**Majori gimnasioa**
Egoera	Estalia eta itxia	Estalia eta itxia	Estalia eta itxia
Tamaina (m^2)	130	140	150
Leihoak kanpora	Bai	Ez	Ez
Zutabeak	Ez	2	4
Zutabeekin espazio erabilgarria (m^2)	130	133	137
Koloreak (sabaia / zorua)	Zuria / Marroia	Zuria / Marroia	Zuria / Berdea
Ispilua	Bai: bi paretetan	Bai: pareta batean	Bai: pareta batean

9.2.2 Aerobic guneak eta kiroldegien kokapena

Aerobicaren praktikan hiru gune desberdinetan jardun dugu; horietatik bi Gasteizen aurkitzen dira eta hirugarrena Ordizian. Gasteiz Arabako hiriburua da eta 2008ko urtarrilaren 1ean 232.477 biztanle zituen (Instituto Nacional de Estadística). Arabako hiriburua izateaz gain, EAEko hiriburu administratiboa ere bada. Aerobicaren behaketa Ariznabarrako kiroldegi eta Estadio Fundazioan egin dugu.

Hirugarren jardun gunea Ordizian izan da. Ordizia Gipuzkoako Goierri eskualdean kokatuta dagoen herria da eta 9.758 biztanle zituen 2008ko urtarrilaren 1ean (Instituto Nacional de Estadística). Bertan, Majori izeneko herri kiroldegia izan da gure behaketa leku.

Taula 11: lurralde eremuaren ezaugarriak

	Gasteiz	**Ordizia**
Lurraldea	Araba	Gipuzkoa
Izaera	Hiriburua	Herria
Biztanleak	232.477	9.758

Aerobica egiten aritu garen hiru guneen kokapena aztertzean beha daiteke hirurak erdiguneetatik aldenduta daudela hiriak edo herriak osatzen duen perimetroan aurkitzen direlarik. Gasteizko alde zaharra hartzen badugu hiriko erdi gunetzat, Ariznabarra eta Estadio bertatik urrun gelditzen dira. Biak, etxe multzoak amaitzen diren tokian kokatuta daude; hiriko hego mendebaldean.



Irudia 23: Estadio eta Ariznabarra kiroldegien kokapena Gasteizen
Iturria: (Vitoria-Gasteizko Udala)

Ordiziako kiroldegia ere herriko erdiko gunetik at gelditzen da, iparraldera kokatzen diren azken etxe multzoen inguruan kokatuz.

Irudia 24: Ordiziako kiroldegiaren kokapena
Iturria: (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2008)

9.2.3 Kiroldegien instalakuntzak

Aerobica egiteko noloko instalakuntzak behar diren aztertu behar dugu. Ohitura eta azturak dira aerobic jarduleek jarraitzen dituzten irizpide arauak. Instalakuntza batzuen erabilpena beharra bihurtu da. Aerobica jarduera fisiko desberdinak egiten diren eraikinen barrenean praktikatzen da eta gune hauek azaleratuko dizkigute aerobica egitean erabiltzen diren instalakuntzen ezaugarriak.

Aerobiceko behaketa egin dugun kiroldegi hauek (Estadio Fundazioa, Ariznabarra eta Ordiziako Majori kiroldegia), hainbat jarduera fisiko desberdin egiteko erabiltzen dira. Beraietan dauden areto eta zelaiak bi multzotan banatu ditzakegu: estaliak eta estali gabeak. Estalitakoak gehien agertzen dituena

Estadio Fundazioa da, guztira hamabi instalakuntza mota dituelarik, Ordiziakoak zazpi ditu eta Ariznabarrakoak zortzi. Aipatu ditugun hiru kiroldegi horietatik batek ez du estali gabeko instalakuntzarik: Ariznabarrakoak. Ordiziakoak eta Estadio Fundaziokoak biak estali gabeko instalakuntza batzuk badituzte, Estadiok hamar eta Majori kiroldegiak hiru. Kanpoan, aire librean, dauden instalakuntza hauetan ez da aerobic saiorik egiten.

Kiroldegiek barnean estalita dituzten instalakuntzak gehiago dira estali gabeak baino, Estadiok hamabi eskaintzen ditu, Ariznabarrak zortzi eta Majorik zazpi. Estalitako areto hauetan egiten da aerobica eta gela hauek hiru kiroldegietan hartzen duten deitura hau da: Salva gela Estadion, gimnasioa Ariznabarran eta gimnasioa ere Majorin.

Taula 12: kiroldegien instalakuntzak

	Estaliak		**Estali gabeak**	
Estadio Fundazioa	Frontoia Jolastokia Ping-pong gela Igerileku estalia Pinguinoen igerilekua Squash zelaiak Tenis zelaiak	Fitness gela Boulder gela Salva gela Tanis gela Sauna Lurrin bainua	Futbol zelaia Golf zelaia Frontoiak Haur jokoak Ping-pong gela Jauzi igerilekua	Igerileku olinpikoa Haurren igerilekua Saskibaloi zelaiak Paddel zelaiak Tenis zelaiak
Ariznabarra kiroldegia	Rokodromoa Kirol anitzetako pista Gihartze gela Gimnasioa	Patinatzeko pista Gimnasioa 2 Squash pistak Frontoiak		
Ordiziako kiroldegia	Kirol anitzetako gela Rokodromoa Squash pistak Gihartze gela	Igerilekua Gimnasioa Gimnasioa 2	Igerilekua Tenis zelaiak	Paddel zelaiak

9.2.4 Atseden hartzeko lekuak

Aerobic eskaintzen den kirol zentroetan aurkitzen diren kirol instalakuntzez gain badaude beste eremu batzuk kirolarekin zerikusirik ez dutenak baino kiroldegiko instalakuntzak direnak. Horien artean atseden edo aisiarako guneak nagusitzen dira, bertara hurbiltzen diren pertsonak beste zerbitzu batzuetaz goza dezaten; gune horiek taberna edo kafetegia bat dute ikur.

Gure behaketa burutu dugun Ordiziako Majori eta Gasteizko Estadio Fundazioan taberna-kafetegiak aurkitzen dira. Jarduera fisiko desberdinak egitera joaten direnak aukera dute bertan zerbait hartzeko eta lagunekin edo beste parte-hartzaile batzuekin hitz egiteko. Ariznabarrako kiroldegian ez dago tabernarik eta denbora pasarako gune berezirik ere ez. Jarduera fisiko desberdinak egiteko erabiltzen diren instalakuntzez gain pasilloak, aldagelak eta dutxak betetzen dute kiroldegia.

Majori eta Estadioko tabernetara joateko beharrezkoa da kirol zentroetara sartzea. Majoriko tabernara edozein sartu badaiteke ere, bazkideak ez direnak barne, Estadiokora bazkideak bakarrik sartu daitezke. Bietan ezaugarri nagusia kokapena da: aldageletako bidean daude eta beraien aldamenetik pasatu beharrean dago praktikaren bat egitera doan partehartzailea.

Tabernaz gain, aipatzekoa da instalakuntza desberdinak lotzeko eginak dauden korridoreetan iturri txiki batzuk ere badaudela. Estadioko Salva aretoaren kanpoaldean botoi bat sakatuz ura isurtzen duen iturri bat aurkitzen da. Majori kiroldegian ere aerobic aretora daramaten eskailerak hasten diren gunean iturri bat aurkitzen da eta honek ere botoi bat sakatuz ura jaurtitzen du. Ariznabarrako kiroldegian berriz ez dago iturririk aerobic aretoaren inguruan eta korridoreetan ere ez dugu antzeman.

9.2.5 Aerobic aretoetan egiten diren beste jarduerak

Aerobica egiten den aretoetan beste jarduera batzuk ere praktikatzen dira. Estadioko Salva izeneko aretoan aerobicaz gain egiten diren jarduerak hauek dira: aretoko dantzak, capoeira, hip hop, pilates, tai chi, tango argentinarra, estresaren

aurkako terapia, txiki erritmoa eta yoga. Ariznabarran berriz hauek praktikatzen dira: mantentze gimnasia, tai chi, yoga, egoera fisikoa, gorputz jarrera lantzeko gimnasia eta psikomotrizitatea. Eta Ordiziako Majori kiroldegiko gelan beste jarduera hauek egiten dira: mantentze soinketa, judo, euskal dantzak eta baleta.

Beraz behaketa egin dugun hiru aretoetan praktika desberdinak egiten dira. Hiru aretotan errepikatzen den bakarra aerobica da. Bi aretotan eskaintzen diren jarduerak hauek dira: mantentze soinketa, tai chi, yoga eta dantza mota desberdinak (aretoko dantzak, capoeira, hip hop, tango argentinarra eta euskal dantzak). Guztira hamasei jarduera desberdin egiten dira hiru aretoetan.

Jarduera gehien egiten diren aretoa Estadiokoa da, guztira hamar jarduera eginez Salva izeneko aretoan. Ariznabarrako gimnasio deiturikoan zortzi dira eta Majoriko gimnasioan bost.

Taula 13: aerobic egiten den areto berean egiten diren praktika fisikoak

Estadio Fundazioa	Aerobica Hip Hopa Tango argentinarra	Aretoko dantzak Pilatesa Txikiritmoa Estresaren aurkako terapia	Capoeira Tai Chia Yoga
Ariznabarra kiroldegia	Aerobica Yoga	Mantentze soinketa Egoera fisikoa Gorputz jarrera lantzeko gimnasia	Tai Chia Psikomotrizitatea
Ordiziako kiroldegia	Aerobica	Baleta Euskal dantzak Mantentze soinketa	Judoa

Hiru aretoetan egiten diren egoera motorren ezaugarriak kontutan hartuta aktibitate bakar bat da jarduleen arteko oposizioa agertzen duena: judoa. Judoa bi borrokalari elkarren artean aritzean datza. Praktika hori aerobic egiten den Majori kiroldegiko areto berdinean praktikatzen da. Hiru aretoetan egiten diren beste jarduera guztiak kideen arteko lankidetzan edo bakarka egiten dira. Bakarka

egiten direnen artean aurkitzen ditugunak hauek dira: pilates, tai chi, estresaren aurkako terapia, mantentze soinketa, egoera fisikoa, gorputz jarrera lantzeko gimnasia, psikomotrizitatea eta yoga. Kidearekin kooperatuz egiten direnak: aerobica, capoeira, hip hopa, tango argentinarra, txiki erritmoa, euskal dantzak eta baleta.

Hamasei jarduera hauen barne logika kontutan hartuz bakarka, kide edo arerioarekin egiten direneko ehunekoak atereaz, ohartu gaitezke hiru aretoetan egiten diren jardueren %50 bakarka egiten direla; %44 kidearekin kolaboratuz eta ehuneko sei arerioa izanez.

Aretoei dagokienez Ariznabarrakoan aerobica ezik beste guztiak bakarka egiten diren jarduerak dira. Estadioko Salva aretoan hamar jardueretatik seietan kidearekin kolaboratzen da eta lau egiten dira indibidualki. Ordiziako Majorin berriz hiru, kidearekin kooperatuz egiten dira, bakarra da arerioduna eta bakarra ere indibidualki egiten dena.

9.2.6 Dantza pausoak

Aerobica dantza pauso batzuk lotuz eginiko koreografia batetan oinarritzen da. Espazioan eginiko mugimendu desberdinen kateatze bat ematen da eta mugimendu multzotxo bakoitzak dantza pausoen figura bat osatzen du. Egin beharreko dantza pausoak zehazten dituen araudirik ez dago, baina hala eta guztiz pauso batzuk badira aerobic saioetan errepikatzen direnak eta begiraleen ustez oinarrizkoak direnak.

Oinarrizko dantza pausoak saio guztietan agertzen dira eta gainera batzuetan horiek bakarrik egiten dira, baina horrek ez du esan nahi koreografiak berdinak direnik. Oinarrizko pauso horiek konbinaketa asko izatea ahalbideratzen dute eta begiralea etengabe koreografia desberdinak egiten saiatzen da. Dantza pauso berdinak jira biran edo plano espazialak aldatuz egin daitezke, nahiz eta pausoak berdinak izan. Pauso horiek bueltak emanez ere egin daitezke, edo planoz aldatuz, edo egitura espaziala aldatuz, baina egin beharreko mugimenduak berdinak dira. Aerobic jarduleek oinarrizko deitzen zaien dantza pauso horiek

menperatzen dituztenean, errazago egiten zaie koreografia ikastea eta azkarrago barneratzen dute dantza pausoen kateatzea.

Behaketa egin dugun hiru taldeetan ere oinarrizko dantza pausoak egon dira eta irakaslea arduratu da dantza pauso horiek irakasteaz. Guk oinarrizko hamalau dantza pauso behatu eta ikasi ditugu eta nahikoak izan dira, koreografia konbinazio handiak ateratzeko, irakasle bakoitzak nahi dituen pausoak aukeratu baititzake. Hemen azaltzen ditugu Ariznabarrako saio batean eginiko koreografia osatzen duten dantza pausoak, dagozkien ordenean: “chassep, caja, V, lado, Viña izquierda manbo, tocar viña derecha manbo, tocar izquierda derecha, patada, un dos izquierda derecha, rodilla, viña izquierda manbo, izquierda lado, derecha lado giro eta buelta”. Majori, Ariznabarra eta Estadioko aretoetan egin diren oinarrizko dantza pausoak berdinak izan dira eta gehiago zehaztuz esan dezakegu Majorin oinarrizkoak besterik ez direla egin eta Ariznabarran eta Estadion oinarrizkoez gain besteren bat.

Taula 14: oinarrizko dantza pausoak

Marcha	Manbo
V	Chassep
Step - Touch	Lunge
Viña	Cha cha
Femoral	Caja
Rodilla up	Twist
Rodilla step	Triple rodilla

Hiru aretoetako aerobic saioetan aipatu ditugun pauso hauek etengabe errepikatu dira, horietatik kanpo beste dantza pauso gutxi batzuk eginez. Horietako bat, oreinaren jauzia izeneko pausoa da. Partehartzaileek oreinak egiten dituen jauzien antzeko saltotxo bat egiten dute. Dantza pauso hori

Ariznabarran eta Estadio aretoetan egin da eta hanka bat aurreratuz eta bestea atzeratuz jauzi egitean datza.



Irudia 25: “V” dantza pausoa ezker aldera egina

9.2.7 Partehartzaileen kokapena

Areto batera sartzean, aerobiceko parte-hartzailea gelako edozein tokitan kokatu daiteke. Ez da zehazten parte-hartzaile bakoitza gelako zein gunetan kokatu behar den eta, printzipioz, bakoitzak nahi duen tokian jartzeko aukera du.

Baina baieztapen horren atzean irizpide batzuk jarraitzen dira eta jarduleen kokagune orokorra bi elementuk baldintzatzen dute: begiraleak eta ispiluak. Aerobic parte-hartzaileak irakaslearen atzean kokatzen dira eta hau ispiluaren aurrean. Beste guztiak baino aurrerago eta ispiluari begira bere ilaran bera bakarrik dagoela, irakaslea jarduleek osatzen duten irudiaren aurrealdeko erpina da.

Irakasleari jarraituz parte-hartzaileak gelaren zabalera kontutan izanda ilaratan kokatzen dira. Ilara bakoitzean lau edo bost egotea ohikoa izaten da. Ilara arteko distantzia gelaren azalera eta parte-hartzaile kopuruaren arabera aldatu egiten da parte-hartzaile bakoitzak duen espazioara egokituz.

Taula 15: aerobic taldearen kokapen irizpideak

Partehartzailea	Planoa	Formazioa
Irakaslea	Ispiluari begira	Jardule ikasle guztien aurrean
Ikasle jarduleak	Irakaslearen atzean ispiluari begira	Irakaslearen atzean hiru edo lau pertsonako ilarak osatuz

Behaketa egin dugun hiru aretoetan ere aipatu bezala kokatu dira begirale eta parte-hartzaileak. Ispiluari begira, begiralea gertuen eta honen atzetik beste guztiak gelaren araberako ilarak osatuz. Nahiz eta saioa hasteko egoera hori izan, hiru aretoetan eta saio batzuetako tarteetan, kokapen hau aldatu egin da, eta ispiluari begira aritu beharrean beste pareta baten aurrez-aurre aritu dira. Era berean, irakaslearen atzean aritu beharrean bere parean egin dituzte koreografiak.

Aerobic taldearen kokapen orokorra irakasle eta ispiluak gidatzen duten bezala jardule bakoitzak ere gune bat betetzen du aretoan. Baina taldearen kokapenarekin pasatzen den bezala kasu horretan ere ez dago arau idatzirik jardule ikasle bakoitza jarri behar den tokia zehazten duenik. Araudirik egon ez arren partehartzaile bakoitzaren kokagunea gidatzen duen printzipioa bat agertzen da.

Aerobic saioko parte-hartzaileak gelara ez dira denak batera etortzen, ezarritako ordurako banaka edo binaka gelara sartzen joaten dira. Baina aretora sartzeko ordenu kronologiko hau ez da aplikatzen ilaratan jartzeko garaian: Estadioko Salva aretoan lehenengo ilaran lau pertsona jartzen dira gehienez, sarritan hiru jarri izan direlarik. Hiru pertsona horiek beti berdinak izan dira. Nahiz eta beste pertsona batzuk lehen ilaran jartzen direnak baino lehenago etorri, hiru emakume horiei utzi izan zaie lehen ilarako lekua. Ariznabarran ere berdin pasatu da, bi emakume jakin saio guztietan lehen ilaran egonez. Eta Ordizian ere berdin eta gainera saioa hasi baino lehen eta aurreneko ilaran jarri diren pertsonen faltan, galderak luzatu dituzte beraien artean falta diren pertsonak aldagelatan sumatu dituzten jakiteko.

Estadion eta Ariznabarran lehen ilaran jarri direnak koreografia hobekien menperatzen dutenak izan dira, trebeenak, beraien maila kontutan izanik besteen aurretik jartzeko lotsarik izateko arrazoirik ez dutenak, irakaslearen pausoak akatsik gabe jarraitzeko gai direnak. Beraz bakoitzaren dantza maila izan da, lehen ilaran eta ondoz-ondo jarraitzen duten ilaratan jarduleen kokapena gidatu duena.

Ordizian hau ez da esanguratsua izan parte-hartzaileek egin dituzten asistentzia hutsak asko izan direlako eta Majoriko saio gehienetan lau edo bost lagun elkartu direlako, oso gutxi beste aretoekin konparatuz. Era berean beraien artean konfiantza gehiago egotean trebeenak direnak maila baxuena dutenei lehen ilara utzi diete. Kontutan izan behar da gehienez ere bi ilara egon direla, denak irakaslearengandik gertu egonez.

Taula 16: jardule ikasle bakoitzaren kokapen irizpideak

Ilara ordena	Aerobic trebetasun mailaren arabera aurretik atzeraka ilaratan
Gunea	Jardule bakoitzari bere eguneroko gunea gordetzen zaio

Norberak duen trebeziaren arabera kokatzeko irizpide hau guk geuk ere jasan izan dugu: lehen saioetan inork ezer esan gabe atzeko azken ilaretan kokatzean eta denboraldia aurrera joan ahala, eta gure aerobic jarduna hobetzean, aurreko ilaratara pasatuz.

Hiru taldeetako parte-hartzaileak beraz kokapen printzipio hau jarraitu dute: ispilua, irakaslea eta parte-hartzaileak. Kokapen hierarkia hori norberaren aerobic trebetasunaren arabera moldatzen delarik.



Irudia 26: partehartzaileek aretoan hartzen duten kokapena

Partehartzaile bakoitzak leku bat hartu duenean toki horretan mantentzen da saio guztian zehar. Hiru aretoetan norberak hasieran hartu duen tokia errespetatu egin da, baita dantza pausoak egiteko garaian ere.

9.2.8 Aretoaren izaera espaziala

Aerobica, aurrez aipatu dugun bezala kiroldegi eta areto barnean praktikatzen da. Gela horiek sabai batez estalita eta pareta, ate eta leihoz itxita daude. Gasteizko bi aretoak eta Ordiziakoak ezaugarri hau betetzen dute. Sala edo gelaren egoera ez dira aldatzen egun batetik bestera, edo saio batetik bestera: zorua egunero berdin aurkitzen da nahiz eta kanpoan euria egin, argitasuna ere berdina izango da nahiz eta kanpoan ilun egon; Ariznabarra edo Majoriko zutabeak ez dira tokiz aldatzen eta Estadioko zoruak egunero labaintasun berbera izango du.

Egoera horretan aerobic partehartzaileak ez du etengabe espazioan aurkitzen diren elementuen informazioa jaso eta interpretatzeko beharrik. Nahikoa du aretora sartzen den lehen egunean bere buruan egoeraren berri jasotzea: zorua, tamaina, altuera, koloreak… Bigarren egunean guztia berdin aurkituko du, aldatu gabe. Egoera horietan jardulea ez dago etengabe espazioaren arabera egokitzen eta nagusiki estereotipo motorra landuko du: errepikapenen bidezko exekuzioa.

9.3 Aerobiceko denbora

Areto edo kirol zentro batetako aerobic talde baten saioak egutegi baten arabera antolatzen dira. Urteko zein hilabetetan edo asteko zein egunetan egiten diren saioak esanguratsua gertatuko zaigu jardueraren denboraren zentzua aztertzeko garaian. Era beran saio bakoitzak iraupen bat izango du eta beharrezkoa izango da sailkapen eta irabazlerik dagoen aztertzea. Guztia sakontasunez jorratzea beharrezkoa egingo zaigu aerobicaren denboraren ildo nagusia arakatzeko garaian.

9.3.1 Aerobic denboraldia

Kiroldegi eta kirol zentro desberdinetan eskaintzen den aerobicak ez du aurrez instituzio federatu batek zehaztutako egutegirik. Aerobic federakuntzak erakusketa eta lehiaketen egutegia zehazten badu ere, kiroldegi eta zentro desberdinetan praktikatzen den aerobicaren egutegia beste irizpide batzuen arabera antolatzen da. Guk behaketa egin dugun taldeen praktikak azken multzo horretan sartzen direnez egutegiak beste zenbait arrazoiei erantzuten die.

Gure hiru taldeetatik bietan, Ariznabarra eta Estadion, aerobic saioak irailean hasten ziren eta ekainean amaitu. Ordiziako Majorin ere saioak irailean hasten ziren, baina uztailaren erdi aldera arte luzatzeko aukera zegoen, nahiz eta azkenik horrela ez gertatu partehartzaileek asistentzian huts egin zutelako. Udako hilabeteetan eten egiten dira saioak eta irailean edo urriaren hasieran berriro hasi.

Guztira, bederatzi hilabete dira eta urtaroei dagokionez udazkena, negua eta udaberria hartzen ditu. Denboraldi guzti horretan zehar etenaldi txiki batzuk gertatzen dira: Eguberrietan eta Aste Santuan, eta berriro, egun horiek pasatzean asteroko dinamikan jarraitzen da. Estadio, Majori eta Ariznabarran horrela gertatu zen. Eguberrietako etenaldia Gabon aurretik hasi zen eta Errege Eguna pasa eta gero amaitu. Aste Santukoa berriz desberdina izan zen hiruretan; Estadio eta Ariznabarran Ostegun Santutik Pazko Astea pasa arte iraun zuen bitartean, Majorin Pazko Astean saioak izan ziren. Aipatu behar da egun horien aurretik asistentzi jaitsi egin zela. Adibidez Aste Santuko astelehen, astearte eta asteazkenean Estadion izan ziren jardule kopurua ohikoa baino txikiagoa izan zen.

Aerobic denboraldi honek eskoletako ikasturtearekin bat egiten du. Eskolan ikasleak oporrak dituztenean aerobic saioak eten egiten dira. Era berean, ikasturte berria irailean hasten da eta ekainean amaitu. Beraz, parekotasuna ukaezina da.

9.3.2 Saioen maiztasuna eta egunak

Denboraldian zeharreko aste bakoitzean, aerobic talde bakoitzak hainbat bider eta egunetan burutzen ditu saioak. Astean zenbat bider egiten duten aerobica eta zein egunetan, talde batetik eta gune batetik bestera aldatu egiten da. Estadio Fundazioan aritzen den taldeak astean bi alditan egiten du aerobica, Ariznabarrakoak ere bitan eta Majorikoak astean hirutan. Beraz guk behatutako talde hauek astean bi edo hiru aldiz burutzen dituzte aerobic saioak.

Asteko egunei dagokienez ere talde batetik bestera aldatu egiten da, baino hirurak oinarrizko ezaugarri komun bat betetzen dute: saio guztiak astegunez burutzen dira. Aste bukaeratan ez da aerobic saiorik eskaintzen eta egiten. Asteko egutegi honek lan egutegiarekin bat egiten du: lan egunetan aerobic egiten da eta jaiegunetan ez dago saiorik. Estadioko taldea astearte eta ostegunetan biltzen da praktika egiteko, Ariznabarrakoa astelehen eta asteazkenetan eta Ordiziakoa astelehen, asteazken eta ostiraletan.

Taula 17: aerobic egutegia, maiztasuna eta egunak

	Denboraldia	Asteko maiztasuna	Egunak
Ariznabarra	Irailetik ekainera	Bi aldiz	Astelehena eta asteazkena
Estadio	Irailetik ekainera	Bi aldiz	Astearte eta osteguna
Majori	Irailetik uztailera	Hiru aldiz	Astelehena, asteazkena eta ostirala

9.3.3 Aerobic saioen ordutegiak

Behaketa egin dugun kirol zentro eta kiroldegietan aerobic eskaintza ez da mugatzen gure taldeek dituzten egun eta ordutegietara. Ariznabarra, Estadio eta Majorin aerobic eskaintzaren ordutegia zabala da eta jarduera fisiko hau egin nahi duen jendeari aukera anitza ematen zaio, egokien etortzen zaion egun eta orduetan praktikatzeko.

Ordiziako Majori kiroldegian astean zehar bost egunetan eskaintzen dira aerobic saioak, aste bukaeratan izan ezik beste egun guztietan aerobic egiteko aukera egonez. Baina hau ez da nahastu behar astean zeharreko maiztasunarekin. Behin ordutegi bat duen talde batean izena eman ondoren talde horrek aerobic egiten duen egunetan praktikatu behar da. Gure taldeak hiru egunetan praktikatzen du: astelehen, asteazken eta ostiralean. Eta bai egunak eta baita maiztasuna ere, partaide guztiek errespetatzen dute. Baino badaude astean bi saioko maiztasuna duten taldeak ere. Beraz Ordiziako Majori kiroldegian aerobic saioen eskaintzaren maiztasuna bi eta hiru egun artean banatzen da.

Eskaintzaren ordutegiak berriz bi multzotan zatikatzen dira: goizekoak eta arratsaldekoak, bien artean eskaintzaren etenaldi bat dagoelarik. Goizekoen eskaintza 8:30etan hasten da eta 10:30etan amaitu. Arratsaldeetan 15:00etan da lehen saioa eta azkena 21:00etan bukatzen da. Bi txanda handi hauen artean saio bat eguerdian kokatzen da arratsaldeko ordutegitik gertuago, baina aurretik edo atzetik saiorik izan gabe: 13:30etatik 14:30etara. Baina saioen benetako etenaldia 10:30etatik 13:30etara bitartean ematen da. Tarte horretan Majori kiroldegiak ez du aerobic saiorik eskaintzen. Gure taldearen ordutegia arratsaldean izan da: 17:00etatik 18:00etara. Aipatzekoa da kiroldegi horrek daukan ordutegi eta talde eskaintza zabala: zazpi ordutegi desberdinetan aerobic taldeak dabiltza aerobic egiten.

Estadio fundazioak egiten duen eskaintzan asteko lau egun agertzen dira: astelehena, asteartea, asteazkena eta osteguna. Hemen ere aste bukaeratan ez dago saiorik eta Ordiziako kiroldegiarekin konparatuz ostiraletan ere ez. Estadioko gure taldeak astearte eta ostegunetan egiten ditu saioak. Saioen maiztasuna,

berriz, bi egunetara mugatzen da: osatutako talde guztiak astean bi egunetan egiten dute aerobic.

Ordutegiei dagokienez Estadion eguneko bi zati handitan banatzen da eskaintza. Goizean saioak 8:00etan hasi eta 10:30etan amaitzen dira tartean erdiko atsedena egonez, eta arratsalde iluntzean 19:30etan hasi eta 21:30etan bukatu. Eta Ordiziako kiroldegian gertatzen den bezala hemen ere eguerdian aurretik eta atzetik saiorik ez duen talde bat sartzen da 14:00etatik 15:00etara. Gure taldearen ordutegia 9:30etatik 10:30ak bitartekoa izan da. Kirol zentro honetan bost ordutegi desberdinetan burutzen dira aerobic saioak.

Ariznabarrako kiroldegiaren aerobic eskaintza, Estadion bezala, asteko lau egunetara mugatzen da. Kasu honetan, besteetan bezala, aste bukaeratan ez dago saiorik eta asteartetan ere ez. Talde bakoitzak duen asteko aerobic maiztasuna asten bi alditakoa da. Hau da, talde batean izena eman ondoren astean bi saio burutzen dira. Guk behaketa egin dugun taldeak astelehen eta asteazkenetan burutu ditu saioak.

Ariznabarrako eskaintzaren ordutegia ere bi multzotan zatitzen da, baina kasu honetan ordutegia eta, ondorioz, talde eskaintza besteetan baino urriagoa da, goizez saio batera eta arratsaldez beste batera mugatuz. Goizeko saioak egunen arabera 9:30etan edo 10:30etan hasten dira eta 10:30etan edo 11:30etan amaitu. Arratsaldeko saioak bi egunetan 18:00etatik 19:00etara dira eta beste bietan 20:30etatik 21:30etara. Gure taldearen ordutegia 10:30etatik 11:30etara izan da. Kiroldegi honetan eguerdian ez da saiorik eskaintzen.

Taula 18: aerobic saioen maiztasuna, egunak eta ordutegiak

	Saioen maiztasuna	Asteko eguna	Ordutegiak
Ordizia	3 egun	Astelehena, asteazken eta ostirala	8:30 - 9:30
			9:30 - 10:30
			13:30 - 14:30
			15:00 - 16:00
			17:00 - 18:00
			19:00 - 20:00
			20:00 - 21:00
	2 egun	Asteartea eta osteguna	19:00 - 20:00
			20:00 - 21:00
Ariznabarra	2 egun	Astelehena eta asteazkena	10:30 - 11:30
			18:00 - 19:00
			9:30 - 10:30
		Osteguna eta ostirala	20:30 - 21:30
Estadio	2 egun	Astelehena eta asteazkena	20:30 - 21:30
		Asteartea eta osteguna	8:00 - 9:00
			9:30 - 10:30
			14:00 - 15:00
			19:30 - 20:30
			20:30 - 21:30

Eskaintzaren ordutegiak aztertu ondoren komenigarria da azaltzen diren ezaugarri komun batzuk aztertzea. Hasteko, aipatu behar da kirol zentro horietan aste bukaeratan ez dela aerobic saiorik eskaintzen. Asteguneko bost egunetan aurkitzen dugu saioen eskaintza, baina larunbat edo igandean ez dugu saio bakar bat egiteko aukerarik.

Eskaintzaren maiztasuna bi edo hiru egunetara mugatzen da. Asteko beste egunetan talde bakoitzak ez du aerobic saiorik burutzen. Saio gehiagotan parte hartu nahi baldin bada, guk gure behaketan egin dugun bezala ordutegi desberdinetan dabiltzan taldeetan izena eman beharko da.

Bestalde ordutegiei dagokienez, hiru zentroetan bi multzotan eskaintzen dira saioak eta bien artean eskaintzaren etenaldi bat dago. Eguerdian saio bat

eskaintzen duten Estadio eta Majori kontutan hartuta 10:30etatik 13:30ak edo 14:00ak bitartean ez da saiorik eskaintzen. Ariznabarran etenaldia handiagoa da eguerdian ez baita aerobic praktikarik burutzen. Eguneko saioak hasteko eta bukatzeko orduak ere jakinak gertatzen dira hiru kiroldegietan. Saioen eskaintzaren hasiera 8:00ak eta 8:30ak bitartean ematen da Majorin eta Estadion eta Ariznabarrakoak 9:30etan hasten dira. Saioen eskaintzaren bukaera 21:00ak eta 21:30ak bitartean ematen da.

Taula 19: aerobic eskaintzaren ordutegi, egun eta maiztasunaren ezaugarriak

Noiz	**Egun kopurua**	**Ordutegiak**	
		Estadio eta Majorin	Ariznabarran
Astegunez	Bi edo hiru	8:00 - 10:30 13:30 - 21:30	8:00 - 11:30 18:00 - 21:30

Eskaintza horretan gure behaketa burutu dugun taldeen ordutegia ere azaltzen da. Ariznabarrako taldea asteko bi egunetan aritzen da: astelehen eta asteazkenetan. Ordutegiari dagokionez 10:30etatik eta 11:30etara bitartean burutzen dituzte saioak. Estadioko taldea ere astean bi aldiz aritzen da, astearte eta ostegunetan, goizeko 9:30etatik 10:30etara. Majoriko taldea berriz astean hirutan aritzen da, astelehen, asteazken eta ostiraletan, arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara.

Taula 20: aerobic taldeen egunak eta ordutegiak

Taldea	**Egunak**	**Orduak**
Ariznabarra	Astelehen eta asteazken	10:30-11:30
Majori	Astelehen, asteazken eta ostiraletan	17:00-18:00
Estadio	Astearte eta ostegunetan	9:30-10:30

9.3.4 Irakasleen aerobic egutegi eta ordutegia

Saio guzti horiek eskaintzeko kiroldegiek zuzenduko dituzten begiraleak behar dituzte. Aerobic begiraleak dira eskaintza guzti horren saioak zuzentzen dituztenak. Begiraleak hainbat saio zuzendu ditzake jarraian, baina joera dago talde bakoitzak irakasle berarekin burutzea denboraldiko saio guztiak. Begirale batzuk kiroldegi desberdinetan ere aritzen dira, saioak zuzentzera egun berean batetik bestera joanez eta ordutegi malgu bat betez.

Taula 21: Ariznabarra eta Estadioko begiralearen asteko ordutegia

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
9:00 - 10:00					
9:30 - 10:30					
10:30 - 11:30					
11:30 - 12:30					
15:00 - 16:00					
19:00 - 20:00					
20:00 - 21:00					

Guk behaketa egin dugun hiru taldeetan bi irakasle izan ditugu eta batek bi kirol zentroetan zuzendu ditu saioak. Ariznabarra eta Estadion irakasle bera izan da aerobic taldea gidatu duena. Begirale honek toki desberdinetan zuzentzen du aerobica eta astegunetako egun guztietan guztira hamasei saio zuzentzen ditu. Saio horien artean aerobicaz gain egoera fisikokoak ere badaude. Ordiziako Majoriko irakasleak astean zazpi talde gidatzen ditu, guztira hamazazpi saio burutuz. Irakasle bakoitzak saioak dituen egun bakoitzean batezbeste hiru aerobic praktika zuzentzen ditu.

Taula 22: begiraleen saio kopurua eta egunak

	Irakaslearen asteko saio kopurua	Asteko egunak
Ariznabarra eta Estadio	16	Astelehenetik ostiralera egunero
Majori	17	Astelehenetik ostiralera egunero

9.3.5 Aerobiceko saioaren iraupena

Kiroldegien eskaintzan azaltzen diren ordutegiak aerobic saioak ordu beteko iraupena duela agertzen da. Adibidez 9:00etan hasi eta 10:00etan amaitu. Hori da kirol zentroek adierazten duten iraupen ofiziala. Baina behatutako taldeetan ez da ordu beteko iraupen hori bete. Ariznabarra, Majori eta Estadioko aretoetan saioak berrogei eta hamar minutuko iraupena izan dute. Ordu betera heltzeko falta diren beste hamar minutuak gelara sartu irtenak eta prestaketa eta agurrak egiteko erabili dituzte.

Taula 23: saioaren iraupen ofiziala eta praktikoa

Iraupen ofiziala	60
Behatutako iraupena	50

9.3.6 Denboraldiko ordu kopurua

Saio bakoitzaren iraupen ofiziala kontutan izan da, Ariznabarra, Estadio eta Majoriko taldeek denboraldian zehar aerobic praktikatzen pasatzen duten denbora guztia atera dezakegu. Aipatu dugu denboraldia bi sasoietan geratu egiten dela. Horiek kontutan hartuz, denboraldian zehar eta aerobic saioak irailean hasten direnetik ekainean amaitzen diren arte, parte hartzen duenak 43 aste burutzen ditu. Aste horiek Ariznabarran eta Estadio fundazioan 86 saio-ordu bihurtzen dira eta Majorin 129.

Taula 24: denboraldiko ordu kopurua

	Estadio	Ariznabarra	Majori
Aste kopurua	43	43	43
Ordu kopurua	86	86	129

9.3.7 Musikaren denbora

Aerobic saioetan dantza pausoak musikaren erritmora egokituz koreografia bat osatzen da. Erritmoa konposizio baten errepikapenen maiztasunari deitzen zaio eta pultsu eta azentuen denborazko antolaketa bezala definitzen da. Erritmoa konpasari eta tempoari lotuta dago, konpasa denboraren zatiketa izanik eta tempoa erritmoa edo musika mantentzen duena.

Erabiltzen den musikaren erritmoak biko konpasa du. Musikaren egitura guztia bikoan zatigarria da. Gertatu daiteke abestiren batek une batetan beste konpas bat izatea. Horrela bada irakaslea ohartu egin beharko da eta bere dantza pausoak horretara egokitu, baina hori ez da ohikoa. Ezaugarri nagusia biko konpasaren etengabekotasuna da.

Aerobicean biko konpas horretan erritmoaren soinu edo pultso bakoitzari “beats” deitzen zaio. “Beats” hauek egiten diren dantza pausoetan denbora zuzentzen dute. Dantza pauso bakoitza “beats” kopuru jakin batean egin beharko da. Horrela, “V” izeneko dantza pausoa lau denborakoa izango da, lau “beats” edo musika soinutan egin beharko da. Pultsu edo soinu hauetako zortzi errepikatzean, zortzi “beats” deiturikoak, “frase” edo esaldi bat osatuko dute eta lau esaldik hogei eta hamabi denborako “bloque” bat.

Taula 25: aerobiceko musikaren denbora

Konpasa	Bikoa
Soinu edo pultsuak	"Beats": soinu bakoitza "Frase": 8 soinu "Bloque": 32 soinu
Saioetako koreografiak	Gehienez bi "bloque"

Musikak biko konpasean jarraitzen badu ere, dantza pausoak eta koreografia egiteko bi bloke baino gehiago ez dira hartzen. Koreografia batek beraz 64 pultsu edo “beats” gehienez izango ditu. Nahiz eta abestiaren beste zati bat izan, beste konpas batzuk, bakarrik bi “bloke” dantzatuko dira.

Gure taldeetan aerobic saio bakoitzean gehienez ere bi “bloke”ko koreografiak egin dira. Ariznabarra eta Estadioko taldeetan saio gehienetan 64 “beats” osatzen dituzten dantza pausoak lotu dira. Aldiz Majoriko taldean saio askotan “bloke” bakarra kateatu dute. Majorin batzutan bi “bloke”ko koreografia bukatu ezinik geratu dira.

Taula 26: taldeak eta musikaren denbora

Taldeak	Saioak
Ariznabarra	Bi “bloque”ko koreografia
Estadio	Bi “bloque”ko koreografia
Majori	“Bloque” bakarreko koreografia

9.3.8 Dantza pausoen denbora

Dantza pauso bakoitzak pultsu edo “beats” kopuru zehatz bat du. Egiteko garaian aurrez ezarrita dagoen soinu kopuru horretan egin beharko da. Dantza pausoek duten denbora kontutan hartzen da koreografia egiteko garaian. Azken

finean, bi “bloque”ko koreografia bat egiten bada 64 “beats” baitaude eta egiten diren dantza pauso guztiak kopuru hori bete behar dute, ez bat gehiago eta ezta ere bat gutxiago.

Gure taldeetan behatu ditugun dantza pausoak “beats” bakarreko eta zortzikoen artean murgiltzen dira. Soinu bat duena “marcha” izenekoa da eta zortzi dituena “triple rodilla” deiturikoa. Gainontzekoak bi eta lau pultsu irauten dituzte eta hauek dira: “step touch”, “rodilla up”, “manbo”, “chassep”, “lunge”, “cha cha” eta “twist” bikoak; eta “V”, “viña”, “femoral”, “rodilla step” eta “caja” laukoak.

Taula 27: dantza pausoak eta bakoitzaren soinu edo "beats" kopurua

Dantza pausoak	Denbora (“beats”)
Marcha	1
Step-Touch	2
Rodilla up	2
Manbo	2
Chassep	2
Lunge	2
Cha cha	2
Twist	2
V	4
Viña	4
Femoral	4
Rodilla step	4
Caja	4
Triple rodilla	8

9.3.9 Musikaren abiadura

Musika pultsu edo “beats”en denborarekiko maiztasun desberdina emanez jarri daiteke. Denbora unitate batean soinu gehiago edo gutxiago izateak dantza

pausoak azkarrago edo geldiago egitea behartuko du. “Beats” horien abiadura aldatzeko musika aparatua erabiltzen da, aukera ematen baitu nahi adinako abiadura jartzeko.

Abiadura hori neurtzeko erabiltzen diren unitateak “beats” minutuko dira. Irakasle bakoitzak nahi duen abiadura jarriko du, baina joera dago minutuko pultsu kopurua 138-160/65 bitartekoa izatea. Aldagai hori aldakorra izango da eta irakasle, talde edo aerobic motaren arabera asko aldatuko da. Talde hasi berria bada abiadura motelagoan jarriko du musika begiraleak eta taldea geroz eta adituagoa egiten ari den heinean abiadura handitzeko aukera gehiago egongo da. Aerobic egiteko “step” izeneko koska erabiltzean joera dago abiadura moteltzekoa, izan ere koska txiki horrek jaitsi eta igo egin ahal izateko denbora eta esfortzu gehiago eskatzen baititu.

Gure parte-hartzean Estadio eta Ariznabarran erabili den musika abiadura berdintsua izan da, aurrez aipatu dugun tarte horretan mugituz, baina mantsoago eta azkarragoko tarteak izanez. Bi aretoetan begirale berdina izan da saioak zuzendu dituena eta saioen denbora antolakuntza berdina izan da. Areto horietan saioaren hasieran abiadura motelagoan jarri da musika eta koreografia menperatu ahala minutuko pultsu kopurua handitu egin da. Berriro azken partean koreografiaren errepikapenak amaitu ondoren musika horren abiadura jaitsi egin da.

Majori kiroldegian beste bi aretoetan baino abiadura motelagoan erabili da musika. Diferentzia taldearen ezaugarri eta begiralean egon da. Majoriko taldekide batzuk ez dira oso iaioak aerobic egiten eta ondorioz irakasleak abiadura mantsoan jartzeko joera izan du. Saioaren bilakaera berriz beste bi aretoetan bezalakoa izan da, hasieran eta amaieran minutuko “beats” kopurua koreografia errepikapenetan baino motelagoa izanez.

9.3.10 Aerobic saioetan puntuazio eta irabazle eza

Kirol zentro desberdinetan eskaintzen den aerobiceko saioetan ez dago puntuazio sistemarik eta ondorioz irabazlerik. Ez da epailerik egoten ondoren puntuazio bat emanez sailkapen bat egiteko. Parte-hartzaileen artean ere ez da

bereizketarik egiten saioen amaieran eta ez dira sariak edo zigorrak banatzen denboraldian zehar edo bukaeran.

Guk behaketa egin dugun hiru taldetan aipatutakoa gertatu da. Saioen amaierak ez du inor saritzen eta ez zaio puntuaziorik inori eman. Hiru taldeetan saioen amaieran denak txalo egiten dugu egin duguna gure baitan goraipatzeko. Gainera ez da kontuan hartzen partaide bakoitza zenbat saioetara joan den; 10 edo 20 saio huts egin berdin da, guztiek dute aerobic egiteaz gozatzeko saria. Ekainean denboraldiaren amaieran sariak banatu beharrean, Ariznabarrakoak denak batera lunch bat egitera joan dira. Estadiokoak eta Majorikoak ere azken saioaren ondoren zerbait hartuz agurtzera joan dira.

9.3.11 Hasiera eta amaiera

Begiraleak erabakitzen du aerobic saioaren hasiera eta bukaera noiz izango den. Aurrez esan dugun bezala saioak ia ordu bete irauten dute baino dantza pausoak noiz egiten hasi eta noiz amaitu irakaslearen esku dago.

Garaiz bada eta irakaslearen ustez parte-hartzaile nahiko badago, aerobic egiten den gelara sartzean aerobic saioa martxan jarriko da. Begiraleak musika piztu eta honen erritmora dantza pausoak azaltzen hasiko da.

Gure taldeetan begirale diren Esti eta Oihanak ere berdina egiten dute. Zita ordurako aretora sartu eta beraien ustez jardule ikasle nahiko inguratu arte itxoin. Eta beraien ustez nahiko parte-hartzaile daudela ikustean edo minutu batzuk pasa ondoren gehiago agertzean musika pizten dute eta martxan jartzen dira.

Saioen amaiera ere begiraleek erabakitzen dute. Nahiz eta koreografia parte-hartzaile guztiek ez ikasi edo dantza pauso batzuk menperatu gabe gelditu, begiraleek berdin amaitzen dute saioa. Irakasleak entzuten ari diren musika isiltzen du eta guztietaz agurtu ondoren saioa amaitutzat ematen du. Bukaera honetan orduak indar handia du, gure behaketan inoiz ez baita aurre ikusitako ordua baino beranduago amaitu saioa.

9.3.12 Saioaren atalen iraupena

Aerobic saioak izan behar dituen atalak ez daude arautegi batez zehaztuta. Modu horretara, printzipioz irakasle bakoitzak nahi duen egitura eman dakioke saioari, baina guzti horrek ez du esan nahi ohitura batzuk ez daudenik eta gehienak irizpide batzuk jarraitzen ez dituztenik. Gainera atal horietako bakoitzaren iraupena ere berdintsua izaten da talde guztietan.

Guk behaketa egin dugun Ariznabarra, Estadio eta Majoriko taldeetan saioaren barnean egiten dituzten atalak berdinak dira. Saio guztiek beroketa aldi bat, koreografia nagusia eta lasaitasunera itzulerako atalak izan dituzte. Hiru talde horietan nahiz eta bi begirale desberdin izan, biek atal horiek egin dituzte eta iraupena ere berdintsua izan da.

Beroketa aldia deiturikoak bost eta hamar minutu bitartean iraun ditu. Hiru taldeetatik laburrena Majori taldekoa izan da, baina diferentzia txikia izan da. Ariznabarra eta Estadioko saioak irakasle berdinak zuzentzen dituenez, nahiz eta talde desberdinak izan, beroketaren iraupena antzekoa izan da.

Koreografia nagusiak 30 edo 35 minutu inguru irauten ditu. Iraupen hau malgua da eta Esti eta Oihana irakasleek ere horrela egin dute. Batzutan 40 minuturaino ere luzatu dira Majorin, baino gehienetan ordu erdi bateko iraupena izan du. Ariznabarran, ikusi dugunez, parte-hartzaileek geroz eta azkarrago menperatu dantza pausoak, orduan eta gutxiago irauten du atal honek. Egoera horretan koreografia osoaren errepikapen asko egiteko aukera baitago ordu erdi betetzerako eta parte-hartzaileen nekeak ere eragiten du atal honen iraupenean.

Azkenik lasaitasunerako itzulera deitzen dioten atalak bost minutu irauten ditu, nahiz eta saio pare batetan Estik Ariznabarran eta Estadion minutu pare batetan utzi. Aurreko bi ataletan gertatzen denak ere eragiten dio atal honen iraupenari.

9.3.13 Aerobicaren denbora zentzuaren ezaugarri nagusiak

Aerobiceko denboraren enbor eta adarrak analizatu ditugu behaketa egin dugun hiru taldeetan oinarrituz. Aerobiceko saioak, hasi eta amaitzen diren

egunak bezala, errepikatzen dira. Saioen egitaraua berdin mantentzen da eta ikasturte guztian zehar egitura berdina errepikatzen da. Saio bakoitza beste saio batekiko askea da eta berdin egin daiteke aurreko edo hurrengo saioa egin gabe. Aerobiceko ikasturtean zehar ez da ikasturte amaierarako saioen garrantzia handitzen, denak dira garrantzi berdinekoak.

Aerobicean ez dago araurik jakiteko nor den irabazlea, ez dago irabazlerik. Partehartzaile batzuk koreografia berehala ikasiko dute, baino hauek besteei oztopatu ordez, lagundu egiten diete, irakasleak egiten dituen pausoak ikusteko zailtasunak dituztenentzako irakasleen funtzioa betez. Irabazlerik ez dagoen bezala, galtzailerik ere ez. Saio amaieran ez dago sailkapenik eta ezta saririk ere. Aerobicak ez du memoriarik. Sailkapen eta irabazlerik ez egotean saio batetik bestera edo denboraldian zehar ez da gordetzen irabazle edo galtzaileen memoriarik.

Partehartzaileak ez dute denboraldi amaieran atera dituzten emaitzekin saririk jasotzen. Sari sinbolikoak, txaloak, saio guztietan jasotzen dituzte: koreografia guztietan, gihar indartze guztietan… Egunero eguzkia atera eta sartu, eguna eta gaua bezala errepikatzen da aerobica. Aerobicaren ikurra den musikaren egitura ere bat dator dinamika horrekin. Musikaren denborak, pultsuak ez du etenik nahiz eta abestiz aldatzen den, “beats”ak etenik gabe errepikatzen dira. Amaiera ez dator beraz jardueraren arauditik, baizik eta kanpo faktoreren baten eraginez.

9.4 Aerobiceko harremanak

Aerobic egiten den aretoetan parte-hartzaile bat baino gehiago aritzen dira dantza pausoak kateatuz koreografiak osatzen. Eginkizun horretan eta aerobicaren zentzu orokor bat atera asmoz beharrezkoa egingo zaigu ematen diren harremanak aztertzea. Saioan parte hartzen duten partaide desberdinen arteko erlazioa azaleratzea da ataletako bat. Ea jarduleak aerobic egitean komunikaziorik duten eta, horrela balitz, kooperaziozkoa edo oposiziozkoa den.

Baino harremanen zentzua partaideen arteko komunikazioaren azterketa baino haratago doa, jarduleek dituzten eskubide eta betebeharrak ere jorratu egin beharko ditugu eta horretarako beharrezko egingo zaigu parte-hartzaileek betetzen dituzten rolak aztertzea. Harremanen zentzu hau espazioaren eta denboraren zentzuen azterketari gehituko zaio aerobicaren irizpide nagusiak azaleratzeko nahian. Aerobicaren egiturak bultzatzen dituen ezaugarriak aztertu eta jardutean gertatzen denaren behaketa aztertzea ezinbestekoa egingo zaigu gizartean hartzen duen esanahiaren zentzua ateratzeko.

9.4.1 Aerobiceko parte-hartzaileen ezaugarriak

Aerobic talde bakoitza kide desberdinez osatuta dago. Batzuk gazteagoak izango dira, besteak hirikoak, hurrengoak talde txikiena, besteak halakoak…. Bakoitzak ezaugarri propioak izango ditu eta modu horretara izaera propioa izango du. Aipatu dugun bezala gure behaketa hiru talde desberdinetan egin dugu: Ariznabarra kiroldegiko talde batean, Estadio Fundazioko beste batean eta Majori kiroldegiko batean. Bakoitzak izan dituen ezaugarriak desberdinak izan dira, bai begirale eta baita ere partehartzaile izan direnen artean.

I. Ariznabarra

Ariznabarra kiroldegian aritu den taldean irakaslea Esti izan da eta nahiz eta Gasteizen bizi Eskoriatzakoa da. Bera Irakasle Eskolan diplomatu berria den emakumea da; 23 urte ditu eta bere helburua ez da aerobiceko irakasle izatea, baina momentuan beste lanik ez duenez, aerobiceko eskolak ematen ditu toki desberdinetan. Aste bakoitzean aerobiceko 16 saio zuzentzen ditu lau gune edo kiroldegi desberdinetan. Kiroldegi hauek honakoak dira: Ariznabarra, Hegoalde,

Estadio eta Dulantzi. Lehen hirurak Gasteizen aurkitzen dira eta laugarrena izen bereko Dulantzin. Lau talde hauetatik bakar batean, Dulantzin, omen dabil gizonezko bakarra; talde guztietako beste partaideak emakumezkoak omen dira. Estik zuzentzen dituen taldeetako desberdintasunagatik galdetuta, berak dio printzipioz aerobic egitean ez dagoela desberdintasun handiegirik, baina gero elkarren harremanak sakontzean diferentziak nabaritzen omen ditu: batzuek txantxa gehiago, besteak herri txikietako biztanleen ezaugarriak dituztenak…

Aretora sartu eta martxan jartzen den momentutik Esti ez da gelditzen, etengabe dantzan ibiltzen da: jarduleei zer egin behar duten azaldu, pausoak abestu, akatsak zuzendu… Euskal esaera batek dio “dantzara eginiko zangoak ezin gelditu” eta benetan, atsotitz hau Estiri ezin hobeto dagokio, musikaren erritmoan dantza pausoak kateatzen dituenik ere ez baita antzematen, loturarik gabeko dantza izango balitz bezala eta bere jardunean bizia joango balitzaion sentsazioa transmitituz. Modu horretan jarduleei bere inplikazio eta indar guztia eransten saiatzen da. Estiri ezaugarri horri buruz galdetzean erantzuten du gazte-gaztetatik dantza egin duela, gehienbat euskal dantzak eta, beharbada, horrek eragina duela.

Aerobiceko saioak zuzentzea da Estiren lana. Denboraldi honetan bere soldata ateratzeko bidea kiroldegi desberdinetan irakasle bezala aritzea izan da. Aerobic saio guztiak astegunez zuzentzen ditu, horrek astelehenetik ostiralera bitarteko tartea betez. Aste bukaeratan ere beste lantxo bat egiten du, gaztetxo eta haurrekin ibiliz denbora libreko begirale bezala. Beretzako lan guzti hauek lan hobeago bat topatu bitarteko pausoak dira. Bere esperantza ikasi duenean oinarrituz Lehen Hezkuntzako irakasle bezala jardutea da.

Ariznabarrako taldean 20 pertsona badaude apuntatuak baina horrek ez du esanahi saioetara egunero guztiak etortzen direnik. Saioetara agertzen den jardule kopuruari buruz diferentzia handiak topatu dira, batera 5 lagun eta beste batera 20 azalduz. Talde honetako partaide guztiak emakumeak dira eta beraien adinak 30 eta 50 bitartean aurkitzen dira. Aretora hurbiltzen joaten diren heinean, eta saioa hasi baino lehen, elkarren artean talde txikiak osatuz hitz egiten aritzen dira eta saioak dirauen bitartean ere ohikoak izaten dira neke kexa, galderak,

txantxak edo goraipatzeko txaloak. Saioa amaitu ondoren bakoitzak bere bidea hartzen du hurrengo saiora arte besteak agurtuz. Jardule ikasle guztiak Gasteizen bizi dira.

II. Estadio

Talde honetako begiralea ere Esti da. Ariznabarra eta Estadioko taldeak egun eta ordu desberdinetan egiten dituzte saioak eta modu horretara Estik bi taldeak zuzendu ditzake. Bestean bezala talde honetan ere geratu gabe ibitzen da saioa hasten denetik amaiera arte.

Talde honetako saioetan 12 edo 14 jardule ikasleek parte hartzen dute. Horiek guztiak emakumezkoak dira eta adinari dagokionez gehientsuenak 30 eta 40 urte bitartekoak. Esti irakaslearen ustetan talde honetakoak Ariznabarrakoak baino gutxiago hitz egiten dute eta berak dio batzutan ez dakiela gustura, aspertuta, pozik edo haserre dauden. Adar jotze edo txantxarik ere ez da egoten. Aerobic egiten duten aretora banan-bana edo bakar batzuk binaka etortzen dira eta saioa amaitu ondoren lau edo bost Esti begiralearekin batera Estadio Fundazioan bertan aurkitzen den tabernara joaten dira zerbait hartu eta hitz egitera. Ikasle jardule guztiak Gasteizkoak dira.

III. Majori

Talde honetako irakaslea ere emakumezkoa da eta Oihana izena du. 29 urte ditu eta Lanbide Heziketako goi mailako modulu bat egina du: enpresen marketing-a. Berak dio ikasketa horiek ahalbideratzen duten lan motak ez dituela gustukoak eta horregatik hasi zela kiroldegietan eskaintzen diren jarduera fisiko desberdinak zuzentzen. Jadanik kirol zentro askotan ibili da lanean eta bere asmoa edo nahia kiroldegi edo gimnasioekin erlazionatutako negozioren bat jartzea da.

Oihanak saio hasieran musika jartzen badu ere ez da berehala dantza pausoak egiten hasten. Sarritan bere ikasle jarduleekin hizketan aritzen da zuzenduko duen koreografiaren nondik norakoak azaltzen edo eguneko gertakizunen bat kontatzen. Saioan zehar ere askotan gelditzen da errepikapen batetik bestera, azalpenak ematen edo atsedena hartzen. Sarritan goibeldu egiten

da taldekideek koreografia ongi egitea lortzen ez dutelako. Berak astean zehar zuzentzen dituen saio guztiak Majorin dira, lantokia kiroldegira honetara murriztuz.

Taula 28: irakasle-begiraleen ezaugarriak

	Esti	**Oihana**
Adina	23 urte	29 urte
Ikasketak	Irakasle eskolan diplomatua	Lanbide heziketan goi mailako modulua enpresen marketingean
Bizitokia	Gasteiz	Urretxu
Aerobic lantokiak	Gasteizen: - Hegoalde kiroldegia - Ariznabarra kiroldegia - Estadio Fundazioa Dulantzin: - Dulantziko kiroldegia	Ordizian: - Majori kiroldegia
Aerobiceko saioak eta lan helburuak	Pasoko lana	Helburuko lanarekin erlazionatua
	Helburua lehen hezkuntzako irakasle bezala aritzea	Kirol zentroekin erlazionatutako lana

Talde honetan gehienez ere sei ikasle jardule aritzen dira. Denak emakumezkoak eta adinez 40 urtetik gorakoak, bat edo bestek 55 urte baino gehiago izanik. Talde honetako partaideak beraien artean barre eta txantxa asko egiten dituzte, eta horien arrazoia sarritan dantza pausoak egiteko duten ahulezia izaten da. Taldekide guztiak ordiziarrak dira eta lagunak ez izan arren beraien artean ezagunak.

Hiru taldeetako partehartzaile guztiak, bai begirale eta baita ere ikasle jarduleak, emakumezkoak dira. Ezaugarri hori beste guztien gainetik azaleratzen da. Gainera, aldagai hori partehartzaileek duten adinarekin gurutzatzean gehienak gurasoak edo amak direla antzeman dezakegu. Hiru taldeetan topatu dugun ikasle jardule mota: emakumea, ama eta adinez hogei eta hamabost eta berrogei urte bitartekoa izango litzateke. Irakasleak ere emakumezkoak dira, baina ikasleak

baino gazteagoak. Gainera ez dira gurasoak eta beraientzako aerobic saioa lana da: soldata bat irabazten dute aerobica emateagatik.

Taula 29: aerobic taldeen ezaugarriak

	Estadio	Ariznabarra	Majori
Batezbesteko jardule kopurua	13	12	5
Gehienezko jardule kopurua	16	20	7
Gutxieneko jardule kopurua	7	5	3
Generoa	Emakumezkoak	Emakumezkoak	Emakumezkoak
Adina	30-40 urte bitartekoak	30-50 urte bitartekoak	40-55 urte bitartekoak
Giroa	Hitz gutxikoak, isilak	Kexa eta txantxa asko	Txantxa, adarjotze eta barre asko

IV. Jarduleen izenak

Aerobic egiten duen jardulea aretora sartu eta irakasleak musika jartzen duenetik saioa amaitu arte bere lekuan jarduten da. Jarduleak ez dauka inorekin hitzik egin beharrik eta galdetu beharrik, eta ondorioz beste kide guztien izenak ez dira jakiten.

Gure hiru taldeetan ere berdina pasatu da, salbuespen batekin: Majoriko taldea. Talde honetako partaide kopurua beste bietan baino txikiagoa izan da eta saio gehienetan lau edo bost jardule bakarrik izan dira. Horrek erraztu egin du elkarren izenak ikasi eta jakitea. Baina beste taldeetan bakarrik afektiboki gertuenekoak diren parte-hartzaileen izenak ikasi dira. Jardule guztiek elkarren izenak ez dituzte jakin. Irakaslearen izena da hiru taldeetako parte-hartzaile guztiek ikasi dutena; eta alderantziz begiraleak, bai Estik eta baita Oihanak ere, beraien taldeetako jardule ikasle guztien izenak ikasi dituzte.

9.4.2 Rolak

Aerobic saio bat behatzean berehala bi rol antzematen dira: irakaslea edo begiralea eta ikasle jardulea. Horietako rol bakoitzak ezaugarri propioak ditu eta jarduten duten bitartean eskubide eta betebehar jakin batzuk bete beharko dituzte. Gure behaketan aipatutako bi rol hauek argi azaleratu dira: Esti eta Oihana, irakasleak izanez, eta hiru taldeetako beste parte-hartzaile guztiak, ikasle jarduleak.

I. Begiralea

Aerobiceko saioa zuzentzen duen irakaslea da. Aretora sartzen denean dantza pausoak egiteko beharrezko izango duen musika jartzen du irakurgailuan. Ondoren ikasleengana zuzentzen da egin behar dutenaren berri ematera: “step”arekin, musikaren denbora… Musika martxan jarri eta ikasle guztiak beraien tokietan jarrita daudenean dantza pausoak egiten hasten da, hauetako bakoitza behar adina errepikatuz. Dantza pausoek “frase” bat edo “bloque” bat osatzean behin eta berriz errepikatuko du zati hori. Begiralea saioan zehar batzutan geratu egiten da, nahiz eta ikasleei ez gelditzeko eta dantza pausoak egiten jarraitzeko adierazi. Bere nahia ikasle guztiek koreografiak ongi dantzatzea izaten da. Saioa aurrera doan heinean musikaren abiadura ere berak nahi duen bezala aldatu dezake. Bera ikasle guztien aurrean kokatuko da, hauek ongi ikusi dezaten baina nahi duenean toki hori utzi eta aretoan zehar ibili daiteke ikasleek egiten dutena zuzentzen edo azaltzen. Behin dantza pauso guztiak ikasi dituztenean, berak erabakitzen du koreografia zenbat bider errepikatu behar den. Saioaren amaiera ere bere eskuetan dago eta ordua iristen denean bera da bukaera adierazten duena.

Irakaslearen zeregina da saioak izaten dituen atal eta ezaugarri guztien planifikazioa. Horretarako, beharrezkoa izaten du aurrez emango duena pentsatzea eta diseinatzea. Ikasleak ez bezala irakasleak saio guztietara joatea derrigorrezkoa du, hori egiteagatik soldata bat jasotzen baitu.

Gure bi begiraleak Esti eta Oihana izan dira eta, aurre honetan aipatu bezala, beraiek izan dira saioak zuzentzearen arduradunak. Estik Ariznabarra eta Estadioko aretoetan astean zuzentzen dituen bi saioetatik bat “step”a erabiliz

egiten du. Oihanak, berriz, astean hiru saio zuzentzen ditu eta horietatik bakarra da “step”a erabiliz egiten duena. Beraiek arduratzen dira dantza pausoekin egin behar duten koreografiarako musika ekartzeaz. Ikasleek koreografia eginez gozatu eta ondo pasatzea ere bere ardurapean egoten da eta horretarako guztien aurrean jarri beharko da modelo lana eginez.

II. Ikasle jarduleak

Ikasle partehartzaileak aerobic saioetan parte hartzeagatik ordaindu egiten du, bestela ez luke parte hartzerik izango. Irakasleak kobratzen duen bitartean ikasleak diruz pagatuko ditu aerobic saioak. Ordaintze horretan, antolatuta dauden saio guztietara ez joateak ez dio eskubiderik emango diru sari hori murrizteko. Ordainketa horren ondorioz eskubidea du adostutako aerobic saioetan parte hartzeko. Aretora sartzen denean berak nahi duen tokian jartzeko aukera du, nahiz eta, espazioaren azterketan ikusi dugunez, bakoitzak eguneroko tokian jartzeko joera izan. Saioan zehar ikasleak irakaslearen aginduak betetzen ditu eta koreografia ikasten saiatzen da. Hala eta guztiz, nekatuta edo aspertuta badago, aukera du saioa bertan bera uzteko. Ikaslearen ardura nagusia koreografiak ikasi eta gozatzea da eta horregatik ordaindu egiten du.

Ikasle jardule rol honen barrenean azpirol pare bat ere antzeman ditugu taldekideak eta beraiek dantza egiten duten gunea batera aztertzean.

a. Ariznabarrako eta Estadioko aurreneko ilarako ikasleak

Talde bakoitzean bi emakume dira. Oso trebeak dira aerobic egiten eta arazorik ez dute izaten Estik agintzen duena egiteko. Koreografiak ikasten lehenengoak izaten dira eta esan daiteke irakaslearen ondoren beraiek direla besteentzako ispiluak.

b. Majoriko lehen ilarako ikasleak

Talde honetako lehen ilaran Koro eta Begoña jartzen dira eta beste taldeetan gertatzen denaren alderantzizkoa ematen da. Emakume hauek zailtasun handiak dituzte Oihanak agintzen dituen dantza pausoak egoki egiteko, baina, hala eta guztiz, beste ikasleak utzi eta bultzatu egiten diete aurreneko ilarara. Irakaslearengandik gertuago eta parez pare egotean lagundu egingo dielakoan

gordetzen diete beste ikasleak toki hori. Kasu honetan beraien atzean daudenak, batzutan, nahastu ere egiten dira lehen ilarakoek irakasleak egiten duenaren kontrakoa egitean. Adibidez: luzerako ardatzean eskuinera emandako buelta bat ezkerretara eman.

Taula 30: aerobic rolak eta beraien eskubide eta betebeharrak

	Eskubideak	Betebeharrak
Irakaslea	▪ Aerobic saioa disenaitu: musika, dantza pausoak, abiadura, materiala… ▪ Bere tokia utzi eta aretoan zehar ibili ▪ Aerobic saioak zuzentzeagatik soldata bat jaso	▪ Aerobic saio guztiak zuzendu, egutegia eta ordutegia errespetatuz
Ikasle jardulea	▪ Aerobic saioetara huts egin dezakete ▪ Saio bukatu baino lehenago utzi dezakete	▪ Izena eman eta diru sari bat ordaindu aerobic egiteagatik

9.4.3 Komunikazio motorra

Begiralea, dantza pausoak eginez ikasleei erakusten saiatzen da eta ikasle jarduleak irakasleren dantza pausoak imitatu eta errepikatzen. Harreman honetan begiraleak behar adina errepikapen egingo ditu eta exekuzio abiadura ere jaitsiko du ikasleek barneratu eta egin dezaten.

Irakasle begiraleak ez ditu bere pausoak ezkutatzen, kontrakoa, dantza pausoen arteko lotura guztiak zatikatuko ditu eta dantza pauso bera ere soinu edo pultsu bakarreko mugimenduetan banatuko du. Berak egiten duen une eta abiadura berdinean ikasleek egitea da irakaslearen helburua eta horretarako ez du engainurik egiten. Ikasleak ere ez ditu ezkutatzen egiten ari den dantza pausoak, erakutsi egiten dizkio begiraleari.

Estik, Ariznabarra eta Estadioko irakasleak, batzutan sei edo zazpi bider errepikatzen du dantza pauso bat, jardule gehienek menperatzen dutela ohartu arte. Oihanak, sarritan musikaren abiadura ahaztu eta geldian egiten ditu pausoak, ikasleak ongi behatu eta barneratu dezaten. Ikasleek agerian egingo dituzte pausoak, Esti eta Oihanaren baieztapena jasotzeko.

Esti edo Oihana eta ikasleen artean kooperaziozko komunikazio bat argi ageri da harreman horretan: irakasle eta ikasleen artean kolaboratu egiten dute dantza pausoak, koreografia eta aerobic saioa arrakastaz burutzeko. Era honetara, aipatu dezakegu guk behaketa egin dugun aerobica soziomotorra dela, jardule batek egiten duen ekintza motorrak beste jardule baten ekintza motorrean eragin zuzena duela (Parlebas, 2001, 427). Eta eragin horren zentzua kooperaziozkoa dela.

Baina irakasle bakarra aritzen den bitartean, jardule ikasle bat baino gehiagok parte hartzen dute, hiru lau pertsonako ilarak aretoaren aurretik atzera osatuz. Egoera horretan atzean kokatzen diren jarduleek irakaslearen dantza pausoak egoki ikusteko arazoak izaten dituzte, lehen ilaratan kokatzen diren ikasleek oztopatzen dietelako. Kasu horietan aurreko ilarako kideak bihurtzen dira irakaslearen ordezko eredu. Gure aurrean kokatuta dagoen kideari begiratuko diogu koreografia pausoak nola egiten dituen, irakasleak egiten duena ongi ikusteko aukerarik ez badugu. Ariznabarrako eta Estadioko aurreneko ilaratako ikasleak hirugarren edo laugarren ilaratan kokatzen diren jarduleentzako ereduak bihurtzen dira eta, kideei dantza pausoak erakutsiz jarduleen arteko komunikazio bat emanez. Komunikazio mota hori ere kooperaziozkoa da, baino zuzena izan beharrean, errelebatua da (Parlebas, 2003, 253).



Irudia 27: irakasle eta ikasleen arteko komunikazio motorra

Irakasleak jardule ikasle guztiekin kolaboratzen duen bezala, jardule guztiek ez dute kide guztiekin kolaboratzen: ikasle batek bere aurrean kokatzen diren bat edo birekin kooperatuko du, pausoak nola egiten dituen ikusteko gai denarekin. Eta bere atzean kokatzen denak berarekin eta ez aurrekoekin, horregatik da errelebatua. Ikasleek kooperazio kate bat osatzen dute, kolaborazio horretan ikasleak gehitzen joanez.



Irudia 28: ikasleen artean ematen den komunikazio motorra

Aerobic saioetan koreografia arrakastaz burutzeko irakasle eta ikasleen artean kooperaziozko komunikazio motorra ageri da. Irakasleak ikasle guztiekin kolaboratzen du eta ikasle guztiek irakaslearekin kooperatzen dute, dantza pausoak etengabe kateatzeko ahalegin horretan. Bi harreman horietako kooperazioa ikusmenean oinarritzen da, ikusten ez denarekin komunikazio aukerarik izan gabe. Bestalde, ikasleen taldea osatzen duten kideen artean kooperaziozko komunikazio motorra ageri da, baino kasu honetan errelebatua: aurreko ilaran kokatzen den kide edo kideekin kooperatuz bakarrik.

Taula 31: aerobicean komunikazio motorra

Irakasle - ikasle jardule artean	Kooperaziozkoa. Ikusmenean oinarritzen da. Irakasleak ikasle guztiekin kooperatzen du dantza pausoak eta koreografia beraien mailara egokituz eta erakutsiz
Ikasleek elkarren artean	Kooperazio errelebatua. Ikusmenean oinarritzen da. Ikasleen lehen ilaratik atzera dauden ikasleak norberaren atzean eta aurrean daudenekin kooperatzen dute. Lehen ilarakoak bigarren ilarakoekin; honek hirugarrengoekin, eta horrela atzeraino

9.4.4 Komunikazio motorra eta plano aldaketa

Aerobic saioetan zehar, irakasleak proposaturiko koreografia ikasleek menperatu dutela ohartzean, koreografia berdina plano espaziala aldatuz burutzea agindu dezake. Adibidez, ispiluaren aldera begira aurrez aurre egin beharrean, bizkarra emanez burutu. Modu horretara parte-hartzaile guztien artean agertzen den kooperaziozko komunikazio motorra zuzena eta errelebatua da, ispiluari begira egitean sortzen den berdina.

Baina baliteke irakasleak korru edo borobil bat osatzeko esan eta partehartzaile guztiak, irakaslea barne, borobil horretan dantza pausoak egiten ibiltzea. Modu horretan, dantza pauso batetik besterako trantsizioa, adibidez, ezkerraldera dagoen kidearen lekua hartuz egitea, ikasle bezainbat errepikapen egin eta gero norbera hasierako gunera iritsiz korrua osatuz amaitzeko. Egitura espazial horretan koreografia burutzeko beharrezkoa da guztien arteko kooperazio zuzena. Irakaslea beste jardule bat bailitzan moldatzen da eta beste egituretan ikasle artean ematen den komunikazio errelebatua, kolaborazio zuzena bihurtzen da modu honetara, ongi egiteko kide guztien kooperazioa behar baita. Bakoitza ezkerretara daukan tokira joateko, ezkerretara dagoen kidea ere hurrengora joan beharko da, bestela koreografia oztopatuko du eta korrua bertan bera geldituko da.

Majori, Estadio eta Ariznabarrako taldeetan bizi izan dugu egitura espazial aldaketa hau. Begirale diren Esti eta Oihanak plano desberdinetan burutu dituzte koreografiak eta batzutan arrakasta izan badu ere –parte-hartzaileak gozatu eta

koreografia ongi burutu dute- beste batzutan jarduleek ezin izan dute koreografia egoki burutu.

Ariznabarran, modu honetara egin izan denean, jarduleek poza eta gozamena espresatu dute koreografiaren amaieran. Guztiak txaloka eta alaitasun oihuak botaz bukatu dituzte horrela egin diren dantza pauso eta koreografiak. Estadioko taldean dantza pausoak korruan bilduta egin direnean ikasle jardule guztiak ez dute lortu egoki egitea eta saio amaieran, irribarreak eta zailtasuna gainditu izanaren poza Ariznabarran baino xumeagoak izan dira. Ordiziako Majorin berriz, koreografiako dantza pausoak egiteko plano espaziala Oihanak aldatu duenean, jardule ikasleak ez dira ongi burutzeko gai izan, iritsi ezinezko helburu bihurtuz, ikasleek nahiago izan dute betiko egituran koreografia burutu, Oihana begiralea atsekabetuta geratuz.



Irudia 29: egitura desberdinetan komunikazio motorra

9.4.5 Bakarkako elkarrekintza eremua

Parte-hartzaile kopuruak eragina du jardule bakoitzak egin dezaken koreografian. Aretoen tamaina egun batetik bestera edo saio bat eta hurrengoaren artean ez da aldatuko, baina jardule kopuruak eragina izango du partaideek egin ditzaketen dantza pauso eta koreografian. Aretoek dantza pausoak egiteko dituzten metro karratu eta parte-hartzaile kopuruaren arteko erlazioari bakarkako elkarrekintza eremua deitzen diogu (Parlebas, 2001, 193). Jardule bakoitzari teorikoki metro karratu kopuru jakin bat egokituko zaio eta horietan burutu beharko du koreografia.

Espazioaren atalean ikusi dugu gure behaketa burutu dugun areto bakoitzaren azalera desberdina dela. Ariznabarrako aretoak 140 m^2 ditu baino gela erdian dauden zutabeak kentzen duten espazioa kontuan hartuta dantza egiteko baliozkoak direnak 133 m^2 dira. Ariznabarrako taldean, saioetan parte hartzen dutenen batezbesteko bat egitean, ikusten dugu aerobic saio bakoitzean hamahiru jardule aritu direla. Aretoaren tamaina eta jardule kopurua gurutzatzean Ariznabarrako bakarkako elkarrekintza eremua ateratzen dugu: 10 m^2 partehartzaile bakoitzarentzat.

Estadioko gelak 130 m^2 ditu eta zutaberik ez duenez guztiak erabilgarriak dira. Talde honen saioetara agertzen diren batezbesteko jardule kopurua hamabi lagunekoa denez areto honetan ematen den bakarkako elkarrekintza eremua 11 m^2koa da.

Hiru taldeetako batezbesteko jardule kopururik txikiena Majoriko taldean ematen da. Saioetara agertzen direnak 5 lagun dira eta aretoaren tamaina 150 m^2 eta zutabeen azalera kenduta 137 m^2. Tamaina eta kopuru horiekin Majoriko taldean ematen den bakarkako elkarrekintza eremua 27 m^2koa dela ikusi dezakegu.

Taula 32: bakarkako elkarrekintza eremua

	Estadio	**Ariznabarra**	**Majori**
Azalera zutabeak kenduta (m^2)	130	133	137
Batezbesteko jardule kopurua	12 lagun	13 lagun	5 lagun
Bakarkako elkarrekintza eremua (m^2)	11	10	27

Estadio eta Ariznabarran bakarkako elkarrekintza eremua oso antzeko den arren, 10 m^2 inguru, Majorin eremu horren bikoitza baino gehiago izan ditzake partaide bakoitzak.

Eremu hori aerobic saioetara agertzen diren jarduleen batezbestekoarekin atera dugu eta saio bakoitzean parte hartu duen kopurua aldakorra izan da. Ariznabarran adibidez, saio batean bost lagun aritu dira eta beste saio batean hogei. Horren arabera bakarkako elkarrekintza eremua saio batetik bestera 26 m^2tik, 6 m^2ra pasa da. Gainera, hogei agertu diren saio horretan dantza pausoak kateatzean tupust egiteak edo oztopoak sortu dira eta liskar edo haserre txiki batzuk ere bai haratago joateko esanez. Bakoitzari dagokion espazio hau kulturan oinarritzen den espazio sozial bat izaten da eta gutxiago izateak distantzia sozialetik distantzia pertsonalera pasatzea dakar, E.T. Hallek (Hall, 1973, 177) aipatzen dituen distantzien berrantolaketa bat eginez.

Taula 33: partehartzaileen araberako bakarkako elkarrekintza eremua

	Estadio	**Ariznabarra**	**Majori**
Azalera zutabeak kenduta (m^2)	130	133	137
Gehienezko jardule kopurua (partehartzaileak)	16	20	7
Bakarkako elkarrekintza eremua (m^2)	8	6	19
Gutxieneko jardule kopurua (partehartzaileak)	7	5	3
Bakarkako elkarrekintza eremua (m^2)	18	26	45

Beste bi aretoetan, jardule gehien agertu direnetan 6 m^2ko espazio hori baino handiagoa izan da. Estadion parte-hartzaile gehien azaldu direnean hamasei agertu dira eta modu horretan bakoitzarentzako bakarkako elkarrekintza eremua 8 m^2koa izan da. Majorin berriz zazpi lagun azaldu dira gehienez, bakoitzarentzako 19 m^2 izanez.

Parte-hartzaile gutxien egon diren saioak kontutan hartzen baditugu Majoriko taldea agertzen zaigu muturrean saio batetan hiru jardule bakarrik arituz.

Bakarkako elkarrekintza eremua asko handitzen da bertan partaide kopuru horrekin: 45 m^2. Ariznabarran jardule gutxien parte hartu dutenean bost izan dira eta bakoitzarentzako 26 m^2 egokitu dira. Estadion berriz zazpi izan dira gutxieneko jardule kopurua eta bakoitzarentzako 18 m^2.

9.4.6 Parte-hartzaile kopurua eta dantza pausoen tamaina

Partehartzaile bakoitzak izan dezakeen espazioaren arabera egin ditzakeen dantza pausoen tamaina desberdina izango da. Jardule bakoitzak geroz eta espazio gehiago izan, orduan eta aukera gehiago dantza pausoak handiagoak egiteko. Nahiz eta dantza pausoak berdinak izan, partehartzaileek izan dezaketen espazioaren arabera egingo dituzten metroak desberdinak izango dira. “V” izeneko pausoa berdina da metro karratu batean edo 3 m^2tan eginda, baino partehartzaileak batean edo bestean distantzia desberdinak gaindituko ditu. Jardule kopurua handia denean eta bakoitzak duen espazioa txikia, kontrakoa pasatzen da eta dantza pausoetan, partaide bakoitzak egiten duen distantzia espazio handia duenean baino txikiagoa izaten da.

Guk behatutako taldeetan partehartzaile gutxiko saioetan Ariznabarra eta Estadion begirale bezala aritzen den Estik pausoak gehiago luzatzeko agintzen die, espazio libre guztia ongi aprobetxatuz. Hirugarren taldean, Majorin, saio guztietan nahiko espazio egoten da eta Oihanak ez du pausoen tamainari buruz ezer adierazten.

9.4.7 Aerobic jardulea eta esfortzua

Espazio eta partaideen arteko harreman horrek, aerobiceko koreografia burutzeko beharrezkoa den esfortzuan ere eragina izan dezake. Dantza pausoak egiteko distantzia handiagoak gainditzean musikaren abiadura jarraitzeko azkarrago mugitu beharra dakar esfortzua areagotuz.

Jarduleek egin beharreko esfortzuan beste aldagai batzuk ere eragina izango dute: musikaren abiadura, dantza pausoak edo errepikapen kopurua. Musikaren abiadura handiagoa denean jarduleek abiadura azkarragoan egin behar izaten dituzte dantza pausoak eta horren ondorioz pausoak ongi

menperatzea eta egoera fisiko on bat beharrezkoak dira. Ariznabarran Estik behin baino gehiagotan handitu du musikaren abiadura. Bera ohartzen denean partehartzaileek koreografia menperatua dutela musikaren abiadura igo egiten du, modu honetara jarduleei esfortzu gehiago egin araziz.

Dantza pausoak ere izan daitezke esfortzu hori handiagotzen dutenak. Aerobicean hasi berria denarentzako oinarrizko dantza pausoak xumeenak egitea ere esfortzu bat da. Era berean, oinarrizkoak menperatzen dituenarentzako beste dantza pauso batzuk edo pausoak bueltak eginez burutzeak esfortzu handiagoa egitea eragiten dio. Berdin gertatzen da koreografiaren egitura espaziala aldatzean, adibidez aurrez aipatu dugun bezala borobilean edo korruan burutzean.

Irakasleak agindutako dantza pauso guztien errepikapenak ere eragina izango du jarduleek egin beharko duten esfortzuan. Geroz eta errepikapen gehiago orduan eta neke handiagoa. Guk parte hartu dugun hiru taldeetan irakasleak agindutako errepikapenen zenbakia handitzen joan den heinean, kexa oihuak eta hasperenak egin dituzte.

9.4.8 Partaideen arteko errespetua

Aerobiceko jarduleek idatzita ez dagoen arau bat betetzen dute: beste parte-hartzaileenganako errespetua. Partaide bakoitzak aldamenekoari enbarazurik egin gabe burutzen ditu pausoak, ongi neurtuz eta kideari oztoporik eragin gabe. Bakoitzari egokitzen zaion espazioan burutuko du aerobic saioa, beste kide guztiei begirunea erakutsiz.

Errespetu hau saioak dirauen bitarte guztian antzemateaz gain, espazioaren azterketan ikusi dugun bezala, partaide bakoitzaren ohiko gunea gordetzean ere behatu daiteke.

Ariznabarra, Estadio eta Majoriko taldeetan partaideek elkarrekiko duten begirunea nabaria izan da. Hiru taldeetan saio bakoitzeko jardule kopurua desberdina izan da eta ondorioz parte-hartzaile bakoitzak dantza pausoak egiteko izan duen espazioa ere bai. Eremu horren baitan, jarduleek distantzia handiagoan edo txikiagoan kateatu dituzte pauso horiek, beti ere aldamenekoari espazio nahiko utziz.

Bestalde jardule bakoitzari bere ohiko gunea gorde egin zaio. Ariznabarran, adibidez, jardule bat bere ohiko tokia ez den lehen ilaran jarri da, baina beranduago eta oraindik saioa hasi baino lehen aurreneko ilaran jartzen den jardulea etortzean, bere betiko tokira joan da lehen ilarako gune hori besteari utziz.

9.4.9 Irakasle aldaketa

Aerobic denboraldiak dirauen bitartean talde bakoitzak irakasle edo begirale bat izatea da ohikoena. Saio guztietan begirale berdina izatean jarduleekin dagoen komunikazioa erosoagoa gertatuko da eta harreman horretan sortzen den konplizitatea ere handiagoa. Irakasle bakoitzak bere modura egiten ditu dantza pausoak: azkarrago edo geldiago, luzeago edo motzago, lotura gehiago edo gutxiago… Bestalde dantza pausoak eta koreografiaren didaktika ere desberdina izaten da begirale batetik bestera: errepikapen gehiago edo gutxiago, abiadura desberdinak… Guzti horrek eragiten du ezaguna den irakasle batekin dantza pauso eta koreografiak azkarrago barneratzea, emango den komunikazio motorrean kodeak ezagunak izango baitira.

Guk Ariznabarran izan dugu irakasle aldaketa bakarra. Estik, azterketa batzuk dituela eta, beraren ordez beste begirale bat etorri da bi saioetara. Irakasle horrek nahiz eta dantza pauso berdinak egin, parte-hartzaileei nahiko kostatu zaie koreografia menperatzea eta saio amaieran adierazgarriak izan dira jarduleen arteko komentarioak, batak besteari izan dituen zailtasunak komentatuz.

9.4.10 Dantza pausoen didaktika

Irakasle eta ikasle arteko harremanean roletan ikusi dugunez irakasleari dagokio saio bakoitzean dantza pausoak eta koreografia erakusteko modua zehaztea. Dantza pausoak banaka azaldu edo bat baino gehiago kateatu erakutsi, behin eta berriz errepikatu bakoitza edo bestetik dena azaldutakoan errepikatu… Guzti hori irakaslearen erabakia da eta bakoitzak bere metodologia erabiltzen du, nahiz eta hori irizpide batzuetan oinarritutakoa izan, nagusiki aerobicaren historian errotutako ohitura eta azturetan.

Esti eta Oihanak modu berean erakusten dituzte pausoak eta koreografiak. Lehenengo eta behin “frase” edo zortzi pultsutan sartzen diren dantza pausoak azaldu eta behin eta berriz errepikatu parte-hartzaile gehienak barneratu eta menperatu duten arte. Ondoren beste zortzi “beats”eko “frase” bateko dantza pausoak, aurrekoa bezala behin eta berriz errepikatuz. Behin lehen bi “frase”ko dantza pausoak jarduleek menperatzen dituztela ohartzean, bai Estik eta baita Oihanak ere, hamasei pultsu horietako dantza pausoak errepikatzen dituzte bi zatiak jadanik kateatuz. Hirugarren eta laugarren “frasea” osatzen duten dantza pausoekin aurrekoen dinamika berbera jarraitzen dute. Eta behin lau horiekin “bloque” bati dagozkion dantza pauso guztiak erakutsiak dituztenean, guztia errepikatzen dute geldiunerik egin gabe behin eta berriz partehartzaileak guztia menperatu arte.

Ordiziako Majorin irakasle den Oihanak ezin du bere taldearekin “bloque” bat baino gehiagoko koreografiarik burutu. Bera behin baino gehiagotan bere buruarekin atsekabetzen da jarduleei pausoak ikastea asko kostatzen zaielako. Ariznabarrako eta Estadioko irakasle den Estik aldiz, saio guztietan egiten ditu bi “bloqueetan” sartzen diren dantza pausoko koreografiak. Bigarren hogeita hamabi pultsudun dantza pausoak erakusteko aurreneko “bloquearekin” erabiltzen duen metodo bera aplikatzen du: “frase” bat, gero beste bat eta biak batera, lauak erakutsitakoan dena batera geldiunerik gabe eta behin eta berriz guztia errepikatuz. Behin bi “bloque” erakutsi dituenean biak lotuz eta geldiunerik gabe egiten ditu eta koreografia osoa errepikatzen du partaide gehienek menperatu arte.

Saioko koreografia osatzen duten dantza pauso guztiak erakutsita eta menperatuta, bi irakasleak errepikapenak kateatzen dituzte: lau edo bost errepikapen, baino batetik bestera jarraian eginez, azkeneko dantza pausoa eta lehenengoa gelditu gabe lotuz.

Taula 34: dantza pauso eta koreografiaren didaktika

Urratsa	Atala	Dinamika
Lehena	“Frase” bat egin dagokion dantza pausoekin	Errepikatu menperatu arte
Bigarrena	Beste “frase” bat burutu	Errepikatu menperatu arte
Hirugarrena	Laugarren “frase”a egitean “bloque” guztia “frase”en artean etenaldirik gabe dantzatu	Errepikatu menperatu arte
Laugarrena	Bigarren “bloque”an lehengoan jarraitu diren urratsak burutu	Errepikapenak

Parte-hartzaileek beren gorputz enborreko luzerako ardatzean egiten dituzten jira edo bueltak ere saio guztietako osagai izaten dira. Dantza pauso batetik bestera lotura egin nahian, hitz egitean juntagailu linguistikoak erabiltzen ditugun bezala, jirak dantza pausoak lotzen dituzte batetik besterako hutsune espaziala beteaz. Batzutan, buelta eginez planoz aldatzen da, ispiluaren aurrez aurre egotetik atzeko paretaren aurrean egonez. Aldaketa horrek jardule ikasleei erreferentzi espazialak aldatzea eragiten die dantza pausoak egitean, akatsak areagotuz. Ariznabarrako eta Estadioko irakasle den Estik etengabe sartzen ditu jirak eta Majoriko Oihanak egiten ditu baino gutxiagotan. Jardule ikasleen ustez, geroz eta buelta edo jira gehiago sartu koreografietan, orduan eta zailagoa egiten da ongi menperatzea.

Nahiz eta musika ez gelditu batzuetan irakaslea gelditu egiten da, pausoak geldi egonik parte-hartzaileei azaltzeko. Gelditu aipatzen dugunean, zera esan nahi dugu: musikaren taupadak edo “beatsak” ez dituela erritmoan jarraitzen, musikari kasurik egin gabe partehartzaileei koreografia osatzen duten pausoak poliki azaltzen diela.

Guk izan ditugun bi irakasleek erakusteko dinamika berbera erabili arren bien artean desberdintasun batzuk antzeman ditugu. Ariznabarran eta Estadioko begirale den Esti oso gutxi gelditzen da errepikapen batetik bestera. Saioak irauten duen denboran oso gutxi gelditzen da eta ondorioz partehartzaileak ere

etengabe gelditu gabe dabiltza. Majoriko irakaslea den Oihana aldiz, errepikapen artean denbora gehiagoz egoten da geldi. Kontuan izan behar da taldeak desberdinak direla eta kideen ezaugarrien arabera irakasleek egokitu behar dituztela saioak.

Irakasleek dantza pausoak erakutsi eta parte-hartzaileek horiek ikasi eta errepikatuz disfrutatzeko saioek irauten duten hirurogei minutu dituzte, honek baldintzatuz erakusteko modua: dantza pauso kopurua, errepikapenak…

Bai Estik eta bai Oihanak, jarduleek koreografia ikasi dutela ohartzen direnean behin eta berriz errepikatzen dute batetik bestera atsedenik hartu gabe. Saio gehienetan azkeneko geldialdirik gabeko errepikapenak izaten dira luzeenak. Estik zazpi edo zortzi egiteko adierazten die bere ikasleei. Oihanak geldiunerik gabeko lau edo bost errepikapen nahikoa izaten ditu.

9.4.11 Saioaren atalak

Hiru taldeetan saioa atal desberdinetan zatitzen dute irakasleek. Oihanak eta Estik saioak hiru ataletan banatzen dituzte eta biek egin dituzten zatiak berdinak izan dira: beroketa, koreografia nagusia eta lasaitasunera itzulera.

Beroketan ohikoa izaten da dantza pauso gutxi batzuekin koreografia motz bat egitea. Beroketan kateatutako dantza pausoak koreografia nagusian egiten direnak baino errazagoak izaten dira eta musikaren abiadura ere motelagoa izaten da. Ariznabarran eta Estadion, Estik aldi oro beroketan egiten dituen dantza pausoak desberdinak izaten dira. Aldiz Ordizian, saio guztietan edo gehienetan dantza pauso berdinak egiten dituzte, modu honetan jardule ikasle guztiek berehala menperatzen dituztelarik. Beroketaren azken partean eta musika itzali gabe dantza pausoak egiteari utzi eta luzaketa batzuk egiten dituzte. Luzaketa horiek gorputzaren behe atalari dagozkionak izaten dira eta hiru taldeetan berdinak izan dira. Behin luzaketak amaitu ondoren Esti eta Oihana eguneko dantza pausoak azaltzen jarduten dira ikasle jarduleei koreografia nagusia erakutsi asmoz.

Koreografia nagusian Esti eta Oihana dantza pauso desberdinak kateatzen joaten dira musikaren denboraren arabera “frase” eta “bloqueetan” zatituz. Atal

honetan oinarrizko pauso guztiak egiten dituzte eta musikaren abiadura ere beroketako partean baino handiagoa izaten da. Gehienez ere bi “bloque” musikal dituzten dantza pausoz osatutako koreografiak egiten dituzte eta behin eta berriz errepikatzen dira guztiak. Atal honen azken zatian Estik musikaren abiadura handitu egiten du parte-hartzaile guztiak koreografia behin eta berriz errepikatuz, batetik bestera etenik egin gabe, errepikapen baten amaierako dantza pausotik hurrengo errepikapeneko dantza pausora gelditu gabe. Ariznabarran eta Estadion sarritan zazpi edo zortzi aldiz errepikatzen dute koreografia gelditu gabe eta atsedenik hartu gabe.

Lasaitasun aldian azkenik Estik aurreko atalean egin duten koreografia beste behin errepikatzen du, baina abiadura geldoagoan. Ondoren luzaketak egiten ditu. Oihana aldiz Majorin zuzenean luzaketak agindu eta egitera pasatzen da. Luzaketa hauek beroketakoak baino anitzagoak izaten dira eta beroketan egiten diren behe atalekoaz gain gorputz enborrekoak eta goi atalekoak ere egiten dituzte. Hiru taldeetan egiten diren luzaketak berdinak dira eta nahiz eta zutik hasi, ondoren bakoitzak koltxoi txiki bat hartu eta lurrean egiten dira. Dinamika hau berdin berdina egiten dute guk parte hartu dugun taldeetako begiraleek, Estik eta Oihanak. Luzaketekin batera gehienetan giharrak indartzeko ariketa batzuk egiten dira; horien artean abdominalak dira nagusi, baino bular aldekoak edo bizkar aldeko giharrak indartzeko ariketak ere egiten dira.

9.4.12 Aerobic inskripzioa eta ordainketa

Aerobiceko saioetan parte hartu nahi duten jarduleek aerobica eskaintzen duten kirol zentroetan izena eman beharra daukate. Izen emate horrek diru ordainketa bat darama loturik. Partehartzaileek aerobic egiten duten hilabete bakoitzeko dirua ordaintzen dute. Ordaintzen duten kantitatea kirol zentro batetik beste batera aldatu egiten da eta aste bakoitzeko saio maiztasunak ere baldintzatzen du. Horrela Estadion astean bi aerobic saio egiteko hilabetean 35 € ordaintzen dituzte parte-hartzaileek. Majori kiroldegian hiru saio egiten dituztenak 34 € ordaintzen dituzte eta bi saio egiten dituztenak 31 €. Ariznabarran azkenik bi saio bakarrik eskaintzen dira astean eta 25 € ordaintzen dituzte aerobic jarduleek.

Hiruren arteko batezbesteko bat egitean hilabete bakoitzeko batezbestekoa 31 € aterako litzateke.

Taula 35: aerobic partehartzaileen diru ordainketa

	Hilabete bakoitzean ordaindu beharreko dirua
Estadio	2 saio: 31,00 € 3 saio: 14,00 €
Majori	2 saio: 35,00 €
Ariznabarra	2 saio: 25,00 €
Batez beste	31,00 €

Baina batzuetan aerobic egiteko ez da nahikoa izena ematea. Ariznabarran izena eman duten jarduleen artean zozketa bat egiten dute. Parte hartu nahi duten jardule kopurua txikia bada zozketa beharrik ez da izaten, baina jardule asko badaude prest, zoriak erabakitzen du aerobic saioetan nortzuk parte hartuko duten. Parte hartzea tokatu zaien jarduleek ondoren diru ordainketa egin beharko dute.

Ikusi dugun moduan jarduleen diru ordainketak hilabeterako lotzen ditu. Norbaitek hilabete bakar batean nahi baldin badu aerobic egitea nahikoa du dagokiona ordaintzea. Aerobic eskaintzen den denboraldian zehar edozeinek nahi duenean eman dezake izena eta era berean aerobic saioak utzi. Gure behaketa burutu dugun Estadio eta Majoriko taldeetan horrela gertatzen da, baina Ariznabarrako kiroldegian izena emateak hiru hilabeteko lotura ekartzen du. Kontutan izan behar da bertan zozketa egiten dutela parte hartu nahi duten jarduleekin.

9.4.13 Autoritatea

Aerobiceko saioak irakasleek zuzendu eta gidatzen dituzte eta Ikasle jarduleek beraien aginduak betez aritzen dira. Harreman horretan, irakasleak

agintzen duena saiatzen dira betetzen. Ikasleek ez dute saioen planifikazio edo diseinuan parte hartzen, begiralea da horren arduraduna eta jarduleen eginkizuna berak adierazten duena egitea da. Gure taldeetan Esti eta Oihana izan dira autoritatearen papera bete dutenak. Beraien ardurapean egon da saioen bilakaera eta hiru taldeetako jardule ikasleek hori onartu eta bete egin dute, inoiz eta inor ez baita saioen dinamika eta bilakaeraz kexatu. Irakaslearekiko izan diren kexa bakarrak errepikapen asko egin ondoren nekearen ondorioak izan dira eta beti txantxetan eta irribarrez eginikoak.

Irakaslearen autoritatea erakusten duen beste aldagai bat hitz egiteko erabiltzen duten tonua da. Oihana eta Estiren hitzak ordenak dira, altu eta ozen agindutako eginkizunak. Irakasleak agindu egiten du, agintarien tonua eta moduak erabiltzen ditu parte-hartzaileek dantza pausoak egin ditzaten. Koreografiaren azken errepikapenetan sarritan gertatzen da hau. Ikasleak nekaturik daudela irakasleak beste errepikapen bat agintzen du, bertan bera utzi ezin daitekeen agindu bat bailitzan.

9.4.14 Hitzezko komunikazioa

Aerobiceko saioetan komunikazio motorraz gain hitzezkoa ere erabiltzen da. Saioa zuzentzen duen irakaslea etengabe hitz egiten aritzen da, gidatzen, kontseiluak ematen, zuzentzen, animatzen… Ikasle jarduleek ere hitz egiten dute baino saioak dirauen bitartean begiralearen hitzen aldean protagonismo txikia dute.

Musika jarri eta saioa hasten den momentutik irakaslea ez da isiltzen. Bere hitzak bi atal nagusitan banatu ditzakegu: batetik, etengabe egiten dituen dantza pausoen izenak altuan kantatzen joaten da, (“V, caja, viña…”) eta bestetik, jarduleei agintzeko eta animatzeko hitzak (“¡Bien!, ¡Venga!, ¡Vamos!…”)

Pausoak etengabe altuan kantatzen joateak ikasleei lagundu egiten die koreografia ikasteko garaian. Parte-hartzaileek pauso bakoitza nola egiten den baldin badakite eta irakasleak dantza pauso guztiak altuan kantatzen baldin baditu, jarduleek ikusmenaren eta entzumenaren iturriak dituzte dantza pausoak ongi egiteko. Beste zentzu batetik lortutako informazioa gehitzeak lagundu egiten die dantza pausoak azkarrago barneratzen eta egiten. Bestalde begiraleak saioan

zehar behin eta berriz jarduleak bultzatzeko eta animatzeko hitzak esaten ditu. Hitz hauek batzutan oihuak dira, jarduleen interesa eta praktika hobetzeko intentzioarekin egindakoak. Estik eta Oihanak ere horrela egiten dute, etengabe hitz egiten aritzen dira. Estiren kasuan gainera hitzak agindu oihuak dira eta indarrez ateratzen dira bere ahotik; bere aginduek egiten dituen dantza pausoekin nahasian jarduleak kutsatzen ditu.

Bestalde Oihanak eta Estik dantza pausoak azaltzean parte-hartzaileengana zuzentzeko erabiltzen duten modua berezia da: begiraleak beti singularreko bigarren pertsonan zuzentzen dira, nahiz eta partehartzaile kopurua bi baino handiagoa izan eta ondorioz egokiagoa izan pluraleko bigarren pertsona erabiltzea.

Irakaslea dantza pausoak azaltzen ari den bitartean jarduleak isilik mantentzen dira, ez dago hitz egiteko beta eta gogorik. Tartean tarteka jarduleren baten hitzak entzungo dira begiraleari pausoak errepikatzeko esanez edo elkarri neke adierazpenen bat eginez. Parte-hartzaileek hitz egiteko aldiak irakasleak koreografia azaltzen duen bitartean edo errepikapenen artean proposaturiko atseden txikietan izaten dira. Ariznabarrako taldean ohikoa izaten da tarte hauetan bi edo hiruko taldetxoetan zerbait komentatzea. Sarritan koreografiaren gogortasuna aipatzen da edo, adibidez, aurreko saio batetara huts egin izanaren arrazoiak. Tarte horietatik kanpo, saioaren hasiera eta amaieran, binakako edo hirunakako elkarrizketak ohikoak izaten dira. Aretora hurbiltzen diren heinean talde txikietan hitz egiten jarduten dira eta saioa amaitutakoan, aldageletan, kiroldegiko atseden leku edo tabernetan ere elkartzen dira eta tertuliatxoak egiten dituzte. Horrela gertatzen da adibidez Estadioko taldean: saioa amaitu ondoren lau edo bost jardule eta irakaslea Estadion bertan aurkitzen den tabernara joaten dira zerbait hartu eta hitz egitera. Elkarrizketa gaiak hainbat izaten dira, baina sarritan ateratzen dira seme alaben kontuak beraietako gehienak amak direla erakutsiz.

Elkarrizketa horietan, eta gure behaketa burutu den hiru taldeetan, irakasle eta ikasleek erabili duten hizkuntza gaztelera izan da. Estik eta Oihanak saioak dituen osagai guztiak zuzentzeko gazteleraz hitz egiten dute nahiz eta beraiek eta

jardule batzuk euskaraz ere jakin. Dantza pausoen izenak edo musikari dagozkion “frase” edo “bloqueak” ere gaztelerazko hitzak dira eta horrela erabiltzen dituzte. Hiru taldeetako ikasleak ere gaztelera izaten dute hitz egiteko hizkuntza eta ez da besterik erabiltzen.

Aerobic saioetan parte-hartzaileek egiten dituzten elkarrizketetako gaiak hainbat izan da ere, Estadio, Ariznabarra eta Majoriko partaideen ezaugarriak, guztiak emakumeak eta adinez hogeita hamar urtetik gorakoak, bideratzen gaituzte hitz egitean erabili duten gai nagusira: seme-alabak.

Seme-alabak eta dituzten arazoak sarritan izan dira partehartzaileen arteko hizketa gai: oporrak eta eskola, gurasoak eta jarrera, maitekorrak eta jasan ezinak… Batzuk haurrak dituzte eta horien arazoaz hitz egiten da Estadioko tabernan biltzen diren taldekideak bezalaxe. Beste batzuk seme alaba helduak dituzte eta beraien izaeraz hitz egiten dute. Elkarrizketa horiek gehienak saioa hasi aurretik eta amaitu ondoren izaten dira eta aldagelarako bidea edo areto sarrera dituzte gune. Bestalde, aurrez aipatu dugu Estadioko taldekide batzuk, lau edo bost, bertako tabernan biltzen direla saioa bukatu eta arropaz aldatu ondoren zerbait hartuz kontu batzuk komentatzeko.

9.4.15 Seme alabak saioetan

Adierazi dugun bezala parte-hartzaile gehienak gurasoak eta zehatz esateko amak dira. Ezaugarri hori aerobiceko saioetan ere agerian gelditu da. Aipatu dugu saioak Aste Santuan eten egiten direla, baina kasu honetan etenaldi hori eta eskola umeen oporraldia ez dira bat etorri eta Ariznabarrako saioetara partaide bat bere bi seme alabekin etorri da aretora. Ama beste partehartzaile guztiekin batera aerobic egiten aritu den bitartean, bi umeak, aretoaren alde batean dauden koltxoietan eserita egon dira txintik ere esan gabe eta begiak ongi zabalik dituztela guztia behatuz. Beraien amak saioa hasi baino lehenago azaldu die beste jarduleei haurrekin etortzeko arrazoia: umeak oporraldian daudela eta aerobicera etorri nahi baldin badu haurrekin etorri beharrean dagoela.

9.4.16 Harremanen zentzua

Aerobic saioetan parte-hartzaileek beraien artean kooperatu egiten dute, praktika soziomotorra eginez. Parte-hartzaileek ez dute bere kasa eta bakarrik aerobic egiten, baizik eta irakaslearekin eta beste kideekin elkarrekintzan. Begiraleak eta ikasle jarduleek kolaboratu egiten dute saioak arrakasta eta bilakaera egokia izan dezan. Irakaslea ez da bere portaerarekin ikasleak engainatzen saiatzen, kontrakoa egiten du, dantza pausoak behar hainbat bider erakutsi. Irakasle ikasle harreman honetan agertzen bada ere kolaborazio sustrai nagusia, ikasle taldea osatzen duten kideen artean ere ematen da kooperazio errelebatu bat: irakaslea bistaz galtzen denean, kideek ikustea oztopatzen dutelako, aurrean dagoen jardulea bihurtzen da eredu. Modu horretara ikasle jardule batek bere inguruan daudenekin kooperatzen du eta hauek inguruan dauzkaten beste batzuekin. Horregatik da komunikazio errelebatua: lekukoa balitz bezala kooperaziozko komunikazioa kide batzuetatik besteetara aldatuz doalako.

Kooperaziozko erlazio horretan bi rol nagusi ematen dira: irakasle-begiralearena eta jardule-ikaslearena. Begiraleak autoritatearen rola betetzen du eta bere esku egoten da saioaren bilakaeraren kudeaketa, horretarako dantza pausoak erakutsi eta hitz egiterakoan benetako agintariaren imintzioak erabiliz. Rol bakoitzaren betebehar eta eskubideak desberdinak dira, batek dirua ordaintzen duen bitartean bestek dirua kobratzen duelarik, edo begiralearentzako lana den bitartean ikasleentzako aisia delarik. Kontratu horrek, ordaintzean aerobicean parte hartu eta saioak zuzentzean kobratu, lotzen ditu bi rolak, aerobiceko gizarte txikia osatzen duten banakakoak. Lotura horretan aurkitzen da kooperazioaren muina: aerobicak arrakasta izateko eta sistemak aurrera egiteko beharrezkoa baitute kolaboratzea, bien arteko dependentzia mantenduz. Eta sozietate horretako parte-hartzaile guztiak emakumeak dira, amak, beren seme alabetaz arduratzen diren langileak.

9.5 Aerobicean ematen den objektuekiko erlazioa

Aerobic partehartzaileek, beraien artean kooperatuz, astean bi edo hiru saio egiten dituzte areto itxi eta estalietan, baina ezaugarri horietaz gain jarduleek objektuekin mantentzen duten erlazioa arakatzea beharrezkoa dugu, aerobicak hartzen duen esanahi soziala agirian uzteko. Saioetan erabiltzen den materiala eta horien ezaugarri eta beharrezkotasuna izango da atal honetako edukia.

9.5.1 Musika irakurgailua

Aerobic egiteko, saioak burutzeko, beharrezkoa da musika egotea. Dantza pausoak musikaren erritmora egiten direnez, biko konpas hori markatuko duen musika entzutea ezinbestekoa bihurtzen da. Horretarako, areto guztietan musika entzungailu bat aurkitzen da. Musika irakurgailuek formatu desberdinak irakurtzen dituzte eta nagusiki Compact Disc (CD) delakoaz baliatzen dira musika entzuteko. CDa informazioa gordetzeko optika digitaldun euskarria da.

Musika irakurgailu horiek aretoetan aurkitzen diren armairuetan sartuta egoten dira, modu honetan giltzapean gordetzeko aukera egonez. Ariznabarran eta Majorin berarentzako propio egina den armairu batean gordetzen da eta Estadion, berriz, beste objektu batzuekin batera armairu handi batean dago. Irakurgailua kirol zentroena da eta ez begiraleena, baino CDeekin ez da berdina gertatzen. Estik eta Oihanak CDak erabiltzen dituzte eta Estik berarekin batera eraman eta ekarri egiten dituen bitartean, Oihanak armairuaren barnean aparatuarekin batera gordetzen ditu. Musika aparatuarekin batera, ozenago eta altuago entzuteko, anplifikadore edo bafleak aurkitzen dira aretoaren paretetan edo sabai eta paretaren artean. Hauek aparatuaren luzapenak, adarrak dira eta berarekin batera erabiltzen dira.

Irudia 30: Majoriko musika irakurgailua
Egilea. Asier Oiarbide

Estik eta Oihanak musika CD ugari erabiltzen dituzte. Nahiz eta batzuetan errepikatu eta CD berdina erabili, askotan saio batetik bestera aldatu egiten dituzte eta modu horretara musikaren egitura berdina izanagatik abesti desberdinak entzunez zuzentzen dituzte saioak. Bi irakasle horiek era berean musikaren abiadura handitzeko entzungailuak duen botoi batetaz baliatzen dira. Botoi hori mugituz entzuten den musika azkarrago edo geldiago irakurriko du aparatuak eta parte-hartzaileak beraien dantza pausoak abiadurara egokitzera behartuko ditu.

Irakasleei, musika altu jartzea gustatzen zaie, musikak dituen perkusiozko taupada horiek ongi entzun eta barneratzeko. Estiren ohitura musikaren bolumena igotzea da saioa aurrera doan heinean eta parte-hartzaileak koreografia menperatu dutela ikustean. Oihanak ere batzuetan bolumena aldatzen du, baina gehiago izaten da bere azalpenak hobekiago entzuteko.

9.5.2 Ispilua

Aerobic egiten den gela guztietan agertzen den objektua da ispilua. Ohikoa izaten da gelaren pareta batetan kokatuta egotea, hormaren azaleraren zati handi

bat beteaz. Ispiluak eragina du parte-hartzaileen kokapenean, hasieran denak ispiluari aurpegia emanez kokatzen baitira.

Ariznabarra, Estadio eta Majoriko aretoetan ispiluak gutxienez gelaren pareta bat betetzen du. Estadioko Salvan bigarren ispilu bat ere aurkitzen da beste pareta batetan. Ispilurik zabalena Ordiziako Majorikoa da, paretaren azalera gehien betetzen duena Ariznabarrakoa eta aipatutako bi areto horietan ispilu bakarra dagoen bitartean, Estadioko gelak bi ispilu ditu.

Irakasleak, ispilua erabiliz, jardule ikasleen pausoak ikusi ditzake. Begiraleak, jarduleei bizkarra ematen aritzen denez, ispiluari esker dantza pausoak nola egiten dituzten behatzeko aukera du: nor ari den ongi egiten edo nor dagoen galduta eta geldirik. Era berean, jardule ikasleek ere beraien dantza pausoak ispiluan islatuta ikusteko aukera dute.

Praktikatzen duten kideen iritziak desberdinak dira ispiluaren garrantziari buruz hitz egiterakoan. Oihana eta Esti irakasleek ezinbestekoa dela esaten duten bitartean, jardule ikasle gehienak ispilua ez dutela erabiltzen adierazten dute.

Bestalde, ispiluak efektu optiko bat ere bultzatzen du: aretoa errealitatean dena baino handiago denarena. Nolabait esateko espazio itxura bikoiztu egiten du, parte-hartzaileei gela handiagoa denaren sentsazioa emanez.

9.5.3 “Step”

“Step”a aerobic saioetan erabiltzen den objektu bat da eta ingelesezko hitza izanik, koska edo pauso esanahia hartzen du. 30 cm eta 1 m aldeak dituen errektangelua da eta zorutik 10 edo 20 cm altxatzen dena, baina altuera hori norberak nahi duen adina aldatzeko aukera dago azpian koska gehigarriak jarriz. Plastikozkoak, gainaldeko azalera estaliz goma fin eta estu bat darama jarduleen irristaketa ekiditeko. “Step”a erabiltzen den saioetan jardule bakoitzak bat erabiltzen du, zoruan kokatu eta dantza pausoak objektu horretan oinak jarriz egiten dituztelarik. Modu horretara jardulea jauzi txikiak eginez aritzen da dantza pausoak egitean. Objektu honek ez ditu dantza pausoak aldatzen, baina parte-hartzaileei behartzen die koska gainera igotzea.

Ariznabarra eta Estadioko taldeetan astean egiten diren bi saioetatik batean stepa erabiltzen da eta Majoriko taldean astean egiten dituzten hiru saioetatik batean. Gure taldeetako parte-hartzaile gehienek stepari koska gehigarri bakarra gehituz egiten dituzte dantza pausoak, baina badira Ariznabarran eta Majorin koskarik erantsi gabe egiten dutenak ere. Saio batean Ariznabarrako jardule batek bi koska gehitu dizkio “stepari” modu horretan altuera 25 cm ingurura igoz.

Majori, Estadio eta Ariznabarrako aretoetan bertan gordetzen dira stepak, bata bestearen gainean sartuz gelaren albo batean. Jardule bakoitzak ez du berea duen stepik, norberak nahi duena hartzen du. Material hau kirol zentroak jartzen du eta Oihanari edo Estiri komenigarria dela iruditzen zaienean erabiltzen da. Aipatzekoa da hiru aretoetan dauden step motak berdinak direla, bai itxura eta egiturari dagokionez eta baita ere marka komertzialari dagokionez.

9.5.4 Burdinak

Aerobic saio batzuetan erabiltzen dira. Gehienetan eskuekin hartzen diren burdinak izaten dira, gihartze geletan aurkitzen diren modukoak, eta pisua norberak nahi duen moduan aldatu daitezkeenak. Parte-hartzaileek giharrak indartzea bilatzen da burdin hauek erabiltzean.

Oihanak eta Estik oso saio gutxitan erabiltzen dituzte burdinak. Ariznabarran eta Estadioko taldean Estik jarduleei burdinak erabiltzeko saio amaieran esaten die. Saio horietan koreografia nagusia gutxiagotan errepikatu eta ohikoa den baino denbora gehiago izanez bukaera arte parte-hartzaileek burdinak hartu eta musikaren erritmora dantza pauso batzuk egiten dituzte. Estadioko Salva aretoan dauden burdinak gihartze guneetan egoten diren berdinak diren bitartean, Ariznabarran, burdinen ordez harez betetako plastikozko botilak erabiltzen dituzte praktika horiek egiteko. Majoriko begiralea den Oihanak berriz, behaketa burutu den saioetan zehar behin bakarrik erabili arazi dizkie burdinak ikasle jarduleei. Kasu honetan, saio guztian zehar aritu dira burdinekin, baina dantza pauso gutxi egin dituzte eta musikaren abiadura ohikoa baino geldoagoa izan da.

9.5.5 Koltxoi edo alfonbrak

Aerobic saio bakoitzaren amaieran egiten diren luzaketa eta gihar indartze ariketak egiteko koltxoi txiki batzuk aurkitzen dira aretoetan. Koltxoi horiek 1,80 mko luzera eta 0,60 mko zabalera dute eta zoruan egin behar diren ariketak burutzeko erabiltzen dira. Petrolioa fintzearen ondorioz lortutako lehengaien bidez eginak daude eta erosoagoa egiten dute zoruan egotea eta gainera isolatu egiten dute. Kolore desberdinetakoa izan daitezke baino urdinak eta berdeak nagusitzen dira.

Behaketa burutu dugun hiru areto eta taldeetan saio guztietan erabili dira koltxoi hauek. Saioaren azken partean eta koreografia nagusia behin eta berriz errepikatu eta irakasleak amaitutzat eman ondoren, Esti eta Oihana begiraleek koltxoiak hartzeko agintzen diete jarduleei beraien gainean jarri eta luzaketa batzuk egiteko. Behin ariketa horiek bukatuta berriro beraien lekuan uzten dira.

9.5.6 Arropak

Aerobicean ez dago uniforme ofizialik, partehartzaile bakoitzak nahi dituen arropak jantzi ditzake aerobic saioa egiteko. Arropa erosoak dantza pausoak askatasun handiagoan egiten laguntzen dute, baina jarduleek beraiek erabakitzen dute zein arroparekin saioa burutu.

Hiru taldeetan, parte-hartzaileek nagusiki galtza elastikoak eta tiradun kamisetak erabili dituzte. Jardule gehienen galtza elastikoak bernezur pareraino heltzen dira, baino batzuenak orkatilarainokoak dira, gune horretan zabalduz eta kanpai itxura izanez. Horrelakoak erabiltzen ditu Estik. Baina txandala bezala ezagutzen diren galtzak ere jantzi dituzte jardule batzuk. Partehartzaileek erabiltzen dituzten kamisetak tiradun delakoak edo mahuka motzekoak dira. Ariznabarrako eta Estadioko irakaslea den Estik bular aldean jartzen diren top izenekoak ere janzten ditu.

Galtzen koloreei dagokionez beltza da errege. Partehartzaileen elastiko gehienak beltzak dira. Kamisetak aldiz hainbat kolore eta irudi dituztenak behatu ditugu, prakekin alderatuz koloreen dibertsitatea handiagoa izanez.

Oinetakoei dagokionez partehartzaileek kirol zapatilak erabiltzen dituzte, marka eta kolore desberdinetakoak. Zapatila horiek zola gomazkoa dute eta indargetu egiten dituzte emandako pauso eta jauziak.

Taula 36: aerobiceko arropa eta ezaugarriak

Arropak	Ezaugarriak
Galtzak	Elastikoak eta beltzak
Kamisetak	Tiradunak eta kolore eta figura askotakoak
Oinetakoak	Gomazko zola duten kirol zapatilak

9.5.7 Edaria

Partehartzaile batzuk aerobiceko saiora edariren bat eramaten dute, saioak irauten duen bitartean tragoxka batzuk edateko. Ur botila txiki bat izaten da eta jardule bakoitzak koreografia burutu behar duen tokiaren alboan uzten du, trabarik egiten ez duen tokian. Gero, koreografia behin eta berriz errepikatzen denean eta irakasleak atseden une bat agintzen duenean, bakoitzak bere botilatik ur pixka bat edaten du.

9.5.8 Ordularia

Aerobiceko areto guztietan agertzen zaigu ordulari bat. Erlojua aurreko paretan kokatuta egoten da, ispiluaren gainean, partehartzaileak etengabe ikusteko aukera duelarik. Aretoko edozein guneetatik ikusi daiteke ordua, ordulariaren tamaina horretarako aproposa izaten baita. Behaketa burutu dugun Estadio, Majori eta Ariznabarrako aretoetan erlojua borobila da eta denetan ispiluaren gainean kokatuta dago. Tamaina handikoa eta analogikoa izatean edozein uneetan eta guneetatik behatu daiteke ordua. Aretoetako ordularia izaten

da saioetako orduaren erreferentzia. Begiraleek erloju horrekin kontrolatzen dute aerobicak iraungo duen ordu betea.

9.5.9 Termometroa

Ariznabarran hotz beroa neurtzen duen termometro bat aurkitzen da sarrerako atearen alboan. Txikia da eta tenperatura ikusteko beharrezkoa da asko hurbiltzea. Jarduleek sarritan begiratzen diote gelara sartzen direnean edo baita ere egiten dituzten atseden aldietan, esfortzuaren ondorioz izerditan aurkitzen direnean. Aerobica egiten aritu garen hiru aretoetatik bero gehien gainera termometroa aurkitzen den Ariznabarrakoan egin du, batzutan hogei gradu zentigradutara iritsiz.

9.5.10 Horma-barrak

Ariznabarra eta Majoriko aretoetan paretan erantsita horma-barrak aurkitzen dira. Egurrezkoak dira eta aretoaren pareta bat Majorin eta bi pareta Ariznabarran betetzen dituzte. Ez dira erabili aerobic saioetan eta parte-hartzaileentzat oztopo ere ez dira izan. Estadioko Salva aretoan ez dago horrelako materialik.

9.5.11 Armairuak

Aipatu dugu musika irakurgailua armairuetan gordetzen dela. Majorin armairu txiki bat dago musika aparatua bertan izateko. Ariznabarran armairua musika aparatua sartzeko baino handiagoa da eta bertan gordetzen dira burdinak ordezkatzen dituzten harea duten botilak. Estadioko armairua ere handia da eta irakurgailuaz gain beste material batzuk agertzen dira baina aerobic egiten inoiz erabili ez direnak.

9.5.12 Segurtasunezko kamerak

Gaur egun toki guztietan agertzen diren segurtasunezko kamerak ere agertzen dira aerobiceko gelatan. Irudi horiek kiroldegietako sarreran aurkitzen

den kontrolera heltzen dira, kontrolean daudenak jakin dezaten momentu oro gela horretan zer eskaintzen ari den edo zer gertatzen den. Majori, Ariznabarra eta Estadioko aretoetan kamara txiki hauek aretoko sabaiak eta paretek bat egiten duten tokietan agertzen dira eta bertan daudela ez dakienarentzako oharkabean pasatzen dira, ez baitira ikusten errazak.

9.5.13 Aerobiceko objektuak, ezaugarriak eta partehartzaileekiko erlazioa

Aerobiceko saioetan material eta objektuak erabiltzen dira. Aerobic egiteko ezinbestekoak diren musika irakurgailua edo CDetatik hasi, ispilu edo ordularitik pasaz eta giharrak indartzeko erabiltzen diren burdinetaraino jarduleak etengabe objektu horiekin harremanetan aurkitzen dira.

Horietako material batzuen ezaugarrietako bat aerobicerako bereziki eginikoak izatea da. Step bezala ezagutzen den koskak berdinak dira areto guztietan eta aerobic saioetarako erabiltzen dira bakarrik. Gainera guztiak berdinak dira, plastikoz eginak eta gainean gomaz estaliak. Ezaugarri hori teknologiaren eraginarekin lotzen da. Stepak, petrolioa fintzean ateratzen diren jatorrizko materialekin eginik daude, musika irakurgailuak urtez urte azken berrikuntzak jasaten dituzten irakurketa eta gordetze sisteman, arropak ehun naturalezkoak izan beharrean polipropileno edo elastan bezalako petrolio osagaiez eginikoak dira…

Aerobic jarduleak beraz beharrezkoa dute musika izatea eta horretarako irakurgailua ezinbesteko objektua da. Era berean, beste hainbat material ere erabiltzen dituzte, batzuek aerobic egiteko propio eginikoak eta guztiak teknologia berriekin erlazioa dute, aerobica garapen teknologiko eta industrialarekin lotuz.

9.6 Aerobica laburbilduz

Aerobic jarduleak saioen hasieratik amaieraraino egonkor eta berdin mantentzen den espazio batean kateatzen ditu dantza pausoak. Lehen aldiz aretora hurbiltzen den parte-hartzaileak, koreografia egoki egin ahal izateko salak dituen ezaugarri guztiak barneratzen ditu. Aurreneko aldian hori egin ondoren, gehiagotan ez du egin beharrik izango, gela egoera berdinean mantenduko baita eta osagaiak ez baitira aldatuko: zorua ez da bustiko nahiz eta kanpoan zaparradak eta hezetasuna nagusi izan, jarduleen ikusmena ez da gutxituko nahiz eta kaleetan iluntasunak ziurgabetasuna sortu… Aerobic parte-hartzailea ez dabil etengabe aretoan aurkitzen den informazioa bereganatu nahian, bere zentzuak ez dira espazioan dagoen informazioa jasotzera zuzenduak egongo, ez da beharrezko izango, aretoa estalita eta itxita egotean praktikako espazioa egonkor egongo baita.

Aerobicaren denboraren azterketak aldagai desberdinak hartzen ditu bere baitan: saioaren edo denboraldiaren iraupena, jarduera egiten den egun eta ordutegiak edo eta musika doinuaren denbora egitura. Baino praktika honen denbora ezaugarri nagusiena emaitzen memoriarik ez izatean datza. Parte-hartzaileak aerobic saio batean murgiltzen direnean, sailkapen, ranking eta irabazle gabeko jarduera batean aritzen dira. Inortxok ez die saiora ez azaltzea aurpegiratuko eta koreografia egokiena egiteagatik ere, ez da saririk banatuko. Jarduleak, praktikatzeak ematen duen plazeraz gozatzen dute momentuko egoera biziz. Bizitza laborala oinarritzen den denbora lineal batetik babesturik; lana egitearen kausak dirua du efektu; aerobic jarduleak denbora zikliko batetaz gozatzen dute, zikloak koreografien modura errepikatzen direlarik.

Monitorea da dantza pausoak eta koreografia agindu, erakutsi eta zuzentzen dituena. Ikasle parte-hartzaileak ispilua aurrez aurre dutela eta begiralearen atzean ilaratan kokaturik, honek egiten dituen dantza pausoak egiten saiatzen dira. Irakasle begiralea, taldearen mailara egokitu eta partaide guztiak koreografia ongi egin dezaten saiatuko da. Horretarako, koreografia “bloke”, “frase” eta dantza pausoetan zatituko du, parte-hartzaile guztiek konposizioa menperatu dutela ohartu arte. Ondoren, pauso guztiak elkarturik koreografia osoa

egingo du errepikapenen bidez guztiak ikasi eta disfrutatu arte. Elkarrekintza horretan antzematen da begirale-ikasle arteko kooperazioa. Monitoreak, koreografia, musika eta bere jokabidea taldera egokituko ditu eta ikaslea, guztia aintzakotzat hartzen saiatuko da. Irakasleak ez ditu engainu edo “finta” bidez dantza pausoak ezkutatzen eta ikasleek ere ez dituzte norberak nahi duen bezala koreografiak egiten, baizik eta bi rolen arteko interes sinergiak batu egiten dira aerobic eginez gozatzeko.

Aerobica erritmo musikala duen jarduera bat izanik, ezinbestekoa egiten da musikaren melodiak joko dituen objekturen bat izatea. Koreografia dantzatzeko musikaren “DUM, dum, dum, dum, dum, dum, dum, dum, DUM…” taupadak beharrezkoak egiten dira. Soinua zabalduko duen musika aparatu bat aerobic egiten den sala guztietan aurkitzen dugu. Bestalde, ispiluak, aretoen fisonomiaren parte dira eta aerobic jarduleen kokapena gidatzen dute, guztiak ispiluarekiko aurrez aurre jartzen baitira. Aretoan, taldeak hartzen duen orientazio espaziala zuzentzeaz gain, begiralearentzat ikasleen jarraipena egiteko eta akatsak zuzentzeko tresna ere badira. Beste objektu batzuk ere erabiltzen dira saioetan: step, koltxoia… baino hauek ez egoteak ez du bertan bera uzten aerobic saioa.

Aerobica emakumeek hiri eta herrietan egiten duten eta estetika eta ongizatea ordezkatzen duen praktika bihurtzen da. Egunerokoan “break” bat eginez musikaren erritmoan intimitatean burutzen den koreografia dantzatua.

IV. ATALA: FUTBOLAREN ETNOMOTRIZITATEA

10. kapitulua **Futbola: lagun talde bat beste baten aurka**

Futbolean jokatzen gaztetxoa nintzenean hasi nintzen. Oraindik gogoan ditut Segurako zelai zaharrean egiten genituen entrenamenduak. Euriaren ondorioz belarra lokatz eraldatutako lur zelai hartan, nahiko lan izaten genuen baloia aurrerantz kolpatzen. Egun batean, futboleko bota ere gelditu zitzaidan lokatzetan barneratuta. Honez gain, Lazkaoko lagunarteko txapelketan ere behin baino gehiagotan parte hartu genuen; nire burmuineko izkina batetan gordetzen dut txapelketa haietako batetan eginiko gol bakarra penaltiz sartutakoa izan zela. Garai haietatik gaur egunera bizitzaren bide gora-beheratsuak futbola bizi eta sentitzera eraman naute: badakigu non gauden, baina ez dakigu nora eramango gaituen.

Aurkezpena

Ostirala da eta gaur arratsaldeko 18:30etan zita dut Ordiziako entrenatzailearekin. Berak Angel izena du eta Gorengo Mailan jokatzen duen taldearen entrenatzailea da. Topagunea Ordiziako Altamira auzoko aldameneko zelaia da. Zelai nagusia berritzen ari diren bitartean, futbol talde guztiek hemen

jokatzen dute. Zelai nagusian, harmaila, pista, aldagela eta zoru berriak egiten ari dira.

Aldameneko zelai hau material sintetikoz egina dago, belar artifiziala deitzen zaio, baino ez da belarra, kautxu pusketa txikiz betetako moketa moduko zoru bat baizik. Zelaia buelta guztian eskuleku batez inguratua dago eta zelairen luzerako alde batean estali gabeko harmaila txiki bat ere badu (harmaila hau estaltzeko asmoa omen dago). Ordezko jokalari eta entrenatzailearentzako ere, aulkiak baditu. Zelai honek ez du beste eraikinik, aldagelak zelai nagusian baitaude, baino hor konponketa lanak egiten ari diren bitartean, jokalari guztiak zelaia ukitzen dagoen kiroldegian aldatu eta dutxatzen dira. Ordiziako futbol taldeek hemen jokatzen dute eta lagunarteko txapelketako partidak ere bertan jokatzen dira.

18:35ak dira eta gaztetxoak entrenatzen ari dira. Zelaiko aulkian eserita dagoen pertsona bati galdetu diot ea bera den Angel, eta berak erantzun dit ezetz, Angel laster etorriko dela. Hau esan eta begiak kiroldegira begiratzearekin batera azaldu da Angel. Berehala konturatu naiz bera dela, ez ezagutzen dudalako, baizik eta bizkarrean sare batean bilduta baloi mordoxka bat eta eskuan koaderno bat dakartzalako. Nire parera etorri denean, agurtu eta ni aurkeztu naiz, era berean nire behaketa egitasmoa azaldu diot. Berak bere borondate on guztiarekin esan dit ez dagoela arazorik. Gainera “esta temporada quería tener un preparador físico, y contacte con uno, pero al final no pudo ser” komentatu dit. Beraz, primeran. Urtean zehar eramaten duen plangintza azaldu dit eta berak esan dit poliki-poliki elkarlanean jardungo dugula. Gaizki iruditzen ez bazait datorren asteartean aurkeztuko nauela jokalarien aurrean. “Me parece muy bien; hoy me quedaré viendo el entrenamiento y mañana vendre a ver el partido contra el Hondarribia”. Denboraldiko une honetan Ordizia sailkapenean bosgarrena doa eta aurten, aurrena ateratzen dena igotzen da bakarrik Hirugarren Mailara.

Astearteko entrenamendua

18:45etan kiroldegi aldamenean dagoen zelaian gaztetxoak futbolean entrenatzen ari dira. Oraindik ez dago Angelen eta jokalarien arrastorik. Zelairen inguruan ikuslerik ere ez da ageri. Denbora asko pasa baino lehen etorri da Angel

bizkarrean baloiak sarean bilduta dakartzala. Baloiak berak ekarri eta eramaten ditu. Ez da ausartzen baloiak zelaiaren alboan dagoen kontainerrean uzten. Kontainer honetan egoten dira piboteak, makilatxoak eta ur botilak. Baloiak galtzeko arriskua dagoela eta, berak etxera eramaten ditu entrenamendua amaitzean. Baloiak kontatuak dauzka eta beti hamar baloi ekartzen ditu. Baloiekin batera koaderno bat ere ekarri du.

Aulkira inguratu ondoren jubenilen entrenatzailearekin hitz egiten hasi da. Hauek orain amaituko dute entrenamendua, Gorengo Mailakoentzako zelaia libre utziz. Jokalariak ere hurbiltzen hasi dira. Lehenengoak iristen Iñaki, Diego eta Josu izan dira eta agurtu ondoren baloi bat hartu eta paseak eta jaurtiketa batzuk egiten hasi dira. Angelek lasaitasuna eskatu die, oraindik ere berotu gabe daudela eta ez pasatzeko. Jokalari gehiago etorri dira eta zazpiak pasa direnean eta oraindik guztiak etorri gabe zeudenean, Angelek rondo bat egiten jarri ditu. Jokalariak borobil bat osatuz jartzen dira eta erdian jokalari bat gelditzen da. Borobilean daudenak beraien artean paseak egin behar dituzte baloiari gehienez bi ukitu emanez eta erdian dagoena baloia mozten saiatu behar da. Hamar pase egiten badituzte kanpokoak, bizi bat hartzen dute, era horretan erdian dagoenak bi aldiz ukitu beharko du baloia erditik borobilera pasatzeko. Erdikoak ukitzean, pasea egin duen jokalaria aldatuko da erdira, bertan zegoena borobilean jarriz. Jolas honek aldaera asko ditu eta beraiek era askotara jokatzen dute: erdian bi jokalari jarrita, toke bakarrera, eskutik helduta, hanka tartetik pasa ezkero bizitza bat…

Entrenatzaileak dio jolas hau asko gustatzen zaiola giroa egiteko eta jokalariak martxan jartzeko. Beraien artean barreak egiten dituzte eta batzutan Angelek ere parte hartzen du. Gainera beranduago etortzen diren jokalariak ez dute arazorik izaten jolas honetan sartzeko.

Poliki-poliki jokalari multzo handia bildu da, guztira hamasei jokalari etorri direlarik. Guztiak agertu direnean jolasa gelditu da eta denak borobilean jarri ondoren entrenatzailea banan bana galdetzen joan da zer moduz dauden, ea arazo fisikorik duten: golpeak, gainkargak, nekea… Aurreko larunbateko partidatik gaur arte taldea bildu gabe egon da eta jokalarien egoeraren berri jakitea

interesatzen da. Nahiz eta bakarren batek arazotxoren bat izan, denak entrenamendua osatzeko moduan aurkitzen dira.

Hurrengo lanari beroketa deitzen diote eta futbol zelaian bira batzuk ematen hasi dira. Korrika txikian eta hiru edo lau jokalariko multzoetan banatuta hizketan eta lasai ibili dira lau edo bost bira emanez. Orduan, Angelek agindu die bikoteka jartzeko bata bestearen atzean eta korrika jarraitu dute entrenatzaileak ere beraiekin batera korrika eginez. Egoera horretan gorputz atal desberdinak mugitzen hasteko agindu die jokalariei, berak agindu eta jokalariak egin. Gorputz atal desberdinak mugitzen korrika txikian doazen bitartean, taldea menperatutako koreografia bat bailitzan mugitzen da. Beti ere dinamika bera eramaten dute: Angelek ariketa aginduz behin edo birritan egin eta gero jokalariak gehiagotan errepikatu. Korrika txiki hau intentsitatez igotzen joan da eta hamar minutu ingururako abiadura igo egin dute eta esprint motz batzuk ere sartu dituzte. Entrenatzailearen ustez ongi berotuta daudenean, gelditzeko agindu die eta beraien kontura luzaketa batzuk egiteko. Jokalariak atseden guztiak beraien artean hitz egiteko aprobetxatzen dituzte. Beroketa hau egun gehienetan berdina izaten da. Jokalariek mugimenduak ikasiak dituzte eta era horretara azalpenak ematen oso denbora gutxi galtzen da.

Beraien kexak kontutan izanik jokalariei beroketa hau ez zaie gehiegi gustatzen. Korrikan doazela behin baino gehiagotan galdetzen dute ea azken bira den ala ez. Beraien kopetak belztu egin dira egin behar duten hurrengo lana jakitean: zelaiari biraka sei minutuko lau errepikapen egin behar dituzte, errepikapen batetik bestera minutu eta erdi atseden hartuz. Gainera korrika saio hauek nahiko indartsu egin behar omen dira: Angelek esan die %80an.

Bi taldetxotan banatu ditu jokalari guztiak eta talde bat berak zuzentzen duen bitartean bestea bere laguntzaileak zaindu dugu. Jokalariak ez dute oso gustuko korrika egitea, beraiek futbolean jokatzea maite dute eta ez korrika egitea. Orain arteko entrenamendu guztia ia baloirik ukitu gabe izan da eta beraiek baloia dute gustuko.

Korrika egiten dituzten errepikapenetan inork ez du hitz egiten. Aurpegi serioak ikusten dira eta arnas hotsa beste zarata guztien gainetik nagusitzen da.

Ez dago bromarik. Taldeko atzealdean doazenak nahiko lan badute aurrekoak ipintzen duen erritmoa jarraitzeko, hala eta guztiz, atzekoak ez diote esaten geldiago joateko. Jokalari pare bat atzeratu egin da bigarren errepikapenetik aurrera. Errepikapen batetik bestera beraien artean kexazko komentarioren bat ere egon da: “Jode! Oraindik beste bi alditan!”

Baino beraiek egingo ez luketen jarduera batetik gustukoa duten jarduera batetara pasa dira. Korrika errepikapenak amaitu ondoren, eremu mugatu batetan lau lauren aurkako partidatxoa jokatu behar dute 15 minututan. Hau bai! Inork ez du aurpegi txarrik jarri. Atezainik gabe bi ate txiki jarri dituzte piboteekin eta taldeak, guk eta Angelen laguntzaileak, egin ditugu.

Berehala pasa zaizkie hamabost minutuak. Jokoa gelditu dugunean ez dira oso gustura jarri: “Hau bakarrik egin behar al diagu futbola?” Hasierako rondoa baztertuta, entrenamendu guztian joko hau izan da baloia ukitu duten aldi bakarra. Eta jarraian egin behar dituzten ariketak ere ez dira baloiarekin egin behar. Guztira sei ariketa dira eta batetik bestera minutu erdiko atsedena dute: abdominalak, lunbarrak, flexioak, baloi medizinalarekin abdominalak, lurrean etzan eta gero jauzi egin eta baloi medizinalarekin atezain izeneko ariketa (lurrean eserita eta hankak zabalik jarrita baloia gorputzaren albo batetik bestera eraman). Guztiak bi aldiz pasa behar dituzte, eta nahiz eta aurpegi ona ez jarri, arazo handirik gabe egin dituzte. Hau amaitzean luzaketa batzuk egiteko agindu zaie, baino beraien kontura aldageletan egingo dituztela erantzunez, eta entrenatzailearen baimenarekin, jokalariak zelaitik joan dira eta entrenamendua bukatu egin da.

Gaur Champions Leagueko partida bat telebistan izateak eragina izan du entrenamenduaren amaieran, denak, baita Angelek ere, bukatu bezain laster alde egin dute zelaitik. Hurrengo entrenamendua bihar izango da eta Mikelek, beteranoa den jokalari batek hau zioen aldageletako bidean: “Moskeatuta nagok; jende gutxi etortzen gaituk entrenamendura eta etorritakoak zigorra jasotzen diagu!” Bere kexa gaur egindako ariketei buruzkoa izan da. Futbolean ia hamabost minutu besterik ez dituzte jokatu eta berarentzako beste guztia zigorra da. Bere ustez entrenamendura azaltzen den jokalariari pizgarriak jarri behar zaizkio sari gisa eta ez sei minutuko korrikaldi edo indar ariketak.

Entrenamendura ni eta Angel heltzen gara lehenak. Nire lehenengo kezka gaur zer egin behar dugun galdetzea izaten da. Galdetu ondoren, entrenamendua gelditu gabe jarraitzeko beharrezko diren objetuak atera eta jartzea izaten da: piboteak, makilatxoak, eremu mugatuak... Gaur ere hori egin dut eta ondoren jokalariak etorri ahala zer moduz dauden galdetu diet. Niregana beti antzeko kezkaren batekin etortzen dira: “izterraren atzeko partean min pixka bat zeukaat, zer egingo diat?” “Nola luzatuko diat bizkar aldeko gihar hau?” “Aldaka aldean molestia txiki bat zeukaat eta gehiagora joaten zatek korrika egiten diatenean, zer izango duk?” Horrelako galdera eta kezkak errepikatzen dizkidate beraiek nitaz espero dutena erakutsiz.

Zelaira iritsi bezain laster Angelen aginduetara jartzen naiz eta gaur ere horrela izan da. Niri tokatu zait talde batekin entrenamendu guztia egitea. Ez dut atsegin jokalariei gustatzen ez zaizkien ariketak agintzea. Adibidez, gaurko sei minutuko korrikaldiak: “Eta errepikapen hauek zertarako balio die? Nola egin behar zituago, oso indartsu?” Ni erantzuten saiatu naiz, baino gaur bezala beste egunetan ere “ez dakit” batekin bukatzen dut. Zubi lana egiten dudala sentitzen dut: entrenatzaile eta jokalarien arteko lotura. Ni ere galdetzen aritu naiz gaur egin ditugun ariketa hauek zertarako balio duten denboraldiaren zati honetan. Zenbait entrenatzaileentzako beharbada egokiagoa izango zen futbolean edo egitura berdineko joko batetan jokatzea. Nahiz eta horrelako galderak egin nire buruari, inoiz ez dut Angelek agindutako lana mespretxatzen. Beti “nik beste era batetara egingo nuke” esanez erantzuten diet jokalariei.

Ariketak iraun duten bitartean jokalariei animuak ematen eta zuzentzen aritu naiz. Nahiko diziplinatuak dira eta ez daukate nire beharrik ariketak egiteko, baina batzutan intentsitate eta gogo gehiegi ez dute jartzen eta beraiekin batera dihardut. Gaurko sei minutuko korrikaldiak ni buruan jarrita egin ditugu eta gogorra egin zait. Jokalari batzuk atzera gelditu dira eta nik ere esfortzu handia egin dut aurrean mantentzeko.

Entrenamendua bukatu denean Angeli esan diot Mikel kexatu egin dela entrenamendutara etortzen den jokalariei zigorra jartzen zaiela esanez. Berak erantzun dit Mikelek badakiela falta diren jokalariak zergatik ez diren etorri:

lanagatik. Ni bitartekotzan nabil: jokalariei ulertzen diet eta Angel errespetatzen dut.

20:45etan amaitu da entrenamendua. Denak aldageletara edo etxera. Aldagelak partidako egunetan ez bezala, entrenamendu egunetan kiroldegiko erabiltzaileekin partekatzen dituzte. Futbol zelaiko argiak itzali eta sarrerako atea itxiz, zelaia uzten azkena Angel izan da, baloiak bizkarrean hartuta berriro bere etxera daramatzala.

Liderraren bisita

15:15etan geldituak gaude futbol zelaian, zehaztuz, kiroldegiko sarreran. Partida arratsaldeko 16:30tan hasten da eta Angelek ordu eta laurden nahi izaten ditu partida aurreko ekintza guztiak egiteko: hamaikakoa eman, aldatu, berotu eta azken gomendioak eman. Jokalariak kiroldegira heltzen joan dira. Denak Ordizia Kirol Elkarteko txandala dute: galtza luze urdinak eta kamiseta zuria, beso gaina eta lepo inguruak urdinak dituelarik: Jokalari batzuk txandalaren goiko partea daramate, hau ere urdina baino galtzak baino argiagoa. Honen eta kamisetaren atzealdean garbi irakurri daiteke Ordizia K.E. Deialdian sartutako jokalari guztiak agertu direnean, denak batera aldageletara jaitsi gara. Botero ere aldageletan dago eta baita Sebas ere. Botero entrenatzaile laguntzaile bezala ibiltzen da eta Sebas taldeko delegatua da.

Aldagelak kiroldegian izatea, Ordizian dagoen oztopoa da. Ordizian futbol zelai berria egiten ari dira. Aurrez, bi futbol zelai zeuden: bat belarrezkoa eta bestea hondarrezkoa. Ordiziako talde nagusiak belarrezkoan jokatzen zuen. Denborarekin guztia berritzeko egitasmoa etorri da eta lehenengo hondarrezko zelaia berritu zuten, hondarra kendu eta belar artifizialezko zorua jarriz. Hau amaitzean zelai nagusiaren berriztatze lana etorri da. Zelai horretan ere belar artifiziala jarriko da eta harmailak eta aldagela berriak eraikitzeaz gain ingurua txukunduko da. Guzti hau bukatu arte Ordiziako talde guztiek aldameneko futbol zelaian jokatu beharrean daude, lehenago hondarrezkoa zen zelaian. Arrazoi horrengatik oraindik aldagelarik ez dago eta ondorioz aldamenean dagoen kiroldegira joan beharrean daude aldatzera.

Aldagelara jaitsi gara eta iritsi bezain laster Angelek isiltasun pixka bat eskatu eta hamaikakoa eman du: Iñaki (atezaina), Tete, Litri, Gontzal, Patxi, Mikel, Lander, Luzio, Goiko, Mikel eta Lete. Hau esaten amaitzean ordezko gelditu diren jokalariak aldagelatik kanpora atera dira eta besteak aldatzen hasi dira: txandala kendu, galtza motzak eta berotzeko erabiliko duten kamiseta jantzi, berna hezur babesleak jarri, futbol botak lotu eta babestu beharreko gorputz atalak benda edo esparatrapuz estali edo minaren kontrako spraya eman. Guzti honen ondorioz aldagela bapore desberdinen usainen amalgama bat bihurtu da: izerdia, spraya, futbol boten larrua, esparatrapua, jokalariak jaten ari diren platanoa, arbelean marrazteko erabiltzen den errotulagailuaren alkohola… eta hau guztia leihorik gabeko gela umel batean. Ez dago dudarik: ez da ganadu toki bat, baino ukuilu batean baino usainen nahaste handiagoa agertzen da momentu horretan aldageletan.

Ni gelaren izkina batetan nago, irteerako atearen alboan. Gune horretatik dena ikusi dezaket eta era berean inor ez oztopatu. Ni ere urduritzen hasita nago: guztiak prestatzen ikustean eta Angelen aurpegi eta egonezina behatzean nire bihotza ere bizkortzen hasi da. Partida handi bat dugu aurrean eta irabazi ezkero sailkapenean aurrera pauso garrantzitsu bat egin dezakegu. Jokalari batek edo bestek beren kezkak adierazten dizkidate: “Hi Asier, izterraren atzealdea pixka bat kargatuta zeukaat, zer egingo diat luzatu eta pomada eman?” Eta ni ere burrundara horretan sartuta, gomendio batzuk ematen saiatzen naiz: “Gaur edan ura sarritan, bero handia dago eta horrek eragina izan dezake”.

Aldatzen amaitzearekin batera Angel arbelaren aurrean jarri da eta berriro isiltasuna eskatu du. Aginduak emateko prest dago eta urduritasuna nabaritzen zaio. Gaurkoan Zarautz da aurkaria eta lider doaz. Bi jokalari aldamenean dagoen komunera joan dira eta Angel maldizioka haien zain. Beste bi jokalarik, konturatu gabe hizketan jarraitzen dute: “Zer egiten huen atzo beste neska horrekin hizketan?”. Angelek berriro isiltasuna eskatu du, oraingoan bere ahotsa gehiago altxatuz: “¡Por favor Litri, callaros un momento!”. Orduan guztiak isildu dira eta Angel nola jokatu behar duten azaltzen hasi da: behin eta berriz aipatu die Zarautz ez dela Ordizia baino hobea eta beraiek beldur handia digutela, inori baino gehiago. Partida irabazi beharra dagoela, horrek esango baitu Ordiziak non

bukatu nahi duen, bigarren postua lortzeko oraindik ere aukera badagoela. Gero, taldeak nola jokatu behar duen adierazi du arbelean marraztuz jokalarien nondik norakoak. Esan du Zarautzek, jokalaririk hoberenak erdigunean dauzkala eta hauek ekidinez alboetatik jokatzen saiatu beharra dagoela. Behin eta berriz errepikatu du guri beldur handia digutela, joaneko partidan ere irabazi egin genuela eta ez direla gu baino hobeak. Horrez gain partida guztietan errepikatzen diren hitzak ere esan ditu: “Hay que sufrir y hay que luchar. No dar un balón por perdido, sin correr no se puede ganar, no quiero ningún relajamiento, prefiero que déis todo aunque sea en medio tiempo porque tenemos gente de sobra en el banquillo, echarle cojones y andar con cuidado con las tarjetas”. Bere hitzaldia bukatzeko, aldeko falta eta kornerrak zeintzuk atera behar dituzten eta kontrako falta eta kornerretan nola kokatu behar diren adierazi du. Dena martxan dago; partida hasteko 45 minutu falta dira, honek ez du etenik eta guztiok zelaira goaz berotze lanetara.

Beroketa egiteko kiroldegi guztia zeharkatu beharrean dago: beheko solairuko pasilloa gurutzatu, bi eskailera multzo igo, atezainen bulegoaren aurretik pasa, taberna albo batetara utzi eta areto nagusia bistan dugula, kanpoko atera eramaten duen pasilloa gurutzatu. Behin kanpora aterata zelaira jaisteko ehun metro eskas gelditzen dira.

Jokalariak zelaira jaitsi bezain pronto berotze ariketak egiten hasi dira Angelen aginduetara. Beroketak egiteko talde bakoitzak zelai erdia hartzen du; guk, etxekoak izanik, aldagelatatik gertuen geratzen den zelai erdia hartu dugu. Baloiak ere banatu egin ditugu eta zarauztarrei, Boterok hiru baloi beraien zelaira pasa dizkie. Talde bakoitzak bere baloiak erabiltzen ditu partidak jokatzeko. Zarauzkoek gaur Ordiziako baloiekin jokatu beharrean daude. Bi taldeak zelaiaren erdiko marrak banatzen ditu, eta garbi antzematen da bakoitzaren eremua. Zelaian oraindik oso ikusle gutxi dago, 30 minututik gora falta da partida hasteko.

Angel erakusle dela jokalariek zelai erdiari hiru edo lau buelta eman dizkiote korrika txikian. Hiru edo lauko talde txikiko multzo bat osatuz burutu dute hau. Gero atalez ataleko berotze lanetan hasi dira. Beti ere Angel gidari dela giltzadurak mobilizatzen aritu dira korrika txikia eginez eta zelai erdi horretan albo

batera eta bestera ibiliz. Beroketa hau berdin egiten da partida guztietan eta jokalariek ez dute denbora galtzen ariketa nola egin behar den galdetzen. Arrazoi honengatik Angelek gustukoa du beti berdina egitea. Zelaiko zabaleraren joan etorrian, lepotik hasi eta orkatilaraino doazen giltzadura guztiak mugitzen aritu dira. Giltzadurak mugitzean giharrak luzatuz eta intentsitate maila handituz.

Oraindik baloirik ez dute ukitu eta aulkian geratuko diren jokalariak aldiz, beraien kontura baloia jaurtiz dabiltza horietako bat atezaina berotzen dagoen bitartean. Atezainak beroketa berezia egiten du eta Ordizian ohikoena aulkian gelditzen den atezainak lagunduz berotzea da. Ariketa hauek egin ondoren Angelek petoak banatu ditu eta hamar jokalariak bi taldetan banatu ditu. Zelaiko marrak probestuz eremu txiki bat mugatu du eta bi taldetxoak baloiaren jabetza mantendu behar den jolas batean ari dira. Beroketaren azken partea da eta Angel bera ere jokalariei intentsitate gehiago eskatzen ari da, beti ere minik hartu gabe ibili daitezen esanez. Poliki-poliki ikusleak futbol zelaira hurbiltzen ari dira. Gaur giro gehiago antzematen da, Zarautz lider izateak ikusleengan interesa piztu du. Baloiaren jabetza mantentzeko jokoa Angelek amaitutzat eman duenean, jokalariei irteera azkar batzuk egiteko agindu die. Zarauzkoak bitartean, beraien beroketa egiten ari dira. Talde bakoitza berea egiten dago eta partida hasi aurretik ez dago bi taldeen arteko harremanik.

Aulkian eserita Sebasen aldamenean nago eta nik ere jokalariek bezala berotzeko gogoak ditut. Partida aurreko tentsioaz gorputza gogortu zait eta jokalariak izerditan ikusteak inbidia ematen dit. Aldian aldi, jokalariren bat hurbiltzen zait ur eske eta nik animuak emanez agurtzen dut: “Animu, irabazi beharra zegok gaur eta!” Tarteka, zarauztarrei begiratzen diet ea ezkutuko zerbait antzematen dudan. Guretzako baliagarri egingo zaigun aztarnaren baten bila nabil. Haiek, nire begirada kontutan hartu gabe beraien errutinari jarraituz dihardute. Bat-batean konturatzen naiz atzazal pusketa bat ahoan dudala: atzazalak jaten ari naiz. Urduritasunak bere ordainsaria du eta nik “lasai Asier” esan nire buruari eta egoera kontrolatzen saiatzen naiz.

Beroketa amaitu dugu eta guztiok berriro aldageletako bidean jarri gara. Zarauztarrak ez dira aldagelara sartu. Ziurrenik, berau zelaitik nahiko urrun

egoteak beraien erabakian eragina izan du. Aldageletan izerdi usaina areagotu egin da, oihuak ere bai: “Aupa Ordizia!” Taldeko presidentea ere aldagelatara hurbildu da eta izkina batean isilik dena behatzen dago. Jokalariak beroketan erabili duten kamiseta kendu eta partidako kamiseta jantzi dute. Bakoitzak bere zenbakia du eta garrantzitsua da hau ongi izatea, arbitroari bakoitzaren fitxa eta zenbakia ematen baitzaizkio. Angel behin eta berriz azpimarratzen ari da: “¡Jugar por las bandas, atentos a los rechaces, con ganas!” Futbol boten takoen zaratak giroa intentsitatez igotzen laguntzen du. Dena prest dago. Elkarrekin eskuak topatzen ditugu: “Benga ehh! Aupa Ordizia! Gogoekin ehh!” Inor ez dago geldi eta bat-batean zelaira ateratzeko abisua: arbitroaren txilibituaren hotsa.

Hau entzutean, Tete, kapitaina, zelaira atera aurretik egiten den erritorako prestatu da eta beste guztioi deitu digu. Bera, erreberentzi bat egiteko moduan makurtu da eta bere esku bat aurreratu du. Laster jarri dira beste jokalariak ere posizio berdinean elkarren eskuak bata bestearen gainean dituztela. Baita ni ere, besoak osatzen duten armiarma sare horretan tokia topatu eta besteen eskuekin bat egin nahian. Guztiok elkarren eskuak batuta ditugunean, baita presidenteak ere Tete oihuka hasi da eta guztiok abestu dugu berak kantatu duena: “Ordizia euh! Ordizia euh! Ordizia euh!” Hiru alditan oihukatu ondoren denak altxatu gara eta aldagelatik ateratzen hasi gara, eskuak elkar topatuz, bizkarrean animuak eskainiz, eskua emanez eta buruan ukituz. Guzti hau oihuen bidez lagundurik: “Benga ostia! Goazen! Aupa!”

Berriro kiroldegiko irteera berdina egin dugu, oraingoan azkarrago. Denak tentsioan goaz, ez dago elkarrizketarik, futbol boten hotsak batailara doazen zaldien oin-zarata dirudi. Futbol zelaia bistan dugu, aurrekoetan baino ikusle gehiago hurbildu da. Plaza, futbol zelaia, prest dago. Bagoaz!

Jokalariak zuzenean zelaira sartu dira eta Angel eta Sebas aulkira joan dira ordezko zazpi jokalarirekin batera. Botero aldiz, aulkiaren aldamenean geratu da, Angelen alboan baino aulkitik kanpo. Boterok ez du nahi izaten aulkian egotea; aulkian egoteko federazioko fitxa beharrezkoa da, baina berak ez dauka fitxarik eta ez du nahi. Arrazoia posizio horrek ekartzen dizkion abantailak dira. Bera, izugarri sartzen da arbitro eta marrazainekin, edozein gauza esateko gai da, baita

irainik gogorrenak ere. Baina epaileak ezin dio ezertxo ere egin, ikusle soil bat besterik ez baita. Bere lana Ordiziaren aldeko presioa egitea da, ez du jokatzen, baina jokoan eragina izaten saiatzen da.

Ni aulkiaren beste alboan kokatu naiz, zutik eta besoak esku-lekuan ezarriz, ni ere partida hasteko irrikan nago. Buruan hasierako imajina daukat: jokalari guztiak beren lekuan kokatuta, erdiko marraz bestalde aurkariak, erdian epailea, Tete gure kapitaina eta aurkarien kapitainarekin eta alboetan marrazainak. Nire alboan, gure aulkian, Angel ezik denak eserita daude; hau zutik dago dena behatu nahian. Oraindik urduri jarraitzen dut baino jadanik partidan sartuta nago, ez naiz nire urduritasunaren jabe. Partida hastera doa eta nire baitan pentsamendu hau dut buruan: “Aupa Ordizia! Irabazi beharra zegok!”

Intentsitate handiz hasi da partida. Jokalarien gogoak batzutan sarrera gogorrak egitera eraman ditu. Baloi guztiak azkeneko jokaldiak balira bezala lehiatzen ari dira. Epaileak gure aurka zerbait adierazten duenean ikuslegoa kexatzen hasten da eta berehala entzuten dira bi edo hiruren ahotsetan epailearen aurkako biraoak: “Desgraciado, imbécil!” Angel, etengabe jokalarien posizioak zuzentzen ari da: “Patxi vete más hacia el centro cuando el balón está en la otra banda!” Jokalariak buruarekin baietz eginez erantzun dio. Halako batean, Luziok Goikori pasa dio eta hau sakoneko marraraino baloia eramenez joan eta handik pase eder bat eman dio berriro Luziori, honek jaurti eta goo… ez!!, zutoina ukituz pasa da baloia. Gure lehen aukera garbia, pena handia izan da, baina oraindik hutsna berdinduta jarraitzen dugu eta dagoenerako hamar minutu pasa dira.

Nire bihotzak bular aldetik irten nahi du. Bertan tokirik ez duen bezala sumatzen dut eta azken jokaldi honetan konturatu gabe arnasa hartzean etenaldi bat egin dut. Jokoak, buruan daukadan beste guztia jaten dit. Burmuina futbol partidan bakarrik dago eta bihotza, zainen odola izango balu bezala, Ordiziako urdin koloreez jantzi da.

Bigarren aukera bat ere izan du Ordiziak baina ezin sartu baloia sareetara. Ikuslegoa partidak daraman bilakaerarekin bero-bero dago eta txistuak eta oihuak edozein momentutan entzuten dira. Epaileak nahiko lan badu bere lanaren onespena lortzen. Futbol zelai hauek txikiak dira eta zelaiaren ingurune guztia

eskuleku batek babesten du zelaia. Egoera hauetan ikuslegoa eskuleku horretan besoak jarrita egon ohi da eta partida bertatik bertara ikusten du, jokalariak alboko sake batetan ukitu ditzakeelarik. Zelai inguruneko esku leku honez gain Ordiziako zelaiak harmaila txiki batzuk ere baditu zelaiaren luzerako aldamen batetan. Bertan ere ikusle asko jartzen da, besteak beste, esertzeko aukera dagoelako. Egoera horietan ikusle eta epailearen arteko distantziak batzutan oso txikiak dira eta sarritan oso bortitza gertatzen da harreman hori. Epailea bereak eta bi entzun beharrean egoten da eta noizean behin eraso fisikoren bat ere jasan dezake. Arbitroaren kontrako irainak era guztietakoak izan daitezke, hasi barrea eragiten dutenetik: ("¡Vete a General Óptica!" edo "¡Qué te pesa el chuletón!"); beldurra eragiten duteneraino: ("¡Hijo de mala madre que te voy a matar!"). Gainera, oihu guzti hauek dagokien gorputz adierazpenarekin esaten dira eta egoera horietan jokaldi orotan epaia egoki ematea ez da batere erraza.

Ordiziako ezkerraldeko erasotik Patxik aurrera egin du bi aurkari gainditu eta area handiko ertzera iritsi da, aurkari bat gainean du eta badirudi atzera pase egin behar duela, baino ez! Atzerako keinua egin eta erdiratu egin du eta area txikiaren marraren gainean Letek aterantz errematatu du eta baloia langara!! Baina jokaldia ez da amaitu eta langan jo ondoren baloia berriro atzerantz irten da eta han Luziok baloia jaurti eta gool!! Ordiziak gola sartu du. Jokalariak lurrean bata bestearen gainean jarri dira gola ospatzeko. Bat-batean min guztiak joan dira, baita kexa guztiak ere, nahiz eta kide bat gainean jarri, honek ez du minik eragiten, estasia da.

Esku-lekutik besoak altxa eta jauzi bat egin dut. Oihu bat ere bai: Gool!! Pozik nago eta nire baitan aupa! esan eta ordulariari begiratzen diot: lehen zatia amaitzeko hamar minutu falta dira. Atseden aldira arte emaitzari eutsi beharrean gaude. Aulkian daudenekin begiradak gurutzatzen ditut eta beraien begien distirak argi adierazten didate beraien poztasuna. Gustura gaude, irabazten goaz!

45 minutuak pasa eta jokoak aurrera jarraitzen du. Arbitroa atsedenekin eta min hartutakoekin galdutako denbora gehitzen ari da. Ikusleak beren kasa epaileak egiten duena imitatuz txistua hiru bider oihukatzen ari dira lehen zatiaren amaiera adieraziz. Zarauztik etorri direnak ordez arbitroari etengabe adierazten

diote beraien keinu eta oihuen bidez, hiru edo lau minutu gehitu beharrean dagoela, egon diren denbora galtzeen ondorioz. Inori kasu egingo ez balio bezala eta batzuen pozerako eta besteen atsekaberako epaileak lehen zatiaren amaiera adierazi du. Txistua jo bezain laster, jokalariak eta aulkikoak aldagelara bidean jarri dira. Guztiak pauso azkarrean atsedena hartzera. Berriro kiroldegira eta bertako pasilloak gurutzatu ondoren aldagelara.

Aldagelara sartu orduko bi jokalari kamiseta kendu eta lurrean eserita jarri dira; beste bi edo hiruk botak kendu dituzte. Denak eskuetan edariren bat dute: ura, refreskoa… Litri bere bigarren platanoa jaten hasi da eta Josuk bere arrastara erakutsi dio Sebasi eta honek garbituko diola agindu dio. Aldagelako tenperatura igo egin da, denak izerditan blai; izerdi lurrina antzematen da. Guztien artean animuak ematen sartu dira aldagelara baina orain Angelek isiltasuna eta lasaitasuna eskatu die. Behin eta berriz isiltzeko esan beharrean egon da. Orain aldagela isilik geratu da eta izerdia iturri duen sauna publiko bat dirudi. Tarte horretan presidentea ere sartu da eta inori ezertxo ere esan gabe bera ere eseri eta isilik geratu da. Hiruzpalau minutu isilik egon ondoren berriro Angelek isiltasuna hautsi eta hizketan hasi da. Orain arte bezala jarraitzeko esan die. Oso ongi ari direla eta intentsitate hori mantentzeko. Horrez gain, bi zentralei Litri eta Badiolari, txartelekin kontuz ibiltzeko esan die, ez duela nahi arbitroak inor kanporatzerik. Jokalariak seinale dute egindako esfortzua: beraien begiak ez daude toki zehatz bati begira, baizik eta begirada galdua dute, beste bizitza batean egongo balira bezala.

Pozik sartu naiz aldagelara, emaitza ona da eta disfrutatzen ari naiz partidaz. Adrenalina, emaitza ote? Jokalariei animuak eman dizkiet eta orain arte oso lan ona egin dutela esan. Aldagelan zutik nago aulkien egituraren kontra okertuta. Isiltasunean murgildurik keinuekin animuak eman dizkiet Mikel eta Leteri. Angelekin ere konplizitatezko begirada bat gurutzatu dut, gustura dago, antzematen da. Isiltasuna hautsi denean hiru edo lau txalo jo ditut: “Benga! Benga!”

Angel gomendioak ematen ari dela arbitroaren txilibitu hotsa entzun da, zelaira ateratzeko abisua. Orain arte eserita egon diren jokalari guztiak altxatu dira

eta erritualerako prestatu dira: “Ordizia eu! Ordizia eu! Ordizia eu!” Ondoren, elkarri ukituak, txaloak eta animuak: “Aupa Ordizia!” Denak zelaira abiatu gara eta oraingoan epaile eta marrazainekin batera joan gara kiroldegiko pasilloan. Zelaira iristean ikuslegoaren burrundara handitu egin da eta iskanbila horretan bi edo hiru garrasi gehiago entzun dira: “Aupa Ordizia!” Arbitroa heldu denean aldiz hego haizeak teilatuen ertzak igurztean ateratzen duen bezalako txistu hotsak entzun dira. Dena prest bigarren zatia hasteko, beste berrogei eta bost minutu partidako emaitza zehazteko.

Nahiz eta bigarren zati honetan gol aukera garbirik ez izan bi taldeek, partida, poliki poliki berotzen joan da. Hori errepikatzen den ezaugarria ere bada: partida amaitzera doan heinean ikuslegoa berotu egiten da eta jokalariak ere bai, edo alderantziz. Gaur ere horrelako zerbait gertatzen ari da. Jokalariak sarrera itsusiak egiten hasi dira eta ikusleen iskanbila ere gehitu egin da. Baloia gehienean zarauztarren oinetan dabil, baino ez dute gol aukerarik sortzen. Ordiziarrak emaitzari eutsi nahian dabiltza eta baloia berreskuratzen dutenean, kontraeraso azkarrak egiten saiatzen dira nahiz eta orain artekoan emaitza onik ez lortu.

Mikelek zelai erdian baloi bat galdu du eta aurkari batek Badiola gainditu eta Litri eta atezaina ditu bakarrik aurrean. Litri saiatu da eusten falta ahalegin bat eginez, baino ezinezkoa izan du eta aurkaria Iñakiren aurrean aurkitu da bakar-bakarrik. Ikusleak isilik geratu dira une batez, toki ilun batean sartzen zarenean sortzen den beldurrak eragiten duen isiltasunaren antzera. Arerioak baloia jaurti eta baloia sarera dioala, hara non azaltzen den Iñakiren beso luze eta esku zabala hori oztopatzeko. Eskularruz estalitako hatzekin kornerrera bidali du baloia. Ikusleen txaloak bere lana goratzen dute. Berriro argitasunera bueltatu dira guztiak, arriskua pasa da.

Nik, konturatu gabe, eskuineko hatzetako azkazalak moztu ditut, ezinegonaren ondorioa. Nire egonezina partidaren bilakaerarekin batera handitzen ari dela dirudi. Bi taldeen arteko borroka horretan ikusleen oihu eta irainen artean, nire buruari galdetzen diot ea nola den posible egoera horretan epai egoki bat

egitea. Jokaldi batean lotsatu ere egin naiz nire taldekide Boterok oihukatu dituenetaz.

Amaitzeko zortzi minutu falta dira eta zelai erdian jokalari batek ihes egin dio Landerri. Arriskutsua izan daiteke eta ihesi doan lapurra jarraitzen den bezala, Lander bere atzetik abiatu da eta iristen ez dela oharturik, bere zangoak aurreraka dituela sarrera gogorra egin dio zarauztarrari. Baloia, nork ukitu duen lehen argi ikusi gabe, alde batera punpak emanez atera da. Lander eta aurkaria lurrean gelditu dira, zarauztarraren aurpegiaren kizkurtasuna, minaren adierazle izanez. Epaileak falta seinalatu du, eta esprint txiki bat eginez bi jokalariak dauden ingurura arrimatu da. Iritsi bezain laster eskua bere kamisetaren bular aldean duen poltsikora eraman du eta kemenez txartel hori bat atera eta Landerri erakutsi dio, bere aurpegiaren aurrean jarriz. Landerrek bigarren txartel horia du hau, lehen zatian beste bat atera baitio. Arbitroak ikuslegoaren oihu, txistu eta irainen artean, eskua berriro poltsikora sartu eta Landerri txartel gorria atera dio. Ikusleak oldartu egin dira eta batzuen jarrera eta biraoak beldurra eragiteko modukoak dira. Lander, buruarekin ezezkoa esanez zelaitik kanpora abiatu da. Angel ere eskuak eta besoak zabal-zabal dituela azalpenak eskatzen ari da arbitroari. Botero, beste ikusle bat bezala, sekulakoak esaten ari da epaile eta aldamenean duen marrazainari. Giroa berotu eta gaiztotu egin da. Ordiziak azken zortzi minutuak jokalari bat gutxiagorekin jokatu beharko ditu.

Arauzko 90 minutuak pasa dira eta epaileak ez du partidaren amaiera seinalatzeko itxurarik agertzen. Ordiziako jokalariak beraien zelaian sartuta daude eta zarauztarrak ekin eta ekin ari dira partida berdindu nahian. Iñaki atezaina, atera doazen jaurtiketa guztiak gelditzen ari da. Botero marrazainaren atzetik dabil. Marrazainak albotik aurrera edo atzera egiten duenean, Boterok, bere atzetik ibilbide berdina egiten du. Bien artean metro bat besterik ez dago eta Botero kristonak eta bi esaten ari da arbitroaren laguntzaileari. Marrazaina ezer entzungo ez balu bezala dabil baina ziur nago partida amaitzeko desiratzen dagoela, egoera horretan presioa izugarria da.

Lau minutu pasa ostean, txilibitua hiru arnas putzaraz joz, epaileak partidaren amaiera erabaki du. Zelaian, ahots askoren pozezko oihu bat entzun da

eta txaloak nagusitu dira. Ordiziako jokalariak elkarri bostekoa ematen kontent antzematen dira, zarauztarrak ordea burumakur. Horietako bat eta Botero aldagelara bidean eztabaida iraingarrietan hasi dira: “Vete a la playa a surfear las olas!” batek eta “Date una vuelta por el bosque puto enano!” besteak. Beraien tartean doazen jokalari eta laguntzaileak, liskarra gehiagora joan ez dadin lagundu dute. Epailea eta marrazainak, denbora asko galdu gabe, oharkabe pasatu nahian, aldageletara abiatu dira. Bi edo hiru jokalari joan dira beraien aldamenean azalpenak eskatu nahian. Jokalari eta arbitroak osatzen duten multzo horretan, Angel ere aldageletara doa bere aurpegian ezkutuko irribarre bat irudikatuz.

Epaileak amaiera adierazi duenean, hartu dudan lasaitasuna eta poza handia izan da. Partidaren azken zatian lotsa-lotsa eginda egon naiz Boterok hartu duen jarrerarekin: momentu horietan biok taldekide izatea damutu dut. Partida irabazi dugu, aurkaria liderra zen eta garaipen honekin hirugarren jartzen gara sailkapenean. Nire poza handiagoa da jokalariek hartuko duten poza irudikatuz. Berehala aldagelan utzitako plum cake-an pentsatzen dut, jokalarientzako egindako pastelean. Aldagelara sartzen naizenean berehala ireki eta zatitan banatuko dut: “Aupa Ordizia!”

Aldagelan jokalariak lehertuta daude; pozik baino nekatuta. Esfortzua aurpegietan antzeman daiteke: burugainetik behera erortzen diren izerdi tantetan, begien gorritasunean, egunerokoan ikusten ez diren zimurretan… Beraien ahotsa ere gastatuta dago, ez da garbia. Batzuk izterretan arrastarak dauzkate eta beste pare bat golpeetaz kexatzen dira, beraien giltzadura eta giharrak handituta agertzen direlarik. Baino oinaze guzti hauen gainetik, garaipena dago eta honek ematen duen pozaren indarrak aje guztiak errazago sendatzen ditu. Dutxara, bakoitza bere erritmora doa, presarik gabe. Batzuk gauerako plana egiten ari dira: zein ordutan eta non gelldituko diren. Angelek orain irribarrea ez du ezkutatzen, agerian du distiratsu.

Angel zoriondu dut, horrelakoetan poza ematen du: guztiok gaude pozik. Bera Errealaren partida ikustera doa eta Aste Santuko oporrak ongi pasatzeko elkarri desiratuz agurtzen gara. Datorren astean ez dago partidarik, txapelketak etenaldi bat egiten du Aste Santua dela medio. Denak oporrak ditugu: jokalariak,

entrenatzaileak eta bere laguntzaileak. Jokalariak ere zoriontzen ditut eta beraiek ni ere: “Hi haiz onena, oso ona zegok!” Plum cake-a asko gustatu zaie.

Lasai nago, hustuta, zerbait falta balitzaidake bezala. Guztiak agurtu ditut baita Botero eta Sebas ere eta aldagelatik irten naiz. Nire pausoa orain lasaia da baina oinaze batzuk ere sentitzen ditut: hatz puntetan erresumina daukat; oharkabean partidak iraun duen bitartean hatz azalak gehiegi moztu ditut.

Beteranoa

Gaur Ondarroara goaz bertako Aurreraren aurka jokatzera. Guretzako liga honetan dagoen desplazamendu luzeena da hau. Autobusez ordu eta erdiko bidaia dago eta partida 16:45etan hasten den arren Ordiziatik 14:00etan atera gara. Autobusean, bakoitza bere kasa denbora hobekien pasa nahian dabil; batzuk elkarrekin hizketan, beste batzuk musika entzuten, siesta egin nahian ere bai, eta bakarren bat bere mobilarekin jolasean edo mezuak bidaltzen.

Nire aldamenean Goiko, Goikoetxea du abizena, doa. Bera taldeko beteranoa da, 33 urte ditu eta zelaira ateratzen denean kapitaina. Futbolean jokatzen 14 urterekin hasi zen eta harrezkero ia 20 urte daramatza etenik gabe talderen batean jokatzen. Gaztetxoa zenean Beasainen jokatu zuen kategoria desberdinetan. Behin helduen kategoriara heltzean 19 urterekin, Beasainen jokatu omen zuen, hau Bigarren B Mailan zegoenean. Berak esaten du jokatu ez zuela asko jokatu, minutu batzuk bakarrik, baino esperientzia oso ona izan zela eta asko ikasi zuela maila horretako beste jokalari batzuekin entrenatzen. Ordutik, Tolosan ibili zen Hirugarren Mailan eta azkenean Ordizian bukatu du. Tolosan amaitu zuenean bera futbola uztera omen zihoan baino Ordiziako entrenatzaile bat etorri omen zitzaion bertara joateko esatera. Konbentzitu nahi horretan, esan omen zioten nahi zuenean etortzeko entrenatzera eta berak hau bete du, nahi duelako etortzen baita eta ondorioz entrenamendu gutxi galtzen ditu eta falta hauek lanaren ondorioz izaten dira.

Futbola gustuko du eta bere inguruko lagunek eta familiakoek esaten omen diote futbola uzteko, baina bere erantzuna galdera hau izaten da: “Disfrutatzen diaten bitartean zergatik utzi behar diat futbola?” Orain, bere kezka nagusia min hartzea da: lesio larriren bat izatea. Suertez, bere bizitza osoan ez omen du gaitz

larririk izan: ez du hezurrik hautsi, ez lotailurik, ez giltzadurako meniskorik… Ordiziako Orkli enpresan dabil lanean eta bertan aldi baterako langile bezala hasi zenean, futbola uztekotan egon omen zen, jokatzeak izan zezakeen arriskuarengatik; alegia, jokatu eta min hartu eta ondorioz baja laborala hartu beharrean gertatu, bere lan kontratuaren luzapenean eraginez.

Ez da makala Goiko; badu nahiko meritu. Nire baitan pentsatzen jartzen naiz eta nire buruarekin konparatzeko joera ezin dut uxatu. Ni ere hogei urtetan ibili al naiz aste bukaera guztietan partida bat jokatuz? Eta halaber, astean zehar hiru, lau, edo bost entrenamendu egiten?

Asteazkeneko entrenamendua

Beti bezala Angel izan da zelaira heltzen lehena, bere baloiak bizkarrean dituela. Gaurko entrenamenduko plana zelai guztian futbol partida bat jokatzea da. Horretarako 22 jokalari etortzea beharrezkoa da. Berak uste du etorriko direla, ez baitira lehen taldekoak bakarrik etortzen. Ordizia Kirol Elkarteak helduentzako bi mailatan atera zituen taldeak denboraldi honetan: Gorengo Mailan eta Bigarren Erregional Mailan. Bigarren talde hau jokatzen hasi zen baina jokalarien seriotasun faltagatik eta lehiaketaren antolamenduagatik jadanik deseginda dago. Bigarren talde honetan jokatzen zuten jokalari batzuk baimena eskatu zioten Angeli, lehen taldearekin entrenatzera etortzeko. Angelek baietz esan zien beti ere lehen taldeko beharretara egokituz eta entrenamendu gehienetara agertzeko konpromisoa eskatuz. Honen ondorioz, lau edo bost jokalari Gorengo Mailako taldearekin entrenatzera etortzen dira eta nahiz eta 22 jokalariak lehen taldekoak ez izan, posible izaten da kopuru hori hurbiltzea.

Jokalariak iristen joan diren heinean, Angelek beti bezala rondo bat jolasten jarri ditu. 19:00etatik hamar minutu pasa direnean, denak iritsi direla suposatuz, rondoa amaitutzat eman eta beroketa lanetan jarri ditu. Gaur niri tokatu zait beroketa gidatzea eta bitartean bera aulkian eseri eta etorri diren jokalariekin koadernoan bi talde idazten hasi da. Orduan etorri da Botero, bien artean hizketan eta taldeak egiten aritu direlarik.

Nire beroketa Angelek egiten duenaren antzekoa izan da. Korrika txikian bira batzuk, gero giltzadura desberdinak mugitu, aurrera, atzera eta errotazioak

eginez eta azkenik korrikako abiadura handitu, ariketen intentsitatea igoz. Jokalariak hizketan aritzen dira beroketa garaian eta gaur bezalako talde handi bat denean, 22 jokalari, ez da erraza gertatzen gorputz atalak, dantzariak koreografia bat egiten bailiran denak batera mugitzea. Ni tropel buruaren alde batean ibiliz, jokalariak binakako multzo luze bat osatzen dute kolore aunitzetako ehun-oina balitz bezala. Etengabe zer egin behar duten adierazi eta azaltzen diet: “Orain atzeraka korrika, orain belaunak gora, jauzi bat eta lurrera”… Nik modelo gisa funtzionatzen dut: bi edo hiru aldiz egiten dut ariketa bakoitza eta gero beraiek bost edo sei aldiz errepikatzen dute, nik nahikoa dela esan arte. Beroketa hau amaitzeko zelaiari bira bat eman diogu abiadura handian korrika eginez eta ordurako Angel eta Botero aulkitik altxatuta zeuden guk noiz bukatuko zain. Beraien parera iritsi eta gelditu garenean guztiei esan diet luzaketa batzuk egiteko, baino hiru edo lau jokalarik ezik, besteak ez didate kasurik egin, baloiak hartu eta beraien artean paseak edo jaurtiketa txikiak egiten hasi dira.

Denborarik galdu gabe eta bere koadernoa eskuetan duela, Angelek jokalari batzuei petoak, kolore berde argia duten mahukarik gabeko kamisetak, banatu dizkie. Era horretan bi taldeak argi bereizten dira, nahiz eta gauaren iluntasuna handitzen joan. Zelaiaren inguruan dauden lau zutabeetan aurkitzen diren argi indartsuak beharrezkoak egiten dira. Jokalariak ez dute inolako kexarik azaldu petoak banatzean. Inork ez du esan “Horiak hobeak dira” edo “Nik haiekin jokatu nahi dut” bezalakorik. Entrenamenduko partida hasteko prest dagoela Angelek talde bakoitzarekin hitz egin du eta nola jokatzea nahi duen azaldu die: “Atrás quiero que juguéis tres, Tete, Martxel y Eneko, en el centro Lander y Lepe pivotes y Patxi y Diego en las bandas y arriba Mikel enganchando con Revilla y Lete. Tratar de jugar a dos toques, el juego tiene que ser dinámico; mucha movilidad; buscar apoyos”.

Gehienak galtza motzetan jokatzen ari dira. Horietako bik galtza horien azpitik galtza luze estu batzuk dituzte. Futbol botak daramatzate guztiak eta soinean jantzita dituzten kamisetak kolore eta esanahi desberdinetakoak dira: Errealeko intsignia dunak, Ordiziako Kirol Elkartekoak, ikasketa bidai batetakoak, musika talde batetakoa… Hamaika jokalarik, horien gainetik, petoak dituzte jantzita, kamiseta ia estaliz. Ligako partidetan derrigorrezkoa den berna hezurreko

babeslea inork ez darama jarrita, jokalari batzuk galtzerdiak beraino jaitsita edukiz; besteak belaun-arteko galtzerdiak eta galtzerdi motzak, orkatilara artekoak dituztenak ere badaudelarik.

Epailearena egiten Angel dabil, txandal galtza luzeak eta txubaskeroa soinean daramatzala. Eskuetan txilibitu bat hartu du eta eskumuturrean jokalariei ez bezala, ordulari bat antzematen zaio. Epailearen lana egiteaz gain, jokalariei animuak ematen dizkie: “¡Bien Revilla bien!” Eta beraien posizioak eta jokaldiak zuzendu ere bai: “¡Hay que ir a buscar el balón y no esperar a que venga!” Partidak 30 minutuko bi zati izango dituela aipatu die jokalariei eta hauek serio, txorakeria gutxi eginez, ari dira jokatzen.

Jokalarien oihu batzuk ozen entzuten dira. Oihu horiek, baloia kideei eskatzeko izaten dira gehienetan edo bestela kexatzeko: “¡Jode, ha sido falta!” Askotan izenak edo izengoitiak bakarrik esaten dituzte: “¡Litri! ¡Joka! ¡Piti!”. Partidak anabasa dirudi, dena nahasian egongo balitz bezala, jokatzeko inongo irizpiderik gabe, kaosa. Baina behaketa zorrotzago batek adieraziko liguke, desordenuaren gainetik, partida, baloiak gidatzen dituen jokalarien kokapen eta jokabideen lehia bat dela.

Oso serio hartu dute partida eta pare bat alditan Angelek berak ere esan die lasai ibiltzeko, horrelako sarrerak egin beharrik ez dagoela. Jokalarien aurpegietan antzematen diren izerdi eta zimurrak tentsio eta esfortzuaren seinale argiak dira. Halako batean, Ordiziako bi jokalariren artean liskar txiki bat gertatu da. Mikel kexatzen hasi da berari ez diotela pasatzen esanez. Mikelek esan dio baloiak pasatuko dizkiotela bera pasea hartzeko moduan jartzen denean eta paserik ez badu jasotzen jokoa beste aldean dabilelako izango dela. Mikel ez da gustura gelditu erantzun horrekin eta bere egonezina besoa altxatuz adierazi du.

Entrenamendu honetan inor ez da kexatu denbora gehiegi jokatzen daudela esanez edo erritmoa jaisteko oihukatuz. Jokalariak futbolean jokatzea maite dute eta entrenamenduetan futbola dagoenean ez dute arazorik izaten hau betetzeko, ez dago bi aldiz esan beharrik gauzak egiteko; beraiek futbolariak dira. Lehen 30 minutuak amaitu direnean, jokalariak aulkira hurbildu eta ura edaten aritu dira. Ur botilak materialen kontainerretik aulkietara ekarri ditu Boterok eta jokalariek batak

besteari pasaz, edan dute. Berehala, atseden handirik gabe hasi dira berriro jokatzen. Eta hasi bezain laster talde batek lehen gola egin du. Ez da egon ospakizun handirik, gola sartu duen Luziori pare bat jokalarik bizkarreko bat eman diote eta nahikoa izan da. Jokoak ez du intentsitaterik galdu. Jokalariak gogo biziz jarraitu dute nahiz eta partida aurrera joan eta nekea bere lanak egiten hasi.

Bigarren zatiko 30 minutu hauek betetzean, Angelek partida amaitu du eta denak kiroldegirako bidea hartu dute eta zelaitik urrundu baino lehen Angelek bi gauza oroit arazi dizkie: datorren ostiralean ikusiko direla elkar eta datorren aste-bukaeran, larunbatean dela partida, arratsaldeko 16:00etan Trintxerpeko zelaian. Angelek asteazkenetan jakiten du datorren aste-bukaerako partida noiz eta zein ordutan izango den. Egun horretan federazioan ezarrita egoten dira partidak. Hau aipatu ondoren, zelaiko argiak itzali, atea itxi eta denok etxera.

Ardura eta konpromisoa

Gaur asteartea da eta zelaian elurra dago; kolore zuriz estaltzen du guztia. Angelek erabaki du entrenamendua Jakintza ikastolak duen aterpean egitea. Hau zelaitik eta kiroldegitik hurbil dago eta nahiz eta oso txikia izan, horrelako egoeratarako erabilgarri gertatzen da. Bertan jarduera aunitz egiteko erabili daitekeen pista bat dago eta zelaiaren egoera ikusirik eta kiroldegi barneko pista guztiak okupatuta daudela jakinda, jokalariak hurbildu ahala ikastolako aterpera bidali ditu. Beti bezala rondo bat jolasten jarri ditu eta ni ere beste jokalari bat bezala bertan aritu naiz. Gaur, hotzaren eraginez ondo babestuta etorri dira guztiak, batzuk eskularruak eta galtza luzeak ekarri dituztelarik. Jokalariak, ondo itxi gabeko iturri bati ur tantak erortzen zaizkion modura hurbiltzen dira entrenamendura: aurrena hirukote bat, gero beste bat, hurrena bikote bat… Nahiz eta entrenamendua zazpietan hitzartuta egon, jokalari batzuk hamar minutu beranduago ere azaldu ohi dira. Angelenek horrelakoetan beti gogoratzen die ordua eta errespetatzeko adierazi ere bai, baina jokalariek beti dute aitzakiaren bat: lanetik berandu irten, enkargu bat egin beharra, azterketak… Berandu etortzen direnei isuna jartzea ere aipatzen da, baina gauzak bere horretan uzten dira. Entrenadorearen hitzak zalantza asko eskaintzen dute, hurrengo momentu

batean taldeak inplikazio handia duela eta ez dagoela isun beharrik komentatzen baitu.

Jokalari nahiko hurbildu denean, rondoa amaitutzat eman du eta niri esan dit taldea hartzeko eta 15 minutu inguru korrika biraka ibiltzeko, bera bitartean hiru lau jokalarirekin hitz egitera doala eta. Harritu nau baina ez naiz arduratu. Berak Litri, Lete, Patxi eta Revilla deitu ditu eta aldameneko etxeak beheko solairuan duen aterpera joan da. Gu bitartean korrika birak ematen aritu gara eta 20 minutu pasa direnean berriro Angel agertu da berak deitu dituen lau jokalarirekin batera. Momentu horretatik aurrera Angel bera hasi da entrenamendua zuzentzen eta saskibaloian jokatzeko lau talde egin ditu. Gaur nahiko egun berezia da eta zerbait egin ezkero nahikoa da. Hau amaitutzat eman duenean futbolean jokatzen jarri ditu denak. Eremua hainbeste jokalarirentzako txikia gertatu da eta egoera ikusirik, Angelek entrenamendua amaitutzat eman du.

Ni baloiak jasotzen aritu naizen bitartean, Angel Botero eta Josemirekin (beste laguntzaile bat, Botero baino gutxiagotan agertzen dena) hitz egiten aritu da eta beraiengana hurbildu naizenean konturatu naiz Angelen amorruaz. Aurreko igandean Ordiziak galdu egin zuen etxean Zestoaren aurka 0-2 eta aipatutako jokalariak ez ziren izan partida horretan. Dirudienez, beraien lagunekin batera asteburua pasatzera Errioxa aldera joan ziren Angeli kasurik egin gabe. Gainera, Angel saiatu omen zen beraiekin harremanetan jartzen telefonoz deituz eta beraien gurasoei ere abisatuz, baina jokalariek kasurik ez. Angelen asmoa negoziatzea zen; beste partida bat jokatu gabe gelditzeko aukera izango zutela, baina hau garrantzitsua zela esatea omen zen bere intentzioa. Partida horretarako jokalariak falta ziren lesio eta txartelen ondorioz eta jokalari hauek taldea kontutan izan gabe parrandara, hortik zetorren Angelen gibel txarra. Gertakizun honen ondorioz berak deitu ditu eta azalpenak eskatu dizkie, honen berri emanez bere laguntzaileei. Berak esaten du Lete eta Revilla atzera bota direla baino Patxi oldartuta agertu dela berriro egoera berean berdin egingo zuela esanez. Angelek esan du berarentzako Patxi bukatu dela, nahi duena egin dezakeela baino ez duela jokatuko. Besteak ere ordaindu beharko dutela eta larunbatean jokatu zuten jokalariei barkamena eskatzeko agindu die. Angelek dio futbol taldera etortzearekin batera ardura eskatzen dela: ardura!, ardura! behin eta berriz

errepikatzen du hitz bera. Berak bere familia uzten duela entrenamendu guztietara etortzeko eta asteburu guztietan beste zenbait plan futbol partidaren arabera egiten dituela. Futbol taldera apuntatu ezkero entrenamendu eta partidetara etortzeko da eta ez, nahi denean bai eta nahi denean ez, hori ezinezkoa da!

Kanpokoak

14:15etan dugu zita Oñatira joateko. Bertako Aloña Mendi taldearen aurka jokatzen dugu. Orain arteko partida guztiak larunbatean jokatu ditugu baina gaur igandea da: Oñatin igandeetan jartzen omen dituzte partidak. Ordiziara iritsi naizenean denak autobusaren kanpoaldean zeuden. Jokalari guztiak Ordiziako txandala jantzita eta Ordiziako poltsak eskuan edo aldamenean zituztela. Eta hauez gain, Botero, Angel eta Sebas. Ni azaldu eta 10 minutura autobusa martxan jarri eta Ordiziatik irten gara.

Oñatira 15:10etan iritsi gara eta zelaiko aldageletara bideratu gara guztiok. Talde bakoitzaren aldagela zein den jakiteko ez dago duda handirik. Eraikin txiki batetan hiru ate ageri dira; batean, errotulu txikian idatzita, “etxekoak” jartzen du, bestean “epailea” eta azkenekoan “kanpokoak”. Gu, zuzenean, “kanpokoak” jartzen duen aldagelara sartu gara. Hau nahiko txikia eta zaharra da. Bertan pareta batez babestuta lau dutxa daude eta izkina batean komun bat. Horrez gain, jokalariak aldatzeko eremu bat aulki luze batzuekin eta hauen gainean arropak eskegitzeko gako batzuk. Eremu honetako pareta batean, arbela ere ez da falta. Garai batetan aldagela hau zuria eta berria izango zen, baino gaur egun zuritasuna marroi bihurtu da eta guztia zaharkitua dago.

Iritsi bezain pronto poltsak aldagelan utzi eta entrenatzaile, jokalari eta laguntzaileak zelaira atera gara hau behatzera. Bakoitza bere kontura zelaian ibiltzen hasi da honek dituen ezaugarriak barneratu nahian. Zelaia belar naturalezkoa da eta naiz eta aurreko egunetan elurte bikaina bota, nahiko ondo ageri da. Zelaiak ate baten atzean harmaila txiki bat ere badu eta Angelek astean zehar abisatu dit hemengo ikusleak nahiko gogorrak direla esanez. Zelaian eman dugun paseo hau Angelen keinuek, buruarekin barrurantz eginez, amaitu dute eta zuzenean berriro aldagelara sartu gara. Aldagelan gaudela entrenatzaileak

hamaikakoa eman du. Hau esan bezain laster, ordezko jokalariak aldagelatik irten dira eta jokatu behar dutenak aldatzen hasi dira.

Entrenatzaileak onartzen duen jokabide hau ez dut oso ongi ulertzen. Ordezkoak ez dituzte bere aholkuak entzuten eta gero partidan zehar jokatzera irteten dira. Egia da, hauek kanpora irteten direnean aldagelan toki gehiago geratzen dela eta erosotasun handiagoa sumatzen dela, baino nire ustez, beraiek ere aldagelan egon beharko lirateke eta zelairatu behar diren hamaika jokalariak berotze ariketak egiten hasitakoan, denbora nahiko izango lukete jolasten edo paseatzen ibiltzeko.

Titular gisa atera behar diren jokalariak aldatzen ari diren bitartean, Angel ohikoak diren aholku eta agindu hitzak esaten ari da: “Hay que sufrir, no dar un balon por perdido”. Gaur gainera adierazpen esanguratsua egin die: “Para mí la semana pasada ha sido la más difícil de estos cuatro años”. Eta jarraian hurrengo hau: “Este partido me dira cómo vamos a acabar la temporada, o disputandola o dejandola pasar; y en este caso se nos hará muy larga”. Sentimenduz beteriko hitzak izan dira eta jokalariak ez dute txintik esan hauei buruz. Hausnarketa hau aste honetan lau jokalarirekin izan duen affair-arekin erlazionatu dut eta jadanik jokalari horiek ordaintzen ari dira, beraietako hiru ordezko daudelarik eta bestea, jarrera oldarkorrena izan zuena, deialditik kanpo.

Jokalariak aldatu eta babes guztiak jarri dituztenean berotzera atera dira zelaira. Gaur gainera zelaia belar naturalezkoa izanik botetako takoak luzeagoak jarri dituzte eta gehienek aluminiozkoak. Belar artifizialeko zelaietan plastikozko tako motzagoak erabiltzen dituzte. Batzuk bota berdinekin jokatzen dute takoak aldatuz eta beste batzuk bota pare desberdinak dituzte baterako eta besterako. Beroketa hau beti bezala Angelek zuzendu du eta partida guztietan egiten den berdina izan da: lehenengo hiru edo lau bira zelai erdiari korrika txikian, gero giltzadura eta gihar desberdinen mobilizazio eta luzaketak eta, azkenik, baloiaren jabetza mantentzea helburu duen jolas bat. Beroketa amaitze aldera, geroz eta ikusle gehiago heltzen doaz. Badirudi Ordiziako partidetara baino ikusle gehiago etortzen dela Oñatin zelaira. Beroketa bukatzean berriro bi taldeak aldagelara sartu dira. Angelek azken aholkuak eman ondoren betiko errituala egin eta zelaira.

Ni harmailetara joan naiz eta urrutira antzeman daitezkeen desberdintasunak behatu ditut: bi taldeen koloreak, Ordiziakoen urdina eta Aloñakoen berdea. Ordiziakoak, ohikoak dituzten jantziekin atera dira: kamiseta urdina, galtza urdinak eta galtzerdiak ere urdinak. Aloñakoak, kamiseta berdea dute, galtza zuriak eta galtzerdi gorriak. Bi taldetako atezainak ez dauzkate beraien taldekideen kolore berberak: Oñatikoak kamiseta eta galtza beltzak eta galtzerdi gorriak, eta Ordiziakoak kamiseta grisa, galtza beltzak eta galtzerdi zuriak. Harmailetan gaudenak ez ditugu kolore hauek eramaten eta nahiz eta agerian ez jarri gure identitateak, trebea ez den behatzaile batek ere asmatuko luke ikusleen artean batekoak eta bestekoak zeintzuk diren.

16:30etan eta dena prest dagoela ikusirik, arbitroak hasiera eman dio neurketari. Partidaren bilakaera gori-gorian joan da. Etxeko taldea aurreratu da baina Ordiziako Diegok berehala berdindu du partida. Ikusleak, txalo eta txistu egiten dabiltza, txistuak epaile eta ordiziarrentzako izanik. Lehen zatia amaitzear dagoela, Badiola baloia buruz jotzera joan da eta aurkari batekin tupust egin du. Horren ondorioz kopetatik odola dariola geratu da eta Sebas zelaian Badiola zaintzen dagoela, epaileak aurreneko zatia amaitutzat eman du.

Aldagelara sartzean ikusi dugu Badiolak duen “aberia”: bekainean zartatu bat du eta puntu batzuk beharrezko izango ditu, nire ustez sei edo zazpi. Aurpegitik behera odol tantak erortzen zaizkio, izerdiarekin nahastean laranja kolorekoak bihurtzen direnak. Kamiseta ere lepo inguruan gorria dauka eta imajinak istripu larri baten itxura hartzen du. Sebas berehala hasi da zauria garbitu eta paperezko puntu batzuk jartzen, eta gero Boterok eta nik lagundu diogu buruan zehar benda bat jartzen. Benda horrekin, duen baino zauri handiagoa duela ematen du baina, jokatzeko, beharrezkoa da zauria ongi babestea. Bera jokatzeko prest dago eta bigarren zatian berdin aterako da.

Gertaera hau dela medio, gaur aldagelan atsedenaldietan ohikoa den isiltasuna ez da gorde eta Angelek ez du ahaleginik egin hau eskatzeko. Hori bai, bera saiatu da betiko aholkuak ematen eta bi esaldi azpimarratu dizkie jokalariei: “Ya véis que ellos son flojitos” eta “Cuidado con las tarjetas”·Honi Luziok erantzun

dio oraindik inork ez duela txartelik esanez eta Angelek esan dio berdin dela, partida aurrera doan heinean berotu egingo dela eta kontuz ibiltzeko txartelekin.

Eta arrazoia izan du Angelek. Bigarren zatian partida berotu egin da, bai markagailuari dagokionez eta baita arbitroak ateratako txartelen kopuruari dagokionez. Zaleen pozerako bigarren zatia hasi eta berehala oñatiarrek bigarren gola sartu dute. Zelaian animatzeko oihu eta iskanbila alaiak entzuten dira eta nahiz eta aitona, umea, gaztea, aita edo ama izan, denak identitate bat txalotzen dute: oñatiarrena.

Ni ate baten atzean dagoen harmaila nagusian nago beste oñatiar bat izango banintz bezala. Hau nire burua engainatzeko modu bat besterik ez da, nire inguruan dauden guztiak susmatzen baitute ni Oñatikoa ez naizela eta ondorioz Ordiziakoa izan naitekeela. Nire aldamenekoak epailearen erabakien aurka oihuka hasten direnean, eztarrian korapilo bat egiten zait eta nire baitan galdetzen dut: “Hauek nirekin sartzen hasiko ote dira?” Nigandik gertu bost lagunez osatutako ume koadrila bat daukat, 10 edo 11 urte izango dituzte eta harrituta nago beraien ahotik ateratzen diren oihu eta hitzekin: “¡Arbitro cabrón! ¡Ponte las gafas!” Tartean, ulertezina den adierazpen bat ere egin dute: “¡Arbitro casero!” Nire ezkerretara berriz, bi gizonezko dauzkat zigarro puru handi bat errez partida ikusten ari direnak. Hauek, isilik daude, baino noizean behin oihu iraingarriak botatzen dituzte: “¡Levantate que pareces una niña!”, Ordiziako jokalari bat lurrean mina hartuta dagoenean edo “¡Hijo de puta!” epaileari, Aloñako jokalari bat egotzi duenean. Giro honetan, isilik, mutu, eztarria lehor eta hotzak eragin eta urduritasunak bultzatutako dardara ahulean murgilduta nago.

Ez die poztasunak gehiegi iraun oñatiarrei. Inor konturatzerako eta zelaia mutu dela Luziok berdinketaren gola sartu du. Gol horrek, ikusleek epailearekiko duten jarrera oldarkorrean eragina izan du eta marrazainekin batera jasaten ari diren presioa igo egin da. Oraindik ere oñatikoek hirugarren gol bat sartu dute, hau penaltiz. Eta ordurako jokalari bat gutxiagorekin jokatzen ari dira. Ordiziakoak etengabe erasotzen ari dira eta ni, nire isilpean, “Benga! Benga! Benga! Berdindu beharra daukazue!” Ez al zuten entzungo nire aldamenekoek!

Eta nik nahi bezala, Mikelek, ordiziarren hirugarren gola sartu du eta honekin 3-3 berdinketa. Epaileak oraindik oñatiarren beste jokalari bat kanporatzeko denbora izan du, bi txartel hori atera ondoren. Momentu horretatik aurrera Ordiziakoak etengabe erasotzen aritu dira eta zelaian haserre giroa handitzen joan da. Nahiz eta aukerak izan markagailua ez da mugitu eta arbitroak oihu, irain eta iskanbila artean partida amaitu du. Bukatu eta berehala ikusleak aldageletara hurbildu dira epaileari sekulako biraoak esanez. Arbitroa eta bere laguntzaileak, Oñatiko ordezkarien laguntzaz babesturik, beraien aldagelara sartu dira.

Ni ere aldagelara sartu naiz eta Angel eta jokalariak nahiko animoso topatu ditut. Badiolak ere, partida osoa agoantatu du bere bekokiko ebaki eta guzti. Bendaren aurrealdean, marroi kolorea gorriarekin nahasian antzematen da; seinale da, zartadurak odol pixka bat jariatu duela eta Badiola ez dela asko kikildu baloia buruarekin jotzeko garaian. Angeli ere irribarrea ateratzen zaio eta pasa duen aste txarraren ondoren, orain gustura sentitzea, barnean izan duen nahigabe eta etsipena askatzea da. Ez da irabazi, baino ez da galdu, eta bere jokalarien jarrerarekin pozik dago. Ni ere pozik nago, baino jokalarien jarrera berdina izanagatik, azkenean Aloñakoek beste gol bat sartuko balute eta ondorioz Ordiziak partida galdu, ni atsekabetuta egongo nintzatekeen eta nire ustez, Angel ere bai.

Dirua eta betebeharra

Ordizia Kirol Elkartean inork ez du egiten duen lanarengatik ordainik jasotzen. Zuzendaritzakoak, jokalariak, entrenatzaileak, laguntzaileak, ordezkariak, denak, beraien borondatez eta kobratu gabe parte hartzen dute beraien ekitaldietan: partida, bilera, entrenamendu… Futbol talde nagusiak Gipuzkoako Gorengo Mailan lehiatzen du. Hau, esan daiteke, futboleko bosgarren maila dela, beraien gainetik, HIrugarrena, Bigarren B, Bigarrena eta Lehenengo Maila egonik. Gorengo Maila maila honetan, 18 talde daude eta aurten lehenengo ateratzen dena bakarrik igotzen da Hirugarren Mailara.

Jokalariek esaten dute, maila honetan talde gehienetan zerbait kobratzen dela futbolean jokatzeagatik. Ohikoa izango da partida irabazteagatik diru kopuru

bat kobratzea: 60, 30… euro. Talde batzutan, jokalari batzuk hilero diru kopuru bat ere kobratzen omen dute. Ordiziakoak ez dute sosik irabazten ezta entrenatzaileak ere. Bere esanetan hau baldintza izaten da jokalariei ardura eskatzeko garaian. Angelek eta Boterok esaten dute zerbait kobratzen duen jokalaria eskutik lotuta izan dezakezula. Adibidez, partidara ez bada etortzen eta horretarako arrazoi on bat ez badu, zigor ekonomikoa jartzeko aukera dagoela. Beraien hitzekin “compromiso y responsabilidad” eskatu behar omen zaie. Eta ez hori bakarrik, diruak berak jokalaria ardura handiagoz ibiltzea omen dakar. Beraien ustez Ordizia Kirol Elkarteak hausnarketa egin behar du zer nolako taldea nahi duen: Hirugarren Mailara igotzea nahi baldin bada diru sariren batzuk izatea ezinbestekoa jotzen dute. Bestela, Gorengo Mailako sailkapenean aurrera baino atzera ibiltzeko aukera handiagoa ikusten dute. Gai hau gordeta, ezkutuan egon den arazoa da, baino momentu konkretu batzutan atera dena. Adibidez, lau jokalari ezertxo ere esan gabe Errioxara joan zirenean, partida alde batera utzita.

Neure buruan ere arazo hau sentitu dut. Entrenamendu bat eta partida bakar bat hutsegin ditut eta biak nire borondatearen kontra. Entrenamendu edo partida bat galtzean ez naiz ongi sentitu. Taldeak konpromisoa eskatzen du eta behin sartu ezkero amaitu arte betebehar hori osatu egin behar da. Angelek berak ere partida bat galdu du ezkontza batera gonbidatuta joan delako, baina berak behin eta berriz errepikatzen du, familiako plan guztiak futbolaren arabera egiten dituela eta entrenatzaile izateko ardura hartzen badu gero hau betetzeko dela eta jokalariei berdina eskatzen die. Momentu honetan hirugarren goaz eta lehenengoa, Zarautz, harrapatzea, ia ezinezkoa da; bigarrena Hernani da eta oso zaila da gainditzea, beraz hirugarren postua jokatzen ari gara. Hirugarren postu honek ez du saririk eta Angel beldur da aurreko urteetako esperientzian oinarrituz jokalariak erlaxatu egingo direla. Denboraldia amaitzeko falta diren partidetan, talde bakoitzaren inplikazioak emaitzetan eragin handia izango duelakoan dago entrenatzailea.

Angelen haserrea

Bero handia dago Altamirako aldameneko zelaian. Maiatzeko eguzkiak sutako galdara baten aurrean egongo bagina bezala, bete-betean jotzen du.

Arerio bezala Berio dator. Garaipenak sailkapenean Ordizia gainditzeko aukera ematen die. Hiru partida falta dira denboraldia amaitzeko eta Angelek jokalarien motibazioan eragin nahi du. Partida hau irabazteko asmoz hamaikako hau atera du zelaira: Iñaki, Tete, Leku, Martxel, Haritz, Mikel, Josu, Goiko, Diego, Joseba eta Manu.

Aldagelan denen hizketa gaia beroa izan da, bero itogarria egiten du eta partidaren ordutegiak zerikusia du horretan: 16:00tan 34ºC baitaude. Angelen hitzak argiak izan dira beroari dagokionean: “Hace calor, pero para todos; para nosotros y para ellos” eta horrela jarraitu du: “Este partido se gana poniendo más ganas que el adversario”.

Beroak ikusleak ere uxatu ditu eta gaur ez da jende asko etorri futbol partida ikustera. Etorri direnak inoiz faltatzen ez diren horiek dira: jokalarien familiartekoak, neskalagunak, gaztetxoen taldeko jokalariak, zuzendaritzakoak… Horiek oso fidelak dira eta partida guztietara hurbiltzen dira baita etxetik kanpo jokatzen dituztenetara ere.

Jokalariak partida aurreko betiko errutina jarraitu dute: aurrena, dituzten arazotxoak babestu eta mina kentzeko ukenduren bat eman, gero partida jokatzeko arropa eta oinetako egokiak jantzi, hauen artean bernezur babeslea. Ondoren berotze ariketak egin eta, azkenik, zelaira atera aurreko errituala bete: “Ordizia eu! Ordizia eu! Ordizia eu!”. Denak partida hasteko prest.

Nahiz eta bero egon, jokalariei ez zaie gogoa falta. Horrela dirudi behintzat jokaldi bakoitzean hartzen duten jarreragatik: intentsitate handia erabiltzen dute beraien ekintzetan. Hala eta guztiz, denbora asko pasa baino lehen, Berioko bi jokalari Iñakiren aurrean bakar bakarrik geratu dira. Lehenengoan, atezainak eskuineko zutoinaren barneko aldera zihoan baloia gelditu baldin badu ere, bigarrengoan, ezin izan du eta zelaian dauden ikusleak isildu egin dira. Angelen desesperaziorako Ordizia galtzen hasi da. Minutuak aurrera pasa ahala, gauzak Ordiziaren alde jarri beharrean are gehiago okertu dira. Zelaian Berio nagusitzen ari da eta Ordiziak ez du aukera bat bera ere sortu. Ikusleak nahiko apal eta isilik geratu dira, nahiz eta beti bezala ikusleren baten oihuak entzun arbitroaren aurka. Angelen keinu eta hitzei so egiten badiegu, atsekabearen adierazle argiak direla

ikusiko dugu. Burua makur behera begira, eskuineko eskua ahoa tapatuz eta ezkerrekoa gerrian jarriz, Angel arduratuta dago. Eta lehen zatia amaitzear dagoela Berioko jokalari bat Iñakiren aurrean berriro bakarrik gelditu da eta honek oztopo egin ondoren epaileak penalti adierazi du. Atseden aldian Ordizia 2-0 galtzen. Gauzak oker doaz.

Aldagelara sartu naiz, ni ere beroarengatik eta emaitzarengatik buru makur eta hasperenak botaz. Angelek isiltzeko esan gabe guztiok mutu geratu gara, bakarrik arnas hotsa eta aldagelaz kanpoko zarata entzunez. Jokalarien aurpegiak, karikaturak egiten dituen marrazkilari batek zizelkatuak dirudite: zainak bistan, sudurretik izerdi tantak dariola, aurpegiko hezurrak ageriko egonez eta ilea izerdiak bustitako multzo desberdinetan bilduz. Nekea eta etsipena bistakoak dira. Lau edo bost minutu denak isilik egon gara eta Sebas hitz egiten hasi denean Angelek esan dio mesedez isilik egoteko pixka batez.

Itsasoko barealdi bat ekaitz baten aurreko izaten den bezala gaurko aldagelako isiltasuna Angelen oldarraldiaren aurrekari izan da. Nahiko lasai hitz egiten hasi da ere berehala eraso dio bere ustez betiko akatsa denari: jokalarien gogo eta intentsitate falta. Bere barruan gordeta zuen guztia ateratzen joan da: “Todos los años estamos igual. Toda la liga segundos o terceros y al final acabamos séptimos. No os relajéis, que éstos son peores que nosotros. Poner un poco de ganas. Todos los balones son de ellos. A mí esto me produce una tristeza enorme: siempre acabamos mal”. Bere hitzen tonua gogorra izan da eta bitartean inork ez du txintik ere atera. Partidaren nire hausnarketa ez da berdina: taldea gogoz ari da, baino momentu honetan Beriokoak hobeak dira. Beharbada akatsa Angelek berak egin duen planteamenduan dago eta ez jokalarien intentsitate faltan. Nik ez dut uste lasai dabiltzanik; are gehiago, esango nuke ezinean dabiltzala nahiz eta intentsitate handian jokatu. Hitzaldia bukatu duenean isiltasuna poliki poliki hitz jario bihurtu da eta ni ez naiz oso eroso sentitu halako haserrealdiaren testigu izanda.

Berehala entzun dugu epailearen txistu hotsa eta betiko erituala egiteko prestatu gara. Partidaren bilakaerak jokalarien umorean eragina izan du eta beraietako batek gaur ez ditu denekin batera Ordizia goraipatzeko oihuak abestu.

Inori ezer esan gabe aldagelatik besteek baino lehenago atera da. Nire burutazioak jokabide horren azalpena bilatzen dute: emaitza, beroa, Angelen hitzak…

Bigarren zatia ildo beretik hasi da: Ordiziak nahi eta ezin. Hori bai, partida gero eta gehiago berotzen joan da eta, honetan eragina izan du Angelen eta Boteroren jarrerak. Etengabe arbitroarekin sartzen hasi dira eta ikusleak ere bide berdina jarraitu dute. Jokalariak gogoa eta bortizkeria nahasten hasi dira eta bi taldeen arteko lehia trabatzen eta itsusten hasi da. Horren ondorioz, duela gutxi zelaira atera den Pitik aurkari bati ukondorekin golpe bat eman eta arbitroak txartel gorria atera eta kanporatu egin du. Laster etorri da Beriotarren hiugarren gola eta Ordiziarrek ikusi dute gaur punturen bat ateratzea ezinezkoa izango dela. Arbitroak Iñaki atezaina ere kanporatu du, esan dizkion irainen ondorioz eta Boterok kristonak eta bi esaten jarraitu du, epaileak eta marrazainak emaitzan eragina izango balute bezala. Nire uste apalean, gaurkoan Berio hobea izan da eta emaitzan ez du arbitroak eraginik izan. Gainera uste dut, Angelek eta Boterok bere lana asko zaildu dutela. Partida amaitzeko bost minuturen faltan, arbitroak Ordiziarren aldeko penalti bat adierazi du. Tetek gola sartu ondoren, markagailua 1-3 jarri eta horrelaxe amaitu da.

Arbitroa, Sebas ordezkariak eta zuzendaritzakoak lagundurik irten da zelaitik aldagelara eta Ordiziako jokalariak ere buru makur bide berdina hartu dute. Aldagelan ez da hitz jario handiegirik egon eta Angel berak ere ez du ezer esan. Gaur ez gaude umore onean.

Nik ere aldagelatik buru makur alde egin dut eta Botero eta Angelen jarrerarekin atsekabetuta. Nire ustez gaurko emaitza txarra ez da etorri jokalarien gogo faltagatik edo epailearen lanagatik. Harrituta nago ikusle eta jokalari batzuen jarrera bortitzagatik. Azken finean partida bat besterik ez da, ez ginen ari igoerako postu bat jokatzen. Inork ez du sosik irabazten, ez dira profesionalak eta zelaian astakeriak esaten aritu den ikuslea partida amaitu eta bere familiarekin paseo bat ematera edo lagunekin zerbait hartzera joango da, aurrez ezer pasa ez balitz bezala. Denboraldia amaitzeko bi partida falta dira eta oraindik hirugarren postua

gure eskura dago, bi partidetan emaitza ona ateratzea garrantzitsua izango da denboraldia zapore gozoz amaitzeko.

Denboraldi luzea

Denboraldia bukatzeko bi partida falta dira eta jokalari batzuk guztia amaitzeko gogoa adierazi dute behin baino gehiagotan, Badiolak dioena horren adibide: “denboraldia oso luzea egiten duk. Pentsa, abuztuan hasi genitian entrenatzen eta ekainean amaitzen diagu: hamar hilabete guztira. Gainera, igotzeko aukera izango bagenian motibazioak nekea gainditzea egingo ziguan, baina ez aurrera eta ez atzera arriskurik ez badaukak, apirila eta maiatza oso hilabete arriskutsuak dituk: eguna luzea zegok, beroa egiten hasten duk… Entrenamenduetara jende gutxiago etortzeko aukera zegok. Hau neguan ere pasa zitekeek: oso eguraldi txarra egiten baldin badik, jokalari batzuei entrenamenduetara etortzea gehiago kostatzen zaiek. Niretzako denboraldia luzeegia duk”. Entrenamenduetan ere hau antzematen da astearteko entrenamenduetara asteazkenetakotara baino jokalari gutxiago azaltzen direlarik. Ostiralekora berriz, lehen taldean dauden jokalari gehienak.

Gaur ostirala izanik ez da bete aurrez aipatutako irizpide hori eta nahiko jokalari gutxi azaldu dira: hamahiru. Nabari da denboraldia bukatzear dagoela eta sailkapenean zeregin handirik ez daukagula. Gainera, hiru jokalari mina hartuta daude eta laugarren bat, lan kontuengatik atzerrian dago. Egoera honetan Angelek gaztetxoen mailako bi jokalari eraman nahi ditu larunbateko partidara eta nahiko haserre agertu da jaso duen erantzunarekin. Dirudienez, gaztetxoen mailako entrenatzaileak esan dio beraiek ere zerbait jokatzen ari direla eta jokalari horiek behar dituztela. Angelen ustez, behe mailako talde guztiak lehen taldearen beharretara egon behar dira.

Giro horretan, entrenatzaileak gaur beraien kontura berotzeko esan die eta jokalari bakoitza bere kasa berotze ariketak egiten aritu da. Beroketa amaitutzat eman ondoren jaurtiketak etorri dira. Ostiraletako ohiturari jarraituz, jokalari bakoitza baloi batekin zelai erditik atera, Angelekin pareta egin eta atera jaurtiz ibili dira. Atean, bi atezainak txandatuz aritu dira, jokalarien jaurtiketak gelditu nahian.

Ondoren area ertzetik jaurtiketak egiten jarraitu dute. Hau bukatzean zelai-erdi batetan futbol partida bat antolatu du Angelek zazpi seien aurkako egoeran.

Partida honek 30 minutu iraun du eta amaieran denak aulkirantz hurbildu dira eta Angelek deialdia eman du. Partida bihar arratsaldeko 16:30etan Azkoitiko Txerloia zelaian izango da, eta Ordiziako Arboledan 14:30etan geratu gara. Entrenatzaileak partidara deitu dituen jokalariak, koaderno batetan idatzita izaten ditu izenez izen esaten doan bitartean, isiltasuna nagusi izaten da. Imajinatzen dut aulkira hurbiltzean jokalariek izaten duten ilusio eta urduritasuna, eta deialdiaren ondoren deitutakoen poza eta kanpo geratu direnen atsekabea.

Angelen azken partida eta gonbitea

Angelen azken partida izango da hau. Denboraldia amaitzeko beste partida bat falta da, baina berak ezkontza bat du eta ezin izango du egon. Horregatik, gaur Boterok esan dit, talde osoaren argazki bat ateratzeko. Beste arrazoi bat ere badago gaur erretratu horrentzako: Angelek ez du asmorik datorren urtean entrenatzaile bezala jarraitzeko. Bere iritziz, iritsi zaio atseden pixka bat hartzeko momentua, nekatuta sentitzen da. Ordiziako Gorengo Mailako talde honekin lau urte daramatza eta bere ustez, bai taldearentzako eta bai berarentzako, ona izango da taldea uztea. Jokalariak errespetua galdu diotela dio, hasieran distantzia gehiago zegoela beraien harremanetan eta era horretan beraren aginduak betetzen zirela eta zorroztasuna handiagoa zela. Nik esaten diot ezin izango duela futbolik gabe egon eta iraila heltzen denean berriro hasiko dela entrenatzen, baina berak azpimarratzen dit ezetz, ez duela entrenatu nahi.

Giro horretan bidaiatu dugu Azkoitira Anaitasunaren aurka jokatzera. Txerloia futbol zelaiko aldagelara sartu bezain pronto eman du Angelek hamaikakoaren berri. Partida aurre guztietan gertatzen den bezala jokalariak prestatzen hasi dira: arropak jantzi, babestu, edan…. Eta aldatzen bukatu dutenean etorri da Angelen hitzaldi sentibera. Aldagelan gauden guztiak isilik gaudela bere azken partida dela esan du, eta berari gustatuko litzaiokeela taldeak itxura ona ematea; gero irabazi edo galdu egin daitekeela baino azken bi partidetan ez bezala jarrera aldetik gutxieneko maila eman beharra dagoela. Bere hitzak bigunduak atera dira ahotik, ukituak; airea eztarritik pasatzean, kontrola

ezinezko dituen emozioen bidez urratuak. Une batez begietatik malkoak aterako zaizkiola ere pentsatu dut; begi ninia distiratsu eta inguratzen duena gorri, agurra, partida bati aurre egiteko baino, lasai eserita hizketan aritzeko egokiagoa iruditu zait.

Guztiok isil-isilik gaude eta jokalari asko lurrera begira Angelen begirada ekidin nahian. Nik ere batzutan lurrera begiratzen dut hunkigarritasun horrengandik babesteko. Amaitu duenean txaloka hasteko gogoa izan dut eta gainera hasteko intentzioa erakutsi ere bai, eskuak poltsikoetatik aterata, baino nik bakarrik izan ote dut? Jokalari guztiak normaltasun osoz beraien artean hizketan hasi dira, Angelek esan dituenak beraien bihotzetan eraginik izango ez balu bezala. Nire baitan pentsatzen dut partidarako jarrera hau egokiagoa dela eta ni ere Angelen hitzak ahaztu eta jokalariei animuak ematen hasi naiz: “aupa Josu, gaur irabazi beharra zegok!”

Berotzera atera garenean, sorpresa galanta hartu dut: marrazain bat nire ikaslea da. Agurtu eta nire lanaren berri eman eta gero horrela agurtu dut: “Iñigo, badakik hamabost egun barru azterketa diagula, baduk garaia ikasten hasteko ea gainditzen duken!” Inkontzienteki txantajea egin nahi ote nion? Badaezpada gertaera hau nire jokalariei komentatu diet, bere aurrean jarrera ona izango duten esperantzarekin.

Irudia 31: Anaitasunaren aurka Txerloian
Egilea: Asier Oiarbide

Partida oso lehiatua izan da eta azkenean 0-0 amaitu da. Bigarren zatian Ordiziakoak aukera onak izan dituzte gola sartzeko, baino baloiak ez du sarean amaitu. Zati honetan jokalariek izan duten jarrerarekin gustura geratu naiz ni ere. Atseden aldian ikusi dudan erlaxazio mailaren ondoren, horrelako bigarren zati bat egitea oso ona iruditu zait. Atseden aldian barreak eta algarak izan dira gure artean. Txisteak eta elkarri adar jotzeak nagusitu dira. Angelek ez du isiltasunik eskatu eta jokalariak lurrean eta aulkian eserita atseden hartuz egon dira. Une batez, txapelketako partida bat baino lagunarteko partida bat jokatzen ari direla iruditu zait. Pentsamendu hauek bigarren zatia hasi eta berehala uxatu dira jokalarien intentsitate maila ikustean, oina beldurrik gabe sartuz eta baloi bat bera ere galdutzat eman gabe ibiliz.

Amaitu eta berehala aldagelara sartu naiz jokalariekin batera. Lasaitasuna eta poza nagusi ziren; “Angel, ¿Me imagino que estarás contento?; Sí, hoy sí. Estoy contento con la actitud que han demostrado. No se ha ganado, pero me deja un sabor de boca bueno”. Jokalariak dutxatzen hasi dira, bakoitza bere erritmora. Batzuk presaka Beasaingo festetara joan nahi dutelako eta beste batzuk lasai, nekatuta, partidaren ondorioz agertutako ajea jasanez.

Dutxatu eta janzten ari direnekin hizketan nagoen bitartean, gaurko hirugarren ezustea eraman dut: Badiolak, bere poltsara eskua sartu eta aldameneko izkina batetatik kartazal batzuk atera ditu. Harrituta ikusi dut, bere kide guztiei banatzen hasi dela. Zer ote dago gutunazal horretan? Jokalariak kartazala ireki eta irribarreka begiratu diotenean, berehala konturatu naiz: bere ezkontzarako gonbiteak dira! Une batez dudatu egin dut denei banatuko ote digun, baino Badiolak niri ere gonbitea eman didanean, zoriondu eta eskerrik asko eman dizkiot. Niretzako atsegin handia da bere kide sentitzea; nire bihotzak, une horretan taupaden erritmoa handitu du eta bular aldean kolpeka nabaritu dut, bertatik atera nahiko balu bezala. Gaurkoa, emozioz eta sentimenduz beteriko eguna izaten ari da: Angelen agurra, ikasle marrazaina, emaitzaren ziurgabetasuna, ezkontzarako gonbitea…

Denboraldia amaitu da

Azken partida da eta arerioa Errenteriako Touring da. Angelen faltan, ezkontza batetan da, Josemik beteko du entrenatzaile papera. Botero ere falta da oporretara atzerrira joan delako; konpromisoa eta ardura izango ote dira? Josemi nahiko arduratuta ikusten dut, ohitura falta nabari zaio. Bere lanarentzako saririk onena taldeak garaipena lortzea izango da. Irailean hasitako txapelketa, maiatzaren azkenean bukatzen da. Hilabete askotako lanari, gaur ematen zaio amaiera: izerdi, malko, haserre, esfortzu, poztasun, momentu on eta txar, guztiak jasan dira denboraldian zehar eta azkeneko sailkapena da emaitza. Aurten ez da saririk egongo, ez gara Hirugarren Mailara igoko, ez gara ohorezko hiru lehenengo postuetan sailkatuko. Talde bat garaipenaren sari gozoa dastatzen ari da, Hirugarren Mailara igoko da. Beste talde batzuk porrotaren zapore mingotsa atal guztietara zabaldua daukate, Erregional Mailara jaitsiko dira. Ordiziak, laugarren edo bosgarren amaituko du, saririk gabeko postua. Hurrengo denboraldian izan beharko da.

Partidaren bilakaera joan etorrikoa izan da. Baloia kanpotarren atetik Ordiziako atearen aurrera ibili da etengabe. Hala eta guztiz, lehen zati honetan ez da golik egon, atsedenaldira 0-0 emaitzarekin helduz. Bigarren zatia ordea, goletan aberatsagoa izan da. Touringekoak aurreratu dira eta partidaren azken txanpan Josuk berdinketaren gola sartu du. Partida adostuta amaitu behar zela uste genuenean, Josebak area txikian gertatu den zalaparta batetan, ordiziarren bigarren gola sartu du. Baloia berriro zelai erditik ateratzearekin batera, epaileak partidaren amaiera agindu du.

Aldagelan irribarrea eta alaitasuna nagusi dira. Jokalari guztiek nekatuta eta leher eginda bukatu dute, indar guztiak xahututa, hizketarako indarrik izango ez balute bezala. Josemi gustura dago, bere proba gainditu du: taldeak irabazi egin du. Azken unean, Josebak golik sartu ez balu eta partida berdinduta amaitu izan balitz, amorrua eta mingostasuna gorputz guztian nabarituko zuen. Baino ez! Ordiziak irabazi egin du! “Zorionak Josemi!” Emaitzak, guztia areagotzen du: jarrera, joko ikusgarria, nekea… batzutan estaliz eta besteetan agerian jarriz. Ordiziari ezin zaio ukatu agertzen duen lehiarako grina. Jokalariak irabazleak dira

eta hori zelaian antzematen da, partida asko ezaugarri horrek erabaki ditzakeelako. Kategoria hauetan baloi guztiak intentsitate handiz jokatzea ezinbestekoa da emaitza on bat lortzeko eta hori da ordiziarrak duten bertuterik nagusiena, nahiz eta Angelek batzutan bestelako iritzia duen.

Niretzako ere agurra iritsi da. Txapelketaren dinamika horretan nire lana ahalik eta hobekien egiten saiatu naiz Angelek eta Boterok aldarrikatzen dituzten bi baloreak betetzen: konpromisoa eta ardura. Esperientzia honetan taldekide bat sentitu naiz entrenatzailearen laguntzaile lanetan jardunez, batzutan jokalarien isil-kide izanez eta besteetan, berriz, Angelen aitorle. Niri ere, jokalariei bezala, saiatzea eta esfortzu egitea tokatu zait eta bide horretan eraldaketa bat nabaritu dut: poliki poliki sentimendu bat barneratzen joan naiz, Ordiziako urdin kolorea gorputzean hedatu zaidalarik. Aupa Ordizia!

11. kapitulua **Futbolaren azterketa**

11.1 Sarrera

Futbolaren azterketa lana ulertzeko, egokia ikusten dugu analisia egitean jarraitu ditugun irizpideak non oinarritzen diren azaltzea. Behatu dugun futbola jarduera fisiko bat da, joko bat, baino hau baino haratago, azterketak erakutsi digun errealitatea joko hutsa baino askoz zabalagoa izan da.

Behaketa Ordizia Kirol Elkartean egin da, konkretuki Gipuzkoako Gorengo Mailan jokatzen duen taldean. Kokatze honek berak adierazten duenez, futbol taldeak txapelketa batean parte hartzen du. Lehiaketa hau Gipuzkoako lurraldean jokatzen da eta hamazortzi taldek lehiatzen dute. Hamazortzi talde hauek lehian jarduten dute talde bakoitzak aurkari baten kontra bi alditan jokatuz: partida bat norberaren zelaian eta bestea arerioenean.

Dinamika honetan Ordiziak partida bat etxean eta bestea kanpoan lehiatzen du. Txapelketa guztia etxeko eta kanpoko partiden artean banatu dezakegu. Gure parte hartze azterketan ez dugu bakarrik Ordizia behatu, baizik eta Ordiziaren aurka aritu diren arerioak ere behatu ditugu. Maila txikiago batean, baina

txapelketaren parte direnez eta Ordiziarren aurkari, banatu ezin daitekeen partidako unitate bezala hartuz.

Baina behaketa parte-hartzaileak eskatzen duen bezala ikerlaria taldera sartu eta taldekide bat izan eta sentitu behar da. Horretarako taldeak egiten dituen jardun guztietan parte hartzea beharrezkoa izan da. Eta une horretan aurkitzen dugu Ordiziako futbol taldearen beste ezaugarri garrantzitsu bat: taldeak entrenatu egiten du. Astean zehar aste bukaerako partidak jokatzeko taldeak entrenamenduak egiten ditu. Entrenamendu horiek dituzten ezaugarriak partidek dituztenen desberdinak direnez, beharrezko iruditu zaigu entrenamendu eta partidak banatzea.

Partida eta entrenamenduetan espazio, denbora harreman eta objektuek modu desberdinean egituratzen dira eta ondorioz bidezkoa ikusi dugu horietako zentzu bakoitza errealitate bikoitz horretan banatzea. Baloi berdinaren bi erpinak balira bezala entrenamenduek eta partidek futbol taldearen jarduna eskaintzen digute: Gipuzkoako Gorengo Mailako lehiaketan jarduten duen Ordiziarena.

Azterketaren hasieran txapelketaren ezaugarriak eta nondik norakoak aztertu ditugu, taldearen jarduna testuinguru horretan murgiltzen baita. Eta ondoren espazioa, denbora, harremanak eta objektuek hartzen duten zentzua partida eta entrenamenduak banatuz egin dugu. Behaketa egin dugun futbolaren errealitatea argitu asmoz egiten da sailkapen hau: txapelketa, partida, etxean, kanpoan eta entrenamenduek osatzen duten anabasa askatu nahian.

11.2 Txapelketa: Gipuzkoako Gorengo Mailakoa

Gorengo mailako txapelketa hau Gipuzkoako Futbol Federakuntzak (GFF) antolatzen du eta lehiaketa honetako berezkoak diren arau batzuk jartzen dituen arren, bertan jokatzeko Euskal Futbol Federakuntzako (EFF) araudia jarraitzen da eta maila altuago batean Fedération International Football Association (FIFA) delakoak zehazten dituen joko arauak.

GFFak helduen mailako hiru txapelketa desberdin antolatzen ditu: Bigarren Erregionala, Lehen Erregionala eta Gorengoa. Ordenu hau mailarik baxuenetik altuenera antolatuta dago. Jokalari helduen talde batek federazioak antolatutako txapelketa batean parte hartu nahi badu lurralde federazioan kidetza egin eta Bigarren Erregionalean lehiatu beharko du. Maila horretatik ez da inor kategoria baxuagora jaisten, ez baitago, baina igo bai.

Hurrengo maila Lehen Erregionala da. Kategoria horretan txapelketaren azken sailkapenaren arabera igoerak eta jaitsierak ematen dira. Lau talde Gorengo Mailara igotzen dira eta beste lau Bigarren Erregionalera jaitsi.

Horrela iristen gara Gorengo Mailara, lurralde federazioak antolatzen duen maila altueneko txapelketara. Kategoria horretatik talde bat Hirugarren Mailara igotzen da eta lau talde Lehen Erregionalera jaitsi. Hirugarren Maila ez da GFFak antolatzen duen txapelketa, baizik eta Espainiako estatu mailan lehiatu eta EFFak gidatzen duena. Hirugarren Maila honetan Euskadi mailako lehiatze multzoa osatzen da, gero lehen sailkatuek beste autonomi batzuetako taldeen aurka Bigarren B mailarako igoera jokatzeko.

Gorengo Maila beraz GFFak antolatzen dituen helduen hiru txapelketetatik, mailarik altueneko lehiaketa da.

11.2.1 Txapelketako eremu geografiko eta demografikoa

Parte hartu beharreko taldeak nongoak izan daitezkeen zehazten duen araurik ez da agertzen. Baina honek ez du esan nahi edozeinek lehiatu dezakeenik. Parte hartze eremua taldearen helbidean oinarritzen da. Araudiak argi dio helbideratuta dagoen lurraldean jokatu behar duela taldeak eta kontrakoa nahi baldin bada EFFaren baimena beharrezkoa dela. Adibide bat jartzearren,

Gipuzkoan helbideratuta dagoen talde batek Araban jokatu nahi baldin badu EFFaren baimena beharrezkoa du.

Gipuzkoako Gorengo Mailako txapelketan partehartzeko lurralde honetako taldeak izan behar dira eta guk behaketa egin dugun Ordizia Kirol Elkartea ere Gipuzkoakoa da, izen bereko herrikoa. Herria, Gipuzkoako lurraldean kokatua dago, zehatzago adieraziz Goierri eskualdean. Ordiziak 2008ko urtarrilaren 1ean 9.758 biztanle zituen (Instituto Nacional de Estadística) eta bertako populazioak nagusiki zerbitzuetan eta industrian lan egiten du.

Lehiaketan 18 taldek parte hartzen dute eta horietatik bakarra da Gipuzkoakoa ez dena: Bizkaian dagoen Ondarroa. Beste guztiak Gipuzkoako lurraldean dute egoitza. Baina hamazazpi horiek ez dagozkie beste hainbeste herriri. Bi herrik bina baitituzte: Pasaiak, Trintxerpe eta Pasaia, eta Donostiak, Berio eta Martutene. Lehiaketan parte hartzen duen talde bat bizkaitarra da, Ondarroakoa. Herri honek Gipuzkoarekin muga egiten du, konkretuan Mutrikurekin eta GFFan dago izena emanda. Gipuzkoako Gorengo Maila jokatzen duten talde gehienak lurraldearen ipar ekialdean kontzentratzen dira: Donostia, Pasaia, Hondarribia, Hernani eta Errenteria zazpi talderen jatorriak izanik.



Irudia 32: Gipuzkoa eta Gorengo Mailako taldeen herriak
Iturria: (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2008)

Kategoria honetan beraz Gipuzkoako 15 herrietako taldeak lehiatzen dira eta kontuan harturik Gipuzkoan 87 herri daudela, esan dezakegu Gipuzkoako herrien %17 txapelketa honetan ordezkatuta daudela.

Portzentaia asko aldatzen da txapelketan parte hartzen duten taldeen egoitza herrien biztanleak kontutan hartzen baditugu. Gipuzkoan 701.056 daude eta Gorengo Mailako herrien artean 375.799 osatzen dituzte; honela %55,16 baino gehiagoko portzentaia ateratzen zaigu. Datu horietatik interpretatu dezakegu Gorengo Mailako txapelketa honetatik kanpo biztanle gutxiko herri txiki asko gelditzen direla.

Taula 37: txapelketako herri kopurua eta biztanleak

Guztira herriak txapelketa	15	Biztanle totalak txapelketan	386.703
Guztira herriak Gipuzkoa	87	Gipuzkoa biztanleak	701.056
Portzentajea herriak	%17,24	Ehunekoa biztanleak	%55,16

Iturria: (Instituto Nacional de Estadística)

Txapelketan lehiatzen duten taldeen herrietako biztanleei dagokienez udalerri handiena Donostia da, 184.248 biztanlerekin. Bertako bi talde daude kategoria honetan: Berio eta Martutene. Hurrengo handienak Errenteria eta Zarautz dira. Herri txikienean egoitza duen taldea Idiazabal da, 2.212 biztanlerekin eta hurrengo txikienak Zestoa eta Mutriku.

Taula 38: txapelketan parte hartzen duten taldeen herrietako biztanleak

Herria	Biztanleak 2008ko urtarrilaren 1ean	Txapelketako herri guztien biztanleekiko portzentaia
Donostia (2 talde)	184.248	%47,65
Errenteria	38.505	%9,96
Zarautz	22.474	%5,81
Arrasate	21.974	%5,68
Hernani	19.229	%4,97
Hondarribia	16.315	%4,22
Pasaia (2 talde)	15.996	%4,14
Azkoitia	11.091	%2,87
Oñati	10.816	%2,80
Zumarraga	10.053	%2,60
Ordizia	9.758	%2,52
Ondarroa	8.987	%2,32
Aretxabaleta	6.646	%1,72
Mutriku	4.973	%1,29
Zestoa	3.426	%0,89

Herria	Biztanleak 2008ko urtarrilaren 1ean	Txapelketako herri guztien biztanleekiko portzentaia
Idiazabal	2.212	%0,57

Iturria: (Instituto Nacional de Estadística)

11.2.2 Txapelketako egutegia

Txapelketek egutegi bat dute eta bertan hasiera eta bukaera zehazten dira. Erabaki horiek GFFaren esku daude, berak antolatzen dituen eta bere ardurapean dauden lehiaketetan behintzat. GFFko ohizko batzar nagusiak txapelketaren egutegia ezartzen du eta ezinbesteko batean edo aparteko egoerak direla medio, partzialki edo osorik txapelketa bertan behera utz dezake.

GFFak egutegia prestatu eta gero txapelketan parte hartzen duten klub eta kirol elkarte guztiek lehiaketan parte hartzeko beharkizuna hartzen dute eta ondorioz partida guztietara lehen taldearekin azaltzeko ardura.

Egutegia, denboraldiaren barnean sartu behar da eta denboraldiaren epe muga autonomi mailako futbol federazioak ezarrita dauka. Denboraldiek, abuztuaren 1etik hurrengo urteko ekainaren 31raino iraungo dute. Txapelketa guztiak hamaika hilabeteko tarte horretan jokatu behar dira. Epe horretan lehiaketa bakoitzaren antolakuntzaz arduratzen den federazioak erabakitzen du txapelketaren egutegia.

Taula 39: 2006-2007 denboraldiko Gorengo Mailako Txapelketaren egutegia

	Denboraldia	Txapelketako egutegia
Ardura	Federazio nagusia: estatu mailakoa edo autonomi mailakoa	Txapelketa antolatzen duen federazioa: lurralde federazioa
Datak	Txapelketa guztiak abuztuaren 1etik, hurrengo urteko ekainaren 31ra	Gorengo Mailakoa: 2006ko irailaren 10etik 2007ko maiatzaren 27ra
Etenaldiak	Denboraldia ez da eteten	Eguberrietan eta Aste Santuan

Iturria: (Euskal Futbol Federazioa; Gipuzkoako Futbol Federazioa, 2006)

Gorengo Mailako txapelketa honetako egutegia GFFko ohiko batzordeak zehazten du: hasiera, amaiera eta jardunaldien egunak. Lehiaketa 2006ko irailaren 10ean hasi eta 2007ko maiatzaren 27an amaitu zen. Tarte horretan jokatu dira partida guztiak. Aste bukaera guztietan partidak egon dira eta txapelketak bi garai seinalatuetan etenaldia izan du: Eguberrietan eta Aste Santuan. Data esanguratsu horietako bakoitzean lehiaketa bi aste bukaeratan geldirik mantendu da.

11.2.3 Gipuzkoako Gorengo Maila eta ezaugarriak

Gorengo Maila joko sistemari dagokionez puntu bidezko txapelketa bat da. Bi itzulietara jokatzen da, aurkari bakoitzaren kontra bi alditan jokatuz, partida bat etxean eta bestea kanpoan. Kontutan izanik hamazortzi taldek parte hartzen dutela guztira 34 jardunaldi ospatzen dira.

Aurrez aipatu bezala esparruari dagokionez lurralde mailakoa da. Parte hartzen duten taldeek lurralde mailan lehiatzen dute, ez da lurralde arteko aurka egiterik ematen.

Gorengo Maila txapelketa ofiziala da. Txapelketaren antolakuntza GFFak du eta parte hartu behar duten klub edo kirol elkarteak bertan kidetuta egon beharko dira.

Taula 40: Gorengo Mailako txapelketa sistemaren ezaugarriak

Txapelketa	Gipuzkoako Gorengo maila
Joko sistema	Puntu bidezkoa bi itzulietara
Esparrua	Lurralde mailakoa: Gipuzkoan
Ordenua	Lurralde federazioak antolatzen duen mailarik nagusiena
Izaera	Ofiziala

11.2.4 Txapelketako sailkapena

Txapelketa taldeen arteko sailkapen bidez zehazten da. Arautegiak argi adierazten du taldeen arteko sailkapena nola egin behar den. EFFko araudiak puntu sistemaz jokatzen den txapelketa bateko irabazlea eta sailkapena zehazteko erabili behar diren irizpideak argi azaltzen ditu.

Taula 41: sailkapen mota eta osatzeko modua

Sailkapena	Puntu sistema
Puntu banaketa	Hiru, bat eta zero puntu jardunaldi bakoitzean
Azken sailkapena	Puntu kopurua batu

Puntu sistemaren bidez egiten diren txapelketetan, azken sailkapena, parte hartzen duten klub edo kirol elkarte desberdinek lortutako puntuen arabera egiten da, irabazitako partida bakoitzeko hiru puntu emanez, bat berdintzeagatik eta bat ere ez galtzeagatik. Partida bakoitzean hiru, bat edo zero puntu lortzen dira eta puntu hauek batzen joan behar dira azken jardunaldira arte.

Baina hori egitean gertatu daiteke bi talde puntu kopuru berdinarekin egotea; kasu honetan, beraien artean jokatutako bi partidetan bere alde gol gehien dituenak irabaziko luke. Modu horretan berdinketa konponduko ez balitz, irabazlea, bere alde gol gehien dituen taldea izango da baina txapelketa osoan zehar alde eta kontra dituzten gol guztien zenbaketa egin eta gero; diferentzia berdina izango balitz, gol gehien sartu dituen taldea izango litzateke irabazle.

Azken sailkapenean berdinketa bi talde baino gehiagoren artean ere izan daiteke eta kasu hori ere arautegian aztertzen da. Berdinketa hori hausteko lehenengo erabili behar den irizpidea zera da: beraien arteko norgehiagoketetan lortutako puntuekin eginiko sailkapena. Hori egin ondoren berdinketak jarraitzen badu, adibidez hiru taldeek beraien artean jokatutako partidetan sei puntu aterata, alde edo kontrako golen arteko diferentzia handiena lortu duenaren arabera

erabakiko da sailkapena. Hala eta guztiz berdinduta jarraituko balute txapelketa osoan lortutako aldeko eta kontrako golen arteko diferentzia izango da kontuan eta diferentzia hau ere berdina bada, gol gehien sartu dituena izango da aurretik.

Taula 42: azken sailkapenean berdinketa hausteko irizpideak

	Azken sailkapenean berdinketa	
	Bi taldeen artean	**Hiru talde edo gehiagoren artean**
Lehenengoa	Beraien artean jokatutako partidetan aldeko eta kontrako golen arteko diferentzia. Diferentzia positiboena duena aurretik.	Berdinduta dauden taldeen arteko partidetan lortutako puntuazioaren arabera. Puntu gehien duena aurretik.
Bigarrena	Txapelketa osoan lortutako aldeko eta kontrako golen arteko diferentzia. Diferentzia positiboena aurretik.	Berdinketa duten klub edo kirol elkarteek elkarren aurka jokatutako partidetan alde eta kontrako golen diferentzia handienaren arabera. Diferentzia positiboena duena aurretik.
Hirugarrena	Txapelketa osoan gol gehien sartu dituena aurretik	Txapelketa osoan lortutako aldeko eta kontrako golen arteko diferentzia. Diferentzia positiboena aurretik.
Laugarrena		Txapelketa osoan sartutako golen arabera. Gehien sartu dituena aurretik.

Iturria: (Euskal Futbol Federazioa)

Gipuzkoako gorengo mailako txapelketan, 2006-2007 denboraldian puntu gehien atera dituen taldea Zarautz izan da, guztira 71 puntu atera dituelarik. Ordizia sailkapenean bosgarren gelditu da 53 punturekin. Lehenengo egin duen Zarautzek 18 puntu atera dizkio Ordiziari. Sailkapen horretako azkena Urola izan da 27 punturekin.

Taula 43: 2006-2007 denboraldiko Gorengo Mailako azken sailkapena

Pos	Taldea	J	Etxean			Kanpoan			AG	KG	Puntuak
			I	B	G	I	B	G			
1	Zarautz K.E.	34	12	3	2	9	5	3	58	27	71
2	Hernani C.D.	34	10	4	3	7	6	4	67	42	61
3	Zestoa K.B.	34	8	5	4	9	3	5	50	40	59
4	Aretxabaleta K.E.	34	10	5	2	4	6	7	43	30	53
5	Ordizia K.E.	34	12	2	3	3	6	8	43	36	53
6	Berio F.T.	34	10	4	3	4	6	7	52	42	52
7	Mondragon C.F.	34	7	6	4	5	8	4	50	40	50
8	Trintxerpe C.D.	34	6	7	4	7	4	6	50	46	50
9	Anaitasuna F.T.	34	6	8	3	4	8	5	41	33	46
10	Touring C.D.	34	4	7	6	6	4	7	44	45	41
11	Aloña Mendi K.E.	34	5	6	6	4	7	6	44	54	40
12	Idiazabal K.E.	34	5	6	6	4	6	7	40	62	39
13	Aurrera de O. C.D.	34	5	8	4	3	5	9	34	46	37
14	Hondarribia F.E.	34	6	2	9	3	7	7	34	43	36
15	Pasajes C.D.	34	5	7	5	3	4	10	50	71	35
16	Mutriku F.T.	34	6	7	4	1	6	10	39	49	34
17	Martutene K.E.	34	5	5	7	2	7	8	41	57	33
18	Urola K.E.	34	1	9	7	4	3	10	30	47	27

Ikurrak:
- Pos - sailkapenean atera duen postua.
- Taldea - taldearen izena.
- J - jokatutako partida kopurua.
- Etxean / Kanpoan:
  - I - irabazitako partida kopurua.
  - B - berdindutako partida kopurua.
  - G - galdutako partida kopurua.
- AG - sartu dituen gol kopurua.
- KG - sartu dizkioten gol kopurua.
- Puntuak - puntu kopurua.

Iturria: (Gipuzkoako Futbol Federazioa, 2006)

Ordiziarrak azken puntuaketan Aretxabaletarekin berdinduta geratu dira eta sailkapeneko hurrenkera erabakitzeko beraien artean jokatutako partidetan emandako aldeko eta aurkako golen arteko diferentzia aztertu da. Baina hau

berdina izan da: joaneko partidan Aretxabaletak bat eta zero irabazi zuen eta bueltakoan Ordizia ere bat eta zero gailendu zen. Hurrenkera erabakitzeko bigarren irizpidea hartu da kontutan. Ordiziak txapelketa guztian 43 gol sartu ditu eta 36 jaso; aldeko diferentzia 7 golekoa da. Aretxabaletak ere 43 gol sartu ditu baino 30 jaso; aldeko diferentzia 13 golekoa da. Beraz Aretxabaleta aurretik.

Bi taldeen arteko beste berdinketa bat ere eman da Mondragon eta Trintxerperen artean. Kasu honetan lehen irizpidea erabiltzea nahikoa izan da. Joanekoan Trintxerpek Mondragoni bi eta zero irabazi zion eta bueltakoan Mondragonek Trintxerperi lau eta zero. Bien arteko partidetan emandako golen arteko diferentzia bi golez Mondragonen aldeko da, ondorioz sailkapenean bera izan da aurretik.

11.2.5 Txapelketako azken sailkapenak ematen dituen eskubide eta betebeharrak

Txapelketa amaieran azken sailkapenak eskubide eta betebehar batzuk definitzen ditu. Maila altuagora igotzea da ohiko eskubide nagusia eta betebeharra berriz maila baxuagora jaistea.

Gipuzkoako Gorengo txapelketa hau antolatzen duen futbol federakuntzak ere arau hauen barnean eskubide eta betebehar hauek ongi zehaztuta ditu. Txapelketa amaieran irabazle suertatzen dena zuzenean estatu mailan jokatzen den Hirugarren Mailara igotzen da. Bigarren ateratzen denak Bizkaiko eta Arabako Gorengo Mailetako bigarrenekin batera promozioa jokatzen du, Hirugarren Mailako IV. taldetik Bigarren B Mailara igotzen eta Bigarren B Mailatik Hirugarren Mailako IV. taldera jaisten den talde kopuruaren arabera lehentasun hurrenkera bat edukitzeko. Kasu horretan, edozelan ere, Espainiako Futbol Federakuntzako (FEF) Araudi Orokorreko xedapenak jarraitzen dira.

Bestalde sailkapeneko azken lauak zuzenean Lehen Erregionalera jaisten dira. Horiek hurrengo denboraldian kategoria baxuagoan aritzen dira. Tartean sailkatzen diren beste hamabi taldeak hurrengo denboraldian Gorengo Maila honetan jarraitzeko eskubidea eta betebeharra dute, ez dira mailaz aldatzen.

2006-2007ko Gipuzkoako Gorengo Maila honetan eman den azken sailkapenean, aurrena Zarautz izan da eta ondorioz Hirugarren Mailara zuzenean igo da. Bigarren Hernani atera da baino ez du igotzerik izan. Lehen erregionalera jaitsi diren lau taldeak Pasajes, Mutriku, Martutene eta Urola izan dira. Ordiziak bosgarren amaitu du eta postu horri dagokion eskubide eta betebeharrek arautzen duten bezala datorren denboraldian Gorengo Mailan jarraituko du.

11.2.6 Txapelketako ekipamendua

Lehiaketan parte hartzeko materialari buruz zenbait arau betetzea beharrezkoa da. EFFko araudi orokorrak futbolariek eraman beharreko ekipamenduari buruzko araudia luzatzen du.

Jokalariek beraien klub edo kirol elkartearen uniforme ofiziala jantziko dute. Futbolariek ezin dute edozein jantzi eraman, talde bakoitzak uniforme ofiziala izan behar du txapelketa aurretik lurralde federazioari adierazitakoa eta jantzi hauen kolorea ezin da aldatu denboraldiak irauten duen bitartean.

Futbolariak identifikatze lana errazteko kamisetaren atze aldean zenbaki bat izatea behartuta daude. Numero hori erraz ikusi beharko da eta tamainaz 25 zentimetro altuerakoa izango da. Jokalariaren zenbakia taldeko zerrendan dagokiona izango da eta futbolari bakoitzarena zein izan daitekeen zehazteko bi aukera daude: partida bakoitzeko hamaikakoaren arabera edo txapelketa osoan zenbaki berdina egokituz.

Lehenengo kasuan futbolaria titular bezala lehen hamaikakoan zelaian sartzen bada, partida bakoitzean batetik hamaikara arteko zenbaki bat izan dezake eta ordezko bezala gelditzen bada hamabitik hamazortzira. Modu horretara jokalari bakoitzak ez du zenbaki zehatzik txapelketan zehar. Zenbakiak hamaikakoaren arabera antolatzen dira.

Bigarren kasuan, nahi duten klub eta kirol elkarteek beraien jokalarien zenbaki zerrenda gehienez batetik hogeita bira finkatu dezakete, baina jokalari bakoitzak zenbaki berbera eraman beharko du txapelketa ofizialeko partida guztietan, bat eta hamahiru zenbakiak atezainentzat erreserbatuz. Modalitate hau aukeratzen duten klub eta kirol elkarteek, txapelketa ofizialak hasi baino hamar

egun lehenago dagozkien lurralde federazioak jakinaren gainean jarri beharko dituzte eta beraien jokalarien zerrenda eta bakoitzak izango duen dortsalaren zenbakia aditzera eman beharko dute. Menpeko klub eta kirol elkarteetako jokalariren batek jokatuko balu, hauek ere jokatzen duten bakoitzean, hogeita seitik hasita, zenbaki aldagaitz bat izan beharko dute. Modu horretara futbolari bakoitzak denboraldi guztian zehar zenbaki berdina du, hasierako hamaikakoan sartu ala ez.

Txapelketan gertatu daitezkeen nahasteak ekidin asmoz bata bestearen kontra jokatzen duten bi taldeen uniformeen koloreak berdinak edo nahasketa sor dezaketen koloreak baldin badira eta arbitroak horrela eskatzen baldin badu, aurkakoaren zelaian jokatzen duen taldeak bere uniformea aldatu beharko du. Partida zelai neutralean jokatuko balitz, azkena afiliatu den taldeak aldatuko du.

Gipuzkoako Gorengo Mailako txapelketan talde bakoitzak uniforme bat du eta hau kolore batekin identifikatzen da. Ordiziak urdina du, Hondarribiak berdea, Aloña Mendik gorria… Uniformearen kolorea, kamisetaren kolorea da. Galtzak identifikazio lan honetan garrantzi gutxiago hartzen dute, beraien azalera txikiagoa baita.

11.3 Futboleko espazioaren azterketa

Futbola espazio fisiko batean jokatzen da; toki zehatz honi futbol zelaia deitzen zaio. Errektangeluarra izaten da eta azpi eremuz osatua dago: area handia, txikia, zelai erdiko zirkulua… Guzti hauek futbolean jokatzeko beharrezkoak dira eta arautuak daude. Elementu guzti hauetaz gain, instalakuntza osotasunean hartu ezkero, futbol zelaiak beste zenbait osagai izaten dituzte eta horien artean dauzkagu: aldagelak, harmailak edo aulkiak. Futbola ulertzeko eremu guzti hauek deskribatu eta aztertzea ezinbestekoa egiten zaigu eta behaketa egin dugun Ordizia Kirol Elkartean horrela egin dugu: futbola osatzen duten espazio desberdinak behatu eta analizatu.

Bestalde futbol behaketan antzeman dugunez bi errealitatek osatzen dute Gorengo Mailako txapelketa jokatzen duten taldeen jarduna: partidek eta entrenamenduek. Azterketa honetan espazioari dagozkion bi marko hauek beraien ezaugarrien arabera egituratu ditugu: etxeko eta kanpoko eremuak partidetan eta entrenamenduetan etxeko eremuak.

11.3.1 Txapelketako partidetako espazioak

Atal honetan Gipuzkoako Gorengo Mailako txapelketako partidek dituzten espazioari buruzko ezaugarriak arakatu ditugu. Ordizia Kirol Elkartea oinarri hartuz partidek duten espazioaren zentzua aztertzen dugu.

I. Espazioarekiko harremana

Txapelketaren egiturak, bi itzulietara, arerio bakoitzaren aurka bi aldiz jokatuz, partidetan ematen den espazioarekiko harremanean antolaketa berezi bat bultzatzen du. Gorengo Mailako taldeek partida bat beraien zelaian eta hurrengoa aurkariaren zelaian jokatzen dute. Partidetan txandaka eremuak aldatuz aritzen dira txapelketa amaitzen den arte. Egitura honek norbere zelaian lehiaketako partiden erdiak jokatzera behartzen du eta beste erdiak arerioen zelaietan.

Partidako protagonista nagusiak diren futbolariengan ez da berdina batean edo bestean jokatzea. Arerioen zelaiak egonezin handiago bat sortzen die: zelaia ez da ezagutzen eta ezaugarri bezala dituen koska, erliebe, tamaina, zoru mota

edo izan dezakeen hezetasunaren berri ez izateak espazioarekiko ziurgabetasun bat sortzen die.

Ezaugarri horrek jokoan zehar izan dezakeen eragina ekidin ahal izateko entrenatzaileak bultzaturik, aurkari den talde baten zelaira iristen direnean eta aldatu baino lehen, jokalari, entrenatzaile eta laguntzaileek zelaian zehar paseo bat burutzen dute espazioan aurkitzen den informazioa barneratzeko: zelaia bustita dagoen, belarra nolakoa duen, koska asko dituen edo estua, zabala, luzea edo motza den... Zelaia arrotza egiten zaie eta erosoago aritzeko egiten dute paseo hori.

Talde bakoitzak bere zelaian jokatzen duenean, espazioa ezaguna izaten da eta talde horretako partaide diren jokalariei zelaia ez zaie arrotza egiten. Erliebea, belarra, okerdura, koska eta dentsitateak ezagunak egiten zaizkie eta ezaugarri horiek talde horretako jokalariengan apenas ez dute ziurgabetasunik sortzen. Txapelketako partida kopuru erdiak zelaia honetan jokatzen dituztenez, espazioan aurkitzen diren xehetasunak barneratuak dituzte eta ondorioz partida hasi aurretik ez dute ibilaldirik edo paseorik egiten joko zelaian.

Horrela egin dute Ordiziakoek ere. Bisitatu dituzten zelaietan, eta aldageletan ekipaia utzi ondoren, lehen ekintza zelaian zehar paseo bat burutzea izan da. Entrenatzailea den Angel buru dutela jokalari guztiak beren kasa eta taldetxoetan zelaian barrena ibili dira bertan dagoen informazioa barneratu asmoz. Bestalde Ordiziako Altamira zelaira etorri diren talde guztiek ere jokabide bera burutu dute: zelaira iritsi bezain laster bertan ibilaldi bat burutu.

Partidetan horrela gertatzen bada ere entrenamenduetan ez da dinamika berdina jarraitzen. Taldeek entrenamenduak beraien zelaietan egiten dituzte, gehienek partidak ospatzen dituzten zelai berberetan. Entrenamenduetako eremuen ezaugarri guztiak ezagutzen dira: gogortasunak, inklinazioak, koskak… Jokalariek ez dute prestatze saioa hasi aurretik entrenamendua burutu behar duten gunean ibilaldirik burutzen. Espazioa ez da arrotza, norberarena da eta ondorioz taldeek antolaketa desberdina egiten dute.

Ordiziako jokalariek Altamirako zelaian ez dute paseorik ematen prestatze saioa hasi aurretik. Berdin gertatzen da entrenamendu eskenatokia aldatzen

dutenean: karrerak egiten dituztenean herrian zehar edo ikastolako instalakuntza gunean ariketak egiten dituztenean. Badakite eraikitzen ari diren zelai berrian entrenatzen dutenean kautxu asko egongo dela eta ezagutzen dituzte aldameneko zelaiko tamainaren ondoriozko dentsitateak. Angel entrenatzaileak egunean bertan adierazten die non burutu behar duten prestatze saioa, horrek jokalariak ez ditu espazioarekiko ziurgabetasun egoera batean jartzen, terrenoa ezaguna dute eta espazioaren tratamendua minimoa da.

Partidetan eta entrenamenduetan taldeek espazioarekiko duten harreman desberdinak erabilera diferentea egitera bultzatzen ditu. Partidetan txandakako dinamika jarraitzen da eta partida bat norberaren zelaian jokatzen da eta hurrengoa arerioaren eremuan. Aurkarien zelaiak bisitatzen dituztenean jokalariak espazioaren tratamendu minimo bat egin beharrean aurkitzen dira. Entrenamenduetan aldiz eremuak ezagunak dira, beti norberaren eremuetan egiten baitira prestatze saioak eta beraiek sortzen duten ziurgabetasuna hutsaren parekoa. Ondorioz, jokalariak prestatze saioa burutu behar den gunera iritsi bezain laster eta aurrez ibilaldirik burutu gabe entrenatzen hasten dira.

Partidetan jokoa helburu materiala duen espazio batek gidatzen du. Eremu hori atea da. Atea helburu bihurtzen da, baloiak arerioen atea gainditu behar du partida irabazteko; atea gainditu ezkero kontatu egiten da eta tanteoa mugitu egiten da. Zelai bakoitzean aurrez aurre dauden ateen arabera antolatzen da jokoa eta beste azpi eremu guztiak ere horren arabera egituratzen dira. Partidetan espazioaren antolaketa modu hau finko mantentzen da eta bakarra da; ez du beste espazio mota batzuekin partekatzen.

Entrenamenduetan aldiz espazio mota desberdinak partekatzen dira. Atea helburu duten jokoak egiten dira baina distantzia bat egin beharreko eremuak, gizakia helburu duten espazio motak eta kalitatezko espazioak ere bai. Beraz ezaugarri desberdinak dituzten eremuak partekatzen dira entrenamenduetan.

Ordizia Kirol Elkartean dibertsitate hau entrenamendu batean bezala prestatze saio guztietan eman da; espazio mota desberdinak partekatzen dira. Oinarrizko edo jatorrizko propietate horrek antolakuntza desberdina izatera eragiten dio espazioaren tratamenduari.

a. Atea helburu

Futbol jokoaren espazioak duen ezaugarri nagusiena eremua helburu izatean datza. Helburu material hori atea da, arerioen porteria. Espazio helburu honek gidatzen du jokoa eta beste azpi eremu finkoak horren arabera hartzen dute zentzua. Txapelketako partida guztietan helburu espazial hau ez da aldatzen, ez da punturik lortzen zelaian lasterketa bat eginda edo kide edo arerio bat harrapatuz. Futbol jokoan ateak du garrantzia; baloia atean sartu behar da. Beste azpi eremuetan baloia sartzeak ez du tanteorik aldatzen eta edozein kasutan azpi eremu horietan murgiltzeak, helburu espazial nagusia den atearen logikari erantzuten diote.

Ateak 7,32 metro zabaleran eta 2,44 metro altueran izan behar ditu; azalera 17,86 m^2koa da. Azalera horretan baloia sartu ezkero tanto bat gehitzen da markagailura.



Irudia 33: atearen azpi eremua
Iturria: (FIFA)

II. Espazio finkoak

Futbol zelai batean beti berdinak diren espazioak eta aldatu daitezkeenak topatzen ditugu. Banaketa hau araudiak eragiten du, batzuek zurrun mantenduz eta besteei malgutasun bat utziz. Desberdintasun hori irudikatzeko bakoitzaren bi adibide erakusgarri dira: atea edo “porteria” eta zelaiaren tamaina. Atea zelai guztietan neurri berdinekoa den bitartean, zelaien tamaina desberdina izan

daiteke. Atal honetan eremu finkoak aztertuko ditugu, zelai guztietan berdinak diren espazioak.

a. Zelaiaren azpi eremuak

Txapelketako partida guztiak jokatzen diren futbol zelai guztietan araututako azpi eremu batzuk aurkitzen dira. Espazio hauek zelaiaren barrenean daude eta guztietan berdinak dira. Sei azpi eremu finko aurkitzen ditugu: atea, ateko area, penalti area, erdiko zirkulua, izkinako koadranteak eta penalti areako zirkulu erdia. Eremu hauek zelai guztietan aurkitzen dira eta finkoak dira. Gorengo mailako partidarik ez dago jokatzerik zelaiak azpi espazio guzti horiek ez baditu. Sei eremu hauen antolaketa azpi espazio nagusi batek gidatzen du: ateak.

Ateko areak 18,32 bider 5,5 metro neurtzen du. Zelai guztietan neurri hauek mantendu behar dira. Tamaina horrekin ateratzen dugu bere azalera: 100,76 m^2. Futbol zelaian bi ateko area direnez beraien azalera guztia 201,52 m^2koa da

Penalti area, ateko area baino handiagoa da eta 40,32 metro bider 16,5 metro neurtzen ditu; bere azalera 665,28 m^2koa da. Penalti areak ere bi dira zelaian 1.330,56 m^2 izanez guztira.

Korner izkina bakoitza zirkulu laurden bat da eta beraien azalera 0,78 m^2koa da; lau izkina direnez betetzen duten azalera 3,12 m^2koa da.

Zelai erdian marraztuta dagoen zirkuluak 263,02 m^2 ditu eta bakarra da zelaian.

Penalti areaz kanpo zirkulu erdi bat dago marraztuta. Penalti puntutik 9,15 metroko distantziara zirkulu bat egin eta areaz kanpo geratzen dena marrazten da.

Taula 44: azpi eremuak eta tamaina

Azpi eremu finkoak	Kopurua zelaian	Tamaina	Bakoitzaren azalera (m^2)	Azalera guztira (m^2)
Atea	2	7,32 x 2,44 m.	17,86	35,72
Ateko area	2	18,32 x 5,5 m.	100,76	201,52
Penalti area	2	40,32 x 16,5 m.	665,28	1.330,56
Erdiko zirkulua	1	9,15 m. erradiokoa	263,02	263,02
Izkinako koadranteak	4	Metro 1eko erradioko zirkulu laurdena	0,78 (bakoitzak)	3,12
Penalti puntuko zirkulu erdia	2	Penalti puntutik 9,15 metrotara; penalti areaz kanpo geratzen den zatia	20	40
Azpi eremu finko guztiak	13		1.070,02	1.873,94

b. Zelaiaren marrak

Gorengo mailako zelai guztiak marraz markatuta daude. Marra hauek azpi eremuen mugak dira. Baloia marran dagoenean, lerro horrek mugatzen duen azpi eremuan egoten da; muga marra beraz, mugatzen duen espazioari dagokio. Marra bakarra dago bi eremuei dagokiena eta hori zelai erdiko marra da. Erdiko marra horrek zelaia bi zati simetrikoetan banatzen du eta baloia bere gainean dagoenean bi zelai erdiei dagokie. Bi zelai erdietan marra kopuru berdinak daude eta aurrez aurre geratzen dira, distantzi berdinetara eta kopuru berean.

Markaketari buruzko xedapenak nazioarteko futbol federazioak (FIFA) ezartzen ditu eta EFFak horiek berretsi eta betetzeko agindu du. Zelaiek espazio hauek bereiziak izan behar dituzte: ate areak, penalti areak, korner areak; zutoinak, langak, hauen sareak eta banderak; bai kornerrekoak eta bai

marrazainek erabili beharrekoak; eta entrenatzailearen mugimenduak mugatzen dituen area teknikoa. Marrak, mugatzen dituzten eremukoak izaten dira eta gehienez ere hamabi zentimetroko zabalera izango dute.

Zelaiak guztira 21 marra ditu. Marra batzuk zelai erdi bakoitzari dagozkio, konkretuki sei marra: izkinako bi koadranteak, ateko areako marra, penalti areako marra, ateko marra, penalti puntua eta penalti puntuko zirkulu erdia; guztiak azpi eremuak mugatzen dituzte. Beste lau marrak zelaiaren kanpoaldeko mugak seinalatzen dituzte: alboko bi marrak eta sakoneko bi marrak. Ateko bi marrak gola, markako elkarrekintza, mugatzen dute. Eta azkenik zelai erdian aurkitzen diren marrak daude: erdiko puntua, erdiko zirkulua eta erdiko marra; bi zelai erdiek osatzen dituzten eremuak banatzen dituzte.

Bestalde araudiak dioen bezala ateen zutoin eta langek ere marren funtzio bera egiten dute. Zelaitik gorantz ateratzen direlarik ez dago margotzerik. Marrazketa zutoinek eta langak ordezkatzen dute. Zelai guztietan 21 marra egoteaz gain ateak daude: bi zelai bakoitzean; eta ate bakoitza bi zutoin eta langa batek osatzen dute.

- Alboko marrak

Futbol zelaiko kanpo aldea mugatzen duten bi linea luzeenei alboko marrak deitzen zaie. Alboko marrak zelairen zabalera mugatzen dute eta bertatik baloia atera ezkero jokoa eteten da eta alboko sakearekin jarri behar izaten da berriro jokoan. Marra horiek zelai batetik bestera neurri desberdinekoak izan daitezke: zelai txikienetan 90 metroko luzera izan ditzakete eta handienetan 120 metro. Zelai bakoitzean marrazten diren bi marra hauek beti tamaina berdinekoak izan behar dira.

- Sakoneko marrak

Zelaiko kanpo aldea mugatzen duten bi marra motzenak dira. Zelaia luzeran mugatzen dute. Baloia beraietatik kanpora irteten bada jokoa eten eta ateko sakea edo kornerra eginez hasten da berriro jokoa. Marra hauek ere luzera desberdinetakoak izan daitezke: zelai txikienetan 45 metrokoak izanik eta handienetan 90 metrokoak. Zelai berdinean bi marra hauek neurri berdinekoak izan behar dira.

- Ateko marra

Sakoneko marraren erdian marrazten da, izkinara distantzia berdinean kokatuta dauden bi zutoinez mugatuta. Ateko marrak markako elkarrekintzaren eremua mugatzen du. Baloiak marra hau gainditu ezkero gola izaten da eta tantoa markagailura igotzen da.

- Erdiko marrak

Zelai guztia erdiko marra batez bi zati berdinetan zatitua egoten da. Marra honek jokoa hasi baino lehen talde bakoitzaren zelaia mugatzen du. Jokoaren hasiera bi egoeretan ematen da: batetik lehen eta bigarren zatiaren hasieran; eta bestetik talderen batek gola sartu eta berriro jokoa hastean.

- Erdiko puntua

Puntu hau erdiko marraren erdian kokatua dago eta aurreko puntuan aipatu ditugun jokoa hasteko egoeretan baloiak izan behar duen kokagunea seinalatzen du. Lehen eta bigarren zatia hastean baloia puntu horretan kokatu behar da; eta talde batek gola sartzean jokoa berriro puntu horretan jarriz hasten da.

- Erdiko zirkulua

Erdiko puntutik 9,15 metroko erradioa duen zirkulu bat marrazten da. Zirkulu horrek, talde batek baloia erdiko puntutik ateratzean, aurkako taldeko jokalariek mantendu behar duten distantzia mugatzen du. Aurkariak beraien zelaian sartuta egon behar dira eta gainera zirkulu honen erditik kanpo.



Irudia 34: zelaiko marrak eta izenak
Iturria: (FIFA)

- Ateko areako marra

Marra hau zelaiaren bi muturretan egoten da. Atearen zutoin bakoitzetik 5,5 metroko bi marra perpendikular marrazten dira zelai barrenera eta hauek 18,32 metroko marra paralelo batekin lotzen dira. Marra hauek eta ateko marrak mugatzen duten eremua ateko area izaten da.



Irudia 35: zelaiaren neurriak
Iturria: (FIFA)

- Penalti areako marra

Atearen zutoin bakoitzetik izkinarantz 16,5 metrora, zelai barnerantz 16,5 metro luzerako bi linea marrazten dira eta hauek 40,32 metroko marra paralelo batekin lotzen dira. Marra hauek eta ateko marrak mugatzen duten eremua penalti area izaten da. Penalti area bakoitzean penalti puntu bat marrazten da.

- Penalti puntua

Araudian azaltzen den arau hauste zehatz batzuk ematen direnean baloia puntu honetatik jartzen da berriro jokoan. Penalti puntua ateko marraren erditik 11 metroko distantziara marraztuta egoten da.

- Penalti puntuko zirkulu erdia

Penalti puntutik 9,15 metrotara zirkulu bat egiten da eta penalti areatik kanpo geratzen den zatia bakarrik marrazten da. Marra honek penaltia gertatzen denean jaurti behar duen jokalaria ezik beste guztiak egon behar diren distantzia mugatzen du: jokalariak penalti puntutik 9,15 metroko distantziara eta penalti areatik kanpo kokatu behar dira.

- Banderatxo eta izkinako koadrantearen marrak

Izkina bakoitzean banderatxo bat duen puntarik gabeko zutoin bat jartzen da. Makilatxo honen gutxieneko altuera 1,5 metro izaten da. Banderatxo bakoitzetik zelaiaren barnerantz metro bateko luzera duen koadrante batez marraztutako area aurkitzen da. Izkinako sakeak ateratzeko eremua mugatzen du.



Irudia 36: banderatxoa
Iturria: (FIFA)

- Ateak: zutoinak eta langak

Ateko marraren erdian kokatu behar dira. Ateak bi zutoinek eta hauek lotzen dituen langa batez osatzen dira. Bi zutoinak izkinako banderatxotik distantzia berdinera egon behar dira eta zoruan egoki finkatuak; ezaugarri hori bete ezkero ate mugikorrak erabili daitezke. Bi zutoinen arteko distantzia 7,32 metrokoa da eta langa zorutik 2,44 metrora egoten da bi zutoinak lotuz. Langak eta zutoinak zabalera berdina izan behar dute, marrek bezala, gehienez ere 12 zentimetro. Ateari eta zoruari lotuta sareak jarri daitezke, atezainari oztoporik egiten ez dioten bitartean. Zelai bateko bi ateek osatzen dituzten zutoin eta langak kolore zurikoak izaten dira.

- Ordiziako zelaiaren marrak

Ordiziako Altamira zelaian futbolean jokatzeko beharrezko diren hogei eta bat marrak kolore zuriz daude marraztuta eta hauez gain beste joko batzuetara jokatzeko beste marra batzuk ere badaude, kasu hauetan hori eta urdin kolorez marraztuak. Marrak betirako margotuak daude, ez dira ezabatzen.

Zelaiko bi ateak burdin metalezkoak dira eta zoruan barrenean sartuta eta lotuta daude. Ate bakoitzean zutoinei, langari eta zoruari lotuta sarea dago. Sare horri esker atea pasatzen duten baloi guztiak bertan gelditzen dira, beraien bila joan beharrik izan gabe. Araudiak behartzen dituen izkinetako banderatxoak ere finko jarrita daude; banderatxoa gorri kolorekoa da eta makilatxoa materiale sintetikoz eginikoa.

Gorengo Mailako txapelketa honetako zelai guztiek araudiak agintzen dituzten marra guztiak margotuak dituzte. Zelai batzutan marra hauek partida baino lehen marrazten dira, Oñatikoa edo Ondarroakoa kasu; eta beste batzuetan finkoak dira, adibidez Idiazabalgoa edo Trintxerpekoa . Bereizketa honek zelaiaren izaerarekin du zerikusia. Belar naturalezko zelaietan partida aurretik marra guztiak errepasatu eta berriro margotzen dira. Belarra bizirik dagoenez hazi eta aldatu egiten da eta ondorioz marra horiek ezabatu. Belar artifizialeko zelaietan ordea marrak moketa modukoa den materialak berak ekartzen ditu pintatuak eta erabilpenarekin ez dira ezabatzen. Modu horretan ez dago etengabe marrazten ibili beharrik.

III. Zelaian kokapen finkorik gabeko joko espazioak

Jokoa martxan jartzen denean aurrez ezarri gabe dauden espazioak agertzen dira. Eremu hauek zelaian kokatzen dira baino aurrez ez daude markatuak. Beste eremuak ez bezala hauetan ez dago marrarik eta epailearen esku dago araudiak agintzen dituen distantziak betetzea. Eremu hauek bi multzotan sailkatu ditzakegu: jokoa etenik dagoenean gorde behar diren espazioak eta baloia jokoan dagoenean bete behar diren espazioak. Eremu hauek aztertu ditugun beste azpi espazioekin gurutzatzen dira, ondorioz sortu daitezkeen azpi eremuak aldatuz.

a. Jokoa etenik, gorde beharreko eremuak

Eremu hauek jokoa arau hauste baten ondorioz edo baloia zelaitik kanpo atera ondoren berriro jokoan jartzeko garaian gertatzen dira.

- Jokoan arau hauste bat gertatu ondoren baloia jokoan jartzean

Jokoan arau hauste bat gertatzean arbitroak falta adierazten du eta jokoa eten egiten da. Falta hauek zuzenak eta ez zuzenak izan daitezke; zuzenetan, futbolari batek baloia jokoan jartzean, beste jokalariek ukitu gabe atera sartu ezkero, gola balioduna izaten da; eta ez zuzenetan, baloia jokoan jarri duen jokalariak beste inortxok ukitu gabe gola sartzen badu ez du balio izaten, ez da markagailura igotzen. Bi mota horietako falta baten ondoren baloia berriro jokoan jartzean arau haustea egin duen taldekide guztiak gutxienez baloiarengandik 9,15 metro baino urrunago kokatu beharrean daude.

Distantzia hori orokorrean horrela da baino zelaiko azpi eremu desberdinetan aldatu egiten da:

Arerioen penalti arean edo ateko arean norberaren aldeko falta zuzen bat baldin bada, penaltia izaten da eta arerioen atezaina baloia jaurtiko den gunetik 11 metrotara kokatzen da; arerioen eta norberaren taldeko beste jokalariak baloiaren atzetik eta penalti areatik kanpo 9,15 metrora kokatzen dira.

Egoera berdinean falta ez zuzena gertatzen bada arerio guztiak baloia jokoan jarriko den gunetik 9,15 metrora kokatzen dira. Kasu horretan salbuespena falta ateko arean izatean gertatzen da: gune horretan gertatutako falta guztietan

baloia berriro jokoan ateko marraren paraleloa den areako marratik jarri behar da eta arerioak beraien ateko marraren gainean jarri daitezke nahiz eta 9,15 metroko distantzia ez mantendu. Berdin gertatzen da norberaren penalti edo ateko arean aurkako falta bat izatean.

Norberaren penalti arean edo ateko arean aldeko falta bat izatean aurkariak penalti areatik kanpo kokatzen dira eta area horietako edozein gunetatik jartzen da jokoan. Arerioak kokatu daitezkeen distantzia beti 9,15 metro baino handiagoa izaten da. Berdina gertatzen da arerioen penalti arean eta ateko arean aurkako falta bat geratzean.

- Baloia zelaitik atera ondoren berriro jokoan jartzean

Bi gunetatik atera daiteke baloia zelaitik kanpo: sakoneko marratik eta alboko marratik. Sakoneko marratik ateratzean izkinako sakea atera behar bada horretarako espresuki dagoen koadrantetik jartzen da jokoan eta arerioak 9,15 metrora kokatzen dira. Ateko sakea bada baloia ateko areatik jartzen da jokoan eta arerioak penalti areatik kanpo kokatzen dira.

Alboko marratik ateratzean baloia atera den tokitik jarri behar da jokoan eta arerioak gune horretatik gutxienez bi metrotara kokatzen dira.

Taula 45: jokoa etenik gorde beharreko eremuak

Jokoan arau hauste bat gertatu ondoren berriro jokoan jartzean
Norberaren aldeko falta zuzena
1. **Arerioen penalti edo ateko arean:** penaltia. Aurkarien atezaina ateko marran eta beste jokalari guztiak 9,15 metrora penalti areatik kanpo.
2. **Zelaiko beste gunetan**: arerioak 9,15 metrora
3. **Norberaren penalti edo ateko arean aldeko falta bat:** aurkariak penalti areatik kanpo gutxienez 9,15 metrora; baloia jokoan: area horietako edozein gunetatik.
Aurkako falta zuzena
1. **Arerioen penalti edo ateko arean:** Norbera eta taldekideak penalti areatik kanpo gutxienez 9,15 metrora; baloia jokoan: area horietako edozein gunetatik.
2. **Zelaiko beste gunetan**: Norbera eta taldekideak 9,15 metrora.

3. **Norberaren penalti edo ateko arean:** Penalti; Norberaren atezaina: ateko marran; Jaurtiketa: 11 metrotik, penalti puntua; beste jokalari guztiak: baloiaren atzetik 9,15 metrora.

Aldeko falta ez zuzena

1. **Arerioen penalti arean edo ateko arean:** arerio guztiak gertatu den gunetik 9,15 metrora
   Salbuespena: falta ateko arean gertatzean, baloia ateko marrako paraleloa den marran eta arerioak ateko marran

2. **Zelaiko beste gunetan:** arerioak 9,15 metrora

3. **Norberaren penalti edo ateko arean:** arerioak penalti areatik kanpo gutxienez 9,15 metrora; baloia jokoan: area horietako edozein gunetatik.

Kontrako falta ez zuzena

1. **Arerioen penalti edo ateko arean:** Norbera eta taldekideak penalti areatik kanpo gutxienez 9,15 metrora; baloia jokoan: area horietako edozein gunetatik.

2. **Zelaiko beste gunetan:** arerioak 9,15 metrora

3. **Norberaren penalti edo ateko arean:** Norbera eta taldekide guztiak gertatu den gunetik 9,15 metrora
   Salbuespena: falta ateko arean gertatzean, baloia ateko marrako paraleloa den marran.

Baloia zelaitik atera ondoren berriro jokoan jartzean

- **Izkinako sakean:** baloia jokoan izkinako koadrantetik arerioak 9,15 metrora.
- **Ateko sakean:** baloia ateko areatik jarri behar da jokoan, arerioak penalti areatik kanpora.
- **Alboko sakean:** baloia irten den gunetik, arerioak gutxienez 2 metrora

b. Baloia jokoan dagoenean mantendu behar diren espazioak

Baloia jokoan dagoenean jokalariek beraien artean mantendu beharreko distantzia eta guneak alde batetik, eta jokoz kanpoko arauaren ondorioz sorturikoak bestetik aztertuko ditugu.

- Jokalariek beraien artean mantendu beharreko distantziak

Baloia duen aurkako taldeko jokalariari gorputz enborrarekin kargatzea posible da, baino goiko eta beheko atalekin ukitzea araudiak zigor bezala ezarrita dauka. Aurrez aipatu dugun bezala zigorra falta izaten da eta desberdina izaten da gertatu den azpi eremuaren arabera. Baloirik ez duen aurkako taldeko jokalariari modu guztietara ukitzea araudiak zigortu egiten du. Hala eta guztiz arbitroak egiten duen interpretazioaren arabera gero jokoan adieraziko da edo ez: arerio diren bi jokalarik eskua ematea ez da inoiz falta adierazten.

- Jokoz kanpokoarekin zigortutako espazioak

Eremu hauek azpi espazioekin gurutzatzean eratortzen dira. Zelaia bi zati berdinetan banatzen duen erdiko marra da jokoz kanpokoa mugatzen duena. Jokoz kanpo izaten da aurkarien zelaian, baloia eta atearen artean defentsan ari den taldeko bi jokalari baino gutxiago daudenean; espazio horretan aurkitzen den erasotzaileak ezin izaten du baloia jokatu.

Bi irizpide nagusi daude jokoz kanpoan egoteko: arerioen zelaian egon behar da eta gainera baloia baino aurreratuago kokatua. Bi horietako bat betetzen ez bada ez da espazio mugaturik egoten. Jokoz kanpoko espazio mugatu honek ez dauka aurrez ezarritako distantzia edo tamainarik, hori bai inoiz ezin daiteke zelai erdia baino handiagoa izan. Talde guztiek nahi izaten dute eremu debekatuak sortzea, modu horretan arerioek jokatu dezaketen eremuaren azalera jaitsi egiten baita, jokalari eta espazioaren arteko erlazioa txikituz.

Taula 46: baloia jokoan dagoenean mugatuta dauden espazioak

Jokalariek beraien artean mantendu beharreko distantziak
Baloia duenari
Gorputz enborrarekin kargatzea posible da, baino ez gorputz atalekin. Atezaina ateko arean ezin da kargatu
Baloia ez duenari
Ezin da kargatu
Jokoz kanpokoarekin zigortutako espazioak
Arerioen zelaian baloia eta atearen artean defentsan ari den taldeko bi jokalari baino gutxiago badaude erasotzaileak, baloia jaso behar duenean, honek ezin izango du baloia jokatu.

Iturria: (FIFA)

IV. Espazio malguak

Gorengo mailako txapelketa antolatzen duen GFFak FIFAren araudia aplikatzen du espazioari dagokionean eta horren barne malguak diren eremuen arautegia. Malgutasun hau zelaiaren neurri eta izaerari dagokie. Txapelketako

araudiak zehazki neurri eta izaerari buruzko modelo edo neurri bat ez du agintzen, baizik eta tarte bat eta baliozko diren ereduak aipatzen ditu. Talde baten joko zelaia beste baten tamaina desberdinekoa izan daiteke eta era berean zoru diferentez osatutakoa.

a. Joko zelaia

Joko zelaia txapelketan parte hartzeko beharrezkoa da, eta zelai horrek ezaugarri batzuk izatea ezinbestekoa da lehiaketan parte hartzeko. Eta aipatutako azpi eremuez gain tamaina eta zoruaren izaera irizpide batzuen barrenean sartu behar dira.

- Izaera

Partidetan erabili beharreko zelaia FIFAak arautzen du. Arautegiko lehen araua futbol zelaiari buruzkoa da. Zelaia bi eratakoa izan daiteke: belar naturalezkoa edo belar artifizialezkoa. Belar naturala guztiok ezagutzen dugun belarrari deitzen zaio eta belar artifiziala sintetikoki eginiko material espezifiko bati; gerturatu arte ez da antzematen benetako belarra edo osagai bereziekin eginikoa den. Horren arduraduna kolorea da; araudiak argi azaltzen du belar artifizial delakoaren kolorea berdea izan behar duela.

Araudi orokor hau EFFak gehiago zehazten du futbol zelaiak izan behar dituen beste ezaugarri batzuk adieraziz. Futbol zelaia gainazala laua eta horizontala duen laukizuzen bat izan beharko da, lurra, belarra edo dagokion federazioak bere garaian baimendutako material artifizialez eginikoa. Beraz, maila autonomikoan jokatzen diren txapelketetan lurrezko zelaian jokatu daiteke, nazioarteko federakuntzak jartzen dituen bi aukerei, lurrezkoarekin hirugarrena gehituz.

Ordizia Kirol Elkarteko futbol taldeak, Ordiziako Altamira auzoan dagoen futbol zelaian jokatzen du. Auzo honetan bi futbol zelai daude: nagusia eta aldamenekoa. Nagusia eraberritzen ari diren bitartean, Ordiziako talde guztiek aldameneko zelaian jokatzen dute. Zelai hau belar artifizialezkoa da eta araudiak derrigortzen duen bezala kolore berdekoa. Garai batean hondarrezkoa zen baina duela gutxi belar artifiziala jarri zuten.

Taula 47: Gorengo Mailako taldeak eta zelaien izena eta zoru mota

Taldea	Zelaiaren izena	Zoru mota
Zarautz K.E.	Asti	Naturala
Hernani C.D.	Zubipe	Artifiziala
Zestoa K.B.	Zubiaurre	Lurrezkoa
Aretxabaleta K.E.	Ibarra	Artifiziala
Ordizia K.E.	Altamira	Artifiziala
Berio F.T.	Berio	Artifiziala
Mondragon C.F.	Atxabalpe	Naturala
Trintxerpe C.D.	Trintxerpe	Artifiziala
Anaitasuna F.T.	Txerloia	Naturala
Touring C.D.	Fanderia	Artifiziala
Aloña Mendi K.E.	Azkoagain	Naturala
Idiazabal K.E.	Arizkorreta	Artifiziala
Aurrera de O. C.D.	Zaldupe	Naturala
Hondarribia F.E.	Ondartza	Naturala
Pasajes C.D.	Don Bosco	Artifiziala
Mutriku F.T.	San Miguel	Naturala
Martutene K.E.	Martutene	Artifiziala
Urola K.E.	Argixao	Artifiziala

Iturria: (Gipuzkoako Futbol Federazioa, 2006)

Gipuzkoako gorengo mailako txapelketa hau jokatzen duten taldeak hiru motatako zelaietan jokatzen dute: belar naturala edo artifiziala eta lurrezko zelaia. Talderik gehienak hamar taldek belar artifizialezko zelaiak dituzte: Ordizia, Hernani, Aretxabaleta, Berio, Trintxerpe, Touring, Idiazabal, Pasajes, Martutene eta Urola dira talde horiek. Zazpi talde dira belar naturalezko zelaia dutenak: Zarautz, Anaitasuna, Aloña Mendi, Aurrera O., Hondarribia, Mondragon eta Mutriku. Azkenik talde bakarra da hartxintxarrezko zelaia duena: Zestoa. EFFko araudiak ez du azken aukera hau azaltzen baina Zestoak GFFak emandako baimena dauka zelai horretan jokatzeko.

Taula 48: zelaien izaera

Araudiak	Belarrezkoa, artifiziala edo lurrezkoa
Ordiziak	Artifiziala
Gorengo Mailan	Belarrezkoa: 7 taldek Artifiziala: 10 taldek Hartxintxarrezkoa: talde batek

- Dimentsioak

Gorengo mailako txapelketan, zelaia Nazioarteko Futbol Federazioak, FIFAk onartutako jokoaren arauak adierazten dituen neurrietara zorrozki egokitutakoa izan behar da. Eta arau horiek diotenez, zelaiaren dimentsioak honelakoak izan behar dira: luzeran, gutxienez 90 metro eta gehienez 120 metro; eta zabaleran, 45 metro eta 90 metro artekoa.

Zelaia tamaina desberdinetakoa izan daitekeenez, azalera ere desberdina izan daiteke. Baimendutako zelairik handiena bada azalera 10.800 m^2koa izan liteke. Aldiz arautegiak uzten duen baldintza txikienetako zelaia bada, 4.050 m^2 koa izan litzateke. Baimendutako neurrien barnean luzerako eta zabalerako batezbesteko neurri bat hartzen badugu zelaiak 105 metro luzeran, 67 metro zabaleran izango lituzke eta azalera 7.087 m^2koa izan litzateke. Baldintza horien arabera posible da zelairik handiena txikiena baino 2,5 handiagoa izatea. Batezbesteko neurriekin egindako zelaia ere araudiak uzten duen txikienaren aldean ia bikoitza da. Neurrietan eta ondorioz azaleretan, zelai batetik bestera diferentzia handiak egon arren zelai tamaina guzti hauek araudia betetzen dute.

Taula 49: futbol joko zelaiek bete behar dituzten baldintzak

Izaera	Dimentsioak	Azalera
Belar naturala, artifiziala edo lurrezkoa	▪ Luzera: 90 eta 120 m. bitartean. ▪ Batezbesteko luzera: 105 m. ▪ Zabalera: 45 eta 90 m. bitartean. ▪ Batezbesteko zabalera: 67,5 m.	▪ Handiena: 10.800 m^2 ▪ Txikiena: 4.050 m^2 ▪ Batezbestekoa: 7.087 m^2

Iturria: (FIFA)

Ordiziako Altamira zelaiak 100 metro luzeran eta 60 zabaleran ditu. Luzeran araudiak uzten duen tamainarik txikiena baino hamar metro handiagoa da eta zabaleran ere txikienak izan litekeen baino hamabost metro gehiago ditu. Zelaiaren azalera 6.000 m^2koa da, araudiak uzten dituen neurriekin egindako batezbestekoa baino 1.000 metro txikiagoa.

Txapelketa hau jokatzen duten talde guztiek araudiak zelaiaren luzera eta zabalerari agintzen duena betetzen dute. Gorengoko zelairik luzeena Anaitasunak jokatzen duen Txerloia futbol zelaia da 106 metrorekin; jarraian luzeenak Zarauzko Asti eta Berio dira 105 metro dituztelarik. Luzerari dagokionez motzena Mutrikuko San Migel eta Trintxerpekoa dira, araudiak uzten duen metro kopuru minimoa dituztelarik: 90 metro. Aipatzekoa da zortzi zelai, luzera berdinekoak direla, 100 metro dituztelarik: Ordiziako Altamira, Aretxabaletako Ibarra, Mondragonen Atxabalpe, Touringen Fanderia, Idiazabalgo Arizkorreta, Hondarribiko Ondartza, Pasaiako Don Bosco eta izen bereko auzoko Martutene.

Taula 50: Gorengo Mailako zelaien neurri handienak txikienak eta Ordiziakoarenak

Luzeena	106 (Anaitasuna)	**Zabalena**	70 (Zarautz)
Motzena	90 (Trintxerpe eta Mutriku)	**Estuena**	48 (Zestoa)
Ordiziakoak	100	**Ordiziakoak**	60

Zabalerari dagokionez, Zarauzkoa da 70 metrorekin zabalena eta ondoren Azkoitiko Anaitasunarena eta Ondarroako Aurrerarena 66 metro zabalera izanez. Beste muturra aztertuz, zelairik estuena Zestoakoa dugu 48 metrorekin; araudiak baimentzen duen minimoa baino 3 metro zabalagoa izanik. Hurrengo estuenak Pasaiako Don Bosco eta Trintxerpekoa dira; lehenak 50 metro eta bigarrenak 53 metro dituztelarik. Bost zelaiek, 60 metroko zabalera dute: Touring taldearen Fanderiak, Idiazabalgo Arizkorretak, Martutenek eta Urolak jokatzen duen Argixaok.

Taula 51: 2006-2007 denboraldiko Gipuzkoako Gorengo Mailako zelaien tamaina

Taldea	Zelaia	Neurriak (metroak)		Azalera (m^2)
		Luzera	Zabalera	
Zarautz K.E.	Asti	105	70	7.350
Anaitasuna F.T.	Txerloia	106	66	6.996
Aurrera de O. C.D.	Zaldupe	102	66	6.732
Berio F.T.	Berio	105	62	6.510
Aretxabaleta K.E.	Ibarra	100	64	6.400
Mondragon C.F.	Atxabalpe	100	64	6.400
Urola K.E.	Argixao	101	60	6.060
Idiazabal K.E.	Arizkorreta	100	60	6.000
Martutene K.E.	Martutene	100	60	6.000
Ordizia K.E.	Altamira	100	60	6.000
Touring C.D.	Fanderia	100	60	6.000
Hondarribia F.E.	Ondartza	100	58	5.800
Hernani C.D.	Zubipe	104	55	5.720
Aloña Mendi K.E.	Azkoagain	98	57	5.586
Mutriku F.T.	San Miguel	90	57	5.130
Pasajes C.D.	Don Bosco	100	50	5.000
Trintxerpe C.D.	Trintxerpe	90	53	4.770
Zestoa K.B.	Zubiaurre	94	48	4.512

Iturria: (Gipuzkoako Futbol Federazioa, 2006)

Zabaleran berdinak diren bost zelaietatik lauk, luzera ere berdina dute: Ordizia, Touring, Idiazabal eta Martuteneren zelaiak. Lau zelai hauek 100 metro luzeran eta 60 metro zabaleran neurtzen dute. Beste zelai bat ere oso antzekoa da, Urolak jokatzen duen Argixao, zabalera berdinekoa eta luzeran metro bat gehiago izanez: 101 metro luzeran eta 60 metro zabaleran.

Taula 52: Gorengo Mailako zelaien ezaugarriak

	Luzera (m)	Zabalera (m)	Azalera (m^2)
Batezbestekoa	99,72	59,44	5.927,36
Handiena (Zarautz)	105	70	7.350
Txikiena (Zestoa)	94	48	4.512
Ordiziako zelaia	100	60	6.000

Gorengo Mailako txapelketa honetako zelaien tamainaren batezbestekoa egitean ikusten dugu ia gehienak 100 metro luzerakoak eta 60 metro zabalerakoak direla. Zelai horien batezbestekoa, araudi orokorrak uzten duen tartearen batezbestekoa baino txikiagoa da. Araudiak baimentzen dituen neurriekin egindako batezbesteko zelaiaren neurria 105 metro luzeran eta 67,5 metro zabalerakoa da.

Zelai bakoitzaren azalerari dagokionez, handiena Zarauzko Asti da, 7.350 m^2rekin; jarraian Azkoitiako Anaitasunak jokatzen duen Txerloia, 6.996 m^2 dituelarik; eta hurrengo handiena Aurrera O. jokatzen duen Zaldupe, 6.732 m^2rekin. Azaleraz txikiena Zestoako Zubiaurre zelaia izan da 4.512 m^2rekin, eta hurrengo txikiena Trintxerpekoa 4.770 m^2rekin. Azalera ere, tamaina bezala eta honen emaitza denez, araudiaren batezbestekoa baino txikiago da: 7.087 m^2koa.

Zelaiaren azalera eta azpi espazio finkoena kontutan hartzean behatu daiteke zelai bakoitzean azpi eremu horiek betetzen duten zelai proportzioa desberdina dela. Gorengo mailako zelai handiena den Zarauzkoak 7.350 m^2 ditu eta azpi eremu finkoek 1.873 m^2 osatzen dituztenez, 5.476 m^2 geratzen dira azpi

eremuetatik kanpo. Beste aldean Zestoako zelaia da txikiena 4.512 m^2rekin; azpi eremuen azalera finkoa denez, hauez kanpo 2.638 m^2 geratzen dira. Zarauzko zelaian azpi eremuetatik kanpo geratzen den espazioa Zestoakoren aldean bikoitza da.

Ordiziako Altamira zelaiak 6.000 m^2 ditu eta azpi eremuek betetzen duten metrotatik kanpo 4.126 m^2 geratzen dira. Altamira zelaiak gorengo mailako zelaien batezbestekoaren neurri berdinak dituenez espazio malguen eta finkoen arteko desberdintasuna berdina da.

Bi espazio mota hauen arteko diferentziaren logikak ondorio esanguratsu batera bideratzen gaitu: tamaina txikiko zelaietan, Zestoakoan kasu, jokoa azpi eremu finkoetan gehiagotan murgilduko da tamaina handiko zelaietan baino. Proportzionalki Zestoako zelaiaren azaleraren %41 azpi eremu finkoak dira eta aldiz, Zarauzko zelaian azpi eremu finkoak zelaiaren azaleraren %25 dira. Ordiziako zelaian eremu horiek %31 betetzen dute.

Taula 53: Gorengo Mailako azpi eremuen eta zalaien azaleraren arteko erlazioa

Azpi eremuen azalera (m^2)	**Zelaien azalera (m^2)**		**Azpi eremuetatik kanpo geratzen den azalera (m^2)**	**Azpi eremu finkoek zelaiko azaleran betetzen duten portzentaia (%)**
1.873,94	Batezbestekoa	5.927,36	4.053,42	%31,62
	Handiena: Zarautz	7.350	5.476,06	%25
	Txikiena: Zestoa	4.512	2.638,06	%41
	Ordiziakoa	6.000	4.126,06	%31

b. Zelai inguruko eremuak

Txapelketako partidak jokatzeko, zelaiak, inguruan instalakuntza batzuk izatea beharrezkoa du. Joko zelaitik kanpo kokatuta dauden instalakuntzak dira, baina joko zelaia bezala txapelketa antolatzen duen GFFak arautuak ditu.

Partidak jokatu behar diren zelai guztiek barne hesia izan behar dute. Hesi hori zelaiaren buelta guztian egon behar da eta jendea zelai errektangelutik isolatu behar du. Hesi honen altuera 1,20 metro baino gehiagokoa izan behar da eta alboko marratik 2,5 metrora kokatuta egon behar da.

Ordiziako Altamira zelaiak araudiak agintzen duen bezala badu barne hersgunea. Zelai guztia inguratuz hesi bat dago. Bere altuera araudiak dion 1,20 metrotakoa da, baina zelaiaren alboko marratik hersgunera ez da betetzen araudiak agintzen duen distantzia. Araudiak gutxienez 2,5 metro egon behar direla esaten du eta Ordizian 1,5 metro besterik ez dago. Entrenatzaile eta ordezko jokalariak esertzen diren aulkian parean hesi hau eten egiten da eta funtzio hori aulkiek betetzen dute.

Araudiak agintzen duen barne hersgunea Gorengo Mailako zelai guztietan aurkitzen da. Barne hersgune hau zelai batzuetan hormigoiez eginikoa da eta beste batzuetan metalikoa. Hesi hau kokatuta dagoen altuera zelai guztietan oso antzekoa da, baina ez horrela zelaiko alboko marratik hersgunera dagoen distantzia. Adibidez, Ondarroako zelaian distantzia hau Ordiziakoan baino txikiagoa da, zenbait tokitan 0,5 metro eskasera egonez. Aurrez aipatu dugunez araudiak gutxienez 2,5 metro egon behar direla esaten du baino hau, Ordiziakoan bezala, ez da Gorengo Mailako zelai guztietan betetzen.

Zelaietan izan beharreko instalakuntzen artean aldagelak ere badaude. Txapelketan parte hartzen duten kluben zelai bakoitzean talde bakoitzarentzako eta epaileentzako aldagela independenteak eduki behar dira. Guztira hiru aldagela, bi aurka egiten duten taldeentzako eta hirugarrena arbitro eta marrazainentzako. Aldagela horiek ur hotza eta beroa dituzten dutxa eta konketak izan behar dituzte.

Dutxa eta komunei dagokienez, Ordiziako egora nahiko berezia da. Altamira auzoan, izen bereko bi zelai daude eta zelai nagusia, gorengo mailako taldeak jokatzen zuena, konponketa lanetan dago. Eraberritzen ari diren zelai horretan aldagela eta barne instalakuntza berriak egiten ari dira eta aldagela horiek bi zelaietan jokatzen diren partidetarako erabiliko dira. Bitartean, gorengo mailako taldeak aldameneko zelaian jokatzen ditu partidak eta zelai honek

aldagelarik ez duenez, inguruan dagoen herri kiroldegiko aldagelak erabiltzen dituzte.

Ordiziako herri kiroldegiko aldagela bat Ordiziarrentzako izaten da eta beste bat kanpotarrentzako. Aldagela hauek ur hotz eta beroko dutxak badituzte baina ez dute komunik. Komunak, bi aldagela artean gelditzen den gela batean daude. Epaile taldeak ere bere aldagela propioa izaten du; taldeek erabiltzen dituzten baino txikiagoa eta bereiziago geratzen dena.

Aldagelek zorua zeramikazkoa dute eta zoru horren erdian ura biltzeko arketa bat ere bai: garbiketan erabilitako ura husteko. Pareta batetan dutxak aurkitzen dira: aldagelaren arabera lau edo bost; eta dutxa hauek estaliz plastikozko panel bat. Beste hiru paretetan, zorutik 0,5 metrora, esertzeko aulki luzea dago eta honen gainean, aulkitik metro batetara arropa eskegitzeko kako batzuk. Zorua lur-teila kolorekoa da eta aulki panel, pareta eta sabaia zuriak dira.

Ordiziak kanpoan jokatu duen zelaietan, aldagelak zelaiaren instalakuntzen barnean izan dira eta ez Ordizian bezala aldameneko eraikin batetan. Kanpoko zelai guzti hauek horma edo hesi batez inguraturik daude eta itxitura edo horma horren barrenean kokatzen dira aldagelak. Zelai batzutan, Anaitasunaren Txerloian, edo Trintxerperen Don Boscon, zelaiaren harmaila azpian daude. Beste batzutan, Aloña Mendiren Azkoagain edo Aurreraren Zaldupen, zelaia mugatzen duen harresiaren barrenean dagoen eraikin txiki batean daude.

Kanpoko zelaietako aldagela hauetan ere araudiak agintzen dituen hiru aldagela aurkitzen dira: bat etxeko taldearentzako, bestea kanpoko taldearentzako eta hirugarrena arbitro eta marrazainentzako. Talde bakoitzarentzako eta epaile taldearentzako zein aldagela izango den aurrez zehaztuta dago: aldagela bakoitzaren sarrerako atean, “etxekoak”, “kanpokoak” eta “epaileak” idatzita aurkitu dugu. Talde bakoitzak eraikinera sartutakoan badaki zein gela izango den berea. Aldagela bakoitzaren kokapena ere adierazgarria da: aurka egiten duten bi taldeen aldagelen artean epaile taldearen aldagela kokatzen da. Ezaugarri hau horrela ematen da adibidez: Aurreraren Zaldupen, Aloña Mendiren Azkoagainen edo Idiazabalgo Arizkorretan.

Etxekoak	Epaileak	Kanpokoak

Irudia 37: zelaietako aldagelak eta kokapena

Kanpoko zelaietan aldagela guztiek zorua zeramika eta hormigoizkoa dute eta jokalariak esertzeko eta aldatzeko banku luzeak aurkitzen dira eta ez banakako aulkiak. Arropa eskegitzeko kakoak ere guztietan aurkitzen dira.

Gorengo mailako txapelketan parte hartzen duten kanpoko hamazazpi zelaietan ur bero eta hotza botatzen duten dutxak ere badaude eta komunak ere bai. Dutxen kopurua zelai batetik bestera aldatu egiten da, baino gehienek sei baino gutxiago dituzte.

Taula 54: zelai inguruko eremuak eta ezaugarriak

Instalakuntzak	**Ezaugarriak**		
	Araudiak	**Ordizian**	**Beste zelaietan**
Barne hesia	Zelaiaren buelta guztian. Altuera 1,20m. eta alboko marratik 2,50 metrora.	Zelaiaren buelta guztian. Altuera 1,20m. eta alboko marratik 1,50 metrora.	Zelaiaren buelta guztian, batzuetan metaliko eta besteetan hormigoizkoa.
Aldagelak	3: bi talde eta epaileentzat.	Zelai eremuan ez, kiroldegian.	Zelai eremuan.
Pasagune babestua	Jokalari, entrenatzaile, laguntzaile, arbitro eta marrazainentzako esklusiboa, publikoarengandik babestua.	Ez dago babesturik.	Jarri eta kendu egiten diren hesien bidez eginikoa.

Jokalari, arbitro, marrazain, entrenatzaile eta laguntzaileak zelaira sartzeko pasabide babestu bat izan beharko da. Pasabide hori aipatu ditugun partaideak

erabiltzeko esklusiboa izan beharko da eta publikoa dagoen tokitik bereizturik egon beharko da. Ordiziako Altamira zelaitik kiroldegira 75 metro inguru daude eta partida bakoitzean jokalari guztiek eta epaile taldeak tarte hori egin behar dute zelai eta aldagela bidean. Kiroldegi barrenean ere bi korridore luze gurutzatzea ere beharrezkoa da aldageletara iristeko. Ibili beharreko guzti hori ez da isolatzen. Araudiak dion pasagune isolatua ez da mantentzen Ordizian. Zelaitik atera eta aldagelara sartu arte edozeinek joan dezake ibilbide horretatik.

Kanpoko zelaietan aldiz arbitroak, marrazainak, jokalariak, entrenatzaileak eta laguntzaileak aldagelatik zelaira eta alderantzizko ibilbidea egiteko jarri eta kendu egiten duten pasabide bat erabiltzen da. Ibilbide hau zelai askotan metro gutxi batzuk besterik ez dira; zelai barnetik aldagelara 5-6 metro eskas besterik ez daude. Pasabide hau batzutan hesi mugikorren bidez jartzen da, adibidez Ondarroan; beste batzuetan ate moduan finko egoten dira hesiak eginda, adibidez Oñatin; hesia ireki eta itxi egiten da, partehartzaileek ibilbide hau egin behar dutenean itxita mantenduz eta jokoak dirauen bitartean irekiz. Modu horretan edozein ikusle egon daiteke une batzutan debekatuta dagoen gunean.

V. Beste espazio motak

Aurrez aipatutako espazio mota guztiak futbol zelai guztietan ematen dira eta araudiaren barne sartzen dira. Baina badaude beste eremu batzuk horietatik kanpo gelditzen direnak: zelaiaren eremu geografikoa adibidez edo eta zelaiaren inguruko ezaugarriak, aulkiak, harmailak, argi zutabeak...

a. Aulkiak, harmailak eta hesiturak

Altamirako aldameneko zelaiaren luzerako albo batean aulkiak aurkitzen dira. Alboko marra eta barne hersgunearen artean bi aulki multzo daude, bakoitza zelaiko erdiko marraren alde batetara. Jesarleku hauek, atzealdetik, aldamenetik eta gainaldetik estalita daude. Estali gabeko alde bakarra zelaira ematen duena da. Aulki multzo hauek plastiko erakoak dira eta estaldura guztia argia pasatzen uzten duen horietakoa da. Aulki multzoa benetan alde batetik bestera doan banku bat besterik ez da; ez daude banakako eserlekuak.

Zelaiaren albo batean, kiroldegiaren aldean, harmaila txikia dago. Luzeran gutxi gora-behera zelairen hiru laurdenak luze izango da. Harmaila hau hormigoiz

eginiko altuera desberdinetako mailaz osatzen da. Denboraldiaren hasieran estali gabe zegoen baino azken partidarako egurrezko sabai batekin tapatu dute.

Zelaian, hersgunea eta harmailak inguratuz sare metaliko bat dago. Zazpi-zortzi metroko altuera du eta nagusiki bi funtzio betetzen ditu: zelaia ixtea eta zelaitik kanpora doazen baloiak gelditzea. Sare honek, kiroldegi aldera doan aldapara ateratzeko ate txiki bat dauka. Bertatik sartu eta ateratzen dira jokalari, epaile, entrenatzaile eta laguntzaileak. Beste atea herri gune aldera kokatua dago eta ikusleak honetatik sartzen dira.

Gipuzkoako Gorengo Mailako zelai guztietan topatu ditugu harmailak. Horiek, Ordizian bezala, hormigoiz eginiko altuera desberdinetako mailak dira. Gehienetan estaliak eta alboko marraren atzean kokatuak baina estali gabeak eta sakoneko marraren atzean ere badaude, Oñatin kasu.

Ordezko jokalariak, entrenatzaileak eta laguntzaileak partidan zehar esertzen diren aulkiak ere zelai denetan aurkitzen dira. Zelaietako alboko marratik oso gertu eta barne hersgunearen jarraipen modura aurkitzen dira. Aulki hauek zelai guztietan estaliak daude eta atzetik eta alboetatik babestuak. Batzuk banakako aulkiak dituzte: Txerloian; beste batzuk, alderik aldeko bankuak: Zaldupen.

11.3.2 Entrenamenduetako espazio motak

Ordizia Kirol Elkarteak egin dituen prestatze saioetan espazioak izan dituen ezaugarriak adierazten ditugu, partidekin alderatuz berezitasunak dituztela agerian utziz.

I. Espazioarekiko harremana

Ordiziak egin dituen entrenamenduetan espazio finkoen antolakuntza irizpidea partiden aldean desberdina gertatu da. Angel entrenatzaileak planteatu dituen prestatze saioetan, espazioak ezaugarri desberdinak izan ditu. Atea helburu duten praktikekin batera, gurutzatu beharreko espazioak, gizakia helburua dutenak eta gorputz antolamenduarekin zerikusi duten espazio kualitatiboak

dituzten ariketak egin dira. Ezaugarri horiek baldintzatzen dituzte entrenamenduetako azpi espazioak, partidekin konparatuz aukera handituz.

Entrenamendu berdinean gizakia helburu bihurtzen den espazioa, helburua materiala duen espazioarekin eta gurutzatu beharreko eremuarekin nahasten da. Ordiziako jokalariak entrenamenduetan egiten dituzten jardueratan espazio mota guzti hauek partekatzen dituzte. Partidetan helburu espazial bakarra eta aldaezina dagoen bitartean, entrenamenduetan helburu espazial desberdinak daude eta gainera aldakorrak dira; aste bereko bi entrenamenduetako espazio egiturak desberdinak izan daitezke.

a. Jokalaria helburu

Entrenamenduak “rondo” batekin hasten dira; jolas horretan jokalari kopuru bat borobil bat osatuz jartzen da eta horien erdian jokalari bat kokatzen da. Kanpokoak baloia beraien artean pasatzen saiatu behar dira eta erdikoa baloia mozten. Erdikoak ukitzen duenean rol aldaketa ematen da, kanpoan zegoena erdira pasaz eta erdikoa kanpoan jarriz. Rol aldaketa hori etengabe ematen da eta entrenatzaileak ematen dio amaiera. Rondo horretan helburu espaziala gizakia da, jokalariek beraien artean paseak egiteak ematen baititu rol berean jarraitzeko edo aldatzeko eskubideak.

b. Gainditu beharreko distantzia

“Rondoen” ondoren jokalariak zelaiari biraka hasten dira, beroketa deiturikoa egiten. Denak multzo handi bat osatuz korrika txikian zelaiaren perimetroan korrika txikian aritzen dira. Kasu horretan espazioa gurutzatu beharreko distantzia metrikoa bihurtzen da eta mota honetako beste adibide bat jokalariak herrian zehar korrika egiten duten ibilbidea da: Malkasko izeneko auzora joan eta buelta.

c. Helburu material bezala atea duen espazioa

Egun bereko entrenamenduan oso posible da futbol joko bat jokatzea: bost bosten aurka espazioa txikiagoa eginez, bederatzi bederatziren aurka… Kasu horietan jokoek partidetako espazio ezaugarri berdinak dituzte; espazioa lortu beharreko diana materiala bihurtzen da. Ateen tamaina aldatu daiteke, zelaian

finko dauden ateak erabili ordez konoekin eginez baina helburu espaziala berdina da.

d. Espazio kualitatiboa

Entrenamenduetan egiten dituzten beste ariketa batzuetan espazioak hartzen duen ezaugarria gorputz antolaketa eskatzen duen espazio kualitatiboa da. Ez dago dianarik eta jokalariak ariketa desberdinak “marrazten” dituzte espazioan: abdominalak, flexioak, lunbarrak…

II. Entrenamendu guneak

Gorengo mailako txapelketa jokatzen duen Ordizia Kirol Elkarteko taldeak entrenamenduetan nagusiki Altamirako aldameneko zelaia erabili du. Zelai hau partida guztiak jokatu dituen gune bera da. Baina eraberritzen ari diren Altamirako zelaia ere erabili dute entrenamenduak egiteko. Zelaia berrituta eta instalakuntzak bukatzear egonik behin baino gehiagotan entrenatu du taldeak zelai berri honetan. Beste bi gune ere izan dira entrenamenduetan erabili izan dituztenak: ikastolako kirol anitzetako pista eta kiroldegiko aretoa. Horiez gain, entrenamenduko zati batzuk beste jarduera gune bat izan dute: adibidez, herriko kaleak. Entrenamenduak non egitearen agindua entrenatzailearena da, araudia berak zehazten du.

a. Altamirako aldameneko zelaia

Altamirako aldameneko zelaia belar artifizialezkoa da. Ordiziak etxeko partida guztiak zelai honetan jokatu ditu. Erabileraren ondorioz material honek hasieran izaten duen kautxu kantitatea gutxitua dauka. Material sintetiko honen kolorea berdea da. Aurrez aipatu dugunez bere tamaina 100 metro luzeran eta 60 metro zabalerako da; 6.000 m^2 ditu.

b. Eraikitzen ari diren Altamirako zelai berria

Txapelketako bigarren buelta aurrera zihoan heinean joko zelai berria bukatu egin dute eta nahiz eta harmailak eta aldagelak amaitu gabe egon entrenamendu batzuk joko zelai honetan egin dituzte. Zelai berri hau ere belar artifizialezkoa da; berde kolorekoa eta gutxi erabilita dagoenez kautxu kantitate handiak dauzka. Kautxua belar artifizialezko zelaiek eramaten duten osagai bat da.

Zelaia berria denean kautxu kantitate asko izaten du eta erabilpenarekin kautxu hori sakabanatu egiten da. Material horren ezaugarri horrengatik urrutira erliebean sakoneko iluntasun bat antzematen da. Zelai berri honen tamaina 100 metro luzeran eta 70 metro zabaleran da; azalerari dagokionez 7.000 m^2 ditu.

c. Ikastolako kirol anitzetako pista

Ikastolako kirol anitzetako pista hormigoiz eginikoa da eta estalita dagoen arren ez dago guztiz itxita; bi aldeetan paretak ditu, beste alde batera sare bat du eta laugarren aldea asfaltatutako zelai batetarantz irekita dago. Breazko zelai hori ez dago estalita. Instalakuntza guztia inguratuz hesi metaliko bat dago eta honen tarte batean sarrerako ate bat. Estalita dagoen zatian zorua leunagoa gelditzeko hormigoia zementuz orraztua dago. Instalakuntza hauen tamaina 30 metro luzeran eta 20 metro zabalerako da; guztira 600 m^2.

d. Kiroldegiko aretoa

Entrenamendu bat edo beste egin duten kiroldegiko aretoa estalita eta itxita dago. Kiroldegiaren barneko eremu bat da eta bere ustiapena hobetzeko gortina bidez hiru zatitan banatzen da. Ordiziako taldeak erabili duenean bi gortinak jaitsita egon dira guztira hiru eremu egonez. Zorua egurrezko parket modukoa da. Eremu bakoitzak saskibaloiko pista batek duen tamaina hartzen du.

e. Ordiziako kaleak

Ordiziako herriko kaleek ere izan dute protagonismoa ordiziarren entrenamenduetan. Behin baino gehiagotan entrenatzailearen aginduz kaleetan barrena korrika ibili dira jokalariak. Espazioaren izaera guztiz urbanoa izan da: espaloiak, errepidea, eskailerak… Altamirako aldameneko zelaitik Malkaskoko zubiraino joan eta etorri. Ibilbide horretan egiten den distantzia lau kilometrokoa da.

Taula 55: entrenamendu guneak eta ezaugarriak

Gunea	Izaera	Tamaina (m^2)
Altamira aldameneko zelaia	Belar artifiziala	6.000
Zelai berria	Belar artifiziala	7.000
Ikastolako instalakuntza	Hormigoi leundua	600
Kiroldegiko aretoa	Egurrezko parketa	700
Ordiziako kaleak	Asfaltoa	Ibilbidea. Joan etorriak lau kilometro. Aldapak.

III. Entrenamenduetako beste espazioak

Entrenamenduetan futbol zelaiak erabili direnean zelaian aurkitzen diren aulkietan ez da jokalaririk eseri entrenamenduak dirauen bitartean. Aulki hauek jokalariak ekarritako arropa edo oinetakoak uzteko erabili izan dira: txandala, jertsea, zapatilak…

Aldagelei dagokionez, futbolariak kiroldegiko beste erabiltzaileekin partekatu izan dituzte aldagelak. Ez dago beraientzako bakarrik den aldagelarik. Entrenamenduetan harmailetan ere ikuslerik ez da egon izan, hutsik egon izan ohi dira eta jokalarien ahotsak garbi eta ozen entzuten dira.

Entrenatzeko erabiltzen diren gune batzuk ez dute barne hersgunerik eta dutenetan entrenatzailearen laguntzaileek gainditu eta partidetan ez bezala zelai barnean ibiltzen dira.

11.3.3 Partidetako espazioa eta entrenamenduetako espazioa

Espazioaren azterketa partida eta entrenamenduetako eremuetan banatzean argi azaltzen dira bi dinamika hauen arteko desberdintasunak. Diferentzia hau errealitate bakoitza antolatu eta gidatzen duen espazio izaerak ematen digu.

Partidetan, espazioa helburu materialean oinarritzen da; atea da diana eta helburu eta jokoaren antolakuntzaren irizpide bihurtzen da. Honen ondorioz

zelaiek bi zati simetriko dituzte eta hiru eremu mota agertzen dira: malguak, kokapen finkorik gabekoak eta finkoak.

Txapelketak dirauen bitartean partidak etxean eta kanpoan jokatzen dira. Etxeko eremuak taldeak ezagutzen dituen bitartean, kanpoko eremuen ezagutza ez da etxekoena bezalakoa eta nahiz eta espazioan aurkitzen den informazioaren tratamendua, arrakastarako, arerio edo kideek sortzen duten informazio iturria baino garrantzi txikiagoa duena izan, zelaiaren neurri edo izaerak, jokatzeko orduan eragina izan dezake: belar naturala edo artifiziala, Zarauzko zelaia (handiena) edo Zestoakoa (txikiena). Horrek jokoan eragiten du eta zelai horretako jabe denari abantaila ematen dio.

Kanpoko eta etxeko banaketa honek espazio malguetan du eragina, aldatzen diren espazioetan. Azpi eremu finkoak aldatu gabe mantentzen dira jardunaldi batetik bestera. Penalti area, ateko area, atea edo izkinako koadranteak partida guztietan neurri berdinekoak dira eta zelaian berdin kokatuak egoten dira. Kokapen finkorik gabeko espazioak joko harremanen arabera antolatzen dira eta zelaien izaera eta tamainak aldatu ezkero eremu hauek ere aldatu egiten dira, zuzenean jokalarien arteko elkarrekintzan eragina baitute.

Entrenamenduetan aldiz espazio mota bat baino gehiago dituzten ariketa eta jokoak agertzen dira. Helburu espaziala atea duten jarduerekin batera, beste espazio mota batzuk dituztenak ere burutzen dira: gainditu beharreko distantzia duen espazio mota, figura batzuk egitean oinarritzen den espazio kualitatiboa eta gizakia helburu duten espazio motak. Dibertsitate honek entrenamenduen espazio antolakuntza guztia bideratzen du. Partidetan ematen den espazio malgu, finko eta kokapen zehatzik gabeko banaketa ez zaigu baliagarria gertatuko entrenamenduetarako edo bakarrik helburua objektua duten espazio jokoetarako: futbolaren egitura berdina duten jardueretarako.

Entrenamenduak etxeko zelaietan eta espazioetan egiten dira, taldearen edo herriaren jabetza duten lurretan. Eremu hauek taldekide guztiek ezagutzen dituzte eta beraienak jotzen dituzte. Ez dago txandan moldatu beharrik, ez da desplazatu behar beste herri batetara entrenamenduak burutzeko; taldeak egoitza duen herrian daude entrenamendu eremu guztiak.

Espazioaren azterketak futbolean ematen diren bi errealitateen baieztapena azaldu digu: partidak eta entrenamenduak. Biak osatzen dute gorengo mailako taldearen egitura, baina bakoitzak bere eremu ezaugarriak ditu. Partidak objektu bat diana duten espazio motan oinarritzen dira eta kanpoko eta etxeko zelaietan txandakatuz jokatzen dira. Entrenamenduetan aldiz, espazio mota desberdina duten jarduerak burutzen dira, entrenamendu berean ere aurrez aipatu ditugun lau mota horiek emanez; eta hauek talde bakoitzaren etxeko zelaietan egiten dira. Eremu desberdintasun hauek dinamika bakoitzari berezko izaera ematen diote eta gehitu egin beharko diegu errealitate soziala osatzen duten denbora, harreman eta objektuetan ematen diren ezaugarriei; horrek definituko baitigu futboleko errealitate soziala.

11.4 Futboleko denbora

Futbolean denboraren zentzua hainbat ataletan agertzen da: partidaren iraupena, egutegia, entrenamenduen maiztasuna, ordutegiak, sailkapenak, emaitzak… guztiak denboraren barnean sartzen dira. Horiek azalduko ditugu orain. Espazioaren azterketan egin dugun bezala, entrenamendu eta partidetako denboraren zentzuak aztertuko ditugu, futbol talde baten bi errealitate tenporal direla baieztatzeko. Futbolaren esanahia argitzeko nahian zentzu honen azterketa ere xehatu egin dugu ondoren beraien arteko lotura eginez osatzeko.

11.4.1 Partiden egunak

Partidak asteko egun zehatz batzuetan burutu dira, errealitate bakoitzak egunari dagozkion berezko ezaugarriak izanez. Partidak jokatzen diren eguna federazioak arautzen du eta aste bukaeratako aipamenik egin gabe adierazten du jardunaldi ofiziala igandetan ezarrita daukaten klub antolatzaileek larunbatera aurreratu dezaketela beraien partida arerioen baimenik gabe. Larunbata eta igandea aipatzen dira partida jokatu behar diren egunak bezala.

Ordiziak aste bukaerako bi egunetan jokatu ditu partidak. Gehienak larunbatetan izan arren igandetan ere jardunaldiak ospatu dituzte. Behaketa egin dugun txapelketako bigarren itzulian hamasei partida jokatu dituzte larunbatean eta bakarra igandean.

Taula 56: partida egunak bigarren itzulian

	Larunbata	Igandea
Etxean	9	0
Kanpoan	7	1
Guztira	16	1

Partiden eguna espazioan aipatutako etxeko eta kanpoko partidekin lotzean ikusten dugu etxeko partida guztiak larunbatean izan direla eta bigarren itzulian igandean jokatu duten partida bakarra, Oñatin, kanpoan jokatutakoa dela. Hamasei partida larunbatetan eta bat igandean. Ordiziak etxean jokatu dituen partida guztiak larunbatean izan dira eta hori horrela izan da taldea osatzen duten guztiek nahiago izan dutelako beraiek etxean antolatzen dituzten partidak larunbatean ospatzea. Jokalarien iritziak arrazoitzen dute erabaki hau: larunbatean jokatzean, gau honetan lagunekin ibiltzeko aukera askeagoa ematen die eta igandean ere lagunekin edo familiarekin egin daitezkeen planak gozatzeko denbora librea dute.

11.4.2 Entrenamenduen egunak

Entrenamenduak berriz asteko hiru egunetan burutu dituzte Ordiziakoak: astearte, asteazken eta ostiraletan. Entrenamenduak beti astegunez ospatu dira nahiz eta denboraldiko data konkretu batzuetan egunez aldatu. Denboraldiko hiru unetan beste egun batzuetan antolatu dira: aurre denboraldian, Eguberrietan eta Aste Santuan. Txapelketa eta partidak etenaldi bat izatean entrenamenduen egunen aldaketan eragina izan du. Partida larunbatean edo igandean jokatuta entrenamendu egunak berdin jarraitu dute astearte, asteazken eta ostiraletan izaten.

11.4.3 Partiden ordutegia

Partida eguna zehazteaz gainera araudiak ospatu behar den ordua ere mugatzen du. Talde bat txapelketa batean inskribatzen denean jakinarazi egin behar du zein ordutan jokatuko dituen partidak. Baldintza hori betetzen ez baldin badu ez zaio emango txapelketa horretan parte hartzeko baimenik. Federazioak dituen eginkizunen koordinazioa hobetzeko klub edo kirol elkarteei eskatzen zaie partida jokatu baino zazpi egun lehenago ordua jakinaraztea; ahal baldin bada astelehen bakoitzeko hamabiak baino lehen.

Bestalde, partiden hasiera ordua, hauek nahiko argi naturalarekin jokatu daitezen finkatzen da eta debekatuta dago eguzkia ezkutatu aurreko bi ordu baino

beranduago partida hastea, beti ere EFF edo dagokion lurralde federakuntzak homologatutako argigintza sistemarik ez baldin badute behintzat. Gorengo Mailako txapelketa hau antolatzen duen GFFak larunbatetan jokatzen diren partiden ordu mugak zehazten ditu, etxean jokatzen duten klubek aukera izanez arerioen baimenik gabe larunbata arratsaldeko 15:30etatik aurrera partida ordua finkatzea.

Nahiz eta klub bakoitzak askatasuna izan bere etxean jokatzen dituen partidak ordu horretatik aurrera jokatzeko, federakuntzak urte sasoiaren arabera ordutegi ofiziala finkatzen du. Ordutegi ofizial horrek harremana du aurrez aipatu dugun argi naturalaren bilakaerarekin: urriaren 27 arte partida ordu ofiziala 16:30etan izango da; urriaren 28tik azaroaren 4ra 15:45etan; azaroaren 10etik abenduaren 30era 15:30etan; urtarrilaren 5etik 20ra 15:45etan: urtarrilaren 26tik otsailaren 3ra 16:00etan; otsailaren 9tik martxoaren 22ra 16:30etan eta martxoaren 30etik aurrera 17:30etan.

Taula 57: partidak jokatzeko GFFak zehaztutako ordutegi ofiziala

Datak	Ordua
Urriaren 27 arte (ordu aldaketa)	16:30
Urriaren 28tik azaroaren 4ra	15:45
Azaroaren 10tik abenduaren 30ra	15:30
Urtarrilaren 5tik 20ra	15:45
Urtarrilaren 26tik otsailaren 3ra	16:00
Otsailaren 9tik martxoaren 22ra (ordu aldaketa)	16:30
Martxoaren 30etik aurrera	17:30

Iturria: (Gipuzkoako Futbol Federazioa, 2006)

Partidak hasteko ordutegiaz gain lehiakide taldeak eta beraien ordezkariak, aldageletan partida hasi baino zenbat denbora lehenago egon behar duten ere arautua dago. Aurre egitera doazen taldeak partida hasteko ordua baino 45 minutu lehenago aldageletan egon behar dira.

Ordizia Kirol Elkarteko gorengo mailako taldeak jokatu dituen partiden ordutegia aztertzen dugu hemen. Kontuan izan behar da gure behaketa bigarren itzulian izan dela. Ordiziak jokatu dituen partida guztiak 15:30 eta 17:00ak artean hasi dira. 17:00etan partida bakarra hasi dira jokatzen eta 15:30etan beste bat. Gehien errepikatu duten ordua 16:00ak izan dira. Etxean eta kanpoan jokatu dituzten partiden ordutegietan ez da diferentzia nabarmenik antzematen. Aipatzekoa da igandean jokatu duten partida ere arratsaldeko 16:30etan jokatu dutela.

Taula 58: behatutako partiden ordutegia, gunea eta eguna

	Ordutegia	**Gunea**	**Eguna**
Ordizia - Hondarribia	17:00	Etxean	Larunbata
Ordizia - Aretxabaleta	16:00	Etxean	Larunbata
Aurrera - Ordizia	16:45	Kanpoan	Larunbata
Ordizia - Zestoa	16:00	Etxean	Larunbata
Ordizia - Zarautz	16:30	Etxean	Larunbata
Trintxerpe - Ordizia	16:15	Kanpoan	Larunbata
Ordizia - Mondragon	16:00	Etxean	Larunbata
Idiazabal - Ordizia	16:00	Kanpoan	Larunbata
Ordizia - Berio	16:00	Etxean	Larunbata
Anaitasuna - Ordizia	16:30	Kanpoan	Larunbata
Ordizia - Touring	15:30	Etxean	Larunbata
Aloña Mendi - Ordizia	16:30	Kanpoan	Igandea

11.4.4 Entrenamenduen ordutegia

Entrenamenduei dagokionez Ordiziako taldean entrenamenduak hasteko ordua denboraldian zehar berdina izan da: arratsaldeko zazpiak. Jokalariak ordu horretarako zelaian entrenamendua hasteko prest egoteko agindua izan dute. Hau horrela izanda ere ez da beti bete. Jokalariak, entrenamendu askotan agertu dira zelaira zazpiak baino beranduago. Hiru edo lauko taldetxo txikiak osatuz edo, beraien egin beharrak medio, berandututa bakarrik sarritan zazpiak baino beranduago agertu dira futbol zelaira. Denboraldiaren azken txanpan entrenatzailea kexatu da neurri hau betetzen ez zutelako eta txantxetan behin baino gehiagotan komentatu du, isunak ezartzen hasi behar direla. Jokalari bat berandu etorri ezkero bere kideak ere adar jotzen hasten dira “honi isuna“ esanez. Beranduago etortzea justifikatuta egon denean entrenatzaileak ez die ezertxo ere esan. Sarritan lan kontuengatik jokalari bat baino gehiago entrenamendua hasita dagoela hurbildu da.

Arratsaldeko ordu horretan entrenamenduak izateko arrazoia jokalari eta entrenatzailearen lana eta ikasketak dira. Kategoria hau amateur mailakoa da eta ondorioz jokalari guztiak lanean edo ikasketetan dabiltza eta arratsalde arte ez dute entrenatzeko aukerarik. Arratsaldeko ordu horretan jokalari gehienak entrenamendura joateko moduan egoten dira.

Jokalariek zehatz-mehatz entrenamendu hasiera ordua baldin badakite ere, amaiera ordua ez dute zehatz-mehatz jakiten. Beti 20:30 eta 21:00ak artean izan da, baino ez dago irteteko edo amaitzeko ordurik. Bukaerako orduaren erabakia entrenatzaileak hartu izan du eta jokalariek ez dute jakin izan; batzuetan 20:30etan izan da, bestetan berriz 20:45etan edo 21:00etan.

Gipuzkoako gorengo txapelketa hau nagusiki urteko bi sasoi nagusitan jokatzen da: udazkena eta negua. Hilabete hauetan eguzkiaren argitasun orduak urte guztiko txikienak izaten dira, eta entrenamenduak gaueko 20:30etan edo 21:00etan bukatzeak ilunpetan aritzea dakar. Denboraldiko hilabeterik gehienetan berriz Ordiziak eguneko argitasunik gabe entrenatu du, eta eguzkiaren argitasuna zelaian zeuden lau zutabeetako argiek ordezkatu dute. Modu horretara baloiaren nondik norakoak antzematea zaildu egiten da. Jokalariak baloia airetik doanean

bere abiadura eta altuera kontrolatzeko tentu handiagoz ibili behar dira, informazio gehiago bildu behar dute: nondik irten den, egin duen distantzia, nola datorren…

Taula 59: entrenamendu egunak eta ordutegia

Entrenamendu egunak	Asteartea, asteazkena eta ostirala
Hasierako ordua	19:00
Amaiera ordua	20:30 edo 21:00

11.4.5 Partiden iraupena

Partida guztiek 45 minutuko bi denbora iraun behar dute; guztira 90 minutu. Bi denbora artean jokalariek atsedena hartzeko gehienez ere 15 minutuko etenaldi bat egin dezakete. Atseden honen iraupena txapelketako arauetan argi adierazita egon behar da eta bakar bakarrik arbitroaren baimenarekin aldatu daiteke.

Nahiz eta partiden iraupena aurrez aipatu dugun laurogeita hamar minutuko hori izan, partida luzatu egin beharko da hainbat arrazoiengatik galdutako denbora berreskuratzeko: aldaketak, jokalarien lesioen ebaluaketa, jokalariek min hartu ondoren zelaitik ateratzen galdutako denbora edo beste edozein arrazoi. Denbora honen berreskurapena arbitroaren esku dago; epaileak erabakiko du eman diren arrazoiak medio zenbat denbora luzatzen duen partida.

Ordiziak jokatu duen Gorengo Mailako txapelketako partidek 90 minutuko muga izan dute. Denbora honen kontrola arbitroek eraman dute, bai zati bakoitzaren 45 minutuak betetzeko, baita atseden garaiko 15 minutuak kontrolatzeko eta zati bakoitzaren luzapena erabakitzeko ere bai. Zati bakoitzaren hasiera eta bukaeraren seinalea arbitroak txilibitua joz adierazi du. Txilibitu soinu hau joko arauak haustean jotzen duen baino luzeagoa izaten da. Jokalariak berehala konturatzen dira txilibitu hots hori amaieraren adierazlea dela.

Denbora osoa kontuan hartuz jokatu dituzten partida guztiek 90 minutu horiek baino iraupen luzeagoa izan dute. Luzatze hori gehitutako denboraren

ondorio da. Luzatutako denbora hau partida batetik bestera aldatu egin da. Adibidez, Berioren aurka etxean jokatu dutenean arbitroak 5 minutu gehitu ditu bigarren zatiaren amaieran, eta Ondarroan Aurrera O. aurka jokatutakoan 3 minutu. Bigarren zatiaren amaieran, partida bukatzearekin batera, 2 minutu baino gehiagoko luzapena partida guztietan izan dute. Horri lehen zatiaren amaieran luzatutakoa gehitu behar zaio. Lehen zatian gehitzen den denbora ez da bigarren zatian gehitzen denekoa bezainbeste izaten. Arrazoi nagusia aldaketak dira, aulkian eserita dauden jokalarien zelairatzea ohikoagoa izaten baita bigarren zatian egitea. Beste arrazoi bat partidaren bilakaera izaten da. Partida amaierarantz hurbiltzen doan heinean jokalarien intentsitatea handitu egiten da, sarrerak gogortuz eta, beraz, min hartzeak gehituz. Orokortuz esan dezakegu Ordiziak jokatu dituen partidak 95 minutuko iraupenera hurbildu direla.

Taula 60: partidek dituzten iraupen eta denbora gehitzeak

Denbora iraupena	Araudiak dioena	Partidetan gertatu dena
Partidaren iraupena	90 minutu: 45 minutuko bi zati	95 minutu inguru
Bi zatien arteko atsedenaren iraupena	15 minutu gehienez	15 minutu
Denbora gehitzeko arrazoiak	Aldaketak, jokalarien lesioen ebaluaketa, jokalariek min hartu ondoren zelaitik ateratzen galdutako denbora edo beste edozein arrazoi	Gehienetan aldaketak eta jokalarien min hartzeak

Partidaren iraupena Ordiziako entrenatzaile eta laguntzaileak kronometratu egiten dute. Arbitroaren ardura izan arren, entrenatzaileek jokoaren bilakaeran egin ditzaketen aldaketa edo estrategiak aurrera eramateko iraupenaren kontrola beharrezkoa jotzen dute.

Bi zatien arteko atsedenaren iraupena ordiziarrek ez dute neurtzen. Entrenatzailea ez da egon atsedenean ordulariari begira. Bi zatien arteko atsedenak izan dezakeen iraupenetaz ez dira arduratzen elkarren aurka jokatzen

duten taldeak. Jokatu dituzten partida guztietan gutxieneko 15 minutuko atsedena izan dute. Nahiz eta iraupen hori maximoa izan, partidetan minimoa eta justua bihurtu da. Iraupen hori baino gutxiagoko atsedenik ez dute izan.

11.4.6 Entrenamenduen iraupena

Partidetan araudian argi azaltzen den bezala, entrenamenduetan ez dago aurrez ezarritako denbora iraupenik. Entrenatzaileak erabakitzen du prestatze saioen iraupena. Ordiziak egin dituen entrenamendu guztiak ordu eta erdi eta bi ordu bitartean iraun dute. Egun batetik bestera denbora hau aldakorra izan da eta ohikoa izan da ostiraleko entrenamendua besteak baino motzagoa izatekoa.

I. Prestatze saioetako espazio mota desberdinak eta iraupena

Entrenatzeko egiten diren ariketa eta jokoei ematen zaien denboraren tratamendua entrenatzaileak erabakitzen du. Ordiziako entrenatzailea den Angelek entrenamendu hasiera guztietan jokalariak hurbiltzen diren heinean “rondo” bat antolatzen du. “Rondo” horren iraupena jokalari guztiak zelaira agertzen irauten duten denboraren menpe egon da. Jokalari guztiak hurbildu eta denak “rondoan” parte hartzen dutenean, 15 minutu inguru iraunez, luzaketa eta beroketarekin hasten da. Luzaketak egiten bakoitza bere kasa 5 minutu inguru egoten da eta ondoren etortzen da beroketa. Egokitze hau ia beti entrenatzaileek zuzenduta egon da eta gutxi gora-behera beste 15 minutu inguru iraun du.

Lehen bi ariketa hauek entrenamendu guztietan errepikatzen dira eta hauen ondoren egiten dituzten joko eta jarduerak iraupen aldakorra izaten dute. Adibidez, entrenamendu batean Angelek partida bat antolatu zuen 30 minutuko bi zati eginez, baina beste zenbaitetan 15 minutuko bi zati ere antolatu izan ditu.

Taula 61: entrenamenduko espazio mota, jarduerak eta iraupena

Espazio mota	Jarduerak	Iraupena (minututan)
Helburua gizakia	Rondoa	15
Kualitatiboa	Luzaketak	5
Gainditu beharreko distantzia	Beroketa	15
Kualitatiboa, gainditu beharreko distantzia	Ariketak	20 edo 30
Helburu materiala	Futbol jokoak	40 edo 60

Aipagarria da entrenamendu guztietan errepikatzen diren ariketetan 30 minutu baino gehiago erabiltzen dituztela. Hasierako “rondoak”, luzaketak eta beroketa entrenamendu orotan errepikatzen dira. Horrek ez du esanahi beti berdina denik. Entrenatzaileak batzutan beroketa egiteko ariketa desberdinak sartu ditu eta “rondoa” ere modu desberdinetara behin baino gehiagotan egin dute: erdian bi jarrita, eskutik helduta, toke bakarrera…

Bestalde, hiru atal hauen ondoren entrenamenduetan egin dituzten futbol jokoei dagokienez, txapelketako partidak baino iraupen txikiagoa izan dute. Futbol jokoak, orokorrean, 60 minutu inguru iraun dute eta txapelketako partida ofizialak 90 minutuz luzatzen dira. Entrenamendu batean lagunarteko partida bat ere jokatu dute Lazkaoko taldearen aurka eta hau ere txapelketakoa baino iraupen txikiagoa izan da, 70 minutu iraunez.

Ariketa deitzen diogunen artean sartu ditugu lurrean egindako abdominalak edo flexioak eta baita ere hesola batzuk ekidinez baloia eramanez egindako jarduerak. Hauen iraupena ere aldakorra izan da eta gainera ez dira entrenamendu guztietan egin: gehienez ere asteko egun batetan egin dituzte. Egin dituzten egunetako iraupena 20 eta 40 minuturen artekoa izan da.

11.4.7 Denboraldiko ordu kopurua

Futbolarien jardunak partidak eta entrenamenduak hartzen ditu bere gain eta bi errealitate horietan ematen den denbora azaldu nahi dugu. Denboraldia prestatze saioekin hasten da, txapelketako partidak hasi baina lehengo eta lehiketako azken partida jokatu ondoren amaitzen da. Denboraldi guzti horretan futbolean ematen dituzten orduak aurkeztea da gure asmoa.

I. Partidetako ordu kopurua

Aipatu ditugu partida bakoitzaren iraupena eta txapelketako partida kopurua. Ondorioz talde bakoitzak denboraldi osoan partidetan erabili dituen orduak atera ditzakegu. Horretarako ezin dugu eragina duen aldagai garrantzitsu bat ahaztu: desplazamendua. Partida guztiak etxean eta kanpoan jokatzen dira eta herrian bertan jokatzen diren partidetarako desplazamendua kontuan hartu gabe, arerioen zelaira joateko behar izaten duten denbora atal honetan kontuan izango dugu.

Partida guztiak 90 minutu inguru irauten dute eta txapelketan zehar talde bakoitzak 34 partida jokatu ditu. Era horretara talde bakoitzari 51 ordu ateratzen zaio. Baino hori partidak iraun duen denbora bakarrik da eta atsedena, partida aurreko denbora, ondorengoa eta desplazamenduak falta zaizkigu. Arauek diotenez atsedenek gehienez 15 minutu iraun behar dute; beraz 34 partidetan 8:30 ordu erabili dituzte.

Ordiziako taldea partida hasi baino 45 minutu lehenago zelaian egoten da eta partida amaitu ondoren jokalariek 30 minutu behar izaten dituzte dutxatu eta aldatzeko. Partida bakoitzean guztira 1:15 ordu, denboraldiko 34 partidetan 42:30 ordu. Azkenik desplazamenduetako denbora ateratzea falta zaigu. Ordizia 17 zelaietara hurbildu da eta desplazamendu bakoitzean behar izan duten batezbesteko denbora 45 minutukoa izan da. Beraz desplazamenduetan 12:45 ordu behar izan dituzte.

Taula 62: kanpora egiten diren desplazamenduak eta iraupena

Taldea	Bidaiaren iraupena (minututan)
Ondarroa	90
Mutriku	80
Hondarribia	60
Zestoa	55
Aretxabaleta	50
Pasaia	50
Zarautz	45
Arrasate	45
Pasaia	45
Errenteria	45
Azkoitia	40
Oñati	35
Hernani	30
Berio	30
Donostia	30
Zumarraga	20
Idiazabal	15
GUZTIRA	**765**
BATAZBESTEKOA	**45**

Partidetako dinamikan behar izan duten denbora guztia kontuan hartuz behatu dezakegu guztira 114:45 ordu erabili dituztela.

Taula 63: partidetan emandako denbora

	Partiden iraupena (ordutan)	Atsedena (ordutan)	Partida aurre eta ondorena (ordutan)	Desplazamenduak (ordutan)
Partida bakoitzean	1:30	0:15	1:15	0:45
Partida guztietan	51:00	8:30	42:30	12:45
Partidetan erabilitako denbora			114:45	

II. Entrenamenduetako ordu kopurua

Entrenamenduetan erabilitako denbora ateratzeko bi aldagai hartu dira kontuan: entrenamendu kopurua eta entrenamenduen batezbesteko iraupena. Ordiziak denboraldiak iraun duen bitartean astean 3 aldiz entrenatu du eta denboraldiak 44 aste iraun ditu. Era horretara 132 entrenamendu burutu dituzte.

Entrenamendu bakoitzaren iraupena berriz 1:30 eta 2:00 ordu bitartekoa izan da; gutxi gora behera astean 5:00 ordu. Beraz 44 astetan 220:00 orduz entrenatu dute. Beraz entrenamenduetan erabilitako denbora partidetan erabilitakoaren aldean ia bikoitza da; Ordiziak entrenatzen partidetan baino denbora askoz gehiago erabiltzen du.

Taula 64: entrenamenduko ordu kopurua

Asteko entrenamendu kopurua	3
Asteko ordu kopurua	5
Urteko aste kopurua	44
Entrenamendu orduak	220

Partida eta entrenamenduetan erabilitako denbora gehituz, denboraldi guztian Ordiziako taldeak futboleko dinamikan erabili izan duen denbora guztira ateratzen zaigu: 334:45 ordu.

Taula 65: denboraldiko ordu, entrenamendu eta partida kopurua

	Kopurua	Orduak
Partidak	34	105
Entrenamenduak	132	220
Guztira	**166**	**325**

11.4.8 Puntuazio sistema

I. Partida: jokoa, gainjarritako txapelketaren barnean

Futboleko azterketa orokorraren sarreran azaldu dugu txapelketa puntuazio sistema batean ospatzen dela. Sistema horretan lehiaketako irabazlea, azken sailkapenean puntu gehien ateratzen dituen taldea da. Txapelketan puntuak batzeko, partidak irabazi behar dira eta honek ematen digu bidea, partiden amaiera eta puntuazio sistema azaltzeko.

Partida jokoa dela definitzean txapelketa gainjarritako jokoa bezala ulertzen dugu. Txapelketa 34 partida jokatu ondoren amaitzen da eta garailea sailkapenean puntu gehien atera dituena izaten da. Txapelketa irabazteko puntuak gehitu behar dira eta puntuak lortzeko partidetan garaipena lortu behar da. Eta partidak irabazteko golak sartu behar dira, arerioek baino gutxienez bat gehiago. Horrez gainera, partida berdindurik amaitu daiteke bi aldeek gol kopuru bera edo golik sartzen ez badute.

Gola da partidetako elkarrekintza marka. Tantoak markagailura igotzeko gola sartu behar da; partidan gol gehien sartzen dituena irabazle ateratzen da. Partiden amaiera denborak mugatzen du: aurrez adierazi dugun bezala 90 minutuk. Partida irabazteak txapelketan hiru puntu balio ditu eta jardunaldi

bakoitzean ateratako puntuak gehitzen joaten dira. Txapelketa lehiaketa eran antolatzen da eta sailkapena erabiltzen da azken irabazlea erabakitzeko. Partida batean sartutako gol kopuruak ez du puntu banaketan desberdintasunik ekartzen. Gol bateko aldearekin irabazteak edo bi edo gol gehiagoren aldearekin garaile izateak puntu berdinak gehitzen dituzte txapelketan.

Partida guztien emaitzak bestalde gorde egiten dira eta jardunaldi bakoitzaren ondoren sailkapena argitaratzen da GFFko web gunean eta Gipuzkoan hedatzen diren egunkarietan. Emaitza hauek memorizatu egiten dira eta gorde. Partida galdu arren, sartutako eta jasotako golak kontatu egiten dira txapelketan puntu berdinketa ematen bada hurrenkera erabakitzeko. Jardunaldi baten ostean taldeek badakite zenbatgarren doazen eta datorren jardunaldian izango duten arerioa beraien atzetik edo aurretik doan. Ordiziak gorengo mailako txapelketa guztian, 15 partida irabazi ditu, 8 berdindu eta 11 galdu. Partida guzti horietan 43 gol sartu dituzte eta 36 jaso.

Taula 66: Ordiziak jokatu dituen partiden ezaugarriak

Irabazi	15
Galdu	11
Berdindu	8
Puntuak	53
Sartutako golak	43
Batezbeste sartutako golak	1,26
Jasotako golak	36
Batezbeste jasotako golak	1,06

Arerio batzuen aurka jokatutako bi partidak irabazi dituzte: (Urola eta Martutene), 11 gol sartuz eta 4 jasoz. Beste arerio batzuen aurka berriz bi partidak galdu egin dituzte: (Hernani eta Berio), hauetan 11 gol jasoz eta 4 sartuz.

Taula 67: Ordiziak txapelketan ateratako emaitzak

1. itzulia			2. itzulia		
Ordizia K.E.	2 - 0	Mutriku F.T.	Mutriku F.T.	0 - 0	Ordizia K.E.
Urola K.E.	1 - 2	Ordizia K.E.	Ordizia K.E.	3 - 1	Urola K.E.
Ordizia K.E.	2 - 1	Martutene K.E.	Martutene K.E.	1 - 4	Ordizia K.E.
Pasajes C.D.	1 - 1	Ordizia K.E.	Ordizia K.E.	2 - 1	Pasajes C.D.
Ordizia K.E.	1 - 2	Hernani C.D.	Hernani C.D.	2 - 1	Ordizia K.E.
Hondarribia F.E.	2 - 0	Ordizia K.E.	Ordizia K.E.	3 - 1	Hondarribia F.E.
Aretxabaleta K.E.	1 - 0	Ordizia K.E.	Ordizia K.E.	1 - 0	Aretxabaleta K.E.
Ordizia K.E.	1 - 1	Aurrera de O. C.D.	Aurrera de O. C.D.	2 - 1	Ordizia K.E.
Zestoa K.B.	0 - 1	Ordizia K.E.	Ordizia K.E.	0 - 2	Zestoa K.B.
Ordizia K.E.	0 - 0	Aloña Mendi K.E.	Aloña Mendi K.E.	3 - 3	Ordizia K.E.
Zarautz K.E.	2 - 0	Ordizia K.E.	Ordizia K.E.	1 - 0	Zarautz K.E.
Ordizia K.E.	2 - 0	Trintxerpe C.D.	Trintxerpe C.D.	0 - 0	Ordizia K.E.
Mondragon C.F.	1 - 0	Ordizia K.E.	Ordizia K.E.	3 - 2	Mondragon C.F.
Ordizia K.E.	4 - 0	Idiazabal K.E.	Idiazabal K.E.	1 - 0	Ordizia K.E.
Berio F.T.	4 - 1	Ordizia K.E.	Ordizia K.E.	1 - 3	Berio F.T.
Ordizia K.E.	1 - 0	Anaitasuna F.T.	Anaitasuna F.T.	0 - 0	Ordizia K.E.
Touring C.D.	0 - 0	Ordizia K.E.	Ordizia K.E.	2 - 1	Touring C.D.

Iturria: (Gipuzkoako Futbol Federazioa, 2006)

a. Garaipenak eta eremuak

Ordiziak jokatu dituen partiden emaitzak espazioarekin gurutzatzean behatu daiteke etxean edo kanpoan jokatzean garaipenetan aldea dakarrela. Etxean 12 garaipen lortu dituzte eta kanpoan aldiz 3. Galdu berriz etxean 3 egin dituzten bitartean, kanpoan 8. Gainontzeko partidak berdindu egin dituzte, 2 etxean eta 6 kanpoan. Sailkapenean, etxean eta kanpoan, guztira batutako puntuen aldea nabarmena da; etxean 38 puntu eta kanpoan 15.

Taula 68: Ordiziak jokatu dituen partiden emaitzak

	Etxean	Kanpoan
Irabaziak	12	3
Berdinduak	2	6
Galduak	3	8
Guztira	17	17
Puntuak	38	15

b. Partida hasiera eta amaiera

Futboleko partidek puntuazio sistema markako euskarrian oinarritzen dute. Markako euskarri hau denbora mugara izaten da eta aurrez aipatu dugunez denbora hau 90 minututakoa da. Partida bat amaitzen da denbora hori pasatzen denean. Amaiera eta hasiera emateko ordea, espazioarekin eta elkarrekintzarekin zerikusia duten beste arau batzuk ere eragina dute.

Bi zatien hasiera emateko taldeek zelaiarekin zerikusia duten arau batzuk bete beharrean daude. Espazioaren azterketan azaldu dugunez zelaia bi zati simetrikotan banatzen da eta jokoa martxan jarri aurretik talde bakoitza bere zelaian kokatu beharko da. Baina talde bakoitzari zein zelai dagokion erabakitzeko arbitroak txanpon bat botatzen du airera eta txanpon horren aldea asmatu duen taldeak erabakitzen du lehen zatian erasoko duen norabidea. Horren ondorioz beste taldeak partida hasierako sakea egiten du. Bigarren zatian, hasierako sakea lehen zatian erasoaren norabidea aukeratu duenari egokitzen zaio eta zelaia aldatu eta lehen zatian defendatu duen ate aldera erasotzen du.

Arbitroak jokoaren hasiera adierazteko orduan jokalari guztiak beraien zelaian aurkitu beharko dira. Baloia jokoan jarri behar ez duten taldeko jokalariak erdiko puntutik gutxienez 9,15 metro baino gehiagora egon behar dute; distantzia hori da erdiko zirkuluak mugatzen duena. Ez dago jokoa hasterik, jokalariren bat arerioen zelaian badago edo erdiko zirkuluaren barnean badago.

Ordiziak etxean jokatu dituen partidetan “Tete”, ordiziarren kapitainak, txanpon jaurtiketan aukera berari egokitu zaionean erasoko norabide berdina aukeratu nahi izan du: zelai nagusi aldera geratzen dena. Nahiz eta bi zelai eremuak berdinak izan, ohiturak eta preferentziak egoten dira aukeraketa honen atzean.

Partidaren amaiera aurrez ezarritako denbora eta arbitroak luzatutakoa amaitzean gertatzen da. Epaileak luzatu dezakeen denbora hau partidan zehar elkarrekintzan gertatutako gorabeheren menpe dago: jokalarien min hartzeak, aldaketak, faltak… Bukaera hau adierazteko arbitroak txilibitua jotzen du. Partida amaiera denbora mugan dago eta berdin izango da une horretako emaitza.

II. Prestatze saioak eta puntuazioa

Entrenamenduetan egoera bestelakoa da. Ordiziak egiten dituen entrenamenduetan ez dago puntuazio sistemarik; ez dago markako euskarririk; emaitzak ez dira memorizatzen eta gordetzen, eta araudietatik kanpo dauden beste faktore batzuen menpe dago entrenamenduen hasiera eta amaiera.

Ordiziako entrenatzaileak prestatze saioak hasteko ordua jartzen du: Ordizian entrenamenduak arratsaldeko 19:00etan hasi dira denboraldi guztian zehar. Hasteko ordutegi hau beti ez da zehatz-mehatz bete. Jokalari batzuk ordu laurden edo ordu erdi beranduago etorrita ere berdin aritu dira entrenatzen eta horregatik ez dute zigorrik izan. Gainera entrenamendu bat baino gehiagotan Angel Ordiziako entrenatzaileak jokalari kopuru minimo bat agertu arte itxoin egin du saioa hasteko.

Entrenamenduen amaierak ere ez du ordu finkorik izan. Entrenamenduak amaitu dira Angelek nahikoa egin dutela iritzi dionean, gehienetan 21:00ak baino lehen. Baino hau aldakorra izan da eta Champions League partida bat telebistaz ikusteko aukera izan denean lehenago bukatu dituzte prestatze saioak.

11.4.9 Partiden egutegia

Gorengo mailako txapelketa antolatzen duen GFFak denboraldiari epe muga bat ezartzen dio. Futbol denboraldia uztailaren 1ean hasi eta hurrengo

urteko ekainaren 30ean amaitzen da. Denboraldi batetik besterako muga beraz ez da izaten abenduaren 31, baizik eta ekainaren 30a eta denboraldi berria ez da urtarrilaren 1ean hasiko baizik eta uztailaren 1ean. Horregatik denboraldia identifikatzeko orduan bi urte jartzen dira, adibidez 2006/2007 denboraldia.

Gorengo mailan partidak jokatzen irailaren 11 hasi ziren, beraz denboraldi ofiziala hasten zen baino hilabete eta erdi beranduago. Egun horretan jokatu zuen Ordiziak lehiaketako aurreneko partida. Txapelketako azken partida berriz maiatzaren 26an izan zen eta ekainaren 2an Altamirako zelai berriko inaugurazioa ekitaldian Errealaren aurka jokatutako lagunarteko partida batekin amaitu zuten partiden denboraldia. Partidak aste bukaera guztietan jokatu dira baino bi unetan, Eguberrietan eta Aste Santuan lehiaketa gelditu egin da. Beraz, batean eta bestean bi aste bukaeratan ez da partidarik egon eta txapelketa gelditu egin da.

Taula 69: partiden egutegia

Partiden denboraldia	Irailaren 11tik ekainaren 3ra
Etenaldiak	Eguberrietan eta Aste Santuan
Partiden aste kopurua	34 aste bukaera

11.4.10 Entrenamenduen egutegia

Ordizia Kirol Elkartean entrenamenduak abuztuaren lehen egunean hasi ziren 2006/2007 denboraldian, txapelketa hasi baino 40 egun lehenago. Lehiaketa martxan jarri aurreko entrenamendu hauei aurre-denboraldia deitzen zaio eta jokalariak txapelketarako prestatzean datza. Ordizian Angelek erabakitzen du noiz hasi denboraldia edo egokiago esan da, aurre denboraldiko prestatze saioak hasteko data. Futbol taldeak partiden egutegia hasi baino lehen eta txapelketara egoki iristeko asmoarekin hasten dira entrenatzen. Aurre denboraldi horretan astean lau edo bost egunetan izan ziren entrenamenduak. Hauez gain lagunarteko partida batzuk ere jokatu zituzten, guztiak helburu batekin: lehiaketa

hasierara indartsu iritsi eta sendotasun hori denboraldi guztian mantentzeko. Lagunarteko partida horien emaitzak ez dute txapelketarako balio eta ez dira gordetzen. Araudian ere izan dezakete aldaketaren bat: ordu beteko partida, aldaketa gehiago…

Aurre denboraldi hau txapelketa hastean amaitu zen, lehen partidarekin; Ordiziak etxean Mutrikuri 2-0 irabazi zion. Behin lehiaketa martxan zela Angelek hiru entrenamendu finkatu zituen aste bakoitzean. Astean lau bider taldea elkarrekin aritu zen: hiru entrenamendu astegunez eta partida bat aste bukaeratan. Antolakuntza honekin denboraldi osoa egin zuten, bi oporraldi txikietan, Eguberriak eta Aste Santua, entrenamendu kopurua aldatuz: hirutik bira pasaz.

Taula 70: entrenamenduen denboraldia

Entrenamendu denboraldia	Abuztuaren lehen astetik ekainaren aurreneko astera
Entrenamendu aste kopurua	44 aste

Ordiziako jokalarien ustez denboraldia luzeegia gertatzen da; igoerako eta jaitsierako postuetan ibili ezkero, tentsioa eta intentsitatea mantentzen erraza da, baina sailkapenean tarteko postuetan murgilduta izan ezkero, jokalariak lasaitu egiten omen dira eta entrenamenduetako asistentzia jaisten hasten omen da. Bereziki, txapelketako azken partean, apirila eta maiatzean, eguneko argitasuna luzatzen doan heinean eta eguzkiaren epeltasunak beste zenbait jarduera egiteko gogoa ematen duenean.

11.4.11 Futboleko denbora: memoria eta irabazledun partidak aste bukaeratan, memoria eta irabazlerik gabeko entrenamenduak astegunetan

Denboraren azterketak erakutsi digu partidek eta entrenamenduek denbora eraikuntza desberdina dutela. Ordiziako gorengo mailako taldeak partidak aste

bukaeratan jokatzen ditu, larunbatetan edo igandeetan; dinamika horretan astean partida bat jokatzen dute. Entrenamenduak aldiz beste modu batetan antolatzen dira. Ordiziarrek astegunez egiten dituzte entrenamenduak: astearte, asteazken eta ostiraletan. Partidekin gertatzen denarekiko alderantziz aste bukaeratan ez dago entrenamendurik.

Bestalde Ordiziak jokatu dituen partidetan irabazi, galdu eta berdindu egin du eta emaitza horien arabera sailkapenean puntuak batu ditu. Ordiziak jokatu dituen partidetako emaitzak gorde egiten dira eta partida guztiak jokatu ondoren txapelketako azken sailkapenaren arabera sariak eta zigorrak banatzen dira: lehena Hirugarren Mailara eta azken lauak Lehen Erregionalera. Ordiziak aste bukaeratan partidak jokatzen ditu, irabazi eta saria emango dion lehen postua lortu nahian.

Entrenamenduetan aldiz ordiziarrek ez dute konparaketarik egiten, ez dira emaitzak gordetzen, ez dago sailkapenik eta memoriarik, ez dago saririk. Entrenamenduetan egiten diren joko eta ariketak ez dute puntuazio beharrik jokalarien prestakuntza hobetzeko. Prestatze saioetan egiten diren partidatxoen emaitza ez da gordetzen denboraldi osoko ranking bat egiteko. Gainera partidatxoekin batera denboraren beste zentzu bat agertzen duten jarduerak ere egiten dira eta ariketa horiek ez dute ez memoriarik eta ezta irabazlerik ere.

11.5 Jokalarien arteko harremanak

Futbola talde bat bestearen aurka jokatzen den joko bat da; bi jokalari multzo elkarren aurrez aurre, kirol duelu bat. Talde bateko kideen artean laguntzen dira beste taldeari aurka egin eta irabazteko. Kideen arteko kooperazio bat ematen da eta arerioen aurrean oposizio bat: kooperazio-oposizio harreman bat.

11.5.1 Futbolean aritzeko lizentziak

I. Txapelketako partidetan

Gorengo Mailako txapelketan partidak jokatzeko beharrezkoa da federazioak igorritako lizentzia izatea. Gorengo Mailako lizentzia, txapelketa antolatzen duen GFFak ematen du eta baimen bihurtzen da jokalari bezala partidak jokatzeko.

Futbol instituzioek, federazioek bi modutako futbolariak aurreikusten dituzte: amateurrak eta profesionalak. Futbolean instituzioek antolatutako txapelketetan jokatzeko egiten diren lizentzia guztiak bi izaera horietakoak izango dira. Futbolari profesionalak egoera horri buruz indarrean dauden kirol eta lege xedapenak diotenarekin bat etortzen direnak kontsideratzen dira. Amateurrak, kirol hau, klub edo kirol elkarte baten barnean jokatzen dutenak kontsideratzen dira, beti ere jokatzeagatik konpentsazio gisa gastuen ordainketa besterik jasotzen ez dutenean. Beraz eta marra handi batez bereiztuko bagenitu, amateurrak ez dute konpentsazio ekonomikorik jasotzen eta profesionalak soldata bat jasotzen dute futbolean jokatzeagatik.

Ordiziak jokatzen duen Gorengo Mailako txapelketa amateur mailakoa da. Taldea osatzen duten jokalari guztiak amateurrak dira eta ez dute sosik irabazten partidak jokatzeagatik. Jokalariak diotenez Ordizia Kirol Elkartea Gorengo Mailako talde bakarra da partida irabazteagatik diru saririk ematen ez duena. Txapelketa berean parte hartzen duten beste talde gehienetan diru laguntzak omen dituzte. Laguntza ekonomiko hau bi modutara ematen omen da: batetik, partida irabazi edo berdintzeagatik; eta bestetik, emaitzak kontuan hartu gabe txapelketak irauten

duen hilabete bakoitzean. Diru laguntza hauek ez dira soldata kontsideratzen eta jokalariak beste jarduera profesional batean aritu dezakete.

Baina futbol federazioak futboleko lizentzia izatearekin batera beste jarduera batzuk ere mugatzen ditu, jokalariek, futbol aktibitatearekin bat doan beste lizentziarik ezin dutela izan adieraziz. Salbuespen gisa futbol taldeko zelaiko ordezkari edo behe mailako futbol taldeen entrenatzaile izateko lizentzia izan dezakete. Egoera hau ematen denean, bi lizentziak, aldi berean izan ditzakete, beti ere dagozkien tituluen jabe baldin badira. Era berean, lurralde federazioek beren eskumenen baitan, beren jokalarien lizentzia bikoiztasuna baimendu ahal izango dute kadete mailan edo beheragokoetan epaile bezala jarduteko.

Ordiziako jokalariak futbolari lizentziatik at ez daude beste kirolen batean federatuta, araudiak dioena betez. Inor ez da aritzen beste kirol federazio batzuek antolatutako partida edo txapelketetan.

II. Prestatze saioetan

Entrenamenduetan, partidetan ez bezala, ez dago lizentziaren beharrik. Ordiziak egin dituen prestatze saioetan amateur mailako lizentzia ez duten jokalariek ere parte hartu dute. Saioetan aritzeko baimena Angel entrenatzaileak ematen du eta denboraldian zehar ohikoa izan da lizentziarik gabeko jokalari batzuk entrenamenduetan parte hartzea: garai batean taldean jokatu zutenak, aurten lizentzia izateko aukerarik ez dutenak…

Ordiziako jokalariei entrenamenduak ez zaizkie kontatzen eta bertan parte hartzeagatik ez dute dirurik irabazten. Hala eta guztiz, entrenamendu guztietara gutxienez hamabi jokalari baino gehiago agertu dira.

11.5.2 Futbol lizentzien eskubide eta betebeharrak

I. Partidetan

Futbolari bezala aritzeko beharrezkoa den lizentziak eskubide eta betebehar batzuk erakartzen ditu eta bere jabeari dagokion lurralde federazioaren eta EFFaren kide kondizioa ematen dion dokumentua da; txapelketa

desberdinetan parte hartzeko gaitzen du, beti ere txapelketen araudipean dagokion klub edo kirol elkarteari esleituta gelditurik.

Lizentzia hauek zazpi taldetan banatzen dira adina, generoa eta jokatzen duten futbol mota kontuan izanda: amateurrak, gazteak, kadeteak, haurrak, kimuak, emakumezkoak eta areto futbolekoak. Talde hauetan adina ez da denboraldiko egutegiarekin bat etortzen eta urte naturala hartzen da erreferentzia adin talde hauetan futbol lizentzia banatzeko.

Klub edo kirol elkarte baten lizentzia duten jokalariek ezin dute beste talde batean partidak jokatu. Eta futbolari amateur batek, lizentzia klub edo kirol elkarte baten alde izenpetzen duenean, azken honek espresuki horrela eskatzen dion bakoitzean, federazioak antolatutako partida guztietan parte hartu behar du. Baina era berean ezin izango zaio futbolari amateur bati bere klub edo kirol elkartean bere amateur kondiziotik kanpora dauden zerbitzu edo aktibitateak egin ditzala behartu.

EAEn bizi diren atzerriko pertsona guztiak EFFak luzatutako lizentzia baten jabe izan litezke. Baina horretarako bizilagun egoera kreditatu beharko da, dagokion eta indarrean dagoen egoitza txartela edo lizentzia bitartez edo horretarako eskudun diren beste autoritateek luzatutako beste edozein dokumenturen bidez.

Ordizian gorengo mailako txapelketa jokatzen duten futbolariak amateur mailako lizentziaren jabe dira eta, araudiak dioen bezala, Ordiziako taldearekin jokatu dituzte partida guztiak. Partida guztietan parte hartzeko betebeharra duten arren, Ordizian jokalari eta entrenatzaile artean gertatutako liskar handiena jokalari batzuk partidari ihes eginez Errioxara joan direnean gertatu da. Horrek ondorioak izan ditu eta jokalari horiek hurrengo partidarako deialditik kanpo edo ordezko bezala geratu dira.

Partidetan deialdian sartzen diren jokalari guztien fitxak epaileari eman behar zaizkio eta jokalariren bat arau kanpo egoteak, lizentziarik gabe, partida galtzea ekar lezake. Gorengo Mailako txapelketako partida guztietan Ordiziak lizentzia egoki duten futbolariekin parte hartu du.

Taula 71: futbol lizentzien jabeek dituzten eskubide eta betebeharrak

	Eskubideak	Betebeharrak
Partidak	▪ Lizentziak izateak federazioko kide kondizioa ematen dio. ▪ Txapelketa desberdinetan parte hartzeko gaitasuna. ▪ Ezin zaio behartu afizionatu kondiziotik kanpora dauden zerbitzuak egitera. ▪ Euskal Herrian bizi diren atzerriko pertsonak lizentziaren jabe izan daitezke.	▪ Klub edo kirol elkarte baten lizentzia duten jokalariek ezin dute beste talde batean partidak jokatu. ▪ Federazioak antolatutako partida guztietan parte hartu beharko du.
Entrenamenduak	▪ Bere taldean entrenatzeko eskubidea du. ▪ Lana duenean entrenamendua huts egin dezake	▪ Talde bateko lizentziaren jabe den jokalariak ezin du beste batean entrenatu. ▪ Entrenamendu guztietan parte hartzera behartua dago, bere lanbideren ordutegiarekin bateragarri denean, behintzat.

Iturria: (Euskal Futbol Federazioa)

II. Entrenamenduetan

Lizentziaren jabe izateak entrenamenduetarako ere ezartzen ditu betebehar eta eskubide batzuk. Horien artean aipatzekoa da talde bateko lizentziaren jabe den jokalariak ezin duela beste talde batetan entrenatu. Eta era berean, taldeak zehazten dizkion entrenamendu guztietan parte hartzera behartua dago, bere lanbideren ordutegiarekin bateragarri denean behintzat.

Ordiziako entrenamenduetan beste talde baten lizentzia duten jokalariak ere aritu dira. Jokalari hauek Ordiziakoak ziren denboraldi hasieran, baino lehen taldean tokia ez zutela ikustean Ordizia Kirol Taldeak beste talde bati utzi zizkion. Beste taldearen txapelketa amaitzean jokalari hauek Ordizian entrenatzen jarraitu dute. Lizentziarik gabeko jokalariak ere aritu dira entrenamenduetan. Garai batean taldean aritutako jokalari bat, Angel entrenatzaileari baimena eskatu ondoren, entrenamendu gehienetan aritu da. Berdina pasa da Ordiziara bizitzera etorri berri

den beste jokalari batekin: nahiz eta fitxarik ez izan entrenamendu guztietara azaldu da.

Bestalde nahiz eta Ordiziako jokalariak lizentziaren jabe izan, ez dira entrenamendu guztietara azaldu. Eta ez agertze hau ez da izan beti lanarengatik. Entrenamendu batzuetako huts egitea aldameneko herriko jaietara joateagatik ere gertatu da. Horrek ez die ondoriorik ekarri prestatze saioan huts egin duten jokalari horiei.

11.5.3 Taldea eta jokalariak

I. Txapelketako taldea eta jokalariak

Gorengo Mailako partidak jokatzeko talde bakoitzak 25 jokalari fitxa izan ditzake eta gainera Gorengo Maila amateurrena denez talde bakoitzak gutxienez 23 urte baino gutxiagoko 6 jokalari izan behar dituzte. Ordiziako gorengo mailako taldeak ere 25 jokalari inskribatu zituen 2006/2007ko txapelketan eta 23 urtetik beherako 6 jokalari baino gehiago ere baditu bere gorengoko taldean.

Federazioak ezartzen dituen arauen artean generoari aipamena egiten diona ere badago eta argi uzten du ezingo direla inola ere talde mistoak eratu eta ezta ere sexu desberdineko taldeak elkarren aurka jokatu. Ez dago partidarik jokatzerik emakume eta gizonezkoen artean eta talde mistoen arteko partidak jokatzea ere debekatuta dago. Ordiziako taldea osatzen duten guztiak arauak dioen bezala gizonezkoak dira eta partida guztiak ere araudi hau errespetatuz jokatu dituzte.

Taula 72: afizionatu mailako taldearen osaketa

Ezaugarriak
▪ 25 jokalari inskribatu behar dira. ▪ 6 jokalari hogeita hiru urtez azpikoak izan behar dira. ▪ Debekatuta dago genero mistoko taldeak izatea. ▪ Debekatuta dago sexu desberdineko taldeak elkarren aurka jokatzea.

Iturria: (Gipuzkoako Futbol Federazioa, 2006)

II. Entrenamenduetako jokalariak

Nahiz eta araudiak entrenamenduetan izan beharreko jokalari kopurua ez duen aipatzen, 25 jokalari baino gehiagok parte hartu duten entrenamenduak ere egin dituzte Ordizian. Kopurua inoiz ez da oztopo izan entrenamenduetarako eta jokalarien adina ere ez. Bestalde, Ordiziako prestatze saioetan ez dute emakumeek parte hartu eta saio guztietan egin dituzten ariketetan gizonezkoen parte hartzea eman da bakarrik.

Taula 73: entrenamenduetako taldea

Ezaugarriak
▪ Batzuetan 25 jokalari baino gehiago. ▪ Adina ez da oztopo. ▪ Emakumeek ez dute parte hartzen. ▪ Entrenamendu guztietan beti gizonezkoak.

11.5.4 Jokalari kopurua

I. Partidetan

Txapelketako futbol partida bati hasiera emateko beharrezkoa da talde bakoitzak jokalari kopuru maximo eta minimo bat zelaian aurkeztea. Zenbaki hau araudian zehaztuta dago, 11 jokalariz gehienez osatutako bi taldek jokatu beharko dutelarik partida. Partida ez da hasiko bi taldeetako batek 7 jokalari baino gutxiago baldin baditu. Epaileak orduan partida bertan bera utziko du eta behar baino jokalari gutxiagorekin agertu den taldea ez bertaratutzat joko du. Partida hasi eta min hartze edo kanporatzeen ondorioz talde bat 7 jokalari baino gutxiagorekin geratzen bada arbitroak bertan bera utziko du partida. Kasu guzti hauetan zer egin, txapelketa organoak erabakitzen du.

Partida hasteko zelaira atera behar diren jokalariez gain gorengo txapelketa hau antolatzen duen Gipuzkoako Federazioak ordezko bezala geratu beharko diren jokalarien eta egin daitezken aldaketa kopurua ere zehazten ditu. Ordezko

bezala aulkian eserita gehienez 7 jokalari gelditu behar dira eta partidan zehar egin daitezkeen aldaketa kopurua 5ekoa izaten da.

Taula 74: partidetako jokalari kopurua

Jokalari kopurua (gehienez talde bakoitzean)	11
Minimoa partida hasteko edo eteteko	7
Ordezko kopurua	7
Aldaketa kopurua	5

Iturria: (Gipuzkoako Futbol Federazioa, 2006)

Ordiziak jokatu dituen partida guztietan bi taldeak 11 jokalarirekin hasi dira partida jokatzen. Ez da talderik aurkeztu partida hasieran hamaika jokalari baino gutxiagoarekin. Era berean, ez da partidarik jokatu gabe utzi talde batean 7 jokalari baino gutxiago aurkeztu direlako. Araudiak jokalarien kopuruan ezartzen dituen mugak beti errespetatu dira Gorengo Maila honetan eta gainera partida guztietan taldeak kopuruari dagokionez simetrikoak izan dira.

Hasierako hamaikakoan ez bezala, Ordizian ordezko bezala egon direnen kopurua, partida batetik bestera aldatu egin da. Behatutako batean, Anaitasunaren aurka, 3 ordezko besterik ez dira egon. Beraz hasieran partida jokatzeko beti 11 jokalari atera baldin badira ere, ordezko bezala egon diren jokalarien kopurua aldakorra izan da, 7 eta 3 artean murgilduz. Ordezko 7 jokalari ez izatearen arrazoia ordiziarren kasuan jokalari falta izan da. Lesioak, lana edo ekidin ezineko konpromisoak medio Angel entrenatzaileari partida batzutan zaila egin zaio 18 jokalari biltzea, nahiz eta federazioko lizentzia 25 jokalarik izan. Horregatik partida batzuetan Gazte Mailako jokalariak sartu ditu deialdian.

Partidetan egin diren jokalari aldaketa kopurua desberdina izan da. Hasierako hamaikakoan hasi den jokalari bat kendu eta ordezko bat zelaira sartzea ohikoa izan da eta Ordiziak jokatu dituen partida guztietan gertatu da,

baina partidaren batean aldaketa guztiak egin arren, Angel gehienetan ez da iritsi araudiak uzten duen 5 aldaketa egitera. Aldaketa kopuru honi Angelek bi aurpegi ikusten dizkio: batetik, 16 jokalarik partida jokatzeko aukera dute, eta bere ustez, modu honetara talde zentzua jokalarien artean indartua ateratzen da, garaipenean edo porrotean inplikatze handiagoa lortuz; bestetik, 5 aldaketa egiteko aukera izateak jokoan etenaldi luzeak gertatzea dakar: aldaketa bakoitzean gutxienez minutu bat galtzen da eta talde batek markagailua alde duenean bigarren zatiko azken partean, etengabe aldaketak egiten hasten da, 5ak egin arte, partidaren erritmoa hautsi eta denbora galtzeko nahian.

II. Prestatze saioetako jokalari kopurua

Entrenamenduak aldiz ez dute jokalari kopuru minimorik; prestatze saio batzuetan taldekide guztiak parte hartzen dute eta beste batzuetan berriz oso jokalari gutxik. Araudiak ez du zehazten prestatze saioetan beharrezko den gutxieneko jokalari kopurua baina entrenatzaile eta zuzendaritzakoek ulertzen dute beraien taldean dauden jokalariek entrenamendu guztietan parte hartu behar dutela eta azaltzen ez badira gaindiezineko konpromisoak dituztelako izan behar dela.

Ordizia Kirol Elkarteko entrenamendu guztietara ez dira taldea osatzen duten jokalari guztiak hurbiltzen. Lana, ikasketak edo lesioak direla medio taldekide guztiak elkartu diren entrenamendu bat bera ere ez da egon. Aurrez aipatu dugun bezala Ordiziako jokalariak amateurrak dira eta ez dute soldatarik irabazten futbolean arituz. Ordiziako entrenatzailea den Angelek eta bere laguntzaileek, pentsatzen dute jokalariei diru laguntzaren bat emanez eskatu diezaieketen ardura handiagoa izan daitekeela. Beraien ustez modu horretara entrenamenduetan huts egiten duten jokalarien kopurua jaitsi egingo litzateke.

Taula 75: entrenamenduak eta jokalari kopurua

Jokalari kopurua	Aldakorra, talde osoa izan daiteke
Minimo eta maximoa	Ez dago
Aldaketa eta ordezkorik	Ez dago

Hala eta guztiz, Angel entrenatzaileak ez du eraman prestatze saioetara agertu diren jokalarien kontrolik. Berak konfiantza osoa du azaltzen ez diren jokalariak lan edo ikasketa arazoengatik agertu ez direla pentsatzeko. Entrenamenduetan parte hartu duten jokalarien kopurua aldakorra izan da eta 12 eta 26 artean murgildu da. Kopuru aldakor horrek, batzutan baldintzatu egin ditu entrenamenduan aurreikusita zeuden edukiak burutzea. Gehienbat partidatxoren bat jokatu izan dutenean. Angelek batzutan hamaika hamaikaren aurkako partida bat jokatu nahi izan du eta ez dira 22 jokalari izan entrenamendu horretan; eta kontrakoa ere pasa da talde bakoitzean 12 jokalari ere izan dira, nahiz eta entrenamendu bakar batean gertatu.

Entrenamendu hauetan ez dago ordezko jokalaririk eta ondorioz aldaketarik ere ez da egiten. Ordiziako entrenamenduetan jokalari batek baino gehiagok min hartu eta entrenamendua utzi behar izan dute, baina horregatik ez da beste jokalari bat entrenatzen hasi.

11.5.5 Txapelketako partidetan futbolaria zelaian

Partida bakoitzean aritzen diren jokalari kopurua talde bakoitzean 11 jokalarikoa dela aipatu dugu. Partidan, 22 jokalari aritzen dira futbol zelaian. Nahiz eta partidan zehar parte hartuko duten jokalari kopurua handiagoa izan partidak irauten duen bitartean ezinezkoa da aldi berean zelaian 22 baino gehiago egotea. Kopuru hori zelaiak duen azalerarekin zatitzean jokalari bakoitzari dagozkion metro karratuak atera ditzakegu. Erlazio honi bakarkako elkarrekintza eremua deitzen diogu “zelai osoaren azalera partehartzaileen kopuruarekin zatitzean ateratzen den azalera”. (Parlebas, 2003, 187)

Futbol araudiak baimentzen dituen zelaien neurrien batezbestekoa hartuta, araudiaren araberako batezbesteko azalera 7087 m^2koa ateratzen zaigu. Azalera hau 22 jokalariren artean zatitzean, jokalari bakoitzari dagokiona 322 m^2 direla behatzen dugu. Araudiaren araberako zelai eredu horretan hori izango zen jokalarien arteko dentsitatearen datu adierazgarri bat.

Baina espazioaren atalean aztertu dugunez araudiak tamaina desberdineko zelaiak baimentzen ditu eta Gipuzkoako Gorengo Mailan jokatzen duten taldeen

zelaiak neurri eta tamaina desberdinetakoak dira. Modu horretan bakarkako elkarrekintza eremua ere aldatu egiten da zelai batetik bestera.

Ordiziako zelaian partidetan ematen den bakarkako elkarrekintza eremua 272 m^2koa da. Metro horiek dira partida jokatzen ari den jokalari bakoitzari dagozkion metro karratu teorikoak. Ordiziak etxean jokatu dituen partida guztietan joko elkarrekintzaren ondorioz jokalari bakoitzari dagokion espazioa aipatu dugun hau izan da. Partida horretan gertatzen diren ekintzen ondorioz zenbaki hau aldatu daiteke, kanporatzeen ondorioz nagusiki, eta hori gainera gertatu da bizpahiru partidetan; baina erreferentzi gisa erabiltzeko balio digu.

Baina bakarkako elkarrekintza eremua Ordiziak kanpoko zelaietan jokatu duenean aldatu egin da eta zelai bakoitzean erlazio desberdin bat eman da. Kanpoan jokatutako partidetan bakarkako elkarrekintza eremurik handiena eman den zelaia Zarauzkoa da, 334 m^2 izanik jokalari bakoitzari dagokiona. Hurrengo handienak Anaitasuna eta Aurrera O. zelaietan eman dira, 318 eta 306 m^2rekin hurrenez hurren. Bakarkako elkarrekintza eremurik txikiena berriz Zestoako zelaian eman da, jokalari bakoitzari 205 m^2 dagozkiolarik.

Taula 76: Gorengo Mailako zelaiak eta bakarkako elkarrekintza eremua

Taldea	Zelaia	Bakarkako elkarrekintza eremua
Zarautz K.E.	Asti	334,09
Anaitasuna F.T.	Txerloia	318,00
Aurrera de O. C.D.	Zaldupe	306,00
Berio F.T.	Berio	295,91
Aretxabaleta K.E.	Ibarra	290,91
Mondragon C.F.	Atxabalpe	290,91
Urola K.E.	Argixao	275,45
Idiazabal K.E.	Arizkorreta	272,73
Martutene K.E.	Martutene	272,73

Taldea	Zelaia	Bakarkako elkarrekintza eremua
Ordizia K.E.	Altamira	272,73
Touring C.D.	Fanderia	272,73
Hondarribia F.E.	Ondartza	263,64
Hernani C.D.	Zubipe	260,00
Aloña Mendi K.E.	Azkoagain	253,91
Mutriku F.T.	San Miguel	233,18
Pasajes C.D.	Don Bosco	227,27
Trintxerpe C.D.	Trintxerpe	216,82
Zestoa K.B.	Zubiaurre	205,09

11.5.6 Rolak

Jokalariek espazioarekiko, denborarekiko, besteekiko eta objektuekiko dauzkaten harreman horietan, arauek, eskubide eta betebehar batzuk ezartzen diete. Txapelketa jokatzen duen talde batean, gainjarritako joko horretan, beste rol batzuk ere agertzen dira, entrenatzailea da adibide bat. Baina talde batek txapelketako partidez gain entrenamenduak ere egiten ditu eta hemen ere rolak eta dagozkien eskubide eta betebeharrak azaltzen dira.

I. Partidetako rolak

Partidan, jokoan, jokalariaren rola bakarrik azaltzen zaigu baina rol horretan lau azpi rolek eskubide eta betebehar berezitasun txiki batzuk agertzen dituzte: zelaiko jokalaria, atezaina, kapitaina eta ordezkoak. Baina horiek ez dira partidan eragina duten rol bakarrak; entrenatzailea eta taldeko ordezkaria ere azaltzen zaizkigu, eta Ordiziaren kasuan pertsonaia bitxia den entrenatzailearen laguntzailea; eta arauak betetzen direla arduratuko diren epaile taldea ere bai.

a. Jokalaria

Jokalaria txapelketan parte hartzen duen taldeko futbolaria da. Partaide izateko beharrezkoa izaten du lurralde federazioak luzatutako lizentzia izatea eta

horrek emango dio lehiaketako partidak jokatzeko eskubidea. Federazioko lizentziaren jabe direnetik futbolean jokatzearen ondorioz sortu daitezkeen lesio eta kaltetatik babesteko aseguru bat dute. Gorengo Maila honetan sailkapenean aurrena atera ezkero Hirugarren Mailara igotzeko eskubidea ere badute.

Betebeharrei dagokionez, jokalaria, klub edo kirol elkarteak jokatu behar dituen azkeneko 5 partidetako lehenengo partida hasiko den eguna baino gutxienez 48 ordu lehenago lortu beharreko lizentziaren jabe izan behar da. Araudiak ezartzen dituen adin mugak bete beharrean dago eta futbolean jokatzeko mediku azterketa gainditu behar du. Partida hasi aurreko 24 orduetan federazioak antolatzen dituen partidak ezin ditu jokatu eta arbitroari ematen zaion jokalari zerrendan agertu behar du.

Ordizia Kirol Taldeak 25 jokalariz osatua dago. Jokalari batek Ordiziako lizentzia ateratzen duen momentutik taldeko jantziak izateko eskubidea du. Kanpoko partidetara joateko autobus zerbitzua ere taldeak jartzen du eta partida ondoren jokalari bakoitzarentzat ogitarteko bat izaten da. Bestalde, min hartzeetaz babesteko, taldeak erosten dituen esparatrapu, benda edo sprayak erabiltzeko eskubidea dute.

Ordiziako jokalariak, entrenatzaileak egindako deialdian badaude partidara joan beharrean daude. Deialditik kanpo geratzen direnak ez dute hau bete beharrik. Ordiziako entrenatzailea den Angelek ahal izan duenean 18 jokalari sartu ditu deialdian. Aipatzekoa da hiru jokalarirekin izan zuen liskarra. Jokalariek aste bukaera bat beraien kontura Errioxan pasa nahi zuten eta hori egin ahal izateko ostiraleko entrenamendura ez ziren joan. Nahiz eta entrenamenduan ez agertu Angelek deialdian sartu zituen; eta hala eta guztiz jokalariak ez ziren azaldu eta beraiekin harremanetan jartzeko ahalegin handiak egin arren, partidara ez ziren joan. Ondorioz entrenatzailea haserretu egin zen eta zigortu egin zituen hurrengo partidan hamaikakotik kanpora utziz.

Partida jokatu aurreko egunean entrenatzaileak parranda ez egitera behartzen ditu, baina behatutako denboraldian jokalari batzuk hau ez dute eraman oso zorrotz. Inguruko herrietako festak izan direnean partida bezperan ere goizeko ordu txikiak arte parrandan ibili baitira. Hau egin izan dutenak taldeko jokalari

gazteenak izan dira; beteranoenak batzutan partida bezperan atera izan dira, baina buelta txiki bat egin ondoren etxera joanez.

Etxeko partida egunetan jokalari guztiak ordu eta laurden lehenago kiroldegi sarreran egon beharren daude eta beraien jantziak Ordizia Kirol Elkartekoak izan behar dira. Kanpoko partidetan, Ordiziako autobus geltokian egon behar dira entrenatzaileak esandako orduan. Ordu hau, egin beharreko desplazamenduaren menpe dago eta guztiak Ordiziako jantziekin etorri behar dira: txandala, kamiseta, poltsa…

Jokalari rolaren barnean beste lau azpirol bereiztu ditugu: zelaiko jokalaria, atezaina, kapitaina eta ordezkoa. Azpi rol bakoitzean, jokalari bezala dituzten eskubide eta betebeharretaz gain, estatus horri dagozkion arau bereziak errespetatu beharrean daude.

- Zelaiko jokalaria

Partida batean elkar aurre egiten duten talde bakoitzeko futbolariek, atezainak ezik, zelaiko jokalari rola betetzen dute. Talde bakoitzean 10 zelaiko jokalari dira eta futbol zelaiko edozein tokian, eskuekin ezik, baloia gorputzeko edozein atalekin kolpatu dezakete. Partidak dituen bi denbora artean gehienez ere 15 minutuko atseden bat hartu dezakete. Ordiziako taldean futbolari diren 25 jokalarietatik 22 zelaiko jokalariak dira.

Ordizian jokalari batzuk ia beti bete dute azpi rol hau; hamaikakoan behin eta berriz agertzen diren zelaiko jokalariak izan direla esan genezake. Horien artean aurkitzen ditugu: Tete, Badiola, Litri, Luzio, Mikel, Goiko, Josu eta Mikel.

- Atezaina

Partidetan talde bakoitzean jokalari batek atezain azpi rola betetzen du. Atezainak zelaiko jokalariek dituzten eskubide eta betebehar guztiak ditu baina salbuespen pare batekin: penalti arean baloia eskuekin ukitu, kolpatu eta jo dezakeela eta ateko arean aurkariek ukitzen badute bere aldeko falta izanen dela. Bi eremu horietatik kanpo atezaina zelaiko beste jokalari bat izaten da. Atezain edozein jokalari izan daiteke, baina atezain jartzeko arbitroari abisatu behar zaio eta honek baimendu eta jokoa etenik dagoenean aldatu edo jarri.

Nahiz eta partidetan edozein jokalarik atezain izateko eskubidea izan Ordiziak beti berdinak erabili ditu eta Gorengo Mailako gainontzeko taldeak ere bai. Talde bakoitzak postu horretarako jokalari berdinak erabiltzen ditu txapelketako partida guztietan.

Ordiziako gorengoko taldean nagusiki bi atezain izan dira: Julen eta Iñaki. Hirugarren bat ere egon da: Joseba; beste biak zigortuak edo lesionatuak daudenean sartzen da deialdian eta partida bakar bat jokatu du. Lehen aipatutako biak txandaka sartu ditu entrenatzaileak hamaikakoan. Partida batzutan Julen izan da hamaikakoan eta beste batzutan Iñaki. Partida batean, epaileak Iñaki kanporatu zuenean, entrenatzaileak aldaketa guztiak eginda zeuzkan eta ondorioz zelaiko jokalari bat kendu zuen atezain bat sartzeko, kasu honetan Aitor, Julen min hartuta baitzegoen. Era horretara, nahiz eta bat gutxiagorekin jokatu, atezaina zelaian zegoen. Ordiziako Gazteen Mailako atezaina ere partida batetara joan da, gorengoko mailako bi atezainak partidak jokatzeko zigortuak zeudelako.

Atezainak partida aurreko beroketa beraien kasa egiten dute. Beste jokalari guztiak Angelek gidaturik aritzen diren bitartean, deialdian sartzen diren bi atezainak beraien kontura berotzen dute, hamaikakoan hasten dena atean egonik eta ordezkoa izaten denak baloiak jaurtiz.

- Kapitaina

Partida jokatu behar duten bi taldeetako bakoitzak zelaian kapitain bat izan behar du eta zelaiaren barnean taldearen ordezkari baimendu bakarra izaten da. Zelaiko edozein jokalarik edo atezainek izan dezakete kapitain, eta partida jokatzen ari den heinean, bere kideei behar diren argibideak eman behar dizkie, eta horiek behar bezalako zuzenketa erakutsi dezaten ahalegindu. Arbitroaren aginduak betetzeko arduraduna ere bada partida normaltasun osoz aurrera joan dadila lagunduz. Partida hasi baino lehen kapitainen eginbeharra da partidaren datu eta gorabeherak biltzen dituen aktaren lehen partea sinatzea.

Ordiziak ez du kapitain bakar bat izan. Behatu diren partidetan lau kapitain desberdin ere izan dira: Tete, Gontzal, Goiko eta Julen. Kapitaina Angel entrenatzaileak izendatu du eta partida batean gertatu da jokalari bat izendatu, Badiola, eta honek kapitain izatea nahi ez. Partidetan kapitain bezala aritu direnak

taldeko beteranoetakoak dira; taldean urte asko daramatzatenak, esperientziadunak. Kapitaina beste jokalari bat izango balitz bezala ibili da taldean: bere kideen eskubide eta betebehar berdinak izan ditu. Entrenatzaileak kapitain izateko inplikazio handiko jokalariak nahi izaten ditu, taldea bultzatzeko eta beste jokalariengan eragina izateko.

- Ordezkoak

Ordezkoak, partida hasieran zelaira ateratzen diren hamaika jokalaritatik kanpo geratzen dira, baina deialdian egon beharko dute eta partida aurretik arbitroari ematen zaion zerrendan ere bai. Ordezko hauek zelaiaren albo batean aurkitzen diren aulkietan, talde bakoitzarentzako bat, eserita egoteko eskubidea dute. Zelaira jokatzera atera baino lehenago zelaiko alboko marra eta esku lekuaren artean dagoen eremuan berotze ariketak egin ditzakete. Partida bakoitzean 7 jokalari ordezko egon daitezke eta horietatik 5ek zelaian sartzeko aukera dute.

Irudia 38: aldaketa baten bidez Ordiziako ordezko bat zelaiara
Egilea: Asier Oiarbide

Ordezko bezala lehen aipatu dugu, Gorengo Mailan 7 jokalari egon daitezkeela; Ordizian partida guztietan ez dira 7 jokalari bildu. Partida batean 3 ordezko besterik ez dira egon. Entrenatzaileak hamaikakoetan sartu dituenen artean jokalari batzuk berberak izan diren bezala, beste batzuk ordezko ohikoak izan dira.

Partida egunetan aldagelara sartu ondoren Angelek partida jokatzen hasi behar diren hamaika jokalariren berri ematen du, eta orduan sortzen dira ordezkoak. Momentu horretaraino ez dago ordezkorik. Une horretan Ordiziako ordezkoak aldagelatik ateratzen dira, hamaikakoan atera behar direnei toki gehiago utziz. Angelek esaten die urrutira ez joateko eta partida hasi baino lehen aldagelan egoteko. Besteak berotzen duten bitartean ordezko jokalariak beraien kontura jaurtiketa edo paseak egiten egoten dira. Partida hasi baino lehen aulkian esertzen dira eta bertan egoten dira entrenatzaileak zelaira ateratzeko prestatzen hasteko esan arte. Ordiziako entrenatzaileak partida guztietan ez ditu egin araudiak uzten dizkion 5 aldaketak. Partida batzutan 2 edo 3 besterik ez ditu egin. 7 ordezko izan daitezke eta gehienez 5 aldaketa egiteko aukera dago, ondorioz partida guztietan gutxienez 2 jokalari jokatu gabe ordezko azpi rol honetan mantendu dira. Ordizian behin eta berriz ordezko papera bete duten jokalariak ere atzeman dira: Revilla, Manu, Martxel eta Diego.

b. Entrenatzailea

Entrenatzaile bezala aritzeko entrenatzaile titulu baten jabe izatea beharrezkoa da, kasu honetan II nibelekoa. Lurralde entrenatzaile tituluak edo II mailakoak edozein lurralde esparruko selekzio edo federatuta dagoen talde entrenatzeko gaitasuna ematen du, baita Hirugarren Mailakoak ere. Txapelketan diharduen talde bat zuzentzeko entrenatzaileak formulario ofizialaren bitartez EFFak ematen duen lizentzia lortu behar du.

Partidetan, entrenatzaileak aulkian egoteko aukera du eta aulki inguruan ere zutik ibili daiteke partida jokatzen ari den bitartean. Entrenatzaileak taldea zuzentzeko ardura dauka eta bera da partidan zehar bere taldean egin beharreko aldaketak agintzen dituena.

Ordiziako entrenatzaileak Angel du izena eta 50 urte ditu. Ordizian bertan kokatuta dagoen garabi lantegi batean lan egiten du eta 4 urte daramatza Gorengo Mailako talde hau entrenatzen. Gazteagoa zenean ere talde honetan jokatu zuen. Berak dioenez futbolean federatu gisa jokatzen utzi zuenetik, etenik gabe, urtero ari da talderen bat entrenatzen. Lan honen ordainetan ez zuen sosik irabazten; talde honetako partaide guztiak bezala borondate hutsez dabil entrenatzaile gisa. Lantegitik kanpoko ordu libreak futbolaren inguruan pasatzen ditu. Familia ere badauka, emaztea eta 2 seme alaba, eta behin baino gehiagotan jokalariei adierazten die familiako planak futbolean oinarrituz egiten dituela.

Futbol talde baten jokoaren arduradun nagusia da entrenatzailea eta Angelek ere paper hori betetzen du. Bere aginduetara daude jokalari guztiak eta berak hartzen ditu taldearen jokamoldeari eta osagaiei dagozkien erabakiak: zelaian jokatu behar duten 11 jokalariak berak aukeratzen ditu; deialdian sartu behar dituenak ere bai. Bere ardurapean dago zein eta zenbat aldaketa egin.

Partida guztietarako zelaiko zita ordua Angelek jartzen du. Partidan hasiko diren 11 jokalariak tentuz aukeratzen ditu eta egin beharreko aldaketak ere bai. 11 jokalariak aldagelan izendatzen ditu eta hauek aldatu bezain laster, berotze ariketak egiten hasi baino lehenago, zelaian nola kokatu behar diren eta nola jokatzea nahi duen azaltzen du. Agindu hauetan, partida guztietan errepikatzen den irizpidea: gogo biziz jokatu, baloi bat galdutzat eman gabe.

Partida aurreko berotze ariketak ere Ordiziako entrenatzaileak gidatzen ditu. Berak adierazten die jokalariei egin beharreko ariketa guztiak, adibide gisa bat eginez eta ondoren jokalariak errepikatuz. Partida hastera doanean Angel aulkiaren albora joan eta eseri gabe gelditzen da; partidak irauten duen denbora guztian, Angel zutik gelditzen da eta aulkiaren alde batera eta bestera pauso txikiak emanez ibiltzeko ohitura du. Atsedenaldian berriro denak aldagelara sartzean, Angelek isiltasuna eskatzen die bere jokalariei, lasaitu nahian; isiltasun aldi honen ondoren berriro azaltzen du nola ikusten duen partida eta nola jarraitu behar duten jokatzen. Momentu horretan, partidaren emaitzaren arabera, errieta bat edo beste ere egin ohi die jokalariei. Errieta hauek, jokalarien jarrera eta jokabidean oinarritzen dira. Partida amaitzean aldagelara sartu eta Angel isilik

gelditzen da; ez du jokalariekin ezertxo ere komentatzen, partida amaitu ezkero bere azalpenak ere bai.

c. Entrenatzailearen laguntzaileak

Txapelketako partidetan aulkian eserita egoteko entrenatzaile, ordezko edo taldeko ordezkariarekin batera arauek beste zenbaitentzako ere baimena ematen du. Horien artean: medikua, prestatzaile fisikoa edo entrenatzaile laguntzailea. Guztiak aulkian eserita egon behar dira eta figura bakoitzari dagokion federazioko lizentzia izan behar dute. Gorengo maila antolatzen duen GFFaren fitxa gabe ez dago lehiaketako partidetan aulkian egoterik. Entrenatzailearen laguntzaileek ordezko bat zelaira atera baino lehen zelaiaren alboan egin behar dituen ariketak zuzentzeko eskubidea dute.

Laguntzailearen lana, entrenatzaile nagusiari esku bat botatzea da beharrezkoa denean. Partidan zehar jokoan gertatzen dena behatu eta akatsak entrenatzaileari esan edo partida aurreko beroketa zuzendu izaten dira gorengo mailako entrenatzaile laguntzaile baten beharrak.

Ordizia Kirol Elkartean, Angel entrenatzailearen laguntzaileak Botero eta Josemi izan dira. Botero eta Angel lagunak dira eta aspaldidanik ezagutzen dira biak. Txapelketako partida gehienetan izan da Botero; oporrak edo lana izan duenean ezik, bere presentzia nabaria izan da. Ordiziako udaltzaina da eta 50 urte inguru ditu; gazteagoa zenean, talde honetan jokalari bezala aritu zen. Aldagelatan taldeko beste partaide bat bezala ibiltzen da, hitz asko esan gabe. Angelek zuzentzen dituen partida aurreko berotze ariketak zelai barrenetik edo kanpotik jarraitzen ditu. Partida hasten denean Botero Ordiziako ordezko jokalariak eta entrenatzailea esertzen diren aulkiaren alboan kokatzen da. Esku lekuan besoak sustengatuz, beste ikusle bat izango balitz bezala, zutik ikusten ditu partida guztiak. Boterok ez du federazioko lizentziarik, eta hasiera batean ulertezina dirudien arren, berak ez du nahi federazioko fitxarik edukitzea; ondorioz ezinezkoa du aulkian esertzea. Lizentziarik ez izatean beste ikusle baten eskubide eta betebehar berdinak ditu eta hauetan babesten da arbitro eta marrazainak presionatzeko. Berak dio lizentzia balu ezingo lukeela oihuka eta biraoka ibili. Epaile taldeak hartzen dituen erabakietan eragina izatea da presio horren arrazoia

eta irain gogorrak oihukatuz islatzen da. Partida batzuetan marrazainak alboan egiten duen aurrera eta atzerako bidea jarraituz ibili da beldurtzeko modukoak esanez epailearen laguntzaileari. Birao hauek aurkako taldeko jokalarientzako ere izaten ditu, batzuetan egoera nahiko bortitzak sortuz. Esaten dituenak kristonak izanda ere arbitroek ezin dute zigortu, nahiz eta gehienek ezagutu eta jakin Ordiziako taldekoekin ibiltzen dela.

Bigarren laguntzailea den Josemi etxeko partidetara bakarrik etorri da eta bere presentzia ez da nabarmendu, beste ikusle bat bezala egon baita eta aldagelara ere ez baita sartu. Hala eta guztiz federazioko entrenatzaile lizentzia badauka eta txapelketako azken partidan entrenatzaile bezala aulkian eseri da, Angelen lekua hartuz, honek ezkontza baten ondorioz ezin izan baitzuen egon.

d. Taldeko ordezkaria

Futbol zelaiaren titularra den klub edo kirol elkarteak partida bakoitzerako zelai ordezkari bat izendatu behar du partidan sortzen diren hainbat zeregin betearazteko. Ordezkari hau taldearen ordezkaria izaten da zelaitik kanpo eta futbolariak ahal den kiroltasun handienarekin jokatu dezaten irakatsi behar du. Partida hasi baino 40 minutu lehenago, arbitroaren aurrean identifikatu behar da eta partida jokatu behar duten eta ordezko bezala gelldituko diren bere taldeko jokalarien lizentziak, zenbakituak aurkeztu. Era berean, arbitroari dagozkion eskubideak ordaintzeko arduraduna da eta partida amaieran aktak ere berak sinatu behar ditu. Partida aurretik, bitartean eta bukaeran pasatutako gertakizunak arbitroaren jakinetara jarri behar ditu.

Gorengo Mailan aritzen den Ordiziako taldeak badu bere ordezkaria; Sebastian du izena, baino denek Sebas deitzen diote. 55 urte inguru ditu eta urteak daramatza eginkizun honetan. Bere lana partida egunetara mugatzen da.

Ordiziak jokatu dituen partida guztietan egon da, eta partida hasitakoan aulkian esertzen da ordezko jokalari eta entrenatzailearekin batera. Sebasek hainbat eginkizun hartzen ditu. Araudiak zehazten duen moduan, hamaikakoan atera behar diren eta ordezko jokalari izango direnen lizentziak zenbakituak arbitroari aurkeztu. Bestalde, etxeko partidetan epailearen beharretara jartzen da,

hau babestu edo dituen beharrak asetzeko. Partida amaitu ondoren arbitroak egindako akta sinatu eta kopia ere berak jasotzen du.

Ordezkariari dagozkion lan hauetaz gain beste paper bat ere betetzen du Sebasek: erizain, osagile papera. Jokalariren batek min hartu ezkero bera irteten da zelaira botika poltsa eskuan duela. Aulkian eserita dagoenean ur botilatxoak ere izaten ditu, jokalariek eskatutakoan eskaintzeko. Partida hasi aurretik aldageletan jokalariek behar izaten dituzten benda, espray eta ukenduez osatutako botikina ere bere ardurapean dago.

e. Epaile taldea

Txapelketako partidak jokatzen direnean arauak betetzeaz arduratzen direnei epaileak deitzen diegu eta hiru lagunek osatzen dute taldea: bi marrazainek eta arbitroak.

Arbitroa da partidak zuzentzeko kirol agintari bakarra eta bere eskuduntza ez da bakarrik baloia jokoan dagoenera mugatzen, baizik eta jokoa etenda dagoenean atsedenean edo baloia zelaitik kanpo dagoenean mantendu egiten du bere ardura. Taldeetako zuzendaritzakoek, futbolariek, entrenatzaileek, ordezkoek eta ordezkariek bere erabakiak bete behar dituzte eta arbitroari errespetua eta zintzotasun pertsonala zor diote, beti bere pertsona babestuz eta lagunduz, hau lortzeko indar publikoaren interbentzioa beharrezkoa bada ere.

Arbitroak partida hasi aurretik zelaia aztertu behar du, honen egoera, marren markaketa, ateen sareak eta orokorrean, bete behar dituzten arauzko baldintzak betetzen ote dituzten ala ez ikusi; edozein akats ikusi ezkero, zelai ordezkariari akatsa konpontzeko argibide guztiak ematen dizkio. Partidan erabili behar diren baloien egokitasuna aztertzea ere bere gain dago. Taldeek aurkezten dituzten lizentzietan akatsen bat egon ezkero aktan jaso behar du eta partida hasi aurretik jokariak zelaira deitzea ere bere ardura da.

Partidan baloia jokoan dagoenean arau guztiak aplikatu behar ditu, kronometratzaile lana eginez, behar denean jokalariak zigortuz edo egoki ikusten duenean jokoa etenez. Partida amaieran arbitroak jokoan gertatu den guztia akta batean jaso behar du eta ondoren bi taldeetako ordezkariei sinatu ondoren kopia bat eman. Epaile taldea partida ordua zehaztuta dagoen baina 45 minutu

lehenago zelaian egon behar da. Gorengo Mailako epaile taldeak diru saria jasotzen dute epaitzen duten partida bakoitzeko. Diru sari hau etxean jokatzen duen taldeak eman behar die eta 200 eurokoa izaten da.

Ordiziak jokatu dituen partidak arbitro desberdinek epaitu dituzte baina 2 partida arbitratu dienik ere egon da. Partida batean, berehala ezagutu zuen Sebas ordezkariak arbitroa, lehen bueltan partida bat epaitu zuela esanez: segituan gogorarazi zion Angeli, kontuz ibili behar zela berarekin, ez zituela kexak onartzen. Partidetan ikusleak beraien taldearen alde egiten dute eta sarritan ez dira arbitroaren erabakiekin bat etortzen; halabeharrez, epaileen erabakiak batzuentzako beti gaizki egongo dira. Ordizian irain eta biraoez gain ez du tratu txarrik jasan. Kanpoko partidetan ere ez du eraso fisikorik izan, nahiz eta Oñatin aldagelara sartzeko zelaiko ordezkariaren laguntza behar izan. Ordiziak Mondragon eta Berioren aurka jokatu zituen partidetan, entrenatzailearen laguntzaile den Boterok ere kristonak eta bi esan zizkien marrazain eta arbitroari. Epaileak taldearen porrotaren arduradun egiten dituzte eta egoera oso bortitzak sortzen dira batzuetan.

Marrazainak bi dira eta bakoitza, zelaiaren luzerako albo batean alboko marraren paralelo mugitzen da. Marrazainek arbitroaren lanean laguntzea dute helburu: baloia zelaitik atera denan seinalatuz, alboko, izkinako edo ateko sakea zein talderi dagokion adieraziz, jokoz kanpokoa markatuz eta gainontzeko arauetan, araua hautsi den edo ez arbitroari erabakitzen lagunduz.

Gorengo txapelketan partida bakoitzean bi marrazain aritu dira. Hauek arbitroak baino mehatxu gehiago jasotzen dituzte, ikusleengandik gertuago gelditzen direlako: zelai batzuetan jendearengandik metro eskas batetara. Aipatzekoa da Ordiziak Berioren aurka jokatu zuenean, Botero, Ordiziako entrenatzailearen laguntzailea, marrazain baten atzetik alde batera eta bestera ibili zela, egoera nahiko bortitza sortuz. Marrazain bakoitza alboko marra batean kokatzen da eta zelaiaren erdia kontrolatzen du, izkinatik erdirainoko jarraipena eginez. Bi marrazainen artean zelai guztia kontrolatzen dute.

Marrazainak arbitroak baino gazteagoak izan dira. Ohikoa izaten da behe mailatako arbitroak, goragoko mailetan laguntzaile papera betetzea eta Gorengo

Mailan marrazain ibili direnak Lehen Erregionaleko edo Gazteen Mailatako arbitroak izaten dira. Ordiziak Trintxerpen jokatu zuen partidan marrazainetako bat emakumea izan zen; gainontzeko partida guztietan epaile taldea osatu duten marrazain guztiak gizonezkoak izan dira.

f. Ikusleak

Partida bat ikustera joaten diren pertsonak sartzen dira rol honetan. Gorengo mailan ikusle gisa partida batean egoteko diru sarrera bat ordaindu behar da. Sarrera hau Ordizian 5 eurotakoa izan da denboraldian zehar. Ikusleak ezin dute zelaian egon edo sartu; eskulekuaren atzetik kokatu behar dira partida ikusteko. Gehienak harmailetan eserita edo zutik ikusten dute partida. Ikusleak beraien taldea animatu edo aurkariei txistu egiteaz gain, biraoak edo maldizioak bota ditzakete epaile taldeari. Ikusleak debekatuta dute zelaira edozein objektu edo material jaurtitzea. Horrela gertatzen bada epaileak eginiko aktan jaso egiten du gertakizuna. Beraien nahia etxeko taldeak irabaztea da eta horretarako etxeko taldea animatu eta arerioak iraindu egiten dituzte. Gorengo Mailako zelai batzutan ikusleak jokalariengandik metro eskasera gelditzen dira horren adibide dira Ordizia edo Ondarroa.

Taula 77: partidetako rolak eta beraien eskubide eta betebeharrak

Rolak	Eskubideak	Betebeharrak
Jokalaria	▪ Partidak jokatzeko eskubidea. ▪ Lesio eta kalteetatik babesteko asegurua. ▪ Aurrena atera ezkero 3.mailara igotzeko eskubidea. ▪ Kanpoko partidetara joateko autobusa. ▪ Taldeko materialaren erabilpena.	▪ Lizentziaren jabe izan. ▪ Adin mugak bete. ▪ Mediku azterketan gai izendatu. ▪ Deialdian egon ezkero partidara joan. ▪ Berrogeita bost minutu lehenago zelaian egon.
Azpirolak		
Zelaiko jokalaria	▪ Zelaiko edozein eremutan eskuekin ezik baloia gorputzeko edozein atalekin kolpatu dezake. ▪ Bi denbora artean atsedena hartu dezake.	▪ Gehienez hamar jokalari. ▪ Bi denbora arteko atsedena gehienez hamabost minutukoa.
Atezaina	▪ Penalti eta ateko arean baloia eskuekin ukitu dezake. ▪ Ateko arean arerioek ezin dute atezaina ukitu.	▪ Penalti eta ateko areatik kanpo zelaiko jokalari bat bihurtzen da. ▪ Jokalari bakarra izan daiteke atezain.

Rolak	Eskubideak	Betebeharrak
Kapitaina	▪ Zelaiaren barnean taldearen ordezkari baimendua. ▪ Edozein jokalarik izan dezake.	▪ Arbitroaren instrukzioak betetzeko arduraduna. ▪ Aktaren lehen partea sinatzea.
Ordezkoa	▪ Aulkian egon dezake. ▪ Zelaiaren alboko marraren paraleloan berotu dezake. ▪ Bost jokalari jokatzera atera daiteke.	▪ Gehienez zazpi jokalari egon daiteke.
Entrenatzailea	▪ Aulkian egon daiteke. ▪ Jokalari aldaketak egin ditzake.	▪ Lurralde entrenatzaile tituluaren jabe izatea. ▪ Lizentziaren jabe izatea. ▪ Taldea zuzendu eta gidatu.
Entrenatzailearen laguntzailea	▪ Lizentzia izan ezkero aulkian egon daiteke. ▪ Berotze ariketak zuzentzeko eskubide du.	▪ Entrenatzaileari lagundu.
Taldeko ordezkaria	▪ Zelaitik kanpo taldearen ordezkaria. ▪ Aulkian eseri daiteke.	▪ Lizentziak arbitroari aurkeztu. ▪ Gertakizunak arbitroaren jakinetara jarri. ▪ Arbitroari dagozkion eskubideak ordaindu.
Epaile taldea	▪ Partidak zuzentzeko eskuduntza. ▪ Baloia zelaitik kanpo eta atsedenean daudenean ere mantendu egiten da. ▪ Diru saria jaso.	▪ Partida hasi aurretik zelaia aztertu. ▪ Baloien egokitasuna aztertu. ▪ Lizentzietan dauden akatsak jaso; jokalariak zelaira deitu. ▪ Arau guztiak aplikatu eta kronometratzaile bezala jardun. ▪ Partida hasi baino berrogeita bost minutu lehenago zelaian egon.
Ikusleak	▪ Taldeak animatu edo txistu jo. ▪ Epaile taldea iraindu. ▪ Zelaia inguratzen duen eskulekutik kanpo edozein tokitan kokatu daitezke.	▪ Ikusle sarrera ordaindu. ▪ Zelaiara objekturik jaurti gabe egon. ▪ Jokalariak edo epailek ukitu gabe egon.

II. Entrenamenduetako rolak

Partidekin alderatuz, Ordiziako entrenamenduetan agertzen diren rolak beste batzuk dira. Alde batetik proposatzen diren egiturak eta ariketak futbolaren egiturarekin konparatuz anitzak direlako; talde dueluko egiturez gain, bat denen kontrako edo kooperaziozko jarduerak ere egiten direlako, arau desberdinen ondorioz beste rol batzuk sortuz. Bestalde, partidetan ematen diren rol batzuk prestatze saioetan desagertu egiten dira: epaile, kapitain, ordezko, taldeko ordezkari eta ikusle rolak ez dira entrenamenduetan ematen.

a. Entrenamenduetako jokalaria

Prestatze saioa burutzen duten futbolari guztiak sartzen dira rol honetan. Entrenamenduetako jokalari gehienak txapelketako partidetan parte hartuko dute baina gertatu daiteke talde baten entrenamenduak lehiaketa jokatzeko lizentziarik gabeko jokalariak burutzea. Prestatze saioetako jokalariek entrenatzaileak agindutako jarduera guztietan parte hartu behar dute; partidatxoetan bezala korrika saioetan edo lurrean egindako ariketetan. Ahal badute entrenamendu guztietara agertu behar dira eta honek irauten duen bitartean bertan aritu. Entrenamenduak burutzeko klub edo taldearen instalakuntzak erabili ditzakete eta aldatu eta garbitzeko aldagela eta dutxak izateko eskubide dute. Prestatze saioetan beharrezko den futbol materiala ere taldeak jarritakoa izateko aukera ere badute.

Ordizia Kirol Elkartean burutzen diren entrenamenduetan txapelketa jokatzeko lizentziarik ez duten jokalariak ere parte hartzen dute. Jokalari hauek, batzuek maila baxuagoko txapelketan parte hartu ondoren eta beraien liga bukatuta entrenatzen jarraitu nahi izan dutelako etortzen dira; beste batzuek garai bateko jokalari ohiak dira eta jarduera fisikoa egiteko nahiarekin parte hartzen dute entrenamenduetan. Guzti hauek Angel entrenatzailearen baimena behar dute prestatze saioan egoteko. Angelek baldintza bat eskatzen die: entrenamenduetara hutsik egin gabe seriotasunez agertzeko. Jokalari hauez gain txapelketa jokatzeko lizentzia dutenak burutzen dituzte entrenamenduak. Jokalari hauek entrenamendu guztietara azaltzeko betebeharra dute eta etortzen ez badira arrazoizko motibo batengandik izan behar da.

Partidak prestatu asmoz astean 3 entrenamendu egiten dituzte eta jokalariak hauetan parte hartzea behartuak daude. Ordiziako entrenatzailea honetan malgua da eta ez du entrenamenduetara azaltzen ez diren jokalarien kontrolik eramaten. Entrenatzailearen esanetan agertzen ez den jokalaria ekidin ezin duen arazo batengatik izaten omen da; berak dioenez Ordiziako taldean entrenamendutako asistentzian ez dago arazorik. Jokalari batzuk 2 edo 3 errelebo deituriko lan ordutegian ibiltzen dira eta 2 astetik behin entrenamenduak galdu

egiten dituzte. Eta ikasketetako azterketak direla eta jokalari batzuk prestatze saioetan ere falta izan dira.

Jokalariak entrenamenduetako ordutegia errespetatu beharrean daude. Jokalari guztiak badakite arratsaldeko 19:00etan zelaian egon behar direla prestatuta. Hau ez da oso zorrotz eraman eta gehienetan entrenamenduak beranduago hasi dira. Entrenatzaileak behian baino gehiagotan esan du isunak jartzen hasi beharko direla, baina mehatxu hau ez da bete.

Ordiziako jokalariek behin baino gehiagotan galdetu dute entrenamenduetan egin diren ariketek duten helburuagatik. Denboraldiko azken partean, mila metroko errepikapenak zertarako egin behar zituzten galdetzen zuten maiz beraien artean. Jokalari bat baino gehiago kexatu da entrenamenduetara gutxi agertzen direla esanez eta gainera, agertzen direnean futbolean jokatzeko saria eman ordez korrika saioak aginduz zigortu egiten zaiela. Jokalariek futbol jokoetara jokatu nahi dute beti eta Angelek batzutan beste jarduera batzuk proposatzen ditu. Jokalariak ez dira egon entrenamendu guztietan planteatu denarekin gustura.

Jokalari hauek beraiek nahi duten arroparekin entrenatzen dute eta taldeak baloiak eta zelaiak jartzen ditu. Zelai aldamenean dagoen kiroldegiko dutxak erabiltzeko eskubidea dute jokalari guztiek, nahiz eta kiroldegiko bazkide ez izan.

Prestatze saioetan egiten diren jarduera eta ariketa desberdinetan jokalari rol honen azpi rol batzuk bereizten dira. Prestatze saioetan errepikatzen diren jardueren arabera entrenamendu tipo batean aurkitzen ditugun azpi rolak identifikatu ditzakegu; “rondoak”, beroketa, jaurtiketak edo banakako ariketak eta partidatxoa izan da Ordiziako entrenamendu ohiko bat.

- “Rondoko” rolak

Entrenamendu guztietan egiten den jarduera honek bi rol nagusi ditu: erdian dagoena eta borobilean edo kanpoan daudenak, eta bakoitzak bere eskubide eta betebeharrak izaten ditu. Futbol partidetan ez bezala jarduera honetan rolez aldatzen dira eta gainera beste partaideekiko harreman mota ere aldatu egiten da. Erdian dagoenak kanpokoak elkar pasatzen darabilten baloia ukitzen saiatzen da. Bere eremua borobilaren erdia da eta baloia ukitzean

kanpokoa izatera pasatzen da. Kanpokoak beraien artean baloia erdikoak ukitu gabe mantentzen saiatu behar dira. Baloiari ukitu bat bakarrik eman diezaiokete. Beraietako batek baloia ukitu eta gero erdikoak ukitzen badu erdira pasa behar da erdikoak honen tokia hartuz. Borobila osatuz kokatu behar da eta zirkulu honen tamaina denek adosten dute. Entrenatzaileak beste jokalari bat bezala parte hartzen du, rol berdinak betez.

Irudia 39: jokalariak “rondo” bat jokatzen
Egilea: Asier Oiarbide

- Beroketako rolak

Jokalari guztiek rol bera betetzen dute eta rol hau berdin mantentzen da beroketa amaitu arte. Jokalari bakoitzak entrenatzaileak agindutako ariketak egin behar ditu, zelaiari birak emanez, materialik erabil gabe eta entrenatzaileak egoki dioenean amaituz.

- Jaurtiketetako rola

Jarduera honetako rolean bi azpi rol agertzen zaizkigu: atezaina eta jaurtitzailea. Ordiziako atezainak atean txandatu egiten dira, bakoitzak jokalari

guztien jaurtiketa seriea, eta jaurtitzaileak, bakoitzak bere baloia hartu eta penalty arearen ertzetik jaurtiketak botatzen dituzte. Atezainek botatzen dizkieten jaurtiketak gelditzen saiatu behar dira eta jaurtitzaileak golak sartzen. Jaurtiketa bat bota ondoren bota duen jaurtitzailea joaten da baloiaren bila ondorengo jaurtiketa egiteko.

- Partidatxoetako rolak

Futbol partidetan dituzten eskubide eta betebehar berdinak dituzte, eta betetzen dituzten azpi rolak: zelaiko jokalaria eta atezaina dira. Prestatze saioetan egiten diren partidatxoetan: bost bosten aurka, hamar hamarren aurka… zelaiko jokalari papera hartzen dute. Futbol partiden egitura berdina duten joko hauetan zelaiko jokalariak partidetan dituen eskubide eta betebehar berdinak ditu.

Prestatze saio hauetan egiten diren jardueretan ematen diren rolez gain beste rol batzuk ere azaltzen zaizkigu Ordiziako entrenamenduetan.

b. Entrenatzailea

Entrenatzailea prestatze saioetako zuzendari eta gidaria da. Berak agintzen ditu egin behar diren ariketa desberdinak eta bere ardura da entrenamenduen iraupenaren kudeaketa. Prestatze saioak izan behar duten maiztasuna ere entrenatzaileak ezartzen du.

Ordiziako prestatze saioak entrenatzaileak zuzendu eta agintzen ditu. Angelek ezarri zuen aurre denboraldia hasteko data; abuztuaren hasieran. Astean zehar egin beharreko entrenamendu kopurua eta ordua ere bere eskuetan dago. 2006-2007 denboraldirako astean 3 entrenamendu finkatu zituen. Entrenamenduen gidaria ere bada, berak adierazten die jokalariei zein eduki egin behar duten: partida, jaurtiketak, “rondoak”… Entrenamenduetan animuak ematen eta zuzenketak egiten ere aritzen da etengabe. Egun horietan, entrenamendu zelaira hurbiltzen lehena izaten da eta zelaia uzten azkena.

Ostiraleko entrenamenduaren amaieran ematen du aste bukaeran jokatuko den jardunaldirako deialdia; ordu arte, inork ez daki partida jokatzeko aukera izango duen ala ez. Deialdian 18 jokalari sartu ditzake, baino partida batzutan ezin izan dira hainbeste jokalari bildu: lesioak, zigorrak… prest egon izan diren guztiak

15 edo 16 izan dira. Deialdiarekin batera partida egunerako hitzordua ezartzen du: etxeko partidetan zelaian egoteko ordua eta kanpoko partidetan, Ordiziatik autobusean irteteko ordua.

c. Entrenatzailearen laguntzaileak

Prestatze saioak burutzeko entrenatzaileak behar duen laguntza ematea da beraien betebeharra: materiala prestatu, taldea banatzen denean zuzendu, zuzenketak egin… Ordiziako entrenamenduetan bi laguntzaile aritu dira: Botero eta Josemi.

Entrenamenduetan partida bat jokatu behar denean eta hurbildu den jokalari kopurua bakoitia denean, Botero talde batean sartzen da, jokalari kopuruan parekoa izan dadin. Bestalde, Angel entrenamenduko beroketa gidatzen ari den bitartean, Boterok aulkian eserita entrenamendu horretan jokatu behar duten partidarako taldeak egiten aritzen da. Hori noski, entrenamendu batzuetan gertatzen da, beti ez baitute partida jokatzen. Boterok, entrenamendu gutxi batzuk zuzendu ditu. Aste Santuko oporraldietan txapelketa eten zenean, Angel bere familiarekin oporretan zela, bi entrenamendu zuzendu zituen.

Bigarren laguntzailea Josemi da. Besteak baino gazteagoa, 40 urte inguru ditu eta Angel eta Botero bezala talde honetan jokalari bezala ibilitakoa da. Hau ez da entrenamendu guztietan izan. Lanak eta bere egin beharrek utzi diotenean etorri da. Entrenamenduetan bi eginkizun bete ditu: batetik beroketa gidatu eta bestetik, jokalari kopurua pareko izan dadin taldea osatu. Josemi ez da isiltzen eta beti animuak ematen aritzen da.

Taula 78: entrenamenduetako rolak eta beraien eskubide eta betebeharrak

Rolak	Eskubideak	Betebeharrak
Jokalaria	▪ Klubeko instalakuntzak eta aldagela eta dutxak erabili. ▪ Lana edo ikasketengandik entrenamendua huts egin.	▪ Entrenamendu guztiak burutu. ▪ Entrenatzaileak agindutako ariketak egin.

Rolak	Eskubideak	Betebeharrak
Azpirolak		
"Rondoa"	▪ Erdikoa: kanpokoak darabilten baloia ukitzen saiatu. ▪ Kanpokoak: baloia erdikoak ukitu gabe mantendu.	▪ Erdikoak: eskuekin ezik gorputzeko beste atalekin ukitu dezake baloia. ▪ Kanpokoak: ukitu bakar bat eman diezaiokete baloiari eta eskuekin ezik gorputzeko beste atalekin.
Beroketa	▪ Jokalariek nahi duten kidearen aldamenean joan dezakete.	▪ Zelaiari birak emanez entrenatzaileak proposatutako ariketak egin.
Jaurtiketa	▪ Atezainek atean txandatuz aritu daitezke. ▪ Jokalari jaurtitzaileek baloia jaurti dezakete.	▪ Atezainek: jaurtitako baloiak gelditu. ▪ Jokalari jaurtitzaileek atera jaurti eta ahal bada gola sartu.
Partidatxoa	▪ Partidetan ematen diren berdinak.	▪ Partidetan ematen diren berdinak.
Entrenatzailea	▪ Entrenamenduak diseinatu eta zuzendu. ▪ Asteko entrenamendu kopurua eta ordutegia zehaztu. ▪ Partidetako deialdia erabaki	▪ Entrenamenduak diseinatu eta zuzendu. ▪ Entrenamendu guztietara agertu.
Entrenatzailearen laguntzaileak	▪ Entrenamenduko ariketak burutzean jokalariei aginduak eman.	▪ Entrenatzaileari lagundu. ▪ Entrenatzailea falta denean prestatze saioak zuzendu.

11.5.7 Rolen arteko erlazioak

Futbolean ematen diren rol desberdin guzti hauen arteko elkarbizitzak ezaugarri berezia dituzten harremanak sortzen ditu: begirunezkoak, haserrez beterikoak… Rol bakoitza, dagozkion eskubide eta betebeharretaz gain, beste rolekin erlazioan jartzean, bereizgarri batzuk agerian azaltzen dira. Rolen arteko konbinazio posible guztietatik behatzean gertatu diren esanguratsuenak aztertu ditugu.

I. Partidetako rolen arteko erlazioak

Partidetan eman diren erlazioak sei ataletan banatu ditugu, ematen diren rol desberdinen arteko erlazioak egoki aztertzeko nahiarekin.

a. Entrenatzaile-jokalari

Entrenatzailea jokalarien zuzentzailea da. Berak agintzen die nola jokatu behar duten eta partidetan zein 11 jokalari aterako diren zelaira. Partida aurretik deialdian sartuko diren jokalarien zerrenda ere bere esku egoten da. Jokalariak

aginduak bete egin behar ditu eta haserre gehienak partidetan ez jokatzeagatik etortzen dira. Jokalariek partida guztiak jokatu nahi izaten dituzte, baina partida batean gehienez 16 jokalarik parte hartzen dute eta 11 bakarrik hasieratik. Bestalde jokoan gertatzen ari dena entrenatzailearen gustukoa ez bada batzutan jokalariei errieta egiteko arrazoia ere izaten da.

Ordizian, jokalari-entrenatzaile lotura horretan zenbait liskar sortu dira. Klubeko inork ez du bertako partaide izateagatik dirurik irabazten; ez zuzendaritzakoak, ez entrenatzaileak eta ezta ere jokalariek. Egoera horretan jokalari batzuk partida egunetan beste zenbait jarduera egiteko gogoa azaldu dute: lagunekin aste bukaera pasatzera joan, eskiatzera joan… Jokalariek asmo hori gauzatu dutenean, jokalari batzuk entrenatzailearekin liskarrak izan dituzte. Entrenatzailearen ustetan, partida hutseginez, beraien kide diren jokalariei eta berari errespetua falta izan diete. Angelentzako, futbol talde batean izena ematen duzunean konpromiso eta ardura zuregain hartzen ari zara eta jokalariei hau eskatzen die: ahal duten entrenamendu eta partida guztietara etortzeko konpromisoa eta denboraldia ongi betetzeko jokabide arduratsua. Jokalari batzuk partida batetara azaldu ez zirelako, iskanbila txiki bat izan zen eta ondorioz horietako jokalari bat hurrengo partidetan deialditik kanpo utziz zigortu zuen entrenatzaileak.

Angelek eta bere laguntzaile den Boterok, arazo hauei buruzko hausnarketa bat egin dute. Beraien ustetan Ordizia Kirol Elkarteko zuzendaritzakoek non egon nahi duten galdetu behar diete bazkideei eta beraien buruei; taldea sailkapenean goran edo igotzeko asmoekin ikusi nahi baldin badute, jokalariei diru sari batzuk ematea ezinbestekoa baldintza dela pentsatzen dute bi entrenatzaileak; adibidez, partidak irabazteagatik euro mordoska bat eman. Diru sari horren bidez konpromiso eta ardura eskatzea askoz errazagoa omen da; gainontzean jokalariak eskuak libre izaten omen ditu nahi duena egiteko eta entrenatzaileen agindua oinarri sendorik gabekoa izatean, jokalariak lotzea zaila gertatzen omen da. Ordiziako jokalari hauek huts egin zuten partida 0-2 galdu zuten eta emaitzak entrenatzaileak ezarri zien zigorrean eraginik izan ez zuela ukatzea zaila da.

b. Talde bereko jokalariak

Futbol talde bat beste baten kontra aritzen denean taldekideen artean kooperatu egiten da, bakoitzak dituen dohainak taldearen mesedetarako izan behar dira. Ordezko geratzen den jokalariarentzako aulkian eseri beharra gogorra gertatzen da, onartu behar izaten baitu hamaikakoan atera diren jokalariak berak baino dohain hobeak dituztela. Gatazka iturri izan daitezke baita ere jokoan zehar egindako ekintzak: pase txar bat aurkarien golaren abiapuntua izan daiteke. Jokoan gertatutakoak beraien arteko erlazioetan ere eragina dauka.

Ordiziako gorengo taldea osatzen duten jokalariak, lagunak dira. Elkarrekin parranda batzuk ere egiten dituzte inguruko herriko festatara joanez. Hala eta guztiz, haserre txiki batzuk sortu dira zenbait partidetan. Partidan zehar bakoitzak gorde behar dituen espazio eta posizioa izan da beraien arteko ika-mika iturria edo eta partida galdu ondoren aldageletan eginiko autokritika: jokalari batzuk erlaxatu egin zirela eta ondorioz galdu egin zutela. Haserre eta liskar hauek ez dira inoiz taldeko giroa okertzeraino iritsi eta beraien arteko harreman onaren seinale adibide hau: azken aurreko partidan, Azkoitian jokaturikoan, Badiolak taldea osatzen zuten kide guztiei bere ezkontzarako gonbitea banatu zien. Bera, uztailean ezkontzen zen eta taldeko partaide guztiak gonbidatuta zituen.

c. Arerio diren jokalariak

Batzutan partida bat jokatzean, bi taldeetako jokalariak, ezagunak izaten dira. Futbolari batzuk talde batean baino gehiagotan aritutakoak dira eta lehenago taldekide izan direnak orain arerio izatea gertatu daiteke. Egoera hauetan, partida hasi aurretik eta aldagelara sartu baino lehen, elkar agurtu eta kontu batzuk esan ondoren, bakoitza bere taldera bueltatzen da eta partida amaitu arte ezagutuko ez balira bezala portatzen dira.

Ordiziako futbolariak, badituzte lagunak eta ezagunak beste talde batzuetan. Jokalari batzuk hainbat taldeetatik pasatutakoak dira: Julen, Josu, Goiko… Julen atezainak partida batetan baino gehiagotan aurkitu ditu beste talde batzuetan bere taldekide izandako jokalariak. Partida jokatzeko zelaira hurbildu eta aldatzen hasi baino lehenago, elkarren artean hitz egin eta aldatzeko ordua iritsitakoan, bakoitza bere taldeko aldagelara sartu izan dira besteari zorte ona eskainiz. Une horretatik

aurrera, beraien arteko jokabidea ezezagunena izaten da: bakoitza berera, norberaren arrakastaren bila.

Partidan zehar bi taldeetako jokalarien arteko haserre eta kopetiluntzeak ohikoak izan dira eta txapelketako partida guztietan eman dira. Liskar hauen iturri nagusia jokoan zehar egindako sarrerak izan dira. Beraien artean bultzadak eta biraoak nagusi bihurtzen dira eta epaileak ahal duen bezala kontrolatzen du egoera. Horretarako araudia aplikatzen die eta txartelak erabiltzen ditu.

d. Jokalari-ikusleak

Futbol partidetan, protagonista nagusi diren futbolariez gain ikuskizuna gozatzera joan diren ikusleak ere biltzen dira. Ikusleak bere taldea animatzera joaten dira, irabazten ikustera. Ikusleak ez dute jokoan parte hartzen, zelaiko harmailetan egonik, beraien oihuak eta portaera dituzte beren taldea animatzeko tresnak. Jarrera hori ez dute bakarrik beraien taldea animatzeko egiten, beste taldearen aurka eta epailearen kontra egiteko ere erabiltzen dute. Zelaia eta harmaila arteko distantziaren arabera, jokalariek, ikusleen berotasuna gehiago edo gutxiago nabarmentzen dute. Ikusle eta jokalarien arteko liskarrak ere batzutan gertatzen dira, zaila egiten baitzaie jokalariei, hauek egiten edo esaten dituztenen aurrean itsu edo gor gelditzea.

Aurrekoaren adibide Ordiziako aldameneko zelaian gertatua. Zarauzko jokalari batek iskanbila txiki bat izan zuen Angelen laguntzailea den Boterorekin; aipatu dugu bera beste ikusle bat bihurtzen dela partidetan. Boterok, jokaldi batetan biraoak bota zizkion futbolariari eta une horretan jokalariak ez zion erantzun, baina partida amaitu bezain laster bien artean irainduz aritu ziren eta beste zenbait jokalari eta ordezkaria sartu behar izan ziren bien tartera giroa lasaitu nahian.

Ordiziakoek etxeko partidetan txaloak eta animuak jaso dituzte eta kanpoko partidetan irainak. Irain hauek aurkari bati egindako sarrera bategatik edo ikusleen ustez min hartze bat gehiegi antzezteagatik izaten dira. Zelai batzutan, Ondarroan kasu, ikusleak jokalariak ukitzeko aukera ere badute zelaia inguratzen duen eskulekua alboko marratik gertu dagoelako. Bertan jokatu zuten partidan, Ordiziako futbolariak, guztiari entzun gogor egin eta beraien jokoan sartuta egon

ziren inongo liskarrik sortu gabe. Alboko sakeetan gehienez ere metro batetara zeuden eta distantzia horretara, ikusleak urrutira esango lituzketen irainak oihukatzera ez ziren ausartzen.

Ordiziak jokatu dituen partidetan ez da bortizkeria fisikorik egon ikusle eta jokalarien artean; harreman hau kontaktu fisikorik gabekoa izan da. Eta hain agerikoa den baieztapen hau ez da ulerterraza, jokalariak ikusleen aurpegiak gogoratzeko posibilitate osoa baitute: ez dira asko izaten eta gertu ikusten dira eta partida amaitu ostean kontuak eskatzeko aukera ere bai. Gorengo Maila honetako zelaiak ez dira handiak eta harmaila txikiak dituzte; ondorioz biraoka ibiltzen diren ikusleak zaila izaten dute jende multzoan oharkabeki pasatzea.

e. Entrenatzaile-ikusleak

Entrenatzaileak duen arduraren ondorioz ikusleen txalo, animu edo txistu eta irainak ikusleengandik jasotzea ohikoa izaten da. Etxean jokatzen dutenean animuak, jokalariei ematen zaizkienak baino xumeagoak izaten dira eta kanpoan jokatutakoan txistuak eta irainak ere apalagoak.

Angelek etxean jokatutako partidetan ez du izan bera goraipatzeko edo gutxitzeko moduko txistu edo txalorik. Ordiziako ikusle eta entrenatzailearen arteko harremana begirunezkoa izan dela esan daiteke. Kanpoan jokatu diren partidetan ikusleengandik irainak jaso izan ditu, baina Angelek entzun gogor eginez uxatu ditu mehatxu horiek.

f. Epaile talde-ikusleak

Erlazio honetan ematen dira futbol zelaietan gertatzen diren liskar handienak. Epaileak araudia aplikatu behar du eta jokaldi guztietan zentzu guztiak egoki jarri behar ditu gertatu dena egoki epaitzeko. Epailea etxean jokatzen duen taldeak ateratzen duen emaitzaren menpe dago: emaitza aldekoa bada ikusleak jarrera ona dute epaile taldearekin, baina etxeko taldea partida galtzen badoa, arbitroa eta marrazainak ikusleen diana bihurtzen dira taldearen porrotaren erantzule bihurtuz.

Ordiziak etxean jokatu dituen partidetan ere horrelaxe gertatu da. Txapelketako partida gehienetan izan dira txistuak eta irainak epaile

taldearentzako, baina indartsuenak Ordiziak partida galtzen joan denean izan dira. Ordiziak kanpoan jokatutako partidetan berdina gertatu da. Aloña Mendiren aurkako partidan Ordiziak 3-3 berdindu zuen eta epaile taldea Oñatiko ordezkariak babestu behar izan zuen aldagelara sartzeko unean. Ikusle batzuen portaera beldurgarria izaten da, irainak eta oihuak edozein ikaratzeko modukoak izanez.

g. Ikusleen artean

Bi talde partida batean neurtzen direnean talde hauen jarraitzaileak ere biltzen dira ikusle gisa. Sarritan ikusleen artean ere liskarrak gertatzen dira. Begi bakoitzak desberdin ikusten duen bezala ikusle bakoitzak jokaldiak eta epailearen erabakiak bere modura jasotzen ditu.

Gorengo Mailan egin dugun azterketa honetan ez dugu behatu ikusleen arteko liskar handirik. Ordiziak Hondarribiaren eta Aretxabaletaren aurka etxean jokatu zituen partidetan herri horietatik Ordiziara hurbildutako jarraitzaile eta Ordiziako ikusle batzuen artean ika-mika batzuk izan ziren, jokalarien min hartze eta sarrera batzuen kontura. Gainera ikusleak kasu horietan Ordiziako jokalariak ziren, min hartuta edo zigortuta zeudelako partidara ikusle bezala joandakoak. Ordiziak kanpoan jokatu dituen partidetan jarraitzaileak izan ditu baino hauen eta etxeko taldeko ikusleen artean ez da aipatzeko liskarrik sortu.

II. Entrenamenduetako rolen arteko erlazioak

Entrenamenduetan rolen arteko erlazioa entrenatzaile eta jokalarien artekora mugatzen da. Entrenamenduetan ez dago aurkaririk, epailerik edo ikuslerik; entrenatzailea, bere laguntzaileak eta taldeko jokalariek osatzen dute entrenamenduetako harremanen multzoa.

Ordiziak egin dituen entrenamenduetan rolen arteko harreman ona aipatzekoa izan da. Hala eta guztiz, batzuetan elkarren arteko tentsio uneak sumatu dira. Entrenamendu batetan bi jokalari kopetilundu egin ziren batek besteari baloia pasatzen ez ziola eta. Beste egun batetan jokalari batek jokaldi batean egin zuen sarrera baten ondoren, bi futbolariak haserretu eta entrenatzaileak baretzeko esan zien. Ika-mika hauek ez dira gehiagora joan eta une horietan bertan konpondu dira. Angel eta jokalari batzuen artean ere izan zen

liskar txiki bat, hauek partidara joateko agindua bete ez zutenaren ondorioz, entrenamendu batean taldetik banatu eta beraiei kontuak eskatzen aritu zenean.

11.5.8 Joko arau hausteen ondoriozko zigorrak

Futbol jokoak dituen arauak haustean ezartzen diren zigorrak aipatzen ditugu, jakinik partidetan futbol jokoan bakarrik aritzen direla eta prestatze saioetan egitura desberdineko praktikak burutzen dituztela.

I. Partidetan

Futbol jokoko arau hausteentzat zigorrak adierazten ditu araudiak. Futbol arauak salbuespenen bat medio (eskuekin baloia ezin dela ukitu), ez dute adierazten futbolariaren ekintzak nolakoak izan behar diren: baloia nola gidatu, eraman edo gola nola sartu behar duen ez dute adierazten. Era horretan ekintza burutzen duten futbolariei aukerak ematen die beraiek nahi duten bezala joko ekintza burutzeko. Baina aukera hori emateak ez du esan nahi arauak bete behar ez direnik, eta betetzen ez direnerako zigorrak adierazten dira. Jokoan zehar gertatzen diren arau urratze hauek kontrako falta jaurtiketekin zigortzen dira, hauek jaurtiketa zuzen, ez zuzen eta penaltietan banatuz.

Jokalari batek arerioari ostiko bat, zangotraba, gainera jauzi, kolpatu edo bultzatu ezkero aurkako taldeari jaurtiketa libre bat ematen zaio. Era berean, jaurtiketa libre zuzen bat ematen zaio aurkako taldeari, jokalari batek baloiaren jabetza lortzearren arerio bati sarrera egiten badio, baloia baino lehenago bera joaz. Baita ere arerio bati eutsi, txistua bota edo baloia eskuekin nahita jo ezkero. Atezaina bere penalti arean zigor honetatik kanpo geratzen da. Aurreko adibide guztietako bat norberaren penalti arean gertatzen bada aurkako taldeari penaltia ematen zaio, jaurtiketa libre zuzena penalti puntutik jaurtiz.

Aurkako taldeari jaurtiketa libre ez zuzen bat ematen zaio, arbitroaren iritziz jokalari batek modu arriskutsuan jokatzen badu, arerio baten aurreratzea oztopatzen badu edo atezainari eskuekin ateratzen uzten ez badio.

II. Entrenamenduetan

Arau hausteen ondorioz partidetan ezartzen diren zigorrak entrenamenduetan ez dira zorroztasun berdinarekin aplikatzen. Gainera zigor hauek futbol jokoan gertatzen diren arau hausteei dagozkie eta entrenamenduetan araudi desberdina duten beste hainbat ariketa eta praktika egiten dira.

Entrenatzaileak futbolaren egitura berdina duten jokoak proposatzen dituenean, futbolaren araudi berdina aplikatzen da, baina sarritan, arbitro lana betetzen duen Angel entrenatzaileak, arau hauste baten aurrean ez ikusia egiten du eta jarraitzeko esaten die jokalariei. Ordiziako entrenamenduetan ohikoa izaten da arau hausteengatik partidetan baino etenaldi gutxiago gertatzea, alegia, arau hauste gutxiago ematen direla entrenamenduetan, edo eta arau hausteak ez direla adierazten. Ordiziako entrenamenduetan aipatu ditugun bi kasu horiek ematen dira eta zigorrak ere gutxiago izaten dira, nahiz eta batzutan Angelek zigorra izan daitekeen jaurtiketa librea errepikatzeko agindu. Errepikapen hau partidari begira jaurtiketa libreak hobetu nahian egiten da.

11.5.9 Praktikako gertakizunen idatzia

Partidetan eta entrenamenduetan gertatzen dena erregistratzen den edo idatzi gabe uzten den azaltzen dugu jarraian.

I. Partidetako akta

Txapelketako futbol partida bakoitzean gertatzen diren gorabeherak eta gertakizunak aztertzeko, kalifikatzeko eta zigortzeko, beharrezkoa gertatzen den dokumentua akta da. Arbitroa da betetzearen arduraduna eta bertan zehaztu behar ditu: partida jokatzen den eguna eta ordua, zelaiaren izena, parte hartzen duten klub edo kirol elkarteen izenak eta txapelketa mota. Elkarrekintzari dagokion informazioa ere idatzi beharko du: hasiera batetik parte hartzen duten jokalari titular eta ordezkoen izenak, bakoitzak daraman zenbakia zehaztuz, eta entrenatzaileen, laguntzaileen, klub edo kirol elkarteetako ordezkarien, bai partidakoak bai zelaikoak, marrazainen izenak eta baita berea ere. Partidan ematen den emaitza eta golak egon badira hauek sartu dituzten jokalarien izenak

ere akta horretan idatzi beharko ditu. Eta izandako jokalarien ordezkatzeak ere bai, zein minututan eman diren zehaztuz.

Epaileak norbaiti kargu hartu badio edo kanporatu, hori ere adierazi behar du, gertatutako minutua aipatuz. Zelaitik kanpo edo kirol instalakuntzetan zerbait sumatu baldin badu ere aktan idatzi behar du eta bete beharreko baldintzak kontutan izanik zelaian edo instalakuntzetan behatutako akatsak ere bai.

Partida hasi baino lehen, akta bete eta hori egin ondoren bi kapitainek eta bi entrenatzaileek sinatzen dute. Partida bukatu eta gero, gainontzeko ataletan zehazten diren xehetasun guztiak osatzen dira eta arbitroak eta partidan parte hartutako klub eta kirol elkarteetako ordezkariek sinatzen dute. Akta originala antolatzaile den federazioarentzako izaten da eta kopiak partidan parte hartutako bi klub edo kirol elkarteentzat eta dagokion arbitro batzorde teknikoarentzat.

Taula 79: akta; gertakizunen idatzia

Idatzian jaso beharreko informazioa
▪ Partida jokatzen den eguna eta ordua.
▪ Zelaiaren izena.
▪ Parte hartzen duten kirol elkarteen izenak.
▪ Txapelketa mota.
▪ Hasiera batetik parte hartzen duten jokalari titular edo ordezkoen izenak, bakoitzaren zenbakia zehaztuz.
▪ Entrenatzaileen, laguntzaileen, klub eta kirol elkarteko ordezkarien, marrazainen eta arbitroa beraren izenak.
▪ Izan diren jokalari ordezkatzeak, minutuak zehaztuz.
▪ Norbaiti kargu hartu edo kanporatu badu eta izandako minutua.
▪ Zelaitik kanpo edo instalakuntzetan zerbait sumatu baldin badu.
▪ Partida amaitu ondoren izandako emaitza eta dagozkion datuak: golak, minutuak…

Iturria: (Euskal Futbol Federazioa)

Ordiziako taldean txapelketan zehar partida hasterako kapitainak eta entrenatzaileak sinatu dute akta. Entrenatzailea beti Angel izan arren (azkeneko partidan ezik), kapitaina aldatzen joan da, jokalari desberdinek sinatuz akta. Partida amaieran eta arbitroak akta guztia beteta izan duenean Sebasek, Ordiziako ordezkariak sinatu du akta partida guztietan. Aktaren kopia Sebasek berak jaso izan du partida amaitu ondoren. Akten erredakzioari buruz 2006/2007 denboraldi honetan Ordizia Kirol Elkarteak ez du erreklamaziorik burutu.

II. Entrenamenduetan jaso gabeko gertakizunak

Partidan ez bezala Ordiziako entrenamenduetan ez dago gertakizunak jasotzen dituen liburu edo aktarik. Prestatze saioetan ez dago epailerik eta partidak zuzentzeko lana egiten duen Angelek, ez du idazten edo apuntatzen entrenamenduetan zein jokalarik osatu duten taldea edo zein egoeratan dagoen zelaia. Entrenamendu guztiak etxeko zelaietan egiten dira eta memoriarik gabekoak dira; egiten diren jardueretako hitzarmena eta gertakizunak jasotzen dituen eskriturarik ez da behar.

11.5.10 Komunikazio motorra

Futbol jokoa talde bat beste baten aurka aritzean datza; futbol partida talde duelu bat da. Talde berean dauden jokalariak beraien artean elkar lanean aritu behar dute garaipena lortu nahian eta aurkako taldeko jokalariekin oposizioko harreman bat dute. Une berean jokalari bakoitzak harreman mota bat izan dezake, hau da, arerio edo kidea da eta ez kidea eta arerioa; egituraren ezaugarri horri esklusiboa deitzen diogu. Bestalde jokalariak duen harreman mota joko guztian zehar mantendu egiten da; futbolari bat partida guztian zehar bere kideekiko kide da eta arerioekiko arerio. Bigarren ezaugarri honi iraunkorra deitzen diogu. Futbolean ematen den komunikazio mota beraz esklusibo iraunkorra da. Jokoan bi komunikazio mota hauek ageri dira: lankidetza eta oposizioa. Komunikazio mota hauek ez dira hitzezkoak, futbolean jokatzeko ez dago hitzen beharrik, motorrak dira, eta aurrez aipaturikoa ekintza motorren zientziaren terminologia erabiliz, esan genezake futbolean komunikazio eta kontra-komunikazio motorrak ematen direla (Parlebas, 2001).

Komunikazio eta kontra-komunikazio hau bi eratara ematen da: zuzena eta ez-zuzena. Zuzenekoa, pase, jaurtiketa, bultzakada edo ukituen bidez gertatzen da: jokalari batek bere kideari pase bat eman edo arerioari baloia lapurtzeko zangoa sartu. Komunikazio ez-zuzena "gestemak" eta "praxemak" osatzen dute. "Gestemak" (Parlebas, 2001, 238), orotariko gorputz keinuak dira: eskua altxa baloia eskatzeko, hatzekin adierazi falta bat nola jaurtiko den… "Praxemak" (Parlebas, 2001, 349), berriz norberarentzako esanahi desberdina hartu dezaketen jokabideak osatzen dute: esprint txiki bat egin bestaldeko kideak baloia pasa arazteko, atzeraka bira egin gero aurrerantz irten eta kideak aurrera pasatutako baloia jasotzeko… "Praxemei" jokalari bakoitzak esanahi desberdina eman diezaioke; horrela, jokabide bat egiten da kideek esanahi bat emateko, hori benetako mezua izanik, eta arerioak kontrako esanahi bat eman diezaion. Jokoan zehar egiten diren engainu, guztiak ezaugarri hau betetzen dute.

Izan ere, futbola bi taldeen arteko elkarrekintzan egiten diren zeinuen irakurketan eta interpretazioan oinarritzen da. Kideen artean, taldeko kodeak ondo ezagutu behar dira, irakurketa horri esanahi egokia eman ahal izateko. Arerioei zeinua ezkutatu eta irakurketa eta interpretazioan engainatu egin behar zaie. Futbolariak harreman sozialetan dihardute, arerioen jokabide zeinuen kodea asmatu eta norberaren jokabide zeinua ezkutatu eta kode egiten duten bitartean. Ordiziako jokalaria den Luziok, baloia oinetan duenean, aurrean dituen arerioei okerreko intentzioa adierazten saiatzen da, engainatzen, eta horretarako portaera motor bat erabiltzen du. Jokaldi berean kide den Mikelek portaera motor horren "praxema" ulertzen du eta Luziok pase luzea eman nahi duela esanahia eman eta korrika egin ondoren, aurrez interpretatu bezala, pasea jasotzen du. Zeinu motorren irakurketa eta interpretazio honi "semiotrizitatea" deitzen zaio (Parlebas, 2001, 406).

I. Partidetan

Ordiziak jokatu zituen partidetan komunikazio zuzena berehalakoan edozein ikusleek behatu zezakeen; Badiolak Mikeli emandako pasea edo Mikelek Litriri egindakoa kooperaziozko komunikazioaren adibide izan daitezke. Aldiz,

Egoitzek arerioari moztutako pasea edo Julenek gelditutako baloia oposiziozko komunikazioan emandako harremanak dira.

Komunikazio ez-zuzena behatzen zailagoa da. Keinuak berehalakoan ikusi zintezkeen: Revilla eskua altxatuta baloi eske, bakarrik zegoela adieraziz edo Luzio izkinako sakea ateratzerakoan hiru hatz bere kideei erakutsiz. Ordiziak ateratako korner batzutan, Badiola lehen zutoinera korrika joaten zen Luziok kornerra bigarren zutoinera bideratu eta han Mikelek errematatzeko. Lehen zutoinerantz Badiolaren korrikaldia komunikazio ez zuzenaren adibide argia da; taldekideek kodea ezagutzen dute eta arerioak deskodifikatzea lortu behar dute abagune hori ez gertatzeko.

II. Entrenamenduetan

Ordiziak burutu dituen entrenamenduetan partidetan ematen den harreman egitura eta komunikazio motorretaz gain beste erlazio modu batzuek dituzten jarduerak eta ariketak egiten dira. Ohiko prestaketa saio baten azterketan ohartzen gara harreman egitura desberdin horietaz.

Entrenamenduak “rondo” bat eginez hasten dira. “Rondoan” erdian dagoenak denak arerioak ditu eta kanpoan daudenak beraien artean kideak dira eta erdikoa arerio dute. Futbol jokoa ez bezala harreman egitura esklusibo ezegonkorra da: jokoak dirauen bitartean harremanak aldatzen doaz; erdian dagoena denen arerioa da, baina kanpora pasatzean lehen arerio zirenen kide bihurtzen da.

“Rondoaren” ondoren Ordiziako prestatze saioetan beroketa egiten dute. Beroketan ariketa desberdinak egiten dira baino guztiek komunikazio motor arloan duten ezaugarria berdina da: komunikazio eza; denak psikomotorrak dira (Parlebas, 2001, 371). Futbolari bakoitzak bere jarduera edo ariketa burutzen du beste inorekin elkarrekintzan jardun gabe. Beroketaren ondoren jaurtiketak egiten dituzte. Ohiko jaurtiketak, jokalari bakoitzak bere baloia hartu eta penalti area ertzetik atera egindakoak dira. Atezainak kokatzen da atean. Atezain horren eta jaurtitzailearen artean oposiziozko harreman bat ematen da, kontra komunikazioa; erlazio egitura esklusibo iraunkorra da, harreman mota bat izan baitezake une berean eta harreman hori jokoak irauten duen bitartean mantendu egiten baita.

Entrenamenduak amaitzeko burutzen diren partidatxoen komunikazio egitura partiden berdina da: talde bat beste talde baten aurka; kideen arteko kooperazio eta arerioen aurkako oposizioan oinarritzen den talde duelu bat. Entrenamenduetako talde duelu hauek batzutan disimetrikoak izaten dira jokalari kopuruari dagokionez: adibidez talde batean 9 jokalari eta bestean 10 egonez.

Aipatu ditugun horietaz gain entrenamenduetan beste ariketa batzuk ere burutzen dira. Hori entrenamenduen adibide bat besterik ez da. Burutzen diren beste jarduera batzuk ere entrenamenduetan harreman egitura desberdinak egiten direla baieztatzen digute, adibidez: baloia elkar pasatuz jokalariek eginiko kooperaziozko jarduerak edo jokalari bat komodin bezala sartuz -baloiaren jabetza duen taldekoa izaten da- eginiko partidatxoak.

11.5.11 Markako elkarrekintza

Markako elkarrekintza, kirol jokoaren helburu kodifikatuak lortzeko beharrezkoak diren komunikazio edo kontra-komunikazio motorrean datza eta tanto edo estatus soziomotore aldaketan balioztatutako estatutu ludiko bat dauka (Parlebas, 2001, 267). Kasurik ikusgarrienean puntuak bilduz jokatzen den joko batean, markako elkarrekintza markagailuan aurrera mugitzeko kontuan hartzen da. Hori da futbolaren adibidea: baloiak ateko marra gainditzen duen bakoitzean hori lortu duen taldeak markagailuan aurrera egiten du unitate bat gehiago izanez. Markako elkarrekintza lortutako bakoitzean, tanto bat gehitzen da markagailura eta tanto gehien lortzen duen taldeak partida irabazten du marka bat lortuz. Futbolean ematen diren markako elkarrekintzei gola deitzen zaie.

Markagailura igotzen den elkarrekintza harreman hau futbolean antagonista da: tantoak lortzeko harremana oposizioan oinarritzen da, aurkarien atean gola sartzea oposiziozko harreman bat da. Futbolean ez da tantorik markagailura igotzen kideei paseak ematean; edo beste era batera esan da, kolaboratzeagatik ez da markagailua aldatzen. Aurkarien zelaiko ateko marra gainditu behar du baloiak.

I. Partidetan

Gipuzkoako Gorengo Mailako txapelketan, markako elkarrekintzak, golak, memorian gordetzen dira. Sailkapenean adierazten dira jardunaldi bakoitzaren ondoren, ordu arte lortu eta jasotako golak.

Taula 80: Gorengo Mailako taldeen markako elkarrekintzak (golak)

Taldea	Aldekoak	Kontrakoak
Zarautz K.E.	58	27
Hernani C.D.	67	42
Zestoa K.B.	50	40
Aretxabaleta K.E.	43	30
Ordizia K.E.	43	36
Berio F.T.	52	42
Mondragon C.F.	50	40
Trintxerpe C.D.	50	46
Anaitasuna F.T.	41	33
Touring C.D.	44	45
Aloña mendi K.E.	44	54
Idiazabal K.E.	40	62
Aurrera de O. C.D.	34	46
Hondarribia F.E.	34	43
Pasajes C.D.	50	71
Mutriku F.T.	39	49
Martutene K.E.	41	57
Urola K.E.	30	47

Gorengo Mailan markako elkarrekintza gehien lortu dituen taldea Hernani izan da 67 lortuz. Ondoren Zarautzek eta Beriok jarraitzen diote 58 eta 52 lortuz. Aurkakoengandik gutxien jaso dituztenak urrenez urren berriz Zarautz 27rekin, Aretxabaleta 30ekin eta Anaitasuna 33rekin. Txapelketa irabazi duen Zarauzko

taldea, bigarren dago sartutako markako elkarrekintzetan eta lehenengo jasotakoetan.

Taula 81: puntuen eta markako elkarrekintzen araberako sailkapenak

Puntuen araberako sailkapena					Markako elkarrekintzen araberako sailkapena		
P1	**TALDEA**	**AME**	**KME**	**ALD**	**P2**	**TALDEA**	**ALD**
1	Zarautz K.E.	58	27	31	1	Zarautz	31
2	Hernani C.D.	67	42	25	2	Hernani	25
3	Zestoa K.B.	50	40	10	3	Aretxabaleta	13
4	Aretxabaleta K.E.	43	30	13	4	Zestoa	10
5	Ordizia K.E.	43	36	7	5	Berio	10
6	Berio F.T.	52	42	10	6	Mondragon	10
7	Mondragon C.F.	50	40	10	7	Anaitasuna	8
8	Trintxerpe C.D.	50	46	4	8	Ordizia	7
9	Anaitasuna F.T.	41	33	8	9	Trintxerpe	4
10	Touring C.D.	44	45	-1	10	Touring	-1
11	Aloña Mendi K.E.	44	54	-10	11	Hondarribia	-9
12	Idiazabal K.E.	40	62	-22	12	Aloña Mendi	-10
13	Aurrera de O. C.D.	34	46	-12	13	Mutriku	-10
14	Hondarribia F.E.	34	43	-9	14	Aurrera de O. C.D.	-12
15	Pasajes C.D.	50	71	-21	15	Martutene	-16
16	Mutriku F.T.	39	49	-10	16	Urola	-17
17	Martutene K.E.	41	57	-16	17	Pasajes	-21
18	Urola K.E.	30	47	-17	18	Idiazabal	-22

Ikurrak:
- P1 - sailkapenean atera duen postua.
- P2 - sailkapenean aterako lukeen postua.
- TALDEA - taldearen izena.
- AME - aldeko markako elkarrekintza.
- KME - kontrako markako elkarrekintza.
- ALD - markako elkarrekintzen diferentzia

Sartutako eta jasotako markako elkarrekintzen arteko diferentzia aterata -sartutakoei jasotakoak kendu-, azken taula honetan ikusten den bezala beste sailkapen bat egin dezakegu. Puntuekin egindako sailkapenaren antzeko geratzen da, lehenengo lau postuetan talde berdinak gelditzuz eta bakarrik 3. eta 4. postuan Aretxabaleta eta Zestoa elkar txandakatuz. Klasifikazio honetan Ordiziak atzera egiten du, 5.etik 8.era pasatuz. Atzeko postuetan aldaketa handiak daude: markako elkarrekintzen arteko aldean diferentziarik kaskarrena duena Idiazabal da minus 22rekin, baina talde hau puntukako sailkapenean 12. atera da eta ez da Erregionalera jaitsi. Azken 5 postuetan agertzen diren taldeetatik 3 jaitsi egin dira.

Taula honetan adierazten da ateko marra, irabazle eta markako elkarrekintzaren arteko erlazioa. Baloiak ateko marra gainditzen duenean markako elkarrekintza bat gertatzen da eta markako elkarrekintza gehien lortzen dituen taldeak irabazi egiten du. Txapelketan zehar puntu gehien irabazi dituztenak ere markako elkarrekintza gehien lortu dituzte eta lortutako eta jasotakoen arteko diferentzia handiena dute.

Ordizian markako elkarrekintza gauzatzea jokalari batzuk bakarrik lortu dute. Taldeko 7 jokalarik txapelketan zehar markako elkarrekintza bat erdietsi dute, eta gehien egin dituena Irastortza izan da 9rekin eta hurrengoa Luzio 8rekin.

II. Entrenamenduetan

Entrenamenduetan ere ematen dira markako elkarrekintzak, baina egitura desberdinak dituzten jarduerak burutzen dituztenez markako elkarrekintzarik gabeko ariketak ere egiten dira. Egitura desberdina duten jarduera horietako ezaugarriengatik txapelketan ematen diren markako elkarrekintzen aldean, prestatze saioetan ematen diren markako elkarrekintzak desberdinak dira.

Ohiko entrenamendu bat hartzen badugu eredu bezala eta bertan egiten diren jardueren markako elkarrekintzak aztertu, emaitza anitza izaten da. Ordizian prestatze saioak “rondo” batekin hasten dira. Egiten dituzten “rondoetan” markako elkarrekintza erdikoak baloia ukitzean lortzen da; orduan aldatzen dira rolak eta erdikoa kanpokoa izatera pasatzen da eta kanpokoa zirkuluaren erdian kokatzen da. “Rondoan” ematen den markako elkarrekintza hau antagonista da. Baina borobilean jarrita daudenak 10 pase egiten badituzte “bizitza” bat jasotzen dute,

kasu horretan markako elkarrekintza kideari egindako pasea izanez eta harreman mota hori kooperaziozkoa. “Rondoan” gertatzen diren markako elkarrekintzen memoriarik ez da gordetzen, ez baitira kontatzen lortutako markak.

Ondoren egiten den beroketak ez du markako elkarrekintzarik. Bakoitzak bere ariketa egiten du, jarduera psikomotorrak dira eta ez dago komunikazio motorrik. Gero jaurtiketak egiten dituzte, hauetan markako elkarrekintza gola da, antagonista izanez harreman mota hori.

Eta azkenik entrenamendu gehienak futbol partidatxoekin amaitzen dira. Partidatxo hauetan markako elkarrekintza gola izaten da eta erlazio hori antagonista, baino partidekin alderatuz gol horiek ez dira kontatzen eta gordetzen. Entrenatzaileak ez du eramaten entrenamenduetako gol kopurua eta nortzuk sartu dituzten idatzita.

11.5.12 Kargako distantzia eta lesioak

Futbol jokoan, jokalarien arteko harremanetan kontaktu fisikoa etengabe gabe ematen da: buruz baloia jo nahian jauzi batean, baloia berreskuratu nahian, oina edo hanka sartzean, falta jaurtiketa baten aurrean jartzen den hesian… Kontaktu fisiko hauen ondorioz jokalariek batzuetan min hartzen dute; eta min hori lesio bihurtzen da jokalari horri partida edo entrenamenduak galarazten badizkio. Lesio hauek bere bizitza arruntean ere eragin dezakete, lanera joan gabe geratuz edo eguneroko bizitza egiteko arazoak handituz.

Lesio eta min hartze hauek, futbol partida batean jokalarien artean ematen den kontaktu fisikoari buruzko kontzeptu batekin lotu ditzakegu: kargako distantzia. Kirol joko batean, jokalari batek pilota daukan beste jokalari baten aurka egiten duenean, bien artean gordetzen den aurka egite motore distantzia (Parlebas, 2003, 182). Objetiboki behatu daitekeen distantzia hau talde dueluen ezaugarri bat da eta distantzia txikiagoa den heinean bortizkeria maila handitu egiten da. Futbola kargako distantzia hau txikia duten talde kiroletan sartzen da. Futboleko araudiak batzutan jokalarien arteko kontaktua debekatu edo mugatu egiten du. Modu horretara errugbian baina kargako distantzia handiagoa ematen da, baino tenis

edo boleibolean baino txikiagoa; futbolean aurka egitea jokalarien gertuko espazioan ematen da.

I. Partidetan

Jokoan jardutearen ondorioz eta gertatzen diren kontaktu fisikoen bidez, lesioak eta min hartzeak sarritan gertatzen dira futbol partidetan. Lesio eta min hartze hauen ondorioetaz babesteko jokalariek Espainiako Futbolarien Gizarte Aurreikuspen Mutualitatearen laguntzak jasotzeko eskubidea dute, beti ere kuotak egunean baldin badituzte. Baita erantzukizun zibil motako aseguru bat ere.

Ordiziako futbol taldean ere min hartzeak eta lesioak egon dira: Julenek, aurkariak egindako sarrera baten ondorioz, esku batetako bi hatz apurtu zituen; ondorioz, hilabete bat jokatu gabe pasatu zuen. Horren ondorioz bere lan profesionalean ez zuen oztoporik izan, nahiz eta ordenagailuan aritu. Revillak ere, partida batean jasotako kolpe baten ondorioz, belauneko lotailuak bihurritu zituen eta honek txapelketako azken partea galtzea eragin zion; ikasketetan zebilen eta bere eguneroko jardunean berdin jarraitu zuen. Letek, arerio batekin egindako jauzi batetan sorbaldako lotailuak bihurritu zituen eta hau ere txapelketako azken partean jokatu gabe egon da. Hauez gain, beste zenbait bihurritu ere izan dira, beti ere kontaktu fisikoen ondorioz eratorriak.

II. Entrenamenduetan

Entrenamenduetan, kargako distantzia egiten dituzten talde dueluetara mugatzen da. Baina txapelketako partidekin alderatuz sarreren bortizkeria maila baxuagoa da prestatze saioetan. Ordiziako entrenamenduetan partidetan baino min hartze eta lesio gutxiago izan dira. Gainera kontutan izan behar da partidatxoez gain beste hainbat ariketa burutzen direla, eta jarduera horietatik sortzen diren lesioak ez direla kontaktu fisikoagatik izaten.

11.5.13 Talde identitatea

Futbol talde bat osatzen duten jokalariek taldearekiko lotzen dituzten zeinuak eta, era horretan, beraien talde identitatea nola eraikitzen den ere

azaltzen zaigu ordiziarren jardunean. Horretan ere partida eta entrenamenduak bi errealitate desberdin dira.

I. Partidak eta taldearekiko identifikazioa

Aurrez aipatu bezala partida bat bi taldeen arteko duelu bat da. Talde bakoitzeko kideak batu egin behar dira arerioei aurre egiteko. Taldea osatzen duten jokalari guztiak desberdinak izaten dira, hamaika jokalari beste hamaika jokalariren aurka, lehenengotik hasi eta hamaikagarreneraino; taldeko aniztasuna, helburu bat lortzeko. Talde horretako identitatean sendotzeko jokalariek ekintza desberdinak egiten dituzte. Garaipena lortzeko dena da beharrezkoa eta Ordiziako jokalari, entrenatzaile, ordezkari eta laguntzaileak, partida guztien hasieran, beroketa amaitu eta zelaira irteteko garaia heltzen denean, aldagelan borobilean bildu eta elkarren eskuak bata bestearen gainean jarriz Ordiziaren aldeko oihuak botatzen dituzte: “Ordizia euh, Ordizia, euh, Ordizia euh!” Denak batera etsaiaren aurka, partida jokatzeko taldearen borondatea indartuta.

II. Entrenamenduak

Txapelketako partida guztien hasieran bete den erritual hau ez da entrenamenduetan ematen. Jokalariak aldagelara iritsi ahala aldatzen joaten dira eta banaka ailegatzen dira prestatze saioko zelaira. Aldageletan ez dago bestea garaitzeko ezer berezirik egin beharrik, bestea talde bereko kidea baita. Prestatze saioak hasi baino lehenago jokalariak beraien artean borobil txikiak osatuz aste bukaerako parranda edo bezperan telebistan emandako partida komentatzen aritzen dira.

11.5.14 Partidetan eta entrenamenduetan erabiltzen den hizkuntza

Aipatu dugu futbolean jokatzeko hitzezko komunikazioa ez dela beharrezkoa, baina honek ez du esanahi jokalariak hitz egiten ez dutenik. Egunerokoan hitza, jarduera eta une guztietan agertzen da. Ordizian, jokalari guztiek zekiten euskaraz eta gazteleraz. Beraien artean sarritan euskaraz aritzen ziren, baina entrenatzailearekiko harremana gazteleraz mantentzen zuten. Angelek beti gazteleraz hitz egiten zuen, ez baitzuen euskara ongi menperatzen.

Boterok eta Josemik ere gazteleraz hitz egiten zuten. Partidetan eta entrenamenduetako azalpen guztiak ere gazteleraz izaten ziren.

Jokalariak elkar deitzeko izenak, izengoitiak eta abizenak erabiltzen zituzten. Batzuk izengoitia zuten (Tete, Joka, Litri edo Piti), beste batzuk abizenez deitzen ziren (Revilla edo Badiola); eta izenez ere bai (Egoitz, Iñaki, Josu…) Entrenatzaileen artean Botero izengoitia zen eta Angel eta Josemi izenez deitzen zituzten.

11.5.15 Futboleko harremanak: talde duelua partidetan, egitura anitzetako jarduerak entrenamenduetan

Futbolean ematen diren harremanen azterketa honetan agerian geratu zaigu espazioa eta denboran jadanik antzeman den partida eta entrenamenduen arteko desberdintasuna. Partidak talde duelu harreman egituran jokatzen dira, talde bakoitzeko futbolariek beraien artean kooperatuz eta aurkarien kontra oposizioan arituz. Horretarako federazioak igortzen duen lizentzia beharrezkoa da, baimen horrek jokalariei eskubide eta betebehar batzuek ematen dizkielarik. Partidetan araudia bete arazteaz epaile talde bat arduratzen da, partidak dirauen bitartean egindako arau hausteen ondorioz dagozkion zigorrak ezarriz talde edo jokalariei. Arbitroaren erabakiak partidak ikustera doazen ikusleak txalotu edo iraintzen dituzte. Ordiziako 11 jokalari beste 11 jokalariren aurka arituz talde identitatea indartzen saiatzen dira, denak elkarturik taldearen izena abestuz lehia horretan irabazle izateko.

Entrenamenduak talde dueluko harreman egitura izatera ez dira mugatzen. Egitura hori duten partidatxoekin batera beste egitura batzuk dituzten jarduera fisikoak ere egiten dira. Prestatze saio horietara entrenatzailearen baimena duen edonor joan dezake, federazioko fitxarik ez duena barne, egitura aldaketari eta proposatzen diren ariketa anitzei esker jokalari berdinak kideak eta arerioak izan daitezkelarik entrenamendu berdinean. Bertan izaten diren gertakizunak ez dira gordetzen eta ondorioz epaile beharrik ez da izaten.

Harremanak aztertu ondoren entrenamendu eta partiden arteko banaketa areago argitu zaigu, jadanik sumatu dezakegularik bi errealitate sozial hauen

egitura formala. Hori behatu ahal izateko futbolean materialarekin gertatzen den erlazioa aztertzea gelditzen zaigu.

11.6 Futboleko objektuak

Futbolean jokatzeko baloia beharrezkoa da. Taldeen arteko aurre egitearen arma da baloia eta lehiaren objektu preziatua, garaipena lortzeko aurkarien atean sartu beharrekoa. Baina futbolean materialekiko mantentzen den erlazioa urrunago doa, baloiaz gain beste hainbat objektu erabiltzen direlarik: oinetakoak, berna hezur babesleak, eskularruak… Futbolak gizartean hartzen duen esanahia aztertzeko, beharrezkoa egiten zaigu objektu guzti hauek aztertzea, bakoitzari buruz dagoen araudia, ematen zaion erabilpena eta sortzen dituen egoerak azalduz.

11.6.1 Baloia

Baloiak partidetan bete behar dituen ezaugarriak eta entrenamenduetan hartzen dituen berezitasunak azaltzen dira atal honetan.

I. Partidetako baloiak

Gorengo Mailako txapelketako partidak jokatzeko baloiak borobila eta larruzkoa edo beste material egoki batez eginikoa izan behar du, bere zirkunferentzia 68 eta 70 zentimetro bitartekoa izanez eta partida hasieran 410 eta 450 gramo artean pisatuz. Presioa berriz, atmosfera bat eta erdiaren artekoa izaten da. Gipuzkoako Gorengo Mailako txapelketan, partida jokatu behar den zelaiaren titularra den klub edo kirol elkartekoek, arbitroak behar den bezala kontrolatuta dituen honelako hiru baloi eduki behar ditu prest jokorako. Partida bat jokatzen ari diren bitartean edozein arrazoi dela bide, baloia puskatu edo lehertzen bada, jokoa eten egin behar da. Bestelakoan, arbitroaren baimenik gabe ezin izango da jokoan zehar baloia aldatu.

Futbolariak baloiaren erabilpenean joko arau batzuk bete beharrean daude. Gainera, atezainak eta zelaiko jokalariek ez dute baloiaren erabilpen berdina egiten. Desberdintasuna, talde bakoitzaren penalti arean ematen da. Atezainek norberaren penalti arean baloia eskuekin ukitu, gelditu edo kolpatu dezakete. Norberaren penalti areatik kanpo, atezainak zelaiko jokalari bihurtzen dira. Zelaiko jokalariek baloia ezin dute eskuekin edo besoekin jokatu. Debeku hau zelaiko

eremu guztietara zabaltzen da, baina baloia alboko marratik atera eta jokoa eteten denean berriro baloia jokoan jartzeko jokalariek eskuak erabili behar dituzte.

Taula 82: baloiaren ezaugarriak eta erabilpena partidetan

Ezaugarriak	Erabilpena
▪ Borobila: zirkunferentzia 68-70 zentimetro artekoa. ▪ Larruzkoa edo material egokia. ▪ 41-45 gramo arteko pisua. ▪ 0,5-1 atmosfera presioa. ▪ Etxeko taldeak jartzen ditu.	▪ Zelaiko jokalariek: esku eta besoekin ezik gorputzeko edozein atalekin. ▪ Alboko sakeak eskuekin. ▪ Atezainek: norberaren penalti arean eskuekin eta besoekin jokatu dezakete, hortik kanpo zelaiko jokalariak bezala.

Iturria: (FIFA)

Ordiziak etxean jokatu dituen partidetarako baloiak Angel entrenatzaileak ekartzen ditu eta entrenamenduetan erabiltzen dituzten berdinak izaten dira. Partida hasi baino lehenago beroketa ariketak egiten hasten direnean, uzten zaizkio aurkako taldeari partidan erabiliko diren hiru edo lau baloi horiek.

Kanpoko baloiekin ohitugabe egotean etxeko taldeak abantailatxo bat izaten du. Gorengo Maila honetan baloiak marka komertzial desberdinekoak izan daitezke baloiaren punpa edo gogortasuna aldatuz. Ordiziak etxeko partidetan erabili dituen baloi hauei ez zaie partida hasieran zuten pisua, zirkunferentzia edo presioa konprobatu; pixka bat hustuta zeudela antzematean berriro puztu eta nahikoa izan da baloiak erabiltzeko moduan egoteko. Partida amaitu ondoren, berriro Angelek baloiak hartu eta etxera eramaten ditu hurrengo entrenamenduan erabiltzeko.

Ordiziak kanpoan jokatu dituen partidetan aldiz arerioak jarri dituzte baloiak, eta sarritan ordiziarrak erabiltzen ez duten marka komertzial batetakoak. Ordizian bertan egiten den protokoloa jarraituz, ordiziarrek baloi horiekin lehen kontaktua berotze ariketak egiten hasi direnean izan dute. Orduan ezagutzen dituzte partida jokatzeko erabiliko dituzten baloi horiek.

II. Entrenamenduetako baloiak

Entrenamenduetarako baloiak taldeak nahi duen bezalakoak izaten dira. Entrenatzeko baloiei buruz ez dago arau idatzirik eta talde bakoitzak erabakiko du zein baloi erabili. Entrenamenduetan ez dago arbitrorik presioa edo zirkunferentzia konprobatzeko eta pisuagoa edo arinagoa izateak ez du baldintzatzen entrenamenduan egin beharreko jarduera.

Baloiaren erabilpena berriz entrenamenduetan egiten diren jardueren araberakoa da. Partidatxoetan txapelketako partidetan aplikatzen diren antzeko arauak betetzen dira: atezainak eskuekin eta besoekin jokatu dezaketelarik; jaurtiketetan ere, atezain eta zelaiko jokalariek baloiarekin duten harremana partidetan ematen den antzeko da; baina beroketa, “rondo” edo ariketetan araudia aldatu egiten da: nagusiki atezain eta zelaiko jokalarien arteko desberdintasuna ez da ematen eta azpi rol guztiak erabilpen berdinera mugatzen dira.

Taula 83: baloiaren ezaugarriak eta erabilpena entrenamenduetan

Ezaugarriak	Erabilpena
▪ Entrenatzaileak edo taldeak nahi dituen bezalakoak. ▪ Beti norberaren baloiekin entrenatzen da. Ordizian entrenatzailea da zaindaria.	▪ Jardueren egituraren arabera: partidatxoetan partidetan bezala; jaurtiketetan ere bai; Beroketa, “rondo” eta ariketetan azpi rol guztiak baloiarekiko harreman berdina.

Ordizian Angel entrenatzailea da baloien zaindaria. Bere etxean gordetzen ditu baloiak eta entrenamendu bakoitzera zakuan hamar baloia sartuta etortzen da. Prestatze saioa amaitzean berriro baloiak poltsan sartu eta etxera eramaten ditu. Baloi hauek beti berdinak izaten dira eta saioa bukatzean kontatu egiten ditu ekarri dituen guztiak bertan daudela ziurtatzeko. Hau horrela izanda ere txapelketako partida Idiazabalen aurka jokatu behar zutenean, Angelek, baloiak desberdinak izango zirela esan eta partida jokatuko zuten marka berdineko baloiak inguratu zituen jokalariak beraietara egokitzeko asmoz. Entrenamenduetako baloiak

aldatzea partidaren emaitzari begira aldaketa bazen ere, ez zuen arrakasta handirik izan partida hura galdu egin baitzuten.

11.6.2 Ekipamendua

Futboleko jardunean baloiaz gain erabiltzen den materiala aztertzen dugu jarraian. Orain arte egin dugun bezala partidetan eta entrenamenduetan erabiltzen dena bi ataletan azalduz; izan ere bietan erabiltzen diren materialen ezaugarriak desberdinak dira eta banatuz argiago aurkezteko aukera dugu.

I. Partidetako materiala

Baloiaz gain, partidak jokatzeko futbolariek arropa edo ekipamendu berezia erabiltzen dute. Jantzi eta objektu horiek arauek zehazten dituzten parametroen barnean sartu behar dira eta ezin dira futbolarientzako arriskutsuak izan; ekipamenduko objektuak ez izan arren, horren barrenean gorputzean eraman daitezkeen bitxiak ere sartzen dira. Jokalari batek derrigorrez eraman beharreko ekipamendua jantzi hauek osatzen dute: jertse edo kamiseta bat, praka motzak, galtzerdiak, berna hezur babesleak eta oinetakoak. Atezainek beste jokalari arbitro eta marrazainengatik bereiztuko dituen koloretako arropa eraman behar dute.

Aipatu ditugun material horietan futbolaren bereizgarriak diren berna hezur babesleak aurkitzen ditugu. Objektu hori berna hezurraren gainean jartzen da min hartze eta lesio larriak jasan ditzaken hezur horren babeserako. Derrigorrezkoa da, baina futbolean berria den behatzaile bati oharkabean pasa dakioke. Arauak garbi uzten baitute galtzerdiek estali egin behar dituztela eta goma, plastiko edo material egoki batez eginak izan behar direla.

a. Kamiseta

Ordizia Kirol Elkarteak Gorengo Mailako partidak urdin koloreko kamiseta batekin jokatzen ditu, alde guztietatik urdina da eta bularreko ezkerreko zati batean Ordizia Kirol Elkarteko intsignia agertzen da. Mahuka motzekoa da eta petrolioa fintzean sortzen diren material sintetikoz egina dago: polipropileno, elastane… Material sintetiko horiek bustitzean berehala sikatzen dira eta egokiak dira futbolean aritzean ateratako izerdia jokalariak bere gorputzean ez sentitzeko.

Denen begi bistan geratzen den kamiseta honen azpitik Ordiziako jokalari batzuk beste kamiseta bat eramaten dute, bakoitzak berea eta ez Kirol Elkarteak emandakoa.

Urdin koloreko kamiseta hau etxeko partida guztietan eta kanpoko gehienetan erabili dute. Baina talde batzuekin kamiseten koloreetan bat etortzen direnez, kanpoan jokatu beharreko partidetan, horrelako kasuak ematen direnerako, bigarren kamiseta bat ere badute: kolore gorrikoa da eta mahuka inguruan zuria gorriari nahasten zaio. Kamiseta hau erabili zuten adibide bat Trintxerperen aurkako partida da. Talde horrek ere kolore urdineko kamiseta duenez, ordiziarrak bertan jokatu zuten partidan kamiseta gorria erabili zuten.

Kamiseta bakoitzaren atzean 1etik 25ra arteko zenbakiak ageri dira eta Ordiziako jokalari bakoitzak txapelketako partida guztietan zenbaki bera duen kamiseta erabiltzen du; jokalari bakoitza zenbaki baten jabe izateak ez du titular eta ordezkoen artean desberdintasunik adierazten. 1 eta 13 zenbakiak araudiak atezainentzako gorde behar direla zehazten du eta ondorioz numero horiek Julen eta Iñaki atezainek dituzte. Beste zenbaki guztiak zelaiko jokalari guztien artean banatzen dira. Zenbaki hauek zuriz marraztuak daude eta zenbakia inguratuz marko borobil txiki bat dute, hau ere zuri kolorekoa.

Ordizian ere, araudiak adierazten duen bezala, Julen, Iñaki eta Aitor atezainek zelaiko jokalariengandik bereizteko kamiseta horia, grisa eta beltza erabili dituzte. Julenek kamiseta beltza erabili du, Iñakik berriz grisa eta Aitorrek horia; denak desberdinak. Beste kamisetetan bezala hauetan ere bularreko ezkerreko zatian Ordizia Kirol Elkarteko intsignia bordatuta dago. Atezainen kamiseta hauek beste berezitasun txiki bat ere badute: beso inguruan barru-bigunak dira. Atezaina sarritan lurrera bota behar denez barru biguna izateak babesa ematen die.

b. Galtza motzak

Kamisetak bezala ordiziarrek erabiltzen dituzten galtza motzak urdin kolorekoak dira eta jokalarien izterrak tapatuz, ia belaunetaraino heltzen dira. Praka hauek ere, ehun sintetikoz eginak daude eta jokalarien gerrira ondo eusteko goma elastiko bat dute. Praken barnean, barruko arroparen funtzioa egiten duten

galtzontziloak dituzte. Ordiziako atezainek beltz koloreko galtzak erabili dituzte eta partida batzutan motzak izan beharrean hankak estaltzen dituzten elastiko luzeak. Atezainen galtza hauek barru-bigunak dira aldaka inguruan zelaira botatzean hartu ditzaketen kolpeetaz babesteko. Hala eta guztiz, Julen atezainak erredura latza egin zuen aldakan Trintxerperen aurka jokatutako partidan.

c. Galtzerdiak

Kamiseta eta galtzak bezalaxe, Ordiziarren ekipamenduko galtzerdiak ere urdinak dira eta jokalariek jantzita dituztenean Ordizia Kirol Elkarteko intsignia ikusgai agertzen da. Oso luzeak, guztiz luzatuta izterraren erdiraino iristen dira. Jokalariek, belaunetik gora geratzen den zatia beherantz tolestatzen dute, ikusleen aurrean galtzerdiak belaunaren oinarriraino iritsiz. Partida aurrera doan heinean jokalari batzuei jaitsi egiten zaie berna hezur babesleraino. Julen, Iñaki eta Aitor atezainek berriz kolore zuria duten ezaugarri berdineko galtzerdiak erabili dituzte.

d. Berna hezur babesleak

Berna hezur babesleak izen bereko hezurraren gainean jartzen dira hau babestu asmoz eta bertan fixo gelditzeko Ordiziako jokalari batzuk paperezko esparatrapua erabiltzen dute; baino badira oinetako bat bezala oinetik sartuz orkatilan galtzerdi bat bezala behera etorri gabe mantentzen direnak; hauetan ez dago zinta edo esparatrapu beharrik. Ordiziako jokalariak bi modu horietakoak eta materialari dagokionez plastikozkoak erabili dituzte. Kolore desberdinetakoak jantzi arren, galtzerdiez estalita jarri dituztenean Ordiziako ekipamendu urdina ez dute aldatu.

e. Oinetakoak

Futbolarien tresna nagusiak dira, gehienetan baloia beraiekin kolpatzen baitute eta jokalari guztiek futbol bota deiturikoak erabiltzen dituzte. Botak ere beste jantziek jasan duten bilakaera berdina izan dute. Orain urte batzuk larruzkoak ziren eta gaur egun petrolioaren fintzeaz lorturiko ehun berriez eginak. Ordiziako jokalariek marka komertzial desberdinetakoak erabiltzen dituzte: Adidas, Nike, Joma… Bota hauek, zolan tako batzuk dituzte belarretan irristatu gabe

jokatzeko. Bota batzuetan, tako hauek kendu eta jarri egin daitezke baina beste batzutan fixoak izaten dira; ordiziarrak bi motatakoak dituzte.

Aurreko ataletan aipatu dugunez Ordiziak hiru zelai motatan jokatu ditu partidak: belar naturalezkoetan eta artifizialezkoetan eta harrikaskarreko batean. Ezaugarri horrek bota aldatzera edo tako desberdinak erabiltzera bultzatu ditu jokalariak. Belar naturalezko zelaietan tako luzeagoak eta zolan tako kopuru txikiagoa erabili dituzte. Belar artifizialeko zelaietan erabili dituzten takoen luzera txikiagoa izan da eta gainera botaren zolan tako kopuru gehiago jarri dituzte. Futbol boten kolorea ez dago arautua eta jokalari bakoitzak bere gustuen araberakoa jantzi du: gorriak, zuriak, beltzak…

f. Eskularruak

Nahiz eta eskularruei buruz araudian aipamenik ez egin, atezain guztiek erabiltzen dituzten objektuak dira eskularruak. Atezainak bere penalti arean eskuekin jokatu dezakeenez, behatzak eta eskuak babesteko eta atera doan baloia errazago gelditzeko janzten dira. Ordiziako atezain diren Julen, Iñaki eta Aitorrek partida guztietan janzten dituzte eskularruak, eta Ordiziak jokatu duen arerio guztien atezainek ere eskularruak erabili dituzte.

g. Beste objektu batzuk

Partida egunetarako, jokalari bakoitzak Ordizia Kirol Elkarteko txandal oso bat du. Txandal honek atzealdean taldearen izena darama idatzita. Partida egunetan jokalari guztiak txandala jantzita etorri dira zita gunera. Txandal hau aldagelara sartu arte erabiltzen dute. Behin aldagelan egonik, futbolariek jokatzeko ekipamendua janzten dute. Ordezko bezala aulkian geratzen diren jokalari batzuk txandalarekin mantentzen dira eta zelaira sartzeko beroketa ariketak egitean kentzen dute. Partida amaitu eta dutxatu ostean jokalariak beraien kaleko arropa jantzita irteten dira aldageletatik.

Partida egunetan jokalariek behar duten material guztia sartzeko taldeak emandako poltsa handi bat dute. Honek ere Ordizia Kirol Elkartea idatzia darama eta bertan sartzen dituzte, jokatzeko, garbitzeko eta aldatzeko behar dituzten arropa eta objektu guztiak. Beraz, Ordiziak partida egunetarako uniforme berezia dauka: elkartu eta aldagelara sartu arte, txandala eta poltsa; jokatzeko: kamiseta,

galtza eta galtzerdi urdinak. Partida amaitzearekin taldeko uniformea baztertu egiten dute poltsa ezik, eta bakoitzak bere arropa eta objektuak janzten ditu.

Ordiziako aldagelan bezala, arerioen zelaien aldagela guztietan arbel bat topatu dugu. Ordizian plastikozkoa da eta bertan marrazteko errotulagailu berezi bat du aldamenean. Ordiziak kanpoan jokatu dituen zelai gehienetan pizarraz eginiko arbelak behatu ditugu; batzutan paretan zintzilikatuta, aldagela dekoratuko lukeen koadro baten antzera.

Entrenatzaileak partidetan eraman dezakeen ekipamenduetaz ez du aipurik egiten araudiak. Prestatzaile bakoitza aske da berak egoki deritzon jantzi eta objektuak erabiltzeko. Angelek, partida zuzentzeko bere txandala janzten du. Ez da Ordizia Kirol Elkartekoa, taldearekin identifikatzen duen zeinurik ez du. Partidarako zita ordua duten gunera, bere kaleko arropekin joaten da eta aldagelara iristean eta hamaikakoa esan ondoren jokalariekin batera bere ere aldatu eta txandala eta futbol botak janzten ditu. Berotze ariketak modu honetan zuzentzen ditu eta aulkian ere horrela egoten da. Partida bukatzean berriro aldatu eta kalean ibiltzeko ohiko arropak jartzen ditu. Angelen ekipamenduan taldearekin identifikatzeko balio duen objektu bakarra poltsa da. Beste jokalariek bezala, berak ere Ordizia Kirol Elkartea idatzia duen poltsa bat du egoki deritzon materiala garraiatzeko.

Angelen laguntzaile den Boterok ez du uniforme berezirik erabiltzen. Bere kaleko arropekin joaten da eta inoiz ez da aldatzen; beste ikusle bat bezala moldatzen da. Taldeko ordezkaria den Sebas berriz, jokalariek erabiltzen duten txandalarekin joaten da partidetara eta objektuak sartzeko poltsa ere erabiltzen du. Bertan gordetzen du partida guztietara eramaten duen botikina. Poltsatxo horretan, kolpeentzako sprayak, esparatrapuak, bendak, iodoa… Orokorrean, jokalariek min hartzen dutenean beharrezko izaten diren objektuak gordetzen ditu. Botikin honen ardura Sebasena da eta partidak dirauen bitartean bere eskuetan egoten da.

h. Epaileen ekipamendua

Partida bateko ekipamendua ez da jokalariek eramaten dituzten materialetara mugatzen; partida hori epaitzen duten arbitro eta marrazainek ere badituzte beraienak bereziak diren objektuak. Arbitroak arau hauste eta joko

etenaldiak seinalatzeko txilibitu bat erabili behar du. Txilibitua joz adierazten ditu faltak, partida hasiera… Arropei dagokionez jokalariek bezala kamiseta, galtza motzak, galtzerdiak eta oinetakoak erabili beharko dituzte eta hauek taldeen koloreen desberdinak izaten dira.

Epaile taldeko hiru kideek ordulari kronometro bat izan behar dute partidaren iraupena kontrolatzeko eta pasatzen diren gertakizunen unea jasotzeko. Horrez gain arbitroak bi txartel eduki beharko ditu: horia eta gorria. Txartelak arau hauste larriak egin dituzten jokalariak zigortzeko erabiltzen ditu.

Marrazainek, arbitroek eraman beharreko ekipamenduaz gain, bi banderatxo eraman beharrean daude. Bere funtzioa jokoan gertatzen dena epaileari adieraztea da. Banderatxo hauek modu desberdinetara altxatzean gertaera desberdina seinalatzen dute. Banderatxo hauek etxean jokatzen duen taldeak jarri behar ditu.

Ordiziak jokatu dituen partidetan arbitroek erabili duten kamiseta kolore horikoa izan da, mahuka motzetan beltza izanik. Bularreko ezker aldean Gipuzkoako lurraldeko arbitro batzordearen intsignia ageri da; kamisetaren egileaz gain ez da azaltzen publizitaterik. Galtzak eta galtzerdiak berriz beltzak erabili dituzte. Arbitro bakoitzak bere txilibitua erabili du eta marrazain bakoitzak banderatxo bat, eta kasu honetan ez dira izan araudiak zehazten dituen hori eta laranja kolorekoak, baizik eta gorriak. Eskumuturrean ordulari bat ere denek erabili dute.

i. Publizitatea

Ekipamenduan publizitatea eramatea talde gehienen diru iturria bihurtu da azken urte hauetan. Klub edo kirol elkarteek horrela erabakitzen baldin badute, beraien futbolariek edozein motatako partidetan, kirol jantzietan publizitatea erabili dezakete. Publizitatea, merkatal markaren sinbolo edo ezaugarri bat bakarrik izan liteke, eta honen pean, doazkion hitz edo siglak. Sinboloaren tamaina ezin liteke 16 zm^2 baino handiagoa izan eta sigla edo hitzena 200 zm^2ko baino txikiagoa izan behar da. Publizitate guztia kamisetaren aurrealdean bakarrik azaldu daiteke.

Ezin da ideia erlijioso edo politikoei buruzko publizitatea egin eta ezinezkoa da ere legearen, moralaren edo ordenu publikoaren kontrakoa izan. Taldeek

beraien ekipamenduetan ezin dute alkohol eta tabakoaren publizitaterik egin eta inolaz ere publizitateak ezin ditu klubaren edo kirol elkartearen koloreak edo ezaugarriak aldatu. Kirol jantziaren fabrikatzailearen merkatal markaren ezaugarria aurkeztea ez da publizitatea kontsideratuko, neurriak guztira, ez badira 15 zm^2 baino handiagoak.

Jokalarien kamisetetan agertzen diren klub edo kirol elkartearen ezaugarri edo bereizgarriek ezin dezakete beraien izenaz aparte beste legendarik azaldu. Halaber, arbitro eta entrenatzaileek ere beraien kirol jantzietan lehen aipaturiko egoera berdinetan publizitatea ager dezakete, eskudun organoek erregelamendatu edo baimendurik.

Ordiziarren kamisetaren aurrealdean taldearen intsigniaz gain, enpresa baten izena agertzen da: Gruas Usabiaga. Lantegi hau Gorengo Mailako talde honen babeslea da. Lantegiaren anagramarekin batera, bere izena letra zuriz idatzia dago edozeinen bistarako ikusgarri geratzen delarik. Ordizia Kirol Elkarteak publizitate honen ordainetan dirua jasotzen du. Kamisetaren aurre aldean ezkerretara beste publizitate atal bat ageri da; letra txiki batzutan kamiseta egilearen marka komertziala azaltzen da: Joma.

Jokatzeko erabiltzen dituzten galtza, galtzerdi eta oinetakoetan ez da egilearen marka komertziala ez den beste publizitaterik azaltzen. Partida guztietara jantzita eramaten duten txandalaren atzealdean, kamisetetan bezala Gruas Usabiaga idatzia dago.

II. Prestatze saioetako objektuak

Ordiziako jokalariek entrenamenduetan erabili duten ekipamendua ez da izan partidetan bezalakoa. Jokalariek, prestatze saio bakar batean ere ez dute partidetan erabiltzen duten kamiseta jantzi; entrenamenduetan, bakoitzak bere kamiseta izan du, eta mota askotakoak izan dira: lehen mailako futbol talde batetakoa, aldarrikapen bat islatzen zuena, txandala… Denak desberdinak izateak ez du arazorik sortu eta ez zaie eskatu kamiseta mota batekin edo bestearekin etortzeko; Angelek, futbol joko bat proposatu eta bi talde egin behar izan dituenean, nahasketarik sortu ez dadin talde bati petoak banatu dizkio. Peto hauek kolore berde argikoak dira, ikus errazak, eta entrenamendu guztietan erabili dira.

Jokalariek entrenamenduetan erabiltzen dituzten galtzekin ere kamisetekin gertatzen den berdina pasatzen da. Jokalari bakoitza bere gustuen arabera, galtza motzekin, txandalarekin edo elastikoekin etortzen da. Entrenamenduak egiteko kirol elkarteak jokalariei ez die uzten arropa berezirik eta jokalariek beren arropa ekartzen dute.

Angelek aurrez abisatzen ez badu, jokalari gehienak botak ekartzen dituzte bakarrik, baina batzuetan entrenamenduetan egin behar diren jardueren arabera, kirol zapatilak ere ekartzen dituzte. Botak, partidetan erabiltzen dituzten berdinak izaten dira.

Ordiziako entrenamenduetan jokalariek ez dute berna hezur babeslerik jartzen. Nahiz eta futbolean jokatu jokalariak beraien kideen intentzio onetaz fidatzen dira, babesle hauek jarri gabe entrenamenduak burutzeko.

Angel entrenatzailea entrenamendu guztietara txandalarekin etortzen da, baina ez Ordiziako txandalarekin baizik eta beste batekin. Sarritan partidetan erabiltzen duen berdina izaten da. Prestatze saio gehienetan futbol botak janzten ditu nahiz eta batzutan kirol zapatilak erabili izan dituen. Bere laguntzaile den Botero batzuetan kirol jantziekin etorri da eta bestetan berriz kalean ibiltzeko arropekin. Kirol jantziekin etorri denean entrenamendu pare bat zuzentzeko edo Angelek futbol joko bat planteatu duenean futbolari bezala aritzeko izan da.

Entrenamenduetan futbolariek erabiltzen duten ekipamenduan ez da antzematen taldearekin identifikatzen duen intsignia edo kolorerik. Jokalari batek edo bestek noizean behin partidetan erabiltzen dituzten galtzerdiak ekartzen dituzte, baina gainontzean prestatze saioak zein talderenak diren jakitea zaila bihurtzen da.

11.6.3 Objektuekiko harremana futbolean: baloi eta ekipamendu arautuak partidetan eta arautu gabeak prestatze saioetan

Futbolean jokatzeko beharrezko den baloia, erakusle da txapelketako partidetan eskatzen den arautzea antzemateko. Baloiak neurri, pisu eta ezaugarri jakin batzuk izan behar ditu eta espazioaren zentzuan atera genituen bi ildoak

jarraituz, etxeko partidetan norberaren baloiak erabiltzen dira eta kanpoan bertako taldearenak.

Baino baloiaz gain futbolariak jantzi beharreko ekipamenduak ezaugarri berezi batzuk ditu, hala nola talde guztiko jokalariek, atezainek ezik, kolore berdineko kamiseta, galtza motzak eta galtzerdiak erabiltzea eta berna hezur babesleak jantzi beharra. Era berean, partida egunetan Ordiziako jokalariek taldeko txandala eta poltsa erabiltzen dute; begirada bat nahiko da talde bat dela ohartarazteko.

Prestatze saioetako baloiak, taldearenak dira eta beti baloi berdinekin entrenatzen da. Baloi hauek nolako ezaugarriak izan behar dituzten entrenatzaileak edo taldeak erabakitzen du. Ordizian entrenamendu guztiak Angelek zaintzen dituen baloi berdinekin egiten dituzte.

Bestalde jokalariek entrenatzeko janzten dituzten arropak, norberak aukeratzen ditu eta desberdinak izan daitezke. Ordiziarrek entrenamendura eramaten dituzten kamisetek, koloreen kaleidoskopio bat osatzen dute. Prestatze saioetan berna hezur babesleak jarrita ez da jokalaririk aritzen eta Ordiziako futbolariak, bakoitza bere kale arropak jantzita joaten dira Altamirako entrenamendu gunera; behatzaile zorrotz bat ere ez da jabetzen guztiek talde berekoak direla.

Futboleko objektuek, aurrez aztertutako espazio, denbora eta harremanetan agertu zaiguna berritsu digute, futbolean elkarrekin bizi diren bi errealitate sozialen arteko desberdintasuna: partidak eta entrenamenduak. Partidetarako ezarrita dagoen araudiak objektu zehatzak eta ezaugarri jakinekin izatea derrigortzen du, taldeak partida modu batetara bizitzera eraginez. Entrenamenduetan berriz objektuek izan beharreko ezaugarrietaz ez dago zehaztasun handirik, taldeak adostutakoak izaten dira eta barneratze bizipenak ere ezaugarri horietan oinarritzen dira.

11.7 Futbola laburtuz

Futbolaren analisian elkarrekin bizi diren bi errealitate sozial antzeman ditugu: entrenamenduak eta partiduak. Futbolari eta zaleentzat bistakoa dena bi dinamiken arteko desberdintasunen adierazgarri da. Diferentzia horiek izan dira zentzu bakoitzaren azterketa entrenamendu eta partidetan banatzea egin gaituztenak, bakoitzaren ezaugarriak azaleratu asmoz.

Gipuzkoako Gorengo Mailako taldeak bira bikoitzera antolatuta dagoen txapelketa bat jokatzen dute, talde bakoitzaren aurka partidak etxean eta kanpoan jokatuz. Funtzionamendu horrek eta aditzera emateko erabiltzen den espresio linguistikoak, partidek duten lehen ezaugarri espaziala ematen digute: partidak, etxeko futbol zelaian eta kanpoko zelaietan jokatzen dira. Etxeko zelaietan ingurune fisikoak sortzen duen ziurgabetasuna minimoa den bitartean: futbolariek, neurri, koska, inklinazio eta belarraren egoera ezagunak dituzte; kanpoko zelaietan ezin da gutxietsi. Hori ekidin ahal izateko, jokalariek, kanpoko zelaira iritsi bezain azkar paseotxo bat ematen dute informazioa barneratu eta ziurgabetasuna gutxitzeko asmoz. Jokabide hau futbol zelaiaren ezagutzak ematen duen abantaila gutxitzeko modu bat besterik ez da.

Entrenamendu guztiak aldiz etxeko zelaietan egiten dira. Futbolariei ez zaie beharrezko egiten ingurunean aurkitzen den informazioa etengabe jasotzen aritzea; etxeko eremu, areto eta zelai desberdinak erruz ezagunak baitituzte. Astero instalakuntza berdinetan entrenatzeak, koska, zulo eta neurriak, ilunpetan ere bereizteko kapazitatea ematen die.

Behatu dugun txapelketaren puntuazio sistema sailkapenean oinarritzen da: partida bakoitza irabazten duen taldeak hiru puntu eta berdintzean puntu bat gehituz klasifikazioan eta partida galdu ezkero punturik batu gabe. Emaitzak memorizatu, gorde eta publikatu egiten dira eta txapelketaren amaieran sariak eta zigorrak banatzen dira: aurrenekoa maila nagusiagora igoko da eta azken lauak hurrengo denboraldia maila baxuagoan jokatuko dute. Partida irabazteak berehala du efektua sailkapenean hiru puntu gehituz. Denbora linealaren kausa eta efektua loturik agertzen dira partidetan.

Beste hainbat jardueraren artean partidak ere entrenamenduetako edukiak izaten dira. Baina txapelketakoekin alderatuz ez da punturik gehitzen eta emaitzarik gordetzen; jokalarien artean ere ez da ranking egiten. Entrenamenduetako edukiak, ariketa edo jarduera anitzak, ezaugarri komun bat dute: guztiak memoria gabeak dira, ez dira emaitzak kontutan hartzen.

Partidetako bi taldeen arteko aurka egiteak arauak beteko direla ziurtatuko duen epaile baten beharra du. Jokalari kopuru berdinarekin aurrez aurre eginez, partidak duelu simetrikodun egitura dute. Talde bereko jokalariek beraien harremanak sendotzeko aldageletan oihartzun emozional handiko oihuak errepikatzen dituzte: “Ordizia euh! Ordizia euh! Ordizia euh!” Jeneral batek guda borroka batean soldaduak kokatzen dituen bezala entrenatzaileak partida jokatzen hasiko diren jokalariak erabaki eta prestatzen ditu. Partida hasi baino lehen ordenak, eta emaitza kaskarra denean atsedeneko errietak, ohikoak bihurtzen dira. Gu arerioen aurkako egitura nagusi da partidetako jokalarien arteko harremanetan.

Prestatze saioetan egiten diren jarduerak egitura anitzetakoak dira eta talde dueluko egituradun jokoekin batera, bat denen aurka edo kooperaziozko egitura duten aktibitateak ere egiten dira. Entrenamendu hasieran, bat denen aurkako egitura duen “rondo” bat jokatuko da, jarraian, bakarka egiten diren ariketak eta azkenik partidatxo bat. Egitura aniztasun hau denboraldian zehar mantendu egiten da eta bultzatu egiten du jokalarien artean ematen diren harremanak ere anitzak izatera: joko batean Mikel Luzioren kide izango da eta hurrengoan biak arerio. Entrenamenduetan taldea hobetzeko jokalarien formazioa bilatzen da.

Futbol jokoan objektu bat dago beste guztien gainetik: baloia. Baloia jokoaren muinean dago, ez baitago futbolik baloirik gabe. Behaketa egin dugun txapelketan, etxean jokatzen zuen taldeak jartzen zituen partidak jokatzeko baloiak. Espazioan aztertu dugunez etxean eta kanpoan jokatzen dutela kontutan hartuz, partidetan txandaka erabiltzen dituzte norberaren eta arerioen baloiak.

Entrenamenduetako baloiak ordea taldearenak dira eta ez da ematen txandaketarik, prestatze saio guztietan norberaren baloiekin entrenatzen baita. Kasu honetan ere, jokalarientzako, baloiek hartu ditzaketen norabide, punpa edo abiadurak ezagunak dira.

Behatu eta aztertu dugunez, futbola herri eta hirien arteko lehia bihurtzen da. Entrenamenduak partidekin zentzua izanez, erakundeen gidaritzapean eta publikoaren aurrean jokalariak herri baten ordezkariak dira, arrakasta eta porrota irudikatzen dituzten mandatariak.

V. ATALA: KIROL PRAKTIKAK ETA GIZARTEA

12. kapitulua **Mendi zeharkaldia, aerobica, futbola eta euskal gizartea**

12.1 Askotatik bakarrera: hiru kirol praktika gizarte batean

Etnografien istorioetan partehartzaileen sentimenduak eta emozioak tapakirik gabe agerian azaltzen zaizkigu. Ikuspuntu subjektibo hori kontuan hartu behar dugu, pertsonen identitatea horren gainean eraikitzen baita. Aktorea eta sistemaren arteko harreman horretan, jarduleen bizipenak giza egitura bezain garrantzitsuak dira.

Esti eta Oihanak, aerobiceko irakasleak, ez dute futbola maite; eta zer esan Ordizia futbol taldeko entrenatzailea den Angelek aerobica, bere buruan ez baita sartzen jokalarien beroketa burutzeko dantza erabiltzerik. Batzuk eta besteak, soka berdinaren muturretan daudela dirudite. Ez da pertsonalitate arazoa soilik, desberdintasunak handiak baitira bi bizipen istorioen artean. Gizonezkoek egiten dutena ez dute emakumezkoek burutzen, eta alderantziz. Bi mundu dirudite; bi gizarte desberdinetan egindako etnografiak direla esateak, ez luke inor harrituko.

Garatzen diren emozioak oposizioan agertzen zaizkigu. Futbolean taldekide guztien aurrean kidetasun finkoa adierazi behar da zintzotasunez eta aurkako taldearen kontrako areriotasuna. Golek ekartzen duten poza eta tristezia horren erresumina bihurtzen da. Gizonezkoen eredua, esparru sentimentala, oposizio horretan gauzatu, gorpuztuko balitz bezala. Futbola baino inportanteagorik ez dago ezer: ez familia, ez lagunak, ez harreman afektiboak; partida da gazte horien zentro eta aisi mamia. Emaitza aldekoa denean, bizitzen den pozak jokalariek burutu duten esfortzuaren seinaleak estaltzen dituen arren, partida galtzen denean, kolpeen minak ere areagotu egiten dira negarra azalduz. Familiartekoek maitasuna adierazi nahi izan ezkero, futbol zelaira hurbiltzea nahikoa dute: partida ikusi eta gero elkarren artean horri buruz tertulian aritzeko. Walton eta Caspistegik futbola gerra bat balitz bezala aurkezten dute (Walton eta Caspistegui, 2001, 19).

Aerobiceko emakumeek musikaren perkusioaren danbateko errepikakorrean murgiltzen dira astegunez. Beraien egunerokoan eginiko tarte horretan, dantza pausoak eginez koreografiak burutzen saiatzen dira. Irakaslea eta kideen laguntzarekin, norberak bere eremuan marrazki batzuk baliran bezala dantza pausoak “marrazten” ditu. Astean bi edo hiru saio eginez, aretoak osatzen duen mundu itxi eta isolatuan, publiko guztietatik ihesi, koreografia egiteak eta esfortzuaren ondoriozko izerdiak ere pozten ditu, sentsazio horiek une guztietan modu berean errepikatuz. Irakaslearen agindupean, sufrimendu kexak bide uzten diete, burutu berri duten ariketak beraien gorputza nola hobetuko ote duen galderei.

Mendian dabiltzan Katxik, Aitorrek edo Silviak ere zerikusirik ez dute aerobic jardule eta futbolariekin. Beraien bizipenak beste testuinguru batean ematen dira: mendian, natura gordintasun eta errealitate guztian agertzen den lekuan. Mendizaleak baso, bailara eta sapalda mugagabeetan barrena ibiltzen dira. Bide egokienak hartuz eta kide guztien laguntzaren bidez, naturan aurkitzen diren eragozpen guztiak gainditzen dituzte. Batzuetan lainoak orientazioa galtzea eragiten die eta beste batzuetan amiltzeko arriskuak pozoidun ziztada batek bezala blokeatzen ditu. Bakoitzaren oporrak izaten dira abentura bide horren une. Begi-bistan heldu daitekeen paisaiaz gozatu, sarrioek grabitatearen aurrean mantentzen duten erronka behatu, erreka edo laku batetako ur garden eta

izoztuetan bainatu… gizon eta emakume diren mendizaleak naturaz estalitako bidaia horretaz gozatzen dute, guztien artean ibilbidean topatzen dutenaren aurrean erabakiak hartuz.

Gizonen futbola, emakumezkoen aerobica eta oporretan egindako mendi zeharkaldiak Geertzen hitzetan, gizartearen “hezkuntza sentimentala”, adierazten du (Geertz, 1994, 339). Edukazio horrek, emozioen hezkuntza horrek, gizarteari buruz zerbait esaten du, eta esanahi horri “deep play” edo “joko sakona” deritzo. Gure etnografiek azaltzen duten aniztasunaren azpitik, sakonean, ba ote dago lotzen dituen zerbait? Zer da futbolak, mendi zeharkaldiak eta aerobicak gure gizarteari buruz kontatzen digutena?

Erronka horri aurre egiteko, aniztasunean batasuna bilatu behar dugu: konkretutik abstraktura goazen moduan, etsenplutik orokorrera iritsi behar gara.

Aerobic, futbola eta mendi zeharkaldiak osatzen duten baso anitza aztergai izatetik oihanaren batasuna arakatzera pasako gara. Hiru ikerketa etnografiko desberdin egin beharrean, etnologia bakarra argitara aterako dugu. Horrela, espazio, denbora, material eta harremanekiko dituzten berezitasunak batzen saiatuko gara, kanpo eta barne logikako ezaugarri bakoitzaren bistako zentzuak lotuz, gizarteak horiei ematen dien ezkutuko esanahia topatzeko asmoz.

12.1.1 Gaur egungo aisi eremua: mundua jolastoki

Praktika fisiko bakoitzak izaera desberdineko espazioak erabiltzen ditu. Mendi zeharkaldietan mendiak dira azpiegitura, naturaren sorkuntza horiek mendizaleen gozamenaren lekukoak dira. Aerobica azpiegitura sendo eta kanpotik isolatuak daudenetan praktikatzen da, artifizialki eraikita dauden aretoetan. Futbolean berriz praktikarako espezifikoa den zelaia erabiltzen da; gainera zelaiaz gain, beharrezkoak dira beste zenbait azpiegitura. Hiru praktiketako ezaugarri horietan argi ondorioztatu daitekeenez, aerobicak eta futbolak hiria dute kokagune, eta mendi zeharkaldiak, izenak dioen moduan, naturan burutzen dira.

Adibide diren mendi zeharkaldi, futbola eta aerobicean adierazten zaigun bezala, gaur egun jarduera fisikoek ez dute eremu mugarik. Munduko edozein gunetan egiten dira praktika fisikoak. Lurreko lekurik basatienak ere praktika

horien gune bilakatu dira: lurreko tontorrik altuenetara igotzen da jendea, itsaso zabalean dauden ozeano guztietan nabigatzen da, ur tantarik egiten ez duen basamortuak gurutzatzen dira, lurraren eguratsa gainditu eta espazioan nabigatzen da… Natura eta gizakiaren harremana izan gabeko guneen konkistan oinarritu da.

Izan ere, oraindik orain natura guztiz kontrolatzea ezinezkoa da gizakiarentzat, "umiltasunez onartu behar dugu segurtasun osoak ez duela existitzen" (Kellermann, 1984, 7). Eta bertara barneratzean bizitza arriskua handitzen da. Paradoxikoa bada ere ingurune natural baten konkistaren ondoren, hurrengo urratsa bere babesa bilatzea izaten da, "izan ere naturan egiten diren kirol guztiak ingurugiroan eragin gehigarria dute" (Villalvilla, Blázquez, Sánchez, eta Álvarez, 2001, 6). Ezagutu eta "zapaldu" ondoren natura babestu egiten da hasierako basatitasun osagaiak mantendu nahian. Arauen bitartez "ingurune natural horietan bisitariek eragiten dituzten kalteen aurrean neurriak ezartzen dira" (Aldalur, 2008, 11). Baso, mendi, erreka edo itsasoak legeztatuak daude eta arauen bidez erregulatzen dira bertan burutu daitezkeen jarduerak. "Legeak aitortzen du gure garaiko gizarte industrializatuetan zabaldu egin dela hiritar eta botere publikoek naturaren babeserako duten kezka eta, ondorioz, kontrolez kanpoko ustiaketa, fauna eta florako espezieen desagertzeari eta espazio eta paisaien degradazioari bukaera ematea dagokio" (Pérez de Tudela, 1996, 86).

Baino ingurune naturalaren presentziak praktika fisikoen bilakaeran berritasuna errepresentatzen duen bezala, hiriak eta herriak ohiko gune izan dira. Gizakiak bere jarduera ludikoak aspalditik egin ditu herri edo hirietan. Kaleetan barrena lasterketak burutu dira, plazetan apustuak izan dute presentzia, elizetako kalostrak pilotaleku izan dira… Eta garai batean bezala gaur egun ere ukaezina da aisiak eta horren barrenean kirolak hirietan duen presentzia "gizakion etorkizuna mega hirietan jokatuz" (Borja eta Castells, 1997, 54). Hiri eta herrietako gune desberdinak kirol bakoitzaren espazio izan dira, eta hirigintzaren bilakaeran ere, egiten diren kirolak kontuan hartu dira beharrezko dituzten azpiegiturak eginez eta eremuak gordez. Herrialde aurreratuetan herri eta hirietan eman den garapenarekin, kirolak burutzeko espezifikoak diren azpiegiturak eraiki dira, "Bigarren Mundu gerratetik aurrera Europa Mendebaldeko lurraldeetan kirol

instalakuntzen gehikuntza nabarmen bat ematen da… ordutik botere publikoak planifikazio urbanoetan kirol instalazioen eraikuntza sartzen dute" (Medina eta Sánchez, 2003, 311).

Herrietan, pilotalekuak, kiroldegiak, futbol zelaiak eta haurrentzako parkeak deiturikoak, protagonismoa hartzen joan dira, herri bakoitzaren ongizate kalitatea neurtzeko instalazio horiek aldagai bat izanez eta herrien arteko konparazio bihurtuz. Gaur egun herri eta hirietan egiten diren egitasmo urbanistikoetan kirol instalazioen presentzia ezinbestekoa da, eta aurrekontu ekonomikoetan zati garrantzitsu bat hartzen du; Eusko Jaurlaritzaren 2009ko kiroletako aurrekontua 14.261.334 eurotakoa da (Eusko Jaurlaritza).

Hiri eta herrietan, udaletxeak arduratzen dira gizarte arau minimoen errespetatze lanetaz, ustekaberik ez egoteko guztia kontrolpean egotea beharrezkoa da. Hau da ingurunea egokituko da eremua geroz eta egonkorragoa izan dadin: autoak eta oinezkoak gurutzatu daitezkeen lekuetan zebrabideak edo semaforoak jartzen dira istripuak ekiditeko, zorua asfaltatzen da, oinezkoentzako espaloiak egiten dira, mendia eta itsasoaren enbatak eusteko harresiak eraikitzen dira… Gaur egungo herriek, hormigoia, asfaltoa eta adreiluak dituzte beraien gorputzaren azal, espazioaren egonkortze horretan protagonista izan diren elementuak.

Praktiken kanpo logikak adierazten duen dualtasuna, barne logikak ere adierazten du: praktika fisikoak espazio ziurrean edo aldakorrean egiten baitira. Naturan egiten den mendi zeharkaldian, partaideek kontu handiz behatzen dute inguratzen dien testuingurua: amildegiak, lainoa, harrien hezetasun distirak… Mendizaleek ingurune natural horretan aurkitzen diren zeinuak irakurtzen eta interpretatzen dituzte. Eta natura eta mendizalearen arteko harreman hori norabide bakarrekoa da, inguruneak ez baitu bertan dagoen informazioa ezkutatzen edo ematen. Ibiltariak mendian oinez doan bitartean bere jokabidea bideratzen duten erabakiak hartzen ditu, bere zentzu guztiak kanporantz bideratuak egoten dira (Parlebas, 2001, 411).

Aerobicean beste egoera bat ematen da, praktikaren eremua guztiz egonkorra baita. Aretoa egunero egoera berdinetan aurkitzen da eta aerobic

jarduleak ez du beharrik praktika eremuan aurkitzen dena etengabe irakurtzeko. Egoera horretan bere zentzuak barnerantz zuzenduak aurkitzen dira eta errepikatzen den exekuzioan jartzen du arreta (Parlebas, 2001, 411.). Futbola eguraldi txarrak baldintzatu dezakeen arren, inguruneak eskaintzen duen ez egonkortasuna gutxitzen saiatzen da, besteak beste, zelaien tamaina eta izaerak egokituz eta partida jokatu baino lehenago jokalariek paseo bat emanez bertan dagoena behatuz.

Mendi zeharkaldiak mantendu egin du bidaiaren plazera, abentura, bidearen gozamena: “zeharkaldia batez ere elkarbizitza da, barreak eta hitzen elkartrukea, baina gorantz eta beherantz ibilitako ordu luze horietan beti dago begirada horizontean galdu eta norberaren barnerantz sartzeko unea” (Iribarren, 2009). Bidaiak hainbat aurpegi izaten ditu: topatutako gune liluragarriak, gainditutako zailtasuna… guztiak, naturan eginiko zeharkaldiaren, bidearen parte izaten dira.

Futbolean hirien arteko lehia bat ematen da, irabazledun neurketa bat. Guztia parekatzeko gure herrian eta arerioen herrian jokatzen da, aukera berdintasun hori aldarrikatzen duen araua azalduz. Aldameneko herriaren aurkako garaipena beraiekiko nagusitasunaren isla izaten da. Jokalariak herriaren ordezkariak izaten dira eta “beraien garaipenarekin edo porrotarekin hiriaren imajina hobetu edo txartzen dute” (Verdú, 1980, 10).

Aerobica dantza pausoen koreografian oinarritzen da, dantzaren eredua irudikatuz. Eredu horrek estetika eta irudia ditu bi adierazle eta aerobicak ere horiek erreproduzitzen ditu. Aerobica “geroz eta gehiago egitearen arrazoia osasunarekin, gorputz itxurarekin edo musika eta erritmoarekin lotutako aktibitateen artean sartzen delako da” (Martín, 2000, 21).

Hiria eta natura, ingurune basatia eta ingurune urbanoa jolastoki bihurtu dira, munduaren osotasuna jarduera ludikoen gune da. Arauak eginez babesten dugun natura eta hirian eraikitako instalakuntza artifizialak, guztiak dira praktika fisikoen marko espazialak.

12.1.2 Opor eta lan garaiak: praktika fisikoak egiteko une aproposak

Gure gizarteko egutegi eta ordulariak bi garai nagusitan banatzen dira: oporrak eta lana. Aisiaren sorrerarekin lotutako bi aldi horietan banatzen dute herritarrek beraien bizitza soziala. Biak gizarte bereko denboraren ezaugarriak diren arren, elkarrengandik muturrean aurkitzen dira.

Lan egutegiak urteko hamar edo hamaika hilabete hartzen ditu bere gain, hilabete guzti horietan astegunak lan egunak izanez eta aste bukaerak atseden egunak. Astegunetan lanean aritzeko ordu kopuru bat izaten da eta langileek horren arabera antolatzen dute beraien bizitza soziala.

Lan aldian ordulari eta egutegi guztiak beharraren arabera antolatzen dira; ordulariak segundoak zehazteraino xehatzen dira, egutegiak bateratzen dira eta jaikitzeko iratzargailua erabiltzen da. Garapenaren eraginez geroz eta lan espezializatuagoak ditugunez, denboraren kontrol eta banatze handiagoa eskatzen digute. Gaur egungo lanean hasteko ordua eta amaitzeko ordua dugu; lanean atseden txiki batzuk ere egiten ditugu eta hori ere kontatu egiten da. Langileak fitxatu egiten du eta modu horretara bere lan ordutegi guztia kontrolatu egiten da. Zerbait ekoiztu behar denean epe muga bat jartzen da, bete ezean arazoak izanez. Gaur egungo lan aldiak denbora kontzeptuaren bilakaerarik modernoena islatzen du.

Lana denbora linealaren isla da; lanean lehenaldia, oraina eta geroaldia aurkitzen dira, memoria agertzen zaigu, makinak ekoizpen denbora bat agintzen dute eta denbora hori naturaren denborarekin konparatuz, geroz eta azkarrago doa. Lana, kausa efektu binomioarekin erlazionatuta agertzen da; lana egiteak saria dakar. Lanaren denbora, denbora soziala da, “erlazio sozial eta ekonomikoek irauten duten denbora, urteko ordu kopurua, lan eguna, komertzio eta zerbitzuen ordutegiak, ordu eremuak eta beste hainbat denbora berarekin erregulatuz…” (San Salvador del Valle, 2000, 50.).

Denbora bizitzearen beste muturrean oporrak aurkitzen ditugu, egunerokotasuneko beharrak utzi eta atseden bat hartzeko garaia. Sasoi horretan herritarrak atseden bat hartzen dute lan arlotik at. Oporrak langilearen eskubideetan agertzen dira eta lan hitzarmen guztietan bete beharreko aldia da.

Sarritan herritarrek oporretan egiten duten lehen ekintza iratzargailua gordetzea izaten da. Oporretan ez dago ordularien eraginpean ibili beharrik, ez dago fitxatu beharrik eta ez dago lana epean entregatu beharrik, Oporretan ez da lortzen lan hobekuntzarik eta ez da jasaten zigorrik; denboraren kontaketa norberaren eskuetan gelditzen da. Oporrak hartzen duten denboraren zentzu hau denbora ziklikoarekin lotuta dago. Denbora beti une berera bihurtzen da gerorik gabekoak izanez. Oporretan momentua da bizigune. Ziklikotasuna gizakiak bere antzinatasunean naturaren sasoiekin erlazionatu zuen: uda, negua… Kristautasuneko pazkoa eta berpizkundea ere denbora ziklikoaren sendotzearen isla izan ziren; denbora hau “break” bat da, arnas hartze bat, denbora linealaren egunerokotasunetik ihesiz.

Oporrak eta lana eta ziklikotasuna eta linealtasuna, aerobicean, mendi zeharkaldian eta futbolean ere agertzen zaizkigu. Horietako bi ezaugarrirekin lotu dezakegu praktika bakoitza denboraren zentzu baten islaren seinale. Futbolean, irabazi eta galtzeak sailkapenean du eragina. Gol gehien sartzen dituenak irabazi egiten du eta garaipenak puntuak balio dituzte puntu horiek sailkapenera igoz. Emaitzak gorde egiten dira, memoria dute eta partida bat denborari dagokionez lehen, orain eta gerorekin lotu dezakegu, linealtasuna agerian geratuz. Era berean, kausa eta efektudun denbora dago indarrean partida irabazteak sailkapenean efektua izanez. Futbolaren egutegiak hamar hilabete hartzen ditu bere gain eta aste bukaerak ditu une. Aipatutako bitarte horretan ospatzen dira partidak.

Futbol partidak bere amaiera muga denbora du eta minutuak kontatzea beharrezkoa da denborak horrela zatitzen baitira. Era berean jokoa etenik dagoenean pasatzen den denbora ere berreskuratu daiteke segundoak ere kontatuz. Partidaren bi zatien artean atseden denbora bat dago eta hori ere guztiz arauturik agertzen da. Laburbilduz, futboleko denbora guztiz kontrolatua dago, ekoizte sistema bat balitz bezala ezarria eta iragana, oraina eta geroa ditu ezaugarri, memoria eta linealtasunaren adierazle.

Aerobicean eta mendi zeharkaldietan ez dago irabazle eta sailkapenik. Zeharkaldian une batzuk ingurune fisikoaren zigorra jasanez pasatzen dira: ekaitza, lainoa, arriskua… Baina gainditzeak mendizalea natura menperatzearen

sarian sentiarazten du, zorigaiztoei aurre hartzean poza. Nahiz eta tontorrera lehenengo iritsi ez da izaten irabazlerik, memoriarik ez baita gordetzen eta kideak gero bere parekoak izaten baitira. Aerobicean saria, norberak lortzen dituen hobekuntzak bizitzean dator, gauzak geroz eta hobeto egitean eta horren ondorioz onura bat eragitean. Inortxok ez baitu irabazten, ezta dantza pausoak egokien egiten dituenak ere. Partehartzaileek denboraren kudeaketa guztien artean eraiki behar dute eta akordioak etengabekoak izan beharko dira. Bi praktika hauetako partehartzaileen esperientziak denbora ziklikoak menperatzen ditu, beraien zeharkaldi edo saioko une bakoitzean, egoera berdinean berraurkitzen baitira.

Oporrak eta lan garaiak eta denbora ziklikoa eta lineala herritarren aisi denboraren une eta zentzuak bihurtu dira; oporrak denbora ziklikoarekin lotuz eta lan garaiak denbora lineal eta eguneroko denbora ziklikoarekin. Mendi zeharkaldian aerobicean eta futbolean bizitzen diren denbora zentzuak, gizartea eraiki eta osatzen duten denbora bizipenen lekuko dira. Izan ere, denbora une guztiak dira kirol aisiaren protagonista.

12.1.3 Jarduleen arteko harremanak: gu besteen aurka eta gu elkarrekin

Parte-hartzaileen arteko erlazioak praktiketan ematen diren harremanen antolamenduaren erakusle izaten dira. Zentzu horretan praktika burutzen duten jarduleen sexu generoa aztertu beharreko aldagaia da. Aerobicean eta mendi zeharkaldian gizonezkoek eta emakumezkoek parte hartu dezakete, bi generoak elkarrekin aritzeko aukera dute. Parte-hartzaileen esku dago bertan aritzea. Mendi zeharkaldia eta aerobica ildo berean kokatzen dira, askatasuna ematen baitiete jarduleei sexu generoari dagokionean. Futbolean aldiz, ezarritako sexu genero bat agertzen da: gizonezkoena. Beste bi praktikekin alderatuz, Gorengo Mailan emakumezkoek ezin dute parte hartu, instituzioak horrela agintzen baitu.

Aztertutako hiru praktiketan, gizonezkoek eta emakumezkoek parte hartzeko aukera bi ildotan banatzen zaigu, aerobic eta mendi zeharkaldian parte hartze askea eta futbolean agindua. Baina sexu generoa “arbitrarioki emandako esanahi batzuei deritzon adierazle” (Medina eta Sánchez, 2003, 160) den horretan, praktika bakoitzak berezitasun desberdinak agertzen dizkigu. Aerobiceko

jarduleak emakumezkoak diren bitartean, mendi zeharkaldian bi generoak elkarrekin aritzen dira eta futbolean, erakundeak hala derrigortuta, gizonezkoak jokatzen dute.

Futbola beraz, gizarteak ematen dion esanahi eta erakundeek ezarritakoan bat etortzen da, izan ere "futbola fenomeno maskulino bat izan da eta horrela jarraitzen du izaten, maskulinotasunaren paradigma" (Medina eta Sánchez, 2003, 92). Aerobic eta mendi zeharkaldietako partehartzaileek erakundeek utzitako aukera horietan, genero izaera desberdina agertzen dute. Mendi zeharkaldian natura eta bi generoan arteko lotura azaleratzen da. Eta aerobicean agerian geratzen da "emakumeen parte hartzea aisi aktiboan formako gimnasia deituriko praktiketan ematen dela" (Medina eta Sánchez, 2003, 176).

Parte-hartzaileek elkarren artean mantentzen dituzten harremanetan bi erlazio mota agertzen zaizkigu: kolaborazio-oposizioa eta kooperazioa. Mendi zeharkaldi eta aerobicean kooperazioa da nagusi. Beraietan parte hartzen duten jarduleek elkarren artean kolaboratu egiten dute praktikak arrakasta izan dezan. Ibilbidean aurrera egiteko eta saioa burutzeko komunikazio motorraren bidezko kooperazioa ematen da. Kooperazio hori intimitatean ematen da ez baitago ikuslerik eta modu horretan gertatzen den elkarrekintza partehartzaileen jakingai bakarrik geratzen da. Aerobicean eta mendi zeharkaldian ematen den intimitatea herritarren eguneroko hainbat alorretan ere irudikatzen bada ere, etxean edo familian, guztien erakusle bihurtzen zaigu; "etxeko faltak etxean gorde" (Garate), atsotitzak laburbiltzen du arlo pribatuaren oinarria.

Futbolean bi talde elkarren aurka aritzen dira duelu kolektibo batean. Herri batetakoak kooperatzen dute beste herri batekoei aurka eginez. Futbola bataila bat bihurtzen da (Dal Lago, 1991, 41). Kooperazio-oposizio horretan garailea oposizio hori menperatzen duena izango da, gol gehien sartzen dituena. Ahalegin horretan futbolarien artean bortizkeria atalak agertzen dira, "jokalarien artean eraso suntsigarriak agertuz" (Blanchard, Aubet, Cheska, eta Norbeck, 1986, 182). Taldeen arteko elkarrekintza horiek publikoak dira, ikusleak daudenez eta gertatzen dena guztien jakingai denez sarritan liskarrak harmailetara ere hedatzen dira, "harmailetan inork ez du galdu edo irabazten pertsonalki, baizik eta tribu

mailan” (Verdú, 1980, 10). Publikotasunean, futbola merkatu ekonomikoaren osagai den ikuskizuna da. Futbolak plaza publikoa irudikatzen du modu horretan “politikarekin parekatuz, beraien egiturak eta aurka egiteak duten afinitateaz eta jokalariek hartzen duten ordezkari izaeraz” (Verdú, 1980, 11).

Mendi zeharkaldi, aerobic eta futbolean ematen diren harremanetan izaera desberdinetako herritarrak parte hartzen dute. Beste modu batean esanda: guztiak dute tokia, emakumezkoak edo gizonezkoak, aurrez ezarritako generoa eta modu librean aukeratutakoak. Praktika fisikoen testuinguruak partehartzaileen aniztasuna azaleratu digu, guztiek baitute beraietan tokia. Dibertsitate hori praktiken egituretan ere ematen da, mantentzen dituzten harremanak kooperaziozkoak edo oposiziozkoak izanez, lotura mota guztiak erlazio bide bihurtuz.

12.1.4 Gizarte kontsumista: objektuz beteriko jarduerak

Jarduera mota guztiak egiteko XXI. mendeko garai honetan objektuek hartu duten presentzia aipatzeko modukoa da. Mundu mailako sistema ekonomikoaren gurpilean kokaturik, objektuak, gurpil horren biran laguntzen duten materialak dira, “kirol materialak ekoizten dituzten guztientzat, kirolak, dirua irabazteko aukera ezin hobea eskaintzen dute” (San Salvador del Valle, 2000, 693). Herritarrek objektuak kontsumitze horretan, material desberdinak saltzeko egiten diren berrikuntza eta publizitateak garrantzi handikoak dira. Urtaro batetik bestera, koloreak aldatzen dira, denboraldi batetik bestera diseinu berriak agertzen dira; azken teknologiaren aplikazioak izaten dituzte ezaugarri… Gaur egungo objektuak erabili eta botatzekoak bihurtu dira, kontsumo bidean gurpilak bira dezan. Kultura eta gizartea aztertzeko elementu egokiak izaten dira material horiek, izan ere, “arropek, objektuek, gizarte horrek dituen ezaugarriak adierazten baitituzte” (Sahlins, 1997, 181).

Aerobicean, futbolean eta mendi zeharkaldian, materialaren presentzia ematen da. Stepak, musika irakurgailuak, baloiak, berna hezur babesleak, bastoiak edo motxilak partehartzaileek erabiltzen dituzten objektuak dira. Material guzti horien ezaugarrietako bat teknologia da. Jantziak petrolioa fintzean ateratako

ehunekin eginikoak dira eta berdina gertatzen da baloi edo botekin; ordulari edo musika irakurgailuek funtzio anitzak dituzte eta teknologi digitalen adibide dira. Kirol materialen inguruan moda eta negozio ekonomikoa lotuta doazen binomioak dira eta mendi zeharkaldiak aerobicak eta futbolak hori agerian uzten dute.

Teknologia, moda, kontsumoa edo negozioa azaltzen bazaizkigu aztertutako praktika fisikoek dituzten ezaugarri bateragarri bezala, horren barrenean bi joera argi azaleratzen zaizkigu. Mendi zeharkaldi eta aerobicean partehartzaile bakoitza objektu eta material desberdinekin aritzen da: galtza motzak, luzeak, kolore argiak ilunak, oinetako diferenteak… Bi praktika hauetan partehartzaile taldeak hartzen duen janzkera guztiz anitza gertatzen da. Mendizale eta aerobic jarduleek ez dute taldean identifikatzen dituen kolorerik edo janzkerarik erabiltzen. Praktika berdina burutzen duten beste jardule batzuen aldamenean jarrita, begi bista batean ez dago mendizale edo aerobic jarduleen talde identitatea antzemango duenik. Materiala ez dute erabiltzen besteetaz desberdintzeko.

Futbol jokalariak, aldiz, uniforme batez jantziak ateratzen dira zelaira. Talde bereko futbolari guztiek soinean eramaten dituzten kamiseta eta galtzak berdinak dira, bai kolorez, diseinuz edo marka komertzialez. Gainera material guzti horiek homologatuak daude, berdinduak, muga batzuen barrenean guztiak sartuz. Janzkera beste taldeetaz desberdintzeko erabiltzen dute eta modu horretan eramaten dituzten koloreak taldea elkartearekin lotzeko balio izaten dute. Futbolean ematen den uniformearen erabilera lantegi edo estatuetako langileekin parekatu daiteke: banatzaile, gidari, suhiltzaile, polizia…

Praktika fisikoetan erabiltzen diren material eta objektuak erosi egiten dira, komertzio eta kontsumoaren ezaugarriak betez. Jarduera fisikoak merkatu ekonomikoaren barrenean sartuta agertzen dira, baina batzuek uniformea eta homologazioa irizpide nagusi duten bitartean, beste batzuk beraiek nahi dituzten material eta objektuak erabiltzeko autonomia dute.

Etnografietan, mendi zeharkaldiak, aerobicak eta futbolak dituzten berezitasunak behatu eta azaldu ditugu eta ondoren etnologia honetan praktika horien sakontasunean, komunak diren propietateak topatu ditugu, orokortasunari

dagozkion ezaugarriak. Geertzen “deep play” delakoak praktika fisikoen beste maila bat ezagutzen lagundu digu, epidermisetik dermisera pasa gara. Eta maila horretan behatu dugu praktika fisikoak gure planetaren gune guztietan burutzen direla: naturan eta hirian, etxean eta basoan, ingurune fisikoan eta ingurune urbanoan; munduaren eremu guztia jolasleku izanez. Eremu guzti horietan denboraren izaera guztiak bizitzen dira ziklikotasunaren etengabeko une berdinak eta linealtasunaren memoria, egutegia banatzen dugun osotasunean: oporretan, lanegunetan edo aste bukaeretan. Aldi horietan herritar guztiek, emakume eta gizonezkoek, parte hartzen dute praktika fisikoetan, beraien artean harreman desberdinak mantenduz eta erabiltzen diren material eta objektuak merkatu ekonomikoaren eraginpean kontsumo ekoizpenak izanez.

12.1.5 Orokortasunean bereizten diren ildoak

Mendi zeharkaldiak, aerobicak eta futbolak bakoitzak bere berezitasun propioak dituztela ikusi dugu, bizipen istorioak ez dute hori adierazteko zalantzarik uzten. Hurrengo urratsean, hiru praktikek diferenteak izanik, dituzten ezaugarri komunak azaleratu ditugu. Mundua jolasleku duten praktika fisiko horiek denbora zentzu guztietan jarduten dira, partehartzaileen arteko harreman mota desberdinetan eta merkatu ekonomikoaren osagai diren objektuak erabiliz. Orokortasun horiek bide eman digute aerobic, mendi zeharkaldi eta futbolean komunak diren osagaiak aztertzeko, baina jeneraltasun horretan, bi kolore izango balira bezala, praktika fisikoen izaeran bi ildo nagusi azaleratzen dira. Batetik, hirian, linealtasunean, kooperazio-oposizioko erlazio batean eta agindutako objektuekin egiten direnak; eta bestetik, hirian edo naturan, ziklikotasunaren izanean, kooperatuz eta objektuen aukera askeekin burutzen direnak. Biak desberdinak izanik, zein ote da gizartean hartzen duten esanahia? Zer topatu ote dezakegu zientzian ezaugarri horiei buruz?

Futbolaren adierazleak bi talderen aurka egitea ematen den beste kirol batzuetan ere ematen dira: saskibaloia, errugbia, eskubaloia… Jokalariak talde bat, herri bat edo lurralde bat ordezkatzen dute, irabazteak, ohorea, aberastasuna edo ospea dakar “kluben, herrien edo babesleen populartasuna handituz” (Segurola eta Augé, 1999, 79). Lehia horretan ahalik eta etekin handiena

ateratzea beharrezkoa da, zentzu horretan errendimendua neurtzen duen kirola da. Errendimendu hori neurtzeko txapelketak edo lehiaketak antolatzen dira, “kirola lehiaketarekin identifikatuz” (García, 2006, 21).

Lehiaketan kolore batzuk defendatzen dira, uniformea, jokalariek ordezkatzen duten koloreen jantzia bihurtuz. Lehiaketan, gainera, desberdintasunak arautu egiten dira: sexu generoak banatu egiten dira, adinak sailkatu… Ikusgarritasuna areagotzeko lehia mailak berdindu egiten dira. Ikusleak agertzen dira “euren taldearen arrakasta nahiez” (Bourrel eta Seno, 1995, 12). Aste bukaera guztietan ikuskizuna dago, publikoa eta emaitzarekin kirola espektakulu bihurtzen da, “protagonista gutxi eta ikusle asko dituen jokoa” (Galeano, 1995, 2). Errendimendua, lehiaketa, ikuskizuna, etekina… bat etortzen dira futbolak dituen ezaugarriekin, “kirolariak lehiatzeagatik eta kirol emaitza onak lortzeagatik egiten duena” (Eusko Jaurlaritza, 2005, 71.).

Lehiaketa, klubak, federakuntzak, ikuskizuna… dituen kirola industrializazioaren aro modernoan sorturikoa izanez, dituen baloreak ere aldi horretara lotuak agertzen dira: “zibilizazio ideia, osasunaren hobetzea, lana, aurrerapena, berdintasuna baino lehia berdinen artean, araudi eta legeetan oinarritutako justizia eta garaipen eta arrakastaren bilaketa” (Medina eta Sánchez, 2003, 51). Joko Olinpikoetan edo Munduko Futbol Txapelketetan klimaxa duen errendimendua islatzen digute futbolean agertu zaizkigun ezaugarriak.

Euskal kulturan ere badauzkagu praktika fisikoak ordezkatzen dituzten figura ludikoak, eta futbolak irudikatzen duen errendimenduko edo lehiaketako kirolari “jokoa” deitzen zaio. Jokoa “bata ala bestea” da, guztientzako ez dago saririk; “jokoak ez du zalantzarik uzten nor den irabazle eta nor galtzaile jakiteko” (Zulaika, 1985, 7). Jokoan aritzeak, jokatzeak, “irabazteko plazera du oinarri” (Urdangarín eta Etxebeste, 2005, 37).

Futbola, errendimenduko kirolak, lehiaketa du bere ikurra. Neurketa eta memoria horren ardura federakuntzek osatzen dituzten instituzioetan ematen da. Erakunde horien ezaugarrietako bat beraien hierarkia da. Lehiaketako kirola mailaz maila sailkatua dago, kirol jokoaren ardura maila gorenean dauden erakundeak izanik: nazioarteko federakuntzak, nazioarteko olinpiar batzordeak…

Txapelketak auzo, herri, hiri, lurralde, nazio edo estatu mailan izaten dira, kirol taldeak sozietate horietako bakoitzaren lehiaren isla eta ordezkari bihurtuz. Futbolak irudikatzen duen errendimenduko kirol honen egitura, maila guztietan errepikatzen da, eskolaz kanpoko kirola deiturikotik hasi eta kirolari profesionalek lehiatzen duten maila arte. Kirol honen ardura eta kudeaketa erakundeen gain dago, kirolarien ordezkari diren unetik agintzeko eta kirolaren politika zuzentzeko eskumena izanik. Errendimenduko kirolak garatutako estatu moderno batek bezala funtzionatzen du, herritarrek beraien bozka bidez ordezkariak aukeratuz eta herri ordezkari horiek arauak eginez eta legeak bete araziz estatua zuzenduz.

Baina futbolak ordezkatzen duen errendimenduko kirolean ematen den erakundetze, lehiaketa, hierarkia, mailaketa edo lizentzietatik kanpo, ba ote dago beste ezaugarri batzuek dituen kirolik? Errendimendu edo lehiaketa eredutik baztertu eta urrutiratzen den kirolik ba al dago? Ikusi dugun errealitate bakarra al da? Aerobica eta mendi zeharkaldia desberdinak izanik, beste mota bateko kirolaren irudikapenak ote dira?

Kontuan izan behar da modernitatetik, bigarren modernitate edo postmodernitate batera pasa garela eta kirol sistema horren erakusle bat besterik ez dela, berezitasun berriak erakutsiz “lehiaketa edo errekorra eta klubak eta federakuntzak, kirola ulertzeko modelo berriekin desplazatuz” (Medina eta Sánchez, 2003, 59). Konpromiso era berri bati buruz ari gara, kirol sistemako arlo askotan inplikazioak dituena eta aktore tradizionaletatik kanpo burutzen dena. Neurketa eta emaitzak indarra galtzen dute eta dibertimenduak edo denbora pasak hartzen dute garrantzia.

Aerobica eta mendi zeharkaldiak kirol sistema berriaren oinarrizko lerroekin bat etortzen dira: praktiken difusioa eta kolektibo sozial desberdinen gehitzea, banakotasun eta pertsonalizatze prozesua, praktika klasikoen baztertzea, praktika desberdinen konbinazioa, teknologiaren indarra, abentura eta arriskua, eta emakumeen parte hartzea (Pociello, 1995, 112). Abentura eta estetika edo osasuna, norberaren aisialdia antolatzen duten printzipio eragileak dira. Ziklikotasuna, hiria edo natura, kooperazioa eta objektuen aukera askea, beste errealitate bat adieraziz, errendimenduko kirolarekiko desberdina den esanahia

baten erakusleak dira, herritarrek kirola, “dibertitzeko edo atsegin hartzeko eginez” (García, 2006).

Kirol mota honetan emakumezkoak eta gizonezkoak batera jardun dezakete. Partehartzaileen adina zehaztu gabekoa da, partaidetza anitzeko kirola izanez. Eta jarduleek, lehiaketa edo errendimendua baztertuz, beste hainbat arlotan dituzten premiak asetzeko egiten dute praktika: “aisia, olgeta, estetika edota osasuna” (Eusko Jaurlaritza, 2005, 61). Modu horretan intimitatean, ikuskizunik gabe, partehartzaile bakoitzak burutzen duen praktika bihurtzen da kirola (Cagigal, 1981, 58).

Aisialdiko edo partaidetzako kirol honek ere errendimendukoarekin gertatzen den bezala, gure kulturako figura ludikoetan badu presentzia, euskaraz “jolasa” deituz. Azken momentuko irabazi edo galtzeak ez du definitzen jolasa, “irabazle eta galtzaile gertatzea, akzidental dira jolasaren dibertimenduan” (Zulaika, 1985, 8). Kirol mota honetan eta jolasean, “bata eta besteak” irudikatzen du bertan barneratzen den “partekatzeko plazera” (Urdangarín eta Etxebeste, 2005, 37).

Askatasuna eta abentura dira aisialdiko kirolaren bi oinarri. Oporrak eguneroko bizimoduan egindako arnas hartze bat bihurtzen dira eta, aerobicean eta mendi zeharkaldian gertatzen den bezala, aisialdiko kirola egitean jarduleak “break” bat egiten dute, jarduera egiteak bultzatzen dien dibertimendu hori askatasun eta abentura gisa bizituz. Egoera fisikoa, osasuna eta naturak partehartzaileen nortasunean du zentro, hierarkiarik ez dago eta taldea atseden une horietan eraikitzen da. Bizitza sedentarioarekiko erantzuna izaten da aisialdiko kirola, osasunaren ikurra, irudiaren makilaje praktika.

Bigarren modernitaterako jauzi horrek, errendimenduko kirol tradizionala deiturikoa eta postmodernitateko aisialdiko kirola, elkar bizitzera eraman ditu, modu horretan “errendimendua edo luzarorako prestakuntza, abentura, hedonismoa edo berehalakoarekin elkar bizitzera” (González eta Requena, 2005, 155). Batetik, futbola, errendimenduko kirolaren adierazle agertu zaigu eta, beste aldetik aerobica eta mendi zeharkaldiak aisialdiko kirolaren espresioak irudikatu dira. Hiru praktikak bi ildo dituzte erakusgarri: irabaztearen alorra eta ongizatearen bilaketa.

12.1.6 Esanahi anitz dituen kirol fenomenoa

Beraz, errendimenduko kirola eta aisialdiko kirola, biak agertzen zaizkigu aerobic, mendi zeharkaldi eta futbolean. Desberdintasunak argi gelditu zaizkigu bakoitzaren berezitasunak agerian utziz. Hala eta guztiz, biak lotzen dituen uztarri bat bezala kirol terminoa agertzen zaigu: kirol hitzak irabaztea eta ongizatea elkartzen ditu. Baina, ba al dago hitzaren gainetik bi praktika multzoak lotzen dituen ezer? Zer partekatzen dute errendimenduak eta aisiak? Zein ezaugarriek elkartzen dituzte bi kirol mota desberdinak?

Erantzunaren bilaketan eta berezitasun horiek aurkitu nahian, orain arte erabili dugun metodologia bera aplikatuko dugu oraingoan ere: errendimenduko eta aisialdiko kirolaren espazio, harreman, denbora eta objektuen azterketa.

Errendimenduko kirola espazio mugatu eta zehatzetan burutzen da, unibertso osoan berdindurik dauden guneetan, debekuak eta baimenak, eskubideak eta betebeharrak erakundeek argi ezartzen dituzte. Lehia eta konparaketa posible egiten dute eremu horiek. Kirolaren espazio hau zaindua, zehaztua eta mugatua da. Baina ikusi dugun bezala hori ez da bakarra, espazioaren eredu hori beste modu batean antolatzen baitzaigu aisialdiko kirolean: mugatu gabeko espazioetan emanez eta muga eta erabakiak partehartzaileen esku egoten diren eremuak izanez. Gune horiek anitzak dira, uniformetasunetik kanpo. Aisialdiko kirolean espazio mota guztiek dute lekua, jarduera bera egiteko ere dibertsitate hori egokia izanez.

Errendimenduko eta aisialdiko kirolak erakutsi digutenez kirolaren eremua ludia da: bere mendi, oihan, itsaso eta basamortuekin batera, eraikitako kiroldegi, areto eta estadioak. Kirola lurralde guztiak lotzen dituen zerua bihurtu da.

Era berean, errendimenduko kirolean etekinak kontatu eta gorde egiten dira, beste adierazpen batzuekin parean jartzean, ekoitzi denaren arabera, sailkapenak egin saria, errekonozimendua eta ospea lortzeko: irabazia eta lorpena errendimenduko kirolaren printzipioak dira. Errendimendua kontatu daitezkeen gauza materialetan ematen da. Baina aisialdiko kirolean, denboraren beste bertsio bat aurkitzen dugu eta, kasu honetan, izatea da oinarria: osasuna izan, abentura

izan, egoera fisikoa izan, irudi egokia izan… Bakoitzaren intimitatean, ongizatea bilatzen da.

Azaldu eta agerian geratu zaigun bezala, kirolaren denborak aro guztiak hartzen ditu bere gain: sasoi eta garai guztietan izan eta lortzen da. Kirola, denbora guztiak onartzen dituen tenorea da.

Bestea gainditzea da helburu errendimenduko kirolean. Ezarririk dagoen justizia errespetatu eta berdintasun juridikoan oinarrituz, norgehiagokan gurekin lehian ari dena atzean utzi behar da, gailendu; aurkaritza ezinbestekoa da. Irabazia arerioarekin mantentzen den aurkaritza harremanean oinarritzen da. Beste talde edo partehartzaileekin burutzen den lehian, aurkaritzak ematen du garaipena, ospea, lorpena eta guztia ikuskizun bihurtzen da. Bestalde, aisialdiko kirolean aurkaritzak zentzua galdu eta partehartzaileen elkartze eta kolaborazioan oinarritzen da; jarduleek, oposiziodun lehiatik ihesiz, denen hobekuntzak izaten direnetan kolaboratzen dute. Aisialdiko kirolean jarduleen arteko harremanak eraiki egiten dira, ez baitaude aurrez erakunde batek ezarriak.

Kirolaren harremanak erlazio mota guztiak dira: lankidetza burutuz kooperaziozkoak eta etsaitasuna erakutsiz aurkakotasunezkoak. Lotura era guztiak osatzen dituzte kirol ariak.

Errendimenduko kirolean material erakuslea uniformea da. Ordezkatzen den sozietate edo elkarteen jantzia sinboloz beteriko ikurra da. Objektu homologatuak, guztiak erakundeak kontrolatuak, araudien aurrean guztiak berdinak izateko lehia parekatua erakustea da helburu, baina txanponaren beste aldean, aisialdiko kirolean, partehartzaileak aske dira nahi dituzten objektu eta materialak erabiltzeko, aukeraketa norberaren esku dago nahiz eta kontsumo merkatuak eta modak aukeraketa horien irizpide ezkutuak izan.

Materialen erabilpenean objektu mota guztiek osatzen dute kirolaren biltokia: ezarritako uniformeak eta norberaren araberako jantzi askeak. Izan ere kirola maskara guztiak onartzen dituen aurpegia da.

Errendimenduko kirolak eta aisialdiko kirolak dituzten ezaugarriek, biak lotzen dituen kirolaren berezitasunak topatzera eraman gaitu. Kirolak, unibertso osoko espazioa du gune, bertan denbora tenore denak biziz eta ematen diren

mota guztietako harremanetan erabiltzen diren tresneriak, izaera oro izanez. “Kirola dena da” (González eta Requena, 2005, 154). Unibertso osoan, une orotan, hartu-eman guztietan eta lanabes denekin daukagun “jainkoa”.

Itsasoaren ertzean paseatzen dutenek kirola egiten dute, saskibaloiko partida bat jokatzen dutenak kirola egiten dute, bere kabuz korrika ibiltzen denak kirola egiten du… Instituzio eta erakundeen babesean antolatzen diren lehiaketetan parte hartzen duten jarduleek kirola egiten dute eta bere kabuz eta nahi dutenean praktikatzen dutenak ere kirolean dihardute. Kirol eredua “zirkulu errepresibo baten erdian dago ”(Partisans, 1978 129. or.), (Brohm, 1982), baino baita ere norberaren autonomia bidea (Le Boulch, 1991). Kirola ikuskizuna da eta era berean intimitatea, kirola herrialdeen arteko harremanak hobetzeko tresna da (Comité Internacional Pierre de Coubertain), baino baita ere herrialdeen arteko ezin eramana aldarrikatzeko lanabesa. Kirola marka eta errekorra da baino baita ere olgeta eta broma. Europako Kontseiluaren definizioak ere joera guzti horiek bere gain hartzen ditu kirola “egoera fisikoa edo psikikoa adieraztea edo hobetzea, gizarte harremanak garatzea, edo lehiaketa maila guztietan emaitzak lortzea helburu dituen edozein eratako jarduera fisikoa, parte hartze antolatu edo ez antolatuaren bidez gauzatzen dena” izanez (Consejo de Europa, 1992, 8). Horrela aurkeztuta, kirola dena eta ezerrez da: hondarrezko oinak dituen erraldoi indartsua.

12.2 Kiroletik kirolarira: sistematik aktorera

Kirolaren ezaugarriek beste fenomeno sozial garrantzitsu bat agerian uzten dute: kirola egiten duena kirolaria da. Aipamen horrekin, Norbert Eliasen jakintzak jarraituz, gizartea sozietate horretako partaidez eta horiek eraikitzen dituzten harremanetaz osatua dagoela azpimarratu nahi da. Hori adieraztea, kirol sistema, kirolari aktoreek eta beraien arteko elkarrekintzek osatzen dutela esatea da. Ikuspuntu hori hartzean, giza sistemaren barrenean aktoreak banakoak direla adierazten da.

Banako horiek kudeatuko dituzte gizarteak luzatzen dizkien jokabide ereduak, estereotipo sozialak, “izaera eta jokabideari buruzko araudi itxaropenen murrizketa” (Goffman, 2003, 67), eurek dituzten ezaugarri eta desioekin giltzatzean identitate bat lortuz. Esku artean dugun erronkarik nagusiena kirol identitatea definitzea da. Zer da kirolaria izatea? Futbolaria izatea zer da? Nola eraikitzen da hiritarra kirolari gisa?

Pertsonek eraikitzen dituzten identitate sozialak bereganatzen dituzten rol sozialekin lotzen dira. Lan postuek, polizia, sindikalista edo irakaslea, gizartean banakoak besteen aurrean aurkezteko posizioa definitzen laguntzen duten bezala, kirolari rolak aisi aldiko irudia eraikitzen du. Gureganatzen ditugun rol sozialek, besteen aurrean plazaratzerakoan, guri buruzko informazioa eskaini eta egoera definitzen laguntzen digute. Rol soziala “estatus bati erantsitako eskubide eta betebeharren aldarrikapena” (Goffman, 1987, 28) edo “rolaren jabeak derrigorrez onetsi behar dituen arau multzoa” (Boudon, 1979)bezala definitzean, pertsona batek kirolari rola betetzean espero daitekeena azpimarratzen da.

Pertsonek dituzten elkarrekintzek giza egoera definitzen laguntzen dute, eta modu horretan, definizio hori bere interesen aldekoa bada, banakoak besteen aurrean duen posizioa indartzen da. Adibidez, aerobiceko saio batean lehen lerroan kokatu eta erritmoa jarraitzeko gai bada bere jakintsu posizioa indartuko da. Aldiz definizioa interesen kontrakoa bada duen posizioa ahultzen da; aurreko adibide berdina erabiliz, aerobiceko lehen lerroan jarri eta erritmoa ezin jarraituz badabil besteen aurrean egoera kaskarrean gelditukо da, atzerantz joateko presioa jasanez. Baina rol sozialek exijentzia handiak eskatzen dizkiete pertsonei,

guztiek ez baitute denerako balio eta, era berean, egoera batzuk beste posizio batzuk baino prestakuntza luzeagoa eskatzen baitute. Rol sozial bakoitzak pertsonari “atributo” batzuk exijitzen dizkio: emakume modelo izateko, andrezkoa izan behar da, gorputza neurri berezi batzuetakoa izan, edertasunaren irizpideak bete eta nortasuna izan (gaztetasuna, atsegina, armonia, oreka…). Ezaugarri horiek Goffmanen aburuz fisikoak, moralak edo kulturalak izan daitezke eta, kirolaria ere dinamika berean ulertu behar dugu.

12.2.1 Kirolari rol soziala

Aipatu bezala, kirolaria kirola egiten duena da. Arestian azaldu dugun moduan, gaur egungo gizartean kirolak jokabide motor anitz definitzen ditu:. espazio ziur edo aldakorretan, bakarka edo taldean, lehian edo lehia gabe, objektu eta janzkera definituekin edo zehaztugabeekin, kirol instituzioaren barne edo kanpo. Laburbilduz: kirola egoera motorra izan beharko da, hori da gizarteak ematen duen definizio bakarra.

Beraz kirolaria “kirolean aritzen dena, bereziki lanbide gisa” ("Harluxet Entziklopedia,") izango da, edo “kirolean aritzen dena, kirolak laket dituena” (Donostiako Udala). Definizio desberdin horiek kirolari rolaren eraikuntza soziala azaltzen dute: jarduera motorrak praktikatzea. Europako Kontseiluak hiritarren eskubidea dela adierazten du eta gizarteak “pertsona bakoitzari kirola praktikatzeko aukera eman” (Consejo de Europa, 1992, 8) behar dio. Kirolariak edozein kirol praktikatzeko aukera izango du eta barrenean sartuko dira “paseo eta korrika ibiltzetik hasi eta joko tradizionaletatik pasatuz, naturako praktikataraino” (García, 2006, 125).

Banakoa, bere aisialdiko eta gizarteko posizioa definitu nahian, bi aukeren aurrean topatzen da: kirolariaren rola onartzea ala aisi pasiboko posizioa eskuratzea. Gure eguneroko diskurtsoan kirolaria, gaztetasuna, osasuna eta edertasunarekin lotzen da. Eta aldiz, kirolaria ez dena, oposizio semiologiakoan, gaztetasun, osasuna eta edertasun ezarekin.

Badakigu kirolaria gizartean dauden pertsonen “kategoria bat izango dela eta ondorioz atributu batzuk lotuko zaizkiola” (Goffman, 2003, 11); baina ze

atributu ditu kirolariak? Arlo fisikoan ez dago mugarik: altuera desberdinak, sexu desberdinak, pisu desberdinak, azal desberdinak… Laburbilduz, gorputz mota guztiak onartuak dira, baita elbarri direnak ere. Nortasunaren arloan ez da desberdintasunik topatzen: harroak, lotsatiak, atseginak, bortitzak… denek dute kirola egiteko aukera. Atributu sozial desberdinak ere onartuak daude: erlijioari, politikari edo ekonomiari dagozkionak.

Kirolaria izateko baldintza praktika fisikoa egitea da, eta hori izan ezik kirolaria bihurtzeko mugarik ez dago. Kirolaria izatea eskubide bat da. Baina horrek beste errealitate bat ezkutatzen du: eskubideetan mugarik egon ez arren gizartearen joerek baldintzatzen dituzte aktoreen aukerak. Garcia Ferrandoren (García, 2006, 57) datuek azaltzen digute kirolarien ezaugarrien tendentzia sozialak. Gazteak dira, gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago izanez, derrigorrezko hezkuntza maila eta ikasketa unibertsitarioak dituztenak nagusiki, eta maila ekonomiko erosoaren jabe direnak. Gizarte kide guztiek izango dute posibilitatea eta eskubidea, baina gizarteak herritar talde konkretu bat bultzatzen du kirolaria izatera. Kirolak banakoen identitatea eraikitzen laguntzen du.

12.2.2 Errendimenduko kirolariaren eta aisialdiko kirolariaren rola

Kirolaria izateak baditu beste aukera batzuk, izan ere kirolari bat errendimendukoa eta aisialdikoa izan daiteke eta egoera horietako bakoitzean definizio desberdin batean aurkituko da, kirolari bezala identitate propio bat eraikiz. Identitate hori ordea lausotua dago, hizkuntzak berak ere ez baititu hitz gisa biak bereizten, adjektibo gisa baizik, baten eta bestearen definiziorik hiztegiek adierazten ez dutelarik.

Modu horretan, errendimendu eta aisialdiko kirolari rolak, kirolari izenari errendimendu edo aisia adjektiboak gehituz definitu ditzakegu. Lehena, kirol lizentzia baten jabe izanez, kirol federazioak antolatutako txapelketetan parte hartzen duen kirolaria da; eta bigarrena, oposizio semantikoa erabiliz, lizentziarekin edo gabe kirol federazioak antolatutako txapelketetan parte hartzen ez duena.

Errendimenduko kirolaria kirol entitate baten ordezkaria izango da: talde bateko kidea; eta aldi berean, mekanismo sinbolikoei esker, hiri bateko edo herrialde bateko ordezkaria. Aisialdiko kirolariak ez du horrelako identitate komunitarioen prozesurik jasaten: bere buruaren jabea da beti, berak ez duelako inor ordezkatzen.

Errendimenduko kirolaria besteen aurrean aurkezterakoan kirol emaitzaren menpe dago, emaitzak publikoak baitira, eta jarraitzaileen aurrean arrakastak edo porrotak egoera indarrez baldintzatuko du. Aisialdiko kirolariak, irabazlerik eta galtzailerik ez egotean, kirol emaitzek garrantzirik ez edukitzean eta, baleude, publizitaterik gabekoak izatean, kirolari orokorraren identitatea jasotzen du eta gazte, osasuntsu eta ederraren posizioan mantentzen da.

Gizarteak errendimenduko eta aisialdiko kirolariari ezaugarri sozial konkretu batzuk lotzen dizkio, identitate atributu batzuk. Errendimendukoari, lehiaketen araudian azalduz, sexu banaketa exijitzen zaio gizonezkoak gizonezkoekin eta emakumezkoak emakumezkoekin lehiatuz. Kirol erakundeek ez dute gizon eta emakumeen lehia parekatua gustuko. Aisialdikoari berriz, banaketa leunagoa gertatzen zaio, txapelketa ezak sexu banaketa deuseztatzen baitu, kirol erakundeen dekretuen ordez gizartearen joerak izanik irizpide. Gure gizartean errendimenduko kirolariaren perfila, gizonezkoa, gaztea eta 34 urtez beherakoa da; aisialdiko kirolariaren profila berriz, gizonezko eta emakumezkoa eta adin talde guztietakoa (García, 2006, 74).

Errendimenduko kirolariak ganoraz hartu behar du bere kirol praktika, duen identitatea jokoan dagoelako. Seriotasun horrek prestatze saioak bultzatzen ditu, entrenamenduetan egiten dena lehiaketan agerian geratzen baita. Aisialdiko kirolariak ez ditu kirol praktikak entrenamendu eta txapelketetan banatzen, denak gauza bera baitira, praktika egitea, modu honetan kirolari orokorraren ezaugarrietan murgilduz.

Beraz, errendimenduko kirolak kirolarien identitatean atributu bereziak eskatzen ditu, aisialdiko kirolariek hartzen duten kirolari arruntaren identitatetik banatuz.

12.2.3 Futbolariaren, aerobic jardulearen eta mendizalearen rola

Euskal hiritarren kirolari identitate azterketa honetan azkeneko maila aurkeztea falta zaigu: kirol praktikak bultzatutako identitatea. Gure kasuan futbolaria, mendizalea eta aerobic jardulea dira rol sozialak, lehena errendimenduko kirolariaren ordezkaria izanik eta beste biak aisialdikoarenak. Zentzu horretan, euskal hiztegian ere argi azaltzen da kirol praktikek identitatea eraikitzen dutela, futbolari eta mendizalearen kasuan nagusiki.

Futbolaria “futbol jokalaria” da ("Harluxet Entziklopedia,"). Futbol izenari *lari* atzizkia eransten zaio futbolaria izendatzeko. Atzizki hori “lanbidea edo aktibitatea” (Santurtziko Udal Euskaltegia) adierazteko erabiltzen da euskaraz: zientzialari edo hizkuntzalari. Mendi zeharkaldiak egiten duen kirolaria mendizalea da, “mendira joatea gogoko duen pertsona” ("Harluxet Entziklopedia,"). Mendia du bere jardunaren gune eta termino horri, “-zale” atzizkia gehitzen zaio mendizalea izendatzeko “egilea, banatzailea edo zaletasuna” adieraziz (Santurtziko Udal Euskaltegia).

Aurreko bien aldean, aerobic jardulea definitzeko gure hizkuntzak ez du terminorik. Kirol praktikaren izena eta ondoren jardule adierazi beharrean gaude aerobic praktikatzen duena izendatzeko. Aerobic egiten duenari ez diogu “aerobiczalea” edo “aerobiclaria” deitzen, izen horiek ez dira agertzen hiztegi entziklopedikoetan. Aerobica praktika berria izanez, hizkuntzak oraindik onartu ez duen kategoria sozial bat da, identifikazio falta horrek identitate eraikuntza estaliz eta egileei kirolari arrunt gisa aurkezteko aukera bakarra emanez.

Mendizale, aerobic jardule eta futbolari izateko baldintza beraz mendira joan, aerobic egin eta futbolean jokatzea da. Eta rol sozial horien eskubide eta betebeharrak, kirolen barne logikak, “rol soziomotorrek” (Parlebas, 2001, 399) adieraziko dituzte. Mendiko espazioa aztertu, aerobiceko begiralearen mugimenduak jarraitu, futbolean jaurtiketa gurutzatua eginez atezaina engainatu… guztiak, mendizale, aerobic jardule eta futbolari “rol soziomotorrek” ematen dituzten aukerak dira. Banakoaren identitatea barne dinamika horietan eraikiko da, kirol testuinguru horietan giza elkarrekintza gauzatuz. Goffmanen hitzak erabiliz, antzerki batean, beste aktoreekin elkarrekintzan (Goffman, 1987). Interesgarria da

ere kirol praktikak egiteko ohiturari buruz E. Vargasek adierazitakoa: jarduera bat aukeratzerakoan, arlo motor berdinean kirolariak duen esperientziak eragina duela hautaketa berrietan (Vargas, 2003, 172). Modu horretan banakoaren identitatea kirol biografiarekin lotuta agertzen da.

Euskal gizartean, aztertzen ari garen rol hauetako bakoitzak joera sozial batzuk agertzen ditu. Mendizalea, nagusiki, 30 urtetik gorakoa da bere sexu generoa mistoa izanez eta gizonezkoak gehiago badira ere emakumezkoek ere rol hori hartzen dute, aste buru eta udako lan oporretan mendira joanez. Aerobic jardulea, 30 urtetik gorakoa emakumezkoa da, aerobicean astegunez arituz. Bukatzeko, futbolaria 30 urtetik beherakoa, gizonezkoa da, aste bukaeratan jokatzeko astegunez entrenatuz. Mendizale, aerobic jardule eta futbolari identitateak nola gauzatu daitezken adierazi dugu, gizarteak ezartzen duen "errealitate sozial birtualak" kirolariaren "errealitate sozial pertsonalean" duen eragina azalduz (Goffman, 2003, 12).

Laburbilduz, "norbera asmatu, ez da asmatzen" (Kaufmann, 2004, 291). Futbolaria izatea futbolean jokatzen lortzen da, mendizalea mendian ibiltzen, eta kirolaria aerobica egiten. Kirolari identitatea jokabide motorrean oinarritzen da eta horrek ematen dio jarduleari besteen aurrean gazte, osasuntsu eta eder aurkezteko aukera. Kirola, gizarte sistemaren irudi agertu zaigun bezala, kirolaria banako aktorearen ispilua da. Mendizaleak, aerobic jarduleak eta futbolariak dituzten ezaugarriek identitate sozial baten irudi dira. Kirolariek hartzen dituzten rolek eraikitzen dute beraien identitatea pertsonala.

Kirolak bultzatzen duen gizartekotzea lanarekin lotutakoa da eta bata ulertzeko bestea ulertu behar da. Praktika fisikoak gizarte baten balore, araudi eta ohiturak bereganatzeko tresna ezin hobeak badira, gizarte horren kide berrientzat, umeentzat alegia, helduen munduan, ez dute funtzio bera betetzen. Lanak bultzatutako bigarren sozializazio honetan kirolak modu indartsu batean identitatea eraikitzen laguntzen du, nagusiki hiritarrek onartuak dituztelako kirolak erakusten dituen "infrakulturak" (Hall, 1981, 57). Gaur egun, banakoaren identitate jokoan sartzen da kirolaren praktika. Etxebestek azaldutako gure aiton amonen

haurtzaroko sozializazio unetik urrun gaude (Etxebeste, 2001): erakunde eta banakoaren mundua da gaur egungo kirolarena.

Hiru kirol praktikei buruzko ikerketa honek nire pertsonalitatearen ezaugarriak praktika fisikoek nola indartzen dituzten erakutsi dit. Ni nolakoa naizen eta kirolak nola laguntzen nauen horrelakoa izaten dira ikasi ditudan jakintzarik sakonenak. Orain nire burua ikerlari gisa aurkeztu dezaket: bere buruaz hausnartzen duen akademikoa.

Bibliografia

Aldalur, I. (2008). *Ingurumen legediari buruzko eskuliburua mendizaleentzat*. Donostia: Euskal Mendizale Federazioa.

Arribas, S., Cano, L., eta Garcia, O. (2002). *Entrenatzaile eta irakasleentzako fitxa didaktikoak: Aerobika*. [s.l]: 397.

Ayerbe, E. (1985). *Mendiak : historia del montañismo en Euskalerria*. Donostia: Etor.

Belden, D. (1994). *L' alpinisme, un jeu ? les notions de jeu, de libre et de nature dans le discours de l'alpinisme*. Paris: Ed. l'Harmattan.

Blanchard, K., Aubet, M. J., Cheska, A. T., eta Norbeck, E. (1986). *Antropología del deporte*. Barcelona: Bellaterra.

Blasco, R. Blog honetan pertsona desberdinen abenturak eta bizipenak kontatzen dira. El Blog de Roge. 2009ko urtarrilak 15ean http://www.blogseitb.com/rogeblasco/?s=Josu+bereziartu gunetik eskuratua.

Borja, J., eta Castells, M. (1997). *Local y global : la gestión de las ciudades en la era de la información*. Madrid: Taurus.

Boudon, R. (1979). *La logique du social : introduction à l'analyse sociologique*. Paris: Hachette.

Bourdieu, P. (1988). *La distinción : criterio y bases sociales del gusto* ([1a. ed.). Madrid: Taurus.

Bourdieu, P. (2000). *La dominación masculina* (2a. ed ed.). Barcelona: Anagrama.

Bourrel, C., eta Seno, M. (1995). *Futbol - entrenatzailea : taldearen prestakuntza eta pedagogia aktiboa*. [Deba]: Deba Bailarako Euskara eta Kirol Zerbitzuak.

Brohm, J.-M. (1982). *Sociología política del deporte* ([1* ed.). México: Fondo de Cultura Económica.

Cagigal, J. M. (1981). *Oh deporte! : (anatomía de un gigante)*. Valladolid: Miñón.

Caillois, R. (1958). *Teoría de los juegos*. Barcelona: Seix Barral.

Castellano, J. (2009). Conocer el pasado del fútbol para cambiar su futuro. *Acción motriz aldizkari digitalaren 2. Zenbakia*. http://www.accionmotriz.com gunetik eskuratua.

Castellano, J., Perea, A., eta Hernandez, A. (2008). Análisis de la evolución del fútbol a lo largo de los mundiales. *Psicothema urtekariaren 20. alea, 4. zenbakia*, 928-932. http://www.psicothema.com gunetik eskuratua.

Castro, U. (2001). *Estudio etnográfico y de la lógica de las situaciones motrices de un juego tradicional desparecido: la Pina.* Argitaratu gabeko tesia, Universidad de Las Palmas de Gran Canaria.

Coelho, M. A. (2004). *La lógica interna de la gimnasia artística masculina (GAM) y estudio etnográfico de un gimnasio de alto rendimiento.* Argitaratu gabeko tesia, Universitat de Lleida, Lleida.

Collard, L. (1998). *Sports, enjeux et accidents*. Paris: Presses universitaires de France.

Comité Internacional Pierre de Coubertain. *Pierre de Coubertain ese desconocido*. Lausanne: Comité Internacional Pierre de Coubertain.

Consejo de Europa. (1992). *Europako Kirol Ituna*. Vitoria-Gasteiz: Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea = Instituto Vasco de Educación Física.

Cooper, K. H. (1968). *Aerobics*. New York: Bantam Books.

Charola, A. (1996). *Manual práctico de aerobic : las claves para un cuerpo vivo*. Madrid: Gymnos.

Dal Lago, A. (1991). *Descrizione di una battaglia : i rituali del calcio*. S.L.: Il Mulino.

Deloitte SL. Kirol Ohiturei buruzko inkesta. 2009ko urtarrillak 15ean http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-714/es/contenidos/nota_prensa/kirol_ohiturak_inkesta/eu_kultura/adjuntos/Encuesta_habitos_deportivos-eu.pdf gunetik eskuratua.

Dodoo, S. (2006). *Les jeux sportifs traditionnels de la region de la Kabylie et culture ludique.* Argitaratu gabeko tesia, Universite Paris V - Rene Descartes (Sorbonne).

Donostiako Udala. Hiztegi entziklopedikoa agertzen da bertan. Entziklopedia Laburra. 2009ko Martxoak 5ean http://www.donostia.org/euskara/entziklopedia.nsf gunetik eskuratua.

During, B. (1990). *Des jeux aux sports : repères et documents en histoire des activités physiques*. Paris: Vigot.

During, B. (1992). *Las crisis pedagógicas corporales*. Málaga: UNISPORT.

Egutegia, A. A. M. (2004ko irailaren 22).

Eliade, M. (2000). *Aspectos del mito* (1 ed ed.). Barcelona (etc.): Paids.

Elias, N. (1996). *Du temps*. [Paris]: Fayard.

Elias, N. (1999). *Sociología fundamental* (2a. reimp ed.). Barcelona: Gedisa.

Elias, N., eta Dunning, E. (1992). *Deporte y ocio en el proceso de la civilización* (2a ed.). México, D.F.: Fondo de Cultura Económica.

Etxebeste, J. (2001). *Les jeux sportifs, éléments de la socialisation traditionelle des enfants du Pays basque.* Argitaratu gabeko tesia, Paris V-René Descartes, Paris.

Etxebeste, J. (2004). La presencia del investigador en la etnografía. Una experiencia en un equipo de fútbol americano de un High School en Reno-Nevada. En A. M. Gonzalez eta E. Requena (Eds.), *Investigación en Ciencias del Deporte* (Vol. Euska Herriko Unibertsitatea, pp. 291-296).

Etxebeste, J. (2008). La metodología de observación participante en praxeología motriz: una ilustración en el caso del fútbol americano y valores educativos en EEUU. *XI Seminario Internacional de Praxiología motriz. Educación física y valores, Nerea C. Estrada&Glòria Rovira (coord). Prensas Universitarias de Zaragoza*.

Eurostat. Europako datu ekonomikoak agertzen dira bertan. Espainia eta Europako Barne Produktu Gordina. 2009ko Urtarrilak 8an http://epp.eurostat.ec.europa.eu/tgm/table.do?tab=table&init=1&plugin=1&language=en&pcode=tsieb010 gunetik eskuratua.

Euskal Futbol Federazioa. Euskal Futbol Federazioaren web orrialde ofiziala. Araudi orokorra 2006-2007. 2007ko Irailak 20an http://www.eff-fvf.org/pub/listarEstatutos.asp?idioma=eu&IdGrupo=4 gunetik eskuratua.

Euskal Herriko Estatutua, LO 3/1979 C.F.R.

Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritzako web orrialde ofiziala. Euskal autonomia Erkidegoaren Aurrekontu orokorrak. 2009ko abenduak 3an http://www.euskadi.net/k28aVisWar/k28aPrin.jsp?hz=e gunetik eskuratua.

Eusko Jaurlaritza. (2005). *Kirolaren euskal plana, 2003-2007* (2. arg. zuz ed.). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco.

EUSTAT. Euskal Estatistika Erakundea. 2008ko abenduak 3an http://www.eustat.es/ gunetik eskuratua.

Fernández, C. (1990). *El fútbol durante la guerra civil y el franquismo*. Madrid: Editorial San Martín.

FIFA. FIFA erakundeak duen web gune ofiziala. FIFA big count 2006. 2009ko Otsailak 5ean http://www.fifa.com/mm/document/fifafacts/bcoffsurv/bigcount.statspackage_7024.pdf gunetik eskuratua.

FIFA. FIFA erakundeak duen web gune ofiziala. Futbol jokoaren arauak 2007/2008. 2007ko irailak 25an http://es.fifa.com/mm/document/affederation/federation/reglas_de_juego_0708_10568.pdf gunetik eskuratua.

Galeano, E. H. (1995). *El Fútbol a sol y sombra*. Madrid: Siglo XXI.

Garate, G. Gotzon Garatek bilduriko euskal atsotitzak agertzen dira bertan. Atsotitzak. 2009ko Otsailak 5ean http://www.ametza.com/bbk/htdocs/garate.htm gunetik eskuratua.

García, M. (2006). *Posmodernidad y deporte: entre la individualización y la masificación : encuesta sobre hábitos deportivos de los españoles 2005*. Madrid: Consejo Superior de Deportes : Centro de Investigaciones Sociológicas.

Geertz, C. (1992). *La Interpretación de las culturas* ([5 reimp.] ed.). Barcelona: Gedisa.

Geertz, C. (1994). *Conocimiento local : ensayos sobre la interpretación de las culturas* (1* ed.). Barcelona [etc.]: Paidos.

Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako probintziako mapak aurkitzen dira bertan (2008). Gipuzkoako Udalerriak. 2008ko abenduak 3an http://b5m.gipuzkoa.net gunetik eskuratua.

Gipuzkoako Futbol Federazioa. Gipuzkoako Futbol Federazioaren web orrialde ofiziala (2006). Araudi zirkularra 2006-2007. 2007ko Irailak 20an http://www.fgf-gff.org/pub/listarCirculares.asp?idioma=ca&IdGrupo=28 gunetik eskuratua.

Goffman, E. (1987). *La presentación del individuo en la vida cotidiana*. Buenos Aires: Amorrortu.

Goffman, E. (2003). *Estigma : la identidad deteriorada* (1* ed.). Buenos Aires: Amorrortu.

González, A. M., eta Requena, E. (2005). *Avances en Ciencias del Deporte*. [Bilbao]: Universidad del País Vasco, Servicio Editorial: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.

Hall, E. T. (1973). *La dimensión oculta : enfoque antropológico del uso del espacio*. Madrid: Instituto de Estudios de Administración Local.

Hall, E. T. (1981). *Beyond culture*. Garden City, N.Y.: Anchor Press-Doubleday.

Hammersley, M., eta Atkinson, P. (1994). *Etnografía*. Barcelona: Paidós.

Harluxet Entziklopedia. Euskal entziklopedia da. 2009ko urtarrilak 15ean http://www1.euskadi.net/harluxet/ gunetik eskuratua.

Huizinga, J. (1972). *Homo ludens*. Madrid: Alianza/Emece.

Inagaki, M. (2007, Irailaren 17tik 20ra). *Reflexiones sobre el cuerpo en el siglo XXI.* Mintegiaren izena: Erritoa, Joko Jolasa eta Kirola Ekialdean eta Mendebaldean, Vitoria-Gasteiz.

Instituto Nacional de Estadística. Espainiako gobernuaren estatistika ofizialak argitaratzen dituen erakundea. 2008ko abenduak 3an http://www.ine.es/ gunetik eskuratua.

Iribarren, T. Diario de Noticias (2009). *Nafarroako egunkaria*, 2009ko Urtarrilak 15ean http://www.diariodenoticias.com/ediciones/2007/08/07/deportes gunetik eskuratua.

Iturriza, A. (1996). *Biografía sentimental del montañismo vasco*. Donostia-San Sebastián: Orain.

Iturriza, A. (2004). *Historia testimonial del montañismo vasco*. Bilbao: Pyrenaica.

Jacobson, R. (1953). *Essais de lingüistique géneral*. Paris: Ediciones Minuit.

Kaufmann, J.-C. (2004). *L'invention de soi : une théorie de l'identité*. Paris: Armand Colin.

Kellermann, W. (1984). *Seguridad en montaña : manual básico para alpinistas y esquiadores de montaña*. Barcelona: Planeta.

Lagardera, F., eta Lavega, P. (2004). *La ciencia de la acción motriz*. Lleida: Universitat de Lleida, Servei de Publicacions.

Lavega, P. (1997). *La litúrgia de les bitlles; Funcions i sentit d'un joc tradicional* (1 ed.).

Le Boulch, J. (1991). *El deporte educativo : psicocinética y aprendizaje motor*. Barcelona: Paidós.

Lee, D. (1950). Codifications of Reality: Lineal and Nonlineal. *Psychosomatic Medicine aldizkaritik, Freedom and Culture Spectrum bookean 1959an 12. zenbakia*.

Lejeune, D. (1988). *Les Alpinistes en France *a la fin du XIXe et au d*ebut du XXe si*ecle vers 1875-vers 1919 *etude d'histoire sociale, *etude de mentalit*e*. Paris: *Ed. du CTHS.

Malinowski, B. (1986). *Los argonautas del Pacífico Occidental : un estudio sobre comercio y aventura entre los indígenas de los archipiélagos de la Nueva Guinea melanésica* ([3 ed.). Barcelona: Península.

Martín, M. (2000). *Aerobic y fitness : fundamentos y principios básicos*. Madrid: Librería Deportivas Esteban Sanz.

Martínez de Pisón, E., eta Álvaro, S. (2002). *El sentimiento de la montaña : doscientos años de soledad* ([1a. ed.). Madrid: Ediciones Desnivel.

Martinez, M. (2006). *Ciencia y Arte en la Metodologia Cualitativa*. Sevilla: Trillas.

Martínez, V. (2003). *Historia y estadística del fútbol español* (2a. ed ed.). [Barcelona]: V. Martínez.

Mauss, M., eta Lévi-Strauss, C. (1991). *Sociología y antropología* ([1a ed.). Madrid: Tecnos.

Medina, F. X., eta Sánchez, R. (Eds.). (2003). *Culturas en juego : ensayos de antropología del deporte en España*. Barcelona: Icaria: Institut Catalá d'Antropologia.

Mellal-Bounaas, N. (2007). *Les jeux traditionnels des Touaregs d'Algérie: logique interne et culture.* Argitaratu gabeko tesia, Université Paris V - Rene Descartes (Sorbonne).

Meyer-Andersen, M., eta Rosenbaum, D. (1987). *Aerobic*. Barcelona: Martínez Roca.

Nafarroako Foru Erkidegoa. Nafarroako Foru Erkidegoko web gune ofiziala. 2008ko abenduak 3an http://www.cfnavarra.es/estadistica/ gunetik eskuratua.

Nafarroako Foru Erkidegoa. Nafarroako Foru Erkidegoko web orrialde ofiziala. 2008ko abenduak 3an http://www.navarra.es/home_es/Navarra/Asi+es+Navarra/Geografia+y+poblacion/default.htm gunetik eskuratua.

Nasarre, E., Pérez Bravo, J., eta Pérez Caballero, J. M. (1984). *Aerobic en familia con Eva Nasarre & Jordi : Para una puesta en forma eficaz y progresiva* ([1.ed.] ed.). Barcelona: Círculo de Lectores.

Navarro, V., eta Trigueros, C. E. (2009). *Investigación y juego motor en España*: Edicions de la Universitat de Lleida.

Parlebas, P. (1998). Jeux d'enfants d'après Jacques Stella et culture ludique au XVIIe siècle. En *A quoi joue-t-on*. Montbrison.

Parlebas, P. (2001). *Juegos, deportes y sociedades : léxico de praxiología motriz* (1a ed ed.). Barcelona: Paidotribo.

Parlebas, P. (2002). Une discipline qui prend son essor. *L'année sociologique. Sociologie du sport en France aujourd'hui, 52.alea, 2.zenbakia,* 249 or.

Parlebas, P. (2003). *Elementos de sociología del deporte*. Málaga: Instituto Andaluz del Deporte.

Peretz, H. (2004). *Les methodes en sociologie l'observation* (Nouv. * ed.). Paris: Ed. La d*ecouverte.

Pérez de Tudela, C. (1996). *Derecho de la montaña : consideraciones jurídicas en relación con el alpinismo, el esquí y otras actividades deportivas en la montaña*. [Madrid]: Desnivel.

Pociello, C. (1995). *Les cultures sportives : pratiques, représentations et mythes sportifs* (1ere éd ed.). Paris: Presses Universitaires de France.

Rousseau, J.-J., eta Armiño, M. (2005). *Emilio o De la educación* (1 ed.). Madrid: Alianza.

RTVE. Espainiako telebista eta irrati publikoaren web gunea. Puesta a punto. 2009ko Martxoak 10ean http://www.rtve.es/archivo/ gunetik eskuratua.

Sahlins, M. (1997). *Cultura y razón práctica : [contra el utilitarismo en la teoría antropológica]* ([2a. ed.). Barcelona: Gedisa.

Saleck, M. O. (1994). *Les jeux sportifs de l'Afrique de l'ouest pre-coloniale : une éthnomotricité originale.* Argitaratu gabeko tesia, Paris V.

San Salvador del Valle, R. (2000). *Políticas de ocio : cultura, turismo, deporte y recreación*. Bilbao: Universidad de Deuston.

Santurtziko Udal Euskaltegia. Euskararen erabilpenari buruzko irizpideak agertzen dira bertan. Atzizkien zerrenda. 2009ko Martxoak 20an http://www.santurtzieus.com/gelairekia/unitateak/3/lagun/atzizkien_zerrenda.htm gunetik eskuratua.

Saussure, F. d. (1983). *Curso de lingüística general*. Madrid: Alianza.

Segurola, S., eta Augé, M. (1999). *Fútbol y pasiones políticas*. Madrid: Temas de debate.

Shaw, D. (1987). *Fútbol y franquismo*. Madrid: Alianza Editorial.

Sociedad Cultural Deportivo Recreativa Anaitasuna. Anaitasuna elkartearen web orrialdean mendiko sailak duen atala; urtean zehar egiten dituzten jarduerak bertan agertzen dira. 2004ko urriak 6an http://www.anaitasuna.com/mont/mont.html gunetik eskuratua.

Taketani, K. (2007). Dialogue about Anthropology and Sociology of Sport and Game: Contribution of Pierre Parlebas. *Iphigeneia: Bulletin of Cultural and Social Studies of Sport, 8. zenbakia, 23-33 or.*

Urdangarin, C. (2009). *Bailando jauzis bajo barras y estrellas: la socialización de los jovenes vascos en Estados Unidos.* Argitaratu gabeko tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Vitoria-Gasteiz.

Urdangarín, C., eta Etxebeste, J. (2005). *Euskal jokoa eta jolasa : transmitiendo una herencia vasca a partir del juego*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Vargas, E. (2003). *Etude comparative de trois pratiques corporelles: L´ aérobic, Le surf des neiges, et le tennis. Comparaison interculturelle entre pratiquants de Paris et Barcelone.* Argitaratu gabeko tesia, Paris V-René Descartes, Paris.

Verdú, V. (1980). *El fútbol : mitos, ritos y símbolos*. Madrid: Alianza.

Villalvilla, H., Blázquez, Á., Sánchez, J., eta Álvarez, J. L. (2001). *Deporte y naturaleza : el impacto de las actividades deportivas y de ocio en el medio natural*. Madrid: Talasa Ediciones.

Vitoria-Gasteizko Udala. Vitoria-Gasteizko web gune ofiziala. Ariznabarra Kiroldegia. 2008ko Ekainak 3an http://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?aplicacion=wb021&tabla=contenido&menu=&menuInicio=&idioma=es&uid=entuo_8_3_1 gunetik eskuratua.

Wahl, A. (1997). *Historia del fútbol : del juego al deporte* (1* ed ed.). Barcelona: Ediciones B.

Walton, J. K., eta Caspistegui, F. J. (2001). *Guerras danzadas : fútbol e identidades locales y regionales en Europa / Francisco J. Caspistegui, John K. Walton (editores)* (1 ed ed.). Pamplona: EUNSA /.

Warnier, J. P. (1999). *Construire la culture matérielle*. Paris: PUF.

Whyte, W. F. (1993). *Street corner society : the social structure of an Italian slum* (4th ed ed.). Chicago: Chicago University Press.

Wood, J. (2008). *How fiction works* (1st ed ed.). New York: Farrar, Straus and Giroux.

Zulaika, J. (1985). *Bertsolariaren jokoa eta jolasa*. [Donostia]: Baroja.